J. URKIZA

KARMELDARRAK MARKINAN (1691-1991) HISTORIA ETA AGIRIAK

KS-5

KARMEL SORTA

Zuzendari: Julen Urkiza

Euskaratzailea: Patxi Uribarren

© *Ediciones El Carmen* (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-066-5
Legezko Gordailua: BI-2568-92

Fotocomposición Didot: S.A., Nervión, 3-6.º - BILBAO

JULEN URKIZA

KARMELDARRAK MARKINAN (1691-1991)

HISTORIA ETA AGIRIAK

Larrea - Zornotza
1992

KARMEL SORTA-5

Patxi Uribarren-i eskerrak
bere euskaratze-lanagatik

Argitalpen au Markinako Udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin egin da.

AURKEZPENA

Liburu hau, Markinako herriarentzat egintza edo gertakari historikoa da; gure begiak lehenagoko egintzetara begiratzera bultzatuz, Markinako Karmeldarren eta herriaren bizitzako gorabeherarik aipagarrienak jartzen deuskuz agerian.

Markinako Karmengo etxeak, esanguraz beteriko bere ibilbidea dela tarteko, gure herriaren izenari ezaguera historikoa ekarri deutso, herriaren zein udalaren harrotasun iturri egiten dogula. Udalak bultzatu eta babestu eban Karmengo etxearen fundazioa, bai 1691.ean eta ondoko urteetan bai Berreraikuntza egintza handiaren hasieran, 1868.ean. Hasieratik ikusi eban Markinako udalak Karmeldarrek Markinari eta bertako eskualdeari ekarriko eutson onegite oparoa.

Liburu honetan Markinako Udalaren eta Karmeldarren artean izandako harreman onak, Karmeldarrek apostolutza eta kultura alorrean, batez ere, Berreraikuntza ostean izandako partaidetza ugaria ikusi daikegu. Egintza honek gure eskerrona eta etorkizunean ere lankidetza osoan ihardutea merezi du.

Lauren Aretxabaleta

Markinako alkatea

AURKIBIDEA

Aurkezpena 7

Hitzaurrea 25

I. MARKINAKO KARMENGO ETXEAREN FUNDAZIOA

1. XVII. MENDEAREN BIGARREN ZATIA: GIZA POLITIKA, EKONOMIA ETA ERLIJIO-EGOERA BIZKAIAN 31

   a. Erakundeen politika 31
   b. Ikuspegi sozio-ekonomikoa 32
   c. Erlijio-egoerari buruzko datu batzu 33
   d. Markina 34

2. KARMELDARREN ORDENA. JATORRIA ETA ZABALKUNDEA: IZPIRITUA, IHARDUERA ETA LEGEAK 36

   a. Jatorria eta zabalkundea 36
   b. Espainiako Karmeldarren izpiritua eta komentuetako bizimodua XVII. mendean 37
   c. Karmeldarren egoera Euskal Herrian 39

3. MARKINAKO KARMENGO KOMENTUAREN FUNDAZIORAKO URRATSAK 42

4. FRANTZISKOTARREN AURKAKOTASUNA 46

5. UDALAREN BALDINTZA BERRI BAT 50

6. KOMUNITATEA: BABESTOKI IZATETIK PRIORETXE IZATERA . 52

II. UNE HISTORIKO BATZU KOMUNITATEAREN BIZITZAN

A. FUNDAZIOA ETA FINKAPEN-GARAIA (XVIII.MENDEA) 56

1. komentu eta elizaren eraikuntzari buruzko datuak 56

2. Harremanak Udalarekin 58

a. Sermoigintza 59
b. Komentuaren lankidetza 59
c. Uraren arazoa 60
aa. Salaketak eta tirabirak 60
bb. Karmengo plazako iturriaren eraiketa 61

3. Tirabirak eliz kabildo eta komentuaren artean 62

4. Karmeldarren bizimoduari buruzko datu batzu 66

a. Karmeldarren "Euskal" Probintziaren sorrera (1706) 66
b. Komunitateari buruzko datu batzu 66
c. Pastoralgintza 68
d. Herriaren partaidetza Karmengo komentuan 69
aa. Betirako oroipenak 69
bb. Testamentuak, jarauntsiak eta legatuak 71
cc. Zentsuak 71

B. FRANTSESTEA ETA ERLIJIOAREN AURKAKO ERASOAK (XIX.MENDEKO LEHEN ERDIALDIA) 74

1. Frantziako iraultza eta haren ideien gerizpean 74

a. Frantziako iraultza 74
b. Markina gerrarako jaikita (1793-1795) 77
c. Karmengo komentua. (Sanitate-Zaingoa bertako atarian) 78

2. Frantsestea (1807-1814): Karmeldarren kanporaketa 80

a. Egoera politiko orokorraren barruan frantsestearen hasiera 80
b. Karmengo komentua salaketa artean 81
aa. Komentuaren aurkako salaketak 81
bb. Salataria agerian jarria 83
c. Karmengo elizan egindako hileta batzu eta kabildoaren protesta (1809) 84
d. Komentua kentzea eta karmeldarren kanporatzea 85
e. Kanporaketa 86
aa. Komentutik kanporatutako erlijiosoak beharrizanean 87
bb. Frai Bartolome Santa Teresa, atxilotua 87
cc. Komentu eta elizaren destinoa: kentzea eta itzultzea 88
f. Egoera politiko-militarra Markinan 90

3. Komentua eskuratzea eta elkarte-bizitza 92

a. Aldaketa sozio-politiko orokorra 92
b. Komentua eskuratzea: Frai Bartolome-ren eginbideak 92

4. Erasoak Hirurteko Konstituzioaldian (1820-1823) eta komentu-bizitza berreskuratze-lanak (1823-1833) 95

a. Hirurteko Konstituzioaldia (1820-1823) 95
aa. Politika eta Erlijio-egoera orokorra 95
bb. Markina eta Karmengo komentua 97
b. Zuzperraldia karlisten hamarkadan (1823-1833) 99
aa. 1823.eko kontraekintza eta erlijioaren leheneratzea 99
bb. Karmeloko nagusiek komentu-bizitza berreskuratu nahiean 100

5. Zerbitzuak eta soldatak komentuan (1800-1839) 101

a. Medikuak 102
b. Zirujau edo barberuak 102
c. Botikaria 102
d. Albaitari - ferratzailea 102
e. Jantzi-garbitzailea 102
f. Orturako eta zamarientzako morroiak 103
g. Arotza 103
h. Organujoleak 104

C. ERASO, GERRA, ESKLAUSTRAZIO, DESAMORTIZAZIO ETA ERBESTERATZE-ALDIA (1834-1868) 105

1. Karlistada eta esklaustrazioen artean (1833-1840): egoera politiko-erlijioso orokorra 105

a. Egoera politikoa eta Eliza Erregearen ondorengotza arazoaren aurrean 106
b. Legegintza antiklerikala 107
c. Desamortizazioa eta esklaustrazioa eta haustura Vatikanorekin 108
d. Egoera karlisten inguruneetan, Iparrean 109

2. Gerren eragina Markinan 110

3. Markinako Karmeldarren esklaustrazioa 111

a. Karmeldarren esklaustrazioa Espainian 111
b. Markinako Karmeldarren kanporaketa 112
c. Karmengo komentuaren eta elizaren destinoa 113
aa. Komentua Udalaren zerbitzurako 113
bb. Huts gertatutako proiektua: Lekaime Asuntzionisten fundazioa Karmengo komentua izandakoan (1852-1853) 114
cc. Konponketak eta zerbitzuak Karmengo elizan 115

D. KARMELDARREN BERRERAIKUNTZA. EUSKALDUNEN EKINTZA HANDIA. MARKINA, HASIERAKO ABIABURUA 118

1. Cándido Gaytan Jna. eta Berreraikuntzaren beste protagonista batzu 119

a. Cándido Gaytan Jna., J.L.Nacarino Bravo Jna. eta Gaytandarrak 119
aa. Gaytandarrak 119
bb. Cándido Gaytan Jna. 120
cc. José Luis Nacarino Bravo (1819-1893) 122
b. Aita Manuel de Santa Teresa 122
c. Aita Domingo de San José 123
d. Aita Pedro José de Jesús María 124

2. Euskaldunak Frantziako Karmeloren Berreraikuntzan 125

a. Euskaldunen emigrazioa: berreraikuntzaren iturburua 125
b. Garapen eta ugalketa fundazioetan zein erlijiosoen kopuruan 126

3. Egoera esklaustrazio-garaian. Espainiako Karmelo berreraikitzeko nahiak eta ahaleginak 127

a. Ordenako nagusiak eta haien menpeko Karmeldarrak esklaustrazio garaian 127
b. Aita Maldonado-ren iharduerak eta beraren berreraikuntza-ahaleginak 128
c. Komentuak Karmeldar bizimodua egiteko ahaleginetan 131

4. Aita Manuel de Santa Teresa eta Cándido Jna.: benetako Berreraikuntza-ahalegina Lazkaon (1867) 132

a. Halabeharrezko hasiera 132
b. Madrilera. Harreman garrantzitsuak berreraikuntza-bidean 133
aa. Aita Maldonadorekin 134
bb. Madrilen Valmediano-ko markesarekin eta Villafranca-ko kondearekin 134
cc. Elkarrizketa Erreginarekin 135
dd. Harreman gehiago 136
c. Ministeritzetan, dekretua lortzeko lanetan 136
aa. Kondea Ministeritzetan 136
bb. Ordenak eta Gipuzkoako agintariek Ministeritzari eginiko eskariak 136
cc. Aita Maldonadoren eragozpena eta erreakzio ezberdinak 138
d. Aita Domingo de San José eta Aita Manuel, Aita Maldonadoren kexapean 141
aa. Aita Manuel Frantzian itxaroten 141
bb. Gutunak eta kexak 142
cc. Liburuskaren argitalpena eta erreakzioak 143
e. Gaytan eta Nacarinok dekretua lortzeko eginiko ihardunak 144
f. Valmedianoko markes Jnaren ezetza 147
g. Emaitzak 150

5. Karmeldar bizitzaren berreraikuntza Markinan (1868) 150

a. Aita Maldonado eta arazo juridikoa 151
aa. Aita Santuaren laguntza 151
bb. Aita Maldonadoren oztopoa eta ondorioak 152
b. Etxe bila 154
aa. Gaytan Kondearen etxe bat 154
bb. Avila, Burgos, Larrea eta Markinan egiteko ahalbideei buruzko eritziak 154
c. Lehen kudeaketak Markinako Karmengo komentuaren alde 157
d. Aita Jeneralaren etorrera eta fundazioa egin arteko azken kudeaketak 159
aa. Aita Domingoren etorrera 159
bb. Kudeaketak Gasteizen eta Markinan 160
cc. Madrilera. Azken kudeaketak 163
dd. Markinako karmeloren Berreraikuntza (1868-VIII-14) 166
ee. Aita Domingo eta lehen komunitatea 168
e. Komentuaren konponketa: irekiera ospetsua gertatzen (1868-X-15) .. 169

6. Berriro erbesteratze-zoritxarra. Kentze berrien eta iraupenaren artean (1868-1871) 172

a. Gobernuen eta politika sozio-erlijiosoaren aldaketak orokorki 172
b. Markinako Karmengo komentuaren kentze berria (1868.eko urria) ... 174
c. Donibane-Lohizune eta Markina artean: karmeldar bizitzaren berreskuraketa 176

aa. Donibane-Lohizunera 176
bb. Itzulera isilean Markinako komentura 178
cc. Isiltasunean finkatzea 181
dd. Komentuko bizitza eta nobiziatua sortzea 185
d. Kentze berria edo aldaketa 190
aa. Bizkaiko gobernadoren aldaketa 190
bb. Frantziskotarrak kentzea eta larrialdi berriak 191
cc. "El imparcial" egunkaria eta kenduak izateko beldurrez 192
dd. Kentzea edo aldaketa eta Gaytan Kondearen kudeaketak (1870-X) 193
e) Zeruko hodei beltz artean argi-izpiak 200
aa. Aurretikoak 201
bb. Markinako Karmengo komentua babestuta dago 201
cc. Berrespena 202
f. Fundazioen saioak (1871-873) 202
aa. Fundazio berri baten beharrizan larria eta kudeaketa berriak 203
bb. Markinako fundazioa indartzen 206
cc. Abando - Bilbo 207
dd. Toulouse 209
ee. Hiru saialdi Kantabrian 211

7. Bi Kongregazioen elkarketa (1873-1875) 215

a. Itxaropen berriak 215
b. Elkartze-bidean azken urratsak 217

8. Berrreraikuntzaren berehalako zabalkundea 226

a. Erdiprobintziaren sorrera 226
aa. Larrea (1876) 226
bb. Avilako La Santa (1876) 230
cc. Desierto de Las Palmas (Castellón) (1876) 231
dd. Burgos (1877) 233
ee. Segovia (1877) eta Alba de Tormes (1878) 234
b. Nafarroako S.Joakin Probintziaren sorrera (1879) eta etengabeko fundazio-eskabideak 234
c. Probintzia berriaren eraiketa (1889) eta hedakuntza handia 239
d. Markinako karmengo komentuko datu estatistiko batzu (1877-1900) . 240

E. MARKINAKO KARMENGO KOMENTUA: BERRERAIKUNTZA ONDOKO GARAPENA (1875-1933) 242

1. Komunitatearen garapena 242

2. Egoera sozio-politiko-militarrak eta Karmengo komentua 245

3. Udala eta Karmengo komentua 248

a. Urak 248
b. Obrak 249
c. Kanposantua ortuan 250
d. Karmengo jaiak eta elizbirak (1890-1925) 252
e. Beste xehetasun batzu 254

4. Apostolu-zerbitzua eta parrokiak (tirabira batzu) 254

a. 1871 (eta 1959) 255
b. 1912 256

5. Komentu-bizitza: gertaera batzu 259

a. Misio-bultzada 259
b. Markinako Moja Karmeldarren fundazioa (1890) 260
aa. Aurretikoak (testamentua eta lizentziak) 261
bb. Fundazioa 262
cc. Fundazio eskriturak: betebeharrak eta baldintzak 262
dd. Eliza 263
ee. Ama fundatzailea 264
c. S.Teresaren beatifikazioaren hirugarren mendeurrena (1914) 264
d. Kapitulu probintzialak Markinan 264
e. Berreraikuntzaren 50. urtemuga (1918). Jai handiak 268
aa. Prestaketa 268
bb. Jai handien kontaketa (Abuztuaren 15-19) 269
cc. Eskerrak udalari 274
dd. Jai gomutagarria Bergaran 275
ee. Villafranca-ko Kondearen mintzaldia 275
f. Probintziaren zatiketa (1925-1927) 276
aa. Zatiketa: 1925-1927 277
bb. Beste zatiketa ahalegin ustel batzu (1931-1943, 1975) 281

F. GERRA ZIBILA ETA BERAREN ONDORIOAK (1934-1941). MARKINAKO KOMENTUA: ERREPRESIOA ETA BIZIMODUA, TEOLOGIAKO IKASTETXEA ZELARIK 285

1. Egoera sozio-politikoa eta erlijiosoa orokorrean: 2. errepublika (1931-1936) 285

a. Eliza: datu estatistikoak 285
b. Errepublikaren eta beraren antiklerikalismoaren hasieratik Eusko Jaurlaritza eratu arte (1931-1936) 285

2. Markinako Karmengo etxea eta gerrate lehen hilabeteak (1936-1937) ... 287

a. Gerra hasierako komunitatea ... 287
b. Sakabanaketa ... 287
c. Komentura itzultzea eta errepresioa ... 289

3. Gainerako geraldia nazionalen pean ... 290

a. Komunitate berria eta Teologiako ikastetxea (1937) ... 290
b. Aita Silverio de S.Teresa, Definitore Jeneralaren ikustaldi kanonikoa (1937.eko iraila) ... 290
c. Aita Sergio de S.Teresa Probintzialaren ikustaldi kanonikoa (1937.eko abendua) ... 291
d. Markinako Kapitulu Probintziala (1939.eko apirila) ... 292
e. Gerraren amaiera: salaketak eta espetxeak ... 294

4. Komentuko bizitza eta Teologiako ikastetxearen iharduera (1940-1948) . 296

a. Ordena sakratuak ... 296
b. Ospe handiko Karmengo Amaren bederatziurrena (1940) ... 297
c. Misio santuak (1942, 1947) ... 297
d. Bi mendeurrenen ospakizuna ... 298
aa. Joan Gurutzeko Santuaren 4. mendeurrena (1942) ... 298
bb. Berreraikuntzaren 75. urtemuga (1943) ... 299
e. Konponketa batzu komentuan eta elizan ... 299

G. BULTZADA BERRIA GAUR EGUNERA ARTE (1948-1991) ... 300

1. Gizarte, politika eta erlijio-egoera orokorki frankismoaren garaian (1939-1975) ... 300

a. Gerraren amaieratik Konkordatua egin zen arte (1939-1953) ... 301
b. Konkordatutik Vatikanoko II. Kontziliora arte (1953-1965) ... 302
c. Kontzilio osteko hamarkada (1965-1975) ... 303

2. Ikasketen aldaketa Karmengo komentuan (1948-1968) ... 304

3. Hainbat urtemugen ospaketak ... 305

a. Eskapularioaren VII. Mendeurrena (1950-1951) ... 306
b. Omenaldia Lisieux-eko Teresa Doneari ... 307
c. Karmeldar Erreformaren IV. Mendeurrena (1562-1962) ... 308
d. Markinako Karmengo Komentuaren Berreraikuntzaren I. Mendeurrena (1868-1968) eta Ordenako Aita Jeneralaren ikustaldia ... 308

e. Markinako Karmengo etxearen fundazioaren III. Mendeurrena (1691-1991) 310

4. Gorabehera ezatseginak: Goardia zibila komentuan 311

a. Aurretikoa: Aita Migel Mariren sermoia salatua eta zigortua (1968) . 311
b. Araketa eta itaunketa (1973.eko abuztua) 313
c. Oihartzuna prentsa idatzian 315

5. Garai berria (1968-1985). Hirurteko baten kontaketa kroniketan 316

a. Garai berria 316
b. Kroniken testu osoa (1969-1972) 316
c. Apostolutza-konpremezuei buruzko datu batzu eta elizbarrutiarekin lankidetzan 321

6. Konponketak eta apainketak. Organo berria 324

a. Konponketak eta apainketak (1949-1990) 324
b. Organoa 326

III. JABETZAREN HISTORIA: KOMENTUA, ELIZA ETA ORTUA

A. KOMENTUA. BERAREN JABETZA ZIBILAREN BILAKABIDEA .. 332

1. Aurretikoak 332

2. Jabetzaren geroagoko bilakabidea 333

a. Jabetza 333
b. Gozamena 334

B. KARMENGO ELIZA 337

1. Aurretikoak 337

2. Elizaren jabetzaren geroagoko bilakabidea 338

a. Esklaustrazio garaian zehar (1839-1868) 338
b. Berreraikuntza garaia eta osteko urteak 338
c. Azalpena Bilboko apezpikuei (1977) 339

C. ORTUA 340

1. Aurretikoak: jabetza kendu arte 340

2. Ortuaren jabe berriak eta berreskuratzeko ahaleginak 341

3. Oinordekoak eta dohaintza bi karmeldarri 343

4. Jabetzaren eskurapena lortu arteko azken urratsak 344

IV. KARMENGO KOMENTUKO BIZITZA: IHARDUERA ETA ERAGINA

A. KOMENTUKO BIZITZA: NOBIZIATU ETA IKASTETXE GARAIETAN 350

1. Otoitza eta bakartadea; erlijio-alorreko betebeharrak 350

2. Nobiziatua 353

3. Ikasleen etxea 354

a. Filosofia zein teologiako ikastetxea 355
aa. Garapena eta estatistikak 355
bb. Gaiak, egutegiak eta ordutegiak 356
cc. Onarpen-sistema eta notak 357
dd. Eztabaida teologikoak 358
ee. Ospakizunak eta ekitaldiak 360
b. Humanistika-ikastetxea edo batxilergoko azken urtea 361
aa. Garai berria eta garapen estatistikoa 361
bb. Ordutegiak eta egutegiak 362
cc. Ikasgaiak eta irakasleak 363
dd. Kalifikazioak 363
c. "Collationes" (Eztabaidak) 364

4. Biblioteka 364

a. Historia laburra 365
b. Bibliotekaren azken kokapena et antolaketa 365

B. APOSTOLUTZA-IHARDUERA 367

1. Markinatik kanpo 367

2. Markinan (eta inguruan) 369

a. Apostolutza-iharduera orokorrak 370
b. Andremariar biziera eta kofradiak 371
aa. Karmengo Amaren debozioa Karmeldarren apostolutza osoaren eragilea 372
1) Hirugarren Ordena 372
2) Karmengo Eskapularioaganako debozioa 375
— Karmengo Kodradia 375
— "Semana Devota" elkartea 378
3) Karmengo Amaren ohoretan eginiko ospakizunak 381
bb. Andre Mariaren debozio eta ospakizun gehiago ("Sortzez Garbia") 384
c. Beste kofradia batzu Karmengo elizan 386
aa. San Joserenganako debozioa 386
1) Esklaustraziorarte 387
2) Berreraikuntza eta bultzada berria 388
3) San Joseren Kofradia 390
4) Betebeharrak, deboziozko egintzak eta datu estatistiko batzu . 392
bb. Praga-ko Ume Jesusen Kofradia 393
1) Fundatzaile eta bultzatzailea: Aita Cecilio de la Virgen del Carmen 393
2) Ume Egintza Santuaren Apostolutza 394
3) Erakuntza kanonikoa Markinan, 1914ean 394
4) Garapena 395
cc. Ume Jesusen S.Teresaren jaierazko bazkuna 398
d. "Pan de San Antonio" deritzanaren Laguntza-Lana 399

3. Sermolari ospetsu batzu 400

a. Aita Jerónimo de la SS.Virgen (Garaigoitia Aguirre, 1848-1921) 401
b. Aita Andrés del S.Corazón de Jesús (José Domingo Arrieta, 1854-1923) 402
c. Aita Tirso de Jesús María (Julián Erdoiza Arizmendi, 1878-1956) ... 403
d. Aita Martín del Purísimo Corazón de María (Martin Uriarte Odriozola, 1879-1960) 404
e. Aita Florencio del Purísimo Corazón de María (León Gortazar, 1882-1963) 406
f. Aita Apolinar de S.José (Pío Ibaibarriaga Oregi, 1882-1846) 407

g. Aita Leoncio (Lontzi) de S.Juan de la Cruz (Pedro Ormaetxea, 1891-1949) 408
h. Aita Rafael de San José (José Sotero Urionagena Garra, 1890-1975) 409
i. Aita Jenaro de la S.Familia (Hilario Larruskain, 1914-1988) 410

C. KULTUR IHARDUERA 412

1. Ikastetxea 412

2. Euskal idazle karmeldarrak Markinan 413

a. Markinako Karmengo etxean komentual izandako idazleak 414
aa. Lehen hiru idazleak 414
1) Aita Miguel de San Francisco (Miguel Ignacio de Zuzaeta, 1745-1814) 414
2) Aita Joaquín de Santa Bárbara eta Aita Francisco de la Cruz 415
bb. Fr. Bartolome Santa Teresa (1768-1935) 417
cc. Aita Gabriel del Corazón de María (Gabriel Jauregi Uribarren, 1895-1945) 421
dd. Aita Emiliano del Niño Jesús (Julián Barandiaran, 1904-1967) .. 422
ee. Aita Narciso de los Angeles (José Antonio Garate Mugica, 1900-1974) 424
ff. Aita Hipólito de la Sagrada Familia (Alejandro Larrakoetxea, 1892-1976) 425
gg. Aita Lorenzo de S.Teresita (Lon Arteaga Bilbao, 1919-1980) ... 428
hh. Aita Lino Akesolo (1911-1991) 428
ii. Aita Nicolás de Jesús (Bizente Batiz Bilbao (1907-) 437
jj. Aita Luis Baraiazarra (1940-) 438
b. Ikasketa urteren bat Markinako Karmengo etxean egin zutenak 439
aa. Aita Agustín de S. Francisco (Francisco Atutxa Bikarregi, 1908-1973) 439
bb. Aita Antonio del Niño Jesús (José Antonio Goiria Muniozguren, 19o8-1990) 440
cc. Aita Santi Onaindia (1909-) 441
c. Beste batzu: 443
aa. Lehen garaietakoak 443
bb. Gerra zibilaren aurre-ostekoak 444
cc. Azken belaunaldia 444

3. Kultura euskaraz 445

a. Bizimodua euskaraz 445
b. Euskal Liburutegi Alkartua 446
c. "Zerutxu" Ikastola 448

aa. Beharrizana eta saioak 449
bb. Omenaldia Aita Zeziliori eta ikatolaren sorkuntza (1964) 449
cc. Berriro komentura 451
dd. Zerutxuren iharduerak 452
d. "Tiki-Taka" eta "Sugar" 453
e. Bertsolari-Batzarrak Karmengo komentuan 455
aa. Hasiera eta antolaketa era 455
bb. Bileraren garapena edo Batzarra 456
cc. Bileren garapena eta amaiera 460
dd. Bertsolaritza eta Markinako Karmengo etxea 461

4. Musika-kultura 461

a. Musika komentuko bizitzan eta liturgian 462
b. Musika-akademia Karmengo etxean 463
c. Aita Domingo de Santa Teresa (Francisco M.ª Ugartetxea Urkieta, 1888-1980) 464
d. Aita Emiliano del Niño Jesús (Julián Barandiaran, 1904-1967) 470

D. HEZIKETA MARKINAN HARTU ZUTEN PERTSONAIA OSPETSU BATZU 472

1. Prelatuak - Apezpikuak 473

a. Bernardo de Jesús (Felipe Arguinzoniz, 1852-1933) 473
b. Aita Valentín de la Asunción (Manuel Zubizarreta, 1862-1948) 475
c. Aita Severino de Santa Teresa (Antonio Eustaquio Aguirrebeitia, 1885-1962) 477
d. Aita Wenceslao del SSmo. Sacramento (Manuel Gómez Fraude, 1900-1955) 479
e. Aita Ambrosio de la Virgen del Carmen (Juan Abasolo Lecue, 1904-1982) 479
f. Aita Luis de Santa Teresa del Niño Jesús (Francisco Irizar, 1906-1965) 482
g. Aita Victor de Santa Teresa (León Esteban San Miguel Erce, 1904-) 483

2. Ordenako Nagusiak - Jeneralak 484

a. Aita Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús (Ezequiel Bilbao Imaz, 1862-1938) 484
b. Aita Silverio de Santa Teresa (Julián Gómez Fernández, 1878-1954) 487
c. Aita Miguel Angel de San José (Miguel Batiz Bilbao, 1916-) 489

3. Santuak 490

a. Aita Juan Vicente de Jesús María (Juan Vicente Zengotita-Bengoa, 1862-1942) 490
b. Aita Zacarías de Santa Teresa (Zacarías Saltarain Vizcarra, 1887-1957) 494

V. MARKINAKO KARMENGO ETXEKO PRIOREAK ETA HILDAKOAK LEA-ARTIBAI ESKUALDEKO KARMELDARRAK HISTORIAN ZEHAR

A: MARKINAKO KARMENGO PRIOREAK (1691-1991) 502

1. Fundazio egunetik Esklaustraziora artekoak (1791-1839) 502

2. Berreraikuntza datatik gaur egunera artekoak (1868-1991) 504

B. MARKINAN HILDAKO ERLIJIOSOAK 506

1. Fudazio datatik Esklaustraziora artekoak 506

2. Berreraikuntza egunetik gaur artekoak 509

C. LEA-ARTIBAI ESKUALDEAN HISTORIAN ZEHAR IZAN DIREN KARMELDARRAK 520

1. Fundazio egunetik Esklaustrazio-garaira artekoak 520

2. Berreraikuntza ostean gaur egun artekoak (1868-1991) 521

VI. KRONOLOGIA

DATA AIPAGARRI BATZU 529

GEHIGARRIAK

I. ARTXIBOAK 535

II. MARKINAKO KARMELDARREN ARTXIBOKO KATALOGOA ... 541

III. MARKINAKO KARMENGO ANTZINAKO ARTXIBOKO AURKIBIDEA 697

IV. AGIRI GARRANTZITSU BATZUREN TESTUAK 721

V. ARGAZKIAK 853

IZENEN AURKIBIDEA 899

HITZAURREA

1. Hirugarren mendeurrena

Edozein gertakariren mendeurrena beti izan ohi da hausnarketa bide eta are gehiago garrantzi handiko gertakari batena denean. Horrela, Karmeldarrek Markinan eginiko fundazioaren (1691) hirugarren mendeurrenak ere, udal, probintzia eta nazioarte mailan izandako esangurari buruzko hainbat gogoeta sortu ditu. Eta Markinak Euskal Herri, Espainia, Amerika, India eta beste hainbat tokitako Karmeldarren historian duen garrantzi izugarria gogora ekartzeak, irrintzi handi baten antzera, Markinako Karmengo etxearen historia ezagutzera eman beharra sortu digu barnemuinetan. Beharrizan hori areagotu egin zaigu, eragile nagusi, batez ere, Cándido Gaytan Villafranca-ko kondea, Domingo de S. José, Pedro José de Jesús María eta Manuel de S. Teresa Aita Karmeldarrak izanik, hasiera 1868.ean Markinan izan zuen Karmeldarren Berreraikuntzaren egintza izugarri eta garrantzitsua gogoratu eta bizitzean. Egin-eginean ere, eragozpenez beteriko berreraikuntza neketsuari hasiera emateaz gainera, Ordenaren batasuna eta zabalkundea ere Markinako etxearen eraginez lortu ziren. Egintza honetan datza Markinako Karmengo etxeak Euskadi zein Espainiako karmeldarren historian garrantzi hain izugarria izatearen iturburua.

Beharrezkoa zen, bada, hain nabarmentasun handia izandako historia liburu batetan argeriko egitea. Horretarako, historiagileren batek iharduera bere gain hartzea falta zen.

2. **Lanaren iturburua eta garapena**

— 1990. urteko azkenaldian, agian zertxobait berandu, fundazioaren hirugarren mendeurrena ospatzen zela eta Markinako komentuaren historia idazteko gonbidapena egin nien zenbait historiagileri. Baina, arrazoi ezberdinak zirela tarteko, ez nuen baiezko erantzunik jaso.

Ni, neu, bestalde, beste argitarapen-lan batzutan buru-belarri sartuta, atean zen mendeurrenerako seriotasun eta ahalegin handiz egin beharrekoa zen lana burutzeko astirik gabe aurkitzen nintzen... Zalantza ugari izan nituen erabakia hartzerakoan. Baina, gai historikoaren bilketa-lan handiena Aita Antonio Unzuetak eta, bereziki, Aita Higinio Gandariasek egina izan ondoren, azken honek artxibo ordenatu eta katalogatu batetan jarria zegoela ikusiz, hilabete batzutan egiteko erabakia hartu nuen.

Lanari 1991.eko martxoaren hasieran ekin nion eta urte bereko abuztuaren amaierako ia bukatua nuen lanaren zirriborrua; ondoren, zenbait hilabetetan lanean jarraitu nuen, garbi idatzita jartzen, xehetasun txiki ugariri irtenbideak ematen, oharrak osotzen...

Hasiera batetan idazlan labur bat egitea pentsatu banuen ere, gero nahiko mardula izatera heldu da, batez ere, sorburua Markinan izan zuen Berreraikuntzako (1868) xehetasun ugari jaso eta eskaintzearen ondorioz.

Egia esan, idazlan hau epe laburregian burutua izan da, honako arrazoiok izan direla tarteko: mendeurrena (1991) atean izatea eta nik, neuk ere zeregin horretan urteak erabili ezin izatea... eta, ondorioz, oso handia izan bada ere lanaren trinkotasuna, begibistakoak dira astiezaren mugak.

— Liburu honek bi atal nagusi ditu: Ia. Hiru mendetako bizimoduaren historia eskaintzen digun sei kapitulu jasoten dituena; historiaren hariari jarraituz eginiko kontaketa horretan, izan duen garrantzia, dinamismoa eta agiri ugariak direla bide, 1867-1868.eko berreraikuntzaren gertakari nagusia nabarmentzen da. IIa. Hiru eranskin: Karmengo Artxiboko katalogoa, 64 agiriren testuak eta argazkien eranskina.

— Ikusi ahal izango denez, zehaztasun handiz eginiko ikerlana da, kontaketaren haria agirien esku utzi dugula, sarritan, behar bada, astunegi gertatzeko arrisku eta guzti. Agiriei leku ugaria egin eta hitz egiten uztean, norberaren ulerkuntza erak baztertu nahi izan dira. Historia honetan, bestalde, bi alde ageri dira. Batetik, galdu egin dira, hainbatetan, fundazio urtetik (1691) esklaustrazio (1839) urterarteko agiriak; aldi honetan, bestalde, Markinako komentua Euskalerriko zein Espainiako beste edozein komenturen parekoa zen... Bestetik, hala baina, Berreraikuntza (1868) ostean, oso agiri ugari dugu eta Markinako Karmengo etxeak aparteko garrantzia hartu zuen: irekirik zegoen komentu bakarra izan zen..., eta bertatik zabaldu zen berreraikuntza.

— Lan honetan agiri bidezko 1.550 aipamen jaso dira, 430 inguru hitzez hitzezko aipamenak, batzu luzeak eta besteak laburrak direla... Testu aipamen horietarik 160 inguru jatorrizko hizkuntzan (ia guztiak gazteleraz) aurkeztu dira; beste 250 inguru euskaratuta, gehienak kontaketa-hariari estu-estu loturik ageri direlarik; eta badira,

baita ere, beste 16 aipamen inguru jatorrizkoa euskaraz dutenak; hauek kurtsibaz aurkeztu ditugu euskaratuak izan direnekin nahasketarik izan ez dadin.

— Lehen garaietako agiri-ezak, hainbatetan mugatu du garai horietako kontaketa historikoa, horretarako, Markinako Udal Artxiboko (MUA) agiriak erabili direla.

3. **Eskerrak ematea**

Ikerketa eta azterketa burutu izan dudan hilabeteetan zehar harrera guztiz ona eskaini eta askatasun osoa eman didate bazter guztietan. Horrela, esaterako, eskertzekoak dira Markinako udal artxiboan eman dizkidaten erraztasunak; beste hainbeste esan daiteke Markinako Karmengo artxiboan zein Karmeldarren Probintziako Gasteizekoan... jasotakoari buruz.

Baina, era bereziz eskerrona agertu behar diot Begoñako Karmelon bizi den Aita Patxi Uribarreni, ahalegin handia egin eta aldi luzea erabiliz testua, gaur egun irakurleak eskuetan duen eran, euskaraz jarri duelako. Euskaratua izan den historia arloa, bestalde, ordenagailu bidez egin duenez, hainbatetan erraztu du inprimategiko lana eta arindu kostuen zama. Nire eskerronak berari.

Nire eskerrona, era berean, Markinako udalari eta bertako alkateari eta Bizkaiko Foru Aldundiari, liburu hau argitaratzeko emaniko dirulaguntzagatik; oso zaila izango zen, laguntza hori gabe, argitaratu ahal izatea.

4. **Bibliografia et Artxiboei dagokien alorra (siglak)**

Lan hau, orain arte ezkutuan izan diren zenbait artxibo-iturri erabili eta aztertuz burutua izan da... Hala ere, bi argitarapen gogora ekarri nahi ditut, bata Markinako hiriari dagokiona eta bestea Markinako Karmengo etxeari buruzkoa.

— Juan J. MUGARTEGI, *La Villa de Markina. Monografía histórica*, Bilbao 1927. Monografia honek, batzutan, aipamen luzeak, Markinako artxiboko agiriak jasoten ditu; beraz, fidantza osoko agiriak erabili eta aipatzen ditu. Era berean, orrialde gutxi batzutan bada ere, Karmengo etxearen eraikuntzari eta bizitzari buruzko datuak ere ematen ditu.

— SILVERIO DE SANTA TERESA, *Resumen histórico de la restauración de los Carmelitas Descalzos en España, 1868-1918*, Burgos 1918. Lan hau Markinan egindako zen Karmeldarren Berreraikuntzaren 50.urtemuga (1968-1918) ospatzeko egina izan zen. Aita Silverio-k agiri onak erabili zituen baina iturri zehatzak aipatu gabe; horrela, sarritan, testu luzeak aipatzen ditu, baina, eskuskribua non dagoen esan gabe, gaur egun Burgos-eko "Archivo Silveriano" deritzanean aurkitzen diren agiriak (jatorrizkoak zein kopiak) izan zirela uste bada ere. Aipamen horiek, dagozkien jatorrizko agirietan egiaztatu ahal izan ditut.

Hara, bada, liburu bi horiek kontutan hartzekoak dira, batez ere, gai honi buruz lehen aldiz argitaratuak direlako zein agiri ugari eskaintzen digutelako.

SIGLAK

Artxiboak:

BAS	*Burgos-eko "Archivo Silveriano".*
Correspondencia	*"Correspondencia espistolar del Exmo. Sr. Cándido Gaytan de Ayala con los Padres Carmelitas y otros personajes sobre la Restauración carmeltiana de 1868"* (Fotokopia: MKA, A-III-1-3an; jatorrizkoak gaur egun Donostian, Villafranca-ko egungo kondearen jabetzapean daude).
GPKA	Gasteizeko Probintziko Karmeldarren Artxiboa.
KKA	Kalagurriko Karmeldarren Artxiboa.
LKA	Larreako Karmeldarren Artxiboa.
MBN (BNM)	Madrileko Biblioteka Nazionala.
MKA	Markinako Karmendarren Artxiboa.
MLKA	Markinako Lekaime Karmeldarren Artxiboa.
MPA	Markinako Parrokiako Artxiboa.
MUA	Markinako Udal Artxiboa.

Argitarapenak:

ADG	*Acta Definitorii Generalis O.C.D. Congregationis S.Eliae (1863-1875) et totius Ordinis (1875-1920).* (Ed. Antonius Fortes). Roma 1984. XXXI-864 orr. (Monumenta Historica Carmeli Teresiani, Subsidia 2).
BOPSJN	Boletín Oficial de la Provincia de S. Joaquín de Navarra de Carmelitas Descalzos.
HCD	SILVERIO DE SANTA TERESA, *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América.* 15 t. Burgos 1935-1953.
MUGARTEGI, *La villa de Marquina*	Juan J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina. Monografía histórica,* Bilbo 1927.
SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*	SILVERIO DE SANTA TERESA, *Resumen histórico de la restauración de los Carmelitas Descalzos en España, 1868-1918*, Burgos 1918 VIII-289 orr.

Julen Urkiza
Larrean (Zornotza) 1991.eko abenduaren 14ean.
Joan Gurutzekoaren heriotzearen 4.Mendeurrenean.

I

MARKINAKO KARMENGO ETXEAREN FUNDAZIOA

1. XVII. MENDEAREN BIGARREN ZATIA: GIZA POLITIKA, EKONOMIA ETA ERLIJIO-EGOERA BIZKAIAN

Sarrera gisa Markinako Karmengo komentua eraiki zen garaiko Bizkaiko egoera orokorrari eskainitako lerro labur hauetan, handizkako ikuspegi orokorra aurkeztu ahal izango dugu bakarrik.

a. Erakundeen politika

XVII. mendearen bigarren aldeko Bizkaiko egoera sozio-politikoa, Bizkaiko erakundeen egituraketaren hastapen berri bilakatu zen 1630.eko *«Konkordiak»* taiututa zegoen: horrela, gelditu egingo ziren Jaurerri barruan elizate eta hirien artean izandako etengabeko haserraldiak, gatazkaldiak eta auziak; hiriek XVI. mendean Jaurerritik aldendu eta gorputz politiko berezia egituratzeko ahaleginak egin zituzten eta egoera hau guztientzat gertatu zen kaltegarri.

«Konkordia» egin ostean, nolabaiteko batasun politikoa jazo zen Antzinako Erregimenean zehar, hau da, XIX. menderarte aldatu ez zen foru sistema oso aurreratu baten erakunde-organigrama zela bide.

Batzar Nagusietan ordezkatuta aurkitzen ziren Jaurerria osotzen zuten elementu osagarri guztiak:

— Lur laua: 72 elizatek botu bana zeukaten Batzarretan.
— 21 hiriek 21 botu zeuzkaten.
— Enkarterriek ordezkari bat bidaltzen zuten, baina geroago beste bost.
— Durangoko Merinaldeak beste botu bi[1].

[1] Ik. adibidez: G. MONREAL, *Las instituciones públicas del Señorío de Vizcaya (hasta el siglo XVIII)*, Bilbao 1974, LI-475 orr.; F. DE SAGARMINAGA, *El gobierno y el Régimen Foral del Señorío de Vizcaya...*, 8 t. Bilbo 1892. (4 t. 1928-1935).

Ikuspegi politiko-militarrari zegokionean, 1681-1693. urteetan, behin eta berriro nabaritu zelarik, Frantziako armada Gipuzkoan sartzeko etengabeko beldurrari aurre egiteko, Bizkaiko Diputazioak bertako herriei defentsarako gertatzeko deia egin zien.

b. **Ikuspegi sozio-ekonomikoa**

— *Burdinolak:* XIX. menderarte, Euskal Herrian, batez ere Bizkaian, burdina-industriaren produkzio-bide izan ziren. XV. mendean sektore hau guztiz erakundetuta zegoen. 1440.eko *Bizkaiko olagizonen foruak*, 1474.eko *Markinako olagizonen foruak* eta abarrek burdinolen garrantzia ematen dute aditzera. XVII. mendean sektorea eragozpen artean aurkitzen zen. Lehiakidetasunak edo zailtasunak sortu ziren Gipuzkoaren eta Bizkaiaren artean, esaterako, 1687.ean. Urte horretan Bizkaiko burdinolen egoerari buruzko ikerketa egin zen; 275. burdinolen artean bakarrik 147 ari zirela lanean, gainerako 128ak geldirik zeudela agertu zen. Era berean, kexak izan ziren hainbeste minerale ateratzearen ondorioz, berauek gutxituta eta agortuta zeudela eta[2].

— *Merkataritza:* Historikoki euskaldunen artean garrantzi handiko iharduera izan da. XVI. mendean merkataritzaren zabalkunde handia izanda gero, XVII.ean krisialdia agertu zen merkataritzaren berrantolaketa ekarri zuelarik.

Batez ere Bilbok, XVII. mendeko lehen hamarkadatan, kanpoko jende eta dirua tarteko zela, aurrerakunde handia izan zuen. Kantauriko itsasporturik garrantzitsuena bilakatu zen, merkatari europearren artile-kontratazio gune izatera heldu zelarik. XVII. mendearen erdialdean Gaztelak itsasoz esportatzen zuen artilearen %70a Bilbotik egiten zen. Baina ingeles eta holandarren lehiakidetasunari aurre egin beharra izan zuen. Data garrantzitsua izan zen 1699.ekoa, atzerritarrei Bilboko merkataritzan eskuhartzea praktikoki debekatu egin zien *Bilboko Udal Ordenantzen Erreforma* ekarri zuelako[3].

— *Nekazaritza:* Nahiz eta Bizkaia eta Gipuzkoan burdinolek eta merkataritzak garrantzi handia izan Antzinako Erregimenean, XVI. mendean oraindik nekazaritzak jarraitzen zuen neurri handi batetan Euskal Herriko ekonomiaren abiada markatzen. Baina Bizkaiak ez zuen behar adina elikagairik sortzen; aldaketa handia gertatu zen XVII. mendean; Euskal Herriko kostaldeko nekazaritzaren hazkundea sendotu zen. Aurrerakunde honek, itxura batetan, erantzuna eman zion industria eta merkataritza alorreko krisialdiari. Itsas ertzeko bi probintzietako nekazaritza bultzatu zen, biztan-

---

[2] Estanislao J. de LABAYRU Y GOICOECHEA, *Historia general del Señorío de Bizcaya*, 5 t. Bilbo 1968, 540-541. Ik. E. CALLE ITURRINO, *Ferrerías vascas*, Bilbo 1963; E. FERNANDEZ DE PINEDO, *Crecimiento económico y transformaciones sociales,1100-1850*, Madrid 1974, etab.

[3] Ik. A.CHURRUCA, *Minería, industria y comercio del País Vasco*, Donostia 1951; E. FERNANDEZ DE PINEDO *Crecimiento económico y transformaciones sociales,1100-1850*, Madrid 1974; T. GUIARD, *Historia del Consulado y Casa de Contratación de la villa de Bilbao*, 3 t. Bilbo 1972, etab.

legoa nekazari bihurtzea areagotu zelarik. Aldakuntza guzti horretan zerikusi handia izan zuen «artoaren iraultzak», gorakada handia eman baitzion euskal nekazaritzari, batez ere, Bizkaian. Artoaren ekoizpena gariarenaren parekoa egin zen zonalde batzutan, adibidez, Berango, Kortezubi, Gamiz eta abarretan, toki batzutan handiagoa izatea lortuz. Horrela bikoiztu egin zen nekazal ekoizpena[4].

— *Arrantza:* Hau ere oso iharduera garrantzitsua izan zen Bizkai eta Gipuzkoako kostaldeetan. XIV-XVI. mendeetan balearen arrantza nahiko garrantzitsua izan zen Bermeo, Lekeitio, Ondarroa eta Gipuzkoako beste herri batzutan. Baina Bilbok eta Donostiak eskuratzen zuten merkataritza nagusia. XVII. mendean nahiko indar handia hartu zuen makailoaren arrantzak. Iparraldeko kostaldeak, Groenlandia, Kanada etab. euskaldunen arrantza-leku bilakatu ziren. Baina beste arrain mota batzu, horrela, antxoa, sardina, hegaluzea etab. ere harrapatzen zituzten. XVII. mendearen bigarren erdialdean beherakada handia izan zuen, esaterako, Ondarroan, arrantzak[5].

c. **Erlijio-egoerari buruzko datu batzu**

Euskal Herriaren garapenean garrantzi handiko jazoera, bai izpiritu bai kultura ikuspegiz, izan zen Trentoko Kontzilioa; hain zuzen ere, XVII. mendean Herrialdeko Elizaren garapen-une handia gertatu zen; herriko zein familiako mintzairan euskaldun izatea eta katoliko izatea bat bera izaterainokoa. Apaizen izpiritu-hezkuntza berriztatzea eta kultur heziera hobetzea ekarri zuen, batez ere geroago ezarriko ziren apaizgaitegien bidez. Mende honetan, batez ere XVII.ean, euskarako kristaubideek zabalkunde handia hartu zuten jendearen artean.

Bizkaiko alderik handiena Kalagurriko elizbarrutikoa zen. Hala ere, bertako apezpikuak eragozpenak zituen bere ikustaldiak egitera Bizkaira sartzeko; eta Juan Bernal Diaz de Luco (1545-1556) apezpikua izan zen ohizko zailtasuna gainditu zuena. Markinako Karmengo komentuaren fundazio garaian Pedro de Lepe y Dorantes zen Kalagurriko apezpikua (1686-1700). Bizkaira bere lehen ikustaldia 1688.ean egin zuen; eta 1690.ean bigarrena, hainbat parrokiatan agindu ugari emanez.

Era berean, Bizkaiko gizartean gorantz zihoan Mariaganako debozioa. Adibidez, 1617.ean, Markina-Xemeingo apaiz, agintari eta herriak Mariaren Sortzez Garbia jaia ospe handitan ospatu zuten, horretarako Pedro González de Castillo, Kalagurriko

---

[4] Ik. adibidez: L.M. BILBAO, *La introducción y expansión del maís y su incidencia en la economía del País Vasco*, in: *Historia General del País Vasco*, 6.t. Bilbo 1981, 45-66. orr.; E. FERNANDEZ DE PINEDO, *La evolución del Producto agrícola Bruto en las Vascongadas, 1530-1850 (Primera aproximación a traves de los diezmos y de las primicias)*, in: *Historia general del País Vasco*, 6.t., Bilbo 1981, 7-43. orr.

[5] Ik. adibidez: M. CIRIQUIAIN-GAZTARRO, *Los vascos en la pesca de la ballena*, Donostia 1961; E. DIEZ MONTOYA, *La industria de la pesca en la costa Cantábrica*, Valladolid 1908; J.M. GANDASEGUI, *La industria pesquera en Vizcaya*, Madrid 1936; F. OCAMICA, *La villa de Lequeitio (Ensayo histórico)*, Bilbo 1965; Laureano RUBIO PEREZ, *Ondarroa. Apuntes históricos de una villa marinera durante la edad moderna...*, Bilbo 1986, 128.orr.

apezpiku Jnari onarpena eskatzea erabaki zutela; hark urte eta hilabete bereko 22ko datan eman zien[6].

Sortzez Garbiaren botu hau Bilbon errepikatu zuten agintariek, elizgizonek eta herriak 1620.eko abenduaren 13an S. Frantzizkoko komentuan[7].

Geroago, 1660.ean, Bilboko Udala kexatu egingo zen sermoilari batzuk Maria Sortzez Garbiaren goraipamenik egiten ez zutelako; hori zela eta, egiteko agindu zuen Diputazioak 1663.ean[8].

Hurrengo mendean, batez ere 1732.ean, Euskal Herri osoak eta Bizkaiak ere bai, Aita Santuari Sortzez Garbiaren dogma aldarrikatzeko eskatu zion; dogma aitortzea askozaz beranduago, 1854.ean, heldu zela[9]. Eta gogoratu egin behar dugu Karmeldarrak osotzen zutela, XVI-XVIII. mendeetan zehar, Sortzez Garbiaren alde ziharduen talde bultzatzaile sutsuenetarikoa.

Bertako debozioaren agergarri dugu, baita ere, Bizkaian izpiritu eta gizarte oihartzun handia izan zuen Loiolako Inazio Santuari buruzko adierazpena. 1680. urtean Diputazioak Inazio Santuaren eguna kanonikoki Jaurerrian betebeharreko jaieguna izateko beharrezko eginbideak egiteko agindu zuen. Hala lortu zen 1681.ean: Inazio, Bizkaiko zaindari izatea; horretan zerikusi handia izan zuen Inazio Santuak jatorria Bizkaian (Ondarroan) izateak[10].

d. **Markina**

1355.ean hiri izendatua izan zen. Bertako armarria zelai baten gaineko beste zelai batetan bi otso ibiltari mihiak aterata eta honako orla hau: «M.N. y M.L. Villaviciosa de Marquina» duela ageri da.

Merinaldeko buru zen hiri honek Xemeinen (1952.ean Markinarekin elkartutako herria) XVI.mendean (XVII.ean amaituta) eraikitako Jasokundeko Amaren parrokia eliza handia zuen; eta, baita ere, XVI. mendean eraikitako Elejabarrietako S. Pedroren elizatxoa (1847. ean desagertu zena) eta XVII. mendeko Mesedetako komentua, etab.

1630. urtearen inguruan 1538 bizilagun zituen[11].

---

[6] J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 139-240. orr. MUA, 1.Erregistroa, 12 zk. (Erabakien akta; eskaera: 17-XI-1; ematea: 1617-XI-22).

[7] A.E. de MAÑARICUA, *La Inmaculada en Vizcaya*, Bilbo 1954, 142-135. orr.

[8] E.J. de LABAYRU, *Historia general del Señorío de Bizcaya*, 5.t. Bilbo 1968, 417-418, 425.orr.

[9] J.URKIZA, *Euskal herria gizaldi bat aurretik Maria Sortzez-Garbia dogmaren eske. Erreportai dokumentala*, Karmel 1988-2, 70-75.orr.

[10] E.J. de LABAYRU, *Historia general del Señorío de Bizcaya*, 5.t. Bilbo 1968, 504,507, 515-517. orr.

[11] J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 127.orr.

Bi ibaik, Oiztik datorren Artibaik eta izen bereko haitzetatik datorren Urkok zeharkatzen dute kanpokaldetik, biak ia herrian bertan, Arretxinaga-ko Mikel Santuaren baselizaren azpian, bat egiten dutela, Ondarroan itsasoratzen den ibaia osotuz.

Ondarroatik Trabakura doan errepideak eta Markinatik Elgoibarrera doanak zeharkatzen dute.

2. KARMELDARREN ORDENA. JATORRIA ETA ZABALKUNDEA: IZPIRITUA, IHARDUERA ETA LEGEAK

a. Jatorria eta zabalkundea

XII. mendearen azkenaldian eta XIII.aren hasieratan eremutar bizimodua hasi zuten zenbaitek Palestinako Karmel mendian; bertako kide gehienak Lurralde Santuak defendatzera joandako gurutzatu europearrak ziren. Lehen idazki garrantzitsua, Jerusalem-eko patriarka zen Alberto Apezpikuak 1206-1214. urteen artean idatzitako erregela da; hain zuzen ere berari eskatu zioten bertako eremutarrek Jesukristori bizitza eskainiz, taldean, eremutar bizimodua eginez, iharduteko era.

Nagusi bat izango zuten; gau eta egun Jaunaren hitza hausnartuz otoitzean ihardungo zuten; goizero elkartuko ziren Eukaristia ospatzeko; ondasun guztiak taldean izango zituzten eta, penitentzia, barau eta haratuste egintzak eginez, fede, itxaropen eta maitasunean biziko ziren; nahitaez egin beharko zuten lan, bestalde, eguneroko bizitzako janaria ateratzeko. Jesusi jarraitzeko eredu gisa, inguru haietan bizi izan ziren Maria eta Elias igarlearen presentzia biziko zuten.

Sarrazenoak itzuli ondoren, Karmel-eko eremutarrek beren bizimodua arriskuan ikusirik, 1238. urtearen inguruan Europara migratu zuten. Eta hemen eremutar bizimodua bizi ahal izateko eragozpen handiak izanik, Karmel-go Amaren erlijiosoen elkarteak Europako giro berrira egokitu behar izan zituen bere izpiritua, legeak eta ohiturak eta Inozentzio IV (1247) Aita Santuak onetsia izan ondoren izugarrizko zabalkundea izan zuen. XIII. mendearen azkenerako 150 etxe zaituzten Europan zehar eraikita: hiru Euskalerrian: Baionan (1264), Zangotzan (1277) eta Iruñean (1314) eta geroago Tuteran (1592)[12].

---

[12] Ik. Joaquin SMET, *Los Carmelitas. Historia de la Orden del Carmen. I. Los orígenes. En busca de la identidad* (ca. 1206-1563), Madrid 1987, 401 orr. (B.A.C., 495).

Baina, Karmeldarren Ordenak bizitzeko era berria hartu zuen, izpiritu-mugimendu berria bultzatuz, Teresa de Jesus Santak, mojen lehen fundazioa Avilan (1562) eta Jon Gurutzeko Santuak fraideena Duruelon (1568) egin ondoren. Santak, bere bizitza eta idazkien bidez, izpirituz bete zuen Ordena, batez ere, berak eraikitako Karmeldarren etxeetan Ebajelioa barru-barrutik eta familia giroan bizitzeko tankera berria azaltzen duen *On-bidea* liburuaren eta berak eginiko *Konstituzioen* bidez.

Txirotasun, otoitz eta anaiartekotasun giroa, apostolutzarako garra eta Elizaganako maitasuna nahi zituen; eta guzti hori zerbitzu apalez eskainita.

b. Espainiako Karmeldarren izpiritua eta komentuetako bizimodua XVII. mendean.

Oso emankorra izan zen hainbat alorretan XVII. mendea Espainiako Kongregazioko Karmeldar Teresiarrentzat. Gogoan izan behar dugu mende honetan Eliza Katolikuaren ebanjeliozko pizkunde bizia gertatu zela bereziki Europan zehar. Horrek eragina izan zuen Karmeldarren Ordenan (Espainian, iturburua aurreko mendeko azkenaldian zuten gizarte-politika eta erlijio egoera zela medio, berezitasun batzu zituela), ondorioz hainbat etxe berri eraiki zirela, beraien artean aurkitzen delarik XVII. mendearen azken hamarkadan Markinan eraikia; berau, Aita Alonso de la Madre de Dios, Ordenako Jenerala zela gertatu zen; beraren ondorengo, filosofia eta teologian zeukan jakinduriagatik oso ospetsua izan zen Aita Juan de la Asunción izan zela.

Garai hartan Espainiako Karmeldar Teresiarren Ordenak, misio lurretako iharduera alde batetara utzia zuelarik, honako ezaugarriok zituen:

— Komentuko erlijio-betebeharrak zehatz betetzea, Markinako Karmengo komentua eraiki zen garaian oreka eta zuhurtasun handiagoz bizi zelarik.

— Kontenplazio-bizitza azpimarratzen zen; baina, hala ere, hainbateko lekua zuten bestelako ekintzek.

— Mistika alorreko idazki ugari sortzeaz gainera, jakintsu handiak nabarmendu ziren teologia-filosofia gaietan: 1) *«Artium Cursus sive Disputationes...»*, Ikastaro Complutensea deitua (1624-1628); filosofiari buruzko idazlanak dira; Alcala de Henares eta Madrilen argitaratutako 4 liburuki; 1670.ean Aita Juan de la Asunción karmeldarrak Lion-en «ikastaro konplutenseko» bere *Resumta* lan ospetsua argitaratu zuen. 2) Aldi honetan argitaratu zen, era berean, *Salmaticenses... Cursus Theologicus* ... (1631-1712[1714]) 12 liburuki handitan. 3) Baita *Cursus Theologicus Moralis* (1665-1724) 7 liburukitan. 4) Eskritura santuari buruzko beste Cursus bat argitaratugabea (zati bat 1728.ean argitaratua) ere bai. 5) Era berean, Aita José del Espíritu Santo karmeldarrak: *Cursus Theologiae Mystico-Scholasticae in sex tomos divisus* Sevillan (1710-1712), etc. «Salmanticenses» ospetsuen artean ezin dugu aipatu gabe utzi Antonio de S.Jose (Jose Ugalde) euskalduna[13].

[13] Ik. Higinio GANDARIAS, *Antonio de San José. Estudio bio-bibliográfico*, Altzo (Tolosa) 1972, 162.orr.

— Ikerketa lanetan eta izpiritu bizitzan zihardutelako Karmeldarrak garai horretan karmeldar mojen zein beraien komentuetako elizetan biltzen ziren kristau eliztarren gogo-zuzendaritzan aritzen ziren.

— Sermoigintzari ere ekin zioten beraien elizetan zein kanpokoetan.

— Hurrengo mendean kofradia ezberdinei, hala, Karmengo Amarenari, San Joserenari, Ume Jesusenari eta abarri izugarrizko bultzada emango zieten.

Markinako komentua zuzentzeko eta bertako komentukideen izpiritua hezteko abiabidetzat hartu ziren legeak edota oinarrizko konstituzioak antzinako karmeldarren Erregelarekin batera, 1604.ekoak eta 1658.ekoak izan ziren.

Ezin dugu aipatu gabe utzi, Markinako komentuak fundazio ondoko lehen urteetan jarraitu zuen Karmeldar legegintza; laburpen gisa bertako kapitulu adierazgarrienak edo garrantzitsuenak aipatuko ditut: 1658.ean onartuak eta 1659.ean argitaratuak izan ziren konstituzioak jasoten dituzten 1701.ekoak izan ziren: *«Constitutiones Fratrum Discalceatorum Beatissimae Virginis Mariae de Monte Carmelo Primitivae Observantiae; Congregationis Hispaniae, a SS.D.N.Alex. Papa VII confirmatae, die III julii Anno M.DCLVIII. Pontificatus sui anno quarto. Matriti...Anno M.DCCI».*

Konstituzioek lau atal nagusi zituzten, hemen lehena bilduko dudalarik, berau baita komunitate osoaren eguneroko bizitzako gorabehera nagusiak jasoten dituena:

1.kap.: Karmengo Ordena Teresiarraren helburuez ari zen: *zerik garrantzitsuena karitatea* da, horren zerbitzari direla gainerakoak: esaterako, botuak betetzea etab.; jarraian, ezaugarri berezi gisa otoitz-bizitza zetorren. Legegintza osoak bi helburu hauen zerbitzutan egon beharko zuen.

2.kap.: Eliz otoitza egitea; ardurarik handiena eskatzen da ongi egiteko; matutiak edo irakurgaien aldea gauerdian egitea agintzen zuen.

3.kap.: Gogamen-otoitza: egunero gogamen-otoitz ordu bi izango ziren koruan: goizeko 5etatik 6etara eta beste ordubete arratsaldean.

4.kap.: Sakramentuak, batez ere eukaristia eta aitortza sarri hartzea gomendatzen zuen.

5-7.kap.: Obedientzia, garbitasun eta pobretasun botuak zehatz-mehatz betetzeari buruz zihardute.

8.kap.: Elkarren arteko bizitzari buruzkoa: pobretasunak eta elkar-bizitzak ondasun guztiak: janaria, jantziak, medizinak etab. elkarren artean izatea eskatzen zutela zioen.

9.kap.: Klausura betetzeko erari buruz: ezin zen gelatik eta komentutik beharrizanik eta Priorearen baimenik gabe irten; era berean, erlijioso batek ezin zuen beste baten gelara sartu. Oinarri-oinarrizkoak ziren otoitza eta gelako bakartadea. Zehazturik aipatzen ziren apostolutza eta karitate ihardueretarako irtetzeko zio ziren kasuak.

10.kap.: Limosna eskàtzeko erari buruz ari zen.

11.kap.: Arrotzei eta bidaiei buruzkoa.

12.kap.: Barau-haratuzteak egin beharraz.

13.kap.: Afal ondoan anaiartean egin beharreko *eguneko erruen aitorpenaz.*

15.kap.: Isiltasunari eta jolasaldiei buruzkoa.

16.kap.: Gaisoen zaintzaz ari zena.

17.kap.: hildako anaiez eta beraien alde egin beharreko otoitzez ziharduena.

18.kap.: Prioreen izpiritu erregimenari buruzkoa.

c. **Karmeldarren egoera Euskal Herrian**

Markinako Karmeldar Teresiarren etxearen fundazioa egin zen garaian (1690-1691) karmeldarrak ez zeuden oso zabalduta Euskal Herrian. Avilako lehen etxeko fundazioa egin zenetik (1562) honakook eraiki ziren: Mojen artean: Iruñekoa (1583); Gasteizekoa (1589), geroago 1651.ean Logroinora aldatua; Zumaiakoa (1614) eta Donostiakoa (1663); fraideen artean: Iruñekoa (1587), Korellakoa (1595), Tuterakoa (1597), Kalagurrikoa (1603), Bilbokoa (1618), Lazkaokoa (1641)[14].

Markinakoa eraiki zen aldian beste karmeldar etxe batzu eraikitzeko ahaleginak izan ziren; horrela, Lorenza de Eguia Andreak 1670.eko ekainaren 19ko testamentuan (1688-X-17) bere ondasunak Allon (Nafarroa) karmeldar mojen monastegi bat egiteko utzi zituen (etxe hori Lerman moja karmeldarra zen Angela de la Madre de Dios bere alabak edota honek ezin bazuen Iruñeko karmeldar mojarik antzinakoenak egingo zuela) eta horretarako nahiko ondasun ez bazegoen (hala gertatu zela) Karmeldar Teresiar fraideen komentu bat egiteko; etxea ezin izan zen egin[15].

Karmeldarren beste fundazio bat egiteko aukera Eibarren izan zen 1623.ean, Markinako komentuko *Indice de los papeles del Archivo* deritzanean, testamentu, heredentzia eta legatuei dagokien E ataleko 8.Zkian agertzen denaren arabera: «Testamento del Sr. Juan Bautista de Lixalde otorgado en Madrid ante Franco del Barrio, Escrino Real a 12 de octubre de 1623 en el qual entre otras disposiciones dexó gran parte de su hacienda para que se hiciessse en la Villa de Eybar un colegio de la Orden de la Santa Madre Theresa de Jesús de la Orden del Carmen Descalzo; y si esta Santa Religión no quisiese tomar esta fundación, se haga un colegio de la Orden de San Agustín»[16]. Fundazio hau ez zen egin.

Santa Teresak zuen ospe handiak jarraitzaileak irabazi zituen Bizkaian eta nolabait bideak zabaldu bertan karmeldarren fundazioak egiteko; horrela Karmeldarrek hospizio edo babestoki bat eraiki zuten Bilbon 1619.ean.

---

[14] Ik. L. AKESOLO, *Karmeldarrak Euskalerrian gizaldiz gizaldi*, Karmel 1990-3/4, 313-332.orr.

[15] MKA, ik. A-I-2, 59-73v, 90-94r...; jatorrizkoa: MBN, 2680.esk.


[16] MKA, A-I-1, 20v: antzinako aurkibide honetan aipaturiko hainbat agiri historian zeharko gertakari ezberdinetan zehar, esaterako frantsestean..., galdu ziren; hala galdu zen, hain zuzen ere, 1623.eko agiri hau.

1620.ean Bilboko Santiago parrokian oraindik doatsu zen Teresa de Jesusen kofradia bat eratu zen (1614.ean aitortu zuen Elizak doatsu eta 1622.ean santa)[17].

Eta, hain zuzen ere, Santari debozio handia zion Ignacio de Munibe abatak emango zion hasiera Bizkaiko lehen komentua izango zenari Markinan[18].

[17] MKA, A-I-1: *Indice de papeles del archivo*, 29r.

[18] Bizkaiko Jaurerriak Erregeari bidalitako memorialean (1696-1697) Bizkaiak ez zuela Markinakoaz aparte karmeldarren beste komenturik esaten da (A-I-2, 18r-24r; jatorrizkoa: MBN, 2680.esk. Ikusten denez, 1618.ean Bilbon eraikitako hospizio edo babestokia ez zen komentutzat joten.



CONVENTUS FRATRUM		
1. Pampilonensis	S. Anna	1587
2. Oxmensis	B.V.M. de M. Carm.	1589
3. Corellensis	B.V.M. de M. Carm.	1595
4. Tibellensis	S. Joseph	1597
5. Pennarandensis	S. Joseph	1603
6. Calagurritanus	B.V.M. de M. Carm.	1603
7. Burgensis	B.V.M. de M. Carm.	1606
8. Lermensis	S. Teresia	1617
9. Lucronensis	S. Joseph	1628
10. Lazcanensis	S. Teresia	1641
11. Marchinensis	B.V.M. de M. Carm.	1691
12. Desertum	S. Joseph	1719
13. Rehensis	S. Joannes Bap.ta	1723
14. Balmaseñsis	B.V.M. de M. Carm.	1732
15. Villæ Franchæ	S. Joachim	1734
Hospitia		
16. Flaviobrigense		
17. Numantinum		

CONVENTUS MONIALIUM		
A. Numantinus	SS.mæ Trinitas	1581
B. Burgensis	S. Joseph	1582
C. Pampilonensis	S. Joseph	1583
D. Lucronensis	B.V.M. de M. Carm.	1589
E. Calagurritanus	S. Joseph	1598
F. Lermensis	Incarnatio Dñi.	1608
G. Corellensis	B.V.M. de Ara Coeli	1723

Extra Ord.		
I. Zumayensis	S. Joseph	1640
L. S. Sebastiani	S. Teresia	1663

Dom. Franchini fecit Romæ 1759.

3. MARKINAKO KARMENGO KOMENTUAREN FUNDAZIOARAKO URRATSAK

— *Fundatzailea*

Fundazio honen hasieran pertsona ekimentsu bat aurkitzen dugu: Ignacio de Munibe y Axpe Arancibia lizentziatua, Peñafloridako konteen semea eta Markinako Karmeldarren fundazio-hasieratan Ziortzako Santa Maria kolegiatako abata. Oraindik Salamanca-ko San Bartolome ikastetxean Ikasle Nagusi zela, 1660.ean, Alejandro VII. Aita Santuak Ziortzako abata izendatu zuen[19].

«Santa Teresa de Jesus birjina doatsu eta serafikoari eta beraren seme-alabei» zien maitasunak[20] bere ondasunak Karmeldar Erreformatuen komentuaren fundaziorako Karmeldar Teresiarren esku uztera bultzatu zuen: 1688.eko abenduaren 13an Ignacio de Munibek:»gaur egun eduki eta egin nahi dudan fundazioarako erabiliko diren ondasunen» oroigarria egin zuen[21]; jarraian aipatzen diren dohaintzak zerrendaturik zituen oroigarria Frai Alonso de la Madre de Dios Aita Jeneralari bidali zitzaion:

— Ignacio Ugarte-rena izandako etxe bat eta zortzi ortu t'erdi;
— 21 ortu t'erdi;
— Beste lau ortu;
— 400 estatu gaztaina eta intxaur oletan;

---

[19] J.J. MUGARTEGUI, *Indice general del archivo de la Colegiata de Santa María de Cenarruza*, Bilbo [2]1984, 155. orr., 18. Erregistroa, 8.zk. 1708.ean Matías de Escalzo y Azedo izendatu zuten Ziortzako abata, Ignacio de Munibe abataren heriotzearen ondoren, 11. Erregistroko 13.Zkiko 79. orr.

[20] MKA, A-I-4, 1690-XII-23; A-I-5, 1691-I-19, jatorrizkoa MPA-n.

[21] MKA, G-II-2 / A-I-3, 1688-XII-13.

— Komentuko teilatuak teilaztatzeko 3.000 teila;
— Markinako hiriko teilaetxe gaineko basotxoko zura;
— 7.000 dukata;
— 1.500 dukata berrerositako zentsutan;
— 1.000 zilerrezko dukata eskudirutan eta beste 1.000 zilerrezko dukatatan kalkulatu zen «Aserinzabal» baserria, etc.[22].

Abataren eskaria ongi hartua izan zen; 1689.eko maiatzaren 19an Burgosen egin zen Definitorio Jeneralak onartu egin zuen fundazioa[23].

Eta lanean hasi ziren: Aita Jeneralak baimena eman zion Aita Juan de S. Joaquín, S. Elias Probintziako probintzialari (Euskal Herria Gaztela Zaharrean barrusartuta aurkitzen zen) fundazioa aurrera eramateko[24].

Eta honek 1690.eko abenduaren 31n Salamancan, Bilboko karmeldarren babestokiko nagusia zen Aita Nicolás de la Encarnación menpekoari eman zion fundazioa egiteko agindua, hau da, Markinako Komentu berriaren benetako jabetza har zezan eta eskriturak egin[25].

— *Akordio bila Markinan*

Horrela Ignacio de Munibe Ziortzako Abatak eta Aita Nicolás karmeldarrak fundaziorako baimena eskatu zioten Markinako hiriari. Udaleko *Libro de Decretos* deritzanean 1690.eko abenduaren 23ko datan, fundazioa Hiriaren «izpirituzko onura eta onerako» izango zela ageri da; eta bertako ordezkariek «fundazio horrek hiriari eta inguruko herri guztiei ekarriko dien onura handia ikusiz»... «proposatzen den eran eliza eta komentua eraikitzeko eta jartzeko baimena eta lizentzia» ematea onartu eta erabaki zutela. Baina, Hiriak, era berean, baldintza batzu ezartzen zituen: ez zela inoiz «patroirik» izango eta Markinako alkatearentzat izango zirela elizako aulki nagusia zein ohoreak eta erlijiosoek komentutik kanpo «baserririk edo lursailik eskuratu ezkero, hamarrenak aurretik ordaintzen zitzaienei ordainduko ziela»[26].

Beste baimen garrantsitsu bat ematea Markinako eliz kabildoari zegokion. 1690.eko abenduaren 27an lortua zuten Aita Nicolás de la Encarnación karmeldarrak eta bertako Kabildoak nolabaiteko adostasuna, baina karmeldarrak ez zuenez nahiko ahalmenik kabildoaren baldintzak onartu eta sinatzeko, atzeratu egin zen Ordenaren izenean ahalmen gehiago izan arte.

Aita Juan de San Joaquín Probintzialak 1690.eko abenduaren 31n eman zizkion eskatutako ahalmenak. Eta aste batzu geroago, 1691-I-19an, Karmengo Ordenak Aita

[22] Ik. *Gehigarriak* IV, 1.zk.
[23] BAS, 2.Kut. / A, 6v. orr.
[24] MKA, A-I-5, 1691-I-19.
[25] MKA, A-I-5, 1691-I-19; jator.:MPA. Ik.MKA, A-I-8, 1691-I-31.
[26] MUA, *Libro de decretos..., 1689-1708*, 15r-17r; (MKA, A-I-4).

Nicolasen bidez eta Hiriko eliz kabildoak berronetsi egin zuten akordio edo hitzarmena, Ordenak honako baldintzok onartzen zituela: a) Karmeldarrek «ez dute ez orain ez inoiz hileta, hamarren eta lursoroetako lehen fruituen gainean eskubiderik izango». b) «ez dute irtengo eta ez dute irten ahal izango, gurutzea jasota dutela komentu horretako elizako atetik parrokiari dagozkion aipaturiko eskubideei eta gainerakoei uko eginez»; c) «Kabildoak, bere aldetik onartu egiten du Karmeldarren fundazioa eta ez da inoiz beraren aurka joango, ez orain ez geroago...»[27].

— Eskriturak

Dena gertu zegoela eta fundazio aktak egin aurre-aurrean, udalak ahalmena eta ordezkapena Cristobal de Barroeta, Alkate Jnari eta Nicolas de Ubilla Jnari eman zizkien behin betiko eskriturak egiteko[28].

Horrela 1691.eko urtarrilaren 31n bildu ziren, alde zibilekoak Cristobal de Barroeta alkatea, Juan de Arteche errejidorea eta Francisco de Urquidi sindiku prokuradore nagusia, Nicolás de Ubilla (Juan de Solarle, bigarren errejidorearen ordez) eta Hiritar hutsak ziren Martin Ansotegui, Bernardo Izquierdo, Juan Bautista de Mendizabal, Francisco de Armaola, Antonio de Bidaburu, Joaquín de Garaigoitia, Bernabe de Alustiarte, Diego de Ugartechea, Juan de Ibarra, Martin de Zamacola; eta Ordenaren aldekoa, Aita Juan de S. Joaquín Probintzialaren izenean, Aita Nicolás de la Encarnación karmeldarra. Alde biek ahalmen eta gaitasun guztiak zituztela hitzarmen eskriturak egin zituzten Jose Benito de Aguirre eskribauaren aurrean, 1690.eko Abenduaren 23an hitzartutako baldintza ezagunak onartuz, hau da, ez zela inoiz «patroirik» izango, Markinako Alkatearentzat izango zela elizako aulki nagusia, erlijiosoek komentutik kanpo eskuratutako lursailen hamarrenen ordainketa egingo zutela..., eta, beren aldetik, ez zutela inoiz, ez orain ez geroago elizaren eta komentuaren fundazioaren aurka egingo..., eta berragertu egin zuten «fundazio horrek hiriari eta beraren inguruko herri guztiei ekarriko dien izpirituzko onura handiaren ondorioz onartzen dutela fundazio hori egitea»[29].

— Etxea hartzea eta berronespenak:

Bi egun geroago, 1691.eko otsailaren 2an, eskriturak berronetsiz Aita Nicolás de la Encarnación karmeldarrak hartu zuen «babestokia», bikario zereginetan zelarik; hurrengo urtean priore izendatu zuten zazpi menpeko: bost apaiz eta bi ez-mezako zituela[30].

---

[27] MKA, A-I-5, jator.: MPA.

[28] MUA, *Libro de decretos..., 1689-1708*, (MKA,- A-I-6) 1691-I-31; MKA, A-I-7, 1691-I-31 (ik.MPA).

[29] MKA, A-I-7, 1691-I-31 (Jator.:MPA); A-I-8.

[30] BAS, 2.Kut. / A, *Libro de apuntes*, 10. (GPKA, Markina 3).

Urteak geroago, 1699.eko Kapitulu Jeneralak onartuko zuen Aita Nicolás ordezkariak 1691-1-31n egindakoa[31].

Era berean, Cristobal de Barroeta Alkate Jnak, Karmeldarren fundazio eta zegozkion eskrituren berri eman zuen udalaren 1691.eko otsailaren 26ko batzarraldian eta pertsona batzuri Aita Santuari fundazio honen berronespena, kontserbazioa eta zabalkuntza eskatzeko eta beharrezkoa izanez gero beraren defentsan auzitara jotzeko ahalmena ematea proposatu zuen. Eta kontseiluak ahalmen hau eman zien alkateari berari eta Nicolas de Ubilla Jnari[32], hauek beren aldetik ahalmen hori 1691-V-8an Madrileko Karmeldarren komentuko Aita Priorari ematen ziotela Estatuko agintari egokien (Erregearen eta Gaztelako Goi Kontseiluaren eta gainerako goi agintarien) aurrean aurkez zedin[33].

[31] Ibd., A, 11v; eta Definitorio Jeneralak berriro onetsiko zuen 1699.ean (MKA, A-I-9, 1699-VI-22); MUA, 8.Erregistroa, 13.zk.

[32] MUA, *Libro de decretos..., 1689-1708*, 23-24.orr., 1691-II-26, (MKA, A-I-10). Ik., era berean: MBN, 2680 esk. 13-15 (MKA, A-I-2).

[33] MBN, 2680. esk., 17v-18r (MKA, A-I-2).

4. FRANTZISKOTARREN AURKAKOTASUNA

Karmeldarren fundazioaren aurka lehenengo hasi zena, bere komentuak Markinatik hurbil, Elgoibar, Sasiola, Bermeo eta Izaroko uhartean sakabanaturik zituen Frantziskotarren Ordena izan zen. Horrela Kantabriako Frantziskotarren Probintziaren izenean Juan de Aponte y Chaves Jnak, 1691.eko martxoaren 13an, Markinako «justiziei» otoizlekua eta eraikitako aldea kentzeko eta babestokirik edo komenturik jasoten ez uzteko agintzen zien Erret Agindu bat lortu zuen. Ematen ziren arrazoiak oso generikoak ziren: baimenak, batez ere Erregearena, falta izatea..., Markinan biztanle gutxi eta txirotasun handia zegoela, ezin ziela hiriak bertako parrokiako gastuei aurre egin... eta Karmeldarren fundazioak inguruko eskualdeko komentuei kalte egiten ziela[34].

Baina Bizkaiko Jaurerriak Diputazio Orokorraren 1691.eko uztaileko 3ko batzarraldian esku hartu zuen[35] Frantziskotarrek eskuratutako erret aginduari pasea ematea ukatuz: eta arrazoiak ematen ziren: agindua Bizkaiko Foru legeek zehaztutakoen eta 1677.eko otsailaren 17an Gernikako Arbolaren azpian eginiko Batzar Nagusian agindutakoaren aurkakoa zela, honako hau esaten bait zuen: «que la dicha relisión de los dichos Padres Carmelitas Descalzos pudiese fundar en el distrito deste dicho Señorío sin perjuicio de las repúblicas en cuya jurisdicción quisieran edificar y fundar, como lo hacen en la dicha villa de Marquina» -eta fundazioa elizbarrutiko apezpikuaren baimenaz eta Markinako eliz eta hiri kalbildoen begi onez egina izan zela[36].

---

[34] MBN, 1680. esk., 7-10 (MKA, A-I-2)

[35] Atal honetan beste 1691-VII-2.eko Erret agindu bat aipatzen da (GPKA, Markina 3; MKA, E-I-13).

[36] Batzarraldi horretan "Lekeitioko hirian heuren erlijioko ikastetxea eraiki duten Aita Jesuiten aurkako beste Erret Agindu baten erabilera ukatu zela" ere gogoratu zen.

Miguel Garechana frantzikotarrak, Ignacio de Munibe Ziortzako abatak Karmeldarren fundazioarako egiten zuen dohaintza uste ustelezkoa zela esanez egiten zuen salaketari, abatak berak erantzun zion 1691.eko uztailaren 26ko agiriaren bidez dohaintza benetakoa zela eta berronetsi egiten zuela aitortuz[37].

— *Oztopo gehiago* (Fundazioa salbatzen)

Aurkitzen diren agirietan, urte batzu geroago arazo juridikoak konpondu gabe zirautela agiri da. Horrela, Gernikako Antiguako Amaren zin-elizan izandako Jaurerriko Batzar Nagusietan, 1696.eko ekainaren 27ko batzarraldian Markinako ordezkariak beraien belarrietara Jaurerriak «komentu hori botatzeko Frantzisko Santuaren erlijiokoek eskaturik lortutako erret agindu bati pasea eman diola eta betetzera doala» heldu zela agertu zuen eta agindua Erregeari egokiago berri eman arte indarrik gabe uzteko eskatu[38].

Markinako Udalak Karmeldarren fundazioaren defentsan zihardu en beste instantzia batzuren aurrean ere: horrela, 1696.eko abenduaren 31n «komentua mantentzetik arimentzat sortzen den mesede handia eta onura kontutan hartuz» udalak ahalmenak eman zizkien Erromako Kuriako eta Espainiako Gorteko Prokuradore Nagusiei; era berean, Karmeldarren Ordenako Aita Jeneralari (Madrid) eta beraren Definitorioari «onar eta baiezta zitzala Hiri honek eta bertako eliz kabildoak hitzartu eta itundutako baldintza eta tasunak» eskatu zion; eta, bide batez, «komentu horrek urtean bi aldiz Hiriak izendatutako egunetan eta elizetan sermoia egin beharra izan dezala» baldintza berria gaineratu[39].

Ordenako Aita Jeneralaren erantzunik ez jasotean, 1697.eko martxoaren 12an udalak komentuko Prioreari fundazioa egiteko lizentzia eta baimena indarrik gabe uzteko mehatxua egin zion[40]. Eta bi hilabete geroago, komentuko Priorearen proposamenez, Diputazioari Ordenako Aita Jeneralaren aurrean fundazio eskrituretan ezarritakoaren onarpena babes zezala eskatzea onartu zuen[41].

Arraro samarra da Madrileko Ordenako agintari nagusiari eginiko azken mehatxu edo presio hau; hain zuzen ere, 1697.eko maiatzaren 24ean Aita Juan de la Madre de Dios Ordenako Prokuradore nagusi eta idazkariak agirian jasoten duenez, Alcalá de Henares-en izandako 1697.eko urtarrilaren 19ko Definitorio Jeneralean onartuak izan zirelako Aita Nicolás de la Encarnación Karmeldarrak (Ordenaren izenean) eta Markinako Hiriak edota Ordenak eta eliz kabildoak, gorago aipatu den bezala, izenpetutako baldintza eta eskriturak[42].

---

[37] MBN, 1680. esk., 11r-12r (MKA, A-I-2).
[38] Batzar Nagusien Aktak, 20.t.(*Libro de decretos, 1695-1701*, 35r-35v; GPKA, Markina 3).
[39] MUA, *Libro de decretos... 1688-1708*, 107v-108r, 1696-XII-31 (MKA, A-I-11).
[40] MUA, *Libro de decretos... 1688-1708*, 121v-122v, 1697-III-12 (MKA, A-I-12).
[41] MUA, *Libro de decretos... 1688-1708*, 123v-124r, 1697-V-17 (MKA, A-I-13).
[42] MUA, 8. Erregistroa, 13.Zkia; 31v (MKA, A-I-9).

Seguraski ez zen behar adineko bizkortasunez tramitatu berri hori. Eta ziur aski presio hauek zirela bide Ordenak, Aita Juan de la Madre de Dios Prokuradore Jeneralaren bidez berriro aurkeztu zion onarpen-agiria Erret Kontseiluko Prokuradore zen Diego de Rubira Osorio-ri 1697.eko maiatzaren 24ean, fundazio agiri eta lizentzien eta eskrituretan aipaturiko baldintzen onespenaren historia eginez; eta Diego Jaunak agiri guztiak erabaki zituen 1697.eko Abuztuaren 16an[43]. Eta bi urte geroago, 1699.eko ekainaren 22an, Definitorio Jeneralak, Aita Juan de la Asunción buru zuela, berriro onartu zituen eskrituretako baldintza guztiak[44].

Bien bitartean areagotu egin zen fundazioaren arriskua, Jaurerriko Korrejidorea Markinan agertu eta 1697.eko irailaren 3an Karmeldarrak bi hilabeteren barruan komentutik irteteko exigitu zuelako. Baina Udalak zortzi egun geroago Erregearen aurrean parte hartu zuen Karmeldarren alde ihardunez eta «ikusi izan den doktrina zuzen eta izpirituzko janariaren zioz hiriak eta eskualdeak jasoten zituzten izpirituzko onura handiak» gogoratuz[45].

Arrisku horren aurrean Bizkaiko Jaurerriak, herriaren alde eginez, idazki bat bidali zion Erregeari, Kontseiluaren baimenik ez zuelako, Markinako komentua bota eta desegiteko Erret Kontseiluak emaniko aginduaren aurka: lehen eta behin, gorago aipaturiko arrazoiak indargabetu nahi ziren, batez ere frantzizkotarrek aurkeztutakoak; gero, Jaurerriak lizentziak emateko ahalmena zuela eta horregatik fundazioak ez zuela erret lizentziarik behar defendatzen zen eta adibide modura Gipuzkoako fundazio berriagoak aipatzen ziren, hala, Azkoitiko Birgitarren komentua, Lasartekoa, Hondarrabiko kaputxinoena,... Eta horrela Jaurerriak, Erregeari, ez zezala antzinako foru eta ekandu onen eta ohituren kontra egin eta bizkaitarrak, bestalde, Karmengo Amaren babesa nahi zutenez eta bertako Herrialdean Karmeldarren beste komenturik ez zegoeneaz, baimena eman zezala eskatzen zion hitz hauekin: «no permita se bulneren sus antiguos fueros, buenos husos y costumbres y con ser ellas tan eficaces fía más de la Real Clemencia de V.M. y de lo piadoso del asumpto que motiva esta rrepresentación; la cual consagra el Señorío aun más que a la observancia de sus fueros a la afectuosa deboción de la Virgen del Carmelo de cuya sagrada rrelixión no tiene el Señorío en todo su territorio más conbento que el de la villa de Marquina»... «que sus hijos naturales gocen de la presencia de esta divina Señora junto con el pasto esperitual que les comunican los religiosos de este nuevo conbento y para no verse privados de tanto bien»[46].

— *Eragozpen praktikoa* (ekonomikoa)

Argi dago frantziskotarrek bultzatutako arazo eta oztopo guzti hauen oinarrian limosnen arazoa zegoela; hain zuzen ere, Karmeldarrak Ordena mendikantea (limosna biltzailea) izanik herririk herri limosna eskatzeko eskubidea izatea.

---

[43] Ibd., 29r-32v.
[44] Ibd., 13-18r.
[45] MUA, *Libro de decretos... 1688-1708*, 132v-133r, 1697-XI-11 (MKA, A-I-14).
[46] Memorialak ez dauka datarik (1698. urte inguruan): MBN, 2680. esk., 18r-23v (MKA, A-I-2).

Bai Frantziskotarrek bai Karmeldarrek Aita Santuen pleguak eta agiriak aurkeztu zituzten agintaritza berberaren aurrean; honek 1696.eko abenduaren 4eko auto bidez agiriak Erromako Kongregazio Santura bidali zituen eta Markinako Karmeldarrei ez egiteko eskean hiri horretan ahalik eta «hałako Brebe eta Bulden benetako ulerkuntza» edo behin betiko interpretazioa egin arte agindu zien. Kongregazioak 1698.eko apirilaren 18an Aita Santuen agiriak «ez zutela Markinako komentuaren fundazioa oztopatzen» eta honelako fundazioei mugak jartzen zieten arauak frantziskotarren beraien fundazioei zegozkiela egin zuen agiriko. Guzti hori zela eta, 1699.ean Cristobal de Ipolito Jnak, Karmeldar Erreformatuen Definitorio Jeneralaren izenean erregu egiten zion «Jn.Tx.Argiak agindu hori eta lizentzia eman ditzala» Karmeldarrek, Markinan eta bertako eskualdean hasieratik 1696.erarte egin zuten bezala, limosna eskatu ahal izan zezaten[47].

Bien bitartean, Frantziskotarrek berehala hasi ziren limosna biltze hori beste toki batzutan eragozteko lanetan: horrela, Frai Antonio de Victoria, Elgoibarko Frantziskotarren nagusiaren eskariz Vicente de Arriola apaizak Elgoibarko bere Bartolome Santuaren parrokian 1699-IX-14ko igandean, Karmeldarrei, konkretuki Markinakoei, bere barrutian limosna eskatzea debekatzen zien Nuntzio Jnaren idazki bat irakurri zuen[48].

Beste hainbeste gertatu zen hurrengo igandean, urriaren 21ean, Eibarko Andres Santuaren parrokian[49].

Horrela jakinerazten zion Aita Juan de Jesús María, Markinako komentuko prioreak 1699.eko urtarrilean Madrileko Ordenako Prokuradore Nagusiari Elgoibar eta Eibarko apaizek frantziskotarrek, ustekabean, beren esanetara hartuak izan zirela eta ongi hausnartu gabe egin zutela, bien alde atxakitzat «oso karmeldarzaleak dira» esanez[50].

[47] MBN, 2680. esk., 2r-2v,6r (MKA, A-I-2): agiriak ez dauka datarik; 1696-1697.ekoa da.
[48] MBN, 2680. esk., 3.orr., 1698-IX-16ko data dauka (MKA, A-I-2).
[49] Ibd., 4.orr., agiriak 1698-IX-29ko data dauka.
[50] Ibd., 5.orr.

5. UDALAREN BALDINTZA BERRI BAT

Markinako udalak Karmeldarren alde eta zegokien herri zein eliz agintariek fundazioa onets zezaten eginiko lan handiaren ondoren, bertako korporazioak 1696.eko azken egunean Karmengo Ordenako Jeneralari fundazio eskriturak onesteko eskatzen zion honako hau erantsiz: «komentu horrek urtean bi sermoi Hiriak izendatutako egunetan egiteko betebeharra izan dezala»[51]. Baldintza hau ez zen hasierako fundazio eskrituretan ageri.

Hain zuzen ere, Ordenako Definitorio Jeneralak, Alcalá de Henares-en 1697-I-19an eginiko batzarraldian «komentuari baimena eman zion Hiri horretako jaunen nahiaren arabera beraiek erabakitako egun eta elizetan urtean bi sermoi egiteko betebeharra betiko har zezan»[52]. Hiriak ez zuen honen berririk 1697.eko martxoaren 12an, Ordenak bere eskariari erantzuten ez bazion komentua eraikitzeko emaniko baimena kentzeko mehatxua egin baizuen[53].

Definitorio Jeneralak Madrilen urte bereko ekainaren 22an argi eta garbi onesten zuen baina ez bakarrik komentuari betebehar hori hartzeko baimena emanez, baizik eta betebeharra Definitorioaren gain berba hauen bidez hartuz: «aprobamos y ratificamos la obligación y ofrecimiento de dichos dos sermones de nuevo, y a mayor abundamiento queremos y obligamos a dicha nuestra relixión y al convento a que el P. Prior y relixiosos de él que al presente son y adelante fuesen, prediquen en dicha yglesia de Jemeyn dos sermones en cada un año perpetuamente en los días y festividades que la dicha Villa y sus vecinos señalasen»[54].

---

[51] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 108r, 1696-XII-31 (MKA, A-I-11).
[52] MUA, 8.Erregistroa, 13.zk., 31.orr. (MKA, A-I-9).
[53] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 122v. (MKA, A-I-9).
[54] MUA, 8.Erregistroa, 13.zk., 16v-17r (MKA, A-I-9).

1699.eko uztailaren 7, 8 eta 9an Markinako sei erlijioso komentuko batzarrean bildu ziren Definitorio Jeneralaren azken agiria aztertzeko; Aita Frai Juan de Jesus Maria Prioreak eritzia eskatu zien eta guztiek onartu zituzten fundazio eskrituretako ezagutzen diren baldintzak eta aurrerantzean, beti, urtean bi sermoi egin beharra[55].

Egun batzu geroago, uztailaren 13an, fundazio eskritura guztien onarpen eta baieztapenari eta Karmeldarrek sermoiak egiteko baldintzei buruz berri eman zen Udalean zein Xemeingo elizan sermoiak egingo zituzten egunak izendatu ziren: abuztuaren 15a (Andra Mariaren Jasokunde eguna) eta abenduaren 8a (Andra Mariaren Sorkunde eguna)[56].

[55] MUA, Ibd., 19v-27r.

[56] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 177r-178r; ik.,era berean: MUA, 8.Erregistroa 13. zk., 27v-28r (MKA, A-I-9).

6. KOMUNITATEA: BABESTOKI IZATETIK PRIORETXE IZATERA

1691.eko urtarrilaren 31an fundazio-eskriturak egin ondoren, otsailaren 2an fundazioaren kargu hartu zen «babestoki» gisa Ignacio de Munibe abatarenak izandako etxeetan. Aita Nicolas, ordurako, 1690.eko abenduaren 31n Aita Juan de S. Joaquin Aita Probintziałak Markinako lehen komunitateko buru eta bikari izendatuta zegoen[57].

Hurrengo urtean babestokia Prioretxe egin zuten, bertako priore Aita Nikolas 7 erlijioso (5 apaiz eta bi ez-mezako) lagun zituela izendatuz[58].

Aita Juan de Jesus Maria hurrengo Prioreak, Madrileko Prokuratore Jeneraleri, 1699.ean, 12 erlijioso zirela idatzi zion[59]. 1699.eko uztailaren 7 eta 8ko komentuko batzarretan sei erlijioso botudunen izenak ageri dira:

Aita Frai Juan de Jesús María, Priorea,
Aita Frai Buenaventura del Espiritu Santo, Prioreordea,
Aita Frai Martín de S. Joaquín,
Aita Frai Joseph de Santa Ana,
Aita Frai Buenaventura de San José,
Aita Frai Miguel de Jesús María[60].

Garai hartan komunitateak alboko etxeak eta ondoko lurrak erosi behar izan zituen eta beste lur batzu eskuratu ondoren karmeldarrek komentua eraikitzeko erabakia hartu zuten[61].

1691.ean, erlijiosoek, Ignacio de Munibe abatak emaniko beren etxeetan meza ospatzeko eta eliz otoitza egiteko otoizlekua zeukaten[62].

---

[57] MKA, A-I-5 (Jator.:MPA); ik.,era berean, MKA, A-I-8.
[58] BAS, 2.Kutx. /A: *Libro de apuntes*, 11r.
[59] MBN, 2680. esk., 5, 1699.eko urtarrileko [2] gutuna (MKA, A-I-2).
[60] MUA, 8.Erregistroa, 13.zk., 19v-20r,21v (MKA, A-I-9).
[61] BAS, 2.Kutx. /A: *Libro de apuntes*, 11r.
[62] MBN, 2680. esk., 9r-10r (MKA,A-I-2).

II

UNE HISTORIKO BATZU KOMUNITATEAREN BIZITZAN

Komunitatearen historia zehatza egin beharrean, batez ere agirietan jasoten diren une edo gertakari historiko batzu aurkezteari ekingo diogu.

Hau, batez ere, XVIII. mendeari dagokionean behar genituzkeen agiri gutxi dugulako egiten dugu; hain zuzen ere, Napoleonen gerrate, esklaustrazio eta desamortizazioek eta guda zibilak (1936) Markinako komentuari buruzko hainbat agiriren galera ekarri zutelako, hala nola, urteetan zeharko komentuko bizimoduari buruzko gorabeheren berri eman zezakeen komentuko «Becerro» liburu garrantzitsuarena; Karmeldarren Probintziako Artxiboko oinarrizko agiri batzurena zein Gernikara eramanak izan eta 1937.eko apirilaren 26ko bonbardaketaren hondamena jaso zuten Markinako protokoloena.

Horrela, azpimarragarriak iruditzen zaizkigu: a) XVII. mendean zeharko komentu bizitzako gertari batzu; b) frantseste garaiko eragozpenak; c) esklaustrazioa eta atzerriko bizimodua; d) zabalkuntza handia ekarri zuelarik Ordenaren Berrezarkuntza Euskal Herrian, Espainian eta Amerikako alde ugarietan ahalbideratu zuen Markinako komentuaren berreraikuntza; horregatik garai hau astiroago eta zehazkiago aztertuko da; e) Berreraikuntzaren ondoko garapen historikoa; f) beste proba sozial bat: gerra zibila eta beraren ondorioak, eta g) azken garaia, era berean, hainbatetan Ordenaren zabalkuntzaren iturburua izan dena (1947-1991).

A. FUNDAZIOA ETA FINKAPEN-GARAIA (XVIII. MENDEA)

Aipatu berri denez, XVIII. mendeari buruzko agiriak galtzeak, gai puntual batzu, batez ere Markinako udalarekin eta eliz kabildoarekin izandako harremanak zein komentu eta elizaren eraikuntzari buruzkoak aurkeztera behartzen gaitu.

1. Komentu eta elizaren eraikuntzari buruzko datuak

Lehenago, Ignacio de Munibe fundatzaileak Karmeldarren fundazio berrirako emaniko ondasunen 1688.eko memoriala gogoratu dugu; bertan, lehen eta behin «alboan bi etxebizitzakoa zen Ignacio de Ugarte-rena zen etxea eta etxe horri lotuak eta etxebizitzekin bat eginik ziren zortzi ortu t'erdi» aipatzen ziren[63].

Etxe horretan eman zioten hasiera komentu bizitzari eta bertan otoizlekua jarri zuten eliz otoitzak egiteko eta meza ospatzeko[64]. Laster, komunitateak bere etxearen hormaz horma zeuden beste bi etxe erosi zituen eta komentu bat egiteko asmoa hartu[65]. Oso datu gutxi dugu eraikuntza honei buruz.

1700.eko martxoaren 4ean Karmeldarrek zura eskatu zioten Hiriari komentua *«berreraikitzeko»*[66]; eta 1702.ean komentuko lehen aldea egiten hasi ziren, priore, Aita Jose de S. Jerónimo zelarik; «aipatuko obra Antonio de Vidaburu eta Antonio de Uribarren Markinako hargin maisuek egin zuten»[67].

---

[63] MKA, ik. *Gehigarriak*, IV,1.
[64] MBN, 2680. esk., 9v (MKA, A-I-2).
[65] BAS, 2.Kutx. /A: *Libro de apuntes*, 11.
[66] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 186v-187r, (MKA, A-I-17).
[67] MKA, A-I-18; jator. Protokoloetan, galduta.

Urteak geroago, 1722.ean, udalak laguntzen jarraitzen zuen; oraingo honetan Karmengo eliza eraikitzeko hagak dohainik emanez[68]. 1724.ean eginda zegoen eliza, maiatzaren 7an komunitateak gonbite egin bait zion Udalari *«burutua zuten»* Karmengo eliza berrira egiteko zen aldatze-ekintzara; eta udaleko ordezkariek bertara joan «eta hiri honen zaletasuna eta maitasunari laguntzeko jaiak egin daitezela» erabaki zuten, jaiak gertatzeko ardura Nicolas de Ubilla eta Miguel Ignacio de Barroeta Jnen esku utziz[69].

Aldaketa eguna hurreratzean, 1724.eko abuztuaren 15ean Andra Mariaren Jasokonde jaiegunean egiteko zelarik, udalak jaia gertatu zuen Maiatzaren 5ean, lehenengo «zezenketa jaia egitea erabakiz» eta, bigarren, jaietako gastuak neurriz eta lehenago aipatutakoen gidaritzapean egiteko aginduz[70]. Abuztuaren 15a, eliza berriaren irekiera jaia, egitaraututa zegoen bezala bete zen, dantza eta gainerako alaitasun ezaugarri eta guzti[71].

Antza denez, eraikuntza hauek, udalak «erlijio bereko obra maisua» esakunea erabiliz deitu zuen Marcos de Santa Teresa Anaia karmeldarrak zuzendu zituen; eta Markinako Korporazioak «Marcos anaiaren jakintza eta argitasuna kontutan hartuz» aholkua eskatu zion Markinako etxe batzuren hondaketa arriskuari buruz ere[72].

Hain zuen ere, Karmengo eliza amaitzean, 1724.ean, Anaia Marcos de Santa Teresa, Berangoko parrokiak bertako parrokia elizako barneluzegoa eta dorrea egiteko arkitektotzarako aukeratua izan zen[73].

Bi urte geroago 1726.eko otsailaren 2an jausi egin zen «bertako elizako gurutzeriako obra barria» eta berreraikitzeko laguntza eman zuen udalak[74].

Hurrengo urteetan (1733, 1739, 1769 etab...) Udalak Karmeldarrei laguntzen jarraitu zuen, eraikuntza ezberdinetarako hagak emanez[75].

---

[68] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 5v-6r, 1722-VII-12 (MKA, A-I-26).

[69] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 27.orr., (MKA, A-I-28).

[70] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 27v-28v, (MKA, A-I-29).

[71] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 27v-28v, 1724-VIII-5 (MKA, A-I-29).

[72] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 33.orr., 1725-I-28 (MKA, A-I-31).

[73] Bizkaiko Aldundiko Artxiboa, Korrejidoretzako Artxiboa, Eliz auzien Atala, 2. leg.,5. zk. Zuñigan 1677. urtean jaio zen Anaia Marcos de Santa Teresa 1754.ean hil zen Lazkaoko komentuan. Berak eginak izan ziren "Desierto de la Isla" (Sestao) deritzaneko komentuaren planoak edo orduan deitzen zen taiuketa (1719. urtean); era berean, beraren planoen arabera egin zen Balmasedako komentua (1732); 1716.ean Bilboko udalak eskatuz aipaturiko Anaiak diseinaturiko taiuketaren arabera egin zen Bilboko Santiagoko kanpandorrea; Jaurerriko Korrejidoreak eskatuz, 1724.ean bota zen Durangoko Santa Anako eliza zaharra eta oraingoa Anaia Markosen planoen arabera eraiki; 1725.ean Berangoko parroki elizaren berreraikuntzan planoegile eta zuzendari izan zen; urte horietan Bolibarko Santo Tomas parroki elizaren obrak zuzentzen ageri da; 1731.ean Etxebarriko San Andres elizako obrak zuzendu zituen; 1730.ean Balmasedako San Seberin elizako dorre eta aurrekaldeko planoak egin zituen... Orduan karmeldarrena zen komentuko Arimen aldareko erretaula egiten ziharduela etorri zitzaion eriotzea. Datu hauek Aita Antonio Unzuetak bilduak izan dira: GPKA, B, 1. kutx.

[74] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 42r (MKA, A-I-33).

[75] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 118v-119r, 190v-191r (MKA, A-I-37.41.47); *Libro de decretos...1768-1778*, 65v. 1734.ean ere burdin-hesia eman zien Karmeldarrei: MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 118v,120r, 1734-IV-6 (MKA, A-I-38).

Garai honetako hainbat agiri galdu bazaizkigu ere, Markinako Hiriko *«libros de decretos y acuerdos»* deritzenak direla tarteko, gutxi badira ere, Karmengo elizaren erretaula ezberdinen eraiketari buruzko berriak ditugu. Markinako korporazioak hainbat ekintza bidez eskuhartu zuen Karmengo komentuaren alde.

Horrela, 1732.ean aldare nagusiko erretaula egin zenean udalak diru xehetan 1100 erreal eman zituen[76].

1736.ean amaituta zeuden alboko aldaretako obrak, hau da, Jose eta Teresa de Jesus santuen aldareak; eta udalak Karmeldarren eskariari erantzunez, diru xehetan 600 erreal eman zituen[77]. Udalarekin zuen konfidantza eta lankidetza jokera horretan Aita Francisco de Jesus Maria Karmengo Prioreak 1739.ean ere hagak eskatu zizkion komentuko gaisotegian beharrezko obrak egiteko.

Urte batzu geroago, 1763.ean, egin zen San Antonioren erretaula eta Joaquin Unceta Jnak eta Francisco Antonio bere semeak egina izan zen, obra urtebeteko epearen barruan egiteko baldintza zuela; 2.300 erreal kostatu zen[78].

Badugu aldareak urreztatuak izan ziren unetako berririk ere. Horrela, San Joseren aldarea 1760.ean urreztatu zen: urreztatzailea Manuel Fernández de la Vega izan zen eta 6.275 errealetan egin zuen, horietarik 3.000 Bruno de Ubilla Jnak eta 2.000 Teresa Barroeta Andreak emanak izan zirela, gainerakoa komunitateak jarriz[79].

Baina urreztaketa zeregin hau, batez ere, 1773.ean egin zen. Aldare nagusia urreztatzeko 1773.eko uztailaren 17an, Tolosako auzotar zen Jose de la Quintana, maisu erretaulaegilea kontratatu zuten «20.000 errealetan, hiru zatitan, obraren hasieran, erdira heltzean eta amaieran ordainduz»[80].

Eta urte bereko irailaren 3an «Donostia hiriko zen Juan Manuel Salgado maisu urreztatzaileari» eman zitzaion Santa Teresaren, Sutabean lotutako Kristoren eta Bakartadeko Amaren aldareak urreztatzeko ardura: lana urtebetean amaitu behar zuen. Baina, era berean, Santa Teresa, Santo Domingo eta San Bernardoren irudiak berrukitu beharra ere izan zuen[81].

2. **Hamerranak Udalarekin**

Markinako udal korporazioak emandako laguntza erabakiorra edo ezinbestekoa izan zen Karmeldarren fundazioa lortzeko eta finkatzeko, baita, ikusi dugunez, komentua eta eliza eraikitzeko ere.

---

[76] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 99v orr., 1732-III-14 (MKA, A-I-36).

[77] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 145r,146r; 1736-III-26 (MKA, A-I-39). Udalarekin zuen konfidantza eta lankidetza hau zela eta, Francisco de Jesús María, Karmengo Prioreak 1937.ean hagak eskatu zizkion komentuko gaisotegiko beharrezko obrak egiteko: MUA, 9.Erregistroa, 22. zk., 1739-VI-4 (MKA, A-I-40).

[78] MKA, A-I-44, 1763-V-31, jator.galduta, ik. *Gehigarriak* IV, 63. zk.

[79] MKA, A-I-43, 1760-VII-7, jator.galduta, ik. *Gehigarriak* IV, 63. zk.

[80] MKA, A-I-48, jator.galduta, ik. *Gehigarriak* IV, 63. zk.

[81] MKA, A-I-49, jator.galduta, ik. *Gehigarriak* IV, 63. zk.

a. **Sermoigintza**

Era berean ikusi dugu, udalak, fundazio-baldintzen artean, Karmeldarrek urtean bi aldiz (eta hau betirako) udalaren nahieraren arabera, sermoiak egin beharra lortu zuela.

Oso interesgarria da udal korporazioak sermoigintzan zuen interesa ikustea: «Karmeldarrek herriari heziketa eman diezaiela beren doktrina eta kulturaz». Eta hala ageri da XVIII. mendean zehar udalak Garizuma eta Aste Santuko sermoien ardura ematen ziela[82]. Jeneralean sermoiak Xemeingo parrokian bertan egitea eskatzen zitzaien; baina, baita Markinako San Pedro elizan[83] eta beste eliza batzutan ere. Hiriko *Libro de decretos* eta, batez ere *Libro de cuentas* deritzenetan ageri dira urtero karmeldarrei eginiko sermoi eskariak eta zegokien ordainketa; horrela, adibidez, 1747.ean, Karmengo Prioreari 200 erreal ordaindu zizkioten «Garizuman Elexabarrian egindako sermoiekatik» eta horrela hurrengo urteetan; 1751.ean, 265 erreal «arratsaldekoekatik eta pasio sermoiagatik»; beste hainbeste 1757.ean, etab...[84].

Udalaren aldeko eskariok ia urterokoak izan ziren, korporazioak izandako ardura handiaren eta Karmengo fraideengan zuten konfidantzaren agergarri direla, hori, bide batez, diru-iturri gertatu zelarik komentuarentzat.

b. **Komentuaren lankidetza**

Bere aldetik, kasuan kasu, Karmengo komentua Udalarekin lankidetzan aritu zen. Esaterako, gorago Korporazioak hainbat zerbitzu eskatu zizkiola Anaia Marcos de Santa Teresa karmeldarrari aipatu dugu; eta udalak 1725.ean etxe bat eraiki nahi izan zuenean ere Anaia Marcosen planoen arabera egitea erabaki zuen[85].

Beste behin, 1754.ean, udalak Kalagurriko elizbarrutiko apezpikuaren aurrean Ondarruko apaiz zen Miguel de Brevilla Jnak eskuratu nahi zuen Markinako apaiz postu bati buruzko kudeaketak egin zituenean, Karmengo Aita Prioreak aztertua izan zen eta «beraren onespena eta zentsura» bidali zituen auzimahaira[86].

Geroago, 1767.ean, sanitate kasu bat izan zen: pertsona bat lehen sindiko aukeratua izan zenean, bere minen eta gorreriaren zioz zerbitzurako zituen eragozpenak aurkeztu behar izan zituen eta «Frai Juan de la Natividad, bere aitorle zen hiri honetako

---

[82] Horrela, esaterako, XVIII. mendean, 1702, 1704, 1706 eta abarretan. MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 224, 269, 301.orr. eta abarretan. (MKA, A-I-19.20.21).

[83] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 269v-270r, 1704-I-20 (MKA, A-I-20).

[84] MUA, *Libro de quentas...*, 1747-1789, folioak: 1, 6, 14, 23, 28, 32, 36, 42, 44, 47, 49, 55, 62, 74, 77, 82, 86, 93, 100, 108, 111, 121, 129, 134, 142, 195, 203, 209, 210, 216, 225, 229, 236, 238, 241, 245, 251, 270, 271... (MKA, G-VI-1).

[85] MUA, *Libro de decretos...1622-1742*, 34v, 1725-III-3 (MKA, A-I-32).

[86] MUA, *Libro de decretos...1752-1768*, 24v,16v, 1754-I-15 (MKA, A-I-42).

Karmengo Amaren komentuko erlijiosoak delako gorreriaren zioz udal batzordetan proposatzen denaz jabetu ezina duela adieraziz eginiko ziurtagiri bat» aurkeztu zuen[87].

Eta urte batzu geroago, beste lankidetza mota bat, batez ere sanitateari zegokiona, ikusiko dugu.

c. **Uraren arazoa**

Etengabeko ardurak sortzen zituenetarikoa uraren arazoa zen. Horrela ikus dezakegu nola sortzen eta gainditzen diren arazoak 1757, 1777 eta 1785-1788. urteetan.

aa. *Salaketak eta tirabirak*

Udaleko 1757.eko urtarrilaren 27ko aktetan eliz kabildoak eta beste auzotar batzuk kexa sartu zuten beren kaltetan Karmengo komentukoek «erret bideko galtzada apurtu eta beren ortuko gainekaldeko ubidean ura sartzeko hodia egiteko zuloa ireki dute» salatuz, eta udalak «aipaturiko kaltea etengabea dela ikusirik, alkate jaunari ordezkotza ematea erabaki eta eman zioten, hodia ixtea agindu zezan erret bidea lehengo egoera utziz»[88].

Horrela, hodia hurrengo eguneko arratsaldean itxi zen; baina Aita Karmeldarrek berehala ireki zuten berriro eta arazoari buruz elkarrizketa egin ondoren berriro itxi zen[89].

Urte erdi geroago, 1757.eko uztailaren 5ean, Aita Manuel de la Asunción Markinako Karmeldarren Prioreak arazoa azaldu zion udalari ura eskatuz: «Oso handia da Jainkoak hain eskuzabalez bidaltzen dizkigun euri urek orain arte izan duten ubidea ez izatetik Komunitate honi etorri ohi zaion kaltea»; eta udalak onartu egin zuen kalteak ekiditzea: «edozein kalte jasoz gero Hiriak ahalmena izango du ixtea agintzeko komunitateak ezingo duela esan jabetza edo bestelako eskubiderik duenik»[90].

Baina, ikus daitekeenez, 1777.eko maiatzean konpondu gabe jarraitzen zuen arazoak, «Aita Andres de la Encarnación komentuko prioreak ura emana izan zekiola Hiri honetako aterpera iragateko komentutik hurbilen aurkitzen den uharkatik Hiri berberarentzat inolazko kalterik edo oztoporik gertatu gabe» eskatu eta erregutuz idatzi baitzion udalari. Eta udalak arazoa aztertzeko erabakia hartu zuen[91].

Urte bereko irailaren 14ean Aita Andres Prioreak berriro azaldu zuen «komunitate honek duen ur eskazia» eta berriro eskatzen zuen ura, ur ugari alperrik galtzen zela gogoratuz eta «ezer alperrik galdu gabe guztientzat gura adina izateko urtegia» egitea proposatuz[92].

---

[87] MUA, *Libro de decretos...1752-1768*, 248; 1767-III-8 (MKA, A-I-46).
[88] MUA, *Libro de decretos...1752-1768*, 64r.
[89] Ibd. 64.orr.
[90] Ibd., 69. orr.; 1757-VII-6.
[91] MUA, *Libro de decretos...1768-1778*, 329r-330v, 1777-V-20.
[92] Ibd., 335v-338r.

bb. *Karmengo plazako iturriaren eraiketa*

Udalak garbi ikusten zuen bai uraren eskasia eta baita ere haragitegiko eta hiltegiko zikinkeriek sortzen duten sanitate arloko arazoa; horrela aitortzen zen 1785.ean beharrizana: «de construir una fuete y de dar al mismo tiempo corriente a las aguas para quitar la inmundicia de la carnicería y limpiar la matadería dando vertiente a las aguas por aquel paraje que parecieren más oportuno, se dió comisión a los señores Dn. Miguel Andrés de Barroeta y Dn. Pedro Valentín de Mugartegui para que valiéndose de persona o personas inteligentes y a costa de esta villa practiquen quantas diligencias sean conducentes para hazer dicha fuente y limpiar al mismo tiempo las inmundicias y mal olor de la Carnicería, dando vertiente a las aguas según pareciere conducente a dichos Comisionados y intelijentes que nombraren encargándoseles la vrebedad por la mucha necesidad que ai de dichas obras»[93].

1787.eko maiatzean aurkeztu ziren Karmengo plazako iturri berria egiteko obretarako 1786.ean eginiko proiektuak: bata, Francisco de Echave, obraegile eta Mañariko elizatekoarena zen eta bestea Gabriel de Capelastegui-rena; lehena aukeratu zen. «Aipaturiko iturrirako ur gozoa, iturburua Peñaflorida-ko konde Jaunarena den Ugarte gaztainaditik ekartzeko eraikuntza» zen; eta udalak, era berean, Karmengo Prioreari hodieria komentuko ortutik iragateko baimena eska ziezaiola Probintzialari eskatzen zion[94]. Sei egun geroago interesatu guztiekin eta hodieria eraikitzeak ukitutakoekin arazoa konpontzea eta iturriaren eraikuntza burutzeko era zehatza argitzea erabaki zen[95].

Hiru egun barru, martxoaren 25ean, Francisco de Echave obra maisuak «iturrirako aipaturiko obra erematean egiteak» zuen eragozpena aurkeztu zuen. Baina Udalak hartua zuen obra hura egiteko erabaki sendoa «Hirirako onura eta aterakinik handiena lortzeko, horretarako Echave bera edo beste maisuren bat erabiliz» eta hodieria iragoten zen lurren jabeen eta Karmeldarren beharrizan eta erizpideen arabera[96].

Urte bereko apirilaren 16an udalean azaltzen zen planteamenduen garapena: komentuak «ur zati bat komenturako» eskatuz hodieria ortutik iragateko baimena emateko zuen borondate ona; eta udalaren ahalmena zuen Benito de Ansoteguik «bertako erlijiosoek Hiriarekin izandako eskuzabaltasuna kontutan hartuz», onar zitekeela komentuaren eskaria azaldu zuen eta udalak oneritzia eman[97].

Iturrri proiektu hau egitearen aurka, Jose Antonio de Astarloa y Aguirre lizentziatua agertu zen iturri berrirako obrak geldierazteko eskatuz. Baina udalak plana aurrera eramateko erabaki sendoa zuen[98]. 1788.eko abenduaren 29an aurkeztu ziren

[93] MUA, *Libro de decretos...1778-1797*, 88. orr., 1785-IX-19.
[94] Ibd., 110v, 1787-III-19.
[95] Ibd., 111. orr., 1787-III-25.
[96] Ibd., 111r-113r., 1787-III-29.
[97] Ibd., 113r-114r.
[98] Ibd., 135v-136r. 1787-VI-27.

obraren gastuak: guztira 96.775 erreal izan zirela[99]. Eta obra amaitu ondoren 2.000 erreal zor zizkioten komentuari bi urtetan zehar ortuan eginiko kalteen ordainez[100].

Eta, azkenean, «Ugarteko dorretxe infantzoiaren jabe eta edukitzaile» zen Peñaflorida-ko konde jaunaren txostenean, Hiriaren eta zati batetan komentuaren onurarako beraren lurretan hartu eta hodi bidez ekarritako uren kopurua argiro zehaztea komeni zela azaltzen zen[101].

3. Tirabirak eliz kabildo eta komentuaren artean

Lehenago, fundazio eskriturak azaltzerakoan, Markinako eliz kabildoak eta Aita Nicolás de la Encarnación karmeldarrak 1691.eko Urtarrilaren 19an adostasunezko hitzarmena sinatu zutela ikusi dugu[102] eta lehen baldintzan honako hau esaten zen: Karmeldarrek «ez dute orain ez inoiz geroago hileta, hamarren eta lursoroetako lehen fruituen gainean eskubiderik izango»... «ez dute irtengo eta ez dute irten ahal izango gurutzea jasota dutela komentu horretako elizako atetik parrokiari dagozkion aipaturiko eskubideei eta gainerakoei uko eginez».

Baina urteak geroago beraren interpretazioa zuzenari buruzko ezadostasunak sortu ziren, batez ere, Karmeldarrek parrokian meza-saridunak eskaintzeari zegokionean; Kabildoak halako otoitzak egitea «parrokiaren ekintzetarikoa» zela uste zuen eta ondorioz Karmeldarrak baztertu zitezkeela.

Erlijiosoek mezak esatera parrokira joan izan ziren lehen urteetan «kabildoak utzi egin zien nahikoa meza-sari zegoelako, Domusantuko zortziurreneko igande batetan sei erlijioso etorri zirela parrokira sei meza esatera ikusi zuten arte, Benefiziodun eta gainerako guztientzat nahikoa meza-saririk ez zegoelarik, eta erlijiosoei meza esatea eragoztea erabaki zuten». Eta erlijiosoek urteetan zehar ez ziren bertara joan; baina 1721.ean «Apezpikuarengandik baimen-agiria lortu zuten eliztarrek deituak zirenean Parrokia honetara, parrokiako eskubideen kaltetan izan gabe, ondrak, hiletak eta mezak esatera joaterik eragotzi ez ziezaien kabildoak»[103].

Baimen-agiriaren aurka atera ziren Xemein eta Etxebarriko parrokiak kabildoentzat oso kaltegarria zela uste zutelako.

Eta auzi luzeak eta horrelakoetan izaten diren gastuak baztertzeko, arazoa interesatuen artean pertsonalki konpontzeko ahaleginak egin zituzten, bitarteko lanetarako gizon zintzo eta eskolatua zen Antonio Idiaquez Jna, San Bartolomeko Ikastetxe nagusiko Ikaslea jarriz. Hainbat gutun egin zieten elkarri martxo-apirilen artean Antonio de Idiaquez eta Aita Cosme del Espiritu Santo Prioreak. Baina

[99] Ibd., 131v-132r.
[100] Ibd., 135v-136r.
[101] Ibd., 144r-v, 1789-VI-5.
[102] MKA, A-I-52; (Jatorrizkoa: MPA).
[103] GPKA, Markina 3; (Jator.: MPA). Ik. MPA, Antonio Idiaquez jaunaren 1722-III-14eko gutuna.

1722.eko otsailaren 3an, Francisco de Mendizabal, Jemeingo Santa Maria parrokiako apaiz benefiziodunak txosten bat aurkeztu zion kabildoaren izenean udalari Karmeldarren komentuaren aurkako auzia aurrera eramateko babesa eskatuz[104].

Kabildoak laguntza ekonomikoa eskatu zion udalari auziaren gastuak ordaintzeko; eta Hiriak, elizaren zaindari-kide gisa, gastuen hiruko bat, kabildoak beste hiruko bat eta elizako elztarrek beste hirukoa ordaintzea erabaki zuen[105].

Jemeingo elizako apaiz zen Francisco de Mendizabal Jnak, itxaropen handirik gabe Antonio de Idiaquez-i kabildoen erabakia aurkeztu zion, bertara inoiz lau erlijioso baino gehiago batera ez joateko eskatuz eta urtearen bukaeran soberan izango ziren mezak eskainiko ziela aginduz: «que en todos los entierros de sacerdotes, particulares y no particulares, que asistan a decir misas y a la función, con tal que no excedan de cuatro religiosos; con lo qual logran el cumplir con la obligación de sus bienechores; ya sea sin estipendios, o con ellos a voluntad de los mismos, y de las partes si les quisieren dar. Que el Cavildo de Xemein ofrece dar al Combento del Carmen las Misas, que les sobran fin de año, a condición de que estas excedan de 150 misas o 200 porque puede suceder que en el inmediato mes o meses no tengan misas estipendiarias». Hori zen Kabildoak eskain zezakeen guztia[106].

Bere aldetik arazoa auzirik gabe adiskidetasunez konpontzeko eritzikoa zen Antonio de Idiaquez Jnak honako hau proposatzen zion Bartolome Ramirez jaunari 1722.eko martxoaren 14ean: «Por eso y porque me asegura Vm. que sobran siempre estipendios al Cabildo juzgava yo que se satisfacía el interés de los religiosos con que los clérigos se obligassen en la forma que pareciesse segura a los religiosos a comunicarles todos los estipendios que les sobrassen y esta planta valdría a los religiosos mucho más si es cierta la grande sobra, que ay en el Cabildo»[107].

Aita Cosme del Espiritu Santo Prioreak urte berean, 1722.eko martxoaren 21ean, erantzun zion Idiaquez jaunari, bakearen aldeko ahaleginak eskertuz, baina berak ezin zuela ezer egin Aita Probintzialaren baimenik gabe eta Ordenaren aldetik Aita Santuek eta apezpikuak emaniko eskubideak erabili nahi zituela esanez. Orokorrean, Komunitatea ados zetorren, kabildoek seinalatzen zutenaren arabera inoiz lau erlijioso baino gehiago ez joateko; baina ez zuen onartu egunak mugatzerik ez eta elztarren gogoei mugak jartzerik, eta eskriturak bete behar baziren egunak mugatu gabe egin behar zela eta aipaturiko lau erlijiosoek edozein egunetan joan ahal izan behar zutela; eta «urtearen buruan zuek emateko eskaintzen dizkiguzuen mezei dagokienean askatasun osoa duzue orain arte bezala; gehiago fidatzen garelako zuen karitatean, orain arte ere obligaziorik gabe mezak eman izan dizkiguten hainbat partikularrengan be-

[104] MUA, *Libro de decretos...1708-1722*, 226v-227v.
[105] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 4.orr.; 1722-IV-15.
[106] GPKA, Markina 3, 1722-III-13ko gutuna (Jator.: MPA).
[107] GPKA, Markina 3 (Jator.:MPA). Eta erlijiosoen kexak eransten dira: "que las grandes fatigas de los religiosos en alivio del pueblo y de los Curas remuneran estos con cerrarles éstos sus iglesias y que en predicar, confesar y aiudar a los agonizantes se fatigan mucho los religiosos sobre que pudiera bien glosar".

zala»; eta gai honetan Lazkaoko komentuan zeramaten iharduketa jarraigarria aurkezten zion: ez zelarik bertan kalterik, parrokia ondoan bizi ziren arren eta oso ongi konpontzen zirela kabildoarekin esanez[108].

Bartolomé Ramirez Jaunak ere 1722.eko martxoaren 22an aurkeztu zion Antonio de Idiaquez Jnari komunitatearen proposamena: fraideek komentuko kapituluan «aurka atera dira eta ez dute meza ematera lau erlijioso baino gehiago inoiz ez joatea baino besterik onartu; eta hauek deituak direnean edota aukerako dutenean, norbaitzuk beren testamenduetan Jemeingo elizan mezak esatea eta errespontsuak egitea agindu dezaketelako; eta ez direla eskuak lotu behar; eta ez dutela kabildoarekin mezarik soberan duten ala ez ibili nahi; hobeki dela halako baldintzarik gabe ihardutea»[109].

Cosme Aitak, Probintzialaren erantzuna martxoaren 26an jaso ondoren, hurrengo egunean idatzi zion Antonio de Idiaquez Jnari, eskriturak egiteko Definitorioaren baimena behar zuela esanez eta proposamen zehatza eginez: «edozein egunetan bi meza esateko baimena izan dezagula eta inoiz ez dezagula gehiago esan; inoiz ez dezagula Parrokietan Benefiziodun eta Kapelau Jaunek eramaten duten eskumuinik ezta inolazko intereseko zerik eroan bi meza esatera joatea bakarrik baino, edota hau gehiegi iruditzen bazaie urtean meza kopuru zehatz bat jar diezagutela eta ez dezagula kopuru hori baino gehiago esan; egiatan erlijioso guztien izenean ez garela inoizka baino joango ziurtatzen dizudalako»[110].

Francisco Jaunak, martxoaren 27ko egun berean, behar bada azken proposamen hau ezagutu gabe, kabildoak sentitzen zuela bere proposamenari komentuak hain jaramon gutxi egitea eta ez zuela beste proposamenik egiteko asmorik erantzuten zion Antonio de Idiaquez Jnari[111].

Aita Cosme Prioreak, bakea nahi zuelarik, oraindik maiatzean, bildurretan zen, agian, ez ote zitzaion beraren hirurteko aginteari arazo honen zama leporatuko, irtenbide baketsurako asmoak agertzen zituen[112]. Bost egun barru erantzun zion Idiaquez Jnak, desanimatuta eta irtenbide itxaropenik gabe, ondorio txarrak aurrikusiz edo halakoen bildurra agertuz[113].

Auzia hala zelarik, kabildoak udala, elizaren zaindari-kide gisa, alde zuela[114] apezpikuarengana jo zuen eta Kalagurriko apezpiku zen Pedro de Quadra y Achiga Jnak epaia (lehena) eman zuen 1723.eko ekainaren 7an: bertan, lehen eta behin, erlijiosoek eskriturak baldintza guztietan betetzeko agintzen zen eta babesa eman zitzaien apaizei euren parrokietako eskubideetan, baina, era berean, erlijiosoei meza emateko eragozpenik ez jartzeko eta hiletetara joatea ez debekatzeko agintzen zitzaien apaizei: «en caso de ser llamados dichos religiosos para asistencia de feligreses

[108] Ibd.
[109] Ibd.
[110] Ibd., 1722-IV-27ko gutuna.
[111] Ibd.
[112] MPA, 1772-V-23ko gutuna.
[113] Ibd., 1722-V-28ko gutuna.
[114] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 18r-19r, 1723-VI-27.

enfermos de dicha anteiglesia de San Andrés, o yendo a pedir la limosna en los tiempos acostumbrados, y haziendo noche fuera de dicho Combento, y en las casas de dicha anteiglesia el dicho Cura de San Andrés y demás Beneficiados no ympidan en alguna de sus hermitas, hantes bien les suministren, hagan dar y den los hornamentos necesarios y los traten bien con fraternal amor y caridad» ...Eta Xemeingo Santa Mariako apaizek: «no ympidan a dichos religiosos el asitir a los entierros y funerales de difuntos sus feligreses en el día de su umazión noveno, tregésimo o cavo de año; siempre que los dichos religiosos fueren llamados para dicha asitencia y acompañamiento por los herederos testamentarios o executores de las últimas voluntades de los difuntos, o por disposición de ellos»...[115].

Karmeldarrak ez ziren ados etorri eta jabetzaren aldeko auzia jarri zuten; eta epaia 1723.eko uztailaren 28an eman zen. Orokorrean bat zetorren ekainaren 7an emandako aurrekoarekin, baina, onartu egiten zuen eliztarren azken borondatea errespetatzea; honako hau eransten zuen: «y por lo respectivo a la concurrencia de relixiosos Carmelitas a entierros y nobena, cavo de año siendo llamados puedan zelebrar misa en dichas Iglesias por el difunto de quien hezieren los sufragios si se le encomendaren y los beneficiados no se lo impidan en manera alguna en dichos días en que concurrieren como queda referido por disposición de los testadores, sus herederos o testamentarios»[116].

Eta Karmeldarrak auzia ia burutua zutenean, kalbildoak Alexandro Aldobrandini Nuntzioarengana jo zuten. Kabildoak 1724.eko abenduaren 31n auziaren berri eman zion udalari eta Markinako Korporazioak auziaren jarraipena istantzia eta auzitegi guztietan babestea lortu zuen[117].

1727.eko uztailaren 28an heldu zen hirugarren epaia, Nuntzioarena, Kalagurriko apezpikuaren epaia birbaiezten zuela: «con tal que donde dice que los religiosos puedan zelebrar misa en las Parroquiales todos los días de entierros novenarios, tregésimos y cabo de año, sea y se entienda quando son llamados por los herederos y testamentarios tan solamente, y que las misas que en dichos días zelebraren y se las encomendaren sean de las pertenezientes de los testamentos porque no sean perjudicados los derechos parroquiales de exequias»[118].

Baina arazoa ez zen horretan geratu. Komentuak aurrera eraman zuen eztabaida agirietan ageri denez[119]. Urte batzu geroago, Felipe Lopez de Salazar y Angulo, Kalagurriko apezpikuaren bisitari jeneralak 1735.eko abenduaren 27ko probidentzia-autoa eman zuen, puntu batzu luze eta zabal azalduz, baina orokorrean aurreko epaiak baieztatuz[120].

---

[115] MKA, B-X-1, 1723-VI-7 (Jatorrizkoa: MPA).
[116] Ibd.
[117] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 29v-30r.
[118] MKA, B-X-1, (Jator.: MPA).
[119] Komentuak 1829-II-11ko agirian ageri den eztabaidan jarraitu zuen; MKA, B-X-1, [27-35] orr., (Jator.:MPA).
[120] MKA, B-X-1, [20-25] orr. (Jator.:MPA). Azkenean bi gutun aurkitzen ditugu: bata, 1736.eko

4. Karmeldarren bizimoduari buruzko datu batzu

a. Karmeldarren «euskal» Probintziaren sorrera (1706)

Markinako komentuaren eraikuntza ostean izandako Karmeldar bizitzako gertakari aipagarrienetarikoa, 1706.ean Karmeldarren «euskal» probintzia sortzea izan zen. Iberiar Penintsula osoko Karmeldarren ordezkariak bildu ziren 1706.eko apirilaren 23an Pastrana-n Kapitulu Jeneralean. Ez ziren etorri Katalunia eta Portugaleko ordezkariak politika-gerra arazoak zirela tarteko. Ordenako Jeneral, 75 urte zituen Aita Miguel de Santa Maria (Aznar) hautatu zuten.

Bertan Gaztela Zaharreko San Elias probintziaren arazoa aztertu zen, izandako zabalkuntza eta probintzialak gutxienez urtean behin bere Karmeldar probintziako komentuak bisita ezina,... gogora ekarriz; eta zatitzea erabiki zen Nafarroako San Joakin Probintzia berria sortuz[121]. Aita Karmeldarren jarraiko 11 komentu eta bi babestokiok (hospiziook) osotuta zegoen: Iruñea (1587), Burgo de Osma (1589), Korella (1595), Tutera (1597), Peñaranda de Duero (1603), Kalagurri (1603), Burgos (1606), Lerma (1617), Logronio (1628), Lazkao (1641), Markina (1691) eta Bilboko (1618) eta Soriako (1688) babestokiak. Eta mojen beste sei komentuok (Soria, Burgos, Iruñea, Logronio, Kalagurri eta Lerma). Zumaiakoa eta Donostikoa ez zeuden Ordenaren agintzapean Apezpikuarenean baino).

Baina lasterrera eraikiko ziren Larrea-Zornotza (1713) eta Sestao (Irlako eremu santua, 1719), Balmaseda (1727), eta Nafarroako Villafranca-ko (1722) komentuak.

b. Komunitateari buruzko datu batzu

Komentuko barru bizitza eta eguneroko bizitzako datu ugari jaso ohi dituzten komentuko «Becerro» eta kronika liburuen galerak, Markinako komunitateko bizitzaren benetako egoera ezkutuan uztera behartzen gaitu.

Komunitatea hainbatetan ugaritu zen kideen kopuruari zegokionean: lehenago, komentuan 6 erlijioso botudunek osoturiko kapitulua ageri zela 1699.eko dokumentu batetan aipatu dugu, baina data horretan 12 erlijioso izatera helduko ziren.

1710.ean, beste agiri batetan komentuko zortzi erlijiosoen sinadurak ageri dira: Frai Bernardo del Espíritu Santo, Priorea; Frai Miguel de Jesús María, Frai Martín de S. Joaquín, Frai Buenaventura de San José, Frai Francisco de S. Buenaventura,

---

otsailaren 15eko data duen Aita Juan de la Natividad fraidearena: bertan Francisco de Mendizabal apaizari bi komunitate erlijiosoen artean batasuna eta maitasunezko elkarbizitza eraman beharrari buruz mintzatzen da..., baina, era berean, hilzorian zegoen bati emateko laguntzaren kasua aipatzen zuen, bertan ez zela kontutan hartu hitzartutakoa, horrek herritarrengan izandako gaizpidea, etab. gogoratuz. Apaizak bi egun geroago, 17an, erantzun zion bakezko hitzez eta gertatutakoa azalduz... (Ibd.).

[121] Ik. HCD, XI- 252-253.

Frai José de Santa María, Frai Francisco de Santa Teresa eta Frai Damián del SS. Sacramento[122].

1777.ean 28/(30) erlijiosoen sinadurak, seguraski komunitateko guztiak ageri dira: 22/(24) Apaiz eta 6 Anaia:

Aita Andrés de la Encarnación, priorea
Aita Juan del Santísimo, prioreordea
Aita Francisco de San José
Aita Tomás de Santa Teresa
Aita Bernardo de Jesús María
Aita Jose de Jesús María
Aita Juan de la Cruz
Aita Juan de la Virgen
Aita José de San Miguel
Aita José de Santo Tomás
Aita José de Santa Teresa
Aita Ignacio de la Concepción
Aita Sebastián de San Miguel
Aita José de la Concepción
Aita Juan Bautista del Niño Jesús
Aita José de Jesús María
Aita Francisco de la Madre de Dios
Aita Bernabé de San León
Aita Miguel de San Francisco
Aita José de San Antonio
Aita Martín de San José
Aita Pedro de los Dolores
Aita Simón de Santa Teresa
Anaia Andrés de San José
Anaia Ignacio de San José
Anaia Juan de la Visitación
Anaia Gabriel de San Elías
Anaia Prudencio de San José
Anaia Luis de San José[123].

Komunitate handi honen egoera ekonomikoa, garai hartan egunerik egunera zailagoa bihurtzen ari zen Bizkaian; Larreako komentuko «Becerro» liburuak kontatzen digunez[124] 1787-1790. hirurtekoan «janariak oso garesti jarri ziren» eta jarraiko hirurtekoetan areagotu egin zen egoera sozio-politiko txar hura aipaturiko liburuak

[122] MKA, A-I-23, 53.orr.
[123] MKA, C-XVIII-1: *Libro de la archicofradía de N.Sra.del Carmen*, [24v]. José de S. Antonio eta Pedro de los Dolores izenak beste lerro batzutan eta, itxura batetan, beste norbaitek idatzita daude.
[124] LKA, A-I-1, *Libro del Becerro*, 40.

dioenez; mundu honetakoetan garai hauek negargarriak izan ziren eta 1796-1799.ean errepikatu egingo zen «janariak oso garesti jarri ziren». Guzti hori horrela zelarik, pentsa daiteke zer nolakoa izango zen Markinako komunitatearen egoera ekonomikoa.

Gertakari batek poztuko zuen, hala ere, era bereziz komentuko bizitza: lehen Karmeldar Teresiarra izan zen Jon Gurutzeko Donea aldaretara goratua izateak. Benedikto XIII Aita Santuak aitortu zuen santu 1726.eko abenduaren 27an. Gertakari hau, bai etxe barruan bai etxetik kanpo poztasun handiz ospatua izan zen Markinan. Santu hau, beraren heriotzea ordurako Markinako Karmen etxeko historia barruko data garrantzitsuenari loturik zegoen, hain zuzen ere, bertako etxearen fundazioari, 1691.ean hil zen Jon Gurutzeko Donearen heriotzearen lehen mendeurreneko urtean, 1791.ean, egin zelako.

c. **Pastoralgintza**

Agiri batzutan, batez ere auzi ezberdinetan, bidebatez agertzen diren Karmeldarren pastoraltza iharduera batzuren artean sermoilaritza ageri da, berau garai haietan Markinan zein inguruetan oso indartsua zelarik.

1722.eko agirian, fraideek semoiak egiten, aitortzak entzuten eta hilzorian zirenei laguntzen, horrela herriko eta inguruetako beharrizanak leuntzen egiten zituzten ahalegin handiak aipatzen dira[125].

Arrakasta handia lortuz zabaldu zuten Karmengo Amarenganako debozioa. Jadanik 1775.ean oso handia zen, Markinako udalaren aktetan agertzen den bezala, Karmengo Amaren jaian bertara etortzen zen sinestedunen multzoa; hainbesteko jendetza etortzeak ardura handia sortuz eta herrian zegoen gari apurra amaitzeko arriskua ikusirik, udalak hilaren 12an, azteazkenean, okinei prezioei zegokienean, uztailaren 15-17ko larunbata-astelehenerako arauak eman zizkien[126].

Pastoraltza bizitza barruan gertakari handia izan zen 1777.ean Markinako Karmengo artxikofradia eraikitzea, honetaz zehazkiago beste kapitulu batetan mintzatuko garela. Eta kofradia honen fundatzaile eta lehen anaia gisa 1777.eko urrian zortzi izen ageri dira, beraien artean lehenak «Miguel de Argaiz apaiz presbitero Jna., Miguel José de Iturralde presbitero Jna eta Jose Antonio de Iturralde Alkate Jna» agerten direla[127].

Garai honetako berri bitxi edo jakingarritzat «Nafarroako San Joakin» zeritzon karmeldarren euskal Probintziako Aita Probintzialak 1782.eko irailaren 13an Markinatik Probintziako Prioreei idatzitako gutuna gogora dezakegu: hain zuzen ere, bertan, meza-laguntzaile izateko euskara zekiten mutikoak hartu eta beraien artean karmeldar bokazioak bultzatzeko agintzen zien[127a].

---

[125] GPKA, Markina 3, Antonio de Idiaquez jaunak Bartolomé Ramírez jaunari eginiko gutuna, 1722-III-14 (Jator.: MPA).

[126] MUA, *Libro de decretos...1768-1778*, 253v-254r. (MKA, A-I-50).

[127] MKA, *Libro de la archicofradía de N.Sra.del Carmen*, [24].

[127a] BAS, 65/P.

d. **Herriaren partaidetza Karmengo komentuan**

Pastoraltza iharduera Markinan eta eskualdean zabalduz joan zen adinean ugaritu egin zen, baita ere, era askotan, herriaren erantzuna, komentuari laguntza ematen, modu ezberdinez, dohaintza, jarauntsi, betiko oroitzapen-fundazio eta abarren bidez partaidetza hartuz. Herriaren erlijiotasunaren eta erlijiosoen komunitateak eta herriak bat egitearen adierazpideak ziren.

Nahikoa da honetaz jabetzeko, XVIII. mende honi dagozkionak direlarik, kontserbatu izan diren liburu eta eskriturei begirada bat ematea. Alor batzutan oraindik aberatsagoa dugu XIX. mendea. Baina XVIII. mendeko datu batzu baino ez badira ere jaso egingo ditut:

aa. *Betirako oroipenak*[128]

1710. Ignacio de Munibe fundatzaileak betirako oroitzapentzat bi Agur Erregina, urriaren 14 eta 15ean abesteko jarri zituen (100 dukatatako zentsua eta 33 errealetako urteko interesa).
1755. María Clara de Ibarra Andereak, betirako meza-oroitzapenak jarri zituen.
1740. Rosa de Ibarra andereak: betirako meza abestu bat abuztuaren 30erako (100 dukatatako zentsua eta 33 errealetako urteko interesa).
1728. María Ibañez de Oca Andereak: betirako meza abestua ekainaren 29rako eta bezperak eta errespontsoa 28rako (100 dukatatako zentsua eta 33 errealetako urteko interesa).
1717. Andrés de Ansotegui: betirako meza abestua eta bezperak eta errespontsoa otsaiaren 3rako (100 dukatatako zentsua eta 33 errealetako urteko interesa).
1754. Juan de Adura.
1746. Juan de Arichabaleta.
d.g. María Teresa Larrueta
1773. María Ignacio de Andonaegui.
d.g. Teresa Bruna de Sarasua.
d.g. José de Apraiz.
d.g. Pedro de Gamboa (1723).
1736. Domingo de Iribarri.
1720. Fortun Iñiguez de Acurio: 60 meza errezatutako oroitzapena: 51 urteko beste hainbeste larunbatetan esateko eta beste 9ak santu ezberdinen egunetarako (3.000 dukatatako zentsua eta 778 errealetako urteko interesa) 1704. Martín de Mugartegi.

[128] *Fundaciones de memorias perpetuas de misas... de Marquina. Año 1805* liburutik hartutako datuak. (MKA, G-III-30); Baina, badago XVIII. mendeari dagokion zerbait ere. XVIII. mendeari zegokiolarik galdutako "Libro grande" deritzaneko aurkibide antzeko zerbait da. Baina badira honetaz beste zenbait agiri ere G-III.ean.

1744. Ana de Arrate.
1748. Domingo de Ubaguelua.
1731. María de Urquiaga.
d.g. Pedro de Gamboa.
1755. María Clara de Ibarra.
1736. Domingo de Iribarri.
1741. Josefa de Basterrechea.
1758. Margarita de Luzuriaga.
1759. Manuela de Amezaga.
1763. Nicolás de Arriaga.
d.g. María Ituarte.
d.g. María Teresa de Barrueta: oroitzapena San Joseri sermoia eta bederatzi mezetatako bederatziurrena etab (550 dukatatako zentsua eta 154 errealetako urteko interesa).

Hona hemen, 1820.ean zaken murriztapena egin ondoren, Komunitateak 1830. urtean mezen zerrenda:[128a].

Mezak	Kant.	Errez.	Guzt.	Larunbata/ astelehenetan	Hirugarrendar ordenako hil.
Urtarri.	4	13	17	8	3
Otsaila	7	10	17	8	
Martxoa	3	14	17	10	
Apirila	5	11	16	8	3
Maiatza	5	12	17	10	
Ekaina	3	15	18	8	
Uztaila	5	15	18	8	
Abuztua	8	11	19	10	
Iraila	4	18	22	8	
Urria	7	17	24	8	3
Azaroa	6	13	19	8	1
Abendua	5	13	18	10	
	62	160	222	104	10

128a

Eta antzinako aurkibidea osotuz[129] honakook gaineratu ahal ditugu:

d.g. Fundatzaileak 200 dukata.
d.g. Feliciana de Gandia.
d.g. Pedro Ignacio de Uzquieta eta Jazinta de Juaristi.
d.g. María de Zamarrago.
d.g. Ignacia de S. José Gandiaga.
1777. María de Echevarria.

bb. *Testamentuak, jarauntsiak eta legatuak*

Komentuaren iraupenerako eta finkapenerako balio handikoa zen, pertsona ugarik Karmengo komentuari beraien jarauntsa eta abarren dohaintzak egitea.

Gorago aipatutako meza-fundazioetarako eginiko testamentu eta oroitzapenez gainera, bestelako dohaintza zahatz batzu aipa ditzakegu: Lehen eta behin, komentuaren fundatzailearena: Ignacio de Munibek hainbat ondasunen dohaintzak egin zituen eraikuntzaren alde (1688, 1695, 1696...) edo Martín de Mugartegui y Echevarria Jnak eginiko 100 dukatako zentsua (1708); María Clara de Ibarra Andereak, deboziozko oroitzapenen ordaindutzat eginiko 104.874 maraietako jabetza ematea (1755), Francisco Javier de Ibarra, Elgoibarko auzokideak eginiko iletximazko 1500 dukatakoa (1775), etab[130].

cc. *Zentsuak*

Oso handia zen XVIII. mendean komentuaren aldeko zentsu ezberdinek suposatzen zuen diru laguntza. Gehienak jende jainkotiarrak eginiko dohaintzen ondorio diren Zentsuen benetako egoera agerian jartzeko, komentuko artxiboan aurkitzen den *«Indice de censos»* liburutik ateratako zerrenda aurkeztuko dut[131]. Zerrenda horretan herrien izenak eta nortzu izan ziren zentsuen emaileak ageri da alfebetikoki jarrita. Honakook ziren:

[129] MKA, A-I-1.
[130] MKA, G-I-1-9; G-II-1-11, etab.
[131] MKA, G-IV-64, etab.

	ZENTSUA	
	Dukata eta interesak	**Errealak eta marav.**
Arratzua: Velindez Goxeazcoa etxea (1784...)	180	59
Ajangiz: Mendietagoitia baserria (1724)	100	33
Barinaga: Bascaran baserria ([1680],1762)	236	78
Barinaga: Bolunaga baserria (1767)	200	66
Barrika: Elizatea eta auzotarrak (1780)	425	93 - 11
Berriatua: Elizatea eta auzotarrak (1780)	400	88
Berriatua: «Casadua» baserria (d.g.)	100	33
Berriatua: Echevarri baserria (1736)	40	13 - 13
Berriatua: Eguia baserria (1776)	230	75 - 31
Berriatua: Auliguez eta Goicoechea baserriak (1777)	100	33
Bermeo: Carlos de Yrarri (1720)	75	24 - 25
Bilbo: Bilboko Kontratazioa eta Hiria (1775)	250	55
Bilbo: Bizkaiko Jaurerria (1793)	2.000	660
Bilbo: Agustindarrak (1772)	300	66
Bilbo: Agustindarrak (1773)	8.350	167
Bolibar: Soloarte baserria (1799)	60	19 - 20
Echevarria: (Markina) Arejita eta Aregilondo baserriak (1763)	292 - 8	96 - 20
Echevarria: Eguierrea eta Vizcarra baserria (1768)	250	82
Echevarria: Yturriaga baserria (1741)	50	16
Echevarria: Mandiola baserria (1761)	95	26 - 4
Forua: Elizatea eta auzotarrak (1754)	1.600	32
Forua: Urruchua Viazcoa baserria	50	16
Jemein: (Markina) elizatea eta auzotarrak (1757)	1.115	245 - 10
Jemein: Trotiaga baserria (1736)	150	49
Jemein: Azpiri Larrina baserria (1748)	80	26 - 12
Jemein: Goicoechea baserria (1763)	100	33
Gerrikaitz: Gerrikaitzeko hiria (1779)	2.500	62
Gerrikaitz: Uriona Hormaechea eta Elejalde baserriak (1678)	100	33
Ibarrangelua: Allica baserria (1757)	335	110 - 4
Lazkao: Lazkaoko hiria (1793)	200	66
Logroino: Erret estankoa edo Erregearen Altxortegia (d.g.)	7.030	2.319 - 4
Luno (Gernika): Amillaga baserria (1715)	150	49 - 17
Markina: Mesedetako lekaimeak (1714)	150	49 - 17
Markina: Cristobal de Barrueta (1705)	50	16
Markina: Miguel de Losada, Ignacio Eguino eta Francisca Naviera de Losada (1774)	400	12
Markina: Ubila etxea (1755)	650	178
Markina: Hiria eta auzotarrak (1763)	500	100
Markina: Yribarria y Jose de Arriaga Jn.Tx.Gorenen etxeak (1761)	205	67 - 22
Madrid: (1755)	10.874 mrs	352
Echevarri: (Markina) Elizako fabrika eta auzotarrak (1787)	500	137 - 17
Mugika: Ybargoengoitia y Veitia etxeak (1724)	150	49
Mugika: Aurtenechea y Arno baserriak (1724)	100	33
Nabarniz: Muniategui baserria (1611,1632)	260	85 - 27
Nabarniz: Pedro de Vadiola y Jose de Chopitea (1759)	700	231

Nabarniz: Bengoechea baserria (1758)	250	82 - 17
Ondarroa: arrantzaleen kofradia (d.g.)	8.902 erreal.	267 - 2
Errigoiti: Catalinaga baserria (1734,1743)	50	16 - 17
Errigoiti: Magdalengoitia baserria (1756)	300	99
Sopelana: Zaldua baserria (1746)	50	16 - 17
Sopelana: Zalduondo baserria (1759)	40	13 - 6

B. FRANTSESTEA ETA ERLIJIOAREN AURKAKO ERASOAK. (XIX. MENDEKO LEHEN ERDIALDIA)

1. Frantziako iraultza eta haren ideien gerizpean

a. Frantziako iraultza.

Frantzian XVIII. mendearen azken hamarkadan izandako gertakari iraultzaileek eragipen handia izan zuten Europan: zabalkuntza handiko dardarrikara sozio-politikoen iturburu izan ziren. Urte askotan zehar ikertu ondoren, mitifikazio eta irudimen faltsutzaileak alde utzirik, gaur egungo benazko historiagileak, frantses iraultzak ez zituela hain ondorio goraipagarriak ekarri pentsatzera heldu dira[132].

Iraultzak gizarteari ekarritako emaitzarik nagusiena giza eskubideen aldarrikapena izan zen. Baina, bestalde, ez dakit historian zehar Iraultzaldian bezala eskubide horiek hain ukatuak izan diren beste garairik izan den; hori dela eta garai hori gilotinaren irudiaren oroitzapenaz nahastua izan da.

Iraultzak garaipen militar handiak ezagutu zituen. Napoleonen kapitain ospetsuak berak sortuak izan ziren. «Grade nation» zeritzona inperio handirako bidea izan zen. Iraultzak, horrela, zabalkuntza europearra eta geroago unibertsala hartu zuen.

Hori hala delarik, hobeki ulertzen da baldintza horietan epealdi erromanikoko Victor Hugo edo Jules Michelet bezalako idazle eta artegileengan izan zuen lilurapena.

---

[132] Ik. J.TULARD - J.E.FAYARD - A. FIERRO, *Histoire et dictionnaire de la Révolution française, 1789-1799*, Paris 1987, 1213 orr. (Editions Robert Laffont); hemendik hartzen dut aurkezten dudan laburpena: Ik. J. URKIZA, *Direla 200 urte Frantziako iraultza nagusia (1789-1799). Gertakari baten balantzea*, Karmel 1988-2, 31-42.

Baina historiagileek (neurri handi batetan frantses nazionalismoa gainditu ezin dutela) ondorio nahiko zabal batzu atera dituzte:

Negatiboak: Irraileko sarraskiak, Paris eta Probintzietako Izusortzaile beldurgarriak, ustelkeria eta gaitasunik eza, ekonomiaren hondamena, gudu zibila, bandalismoa, hitz hutsezko mintzaira eta abar.

Positiboak: XIX. mendean nagusituko ziren printzipio handiak aldarrikatu zituen: feudalismoaren hondamena, muga-guduetako garaipenak, nazio sentipenaren berrindarketa eta abar (Aipaturiko historiagileek positibotzat jotzen dituzten azkenok, nire euskaldun ikuspegitik begiratuta, negatiboak ezezik ezin-kaltegarriagoak dira. Frantzia eta Parisen zentralismo handia eta Euskalerriak gizarte eta kultura mailan herri izateko zituen politika eta kultura mailako eskubideen deuseztapena ekarri baitzituzten).

Eta balantze zehatzagoa eta arloka egiten badugu, laburra baldin bada ere, honako laburpen hau egin dezakegu:

Demokraziazko bizitza politikoa: Iraultzari leporatu zaio demokraziazko bizitza politikoa sortu izatearen merezimendua. Gaur egun ere, ez dago hori guztiz argi. Adibidez, Izuaren pean eritziek ez zuten izan, inolaz ere, askatasunik ez eta berezkotasunik; eta historiagile batzuk, Antzinako Erregimenaren bizitza politikoak eta hauteskunde-ohiturek lehenean jarraitu zutela Bigarren Errepublikaraino (1848) frogatu dute.

Prentsa: Iraultzaren babespean garatzen eta bultzatzen da prentsa. Gai honetaz, azken aldian, hainbat monografia argitaratu izan da.

Artea: Iraultzaren garaiko Frantziako artea ez dagokio gure zibilizazioaren gailur edo goi mailari eta hau dugu horretaz gutxien esan dezakeguna.

Musika alorrean: Jean Mongrédien (*La musique en France, des Lumières au romantisme,* 1986) eta *La Marseillaise* deritzanari buruzko J. Clailley-k egindako ikerketak. Propagandarako bide izanik, beraren gidaritzapean festa iraultzaileak ere antolatu izaten ziren.

Irakaskuntza: Iraultzak, izpirituak kontrolatzeko lehia eta gogoen heziketaren ardura zituelarik, garrantzi handia eman zion irakaskuntzari. Termidoriarrek 1797.eko uztailaren 27an eta burgesek 1794-95. urteen artean gaur egun arte iraun duten instituzioak sortu zituzten, hots, goi-eskola normala, eskola politeknikoa, etab.

Mintzaira: Baina hainbatetan iraultzaileek aparteko nagusitasuna aditzera eman zuten alorra, hitzen erabileran eta ideien manipulazioan datza. Mintzairari buruzko politika egiteaz gainera, gaur egun, bi mende beranduago, mundu osoan zehar hain ezagunak eta erabiliak diren zenbait izenen kontzeptuak sortu zituzten: esaterako *Nazionalismoa* eta *abertzaletasuna* iraultzak sortuak ditugu eta, zer esanik ez, erlijioaren eta Euskalerriaren kaltetan hedatuak izan ziren.

Kultura: Ikus daitekeenez, Frantziako iraultzaren balantzea ez da oso positiboa. Kultur alorrean Iraultzak hainbat hondaketa sistematiko ekarri zuen; horretaz gainera, berau dugu «bandalismo» deritzan izena sortu zen garaia.

Literatura, kaxkarrenetarikoa izan zen. Garotte, Chanfort eta Chévnier bezalako gizonak desagertzen diren artean, giltzaperatua izan zen Sade, errepublikazaleen protesta gogorren artean. Laclos, Orleans-eko dukearen azpikerietan buru-belarri sartuta ibili zen, eta Sénec de Mailhan-ek bere *Emigré* atzerrian idatzi zuen. Antzerkiak oso maila apala izan zuen. Eta odolezko gehiegikeriarik handienak sentimentalkeriarik gorrienarekin nahasian dituela ageri da.

Ekonomia: Ekonomia lur jota geratu zen hamar urtetako desordenu eta guduen artean. Alor honetan esannahi handia hartzen du Iraultzaren aldeko historiagileek eduki ohi duten isiltasunak. Frantziak ekonomiaren krisialdiak zeharo hondatuta ziharduen artean, Inglaterrak aurrerapen apartak ezagutu zituen teknika eta ekonomia alorrean. Nekazaritzako aurrerapena ere geratu egin zen, hainbatetan nazioaren ondasunei loturik gertatzen diren jabego eskualdaketa garrantzitsuen ondorioz.

Ondasunen banaketa: Egia esan, onurak jaso zituzten nekazariek nazioaren ondasunen salmentatik, baina, antza denez, burgesek edo hirietako bizilagunek baino txikiagoak, hainbat kasutan alperrikaldu egiten baitzen herri ondasunen banaketa; eta, beraz, zehazketa batzu kontutan hartzea eskatzen du Iraultzak nekazaritzan izandako joerak. Nekazal langilegoa osotzen zuen multzo handiak ez zuen onurarik lortu hamar urte zalapartatsuen artean, alderantziz baino.

Langileak: Iraultzak, batez ere, langilegoari ekarri zion hondamenik handiena. Elkarteak debekatzen zituen *Le Chapelier* deituriko legearen ondorioz, artesauen kofradia eta ermandadeetan zituzten abantailak galdu zituzten langileek.

Kalteturik gertatu ziren, soldaten maximum-a prezioen maximum-a baino askoz zorrotzagoa ezarria izaterakoan; «konskripzio» deituak edo soldaduzka-zerbitzuak nekazal ingurugirokoak baino askosaz gehiago estutzen zituen, haiek errazago lortzen baitzuten ezkutatuz aske geratzea. Ez zeukaten erlijioaren laguntzak eskuratzeko sistemarik, elizgizonen Konstituzio zibilak zein elizgizonen ondasun salmentak gogoak nahasten zietelarik: ukaezinezko eran eta erabetekotasun osoz langileak izan zirela Iraultzaren galtzailerik nagusienak baiezta daiteke.

Nobleteria: Hona hemen, era berean, hondamenezko balantzea —nahiz eta hau itxarotekoa izan— izan zuen beste talde bat. Zenbait pribilegioren deseustapenak zekarren pribilegio-galerari, jauntxo-eskubideak kentzeari eta emigratuen eta pertsona susmagarrien ondasunen konfiskazioari loturik zetorren finantza indarraren galerari, emigrazioaren zein hilketen zioz gertatutako kopuru-urripena erantsi behar zaie.

Burgeseria: Iraultzaren onura hartzaile nagusia izan zen burgesiarentzat ere, balantzeak hainbat iluntasun agertzen ditu. Lanbideak zituztenak, horiek kenduak izaterakoan, porrot eginda geratu ziren inolazko kalteordainik jaso gabe. Errentatzaileak lur jo zuten errentatuek jasan zuten baliogalketaren ondorioz. Ez gaitu harritu behar, beraz, hainbeste burges gilotinarantz urkamendiko eskailarak igoten ikusteak. Eta errebantxa gisa, nazio-ondasunen eskuratzaileek, armadaren hornitzaileek, funtzionariek, armagizonek eta legegizonek osoturiko beste burgeseria berri bat agertu zen.

Gizarte arazoa: Gizarteari buruzko balantzeak eztabaida biziak sortzen ditu. A.Cobbon-ek aurrikuspen ideologikoak desegin ditu, marxisten zenbait haserre bizi bereganatuz. Izan dira erizpide orekatuagoak ere.

Demografia: Dena den, badugu argudio guztiak baino indar handiagoa erakusten duten zifren alorra ere. 1792 eta 1815. urteen arteko gudetan izandako pertsona galerak, nahiko zehaztasunez, gutxienez 1.300.000 pertsona izan zirela kalkula daiteke. Parisek, Iraultzaren hasieran, 1789.ean, 650.000 inguru bizilagun zituen, zazpi urte geroago, 1806.ean, 580.000 bizilagun izatera jaitsita ageri zaigularik.

Hilketak eta emigrazioa baino larriagoa, militar karguek pilaka gudari erabiliz burruka odoltsuetan bat-batean galdutako kopurua baino handiagoa izan zen, Mendebalean, Normandia-tik Poitour-eraino, batez ere Vendée-n egin zen genozidioa; anaien arteko errukirik gabeko gudak, inolazko gehiegikeriarik gabe «odol-husketa demografikoa» deitu izan zena bultzatu zuen. Bolada iraultzaileak 25 urtetan, Antzinako Erregimenak hiru mendetan baino pertsona gehiago hil zituen.

Iraultzako ideiek ezaugarri bateratsua zutela, Espainian eta Euskadin izandako eragina, neurriz kanpoko eta diktadura eta absolutismorik gorrienari zegozkion antiklerikalismo, antikristautasun eta erlijiotasunaren aurkatasuna zirela bide, askatasunaren izenean demokrazia eta gizartearen aurkako ziren erasoketa eta joputasunaren iturburu gertatu zen.

b. **Markina gerrarako jaikita (1793-1795)**

Luis XVI Frantziako Erregeari 1793.eko Urtarrilaren 21ean gilotinan lepoa moztu ziotenean, Espainia haren alde atera zen, ondorioz Frantziak gerra deklaratu ziola (1793-III-7); eta Espainiako Karlos IV.ak Frantziaren aurkako agerpena sinatu zuen (1793-III-23) berak ere, era berean, gerra deklaratuz; eta iraultzaren aurkako koalizioan sartu zen.

Markinako udalak, mugatik hurbil kokatuta aurkitzean, 1793.eko apirilaren 10ean eta 19an 247 gizonezkok osotutako herritar milizia sortzea erabaki zuen[133].

Frantses tropak muga iragan eta 1794.eko abuztuaren 1ean Hondarrabia eta Errenteria hartu zituzten eta abuztuaren 4ean Donostia. Egia esan, Gipuzkoan ez zuten erresistentzia handirik aurkitu bertako hainbat bizilagunek ez zuelako hain gaizki ikusten frantses iraultza. Bizkaian aurka egiteko asmo sendoagoak ageri ziren eta Herrialdea defentsarako gertatu zen. Markinak fusilak, baionetak eta abar eskatu zituen «defentsa gogorra» egiteko; eta abuztuaren 16an Ondarroari beraren alde konpainiak bidaltzeko gertu zegoela jakinerazi zion[134].

Markina eta inguruetan tropen etengabeko joan-etorriak zirela eta Udala janari eta aloger alorrean neurri larriak hartu beharrean aurkitu zen. Frantsesen mehatxua

[133] MUA, *Libro de decretos...1778-1797*, 223r-225r.
[134] Ibd., 267. orr; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 169. orr.

areagotu egin zen. Eta azaroaren 5ean babeslekuan ezkutatu ziren parrokiako zilerrezko tresnak eta bitxiak zein udal artxiboko agiriak[135].

Frantses sartzaileak 1795.eko uztailaren 13an heldu ziren Durangora eta, egun berean, frantses jeneralak Markinako udalari mehatxu-deia bidali zion: lau egun barru bertako diputatu ordezkariak Gatzagara bidaltzeko aginduz. Eta bizkaitarrei frantses errepublikak neutraltasuna baino besterik ez ziela eskatzen aditzera eman zien: «La república [francesa] no os pedirá mucho, pero entre otras cosas reclama fuertemente vuestra neutralidad»... Ordena jagotea eta erresistentzia amaitzea eskatzen zen. Udalak uztailaren 13an bertan erantzun zion: gertu zeudela ordezkariak bidaltzeko, baina horretarako deialdia Diputatu Jeneralak egin beharko zuela esanez[136]. Arazo hauek aztertzen zihardute bitartean Basileako bakea heldu zen 1795.eko abuztuaren 5ean, Frantziak Euskal Herrian eta Katalunian eskuratutako lurraldeak itzultzen zituela eta espainiarrek Santo Domingo irla, etab.

Etxera-dei hau Markinan *Te Deum, Agur Erregina* eta *Meza nagusia* abestuz eta herritar jaiak eginez ospatu zen[137].

c. **Karmengo komentua. (Sanitate-Zaingoa bertako atarian)**

Eta egoera sozio-politiko honetan zer-nolakoa ete zen Karmengo komentuaren jokaera eta bizitzeko eta iharduteko era? Zoritxarrez, agiriak galdu direlako[138] ez daukagu komunitate barruko iharduerari buruzko berririk. Hala ere, Markina eta Bizkai osoko gizartea oso urduri aurkituko zirela pentsa daiteke.

Konbentzio-gerra honen data osteko agiriak ditugu bakarrik. 1804.ekoak; hain zuzen Karmengo atarian sanitate zaingoa ezartzeko ahaleginei dagozkienak dira.

Agirietan ikus daitekeenez, izurritea sortu zen, horren aurrean udalak berehala babes lanari ekin ziola: Hiriko Sanitate Batzordea eratu zen, buru une hartan alkate zen Francisco de Alzaa zuelarik, Miguel Andres de Barroeta, presbiteroak, Benito de Alonsotegui Jnak eta Xabier Astarloa Jnak osotuta. Hauek berehala hiriko sarrera-irteerarako hiru gune garrantzitsuenetan zaingoa eta kontrola jartzea erabaki zuten: 1. zaingoa Markinatik Etxebarrira zihoan bidean, 2.a beheko errebalean Ondarrutik zetorren bidean eta 3.a goiko atarian Durango-Bilborako bidean.

Azken postu honetako zainak komentuko atarian kokatu ziren 1804.eko azaroaren 22ko arratsaldeko ordu bietan. Baina, hau, Batzordearen aldez aurretiko baimenik gabe eta komentuko prioreari ezer esan gabe egin zen. Prioreak postu hori

---

[135] MUGARTEGUI, 171. orr.
[136] MUA, *Libro de decretos...1778-1797*, 241v-342v.
[137] Ibd., 345v-346v, 1795-VIII-12; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 181.orr.
[138] Frantsestean galdu ziren komentuko agiri ugariez gainera, azken gerra zibilean Markinako eskribauen artxiboak desagertu ziren; ikus. *Gehigarriak*, IV, 63.

hutsik uzteko agindu zien. Hau zela eta gatazka sortu zen Batzorde, Komentu eta Diputazioaren artean[139].

22ko egun horretan, goizeko 11etan, Pedro de Bascaran, udaleko eta Batzordeko idazkariak abisu bat bidali zion Prioreari eta Komentuari: «lekua egin eta zaingoari atarian egoten uzteko erregutuz». Nagusiak isekatzat jo zuen ohar edo papeltxo hura eta hurrengo egunean itzuli egin zion. 23ko egun horretan, arratsaldeko sei t'erdietan, Batzordeak, erret aginduei jarraituz zaingoa komentuko atarian kokatzea erabaki zuen eta hala jakinerazi zion Nagusiari[140]. Nagusiak, hurrengo egunean komunitatean aztertuko zutela erantzun zion[141].

Horrela, 24ean, goizeko bostetan egin zuen bilera komunitateak: eta egoera aztertu zuten eta gutun luze bat bidali zion Batzordearen erabakiaren aurkako zioak aditzera emanez: osasun publikoari buruzko Erret zedula, agindu eta manu guztiak begirunez betetzeko gogoa adieraziz hasten ziren. Baina, Batzordearen erabakia erregearen «zaintza probidentzien aurkakoa» zela uste zuten, halako arauen adiera, izurria zuen pertsonarik hirian sar ez zedin gau t'egun zainduz aritzea zelako. Eta jakinerazten zuten atariko atea, estua izateaz gainera ez zegoela egoera onean zaintzarako, egineginean ere, zaindu beharreko bideetatik guztiz bestaldera begira aurkitzen zelako, etab. Era berean beharrezkoa zuela ataria komunitateak,... «magistratuek, gerra biziaren garaian, sitiaketa garaian, ikusi dugunez koartela komentuan izatean ere, errespetatua izandako lekua dela» esaten zion[142].

Gogoramen hauek Batzordeari jakinerazi eta ordu laurden geroago Pedro de Bascaran atarian sartu zen nagusiari jakinerazi gabe. Honek hain errespetu gutxiko egintza hori zela eta haserratuta, lekukoei deitu eta ataritik kanpora bidali zuen zaingoa; 24. eguneko goizeko hamarrak ziren. Luis de Goxeascochea kabuak gertatutakoaren berri eman zion Sanitate Batzordeari eta, ordubete geroago, 11etan, komentura joan zen Pedro de Bascaran idazkaria Aita Priorea beldurtu nahirik eta Batzordeburuak sinatutako dekretua irakurriz. Gatazka hau horrela gertatu zen arren, hurrengo egunetan zaingoa jarri zen kaminoko gune hartan, baina ataria itxita zegoela.

Aita Prioreak, Hiriko Sanitate Batzordearen gogortasuna ikusiz, txosten bat bidali zion Probintziako Batzordeari eragozpenak eta oztopoak azalduz. Eta Frai Bartolomé de Santa Teresa sermoilaria joan zen Bilbora eginbideak egitera Pedro de Santa Teresa Aita Prioreak Azaroaren 26an sinatutako beste txosten bat zeramala[143].

Bestalde, Markinako Batzordeak azaroaren 27an Prioreari komentu barruan zein kanpoan aurkitzen ziren komentuko erlijioso guztien zerrenda eskatu zion; era berean, baita morroiena ere, zein ordutan egin behar zuten zaintza jakinerazteko[144].

---

[139] MKA, A-I-55.
[140] MKA, A-I-55, 5.orr.
[141] Ibd., 7.orr.
[142] Ibd., 8.orr.
[143] Ibd., 9-10.orr.
[144] Ibd., 19.orr.

Prioreak egun bereko arratsaldeko 3etan erantzun zion, 23 pertsona zirela, apaizak (batzu kanpoan apostolutza ihardunetan) eta anaiak zenbatuta, eta horietaz gainera bi morroi jakineraziz[145]. Hurrengo egunean, 28an, Francisco Antonio de Alzaa Batzordeburuak izandako gaizkiadituak eta ezadostasunak[146] aditzera ematen zizkien erlijiosoek[147] ere zaintza egiteko eskatuz. Aita Prioreak komunitatearen egoera kontutan izateko eskatu zuen, kide batzu etxetik kanpo zirelako eta beste batzu gaisorik eta ezinduta[148].

Hurrengo egunean, 30ean, Batzordeak kontutan izan zituen gaisoak eta onartu egin zuen Prioreak zaintza egiteko berari egokienak iruditzen zitzaizkion ordezko erlijiosoak izendatzea[149].

Baina zaintza egiteko lekuari zegokionean, Julian de Argaiz Diputazioko idazkariak, azaroaren 29an, Zaingoa Karmengo ataritik nolabaiteko indarrez kanporatua izan zela eta mindurik «zaingoa atarian berriro ezartzeko» agindu zuen[150].

Azkenean, gatazka hau abenduaren 2an komunitateak aurkeztu eta Diputazioak 4ean onartutako proposamenaren bidez amaitu zen[151]: sortzen zituen eragozpen handien ondorioz «atari hartan jarritako zaingoa, lastategiko teilapera aldatzea» komeni zela; horrela konponduta geratu zen sanitate zaingoaren postua edo kokalekua.

2. Frantsestea (1807-1814): Karmeldarren kanporaketa

Aipatutako gertakarien ondoren, gizarte-politika eta erlijio egoera gaiztoagotu egin zen eta egun gorriak zetoztela antz eman zitekeen. Alde batetik, Ilustrazioak ateak irekitzen zizkien iraultza mugimenduei; eta, bestetik, iraultzak biztu eta Napoleonek bere onerako erabilitako frantses abertzalekeriak erlijioarentzat oso ondorio ezkorrak ekarriko zituzten gerrate urteak, erasoaldiak eta zalaparta sozio-politikoak zetoztela iragartzen zuen.

a. Egoera politiko orokorraren barruan frantsestearen hasiera

Napoleonen hainbat garaipen zituen lortuak Europako etsaien aurka. Eta Espainiara sartzen hasi zen bere armadak 1807.eko urriaren 18an Bidasoa zeharkatzean. Atxakia Portugal erasotea izan zen. Egiatan, Napoleonen koinatu izanik aurreko hilean beraren Espainiako ordezko izendatutako Murat mariskala, armada indartsu baten

[145] Ibd., 26.orr.
[146] Ibd., 21-22.orr.
[147] Ibd., 23.orr.; 1804-XI-29.
[148] Ibd., 26.orr.; 1804-XI-29.
[149] Ibd., 25.orr.
[150] GPKA, Markina 4.
[151] Ibd.

buru zela Madrilen sartu zen 1808.eko martxoaren 23an. Fernando VII, beraren aita Karlos IV erregeak tronoa abdikatu ondoren, Madrilera sartu zen 1808.eko martxoaren 24ean. Otsail-martxo artean Iruñea, Bartzelona, Donostia etab. okupatu zituzten frantsesek.

Markinako parrokia elizan, Fernandok tronoa eskuratzea zela eta *Te Deum* nagusi bat abestu zen apirilaren 5ean; eta 21ean *Salve* eta *Meza* nagusia abestu ziren Napoleonek eta Fernando erregearen arteko elkarrikustea onuratsua izan zedin[152]. Urte bereko uztailaren 25ean Napoleonek Jose Bonaporte izendatu zuen Espainiako errege.

b. **Karmengo komentua salaketa artean**

Frantsestearen zalaparta sozio-politiko-militarra Bizkairaino heldu zen 1808.ean eta abuztuaren 4ean Bizkaiko Gobernuaren Batzorde Nagusia eratu zen hiriburu eta elizate gehienen altxamenduaren ondorioz. Batzorde horrek bizkaitarrak soldadu eramatea erabaki zuen; horrela, abuztuaren 8an, 16-40 urte arteko ezkongabe eta semealabarik gabeko alargunek osoturiko bi konpainia armatu eratu ziren Markinan. Udalak hil bereko 20an, Hiriak janariak eskuratzeko eta frantses tropak herria zeharkatzen bazuten inork irainik ez egiteko agindu zuen[153].

Irailaren azken egunetan sartu ziren Bizkaian estatuko tropak eta urrian elkartu zitzaizkien Black jeneralak gidatzen zituen ingelesenak. Frantsesak Durango eta Zornotza zituzten beren menpe hartuak; azaroaren 1ean izan zen bien arteko burrukaldia frantsesen armadak irabaziz[154].

Bien bitartean Markinako Karmeldarren komunitateak euria eskatzeko atxakia erabiliz Karmengo Amari, San Joseri eta Santa Teresari bertako lurraldearen onerako eta defentsarako bederatziurrenak egiten ziharduen: eta hau «ordurako eskualdean ugari dabiltzan salatariengandik babestuak izateko»[155].

aa. *Komentuaren aurkako salaketak*

Hain zuzen ere, 1808.eko abenduaren 30ean, J.J.Avril, gobernadore jeneralak (1808-X-25ko agiria) udalari bere ernegu bizia jakinerazten zion bere tropak Markinara eramateko mehatxua eginez; eta berehala eskualde hartan zeuden armak entregatu eta bidaltzeko eskatu zuen[156]. Baina salaketa nagusia Aita Karmeldarren aurka zen: Markinako komentuko fraideak ordenu publikoa arriskuan jartzen zutela eta

---

[152] MUA, *Libro de decretos...1806-1810*, 93v-94r, 1804-IV-23.
[153] Ibd. 112v; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184.
[154] MUA, ibid., 135v. (MKA, A-I-70); FR. BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones de lo ocurrido...*, 2.orr.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 184.
MKA, A-I-70, 3.rr.
[156] MUA, *Libro de decretos...1806-1810*, 155.orr.

herriarengan zuten begirunea Probintziako frantses gobernuaren aurka erabiltzen zutela zioen[157].

Udalak konfidantza-zeinu gisa Prioreari jakinerazi zioten Gobernadorearen gutun-agindu hau. Frai Bartolomek, Markinako fraide guztiak atxilotu eta Bilbora eramateko asmoak zirela kontatzen digu[158]. Halako arrisku eta salaketen aurrean komunitateak Aita Frai Bartolome de Santa Teresa Sermoilaria bidali zuten Bilbora 1809.eko urtarrilaren 2an, arazoa konpontzera eta salaketen iturrien berri jasotera. Eta horrela ezagutu ahal izan zuen salatzailea eta Gobernadoreak Markinara informatzaile bat bidaltzea lortu.

Hain zuzen ere, 1809.eko urtarrilaren 11n heldu zen Lino de Tavoa, Dantzicko duke mariskalaren kaperau Jna Markinara, bertako «Aita Karmeldar Oinutzen komentuko desakordioak zuzendu eta konpontzera». Eta kontseiluak, urtarrilaren 12an udalaren batzarretxean bildurik karmeldarren aurkako salaketoi, hots, erlijiosoak Napoleonen aurka aritzeari, jendea asaldatzen iharduteari, frantsestarren heriotzea errogatiben bidez eskatzeari eta frantsesen aurkako biraoak esan eta jendea frantsez tropen aurka jartzeari buruz erantzun behar izan zion:

«1.° *Si dichos religiosos han hablado mal del Emperador Napoleón y de su Hermano Jose Primero Rey de España.*

2.° *Si han aconsejado a las jentes de estos Pueblos de Vizcaya que no reconozcan a José por Rey y que no le obedezcan en nada.*

3.° *Si hacen rogativas públicas para que Napoleón y su hermano José con todos sus Ministros oficiales generales, grandes y todos sus Ejércitos perezcan en la presente guerra.*

4.° *Y finalmente si aquellos malos frailes blasfeman y protejen por toda esta Vizcaya especies y noticias, tan redículas que las ejntes de todos estos Países acometerían leugo si tuviesen armas contra las tropas de aquellos dos príncipes Hermanos»*[159].

Udalak salaketa guzti horien aurka erantzun zuen (ez zutela salatutakoen inolazko berririk) fraideen defentsa eginez. Era berean, beraien alde atera ziren Etxebarriko San Andres, Barinaga, Berriatua eta Ziortzako elizateek eta kabildoek.

Aurrekoekin batera, frantsesen beldurrez zilerrezko gauzak, kalizak, ekisainduak etab. ezkutatu izatearen salaketa ere egiten zitzaien.

Frai Barlomek eransten du: «Oinarri-oinarian ez zen guztiz gezurrezkoa lau salaketetan adierazia; baina erlijiosoak ez ziren beraien jokaera abertzalea agerian ez ezkutatzeko adinako burubakoak; eta frantsesari salatzea beti zen gaizki ikusia. Egia da, bai komunitate honetako erlijiosoek ahal izan zuten neurrian sinestedunen artean erlijio, aberri eta gatibu zegoen benetako erregearenganako maitasuna mantentzen saiatu zirela, bai elkarrizketetan, bai aitortokietan, bai beren buruak arriskuan jarriz

[157] MUA, Ibd., 155,166; MKA, A-I-70, 3.orr.
[158] MKA, A-I-70, 3-4.orr.
[159] MUA, *Libro de decretos...1806-1810*, 165v-166v; MKA, A-I-58; MKA, A-I-70, 6-7.orr.

hitzaldietan, geroago Bilboko epaitegiak Komentu honetako Aita Sermoilariaren aurka jarritako auzian ageri zenez, sermoi baten zioz espetxeratu eta epaitua izan zelarik»[160].

bb. *Salataria agerian jarria*

Frai Bartolomek, nola aurkitu zuen beraren anaiak zalatu zituen komunitateko Aita karmeldarra kontatzen digu: «Jainkoak hala nahi izanik, nire lehen eginbideak egitean Avril-en eskuetara heldu baino lehenago hari salatariak bidalitako gutun bat eskuratu nuen; kontuz ireki eta bertan ezagutu nuen gure erasoaldien egile nagusiena. Gutuna itxita...»[161].

Baina Lino de Tavoa Jnak hil bereko 13an komunitatea bildu zuenean, ageriko egin zen salataria, Aita Tomás de Santa Teresa, gelan frantses banderak, dirua, dagak etab. aurkitu zitzaizkiolarik eta gau eta egun zaindutako gela batetan sartua izan zen Avril Gobernadore Jenerala informatu arte.

Aita Frai Bartolomek, Aita Tomás pertsonaia gaizto hau deskribatzen du: Castañares (Errioxa) herrikoa zen, maltzurkeria handikoa eta ezaguna probintzian. 17 urte inguru lehenago, Burgos-eko komentuala zela, konportamendu txarragatik zigortua izan zen. Gero Peñaranda-ko komentura bidali zuten. Han ere auziperatua izan zen eta Burgo de Osma-ko kartzelan sartua. Komentu honetan Aita Priorea mehatxatu zuen eta gaiztakeriak egin; berriro zigortuta Larreako (Zornotza) komentura bidali zuten. Larrean «bere ohizko gaiztakeriak egin zituen eta handienetarikoa gau batetan komentuari bi aldetan sua ematea izan zen»; auzipetua izan ondoren Sestaoko Irlako Eremuko komentura bidali zuten, han zenbait gaiztakeria errepikatu ondoren, azkenik, Markinan konfinatua izan zelarik.

Pertsonaia arraroa zen, bada, «Probintziako gure zazpi edo zortzi komentuetako herri eta inguruetan gaizpide handiak» egin zituena. Bere burua frantsestutzat zaukan Enperadoreari eskualde osoan zerbitzuak eskaintzeko zaletasuna erakusten zuelarik.

Baina Luis de Echevarria y Berrueta, Avril-en idazkaria salatariaren alde zegoenez, urtarrilaren 3an askatzea lortu zuen; eta Sestaoko Irlako Eremura bidalia izan zen, bertan ere fraideen aurka salaketak egiten jarraitu zuela. Gobernadoreak eta beraren idazkariak, hainbeste salaketa-gutun hartzen gogaituta, sekulartu eta Castañares, beraren jaioterrira bidaltzea erabaki zuten. Azkenean, Frantziara ihes egin zuen frantsesekin[162].

c. **Karmengo elizan egindako hileta batzu eta kabildoaren protesta (1809)**

Gatazka txiki eta ustegabeko bat izan zen Markinako eliz kabildoaren eta Karmengo komentuaren artean. Parrokiako artxiboko paper batzuk, Lorenzo de Solozabal Orbea, Barinagako gaztea 1808. urtean Zaragotzan hil zenean, beraren gusaroak

[160] MKA, A-I-70, 9.orr.
[161] Ibd., 4-5.orr.
[162] Ibd., 11-15.orr.

hiletak Karmengo elizan egin zituztela kontatzen dute; urte berean, Jose Estebanot Toberero, Mª Antonia de Olea-ren senarra, Gasteizeko espetxean hil zen eta beraren emazteak hiletak Karmengo elizan egin zituen.

Era berean, urte horretan María de Artechebarria hil zen Barinagan, eta beraren erranak kabildora jo zuen hiletak Karmengo elizan egiteko baimen eske. Kabildoak baimena ukatzea erabaki zuen; baina, Josefa de Arnoriaga-k erantzuna itxaron gabe karmeldarrekin arazoa konpondu eta hiletak hauen elizan egin ziren[163].

Hiru gertakeri hauek haserre bizitan jarri zuten kabildoa eta urte bereko maiatzaren 13an Priorari Karmeldarrek ezin zituztela halako hiletak egin jakinerazi zioten, 1691.eko eskriturak eta 1721,1723,1729 etabarretako (hauek lehen aipatu ditugu) epaitzek alde zituztelako.

Karmengo priorak maiatzaren 18an erantzun zien, bere ustetan ez zuela parrokiaren eskubideen kalteko ezer egin esanez, «hemen ez baitugu gau-otoitzen bat edo beste abestu baino egin», aipatutako epaitzek «erlijiosoek hileta-egunetan Xemeingo Santa Marian mezak ospatzeaz ari dira, baina ez kristauek beren kabuz eta borondatez eskainitako gau-otoitzez» zihardutela uste baitzuen[164].

Kabildoak gogorki erantzun zion maiatzaren 22an: «Markina eta Barinagako eliztarren hiletarik, beraien parrokietako ohitura eta ekanduen arabera eginak izan arte, ez egiteko erabakia har zezala» esanez eta «argi eta garbi adieraz zezala hala egingo zuen ala ez» eskatuz. José de los Dolores, une hartan Bilbon aurkitzen zen prioreak, gutuna jasoterakoan, Kabildoari bilera egin eta arazoa aurrez aurre pertsonalki aztertzea proposatu zion «pertsonak hitz eginez konpontzen direlako».

Kabildoak On Miguel Ansotegi izendatu zuen elkarrizketarako. Jarraian Aita Prioreak, komunitatearekin aztertu ondoren kabildoari ekainaren 9ean gogoko erantzuna eman zion eta arazoa konpondutzat jo honako erantzun honen bidez: «eliztarrek eskaturik gogoramen edo ondra txikiren bat egin bada, parrokiako hileta betebeharrak eta eskubideak eginak izan direla uste izanik egin izan da; hala izan ezik ez zitzaielako ezta ez zaielako inolazko erreguei baiezkorik emango; hau halaxe da, kabildo txit agurgarri eta gorena; era berean, komuniate honetako inork ez duela zuzenean ez zeharka gau-otoitzik, gogoramenik ezta inolazko ondratxorik eskatu esan beharra dago, mesedez eskatuak izan direla, hildakoen aldeko parrokiako sufragio eskubideak beteak izan direla egiatan suposatuz».

Eta gutunaren azken aldean berriro agertzen da: «aurrerantzean komentu honen eraikuntzan eta geroagoko beteaginduetan hitzartu eta agindua zehazkiro gorde eta betetzeko gogoa; hori dela eta komentu honek Kabildo txit argiari ez dela, aurrerantzean, honelako tirabirarik elkarren artean izango segurtatzen dio; eta gogo biziz, orain arte izan diren bezalako harreman onak eta adiskidetasuna izatea nahi du»[165].

---

[163] GPKA, Markina 3, *Razón de lo ocurrido...*, (Jator.:MPA).
[164] Ibd.
[165] Ibd.

d. Komentua kèntzea eta karmeldarren kanporatzea

Euskal Herrira sartutako frantziarren bortxa handituz joan zen, Lekeitioko Santiago de Unzueta Jna eta beste jaun batzu izendatu zituztela Karmeldarren komunitatea euren etxea ixtera behartzeko, baina beraietariko batzu uko egin zioten halako zeregin desatsegin eta bidegabeari. Eta zeregina beraien gain hartu zutenak honakook izan ziren: hartzeko, kreditu eta abarren alorrerako, Markinako alkate zen Jose de Goxeascoechea Jna eta liburutegi, sakristia, eliza eta abarren alorrerako, Bolibarreko parrokoa zen Domingo de Uriona Jna; fintasun handiz egin zuten beren lana. Jaun hauek 1809.eko irailaren 30ean aurkeztu ziren komentura eta komunitateari dei eginez etxea kentzeko agindua jakinerazi zioten, komentua hamabost egunetako epearen barruan utzi behar zutela esanez.

Jarraian jaun haiek bertako komunitatearen bitxi eta ondasun guztiak zerrendatzen hasi ziren, zeregina oso zehatz bete zutelarik, Fr. Bartolomek dioen bezala; «ez zen ezer, zerrendatu gabe geratu, saskizko pitxer batetako tinda hondarrik ere ez»...» komunitateak ez zuela laguntza emateko gelarik eta mezarik eman ezinda oheratuak eta mankatuak aurkitzen ziren hiru edo lau erlijioso» kontutan hartzeko erregutu zitzaien. Jaunek «ez zutela ezer uzteko ahalmenik» erantzun zieten...; eta ironia pixka bat erabiliz gaineratzen du: «jaun mandatariak ahalik eta ondoen portatu ziren Napoleonen alde. Batek ohorezko xingola merezi zuen eta besteak mitra. Eta baliteke beraien ametsen artean halako zerbaiten bila ibiltzea»[166].

Urriaren 14ean utzi zuten komentua Aita Karmeldarrek, ohizko ospe handiz Santa Teresaren bederatziurrena eta jaia, bi egun aurreratu zutela, ospatu ondoren.

Frai Bartolomek 1808.eko komunitateko zerrenda ematen digu: 22 erlijioso koristak eta 4 anaiak osotua:

Aita José de los Dolores, priorea,
Aita Juan de la Cruz, prioreordea,
Aita Domingo de S. Millán,
Aita Bartolomé de Santa Teresa, sermoilaria,
Aita Ignacio de la Concepción,
Aita Domingo de San Cirilo,
Aita Francisco de la Madre de Dios,
Aita Miguel de San Francisco,
Aita Gabriel de San Juan Bautista,
Aita Angel de Santa María,

[166] MKA, A-I-70, 13-14.orr.; eta pertsona bi horiei buruz honako hau eransten du: "bata, halabeharraren ondorioz, Jainkoari eta deabruari batera zerbitzen saiatzeagatik edo, atxilotu egin zuten frantsesek guk etxetik irten baino lehenago, zeukan joera kontutan hartuz laster askatua izan zen arren. Bestea, frantsestua izateagatik Bolondresak aurrean erabilia zelarik ezin zuen inon babes segururik aurkitu; azkenean beraien esku erori zen erdi hilik, erdi itorik zubipe batetan, eta zigorketa eman ondoren bizirik utzi zuten, beraren etxea eta boltsa sakeatu eta hainbat urrezko ontza aurkitu zizkiotela. Oraindik gure artean bizi dira jaun horiek".

Aita José de San Antonio,
Aita José de los Dolores,
Aita Joaquín de Santa Bárbara,
Aita Juan de la Purificación,
Aita Tomás de Santa Teresa,
Aita Joaquín de San José
Aita Martín del SSmo.,
Aita Juan Antonio de San José,
Aita Manuel de Santa María,
Anaia Fernando de Santa Teresa, burugaldua,
Anaia Formorio de Santa Teresa,
Anaia Diego de San José,
Anaia Miguel de Santa Teresa,
Anaia Félix de la Virgen,
Anaia Gregorio de Santa Teresa.

Horri beste eragozpen bat gaineratu behar zaio, hain zuzen ere, 1808.eko maiatzean Iruñeko teologiako ikastetxea 17 ikasle eta hiru irakasle zituela Markinara aldatua izatea; hori frantses armadak Iruñeko ikastetxea okupatzearen ondorio izan zen. Eta Frai Bartolomek zirrara eta tristura handiz deskribatzen ditu Karmeldarrek Markinan elkarbizitzan eginiko azken uneak: «alde egiteko egunean denok bazkaldu genuen jantokian fraide jantzi santuak geneuzkala eta arratsaldean batzu besteengandik banatu. Burua galduta eta gaisorik zegoen Aita Francisco de la Madre de Dios ohetik atera eta besoz beso erlijioso bàtek *Ave Maria* ostatura eraman zuen, inork ez zuelako bere ardura hartzen»[167].

Baina gauza batzu salbatzea lortu zen; komentua ixteko agindu aurretik isilean hainbat liburu, batez ere Guraso Santuenak, eliz jantzi batzu, Ama Birjinaren zilerrezko koroa etab. atera ziren.

e. **Kanporaketaldia**

Frantsesteak komunitatean egin zuen hurradura bizia, 1839.eko esklaustrazio handiaren aurrerakina edo saialdia izan zen. Frantsestealdi honetako esklaustrazio urteak (1809-1813) gutxi izan baziren ere, hondamendia, lapurreta eta jazapena gogorkiro eta bizikiro egin ziren.

aa. *Komentutik kanporatutako erlijiosoak beharrizanean*

Frai Bartolomek 1815.eko azaroko idazki berriemaile on batetan, erlijioso behartsu batzuri eta esklaustrazio garai honetan hil ziren beste batzuri buruzko datuak eskaintzen dizkigu: Aita Domingo de S. Cirilo Zeanurin hil zen; Aita Angel de Santa

[167] Ib d., 17-18.orr.

María Gasteizen; Aita Jose de San Antonio Etxanon (Zornotza); Anaia Fernando de Santa Teresa, buruagaldua, frantsesek Frantziara eraman zuten, bidean hil zutela; Anaia Diego de San José Ataunen (Gipuzkoa) hil zen frantsesak irtenda gero[168].

Markinako udaleko akta edo *Libro de decretos* deituan, egoera oso negargarrian aurkitzen ziren Karmengo komentukoak izandako karmeldar batzu aipatzen dira: bata, Diego de Casanueva, Beasaingo semea zen eta bestea, kasurik larriena eta gehien aipatua, Francisco Menica, Etxanoko (Zornotza) semea.

Urriaren 15ean, esklaustrazio osteko hurrengo egunean, udalak Francisco-ren kasua tratatu zuen, ibili ezin eta jaiotetxera itzultzeko gauza ez zelako; eta horrela medikuaren araketa egin ostean, behin-behinean Hiriko ostatu batetara eramateko agindu zuen. Eta Francisco-ri dagokionean «jaiotetxera, erosotasun handiagoa izateko zaldi gainean eramana izan dadila»[169]. Hurrengo egunean udalak berriro aztertu zuen Francisco fraidearen arazoa, bizitzeko, zegokion eskubidez, Markina aukeratu zuelako; kontseiluak onartu egin zuen, baina, ez zeukala Martin de Lauzirica-ren ostatuan mantendu beharrik gogoratuz eta hurrengo igandetik aurrera beraren gastuak ordaintzea bertan behera utziko zuela esanez. Aita Frai Bartolomek Francisco zahar eta gaisoari laguntza eman beharra gogoratu eta eskatzeari ekin zion[170].

Udalak egun batzu geroago, urriaren 28an, onartu egin zuen Jaurreriko korregidoreak zuzendutako ofizio baten bidez agure eta gaisoari, hilero, erregeak erlijioso ohientzat jarritako zenbatekoan, Jaurerriaren kontribuziorako ziren Hiriko fondoak erabiliz laguntza ematea[171].

Baina, hurrengo urtean, 1810.eko urriaren 17an berriro aztertu zen arazoa udalean: hiriak ezin zuen halako txiroei laguntza ematen jarraitu; laguntza ematea eurek jaio zireneko herrien erantzunkizuna zen; beraz, Francisco Menika-k hurrengo egunean beraren Etxano jaioterrira (Zornotza) emana izan behar zuen; eta Markinatik irten aurretik mutiko batek hirian zehar bidaiarako diru-bilketa egitea onartu zuen[172]. Gero, Frai Bartolomek kontatzen duen bezala Etxanon hil zen.

bb. *Frai Bartolome Santa Teresa, atxilotua*

Frai Bartolomek, bera eta lehenago aipatutako Fernando Anaia burugaldua izan ezik, Markinako komentutik kanporatutako erlijiosorik ez zela, Gobernu frantsesak aurrean erabilia izan aitortzen du.

1809.eko abenduaren 17an atxilotu zuten Markinan Bilboko Krimen Auzitegiko Anbrosio de Eguia e Yrigoyen eta beraren eskribaua zen Fernando de Echevarri Jnek,

---

[168] Ibd., 18-19.or.
[169] MUA, *Libro de decretos...1806-1810*, 226v-227v, (MKA, A-I-60).
[170] Ibd., 228v-119r.
[171] Ibd., 231.or., (MKA, A-I-62).
[172] MUA, *Libro de decretos...1810-1815*, 21r-22r, (MKA, A-I-63).

Francisco Antonio de Alzaa Jnaren etxean zegoela eta Bilbora eraman zuten; Frai Bartolomek Pedro de Alzaa Jaunaren etxean, Etxebarrin zituen paperak eta era guztietako lekukoak hartu zituzten «Epaile haiek emakume errugabeei ere Aita Sermoilariak aitortegian irakasten zuenari buruz itaunka aritu zitzaien». Atxiloketaren zioa, 1809.eko Urriaren 14ean, komentua utzi zuten egunean, Santa Teresaren jaiegunean egindako sermoia izan zen.

Auzibidearen ondorioz Frai Bartolome Madariagak 1810.eko urtarrilaren 5ean emandako epaitza bete behar izan zuen «ezin zuela aitorpenik jaso ez eta sermoirik egin erreinuko baketze orokorra lortu arte»; etxebizitza, ostera, bertakoa zelako, Etxebarriko San Andres elizatean izan beharko zuen, jagonda egongo zelarik[173].

cc. *Komentu eta elizaren destinoa: kentzea eta itzultzea*

1) Elizan salbatu ahal zena salbatuz

Frai Bartolomek, egoera oso zehazkiro ezagutzen zuela, kabildoko jaunek sasoiz ardura hartu zutela, hau da, kontaketa osoa gertatu aurretik, elizako erretaulak eta aldare-mahaiak ateratzeko: 12 erretaula eta 11 mahai Jemeingo parrokiako Santa Maria elizara eta Mesedetako mojenera eta bi aldare Etxebarriko San Andresera eraman zituztela kontatzen du eta honako hau eransten: «guztiak elizetan erabiliak izan ziren herriaren debozio handirako». Geroago Karmengo elizarako berreskuratzea lortu zuten. Eta kontalariak oharterazi egiten du elizan geratu ziren aldare nagusiko erretaula baliotsua eta Jose Donearen eta Jon Gurutzeko donearen erretaulak, elizan sua, kea eta egurginek izan ziren arren, «ez dute inolazko hondaketarik izan ez eta kalterik jaso, euretako urreztaduraren argitasunak».

Dorreko kanpaiak Bilbora eraman zituzten frantsesaren aginduz; geroago Bilboko Karmeldarren babestokiko komentukide zen Aita Ignacio de S. Francisco fraidearen ahaleginez eta beste batzuren laguntzaz eskuratzea lortu zen.

Organoa, frantses gobernuari eskatu eta Mundakako errepublikakoek eraman zuten eta euren elizan jarri. Baina «azkenean erosi egin zioten komunitate honi, berriro elkartu zenean, 17.500 dukatetan».

Artxiboak kalte handia izan zuen, erregearen mandatariaren esku geratuz; eta zati handi bat betiko galdu zen; eta honela dio Frai Bartolomek «gure Aita Prioreak eginiko eginbide batzuri esker atal batzu Bilboko ganbara batetan aurkitu dira».

Komentua ixtean «ortua errentan ageri-agerian kanpotar frantsesen alde jarri diren hiri honetako auzoko diren Juan de Pradea frantsesak, eta Pedro de Aguirre Sarasu Jnak hartu zuten»; lau urtetan zehar bidegabekeriaz kendu eta Diputazioko auzitegian beraren gain zuten jabetza eskubidea defendatu zuten; eta honako hau gaineratzen du Frai Bartolomek: «ortua saldu egin zela uste da, baina, ez du inork eroslearen berririk izan»[174].

[173] MKA, A-I-70, 20-22.orr.
[174] Ibd., 24-27.orr.

2) Tropak komentu-koartelean

Komentua, gerrate honen amaieran, 1813.ean, egoera negargarrian aurkitzen zen: zuloak zituela eta alde guztietatik agerian, hormak botata, eskailera guztiak hondatuta, aletegia eta talde-bizitzarako toki batzu erreta; hondakin eta zikinderiaz beteta..., ezin dugu ahaztu «Jauregi Artzaina» zeritzanaren jarraitzaile ziren gerrilari-bandolari taldeak ere komentuko alde batzu desegin zituztela 1811.ean; eta frantsesek goarnizio bat jarri zuten bertan; eta lehen solairuan, azotean eta elizako hainbat aldetan ateratako adreiluz «kanoizuloak, gordelekuak eta tximinia batzu» egin zituzten, horrela komentuaren hondamendizko egoera azkenetara eramanez[175].

Udalaren *Libro de decretos* deritzanean, 1811.eko ekainaren 5ean, jakinerazi egiten zaigu bertan zegoen mariskalak «hiri honetan kendua izan den komentuko gurdientzako atea eta koarteleko labeko leihoa ixtea» nahi zuela, udalak betetzeko gertu zegoela adieraziz[176].

Hurrengo urtean, 1811.eko abuztuaren 21ean, udal ofizialei jakinerazten zitzaien «gaur bertan hasi behar dituzue etxetzarra gotortzeko komandanteak agintzen dituen lanak»; eta materialea lortzeko komentuko hormak bota beharra izan ezkero hala egiteko erabaki zuten[177].

3) Udala eta liturgia zerbitzua Karmengo elizan

Karmengo komentua kentzen zuen 1809.eko abuztuaren 18ko erret dekretuaren ondoren, agerikoa egin zen udalaren ardura. Bertako fraideei, kentze dekretua 1809.eko irailaren 30ean jakinerazi ostean eta komentutik irten aurretik, urriaren 5ean udalak komentuko eliza, parrokiaren lagungarri izatea eta bertan herriaren onerako liturgia zerbitzuak egitea eta hori lortzeko, Iruñeko eta Arantzazuko komentuetan lortu zen bezala, beharrezko eginbideak egitea erabaki zuen; horretaz gainera, komunitateko sei fraideek (herritik kanpo bizi arren) elizaren zerbitzuan izateko ahaleginak egitea nahi zuen: «egunero eta, batez ere, igande eta jaiegunetan ohiturazko orduetan beren mezak esan eta ospatu ditzatela eta onura hori erabili dezatela hiri honetako eta aipaturiko Jemeingo elizateko eliztar ugariek, parrokia, ezaguna eta agerikoa denez, herritik urruti dagoelako batez ere negualdian zehar eta eguraldi txarraz ezin dutelako guztiek bertaraino joan meza entzutera, guzti hau beraiek komunitaterik osotu gabe eta klerikoen jantziak ekartzeko baldintzapean izango dela ulertuko delarik». Eta erabakiok beterazteko ardura Jose Goxeascochea eta alkate zen Jose Hipolito de Alcibar jaunei eman zitzaien[178].

[175] Ibd. 23-25, 27-28.orr.
[176] MUA, *Libro de decretos...1810-1815*, 65v-66v.
[177] Ibd., 77v-78v, 1811-VIII-22.
[178] MUA, *Libro de decretos...1806-1810*, 225r-226r, (MKA, A-I-59).

Hamar egun geroago, eta Karmeldarrak komentua itxi eta hurrengo egunean, urriaren 15ean, udalak berronetsi egin zuen 5ean hartutako erabakia eta Karmengo eliza kultoa eskaintzeko irekirik edukitzeko beharrezko eskaria Gobernadoreari eta Kalagurriko apezpikuari egitea erabiki zuen[179].

4) Komentuko gauzen salmenta

Aipatu dugu zer-nolako egoera zailean geratu zen ortua, Juan de Pradearen «jabetzapean» eta erosle ezezagunei saldu zitzaiela. Eta gauzarik garrantzitsuenak salbatzeko ahaleginetan erretaulak, aldareak eta abar leku onetara eraman zirela.

Baina 1811. eko martxoaren 14 eta 15ean salgai jarri ziren komentuko gauzak. Egia esan, balio gutxiko gauzak, horrela, platerak, botilak, arkaren bat, lanka etab. Udaleko aktek hainbat erosleren, hogeitahiru ingururen izenak jasoten dituzte[180].

f. **Egoera politiko-militarra Markinan**

Frantseste garaian Karmengo Komunitateak bizi izandako barruko egoeraren osagarri gisa, egokia izango da Markinako egoera eta iharduera sozio-politikoa eta militarrari begirada egitea.

Frantsesek, Bizkaian, beren indar militarrak bertako hiriburuan eta herririk garrantzitsuenetan kokatu zituzten. Baina 1809.ean frantsesen aurka Probintziako alde ezberdinetan iharduten zuten talde ibiltari edo bolondresak eratu ziren, sarritan egiten zituzten lapurketak eta harrapaketak zirela bitarteko herriaren kalte handitan. Talde horietako bat Pedro Perez-en aginduetara Markinan agertu zen 1809.eko azaroaren 25ean, baina herriko auzotarrek aurre eman zien. Babeserako herri-zaingoa eratu zen[181]. Frai Bartolomek «bolondres» horiek Karmengo komentu eta elizan eginiko kalteak kontatzen ditu.

1810.aren hasieran, Jaurerriko eraketa aldatua izanda gero, Bizkaiko Gobernua (frantsesa) eratu zen eta Enperadorearen dekretuz Udaletako kontseiluak sortu ziren; eta Markinako kontseilua José Domingo de Gaviola alkateak eta José de Donesteve, Martín de Ibaseta, José María de Acha, José de Chopitea eta José Barruetabena korrejidoreek osatua izan zen.

Baina, bolondres edo «gerrilari» taldeak, pertsegituak edo erasotuak ziren arren, ugaritu egin ziren; Markinaldean ere bai. Bere aldetik, Bizkaiko gobernadore zen Thouvenot jeneralak, Markinako hiriari 70.000 erreal exigitu zizkion gastuei aurre

[179] Ibd., 226r-228r, (MKA, A-I-60)
[180] MUA, 50. Erregistroa, 9.Zkia (MKA, A-I-64).
[181] MUA, *Libro de decretos...1806-1810*, 237v-238v; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 188-189. orr.

egiteko[182], udalak, lortzeko, bere jabetzapeko baso batzu saldu behar izan zituela; Markinako herri-zaingoak nahiko ongi betetzen zuen babesketa zeregina; baina, udalaren fondoak gutxitzea eta beste zenbait arazo ekonomiko zirela tarteko, udalak ezin izan zien 1811.eko maiatzean eta ekainean herri-zaingoko gizonei ordaindu. Hori zela eta komandate nagusiarengana jo zuten fondo ekonomiko ezaren ondorioz ezin zutela herri-zaingoa mantendu eta harrapaketa meatxuak etengabeak zirela aditzera emanez; oso gogorra izan zen jeneralak 1811.eko uztailaren hasieratan emandako erantzuna: herri-zaingoak zerbitzua ematen jarraitu zezala edota pertsonaia garrantzitsuenak atxilotuko zituela[183].

Hala ere, zioa ez zen bakarrik fondo ekonomikoak amaitzea. «Artzaina» zeritzan taldeburuari, Gorostolako taldeak, Gorriarenak, Motrikoko Zapatariarenak eta beste frantses, espainol eta italiar iheskariak eta abar elkartu zitzaizkion 500 gizon inguruz osotutako aldra eratuz eta Markinako eskualdera meatxu handia eramanez: eta biztanlegoak euren bildurrez armarik eta herri-zaingorik gabe egon nahi zuen[184].

Baina jeneralak hiritarren bildurrak funtsik gabeak zirela jakinerazi zien eta herri-zaingoaren zerbitzua betetzeko agindu eta goarnizioa ugaltzeko hitza eman. Hala eta guztiz ere, ugaritu egin zen jendearen arteko ondoeza bertako biztanlegoa asaldatzeraino, beren bizitza eta ondasunen defentsarako herri-zaingoa armarik gabe uztea nahi zuelarik. Egoera honen aurrean kontseiluak 1811.eko abuztuaren 10eko batzarraldian, bik bakarrik parte hartu zutela, beste herri batzutan, adibidez, Durango, Ondarru, Lekeitio, Motriku, Eibar eta abarretan ez zegoela herri-zaingorik kontutan hartuz, oso arriskugarria zela Markinan mantentzea eta goarnizioko frantses tropek ezin ziela, koartelak (Karmengo komentuak) ezin zuenez hiria defendatu, babesik eman ikusi zuen. Eta frantsez agintaritzari goardia kentzen utz zezala eskatu zion[185]. Eta erantzunaren zai egon gabe, Markinako auzotarrek uko egin zioten zerbitzu hura egiten iharduteari. Udal Kontseilua arduraz beteta zebilen, baina ezin zela inolaz ere gordia mantendu ikusirik, abuztuaren 12an kentzea erabaki zuen[186].

«Artzaina»-ren taldeak ez zuen abagunea bertan behera utzi eta hurrengo egunean sartu zen Markinara janaria eta jantziak eskatzera eta zaldi bat ere eraman zuten, guzti horregatik udalerriak 1.717 erreal ordaindu behar izan zituela. Abuztuaren 12an itzuli zen frantses goarnizioa koartela (komentua) indartzeko eta tropa egokiago egon zedin obrak egiteko asmotan[187].

Guzti hori zela eta, 1812.ean, Hiriaren egoera ekonomikoa tamalgarria zen.

1812.eko martxoan Cadiz-eko Gorteak eratzeak eta ondorioz 1812.eko abenduaren 30ean Markinako udalaren eraketa berriak, karguak egun bi barru urtarrilaren

---

[182] MUA, Ibd., 241-243,245,etab... J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 191. or.

[183] MUA, *Libro de decretos...1810-1815*, 69.or., 1881-VII-2; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 192-194. or.

[184] MUA, Ibd., 71-73..., 1811-VII-9; J.J.MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 197-198. or.

[185] MUA, Ibd., 74v-75v; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 200-201. or.

[186] MUA, Ibd., 75v-76r.

[187] MUA, *Libro de decretos...1810-1815*, 77v-78r, 1811-VIII-22.

lean hartu zituztela, ez zuen egoera onera ekarri, txarragora eraman baino, kontutan hartzen badugu foru erregimenetan oinarritutako Euskal Herriko nortasun politikoa, askatasunaren izenean, frantsez iraultzak Iparraldean egin zuen bezalaxe, eskubiderik sakonenean zapaltzen zela, behik behin.

Baina, 1813.ean amaitu zen frantsesen zapalketa: eta gerrate horretako azken borrokaldia, Arabako lautadako, Gasteizeko bataila izan zen, bertan 1813.eko uztailaren 21ean Wellington-en armadak garaipena lortu ondoren frantsesa erretiratu beharrean izan zelarik.

Garaipen honen berri uztailaren 27ko batzarraldian eman zen, ospe handizko *Te Deum* bat eta jaialdiak ospatzea erabakiz.

3. Komentua eskuratzea eta elkarte-bizitza

a. Aldaketa sozio-politiko orokorra

1813.eko abenduaren 11n Fernando VII.ak Napoleonekin Valençay-en Espainiako koroa berreskuratzeko hitzarmena sinatu zuenean, bake eta gizarte-erlijiozko berrikuntza lortzeko itxaropena sortu zen; urte batzu geroago berrikuntza urte horiek amets hutsalak zirela ikusi zen, gizarteko segurtasunik eza eta erlijioaren aurkako erasoketak areagotu egin ziren eta.

Gorteek ez zuten Erregea Konstituzioari zin egin gabe onartu nahi. Baina liberalek agintari zibil eta militarren artean nahiko aldeko ez zutenez galdu egin zuten. Fernando VII.a 1814.eko martxoaren 24ean sartu zen Espainiara Kataluniatik zehar. Erregeak urte bereko ekainean Espainiako gizarteak Erregimen Zaharrean izandako izaera berreskuratzeko politika bultzatu zuen, ondoreak berriro komentuei itzultzeko aginduz.

Era berean, 1814.eko urte horretan Euskal Herriko foru sistema berrezarri zen. Gizarte-politika alorreko egoera honek Markinako Karmen etxeko komentu bizitza berreskuratzea ahalbideratu zuen.

b. Komentua eskuratzea: Frai Bartolome-ren eginbideak

Bere komentuaz zuen ardura eta maitasun handiak bultzatu zuten Frai Bartolome de Santa Teresa, prisaka eta agudo berreskuratzera; eta azkar ibiltzea garrantzi handikoa izan ohi da horrelako egoeretan.

Frantsesak erretiratu zirenean, Etxebarrin (Markina) bizi zen karmeldar markinarrak berehala hartu zuen bere ardurapean komentua «hondakin eta zikinkeriaz beteta, kanoizulo eta bestelako maniobretarako egokituta aurkitzen zen eta ortua Aberriaren traidore agerikoek harrapatu eta hartuta. Eliza, berriz, mandategi bihurtuta»[188].

[188] MKA, A-I-70, 27-28.orr.

Komentuko erlijiosoak nahiko urruti aurkitzen ziren kanporatzearen ondorioz. Data hauetan, 1813.eko bigarren urterdian bazen legezko ziurgabetasunik komentu, eliza eta abarri buruz; bestalde, Frai Bartolomek, esklaustrazio garai haietan ez zuen nagusiaren baimenik berreskuraketa lan zaila aurrera eramateko.

Baina, Castaños Jenerala erretordearen agintaritza zuela zuzenbide eta gorbernu arazoetarako Gipuzkoara heldu zela jakin zuenean, Frai Bartolomek berak kontatzen digun bezala, 1813.eko uztailaren 8ko datan Hernani hirian txosten bat aurkeztu zion eta frantses harraparien «faltsukeria, gezur-esate eta gaiztakeriari» aurre egiteagatik hainbat erlijioso gaizki erabiliak eta espetxeratuak izan zirela esan eta kanporatutako erlijiosoen egoera eta jasandako oinazeak gogora ekarri ondoren «Jn.Tx. horri Markinako Karmengo etxekoei komentura sartu eta komunitatean, izan ditzaten ondasun apurrak bilduz, bizitzeko baimena eskatzen dizu»[189].

Bi egun barru, uztailaren 10ean, honela erantzun zion Castaños Jeneralak: «Luego que esta provincia disfrute alguna tranquilidad, se atenderá como es justo esta solicitud, oyendo al Ayuntamiento de Marquina, e informando la Diputación para poner en ejecución los soveranos decretos de las Cortes»[190].

Komentuan sartzeko halako gogo bizia zuen Frai Bartolome ez zen ados etorri eta beldur zion luzapenen horri, Gobernuak, komentuak zuen egoera negargarria ikusirik, habitazezintzat jo zezakeelako, teilatuak konpondu ezik neguan behera etortzeko arrisku handia baitzuen.

Horrela 1813.eko abuztuaren 17an komentuan sartzea erabaki zuen, komentuko eta ortuko giltzak eskuratuz, une berean, Martin de Lauzirika alkate Jnari berri emanez, honek, narratzaile berak dionez «hark berriak pozez betetzen zuelarik, delako Fraideari komentuan eskainiko zen lehen mezarako limosnatzat ogerleko bat eman ziola»[191].

Hurrengo egunean Frai Bartolome, habitu santua jantziz, komentua garbitzen hasi zen; jendea, ikusterakoan, berez etorri zitzaion laguntzera «eta eskualde osoa aitzurrak, otzarak eta isatsak harturik komentua garbitzera, bazter guztiak garbi utzi zituzten arte»[192]. Jarraian teilatuak indartu eta elizako ateak eta zerrailak jarriz, urriaren 3rako gertatu zuten Frai Bartolomek berak esan duen bezala «lehen meza nagusia, bertan zirelarik pozez beterik Kabildo T.Argia, herria eta eskualde osoa eta ordutik aurrera egunero Meza esaten jarraitu izan da»[193]. Sermoilariak, ohizko handitasunez egin zuen Santa Teresaren bederatziurrena. Bederatziurrenaren barruan, urriaren 10ean etorri zen Aita Domingo de San Millán; 14ean Priorea eta prioreordea; Priorea eta Aita Domingo Larreako komentura joan ziren, komentuan logela bakarra zegoelako; Aita Prioreordeak Dominga de Alzaa Anderearen etxea izan zuen ostatu-etxe.

[189] Ibd., 28-29.orr.
[190] Ibd., 30.orr.
[191] Ibd., 30.orr.
[192] Ibd., 30.orr.
[193] Ibd., 30-31.orr.

1814.eko urtarrilaren 4ean jarri zen Sakramentu Txit Santua elizan eta 13an itzuli ziren komentura Priorea eta Prioreordea; eta horrela elkarren atzetik etorri ziren gainerako erlijiosoak, Frai Bartolomek gertatuta zeukalako 14 erlijioso ingururentzat lekua.

Berehala hasi ziren itzulketak. Hiriko parrokiatik handikiro ekarri zen Karmengo Ama bere egonlekura, elizbira eginez eta hiritar ugarik eta Kabildoak partehartuz, Juan José de Moguel Markinako apaiz parroko Jnak hitzaldi eder bat egin zuelarik. Geroago, gainerako erretaulak itzuli ziren bakoitza zegokion tokian jarri zela. Komunitateak izugarrizko eskerrona agertzen zien Karmengo gauza sakratuak eta beste ondasun batzu hain ardura handiz gorde zituzten Kabildoari, Mesedetako lekaimeei eta herriko beste hainbat pertsonari.

Frai Bartolomek eskualde osoak Markinako Karmengo Amaren komentuari erakutsi zion elkartasuna zabala azpimarratzen du: eta beraren 1815.eko azaroko kontakizunean honako hau dio: «komunitatea banatua izan zen egunean sosik gabe geratuta gero eta ezin izan zuela taldean ez bakarka ohizkoa ez zen limosnarik eskatu, gaur egun, Komentua, barru osoa ia berriro eraikita aurkitzen da eta ostilamenduak dituela gutxienez bulegoetarako, guzti honetan milaka eta milaka erreal erabili direla, komunitatea gehiegi zamatua geratu gabe. Eta ezin da zalantzan jarri, guzti hau elizTarren eskuzabaltasunari eta Prelatuaren ardurari esker lortua izan dela»[194].

Garrantzitsua izan zen, baita ere, konponketa zeregin honetan agintari zibilek emaniko laguntza. Gorago alkateak emaniko animuzko laguntza aipatu dugu; adibidez, udalak 1814.eko martxoaren 21eko batzarraldian Frai Bartolomek martxoaren 13an egurra eskatuz eginiko txostena irakurri zuen; eta korporazioak Elejabarriko biltegian tropentzat gertatuta zegoen egur guztia ematea erabili zuen[195]. Horrela jarraitu ahal izan zuten Aita Karmeldarrek komentu barrua eraikitzen.

Arazo gehiago izan zuten ortua eskuratzeko. 1813.eko irailean, etxea konpontzen pozez gainezka ari zen Frai Bartolomek Jose Domingo de Gaviola erret eskribau Jnaren ikustaldia izan zuen, Jaurerriko Diputazioaren jakinerazpen bat ematen ziola, bertan, Juan de Pradea eta Pedro de Aguirre Sarasua, Markinako herritarrek komentuko ortuaren gainean jarritako demandari erantzuteko Diputaziora aurkezteko agindua zekarrelarik. Aita Sermoilaria berehala joan zen Bilbora eta «Diputazioari demandajartzaileen arrazoigabekeria aurkeztu zion»; eta urte bereko irailaren 17an honako ebazpen hau eman zuen Diputazioak: «Prefiérase en la entrega, y arriendo del Convento de Marquina y su huerta al P.Fr.Bartolomé de Sta.Teresa, conventual de él, según el encargo hecho anteriormente al Administrador de bienes Nacionales, quien dispondrá el cumplimiento de este decreto, y por el que se separen del arriendo y cuidado de la huerta y Convento de Marquina, Pedro de Aguirre Sarasua y Juan de Pradea, y den sus cuentas prontamente al mismo Administrador»[196].

---

[194] Ibd., 32.orr.
[195] MUA, *Libro de decretos...1810-1815*, 193r, (MKA, A-I-67).
[196] MKA, A-I-70, 33.orr.

Horrela bete-betean lortuta geratzen zen Frai Bartolomé de Santa Terasa Sermoilariak eginiko Karmengo komentu, eliza eta ortuaren berreskuraketa.

Frai Bartolomé berbera ikusi ahal izango dugu 1818.ean, priore zela, eraikuntza berriak egiten, hau da, lehenago azken gerratean errea izan zen lastategi-teilapean eraikin berria egiten[197].

4. Erasoak Hirurteko Konstituzioaldian (1820-1823) eta komentu-bizitza berreskuratze lanak (1823-1833)

Hain interesgarria izan zen epealdi honek ideia eta ohituren (liberal, kontserbadore, erregezale eta abarren alderdi politikoak zeudela) alorrean burruka gogorrak sortu zituen, bertan izandako injustizien zein askatasunaren izenean eta zerbitzuan erabilitako diktadura totalitarioen zioz.

Garai honetan eta hurrengoan, iraultza garaietan edota iraultza aurrekoetan gertatu ohi den bezala, segurtasunik eza eta ezegonkortasuna izan ziren nagusi.

Horrela, erlijio bizitza, batez ere Erlijio Ordenetan, neurri batetan desegina bazegoen ere, hainbatetan askatasuna lortzea zein berrindartze lanetan ari zela ikus dezakegu, baina berriro ere eten egingo zen itxaropen hori ezegonkortasun eta erasoaldi berrien ondorioz.

Zoritxarrez, politika eta erlijio alorreko iharduera orokorra aurkeztuko dut bakarrik eta oso gutxi Markinari edota, zehazkiago, Karmengo komentuari buruz; eta hori Karmeldarrak aipatzen dituzten agiri gutxi dugulako; hau da, argitzen ari garen erlijioaren aurkako erasoaldi garai hauetako agiriak galdu edo erre egin zirelako.

a. Hirurteko Konstituzioaldia (1820-1823)

aa. *Politika et Erlijio-egoera orokorra*[198]

Fernando VII. erregeak mugimendu iraultzailea ezin zuela geratu jakinik, 1812.eko Konstituzioari zin egitera behartuta ikusi zuen bere burua; eta 1820.eko martxoaren 7an ezarri zuen Konstituzio-bidea Espainian eta guztiei dei egiten zien

---

[197] MUA, *Libro de decretos...1815-1825*, 72r-73v, 1818-III-16; (MKA, A-I-71). Baina Udalak eta Juan José Mugartegui jaunak kexak aurkeztu zituzten Karmeldarren eraikinak beraien eskubideak kaltetzen zituelako; eta hori, baita eginiko ate berri, bide eta abarri buruz ere. (GPKA, Markina 4).

[198] Ik. M. REVUELTA GONZALEZ, *Política religiosa de los liberales en el siglo XIX. Trienio constitucional*, Madrid 1973, XV-517orr.; Idem, *La supresión de la Compañía de Jesús en España en 1820*, Razón y Fe 182 (1970) 103-120; Idem, *La Iglesia española ante la crisis del Antiguo Régimen (1808-1833)*, in: *Historia de la Iglesia de España*, 5.t., Madrid 1979, 3-113 (BAC, maior 20); José Manuel CUENCA TORIBIO, *La Iglesia española en el trienio constitucional (1820-1823). Notas para su estudio*, Hispania Sacra 18 (1965) 333-362; Idem, *Sociedad y clero en el siglo XIX*, Córdoba 1980, 416 orr.; Vicente CARCEL ORTI, *El archivo del nuncio en España, Ciacomo Giustiniani* (1817-1827), Escritos del Vedat 6 (1976) 265-300; Pío de MONTOYA, *La intervención del clero vasco en las contiendas civiles (1820-1923)*, Donostia 1971, 479 orr.

bide horretatik ibiltzera. Horrela, sitema liberala behin betiko Espainian ezarri eta bake zein aurrerakuntza aldi bat bermatuko zela zirudien. Eliza ere berrantolaketa epealdi batetan aurkitzen zen. Baina kleroak, gizarte osoak bezala, jokamolde ezberdinak hartu zituen Erregimen berriaren aurrean; bi talde sutsu eratu ziren: batetik, liberalismoaren aldeko amorratuak eta, bestetik, kontserbatzaileak, baina gehiengoa zer gertatuko itxarotzen zegoen. Lehen hilabeteak itxaropentsuak izan ziren.

Nuntzioak Aulki Santuaren izenean Gobernu berriari menpekotasuna ematera egiten zuen dei. Horrela Espainiako eliza gehienetan, aparteko gorabeherarik gabe, zin egin zioten Konstituzioari.

Hirurte honetako ezaugarrietariko bat Gobernuak doktrina alorrean ezarritako edukin handia izan zen; gizarteari Konstituzioaren beharra eta ontasuna sartu nahi zion barruan eta jendea hezten aritu zen. Parrokuak igande eta jaiegunetako homiliaren amaieran konstituzioaren artikulu baten azalpena ematera behartzeko erabakia hartu zuten Gobernariek, horrela, apaizteria ere menperatzea lortzeko asmoz. Zeregin honetan, gainera, garrantzi handiko propaganda bideak erabili zituzten: prentsa eta abertzale elkarteak. Prentsak, inolazko neurririk gabe, erlijioaren aurkako propaganda gogorrari ekin zion.

Gorteek eliz erreformak egiten hasi ziren, azken batetan erlijio eta eliz erakundeen deuseztapena ekarriko zutela. Hain zuzen ere, 1820.eko abuztuaren 15ean Jesusen Lagundia kendu zuten; Erregeak horrekin Erlijiosoen gainerako Ordenak salbatuko zituela uste izan zuen. Baina, 1820.eko urrian kenduak izan ziren Monakuordenak, erregulapeko Kalonjeak, Ordena Hostalariak eta Ordena Militarrak. Era berean, itxi egin beharko ziren 12 partaide ez zituzten komentuak herriko bakarrak zirenean eta 24 kide izatera heltzen ez zirenak herrian bat baino gehiago zeudenean. Debekatu egin zen, era berean, fraidegaiak hartzea. 1822.ean bakartadeetako komentuak ixteko agindua eman zen. Guzti honek izugarrizko eragina izan zuen.

Erlijioaren aurkako arazoa datu estatistikoetan ikusten da: Napoleon Penintsulara sartu eta izandako komentuen hondaketa eta osteko kanporaketak gertatu ondoren, Independentzia gerra bukatuta gero, Elizak, 1814.etik aurrera, berriro indarberritzea lortu zuen, gerra aurreko 49.365 erlijioso eta 2.051 komentu izatetik 1820.ean 33.546 erlijioso eta 2.012 komentu izatea lortuz. Eta orain, bi urtetan, 1820.ean gobernuak komentuak kenduz eta bultzatutako sekularpenen ondorioz erlijiosoen kopurua 7.244 kide izatera jaitsi zen[199]. 1822.ean Gorteek kleroaren aurkako zapalkuntza neurriak hartu zituzten, apirilaren 26ean, agindu berriak eman arte apaizgintzak debekatu zituztela.

Bai erregezaleek bai eliztar taldeek indar handiz erreakzionatu zuten. Egonezin orokorraren iturburu ekonomia, politika eta gizarte mailako zioak baziren ere, ez zen maila txikiagokoa Gobernuak bai elizan bai gizartean bultzatutako erlijio krisialdia.

---

[199] Ik. Manuel REVUELTA GONZALEZ, *La exclaustración (1833-1840)*, Madrid 1976, 13-24; Idem, *Política religiosa de los liberales...*

Eliza eta Estatua banatu egin beharrean, azken honek eliza menperatu eta zuzendu nahi zuen elizaren eskumenak bere esku hartuz. Protesta jenerala jaso zelarik, 15 apezpiku-hiri bete gabe zeuden, 11 apezpikuk, beraien artean Iruñekoak, ihes egin zutela eta beste seik, Estatuaren eskuhartze horren ondorioz zisma egoeran zihardutela. Eta 1823.eko urtarrilean Espainiatik kanpora bidaldua izan zen Nuntzioa.

Egoera larri honetan oposizioak iraulketa bidea hartu zuen eta erregearen aldeko altxamenduak hasi ziren, batez ere iparraldean, Euskaditik Katalauniaraino, Gaztela, Valentzia eta Murtzia barru zirela.

Fernando VII Erregeak berak ere Gobernu liberalak sortutako erradikaltzeari beldurra ziola 1822.eko otsailaren 7an laguntza eskatu zion Elkargo Santuari (Santa Alianza); hura osotzen zuten estatuek Veronako Kongresuan bildurik, liberalak agintaritzatik bota eta Fernando VII.a agintaritza osoa bere esku zuela, berriro ezartzea erabaki zuten.

Horrela 1823.eko apirilaren 7an Angulema-ko dukeak Bidasoa ibaia zeharkatu zuen 60.000 frantses soldadu ekarriz, beste 30.000 espainiar elkartu zitzaizkiela:»San Luis-en hamar mila semeak» deituak Maiatzaren 23an sartu ziren Madrilera. Gobernu liberala Cadiz-en errendatu zen. Horrela amaitu zen, alde biek zoritxarrez Eliza era negargarrian beren onerako erabili izan zuten gerratea; emaitzat erlijio alorreko nahaste handia ekarri zuen.

bb. *Markina eta Karmengo komentua*

Konstituzioa 1820.eko martxoan ezarrita gero eta Bizkaiko Jaurerriko buruzagi politiko Antonio Leonardo de Letona Jna izendatua izan ondoren, honek Markinako udalari jakinerazpen bat bidali zion, apirilaren 6an irakurria izan zena: udal berri bat aukeratzeko agintzen zuen. Horrela Apirilaren 9an honakook aukeratu zituzten: alkate, Juan Jose de Mugartegui; errejidore, Javier Ignacio de Astarloa eta Jose Antonio de Menchaca; prokuradore-sindiko, Jose Francisco de Alzaa[200].

1812.eko martxoaren 18ko dekretua beteraziz konstituziozko alkateak 1920.eko apirilaren 9an komentuko Prioreari Konstituzioari zin egiteko agindu zion. Aita Bartolomek Erretordetzaren dekretu hura, Erlijiosoen Ordenak ez zeudenean emana izanik, erlijiosoen elkarteei erret zedulak jakinerazteko ohizko bidetik ez zetorrela eta betetzeko Nagusien aginduen zai zegoela erantzun zion[201].

Hirian 1820.eko apirilaren 14ean egin zen Konstituzioaren ageriko aldarrikapena udaletxearen aurrean herritar ugari bildu zelarik; egintzari, herri jaialdiek eta kanpai errepikapenek, Karmengo etxekoek ere bai, jarraitu zioten.

16an, alkateak iragarri zuen bezala, Konstituzioari zin egitea egin zen parrokiako meza nagusian. Ignacio Luis de Asterloa parrokua Udalarekin batera joan zen pa-

[200] MUA, *Libro de decretos...1815-1825*, 114r-117v; J.J.MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 215.

[201] MUA, *Libro de decretos...1815-1825*, 117v-118r, (MKA, A-I-72).

rrokiara; bertako meza nagusia Pedro Isidro de Urionabarrenechea Jnak zuzendu zuen, eskaintzan Gobernuaren dekretuak irakurri zirela; eta, azkenean, Gurutzearen eta Ebanjelio Santuen aurrean Udalak eta herriak zin egin zioten Konstituzioari, jarraian *Te Deum* abestuz[202].

1820.eko abuztuaren 31ko Gorteen agindua betez, Hirian herriko milizia sortu zen, bi konpainia eratu zirela; lehenaren buru, kapitain gisa, Emeterio de Bascaran Jna eta bigarrenaren buru Jose Maria de Munibe, Peñaforidako kondea izan ziren.

Urte bereko azaroaren 5eko igandean, Hiriko milizia osoa meza nagusian egon zen, sermoia Pedro Isidro de Urionabarrenechea apaiz parrokuak esan zuela, Konstituzioko ideien apologia eginez[203].

Baina Bizkaia bake eta oparotasun aldi baten atetan zegoela eta horretan ahaleginak egiten zirela zirudienean, Gobernu zentralaren dekretuek eta aurkakoen kontraekintzak, aipatu berri den bezala, jendearen artean egonezinak agertzea ekarri zuten; ordurako hasiak ziren 1823.ean erregearen aldeko mugimendu batzu. Bizkaian, Euskal Herri osoan bezala, liberale, kontserbadore eta erregezaleen arteko burruka zibil eta ideologikoez gainera, berezkoa zenez, areagotu egin zen gatazka bai kleroarengan bai herriarengan, erlijioaren eta foruen aldeko zerbait bezala erabilia izaterakoan.

Markinan eta inguruetan nabariak ziren erregezaleen mugimenduak; eta harrapaketa arriskua zegoenez, udalak herriko konfidantzazko jendeen artean fusil batzu banatzea erabaki zuen.

Eta «San Luisen hamar mila semeak» deituen garaipena gertatu zenean, Fernando VII.a askatzea ospatzeko Udalak jaia antolatu zuen «ardo gorria, danbolina eta dantzak eskainiz»[204].

Agiriak galdu egin direla, berri gutxi dugu Markinako Karmeldarren Komunitateari buruz; eta erlijioaren aurkako erasoaldi eta sekularizazio garai honetan Markinako fraideren bat edo beste etxetik kanpo ibiliko zela pentsa dezakegu; udalak 1822.eko ekainaren 22an aztertu zuen arazoa «herriek beraietan komentutik kanpo, edozein delarik zioa, aurkitzen diren fraideen berri eman dezatela» aginduz[205].

Bestalde, Espainiako Karmeldar Kongregazioko Nagusi Jeneralak, zerbait komentu eta erlijiosoen izpiritu eta komentu bizitza zela eta zeharo kezkatuta zebiltzan.

Horrela adierazten zuen Definitorio Jeneralak 1818.eko abenduaren 26an (hasia zelarik frantsesteak sortutako hondamen handiaren ondoren konponketa bidea) komentu askotan esklaustrazio garaian kanpoan bizitzen ohituta, erlijioso asko ondasunak eta diruak aldean zituztela txirotasun legeak gorde gabe lasaikerian bizi zirela ikusiz. Eta Ordenako Nagusiak Karmeldar bizimodua benetakotasun eta bakartade bizimodura ekartzen saiatu ziren.

---

[202] MUA, Ibd., 119v-121r; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 217-218.
[203] MUA, Ibd., 147r-148r; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 218-219.
[204] MUA, Ibd.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 220-221.
[205] MUA, *Libro de decretos...1815-1825*, 205v.

Baina, Karmeldar bizimodu zuzpertzeko Ordenak eginiko ahalegin guztiok, Hirurteko Konstituzioaldiko Gobernuaren legeek Erlijiosoen Ordenen aurka eginiko batbateko erasoaldiari egin behar izan zioten aurre[206].

b. **Zuzperraldia karlisten hamarkadan (1823-1833)**[207]

Oraingoan ere, komentuari buruzko garai hartako egoera adierazten duen agiririk gabe aurkitzen gara; horren ondorioz handi-handika baino ezin izango dugu garai hori aztertu.

aa. *1823.eko kontraekintza eta erlijioaren leheneratzea*

Fernando VII erregeak 1823.eko urriaren 1ean hartu zuen agintaritza eta «Konstituzio-gobernua deituaren ekintza guztiak indargabeak eta baliorik gabeak» aldarrikatzen zituen dekretua izenpetu zuen.

Oiartzungo Batzordeak emana zuen ordurako (1823-IV-28) sekulartuak izan ondoren beren ardurapean parrokutzak edota kaperautzak zituzten guztiei karguak eta sermoiak egiteko zein aitortzeko baimenak kentzeko agindua.

Hirurteko Konstituzioaldiaren aurkako kontraekintza gisa, bigarren zuzperraldi honetan izpiritu atzerakoi itxia nabarmendu zen; guzti horrek, politika alorrean, garaileen harrokeria itsua ekarri zuen, konstituzio garaiaren aldekoen eta erantzuleen aurkako erasoaldi gogorra sortuz. Elizaren bozemaileek, bestalde, ez ziren herrietako injustizia eta bidegabekeria hauen aurka agertu.

Apezpikuen ekintza pastorala estatuaren eskuharmenek baldintzatuta zegoen. Apezpikuek, era bateko zein besteko gutun pastoralak idaztea exigitzen zien gobernuaren funtzionariak ziruditen.

Tiberi Nuntzioa, Kontseiluaren erregezaletasunaz adina apezpiku batzuren gogortasunaz eta beraien arteko batasun ezaz kexatzen zen[208].

Hala ere, garai horretan pastoralgintza-joeretan onerako bilakaera ageri da. Ekintza pastoralak, apaizen iharduerari bere-berea zitzaion alor barruko egoerari konponbidea aurkitzeko joera zuen. Jesuitek, alde batetik, liberalengandik halako erasoaldi gogorrak jaso ondoren, izpiritualitate gogor samarra erakusten zuten eta beren ahalegin osoak gazteriaren heziketan jartzen. Misio herritarrek geroago eta gehiago jotzen

---

[206] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 8-14.

[207] Ik. 198-199. oharrak. Ik.,era berean, V. CARCEL ORTI, *Política eclesial de los gobiernos liberales españoles (1830-1840)*, Iruñea 1975, 53o orr.; Francisco RODRIGUEZ DE CORO, *La Iglesia vasca en la época liberal (1808-1876)*, IX Congreso de Estudios Vascos (Donostia 1984) 193-216; Idem, *País Vasco, Iglesia y Revolución liberal*, Gasteiz 1978, 430 orr.

[208] V. CARCEL ORTI, *Correspondencia diplomática del Nuncio Tiberi (1827-1834)*, Iruñea 1976, 344-346.orr. Bidalpena Albani-ri (Madrid, 1829-VIII-4).

zuten pertsona bakoitzaren barru aldaketa eta kristau bizitzaren berrikuntza bultzatzera. Adibide argia dugu Aita Jose Areso-rengan.

Erlijio Ordenek urrats garrantzitsuak eman zituzten barruko berrikuntza egiten eta izpirituzko gainbehera gainditzen; hala ere, barruko zatiketa batzuk irauten zuten.

Tiberi Nuntzioak 1827.eko giza-erlijio egoera deskribatu zuen herriarengan erlijioa ongi sustraituta zegoela eta, orokorrean, erlijiosoek zein apezpikuek maila onekoak zirela esanez; dena den kezkagarritzat jotzen zuen herri txikietako apaizen arteko ezjakintasun gorria: «La religión está hondamente arraigada en el pueblo. Los religiosos muestran un espíritu excelente; el conjunto de los obispos es respetable, pero en el clero bajo y en los curas rurales había mucha ignorancia... Entre frailes y monjes hay personas dignísima, pero no faltan intrigantes»[209].

Fernando VII.a 1833.eko irailean hiltzean, izugarrizko zalaparta iragartzen zuten gatazka-zaratak entzuten ziren; benetan egiazko bihurtu ziren.

Elizak, ikusiko dugunez, orokorki, mendearen hasieran baino makalago, barruan zatikatuta eta erregearen absolutismoaren aldeko joeran nekatuta aurkitzen zelarik, hirugarren aldizko erreforma eta liberalen mendekuak, hau da, erasoaldirik gogorrenak jasan zituen.

bb. *Karmeloko nagusiek komentu-bizitza berreskuratu nahiean*

Karmeldar Teresiarren Ordenak, arnasaldia izan zuen 1823.ean erlijio askatasuna berreskuratzean eta Aita Jeneralak 1824.eko otsailaren 14ean bildu ahal izan zuen Kapitulu Jenerala Alcalá de Henares-en. Jeneral berri, Aita Andres de Jesus Maria kataluniarra aukeratu zuten eta Batzarkideek Hirurteko Konstituzioaldian gainbehera egindako komentuetako erlijiozko betekizunak berrezartzeko neurriak hartu zituzten. Gazteen heziera izan zen batzarrak aparteko arretaz aztertu zuen alorretariko bat, batez ere nobizen eta profeso eginberrien maisuei eginkizun horretara dei eginez.

Komentu bizitza zuzentzeko asmo horrek eraginda Aita Bartolomé de Santa María, Karmeldarren euskal probintziako buruak gutun bat idatzi zien 1827.ean beren ardurapeko erlijiosoi, Probintziako azken kapituluko pentsamendu batzu bilduz: aparteko gogo bizia jartzen zuen Ordenako gazteriaren hezieran: gazteak «bestalde, gure itxaropenik sakon eta gozoenaren eustarri dira. Gu ordezkatzera datoz. Laster gure aurreko gurasoengandik jasotako Erlijioaren biltegia euren lepo gainean utziko dugu. Eta nola eskualdatuko diegu garbia eta osoa, guk geuk jazotako heziera ematen ez badiegu? Guri, geuri irakatsi ziguten erlijioa, betebidea, jainkozaletasuna, apaltasuna, obedientzia, menpekotasuna, gogartea eta barnebilkuntza biltzen dituen izpiritu berbera eskaintzen ez badiegu? Erlijioaren beharrizan larrienak betetzeko komentuetara joan daitezen, gazteak beraien Maisuen ardurapetik berehalaxe kentzea izan daiteke

[209] Ibd., 58-59. orr., Bidalpena Della Somaglia-ri (Madrid, 1827-X-24).

hezieran duten hutsune honen iturburua». Gutuneko bigarren puntu garranzitsua txirotasunaren eskakizunak betetzea zen[210].

Eta 1830.eko maiatzaren lean egin zen Pastrana-n Karmeldarren Espainiako Kongregazioaren azken Kapitulu Jenerala: ohizko kargu hautaketak egin ondoren Karmeldarren komentuetan arteztu beharreko gehiegikeria batzuez mintzatu ziren; hala ere, gutxikeria batzu ziren. Azken Kapitulu Jenerala izan zen, jarraian etorri baitzen Espainiko erlijio bizitzarako epealdirik gogorrena eta hondagarriena, hain zuen ere, laster ikusiko dugun erlijioaren aurkako eraso, gerrate, esklaustrazio eta desamortizazioaren epealdia[211].

5. **Zerbitzuak eta soldatak komentuan (1800-1839)**

Galdutako hainbat agirien ordez *«Libro de los oficiales de este convento de Marquina»* eskuliburua heldu da gure eskuetara[212]. Hemen soldatak jaso zituzten mediku, zirujau edo barberu, albaitari edo ferratzaile, erropagarbitzaile, organujole, arotz, ortuko morroi eta abarren izenak, urterik urte jarrita ageri dira.

Giza-lan eta ekonomia bizitzaren aldea aditzera ematen digun eskueskribu bitxi bat dugu. Eguneroko bizimoduan eskuharmena izan arren, idazki eta liburuetan ageriko egiten diren historietan lekurik izaten ez duten gizon-emakumeek osoturiko multzoa da.

Datuen kontaketa labur honetan, urteko soldaten oinarrizko datuak aurkeztuko ditut, hilabeterik hilabete edota lan gunetako aldaketa eta abarren arabera gertatzen diren gorabehera txikiak azaltzera jo gabe.

Data hauetan, esaterako 1830-1832. urteetan, Markinako komunitatean 15-13 karmeldar apaiz eta bost anaia bizi ziren eta egoera ekonomikoa nahiko ona zen, zorrik gabe eta gaisotegia, sakristia, hornidurak eta abar..., egoera onean zituztelarik[213].

a. **Medikuak**

Pedro Alvarez, Markinako medikua. 1800-1807. urteetako Hitzarmena: urteko 100 erreal.

Manuel Bentura Irure, Hiriko medikua, nahikotzat jo zuen hilberria zen bere aurreko Pedro Alvarez-en urteko soldata, hau da, 100 erreal.

---

[210] BAS, 73 /z,10, 1929-VI-16ko gutuna.
[211] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 14-17.
[212] MKA, G-VI-2.
[213] BAS, 32/C; 37/g.

b. **Zirujau edo barberuak**

Miguel de Ibaseta Jna (zirujaua), urteko 235 erreal (1801-1820); eta Juan de Urquidi Jna (barberua edo odolateratzailea), urteko 215 erreal (1801-1806); Roman de Arenaza Jna (bigarren zirujaua), (1807-1839). 1809.ean, ikastetxea izatearen ondorioz, honek iraungo zuen artean urteko 3000 erreal emango zitzaion. 1815.ean, bi zirujau: 450 erreal; baina ez ziren ados etorri eta ez zutela zerbitzurik emango 600 erreal baino gutxiagotan jakinerazi zieten fraideei, baina, azkenean, 540 errealetan geratu ziren.

1820.ean, 270 erreal Ibaseta Jnarentzat eta beste 270 erreal Roman Jnarentzat.

c. **Botikaria**

1804: Juan de Acebedo Jna, Markinako botikaria: 320 erreal, 1802-1804.eko irurteko errezetei zegozkienak.
1805: Manuel Joaquín de Ezenarro, Markinako botikaria.
1820: Ezenarro Jna.
1833: 700 erreal.

d. **Albaitari-ferratzailea**

1800: Martín de Lauzirica, komentuko ferratzailea; urteko 80 errealetan hitzartu zuten.
1802-1804-1809: Martín de Lauzirica: bi zamariengatik 160 errealetan hitzartu zuten.
1818-1820: Pantaleón Lauzirica: 30 erreal.
1821: Pantaleón: 80 erreal urteko; eragozpenak izan ziren eta 100 errealetan hitzartu zuten.
1822-1830: Urteko 100 erreal.

e. **Jantzi-garbitzailea**

1800-1802: 20 dukata eta beste 2 sakristiako jantziekatik.
1803-1808: urteko 308 erreal.
1814: urte erdiko 208 erreal. Urteko 26 dukata eta Gabonetako opari batzutan hitzartu zuten.
1815: 28 dukata = urteko 308 erreal.
1815-1817: Xaviera de Malasechevarria. Urteko 400 errealetan hitzartu zuten.
1818: Francisco de Alberdi, gizon jantzigarbitzailea: 640 erreal.
1819: Jantzigarbitzaile anderea: 500 erreal.
1820: 400 erreal.

1821: Xaviera de Malasechevarria: 400 erreal; beraren ordez Francisca de Olasolo eta María Aranbarri etorri ziren.
1823: Bakarrik Francisca Olasolo, pertsona nahiko zaharra.
1824-1826: María Josefa Alberdi: urteko 400 erreal.
1827-1828: María Antonia de Garate: urteko 400 erreal.
1829: María Ignacia Irigoyen.
1832: Eugenia de Quintana. María Teresa...
1838: Urteko 480 erreal.

f. **Orturako eta zamarientzako morroiak**

1801: José Antonio Egaña; urteko 24 dukata.
1802-1803: Manuel de Berganza; urteko 200 erreal.
1804: José de Villareal; 24 dukata.
1805: José de Villareal; 246 erreal.
1806: José Leuno.
1807: Santiago Zubero; urteko 24 dukata.
1808: José María Errosa Iturri: 55 erreal bi hilabeteari zegozkienagatik.
1809: José de Bolinaga.
1814: Miguel de Aguirrezabal; 24 dukata eta bi abarka pare eta bazkarian egunero pinterdi ardo.
1815: 304 erreal.
1816-1817: José Muguerza, Etxebarrikoa; 300 erreal eta hiru abarka pare.
1818: Manuel de Madariaga; 20 dukata, abarka-oinetakoak eta bi alkandoratan hitzartu zuten.
1820: Manuel de Berraza, Begoñakoa; 30 dukata, zapata pare bi, artilezko galtzerdi pare bat eta abarretan hitzartu zuten.
1825: Bautista de Arrate; Aulestikoa.
1826-1829: Martín de Basterrechea, Mungikoa; 35 dukata, galtzerdi parte bat eta abarretan hitzartu zuten.
1829-1834: Bartolomé de Acha, baldintza ber-beretan.

g. **Arotza**

1814: Joaquín de Olavarria, Aulestikoa, obran lan egiteko arotza; etxean geratzen zen; jaiegun eta astegunetan eguneko pinterdi ardo emanez mantendu zuten; lan egiten zuen eguneko, erreal bi t'erdiko soldata ordaintzen zioten.
1814-XI-7.ean joan zen; 33 egunetan egin zuen lan.
1814.eko Azaroa: Agustin de Solozabal: zazpi gela dituen Mugartegi etxerantzako pasabideko ateak eta leihoak egiteko hitzartu zuten. Ate eta leiho bakoitzeko 180 erreal ordaindu zioten. 1815.eko Maiatzerarte 930 erreal ordaindu zioten.
1815: baldintza berdineta, Jose Justo de Bideguren.

h. **Organujoleak**

1800: 270 erreal.
1802: 165 erreal.
1805: Manuel. Aurrekoaren baldintza ber-beretan, beste Organujole bat Bilbotik etorri arte.
1806: Antonio.

C. ERASO, GERRA, ESKLAUSTRAZIO, DESAMORTIZAZIO ETA ERBESTERATZE-ALDIA (1834-1868)

Frantseste aldiko (1809-1813) erlijio erasoaldi eta esklaustrazio aldi laburren ondoren eta 1820-1823. urteetan baino neurri txikiagotan, erlijioaren benetako zuzperraldia egiten ari zenean, 1833. urtea heldu zen erlijioaren aurkako erasoaldirik gorriena eta luzeena ekarriz eta Erlijiosoen Ordenek mendeetan zehar bizi izandako erlijio bizitza, kultura zein izpiritu alorretako berrikuntza hondamendira bultzatuz. Aurreko guzti horien ordez, hainbat sarraski, esklaustrazio, lapurreta, erbesteratze eta abar izan ziren.

Liberalek eta erlijio katolikoaren aurkakoek boterea eskuratu ondoren, beren krudelkeria Elizaren aurka erakutsi zuten Erlijiosoen Ordenek ustez zituzten aberastasunak eskuratzeko asmotan, horrek herri altxorraren eskasia gorria konponduko zuelakoan.

1. Karlistada eta esklaustrazioen artean (1833-1840): egoera politiko-erlijioso orokorra[214]

Erasoaldi hauetan Madrid-eko botere politikoaren politika-erlijio alorreko erabakiek zuzenki eta barru-barruan Euskal Herrian eta Markinan eragina zutenez, komenigarria zaigu, laburkiro baldin bada ere, egoera orokor hori ezagutzea eta jarraian halakoen ezarpenak Markinan eta bertako Karmengo komentuan izan zuen eragina ikustea.

---

[214] Ik. 207. oharra. Ik.,era berean: J.M. CUENCA TORIBIO, *La Iglesia española ante la revolución liberal*, Madrid 1971; Idem, *Iglesia y poder político, 1834-1868*, Córdoba 1977; Idem, *Estudios sobre la iglesia española*, Madrid 1973, 301 orr.; Vicente CARCEL ORTI, *El liberalismo en el poder (1833-1868)*, in: *Historia de la Iglesia en España*, 5.t.,Madrid 1979, 115-225 (BAC maior,20); J. DEL BURGO, *Fuentes de la historia de España. Bibliografía de las guerras carlistas y luchas políticas del siglo XIX*, 5.t., Iruñea 1953-1966.

a. Egoera politikoa eta Eliza Erregearen ondorengotza-arazoaren aurrean

Fernando VII.a hil zenean (1833-IX-29) hasi zen bere alaba Isabel II.aren erregetza, adin txikikoa zen artean Maria Kristina beraren ama (1833-1840) eta Espartero jenerala (1840-1843) izan zirela erregetordeak. Garai honetan finkatu zen liberalen sistema.

Sistemak (antxinakoa eta berria) eta botereak (mundukoa eta izpirituzkoa), elkarjoka izateak eta dinastia-ondorengoari zegokion arazo juridiko-politikoak txarrera eraman zuten egoera.

Politika alorrean bi alderdi zeuden: moderatuak (adiera hau ez da guztiz zehatza, moderatuak alderdi guztietan baitzeuden), erret subiranotasunaren aldekoak, baina herriarentzat administrazio eta ekonomia mailako erreformak nahi zituztenak; talde honetan biltzen zen intelektualeriak, militarrek eta goi karguek osoturiko elitea; bestalde, Erregezale edo karlistak, herrian sustrai sendoak zituztela, jokaera ugari baziren ere, errege guztiahaldunaren eta erlijio katolikoaren defentsa eskatzen zituztelarik elkartzegune, eta Euskal Herrian, foruen defentsarekin bat egiten zutela; eta, jakina, pentsatzekoa denez, multzo honetakoak ziren apaiz gehienak eta Euskal Herri gehinetsua. Talde hauei, atzerrian 1824.etik indartsu lanean ari zen liberalena gaineratu behar zaie.

1713.ean Felipe V.ak *«ley sálica»* zeritzona ezarri zuen Espainian, horrela erregetzatik kanpo utziz emakumezkoak. Karlos IV.ak indargabetu egin zuen lege hori 1789.ean Gorteek onartutako *«pragmática sanción»* deituaren bidez, baina, ez zen ofizialki onetsia eta aldarrikatua izan; hala ere, Fernando VII.ak onetsi eta aldarrikatu zuen 1830.ean, bere alaba jaio zen urtean, ondorioz berau aitortu zutelarik oinordeko edo prima. Maria Kristina-k, koinatu zuen Karlos Jna bere alabaren alde jarri nahi izan zuen, trukean Estatuko Gobernuan partaidetza eskainiz. Karlos Jnak ez zuen onartu konpromezua. 1832.ean berrezarri zen *«pragmatica sanción»* zeritzona.

Frantzia eta Erresuma Batua, Isabel II.a erregina aitortu eta, beraren alde armekin eta guzti partehartuz, liberalen sistema defendatzeko gertu agertu ziren artean, Austria, Prusia eta Errusiak ez zuten joera garbirik agertzen. Aulki Santuak, ostera, Austriaren babesa zuen. Bestalde, Turin eta Napoli-k Karlos Jna aitortu zuten errege. Hau erlijiozale eta Aitasantutzari begirunea ziola ageri zen. Hori zela eta Vaticano-k zuhurtasunez jokatu behar izan zuen.

Gobernatzaileak, Maria Kristinak, liberalak bere alde jartzeko kleroaren aurkako erabaki batzu onartu zituen; baina, egoera hain larria izanik buru Cea Bermudez zuen Gabineteak, Fernando VII.a hil eta berehala (1833-IX-29an) «Espainiarentzat bizitzako helburu nagusi ziren erlijio eta monarkiari» leialtasuna aldarrikatu zien publikoki; eta haundiroki bi erakunde horiek errespetatuko zirela eta Eliza babestea Gobernuaren ardurarik behinena izango zela egin zuten agintzari. Zer esanik ez, une hartan erabilitako demagogia hutsa izan zen.

Baina indar politikoek bi bide hartu zituzten. Karlos Jnak, bere anaia Fernando VII.a errespetatu bazuten ere, hura hil zenean ez zion leialtasunezko zinik egin Isabeli,

horrela gerra zibilari hasiera emanez. Areagotu egin zen Gobernuaren eta Aulki Santuaren arteko tirandura, Labrador enbaxadorearen eta Amat nuntzioaren arteko gatazkak zirela tarteko. Vaticano, Karlos Jna errege aitortzea hausnartzen hasi zen.

b. **Legegintza antiklerikala**

Antzinako Erregimenean, Eliza eta Estatuaren arteko harremanak normaltasunez burutzen baziren ere, maiz eskuhartzen zuen botere zibilak erlijio-arazoetan Nuntzioaren gutunetan, esaterako, argitaratuak izan diren Tiberi nuntzioarenetan ikus daitekeen bezala[215].

Hala ere, «iraultza garaiak» deitu izan direnetan eta «askatasun» hitza eta, bai Frantzian bai Espainian, Elizaren eta estatuaren arteko aldenketa aldarrikatzen zen garaietan inoiz baino gehiago eta sakonago ageri zen estatuaganako menpekotasuna eta horrek Elizan zuen eskuharmena.

Gobernuak, Karlisten alderdietan ari ziren parroku eta kanonigoak fusilatuz agertu zuen gogorkeriak, Gobernuaren aldetik ekaitz antiklerikala zetorrela eman zuen aditzera.

Hainbat izan zirela antiklerikalismo honen iturriak esan daiteke. Alde batetik, apaiz erregularrak era bereziz ideologia berrien aurka agertzen ziren eta hori hainbatetan normala zen, ideologia horiek aurreko hamarkadetan zehar heriotze, erbesteratze, esklaustrazio eta desamortizazioak ekarri zituztelako; bestetik, Euskal Herrian, Iparraldean zein Hegoaldean, herri gisa zegozkion foru askatasunaren amaiera ere bazekarrelako.Ondorioz, Gobernuak etsaitzat hartu zituen.

Francisco Martínez de la Rosa-k (1834.eko Urtarrila) osotu zuen Gobernuan frantsestu batzu zeuden, hala nola Francisco Javier de Burgos (Garapenerako Ministraria) eta Nicolás María Garelly, valentziarra (Justiziako ministraria). Horrela Grazia eta Justiziako Ministrari horrek hil berean gutun bat bidali zien apezpiku eta erlijiosoen *nagusiei pulpitu eta aitorlekuetan «eliztarren eritzia desbideratu ez dadin»* eta beraien menpekoak legeak betetzera makurrerazteko neurri gogorrak hartzeko aginduz. Gobernuak agerian aitortzen zuen kleroaren eragin kaltegarria eta apezpikuen bidez apaizen eritzia arteztu nahi zuen. Metodo honek ez zuen itxaroten zuten emaitzik ekarri.

Toreno-ko kondeak osotu zuen hurrengo Gobernua (1835.eko ekaina), barnean kide burubero batzu, hala, Juan Alvarez Mendizabal (Ogasunekoa), Jose Alvarez Guerra (Garapenerakoa) eta Miguel Ricardo de Alava (Marinakoa) zirela.

1835.eko uztailean agindu zen jesuitak kentzea eta beraien ondasunak hartzea. Egun batzu geroago, Uztailaren 25ean, 12 erlijioso botodun ez zituzten komentu eta

---

[215] Vicente CARCEL ORTI, *Correspondencia diplomática del nuncio Tiberi* (1827-1834), Iruñea 1976, LXXXIII - 873 orr.

monastegi guztiak kendu ziren. Garai honetan 1.900 komentu inguru zeuden. Uztailean eta abuztuan nahaspide handiak izan ziren hiri batzutan, horrela, esaterako, Zaragotzan «Viva la Constitución» oihu eginez erlijioso batzu (29) hilak, beraien komentuak erreak eta Zaragotzako zenbait eliza zakuratuak izan zirela; horien artean bi karmeldarrenak zeuden[216]; Bartzelonan 200 inguru hil zituzten eta 25 komentu desegin. Antzerako gertakariak izan ziren Tarragonan, Alicanten, Sorian eta abarretan[217].

Lege hauek eta beraien aurkako ekintzak Elizari ageriko gerra deia egitea edo izan ziren. Nuntzioa erretiratzea erabaki zuen, Espainiatik irailean joan zela. Hil honen 14ean Gobernu berri bat eratu zen, bertako buru, antiklerikal ospe garbia zuen Juan Alvarez Mendizabal jarri zelarik.

Legegintza antiklerikala egiteari jarraitu zitzaion. Apezpikuei debekatu egin zitzaien, Gorteek eliz erreforma plana onartu arte, apaiz berririk sagaratzea. Kenduak izan ziren Monjeen Ordena guztiak, Kanonigo Erregularrak etab. Laster kenduak izan ziren gizonezko Erlijiosoen Ordenak eta gutxitu egin ziren emakumezkoenak. Eta beraien ondasun guztiak lapurtuak.

Gregorio XVI. Aita Santuak publikoki salatu zuen Espainiako Gobernuaren politika antiklerikala 1836.eko otsailearen 1ean. Baina hark ez zuen bere erlijioaren aurkako politika aldatu.

c. **Desamortizazioa eta esklaustrazioa eta haustura Vaticano-rekin**[218]

Mendizabal-ek desamortizaioa eratu zuen: Elizari kendu edo lapurtutako ondasunekin beteko zuen zor publikoaren zulo gehiena. Horrela, 1836.eko otsailaren 19ko dekretuaren bidez salgai jarri ziren Erlijiosoen korporazioei kendutako onda-

---

[216] EDUARDO DE SANTA TERESA, *La Congregación de España y la matanza de los frailes*, El Monte Carmelo 13(1912) 408-413; V. CARCEL ORTI, *El liberalismo en el poder*, 135.orr.; SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico*, 19.

[217] Ik. Amat nuntzioaren informazioak Aulki Santuari: V.CARCEL, *Correspondencia diplomática del nuncio Amat (1833-1840)*, Iruñea 1982, 109, 110, 111, 113, 115, 116, 117, 118,... Zkiak, 223-241.orr.

[218] Ik. 214.oharra. Ik.,era berean: Francisco BACON, *Historia de la revolución de las Provincias Vascongadas y Navarra. Desde 1833 a 1837, con una reseña Política y Religiosa de España*, Donostia 1973, 175 orr.; Sebastián INSAUSTI TREVIÑO, *Jurisdicción eclesiástica delegada en territorio carlista (1836-1839)*, Scriptorium Victoriense 12 (1965) 212-230; Francisco RODRIGUEZ DE CORO, *El obispado de Vitoria durante el sexenio revolucionario*, Gasteiz 1976, 382 orr.; Idem, *La Iglesia vasca en la época liberal (1808-1876)*, IX Congreso de Estudios Vascos (Donostia 1984, 193-214; etab.; José María MUTILOA POZA, *La Desamortización eclesiástica en Navarra. Aspectos...*, Iruñea 1972, 713 orr.; Idem, *La desamortización en Vizcaya*, Bilbo 1984, 546 orr.; Idem, *La desamortización eclesiástica en Guipúzcoa de Mendizabal a Espartero (1835-1840)*, Letras de Deusto 6 (1976) 143-162; Idem, *Desamortización, fueros y pronunciamientos en Alava en el siglo XIX*, Vitoria 1975, 425 orr.; Idem, *El patrimonio del clero regular vizcaino a la luz de los documentos desamortizadores*, Estudios Vizcainos 3 (1972) 323-375; 4 (1974) 119-162; Javier María DONEZAR, *La desamortización de Mendizábal en Navarra, 1936-1851*, Madrid 1975, XX-370 orr.; Manuel REVUELTA GONZALEZ, *La exlaustración (1833-1840)*, Madrid 1976, XXIII - 503 orr. J. SAEZ MARIN, *Datos sobre la Iglesia española contemporanea 1768-1868*, Madrid 1975.

sunak. Baina desamortizazioa gaizki egin zen: gaur egun aho batez onartzen da erizpen hau. Estatuak oso onura txikia atera zuen eta nekazal erreforma, esaterako, egin beharrean, elizaren ondasunak ekonomikoki indartsuak zirenen eskuetara joan ziren oligarkia berri bat, aberats berriak sortuz.

Urte bereko martxoaren 8ko beste dekretu baten bidez kenduak izan ziren erlijioaren inguruan sortutako elkarte zein komunitate guztiak «todos los monasterios, conventos, colegios, congregaciones y demás casas de comunidad o instituciones religiosas de varones, incluso las de clérigos regulares y las de las cuatro órdenes militares y San Juan de Jerusalém, existentes en la Península, islas adyacentes y posesiones de España en Africa»[219].

Gizonezkoen komentuak 1945 inguru ziren 1833.ean (Karmeldarrenak 118) Espainian, guztira 30.906 erlijioso (2124 karmeldar) zituztela.

Beraren lehengo lagunek kargua utzierazi zioten Mendizabal-i Francisco Javier Isturiz buru zela Gobernu berri bat eratuz (1836-V-15) eta abuztuan gizon zeharo iraultzaile, odolgaiztoko eta kultura gutxikoa zen José María Calatrava-ren Gobernua ezarri zen. Toreno eta Mendizabal-ek hasiera emandako jokaera antiklerikalari jarraitu zion. Zigor astunak ezartzen zizkien karlistei laguntza ematen zietenei eta areagotu egin zen parrokuen gainean ezarritako kontrola Gobernuaren alde hitz egin zezaten. Eta azkeneraino eraman zuen Aulki Santuak Gobernuarekin zituen harreman diplomatikoen haustura.

1837.eko uztailaren 27an erabaki hondagarria hartu zen Penintsulan eta menpeko lurraldeetan gizonezkoen zein emakumezkoen monastegi, komentu, ikastetxe, kongregazio eta antzerako etxe guztiak itxi egiten zituena. 1837.ean beste bi gobernu eta 1838.ean beste bi eratu ziren.

1840.ean amaitu zen Maria Kristina Anderearen erregetordetza, Espartero jeneralarenari hasiera emanez.

d. **Egoera karlisten inguruneetan, Iparrean**

Karlistadaren hasieran, 1833.ean Bilbo altxatu egin zen bertako foruen alde eta Karlos Jna. aitortu zuen errege. Talavera de la Reina-n izan zen karlisten lehen altxamendua. Karlos Jnak ordezkariak (ez ofizialak) zituen Erroman: bata, Paulino Ramírez de la Piscina eta bestea, eragin handiagokoa, Fermín de Alcaraz (Fermín Sánchez Artesero) kaputxinoa.

Hasieran oso apaiz eta erlijioso gutxi jarri ziren Espainian Isabel-en aurka; Gobernuaren legegintza erradikalak bultzatu zituen hainbat eta hainbat aurka jokatzera. Erlijioso eta apaiz batzu beren familiekin Frantzian edota karlisten lurraldeetan, batez ere oraindik komentuak irekita aurkitzen ziren Nafarroan babestu ziren. Guzti horrek areagotu egin zuen erradikalismoa.

---

[219] V. CARCEL, *El liberalismo en el poder...*, 139.orr.

Izan ziren Leon, Orihuela eta abarretako apezpikuek bezala Karlos Jnaren alde jarri zirenak ere. Hau 1838.ean Portugal-eko erregearen alaba nagusi zen Maria Teresa de Braganza-rekin ezkondu zen.

2. Gerren eragina Markinan

Gizartea menperatzeko asmoz burrukan zihartuten ideologia mailako ezberdintasunez gainera, Euskal Herriko apaizteria gehiengoak zuen liberalen aurkako joera normalak (normala diot, erlijioari eginiko erasoaldi, esklaustrazio eta abarren zioz), 1837.eko irailean Foru Diputazioak kentzeak, Bergarako Hitzarmenak (1837) sortutako asetasun ezak, foruak eskuratu ondoren berriro 1840.ean indargabetzeak, gogorragoa egin zuten gerra zibila.

Esan dugu Bizkaiko hiriburua 1833.eko irailan karlisten alde jarri zela, horrek sortutako matxinada eta guzti. Pedro Pascual de Uhagon Diputatu nagusiak asaldapena geratzeko ahaleginetan ihardun ondoren Jauregi barruan babestu behar izan zuen... eta agintari aldaketak izan ziren Diputazioan.

Markinako udalari egoera honen berri Manuel Francisco de Foruria Jnak eman zion 1833.eko urriaren 6an bidalitako gutun baten bidez; egun horretan bildu zen udala eta aho batez Karlos Jna Errege aldarrikatu zuen[220].

Manuel Francisco de Foruria-k urriaren azkenaldian Udalari Markinako ospitalean ohe batzu gertatzeko eskatu zion. Udal korporazioak hiria, hiru aste aurreragotik bertatik iragan eta lojamendua eskatzen zuten indar armatuen zioz oso beterik aurkitzen zela eta eskolari lotuta zegoen ospitalea txikiegia eta desegokia zela gaiso eta zaurituentzat, baina beste eraikinen batetan jarriz, gertatu zen bezala, Muniben jauregian egin ahal izango zela erantzun zion.

Markinak oso gogoan zituen oraindik Independentzia-gerratean (1809-1813) izan zituen eragozpenak eta gastuak.

Sarsfield jenerala armadarekin hurbiltzean, karlistek agintariekin batera ia erresistentziarik jarri gabe utzi zuten Bilbo, azaroaren 25ean. Hurrengo egunean Sarsfield jeneralak deia egin zien bizkaitarrei, Karlisten errebelamendua utziz konstituziobidera etor zitezen zigor gogorren mehatxu pean.

Aurrerantzean, Markina eta inguruetan ez zen gerra-ekintzarik izango, armada bien arteko burrukaldiren bat edo beste izan bazen ere, baina etengabeki iragaten ziren bertatik zein bertan alojatzen armagizonak, horrek udalari aparteko gastua ekarri ziola, urte horietan 755.070 erreal erabili behar izateraino.

Egoera honek 1834-1836. urteetan zehar iraun zuen. Udaleko egoera ere ezohizkoa zen hautatuek ez zutelako kargurik hartu nahi; batzuk utzi egin zuten hiria liberaltzat hartuak ez izateko. Alkate kargua urtebete osoan zehar inork nahi ez

[220] MUA, *Libro de decretos...1825-1833*, 265v-266r.

zuelako hutsik egon ondoren, 1835.eko irailearen 20ko batzarraldian kargu hori hilabetean bakarrik betetzea onartu zen eta batzarraldi berberean alkate kargua elkarren jarraian, txandaka beteko zuten izenen zerrenda ere egin zen. Egoera hau 1836.eko abenduaren 24ean amaitu zen.

3. Markinako Karmeldarren esklaustrazioa

a. Karmeldarren esklaustrazioa Espainian.

1835.eko uztailean eta 1836.eko martxoan komentuak kentzeko emandako dekretuen ondorioz, Karmeldar erlijiosoek beren komentuak utzi behar izan zituzten (Euskal Herrian beranduago, 1839.ean egingo zuten): komentu hauetariko hainbat, koartel, ospitale, eskola, biltegi eta abarretarako erabiliak izan ziren. Erlijiosoek, batzuk Mexikora egin zuten ihes eta beste hainbatek Frantzia, Italia eta abarretara; eta beste batzu beren komentu eta elizen inguruetan geratu ziren, isilean beren antzinako komentu eta elizak begiratu eta zainduz.

Desamortizazio honetan ez zuten salbabiderik izan Karmeldarren babespean zihardutenkofradia, onegite fondo eta ongintza bazkunek ere.

Karmeldar Teresiarren Ordena Espainian kendua izan zen unean 8 Karmeldar Probintzia zeuden bertan: hain zuzen ere, Gaztela Zaharreko San Elias, Gaztela Berriko Izpiritu Santua, Andalusia Garaiko Aingeru Santua, Kataluniako San Jose, Aragoa eta Valentziako Santa Teresa, Andalusia Beheko Jon Gurutzeko Santua, Nafarroako San Joakin eta Murtziako Santa Ana, guztira 112 komentu eta 2106 erlijioso inguru zituela[221]. Nafarroako San Joakin euskal probintziak 14 komentu zituen[222].

Azken urteetan 'Aita Santuaren komisari' izan zen Pedro del Carmen (1830-1838) Espainiako Kongregazioko azken Aita Jenerala hil ondoren, kargu honetan ondorengoa, kanporatutako karmeldarrekin gutun bidezko harremanak zituen beraren idazkaria izandako Aita Juan de Santo Tomás de Aquino (Maldonado) izan zen; honek zerikusi garrantzitsua izan zuen, neurri batetan kalterako, ikusiko dugunez, berreraikuntza zereginetan.

Esklaustrazio historia negargarri honetan salbuespen bat izan zen Castellón de la Plana-ko «Desierto de las Palmas» deritzan komentuarena. Mendizabal-en desamortizazio legetik kanpo geratu zen izurrite garaian Castellón-en erakutsitako jokaera heroikoari esker: Castellón-eko udalak eskerrona adieratzi zien publikoki Karmeldarrei 1834.eko azaroaren 13an[223]. Eta komentuak kentzeko legea heldu zenean udal horrek Valentzia eta Murtziako Kapitain Jeneralarengana jo zuen 1835.eko abuztuaren

[221] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 24. orr.
[222] Ibd.
[223] MKA, E.-I-12, Jatorrizkoa Castellón-eko udal Artxiboan. Berriro eskertuko zuen hilabete bereko 17an: E-I-13. Jator. Castellón-eko Udal Artxiboan.

27an «Desierto de las Palmas» zeritzan komentua ken ez zezan[224]. 1835.eko irailaren 2an Kapitain Jeneralak aipatutako komentua ez kentzeko agindua eman zuen, baina fraideek apaizen jantzia erabili behar zutela ezarriz[225]. Eta horrela mantendu zen etxe hura gizabidetze-etxe gisa: parrokia egiteko saioak ere izan ziren. Komentu honek irautea aparteko zerbait izan zen. Hala ere, Berreraikuntzari hasiera ematerakoan, ez zen komentu horretan hasi Markinako euskal fundazioan baino.

b. **Markinako Karmeldarren kanporaketa**

Gorago esan den bezala, Esklaustrazio edo kanporaketa Euskadin Espainian edo alde liberalean baino geroxeago egin zen, hau da, 1839.ean. Horrela udalaren 1839.eko irailearen 18ko batzarraldian Ordenari Jaurerriko Seigarren Dibisioko Kapitain Jeneralak bi egun lehenago, irailaren 16an, komentua ixteko bidalitako aginduaren berri eman zitzaion honela: «y que por lo tanto los Carmelitas Descalzos del Convento de esta villa se vistan de clérigo desocupando su Convento, se haga inventario de todo cuanto ecsista en él con citación o asistencia de Sr. Síndico Prov. general de esta villa, se nombre administrador de todo, se arriende la huerta por éste, que los cálices y demás correspondiente al culto se entregase al Cabildo ecco. de esta villa, y que últimamente se remitiese el expediente a la Diputación Provincial de este Señorío de Vizcaya, y habiéndose enterado el ayuntamiento acordó que antes de proceder a la formación del Inventario se hiciese presente a la Diputación Provincial de este Señorío la orden verbal que había dado el indicado Comandante general, para con su acuerdo practicar cuanto sea conducente. Y para el tiempo que quede el indicado convento sin religioso alguno,se nombra por administrador de él, de su huerta y demás que se inventariase, a D. Francisco de Olerdi vecino de esta villa. Se previene que el memorial para la recordada Diputación Provincial se mande con propio para mayor brevedad»[226].

Ez zaizkigu esklaustrazio horri buruz, hau da, nola irten ziren beraien komentuetatik, zeintzu erlijioso ziren, nora joan ziren eta abarri buruz ia agiririk geratzen.

Meza liburuetako sinaduretatik ezagutzen ditugu komunitateko erlijioso batzuren izenak.

1837.eko uztailean Aita Antonio de la Asunción zen priorea, baina jarraiko hiletan ez da beraren izenik ageri, hil egin zelako. Horrela, urte horretan eta 1839. urtean Aita Joaquín de Santa Teresa ageri da komunitateko bikari gisa eta Aita Blas de S. José prioreordetzan; eta giltzazain zereginetan Francisco del Carmelo eta Lucas de San Antonio[227]. Komunitateko beste fraide batzuez gainera, baziren gazte batzu ere bertan; Aita Luis Gonzaga, Lazkaoko nobizioen maisu zenak Aita Marcos de

[224] MKA, E-I-14, jatorrizkoa Castellón-eko Udal Artxiboan.
[225] MKA, E-I-16.17; jator. Castellón-eko Udal Artx., 1835.
[226] MUA, *Libro de decretos...1834-1859*, 78r-78v, (MKA, A-I-75).
[227] MKA, G-VII-1.

María Santísima Erromako Prokuradore Jeneralari 1839.eko Urtarrilaren 6an eginiko gutunari esker Lazkaoko 24 koruko botodunetarik 8 Markinara eta beste 8 Larrea-Zornotzara bidaliak izan zirela dakigu[228].

c. **Karmengo komentuaren eta elizaren destinoa**

aa. *Komentua Udalaren zerbitzurako*

Karmeldarren komentua izandakoaren lehen berria 1843.eko uztailaren 30ekoa da, egun horretan udalean Manuel Tome (Torre?) jaunak eginiko eskari bat bideratua izan baitzen; bertan, komentuaren administrari zenez, alogera egoki batetan berarentzat eta bere familiarentzat bertan bizitzeko nahikoa leku emateko eskatzen zen[229].

Hurrengo urtean (1844-VIII-24) Martín de Arrate Jnak eskaria egin zion udalari «Karmengo komentuko sotoa edota atalen bat uzteko, atal horien trukean egokia eta bidezkoa izan zitekeena ordainduz» eta, eskatzen zuena ematerik zegoen ala ez ikusteko, José Joaquín de Goenechea sindiko Jnarekin eta Diego de Mugartegi, ospitaleko etxazainarekin konpon zedila erabaki zen[230].

Udalak, antza denez, komentuari erabilera onuragarria emateko asmoak zituen: alde bat, umeentzako eskola eta beste bat ospitale bihurtzen saiatu zen; eta, horrela, hori lortzeko asmotan eskari bat zuzendu zion Ogasuneko Ministeritzari. Honek 1845.eko ekainaren 23an jakinerazi zion estatuaren ondasunen administrazio orokorrari: «El Señor ministro de Hacienda dió con esta fecha al Presidente de la Junta Superior de venta de bienes nacionales lo siguiente. Enterada S.M. de la solicitud del Ayuntamiento de Marquina en la Provincia de Vizcaya, pidiendo el edificio convento que fue de Carmelitas, para destino a Hospital y Escuelas de primera educación, ha tenido a bien resolver conformándose con lo informado por esa Junta y por las autoridades de aquella Provincia, que se ceda al expresado Ayuntamiento el usufructo del edificio-convento del Carmen, destinándose a los objetos mencionados, quedando la Iglesia con la aplicación que tiene en el día, y sin que se incluya en la cesión la huerta contigua al convento»[231].

Eta egiatan komentuan lehen mailako eskola, ospitalea eta goardia zibilen destakamentu bat egon ziren[232].

Baina Markinako alkateak Bizkaiko Gobernadore zibilari 1855.eko maiatzaren 20an zuzendutako beste agiri-zirriborro batetan ikusten denez, arazoak zeuden ospitale zereginetan erabiltzeko[233].

Udalaren 1861.eko aurrekontuan «Karmengo komentuaren errenta dela bide» 187 erreal agertzen dira[234].

---

[228] BAS, Kutx. 75 /z,1; SILVERIO DE S. TERESA, HCD,XIII, 161.
[229] MUA, *Libro de decretos...1834-1859*, 141r-142r, (MKA, A-I-76).
[230] Ibd., 155v-156r.
[231] BAS, Kutx., 26 /P. Administrazioak hurrengo hilean, uztailean jakinerazi zion udalari.
[232] MUA, "Asuntos tocantes..." paper-sorta, 1845-III-6. (MKA).
[233] MKA, E-I-23.
[234] MKA, E-I-26.

bb. *Huts gertatutako proiektua: Lekaime Asuntzionisten fundazioa Karmengo komentua izandakoan (1852-1853)*

1852-1853. urteetan Karmeldarrena izandandako komentua Lekaime Asuntzionisten komentu egiteko benetako proiektu bat izan zen; eta urrats garrantzitsuak eman baziren ere, azkenean ez zen burutu.

Bilbotik 1852.eko azaroaren 20an Ambrosia M.ª Mugartegi de Murga Andereak eskerrak ematen zizkion Markinako udalari Lekaime Asuntzionisten izenean, fundazio-proiektuari eman zion harrera ona eskertuz[235].

Bi egun geroago, 22an, «Andra Mariaren Igokundeko Lekaimeen» sortzaile zen Pedro Mariano de Anitua apaiz Jnak Markinako udalari idatzi zion fundazioa Markinan egiteko gogoa aditzera emonez eta zenbateraino onuragarri izango zitzaion Markinari irakaskuntzako Institutu bat izatea adieraziz, eta ez zitzaiola sama ekonomiko astuna gertatuko biztanleriari, zituen fondoetatik sostengatuko zelako[236].

Bi egun geroago azaroaren 24ean, Erregina Tx. Gorenarengana jo zuen udalak, Markinan Asuntzionisten fundazioa egiteko lizentzia eskatuz eta arrazoirik nagusien artean irakaskuntzan ziharduen elkarbizitzako lekaimerik Jaurerrian ez izatea eta hiriari, inolazko gasturik sortu gabe, halako helburu gizatiarra duen korporazioak heziketa alorrean ekarriko zion onura gogoratuz: «no habiendo en todo el Señorío ninguna corporación de religiosas de vida común ni dedicadas a la enseñanza, sería una incalculable ventaja para esta población y para todo el país el tener una corporación sotenida por sus propios recursos sin gravamen de ninguna especie y al mismo tiempo tan filantrópica». Data berean Kalagurriko apezpikuaren onarpena eskatu zuen, beraren bidez zuzendu ziotelarik aurreko eskaria Erreginari[237].

Justizia Ministrariak, bestalde, apezpikuari udalak fundazioa ezartzeko zituen baliabideei buruz galdetu zion. Hori zela eta, Apezpikuak 1853.eko urtarrilaren 17an, fundazioa egin ahal izateaz Gobernuari bere eritzia jakinerazi aurretik, informazioa eskatu zion udalari[238].

Markinako udalak 1853.eko urtarrilaren 24ean erantzun zion apezpikuari, ez zuela inolazko betebeharrik eta sortuko ziren gastu guztiak lekaimeen kontura izango zirela esanez[239]. Eta 1853.eko otsailaren 20an udalak baimena eman zien Lekaime Asuntzionistei Karmengo komentua hartzeko baldintza hauetan:

1. Karmengo Amaren irudiak dagoen lekuan jarraituko du eta beraren jaiegunean elizkizun nagusia, bederatziurrena eginez eta Agur Erregina abestuz ospatuko da. Eta beste hainbeste Santa Teresa, San Jose eta gainerako santuen jaietan ordurarteko ohituren arabera.

---

[235] MUA, "Asuntos tocantes..." paper-sorta, 1852-XI-20.
[236] Ibd.
[237] Ibd.
[238] Ibd.
[239] Ibd.

2. Kaperauak orain egiten dituen zerbitzuak ematen jarraituko du.
3. Udalak ospitalea eta eskola ezartzeko gastuak egin behar izan dituenez, Lekaimeek, euren kontura, eskolarako areko bat egin beharko dute eta lehen ospitale zereginetan erabilitako etxea konponduko.
4. Karmengo komentuan eta elizan egin beharreko obrak Lekaimeek ordainduak izango dira.
5. Urtero 200 errealetako alogera ordainduko dute.
6. Neskentzako dohako eskola on bat ezarri beharko dute.
7. Baldintzok indarrean izango dira Lekaimeek komentu horretan irauten duten artean[240].

Otsailaren 20ko data berean erantzun zion udalari Ambrosia María Mugartegui de Murga andereak baldintzok onartuz eta zehaztasun batzu erantsiz[241].

Baina andere berberak 1853.eko urriaren 30ean erantzuten zion Udalari Pedro Mariano de Anitua jaunaren izenean bertan behera uzten zutela Asuntzionisten fundazioa Markinan egitea eta erabaki hau hartzera bultzatu zuen arrazoitariko bat Aita Román de S. Bartolomé karmeldarrak eginiko eskaria edo kudeaketa zela; eskari horrek herritar batzuren laguntza izan zuen[242].

Antza denez, Aita Roman, laster ikusiko dugunez, komentu eta elizan sartzeko asmotan zebilen; eta, horrela, garai egokia heltzean kendutako komentuaz jabetzeko, maltzurkeriaz jokatu zuen, horrek min eman ziolarik Pedro Mariano de Anitua jaunari, ez zuelarik inorekin etsaituta egon nahi.

Eta hurrengo hilean (1853-XI-29) Udalak Pedro Mariano Jnari beraren asmo ederrak eskertzen zizkion eta onartu egiten zuen Karmengo komentuan Lekaime Asuntzionistak ezartzea bertan behera uzte hori[243].

cc. *Konponketak eta zerbitzuak Karmengo elizan*

Udalak, bertako akten bidez ezagutzen dugunez, 1847.eko abenduaren 16an, San Pedro de Elejabarriko baseliza berreraiki ala ez aztertzerakoan (apezpikuak emana zuen bere baimena bota eta kentzeko) ez zela beharrezkoa konponketa ikusi zuen «elizako erlijio elizkizunak egiteko alboan ezarrita aurkitzen zelako Karmeldarren itxitako komentuko eliza»[244].

Eta Karmengo elizan zerbitzuak eskaintzen zituen Aita Román de San Bartolomé (Sagasti) karmeldarrak gutun interesgarri bat idatzi zion udalari 1853.eko urriaren

[240] Ibd.
[241] Ibd.
[242] Ibd.
[243] Ibd.; (ik. MKA,.D-I-1).
[244] MUA, *Libro de decretos...1834-1859*, 184r-187r, (MKA, A-I-79).

18an, bertan, geroago eta eliztar gehiago etortzen zela elizara eta zerbitzuak eskaintzeko bi apaiz baino ez zeudela ikusirik, kultua eta ministeritza zerbitzuak egokiro betetzeko, etxetik kanporatuak izandako 4 edo 5 karmeldar apaiz komentuan edo beraren ondoan elkartzeko baimena eskatzen zion; eta aurretik Peñaflorida-ko kondeari ortua edo beraren alde bat eskatu zion[245].

Udalak 1853.eko azaroaren 5ean Gogeascoechea, Goenechea eta Mugartegui y Munibe Jnak izendatu zituen frai Roman-ekin bildu eta karmeldarrek aurkeztutako proiektua aztertzeko[246].

Bilera, ondorio onak izan zituela burutu zen, bada, hurrengo hilean, 1853.eko abenduaren 16an udalak onartu egin zuen Aita Romanek eskatua, berari komentuko eraikina utziz; baina, komentuko alde bat nahikoa ez zenez, apaizek aldi bat itxaron beharko zuten udalak bertan zituen bere sail batzu kendu arte[247].

Hurrengo utean 1854.eko martxoaren 6an, Udalak Kalagurriko apezpikuari eginiko azalpen gutun luze batetan: komentuaren egoera juridikoa, Karmengo Amari jendeak zion debozio handia eta egunerik egunera elizako elizkizunetara geroago eta eliztar gehiago joaten zela azalduz, Aita Romanen planaren berri eman zion, era berean, udalak oso egokiro ikusiko zuela fraide horiek nolabaiteko babesa izanik zeregin horretan ihardutea jakineraziz eta hori burutzeko laguntza eskatuz: «que unos cuatro o más sacerdotes (o capellanes) ocupando el edificio o convento contiguo a la referida iglesia, podrían proporcionar un completo servicio de la misma clase y circunstancia, caso de dejarles espedito y libre dicho convento. El ayuntamiento, que no pudo menos de aplaudir tan loable como religioso pensamiento, le contestó que estaba muy dispuesto y conforme en facilitarle todo el edificio del convento»... «Y como el ayuntamiento cada vez está más propenso a que se planifique y aumente dicho servicio de un modo al parecer estable y bajo bases ciertas y conocidas que acaso sean conciliables con una casa de corrección, ejercicios espirituales, santas misiones u otro objeto piadoso de interés local o general para la Iglesia, ante todas cosas ha creído ser su primer deber el acudir a V.S.I. como a su padre amoroso y como a pastor a quien está encomendado el cuidado de su rebaño o sea de toda esta diócesis, con la segura y firme confianza de que V.S.I. recibirá estas sencillas insinuaciones»; eta plana onartzeko eskatuz amaitzen zuen[248].

Zipriano apezpikuak martxaoaren 22an erantzun zuen, udalaren eskariari ezetza eman beharrean aurkitzen zela esanez. Ezetzaren zioa, ordurako «Karmengo Ordena horretako erlijioso batzu Larreako komentuan ezartzeko» konpromezua hartua izatea zen, hau da, plan berdina, baina, Larrean burutua izatekoa; eta Larreakoa aurrera eramateari oztopoak jartzen bazitzaizkion, pozik emango zuela Markinakoarentzat baimena jakinerazi zien..[249].

---

[245] MUA, "Asuntos tocantes..." paper-sorta, (MIA, A-I-82).
[246] MUA, *Libro de decretos...1834-1859*, 244v-245r, (MKA, A-I-83).
[247] MUA, "Asuntos tocantes..." paper-sorta.
[248] Ibd.
[249] Ibd.

Hiru urte geroago, 1857.eko martxoan, udalak, Markinako eliz kabildoari aholkua eskatu eta beraren baimena onartuta gero Diputazio Jeneralera jo zuen Aita Roman de Sagasti markinarrari herrian eta inguruetan dirua eskatzeko baimena ematea gomendatuz[250].

Ikus daitekeenez Aita Frai Bartolomé de Santa Teresa sermolariak bere iharduerаz frantseste ostean, hau da, esklaustrazio ostean komentua salbatu zuen bezala, Aita Román de Bartolomé fraidea antzerako bideak erabiliz komentua berreskuratzea lortu nahiean ari zen; garai bien arteko aldea, oraingoan, gobernua antiklerikal baten garaian komentua berreskuratzea askoz ere zailagoa izatean zetzan. Baina, historia honen arabera, komentu hau geroago karmeldarrek berreskuratzea Karmeldar horri zor izan zitzaiola esan daiteke.

Eta berreraikuntza ateetan,komentuan obrak egin zirela ikus dezakegu: 1865.eko urtarrilaren 29an udalaren batzarraldian, bertan izandako apurketak eta ate batzu zein garbitegiko iturria konpontzea onartu zen, azkena enkante publikora atera zelarik[251].

Eta, azkenean, Lazkaoko komentuan berreraikuntza ofizialerako ahaleginak hasi zirenean, Aita Romanek[252] 1867.eko uztailaren 14ean, behingoz komentura sartzeko ahaleginetan «berarentzat edota karmeldarren komentuan kaperau zereginetan bere ondorengo izango zituenentzat aparteko gela bat egiteko, aldare nagusiaren ostean edo Ama Birjinaren atzekaldean zegoen pasabidea» eskatu zion udalari; honek onartu egin zuen[253].

Ezin dugu ahaztu, bestalde, urte hauetan Peñaflorida-ko kondearen emazteak eutsi ziola elizako kultuari eta gastu handiak egin zituela[254].

---

[250] Ibd.

[251] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*, (MKA, A-I-87b; E-I-27).

[252] Frantsestearen amaieran Aita Frai Bartolome Santa Teresak Karmengo komentua eskuratu zuen bezala, esklaustrazio garaian batez ere Aita Romanek salbatu zuen karmeldarren komentua, beste erlijioso batzuren eskutara iragan ez zedin...

Aita Román de S.Bartolomé (Román Angel de Sagasti) Etxanokoa (Zornotza) zen eta profesioa Lazkaon (1823) egin zuen. Esklaustrazio luzearen ondoren 1880.ean itzuli zen Ordenara bere profesioa Larrean 1880-II-28an berriztatu zuela. Markinan hil zen 85 urte zituela 1885.ean. (Ik.MKA, A-XII-1: *Memoria de los religiosos...*, 10.zk.)

[253] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*.

[254] *Correspondencia...*, 31. zk., Cándido Gaytan Villafranca-ko kondeak Aita Domingo de San José, Erromako Ordenako Jeneralari 1868-VI-19an eginiko gutuna.

D. KARMELDARREN BERRERAIKUNTZA: EUSKALDUNEN EKINTZA HANDIA; MARKINA HASIERAKO ABIABURUA

1868.eko abuztuaren 14a dugu Karmeldar Teresiarren historiako datarik garrantzitsuenetarikoa eta, batez ere, Iberiar Penintsula osoko Karmelo osoarena; ahaztu ezin diren horietako data. Eta data hori Bizkaiko herri baten izenari, Markinari eta historian zehar Karmeldar ihardueruk edo ekintzak izandako gertakari bati: Berreraikuntzari lotuta dago[255].

Ikus daitekeenez, Markinako Karmengo komentuaren berreraikuntzaren kapitulu hau ezin da mugatu Markina edo bertako eskualdera ezta Euskadira bakarrik ere;

---

[255] Agiri ugari dago karmeldarren berreraikuntzari buruz 1867.etik aurrera. Lehen eta behin, eskuskribuzko agiriei dagokienean, Villafranca-ko kondeek Bergarako Rekalde jauregian gorde eta gaur egun Donostian aurkitzen den gutun-bilduma ugaria nabarmendu beharra dugu: *Correspondencia epistolar* (1867-1882, fotokopiak MKA, A-III-1-3an). Hurrengo, berreraikuntzako eragile eta lehen erlijioso izan zirenen kontaketa ezberdinak nabarian jarri behar dira; beraien artean, Aita Manuel de Santa Teresaren frantsesezko jatorrizko testua (BAS, 26/P) eta gaztelerako itzulpena (MKA,A-I-278, etab.) (ik. *Gehigarriak*, IV,42); Cándido Gaytan Kondearen kontaketa (BAS, 26/P, ik. *Gehigarriak*, IV,40), etab... JUAN VICENTE DE JESUS MARIA, *Maravillosa Restauración del Carmelo Reformado en España* (BAS, 26/P; fotokopia MKA, A-I-280an); P. VICTORIANO(?), *Notas sobre la restauración de los Carmelitas Descalzos en España* (BAS, 26/P, fotokopia MKA, A-I-281ean); Antonio de Jesus-en beste kontaketa bat (*Fundación...*, BAS, 26/B) etab. Ik.,era berean: BERNARDO DE S. JOSE, *Restauración y Progresos de la Orden Carmelitana en España* (BAS, 69/J)... Inprimaturiko ikerlanen artean lehen eta behin jarraikoa aipatu behar da: SILVERIO DE SANTA TERESA, *Resumen histórico de la restauración de los Carmelitas Descalzos en España*, 1868-1918, Burgos 1918, 289 orr. Ik., era berean: [JUAN DE SANTO TOMAS DE AQUINO (MALDONADO)], *Breve extracto y fragmentos varios del expediente incoado en el Ministerio de Ultramar para la fundación de un convento de Carmelitas Descalzos*, Madrid 1867, 31 orr.; Antonio UNZUETA, *Centenario de la Restauración de la Orden en España*, BOPSJN 5 (1968, 71.zk.) 561-574; EDUARDO DE SANTA TERESA, *Restauración de la Orden y fin de la Congregación de España*, El Monte Carmelo 13 (1912) 609-616, 647-652, 730-735, 845-853, 926-929.

Espainia osora zabaldu. Hain zuzen ere, Markina eta euskaldunak izan zirelako, Karmeldar Teresiarren Berreraikuntza eta zabalkunde indartsua aurrera eraman zuten gune nagusia.

Gertakari hau honela izateak eta garai honi buruzko hainbat eta hainbat agiri izateak bultzatu gaitu gai hau zehaztasun handiagoz aztertzera; bestalde, gertakari honen garrantziak ikerketa sakonagoa eskatzen du, berreraikuntzaren gorabeherak eta horretarako eginiko saioaldi guztiak aztertuz. Hori dela eta, Markinak dimentsio oso zabala eta sakona hartu izan du komentu bizitzaren berreraikuntzaren nolakotasunean zein Espainia, Amerika eta abarretan izandako zabalkuntzan; Markinak, neurri handi batetan, adiera edo dimentsio unibertsala hartu duela esateraino ausartzen gara.

1. Cándido Gaytán Jna eta Berreraikuntzaren beste protagonista batzu

Karmeldar Ordenaren berreraikuntzaren historia lanak aztertzen hasi aurretik, berreirakuntza ekintza handi honek euskarri edo protagonista izan zituen pertsonaia nagusien berriak bildu nahi ditut.

Protagonista haien ikuspegi biografiko laburra bilduko dut bakarrik, behin eta berriro agertuko baitira, bestalde, kapitulu luze honetan zehar.

a. Cándido Gaytán Jna, J.L. Nacarino Bravo Jna eta Gaytandarrak.

aa. *Gaytandarrak*

Gaytan familiako aurretikoak aipatzerakoan Antonio Gaytan Jna (Luis Gaytan de Ayala y Padilla Jnaren anaia, Bernabé Gaytan Jnaren hamabostgarren ondorengoa), Santa Teresaren adiskide izaterakoan izpiritualitate handiko bizimodua izan zuena datorkigu gogora; Santa Teresari laguntza eman zion Segovia (1574), Beas (1575) eta Sevilla-ko mojen fundazioak egitean, eta 1576.ean Santa Teresak garaipen handiak eginez Caravaca-ko fundazioa eskertzen zion «porque, a la verdad, se les puede a ellos [Julián de Avila y Antonio Gaytan] agradecer esta fundación, porque si no fueran allá y lo concertaran, yo pusiera poco en ella»[256]. Eta gutun batetan, Alba de Tormes-eko Karmeldar mojen komentua aipatzean honako hau dio Antonio Gaytan-i buruz: «lo que hace por aquella casa y ha trabajado por la Orden no tiene precio»[257]. Santa Teresak sarri aipatzen du adiskide on hau eta zenbait gutun zuzendu zizkion[258].

Gizon on hark alaba bat, Mariana Gaytan izan zuen; Santa Teresak oso gaztetxoa zela hartu zuen komentuan, Santak eginiko lau salbuespenetariko bat izan zela[259];

[256] S. TERESA DE JESUS, *Fundaciones* 27,4.
[257] S. TERESA DE JESUS, 1577.eko otsailaren erdialdean Aita Jeronimo Gracián-i eginiko gutuna.
[258] Ik. *Fundaciones*, 21, 5-6; 24,5.17; 27,3-4.8; Gutunak: 1574-V-30, 1575-VI-19; 1575-VIII-12; 1576-XII-13; 1577-I-21; 1577-II (erdialdean); 1580-II-11; 1581-III-28.
[259] Ik. Gutuna: 1581-III-28.

baina, etzuen egin profesiorik adin egokira heldu arte, hots, 1585.eko abenduaren 13ra arte, Mariana de Jesus izen hartu zuelarik[260].

Gaytandarren familiakoak, jatorriz, izena eman zien Gaeta hirikoak ziren. XI. mendearen azkenaldian Gaetani italiarren enborretik banatutako adarra zen. Familia honek hainbat pertsonaia ospetsu eman zizkion Elizari, besterik beste, Gelasio II (1118-1119) eta Bonifazio VIII (1294-1303) Aita Santuak, 17 kardinale eta 120 baino gehiago apezpiku[261].

bb. *Cándido Gaytan Jna*

Karmelo Teresiarraren berreraikuntza lanean oso garrantzitsua eta oinarrizkoa izan zen pertsonaia dugu; nik guztiz erabakiorra izan zela esango nuke garai antiklerikal haietan Madrileko Gobernu eta Ministeritzetan eragin handiko pertsonaia zelako zein elkarrizketarako joera zuelako eta Santa Teresaren Ordenari maitasun handia ziolako.

Garai iraultzaile haietan zuzenekoa eta bidezkoa zena agerian defendatzen zuen euskal politikari eta kristau osoa izan zen.

Kontua ez da, guk Ordenaren babestaile deitua izatea; berak ere, bere gain hartua zuen babestailearen zeregin hori, beraren aurretikoen antzera, hala agertu baitzuen nahiko sarritan pertsonaia ospetsuei eginiko zenbait gutunetan, horrela, adibidez, 1874.eko Ekainaren 3an Franchi kardinalari Markinako karmeldarren alde idatzitako gutun batetan: «Dispénseme V.Em.RRma que le moleste con esta pretensión, pero los recuerdos de mi familia, la memoria de que el rey D.Felipe II hace más de 300 años encargó a uno de mis antecesores (de mi propio apellido) la protección de la Santa Madre; y también la de que los padres del dominico Báñez nacieran en la misma villa y casa que yo, y además el de que la útlima Reina de España me encargase la fundación de un convento del Carmen de Santa Teresa: todo esto, Emmo. Señor, me obliga a molestar a V.Eminencia»[262].

Juan Vicente de Jesus María (Zengotita), misiolari opetsu eta beneragarria izan zenak, bere eskuz idatzitako kontakizunean Candido Jnari buruz hitz egiterakoan hitz bete-beteak erabiliz egiten du: «Candido Manuel María Gaytan de Ayala y Areizaga Jna, Villafranca de Gaytan y Sacro Romano Imperio-ko X. Kontea eta Tola-ko markesa, Arrasaten jaio zen 1818.eko urriaren 3an»[263].

Lehen ikasketak Bergarako erret seminarioan egin ondoren, 17 urte zituela Paris eta Alemaniara joan zen mea-ingeneritza karrera egin zuela. Itzultzean, 1842.ean, Tomasa de Jusue y Patermina Anderearekin ezkondu zen Bilbon.

---

[260] Alba de Tormes-eko Moja Karmeldarrak, *Libro de profesiones*, 17r; Tarazonako etxearen fundatzailea izan zen. 1615.ean hil zen.

[261] BAS, 75/ z.5.

[262] *Correspondencia...*, 449. zk.

[263] BAS, 26/ P: JUAN VICENTE DE JESUS MARIA, *Maravillosa Restauración...*, 10.orr. (MKA, A-I-280). Ik.,era berean: SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*, 30-32.orr.

Gipuzkoako 1845.eko Batzar Nagusietan diputatu hautatu zuten. Bergarako erret seminarioko Batzordeburu izan zen. 1851.etik aurrera senadore izan zen 1868.ean Isabel II.a kendua izan zen arte. 1879.ean Gipuzkoa ordezkatzeko berriro senadore izendatua izan zen; Pedro de Egaña eta beste batzurekin batera euskaldunen foruak hain gogotsu defendatu zituenez, Bizkaiko Probintziak «Jaurerriaren gurasoak» izendatuak izan ziren.

Garai zail haietan erakutsi zuen bezala, politikari ausarta eta Elizari leiala izan zen; hala, Leopoldo O'Donnell buru zuen Espainiako gobernuak, Aulki Santuari egin zitzaion harrapaketa onartuz, Italiako erreinua aitortu zuenean, senatuko bozketan (1866) Candido Jna izan zen aurkako botua eman zuten bakarren artekoa[264].

Era berean, beraren ausardia eta maitasuna agertu zituen mundu antiklerikal hartan Karmeldarren alde ihardunez, Santander-eko apezpikuari 1872.eko azaroaren 24.eko gutunean agertzen den bezala: «Perdone V.S.I. tanto atrevimiento de mi parte; pero me obligan a ello mis relaciones con los PP. del Carmen Descalzo, los antecedentes de mi familia, los servicios que mis ascendientes prestaron a la Santa Fundadora y el compromiso, o quizás la obligación, que tengo de procurar la propagación de los PP. de Marquina, la mayor gloria de Dios y de su Madre Santísima, y por fin la obligación general de todo católico en estos desdichados días. No quiero ser cobarde, Excelentísimo e Ilustrísimo Señor; no quiero tampoco avergonzarme de ser amigo de los Frailes»[265].

Karmeldarren Berreraikuntzan protagonista handia izan zen honek kristau izpiritu ausarta agertu zuen; ber-berak honela kontatzen zion Aita Manueli Markinako fundazioaren kontakizun labur batetan: «arazo politikoetan ihardunez hainbeste urtetan zehar bizileku izan eta hainbeste adiskide ditudan Madrilen, ez nuen aurkitu Nacarino Bravo baino beste inor, lan egiteko ausardia izan zuenik. Ministrari batekin hitz egin behar nuenean neu bakarrik joaten nintzen, ez zela zentzunezkoa horrelako gaiei buruz mintzatzea esaten baitzuten. Nik, ziurtatu ahal dizut, Aita Frai Manuel, ez nuela inoiz irainik jaso, behik behin nik ez nuen ezagutu. Izan ziren, bai, ea iraindu ninduten galdetu zidaten Apezpiku Jn. batzu ere, eta nik ez nuela halakorik ezagutzen erantzuten nien. Ez dut arazoetan halako lasaitasunik izan, oso ernegu bizikoa naizen arren. Ez nuen beste batzu aurkitzen zuen eragozpenik aurkitzen ez eta beldurrik edota lotsarik izaten. Nire arazo guztiak, ugariak eta astunak zirela, gaizki atera zitzaikidan; baina ez nuen inolazko minik hartzen»[266].

Candido Gaytan Jna. 1882.eko azaroaren 25ean hil zen Beragarako bere Rekalde jauregian.

Candido Jnak 9 seme-alaba izan zituen: Iñigo Gaytan de Ayala y Jusué Jna.(1845-1917), Tolosan jaioa, Villafranca-ko XI. kondea; José María Jna. (Bergara, 1844 - Madrid, 1862); María de los Dolores anderea (1847), Mariaren Lagundiko lekaimea

[264] BAS, 26/ P; 75/ z.5.
[265] *Correspondencia...*, 345.zk.
[266] BAS, 26 / P, 1872-VII-5.eko gutuna.

eta Donostiako San Bartolome komentuan nagusia; Martín de Aguirre Jna. (Bergara, 1849-1870); María Casilda anderea (1850); Román Santiago Jna (Bergara, 1849-Santo Domingo de la Calzada, 1905); María Jesusa anderea (Bergara 1854); María de la Concepción anderea (Bergara, 1855); María Leonor anderea (Bergara, 1847)[267].

cc. *José Luis Nacarino Bravo (1819-1893)*[268]

Karmeldarren Berreraikuntza eginkizunetan Candido Gaytan Jnak Madrileko Ministeritzetan izan zuen adiskide eta laguntzailerik onena, Cadiz-eko semea zen José Nacarino Bravo y Barrera abokatu ospetsua izan zen; Espainiako politikan goi mailatan parte hartu zuena. Filosofia Cordoba-ko «Real Colegio de Humanidades» zeritzanean ikasi zuen eta Manila-ko unibertsitatean hasi zuen Zuzenbide karrera eta Madrid-en *nemine discrepante* bukatu. Zeregin batzu Ogasunean burutu ondoren, 1849.ean epaile-karreran sartu zen, hurrenez hurren, Pego, Getafe, Torrejos, Ubeda, Almendralejo, Cáceres eta Castellón de la Plana-ko auzitegien ardura izan zuela[269]. 1856.ean Manila-ko Entzutegiko epaimahikide izendatu zuten; 1859.ean Penintsulara itzuli zen Ubedako barrutiko diputatu izendatua izan ondoren.

Ongizate eta Sanitateko udal administrazio eta Eliz arazoetako Zuzendari nagusi izan zen eta 1867. urtearen inguruan Itsasoz-bestaldeko Ministeritzako idazkariordea, hain zuen ere, Madrilen Karmeldar Teresiarren berreraikuntzaren alde lan egin zuenean. 1868.eko Iraileko iraultzaren ondoren, ez zuen hainbeste bidegabekeriatan parte hartu nahi izan eta kargua utzi eta politika bizitzatik aldendu egin zen. Ikustaldia egin zion Aita Santuari 1885.ean; 1893.ean hil zen.

Gizon hau Ordenen berreraikuntza lanetan ikusiko dugu, Karmeldarren eginkizunetan Candido Gaytan, Villafranca-ko konte Jnari laguntza ematen.

b. Aita Manuel de Santa Teresa

Berreraikuntzan partehartu zuten bi edo hiru karmeldar protagonisten artean lehenengo Aita Manuel de Santa Teresa jartzen dugu, bera izan zelako berreraikuntza bidea hartu zuen lehena[270].

Manuel Antonio 1817.eko apirilean jaio zen Lazkaon (Gipuzkoa), bateoa hurrengo egunean Mikel Goiaingeruaren parrokian hartu zuen; beraren gurasoak Ignacio de Elosegui (Lazkaokoa) eta Ana Maria de Arbizu (Idiazabalekoa) izan ziren; 9 urte

[267] Begiratu 255. oharreko bibliografia. Ik., era berean, BAS, 75.kutx. /z.5.

[268] BAS, 26 /P; JUAN VICENTE DE JESUS MARIA, *Maravillosa Restauración...*,10; SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico...*, 33-34.

[269] BAS, 26 / P.

[270] BAS, 26 /P; 75/r; 139/F; JUAN VICENTE DE JESUS MARIA, *Maravillosa Restauración...* (BAS, 26/P); SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*, 26, 118-119.

zituela hil zitzaion ama. Karmengo jantzia Lazkaoko komentuan hartu zuen, botuak 1834.eko urtarrilan 25ean eginez. Ikasten aritu ahal izan zuen 1839.era arte; urte horretan komentutik gainerako erlijiosoekin kanporatua izan zen eta Frantziara erbesteratu zen diakono zela; Aita Luis Gonzaga del SSmo. Sacramento, beraren maisua zenarekin joan zen, honek, Tours-etik bere ikasle berriari buruz honako hau idatzi ziola Jeneralari 1839.eko azaroaren 8an: «jatorra eta portaera oso onekoa da; berorrek nahi duen edozeini galde diezaioke, baina beste hainbeste esango diola eta nago: Lazkaon nire ardurapean nituenen arteko onenetarikoa da. Hainbat hobe Gabonetarako ordenak emateko doaia lortu ahal izango balitz»[271]. F.-F.A. Donnet, Bordeleko artzapezpiku kardinaleak Bordelen 1840.eko uztailaren 16an sagaratu zuen apaiz[272].

Hiri honetan Aita Domingo de San José aurkitu zuen; berarekin batera Karmeloren berreraikuntza bultzatu zuen Frantzian eta Euskadin; geroago, Aita Pedro Joseren laguntza eta agindua zituelarik, fundazioak eraiki zituen Espainian eta Amerikan.

1867.ean Agen-go priorea zen; urte berean etorri zen Penintsulara eta berehala eman zien hasiera berreirakuntza lanei. Ustekabean hil zen sabeltxiaz (herniaz) Larrean 1889.eko urtarrilaren 15ean, Probintziako definitore eta nobizen maisu zela, 72 urte zituela eta klaustroko 17.zkia zuen hilobian eman zioten lurra[273].

Historia honetan zehar ageri den gizon adoretsua eta ausarta izan zen; hainbatetan izaera sendokoa zen, baina, era berean, trataera atseginekoa; behar bada, tolesgabegia, bere Herriari eta Karmengo Ordenari maitasun handia ziena eta komentu bizitzako benetako eredua.

c. Aita Domingo de San José[274]

Nortasun handiko gizona, bere iharduera erabakiorra izan zelarik Markinako komentuaren berreraikuntzan. Garesen (Nafarroa) 1793.eko maiatzaren 7an jaioa; bateoan Domingo Estanislao izena jarri zioten beraren guraso ziren Joaquin Arbizu eta Lucia Munarriz jaun-andreek. Lazkaoko nobiziatuan sartu zen, profesioa Domingo de San José izena hartuz 1818.eko irailaren 6an egin zuela.

Fernando VII.a (1833-IX-29) hil zenean, Irunean Filosofia eta Teologiako irakasle zela, Iruneko agintariek Aita Domingori, oso hizlari ospetsua baitzen, agindu zioten hileta-otoitza, eta hitzaldi oso ausarta eta erlijioan izugarrizko kalteak egiteko mehatxua zekarren izpiritu sozio-politikoaren aurkakoa egin zuen. Ihes egin eta euskal probintzietan gerra zibila pertsonalki aurrera zeraman Carlos de Borbón Jnaren koar-

---

[271] BAS, 75 /z,1.

[272] MKA, A-V-2: Bataio-txartela eta apaizgintza agiria; eta A-V-I: *Liber continens nomina religiosorum; Correspondencia...*, 302.zk.

[273] LKA, A-IX-1: *Memoria de los religiosos que han muerto en este convento de S.Juan Bautista de Larrea*, 14.zk.

[274] JUAN VICENTE DE JESUS MARIA: *Maravillosa Restauración...* (BAS, 26/P), 8.orr.; SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*, 89-90. Henri BLANC, *Un gran religieux. Le R. P.Dominique de St-Joseph. Restaurateur des Carmes en France en 1830*, Carpentras [1922], 228 orr.

teletan hartu behar izan zuen babesa, leialtasunez beraren zerbitzari izan zela; eta Rafael Moroto mendekatiak gaizki ikusia zelarik eta, era berean, amaiera hondagarria zetorrela aurrez ikusirik Amerikara joatea pentsatu zuen eta nahiera hori zuela heldu zen Bordelera. Hemen guztiz aldatuko zen beraren norabidea, bide batez beste batzurekin batera, ikusiko dugunez, Ordenaren berreraikuntza lana hasiko baitzuen Frantzian. Eta 1865.ean Italiako (Espainiaz kanpo Europa osoa barnehartzen zuen) Kongregazioko Ordenako Jeneral izendatua izan zen. 1868.eko abuztuaren 14ean Markinako komentuaren irekidurara pertsonalki etorri ondoren Erromara itzuli zen eta Kontzilio Vaticano I.eko ihardueretan lanean ari zela hil zen Erroman 1870.eko uztailaren 12an[275]. Aita Domingo izan zen Berreraikuntza bultzatu zuen gizona.

d. **Aita Pedro José de Jesús María**[276]

Markinar hau, komentutik hurrean jaio zen 1822.eko apirilaren 4ean; Ignacio de Alcorta eta Maria Dominga de Elordui beraren gurasoek Pedro izena jarri zioten. Txikitandik ezagutu zituen Karmeldarrak. Gaztea zelarik eta fraideak orduko kanporatuta zeudela, ikasketak Logronioko apaizgaitegian egin zituen eta 1845.ean Akitaniako karmeldarren nobiziatuan sartu zen, profesa 1846.eko ekainaren 17an Pedro José de Jesús María izena hartuz egin zuelarik.

Frantzian berreraiki berria zen Karmengo Ordenan profesa egin zuen hirugarren gaztea izan zen (1843.ean, bik egin zuten profesa: arabar eta frantsez batek; eta 1846.ean, bostek: hiru bizkaitarrek, gipuzkoar batek eta Bordeleko batek). Ikasketak amaitu eta apaiz sagaratua izan ondoren, ardura handiko postuak izan zituen, esaterako, Agen-go Prioretza.

Euskal Herrira itzuli ondoren Berreraikuntzako lehen komentuko lehen priorea izan zen Markinan; eta geroago Euskal Herriko Probintzia zibilak eta Gaztela barruhartzen zituen berreraikitako Karmeldarren probintziako lehen probintziala.

1892.eko otsailaren 20an hil zen Madrilen; beraren gorpua Avila-ko komentura eraman zuten eta bertako kriptan 1891.eko abenduaren 14ean hil zen Tomás de Jesús María José beraren anaiarenaren alboan jarri zuten.

Giza joera oneko eta izaera baketsuzko gizon honek harreman onak izan zituen pertsona publikoekin eta horrela egoera zailetan Karmengo Ordenaren berreraikuntza abiadura handiz bultzatu zuen.

---

[275] BAS, 26 / P: Aita Domingo de S. José fraidearen heriotze eta hobiratzeari buruz Aita Pascual de Jesús María-k eginiko gutuna (1870-VIII-14).

[276] JUAN VICENTE DE JESUS MARIA, *Maravillosa Restauración...* (BAS, 26/P), 8-9.orr.; SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*, 65, 119.orr.; *Liber continens...* (MKA, A-V-1).

2. Euskaldunak Frantziako Karmeloren Berreraikuntzan[277]

a. Euskaldunen emigrazioa: berreraikuntzaren iturburua

Esklaustrazioei buruzko kapituluan Espainian komentuetatik kanporatutako karmeldar gehienak Espainian geratu zirela oharterazi dugu; asko beren familietan eta beste hainbat lekaimeen kaperau gisa edo ikastetxeetan, beste hainbat apaiz sekular lanetan parrokia eta abarretan; azkenik, beste batzu Frantziara, Italiara, Mexikora zein beste herri batzutara joan ziren.

Euskal Herrian 1839.eko esklaustrazioa gertatu zenean, urte horretan eta hurrengokoetan erlijioso batzu Frantziara joan ziren eta batzu, gainera, Amerikara edo beste leku batzutara aldatzeko asmotan; horietariko bat Aita Domingo de San José izan zen; Aita Manuel de Santa Teresa karmelarrak kontatzen duenaren arabera, hura, Aita Luis del SS. Sacramento lagun zuela, alboko estatura iragan zela dakigu eta abar[278].

Gogora ekartzea komeni da frantses iraultzak eta Frantziako gizarteko etengabeko zalapartek guztiz desagertu erazi zituztela Frantziako komentuak.

Horrela, Aita Domingo, otsailaren azkenaldian Frantziara joan eta Bordelen erbesteratu zenean, itxasoko bidea hartu eta Mexikora joateko asmoak zituen. Baina, hala beharrez, Bordeleko Lekaime Karmeldarren prioresa zen Anne Bathilde de l'Enfant-Jésus moja karmeldarrarekin egin zuen topo. Honek Frantziako karmeldarren berreraikuntza egitea proposatu zion; eta Donnet kardinale hiriko artzapezpikuarengana bidali zuen eta honek, Ordenaren aldekoa izanik, bere laguntza eskaini zion. Hau izan zen abiaburua.

Aita Domingo-k, Aita Manuel de Santa Teresa lagun zuela Baionan aurkitzen zen Aita Luis del SS.Sacramento fraideari egin zion dei. Aita Domingok Erromako Aita Jeneralari eta honek Aita Santuari eskatu zion lizentzia fundazio berriak Italiako Karmeldar Kongregazioaren Konstituzioak izan zitzan; Aita Domingo de S. José, Aita Jeneralaren ordezkari gisa arituko zen. Vaticanok 1840.eko irailaren 11n onartu zuen[279].

Hirurak arinka aritu ziren, abenduaren lehen igandean (1568.eko azaroaren 28an Duruelo-n Santa Teresaren gizonezkoen Karmelo hasi zen bezala) hasi zutela erlijio bizitza Bordeleko Moja Karmeldarrek kaperauarentzat zuten etxe txiki batetan: 1840.eko azaroaren 28a zen; urtebete geroago, Karmeldarrek eliza eder bat eraiki zuten lanen zuzentzaile Anaia Filibert Joseph du Sacré-Coeur de Marie (1853.eko urriaren 23an egin zuen profesioa) izan zela[280].

---

[277] Ik. 280a. oharra.

[278] Kontaketa autografo bat dago frantsesez (BAS, 26 /P; eta fotokopia MKA, A-I-279an), eta dagokion gaztelerazko testua makinaz idatzita (MKA, A-I-278). Ik. *Gehigarriak*, IV, 42.

[279] GPKA, Markina 5, kopia.

[280] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*, 57-58.

b. Garapena eta ugalketa fundazioetan zein erlijiosoen kopuruan

Honako hau dago argi: hiru erlijiosoek (hirurak euskaldunak) 1840.ean Bordeleko fundazioari emandako bultzadak zabalkunde lasterra izan zuela; 1853.ean kanonikoki Akitaniako Probintzia bihurtu zen, bost etxe: Le Broussey (1841), Bordele alboan, nobiziatua zelarik; Agen (1846) eta Carcasonne-ko (1851[1853]) prioretzak eta Bordele (1840) eta Montigny-eko (1844) bikaritzak zituela; lehen Probintziala Aita Domingo de S.José izan zen. Laster, 1853 eta 1864.eko urteen artean, Montpellier (1853), Bagnères de Bigorre (1853), Tarasteix (1856[1867]) Tarbes-etik hurbilera, Pamiers (1853-1854), Lyon (1859), Laghet (1861), Saint-Omer (1859), Rennes (1856), Paris (1864), etabarreko fundazioak egin ziren etxeak, Akitania eta Avignon deituriko bi probintziatan banandu zirela[280a].

Data hauetarako (1854) Akitaniako Probintzia honetan, beren profesioa esklaustrazioa gertatu baino lehenago Espainian egin zuten 24 erlijioso inguru: 6 napar, 5 gipuzkoar, 3 bizkaitar, errioxar bat, 3 aragoiar, gaztelau bat eta kalaluniar bat zeuden eta ardurako karguak zituzten hainbat komentutan.

1858.erako Probintziak, guztira 130 erlijioso zituen, beraietarik 64 Espainiako estatuan (43 euskaldun eta 21 Espainiako gainerako herrialdeetakoak), 62 Frantzian eta bana Alemanian, Italian (hau jadanik 1835.ean profesioa egina) Belgikan eta Suitzan jaioak. Datuok nahiko argigarriak dira.

Baina, bada honetan zerbait bitxia: berezkoa bazen ere Espainiako karmeldar fraideak Frantzian babesa bilatzea, harrigarritzat jo daiteke Euskadiko eta Espainiako zenbait gaztek erlijioso izateko, beren lurraldeak utzi eta Akitaniako Karmeldarren probintziara joatea. Hau hainbat euskaldunek erlijioaren aurkako erasoaldiei erantzuteko era ausarta izan zen. (Kontraekintza honek, Mikel de Garikoits santuak eta beste batzuk Iparraldean erlijioaren aurkako jazarkundean emandako erantzun zabal baikorra eta berriztatzailea dakargiku gogora).

Gazte hauen artean bizkaitar gazteak izan ziren Frantzian Berreraikuntzari goi indarra eman ziotenak, Frantzian 25 bizkaitar gaztek karmeldar jantzia hartu eta profesioa egin zutela (beraien artean 1846.ean profesioa egin zuen Pedro José de Jesús María markinarra nabarmentzen dela); horietaz gainera, 3 gipuzkoarrek eta arabar batek (ez zen nafarrik izan), Errioxako 2k, Aragoako 1etek eta Gaztelako 4k eta Kataluniako batek zein Andalusiako beste batek ere bai. Berezkoa denez, Akitanian profesioa egin zuten gazterik gehienak, 62 (beraietarik bi Baionako elizbarrutikoak), Frantziakoak ziren.

Eta Probintzia honek izandako garapena argiago ikusteko onurgarri izango dugu urterik urteko profesio-kopuruen datu estatistikoak jasotea: 1843.ean, bik (Vauchuse-

---

[280a] Ik. 277.orra; ik: ELISEE ALFORD, *Annales breves des Carmes Déchaux de France, 1600-1970. Deuxième Partie: 1839-1918*, Avon [1973], 102 orr.; P. JOACHIM DE L'IMMACULE CONCEPTION, *L'Ondre des carmes. Aperçu général*, Paris 1910,XII-341. orr. Frantziako Karmeldarren etxeen historia egiteko garrantzitsua da *Annales des Carmes Dechausés de France*....

ko batek eta arabar batek) egin zuten profesioa; 1846.ean, bostek (2 bizkaitarrek, gipuzkoar batek eta bi frantsesek); 1847.ean 3k (bizkaitar batek, Aragoako batek eta Andalusiako batek); 1848.ean, 4k (3 bizkaitarrek eta frantses batek); 1849.ean, 5ek; 1850.ean,3k; 1851.ean,4k; 1852.ean, 11k; 1853.ean, 4k; 1854.ean, 12k; 1855.ean, 23k; 1856.ean, 11k; 1857.ean, 11k; 1858.ean, 5ek...[281].

1859.ean Aita Domingo de S.José Definotire Jeneral hautatu zuten eta Erromara joan behar izan zuen; eta 1865.eko Kapituluan Ordenako Jeneral izendatua izan zen.

3. Egoera esklaustrazio-garaian. Espainiako Karmelo berreraikitzeko nahiak eta ahaleginak[282]

Komentuak kentzeko 1835 eta 1836. urteetan emaniko dekretuen bidez kanporatuak izan ziren Espainiako Komentuetako Karmeldarrak eta, esan den bezala, jarraian desamortizazio arauak bete ziren; horrela Karmengo komentuak nahiko txiroak zirela ikusi ahal izan zen.

Lehen Berreraikuntza nahia, ekaitz antiklerikal hartan ahuntzaren gauerdiko estularen antzekoa, Lazkaon agertu zen 1839.ean. Larrea, Markina eta Lazkaoko euskal Komentuak 1839.ean oraindik esklaustrazioaren ondorioak jasan gabe izatean, Aita Luis Gonzaga del SS. Sacramento azken komentuko fraide zenak honako hau idatzi zion Aita Marcos de María Santísima Erromako Prokuradore orokorrari 1839.eko urtarrilaren 6an: «Jainkoak, beste komentuak birlandatzeko erlikia eta hazi gisa gordetzen gaituela iruditzen zait. Honek ematen dit nolabaiteko kontsolamendu piska bat, nire anaia gizagaixoak eta gainerako erlijiosoak, nora ezean, galduta, eskale izatera bultzatuta eta beraien etsaien ernegu, amorru eta mendeku pean ikusteak ematen didan min handien artean»[283].

a. Ordenako nagusiak eta haien menpeko Karmeldarrak esklaustrazio garaian

Nahiko garrantzitsua eta korapilatsua gertatu zen, Aita Manuel de Santa Teresa, neke artean Lazkaoko komentuaren berreraikuntza lortzeko zorian zebilen unean Espainiako Ordenako nagusien egoera juridikoa.

Ordenako karguak 1835.ean berriztatzeko ziren baina gatazka sozio-politikoen ondorioz ezinezkoa gertatu zen. Egoera horren aurrean, Espainian Aita Santuak zuen Nuntzioari, hain aurkakoak ziren inguramenak aldatu arte, une hartako nagusiek beren

[281] Datu guzti hauek MKA, A-V-1: *Liber continens nomina religiosorum*...liburutik hartuta daude.
[282] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*...; Idem, HCD,XIII, 155-187, 218-229. Batez ere Aita Maldonado-k argitaratutako: *Breve extracto*... liburuxka.
[283] BAS, 75/ z.1.

postuetan jarraitu ahal izatea eskatu zioten. Onartua izan zen eskari hori[284]. Baina, arazoa ez zen argi geratu.

Aurreko honi, Espainiako Komentuak Erromako Jeneralaren eskumenean jarri nahi izatearen zurru-murrua gaineratu zitzaion. Hala ere, zurru-murru hori isildu egin zen urte batzu geroago arte. Aita Pedro del Carmen, Espainiako Aita Jeneralak 1836.ean utzi zuen kargu horretan izatea; baina, argi dago, baita ere, 1840.etik aurrera Aita Santuaren komisari egin zutela Espainiako Kongregazioan.

Aulki Santuak 1844.ean, Ordenako arazo juridikoa konpondu nahiean, Aita Pedro del Carmen izendatu zuen Espainian komentuetatik kanporatuta bizi ziren Karmeldar Teresiarren Aita Santuaren Komisari eta Aita Marcos de María Santísima Erromako Prokuradore Jenerala, Espainiatik kanpo bizi ziren Karmeldar espainiarren komisari[285]. Ez zuen luzaroan iraun egoera horrek Aita Pedro del Carmen 1850.eko urtarrilaren 23an hil zelako; eta Aita Marcos bi hilabete geroago, apirilaren 15ean. Aita Marcosen kargurako Aita Manuel de la Asunción («Nafarroako S. Joakin» euskal probintziakoa zen) hautatu zuten. Eta Aita Pedroren karguan, hau da Espainian bizi ziren Karmeldarren komisiari, Aita Juan de Santo Tomás de Aquino (Maldonado) izan zen jarria; komisari postu horretan Apezpiku eta Erregularren Kongregazio Santuak berretsia izan zen 1851.eko urriaren 21ean[286].

Era berean, Aita Manuelek, zeuzkan 80 urteen zioz zaharreriak eraginda utzi egin zituen Prokuradore Jeneral eta Komisari postuak, ordezko, 1859.ean, Aita Pascual de Jesús María izendatu zutela[287].

Ez da ahaztu behar, bestalde, kargu hori izendapen hutsezkoa zela, ez baitzegoen egiatan Ordenarik Espainian.

Urte horietan komentuetatik kanporatutako Karmeldarren artean, orokorki bi multzo nagusi ikus daitezke: alde batetik, esklaustraziora eta kanpoko bizimoduaren benetako egoerara ohitzen ari zirenek osotua; eta, bestetik, komentuko bizimodu erregularra amesten eta gogoetan zutenek eta horretarako beren bizitza emateko gertu zeudenek osotua.

Hain zuzen ere, berreraikuntza handia aurrera eramango zuten fraideak ez ziren izan Espainian bizi zirenak, karmeldar bizimodua bizitzera erbestera joan zirenak baino.

b. Aita Maldonado-ren iharduerak eta beraren berreraikuntza-ahaleginak

Aita Maldonado, ahal izan zuen adinean gutun bidezko harremanak zituela, kanporatutako Fraideei eta Lekaime Karmeldarrei laguntzen saiatu zen eta (oso zail ikusten bazuen ere) asmoetan zerabilen Espainiko Karmeldarren Kongregazioa be-

---

[284] BAS, 75/ z.1: Aita Juan de Santo Tomás de Aquino (Maldonado) fraideak 1884-VII-1ean Aita Santuari eginiko gutuna.

[285] BAS, 20 /B-2a.

[286] BAS, 20/B-2a; 139, H.

[287] BAS, 139/H, Aita Pascual fraidearen gutuna, 1859-II-19; 152 /J.

rreraitzea. Batez ere, izugarrizko ardura jarri zuen esklaustratutako karmeldarren gain bere eskumena zaindu eta mantentzen, ahalegin hori, ikusiko dugunez, eragozpen astun bilakatu zelarik 1867.ean eginiko egiazko Berreraikuntza saioan.

1863. urterako protesta egin zuen beste erlijioso batzuren eritzien aurka, eta Aita Pascual de Jesús María erlijiokideari idatzi, ez zela hotzitu erlijio izpiritua Espainiako esklaustratutako karmeldarren artean, «digo lleno de gozo que no sólo no se ha enfriado, sino que su corazón arde en fuego sagrado siendo muchos de estos religiosos que he visto en Corella y Pamplona discípulos de N.P.Domingo para mí tan digno de ser amado. El P.Fr.Manuel de S.José, que me sirve de amanuense, y que está de capellán en las religiosas de Lesaca, también abunda en estos sentimientos que todavía arden en otros puntos de España»[288]. Gutun honetan, era berean, erlijioso batzu komentu batzutan biltzeko saio edo planak agertzen ditu, hala nola, esaterako, ez zitzaiola egokia iruditzen Santos 40 (Sancti Cuarenta) komentua (Italia); ez zitzaiola, era berean, egokia iruditzen S. Pancracio komentua ere, etab. Baina hobeki ikusten zuen Montpellier-en egitea.

Hurrengo urtean (1864) maitasunez hartu zituen iraultzaileek Bogota-ko Santa Fe herriko komentutik kanpora bidalitako karmeldarrak eta moralki eta ekonomikoki laguntza eman zien Consuegra-ko komentuan instalatuz[289].

Aita Maldonado berberak berreraikuntza saio batzu egin zituen. Baina zeraman bizimoduaren zioz hainbat karmeldarrek ez zuten berarengan benetako konfidantzarik eta ez zuten uste bera bezalako pertsona batek lor zezakeenik politika eta gizarte alorrean hain zailak ziren urte haietan berreraikuntza egitea.

Eta berak, hain aurkako eritzi horren aurrean 1867.ean, gogorkiro, liburuxka bat idatziz erantzun zuen, berak berreraikuntzaren alde eginiko ahaleginen lekuko ziren agiriak ageriko eginez[290].

Ordurako, 1854.ean, bidalita zeukan bere lehen espedientea Itsasoz-bestaldeko Ministeritzara, Ministrarien Kontseilura heldu zelarik. Ez zuen irtenbiderik izan[291].

Tanger-erako edota Espainiak erlijio eta politika eragipena zuen Afrikako beste alderen batetarako misio-ikastetxe bat planteatu nahi zuen. 1857.ean egin zion eskaria Erreginari[292].

Estatuko idazkaritzak 1857.eko uztailaren 4ean erantzun zion horretarako frantsizkotarrak zeudela eta gobernuak haien lana indarberritu nahi zuenez ez zela beste premiarik edota astunegia izango zela beste erlijioso talderik zeregin horretan jartzea esanez: «Por el Ministerio de Gracia y Justicia se ha remitido a esta primera Secretaría una exposición del Comisario general apostólico de la Orden de Carmelitas Descalzos

---

[288] BAS, 20 /B: Aita Juan de Santo Tomás de Aquino (Maldonado) fraidearen 1863-VIII-7ko gutuna.
[289] BAS, 40 /D.
[290] *Breve extracto y fragmentos varios del expediente incoado en el Ministerio de Ultramar para la fundación de un convento de Carmelitas Descalzos*, Madrid 1867, 31 orr.
[291] *Breve extracto...*, 7.orr.
[292] *Breve extracto...*, 10.orr.

de España, D.Juan Maldonado. En ella, después de hacer extensa apología de la mencionada Orden, y de Santa Teresa de Jesús, su fundadora, indica el exponente la conveniencia de restaurar dos casas conventuales, una en Avila y otra en Alba, cuna y sepulcro de la Santa; y suplica a S.M. se digne concederle una autorización especial para crear un Colegio de Carmelitas Reformados con destino a las misiones den Africa»... «Desde muy antiguo existen en Africa Misiones españolas fundadas por Religiosos Franciscanos; y si bien es cierto que por las vicisitudes de los tiempos han venido a menos dichas instituciones, quedando hoy reducidas al culto que se tributa en la capilla de Tánger por sacerdotes españoles, también lo es que hay pendiente un proyecto para dar nuevo impulso a dichas Misiones, cuyos gastos corran a cardo de la obra pía.

Sería, pues, la creación de una nueva casa, si no inútil, demasiado gravosa para la obra pía, que insistiendo en el mencionado proyecto sostiene actualmente en España un Colegio de Misioneros con destino a Tierra Santa y Africa»...[293].

Eta, 1867.ean, Aita Manuel de Santa Teresa eta beste pertsona batzu Lazkaoko komentuaren berreraikuntza lortu nahiean ikusi zituenean, berriro hasi zen Aita Maldonado, Espainiako Karmeldarren nagusi erantzule gisa (esan den bezala, benetakoa baino gehiago izen hutsezko nagusia zen ez baitzegoen ordurako Ordenarik), 1854-1857. urteetako berreraikuntza saioak egiten.

Baina porrot egin zuen. Zer dela eta porrot hori? Garai hartako hainbat erlijiosok eta historiagile batzuk porrot horren eraginean oinarrizko zio batzu aurkitzen dituzte. Aita Manuel de Santa Teresa fraideak hainbat erlijiosoen eritzia bilduz honako hau idatzi zion 1873.eko martxoaren 2an Candido Gaytan Villafranca-ko konteari: «Aita Maldonado-ri dagokionean izugarrizko nahigabea sortu duela Espainiako zein Frantziako erlijioso guztien gogoetan esan behar. Delako liburuxkaren berri izan duten komentu guztietatik jaso ditut gutunak aipaturiko Aita Maldonadoren joeraz kexak agertuz»... «Espainian dauden Aita Karmeldar gehienek idatzi diote dagoenekoz gure Aita Frai Domingo Jeneralari parte har dezan arazoan eta Aita Maldonado-k buru izaten dirauen artean ez dela onik izango Espainian esanez»[294].

Hemen Aita Maldonadok argitaratutako aipaturiko liburuxkak aurka sortutako joeraz ari da.

Aita Silverio burgostarrak deskribatzen digu Aita Maldonadoren nortasuna: izaera nahiko harroko gizona, karlista ezaguna, zenbait egunkaritako kolaboratzaile sutsua, liberalen gobernariak gogorkiro erasoten zituena[295]. Ondorioz ezin zitekeen ministeritzetan gogokoa izan; eta horrela beraren eskariak Ministeritzetako bulegoetan galtzen ziren paper artean.

Bestalde, beraren ahaleginak nahiko bakarkakoak ziren, politikan eta ministeritzetan eragina zuten pertsonaien laguntzarik gabe eginak. Eta guzti horretaz gainera,

---

[293] *Breve extracto...*, 12-13.orr.
[294] *Correspondencia...*, 17. zk.
[295] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen Histórico*, 49-50.orr.

Espainiako desagertutako Kongregazioaren independentzia berreskuratu nahi zuen (asmorik ederrenak zituela eta iragan goraipagarriari maitasun handia ziola), geroago ikusiko dugunez, baina, historia Kongregazio italiar edo europear bakarra egiteko bidetik zihoan; arrakasta-bide gutxi izan zezaketen, bada, Aita Maldonadoren saioaldiek.

Esklaustratuen artean jakintsu eta birtute handikoa zen Aita Goiri karmeldarrak deskribatzen du argiro Aita Maldonadoren egoera dramatiko hau 1867.eko erdialdean Aita Manuel adiskideari idatzitako gutun batetan: «Ez da arraroa Aita Maldonadori buruz diostazuna. Aita karmeldar honek, beraren asmo onak onartuz ere, politikari zereginetan hasi zen eta erlijioa ahaztu zuen. Zuk hainbat aldiz entzun zenuen diotsudan hau Espainiatik eginiko ikustaldian eta toki ezberdinetan gainera; orain idatziz errepikatzen dizut lehenago hitzez esandakoa, hots, gure Aberrian Karmeloko Ordenaren berreraikuntza benetako arrakasta duela hasi nahi bada, behar-beharrezkoa dela hortik honantz fraide bizitza betetzen duten lau edo sei espainiar etorri eta lanari hasiera ematea eta Jainkoarengan uste osoa dut ez dela erlijio izpirituan heziera hartu nahi duen nobizerik faltako»[296].

c. **Komentuak Karmeldar bizimodua egiteko ahaleginetan**

Politika-erlijio egoeraren hobekuntzan, une labur bat gertatu eta 1851.ean eginiko konkordatua zela tarteko, esklaustratutako fraide batzuk ahaleginak egin zituzten talde bizitzari hasiera ematen: Lehenago aipatu dugu Markinan Aita Roman Sagasti bertako semeak eginiko saioa udalari elizako zerbitzurako komentuko alde bat, 4 edo 5 apaiz karmeldar kanporaturentzat gelak egiteko eskatu ziola esanez; baina, apezpikuak ezin izan zuen baimenik eman, asmo berbera zela tarteko, ordurako hainbat karmeldar bizi ziren Larreko komenturako baimen berdintsua emana zuelako.

Beste hainbeste gertatu zen Avila-ko komentuan, bertan elizaren zerbitzuan hiru karmeldar bizi zirela. 1853.eko maiatzaren 31n Avila-ko kabildoak, Avila eta Alba de Tormes-eko komentuen berreraikuntzarako eskaria aurkeztu zioten Erreginari[297].

Burgos-en komunitate handiagoa zegoen, nobizioak ere izan zituela, baina fraide jantzirik gabe bizi ziren salaketak aldentzeko. Burgosen aurkitzen zen Aita Pedro de Goiri-k 1868.eko ekainaren 21eko gutunean Burgosko Artzapezpikuak berak ordurako eskatua ziola gobernuari erregu handiz Burgos-eko Karmeldarren komentuan Berreraikuntza, esaten du[298].

Baina saio guzti hauek ez zutela berreraikuntzarako urrats erabakiorrik benetan eman aitortu beharra dago. Ez zen Espainiako antzinako Kongregazio indartsuaren hondar sakabanatuetan ere berreraikuntzarako sintomarik ageri.

---

[296] Ibd., 51-52.or.
[297] GPKA, Markina 3, Katedraleko Kabildoaren artxiboan dagoen gutunaren kopia.
[298] BAS, 20-C, *Datos...*, (3.kuadernoa).

Hala ere, esklaustratuen kopurua handia zen 1860. eta 1863.ean, hau da, Berreraikuntzaren aurreko urteetan, Aita Maldonadok 500 apaiz esklaustratu inguru aipatzen bait ditu.

1867.ean, Aita Jenerala oso kezkaturik zebilen Espainiako Karmeldarren egoeraren ondorioz eta heldutzat jo zuen berriro Karmeldar bizitzari hasiera emateko garaia eta Karmeldar gune edo multzo txiki batzu ikusten zituen nolabait eta ofizialtasunik gabe karmeldar bizitza egiten; horrela jakinerazi zion Iruñean bizi zen Aita Txomini (Domingo de S. Millán, Sagasti) : «Oso komenigarri izango litzateke Gobernuaren eta Herriaren jarrera ona erabiliz komentu batzu irekitzen saiatzea! Ezin izango ote zenukete zuok halakorik lortu Iruñeko komentuari dagokionean? Gutxienez, ona litzateke komunitate on batzu ezartzea Burgos, Lazkao, Larrea eta Desierto de las Palmas bezala irekita aurkitzen diren komentuetan. Nik Espainiako etxeak konponduko direla itxaroten dut»[299].

4. Aita Manuel de Santa Teresa eta Cándido Jna: benetako Berreraikuntza-ahalegina Lazkaon (1867)[300].

Azalpen honetan, Candido Gaytan, Villafranca-ko konde Jnarekin batera protagonista izan zen Aita Manuel de Santa Teresa gipuzkoarrak, Lazkaoko komentua berreraikitzeko ahaleginei buruz eskaintzen digun kontaketa autografoaz baliatuko gara.

Aita Manuel Frantzian zegoela, Italiako Karmeldar Teresiarren Kongregazioko Jeneral izendatutako Aita Domingo de Santa Tesera Jeneralak 1865.ean Bordelko komentura eginiko lehen ikustaldi kanonikoan, Espainiako Karmeldarren egoeraz kezkatuta ageri zelarik elkarrizketa bat eduki nahi izan zuen Aita Santuaren komisari zen Aita Maldonadorekin, baina, hau, hitza eman bazuen ere, ez zen Bordelera joan.

Aita Domingo Jeneralak berreraikuntza hasteko zuen gogo horrek adore eman zion Aita Manueli berreraikuntza martxan jartzeko urrats erabakiorrak emateko; baina, Aita Manuelek, «berak ez zuela fundazio egiteko agindu zuzenik izan» eransten du[301]; eta hala izan behar zuen, nahitaez, Aita Domingok ez zuelako Espainiako komentuetan eskumenik.

a. Halabeharrezko hasiera

1867.ean Aita Manuel Agen-go komentuko priorea zen eta martxoan Aita Roman de la Virgen (Hueska-ko semea) Le Broussey-ko komentuko priorearen bi gutun jaso zituen; Aita Manuelen loba, Fabian de San Lorenzo, Le Broussey-n nobizioa zegoena,

---

[299] BAS, 26 / P: 1867-II.6ko gutuna.
[300] Ik. 255. oharreko bibliografia.
[301] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*,2.ort. (BAS, 26/P; MKA, A-I-279; A-I-278).

gaisorik zegoela («perdait la tête») jakinerazten zion, medikuek osasuna eskura zezan jaioterrira eramatea gomendatzen zutela esanez. Hori zela eta, Ordenako nagusiek Aita Manueli, bere lobari Lazkaora, beraren jaioterrira laguntzeko eskatu zioten. Ustekabeko bidaia hau benetako berreraikuntza ahalegin baten iturburu izan zen.

Aita Manuel 1867.eko martxoaren 4ean atera zen Agen-dik, Le Broussey-ra hurrengo egunean heldu zela; eta 7an Lazkaorantz atera zen Fabian bere lobarekin. Hara heldu ondoren, gaisotasunaren berri eman zien Fabianen gurasoei, zaintzeko eskatuz. Eta berehala ikustaldi bat egin zion antzinako Lazkaoko komentuari, bertan apaiz sekular bat eta komentua «zaintzen» zuen anaia karmeldar bat bizi zirela.

Bat-batean biztu zitzaion indartsu Frantzian jadanik sortua zen Ordenaren berreraikuntza egiteko gogo bizia; eta Frantziako fundazioen zeregin neketsuetara ohituta zegoen honi, berreraikuntza lortzen saioaldiren bat egiteaz ez zela ezer alferrik galduko etorri zitzaion burura.

Bera hain bakarrik izanik nola egin hori zen, nonbait, arazoaren gakoa. Espainian oso harreman gutxi zuen bertatik oso gazte zela (22 urte zituela) irten baitzen Frantziarantz 1839.ean, ordurarte, 1867.erarte, 28 urte zirela iraganda[302].

Orduan, norbaitek, Gasteizeko katedraleko kanonigo maisu, hizlari ospetsua zen Vicente Manterola Jnarekin harremanetan jartzeko gomendioa eman zion. Eta ez zen luzapenetan ibili; martxoaren 11an Gasteizeko bidea hartu zuen, bertan Vicente Jnak begirune handiz hartu zuela. Babestaile on honek, 12an lagundu zuen Gasteizeko apezpiku zen Diego Mariano Alguacil Jnarengana, berari jakinerazi ziolarik Lazkaoko komentuaren berreraikuntza egiteko gogo bizia eta bide batez onarpena eskatu zion Gobernuak baimena ematen baldin batzuen. Apezpikuak baietza eman zion eta bidaiarako 80 franko eman ere bai[303].

Vicente Manterola Jnak bi bide gomendatu zizkion, hau da, proiektua Aita Maldonado, Espainian esklaustratutako Karmeldarren Aita Santuaren Komisariarekin harremanetan aztertzeko; hori egiteko asmoak zituen Aita Manuel-ek. Baina lehen urrats modura Iruñean bizi ziren Aita Domingo de S. Millan eta Aita Sebastián de la SS.Trinidad karmeldar esklaustratuekin hitz egitera joan zen; hauek, hain zuzen ere, berreraikuntza nahiera edo proiektuari buruz hitz egitera Frantziara joan zitzaizkionak ziren. 15ean, Iruñean, Karmeldar biek ez zioten Aita Maldonado-rengandik ezer lortuko zuen itxaropenik eman.

b. **Madrid-era. Harreman garrantzitsuak berreraikuntza-bidean.**

San Joseren jaia ospatu ondoren Zaragotzarako bidea hartu zuen. Bertan egin zituen hiru egun, egunero eukaristia Pilarreko Andra Mariaren aldarean eskainiz eta berreraikuntza bere babespean jarriz. Hemen hiriko artzapezpiku zen Manuel Garcia Gil domingarrak berarekin bazkaltzeko gonbidapena egin zion, bere laguntza eskainiz.

---

[302] Ibd., 3.orr.
[303] Ibd., 4.orr.

aa. *Aita Maldonadorekin*

Aragoako hiriburutik irten aurretik, Alcalá de Henares-en bizi zen Aita Juan de Santo Tomás de Aquino (Maldonado), Aita Santuaren Komisariari idatzi zion 24ean goizez helduko zela jakineraziz.

Aita Maldonadok geltokian itxaron zuen; elkarren arteko poztasun handiko elkarrikustea izan zen; lehendik elkar ezagutzen zuten aipaturiko Aita Komisariak ikustaldia egin ziolako Le Broussey-n. Aita Manuel-ek bidaiaren eta Lazkaoko komentuaren egoeraren berri eman zion eta arreba bat zuela Madrilen eta bertako pertsona batzurentzat gomendioak zeramatzala, beraiek Karmeldarrak Espainian berreraikitzeko ardura har zezaten eta honako hau zioen amaitzeko: «Il aprouva tout, et il ajouta qu'il aiderait en tout ce qu'il pourrait»[304].

Alcalá-ko lehen elkarrikuste honen ondoren harremanetan jarraitu zuten Madrilen. Ikusiko dugunez, Aita Maldonadoren joera ez zen, bat ere, Aita Manuelen proiektua burutzeko asmoen aldekoa izango.

bb. *Madrid-en Valmediano-ko markesarekin eta Villafranca-ko kondearekin*

Alcalá-tik bialdu zion abisua Grazia eta Justiziako Ministeritzan enplegatua zela Madrilen bizi zen Rafael García (bere arreba Carmen Elosegui anderearekin ezkonduta zegoen) koinatu Jnari. Eta bertara etorri zitzaion koinatua. Eta hirurak (Aita Manuel, beraren koinatua eta Aita Maldonado) asteartean, martxoaren 26an atera ziren Madrilerantz. Eta bi egun barru Aita Maldonado Alcalá-ra itzuli zen, Aita Manueli, egiten zuen guztiaren berri emanez, gutxienez zortzi egunerik behin, idazteko eskatuz.

Aita Manuelek, bere kontaketaren hasieran, Lazkaoko komentuaren patroia Valmediano-ko markesa zela diosku eta beste edozein eginbideri hasiera eman aurretik Markes Jnaren asmoak ezagutu nahi izan zituela[305]. Eta Madrilera heldu ondoren, ikustaldia egitera joan zitzaion; Markesak ondo hartu zuen; komentua esklaustrazio aurreko baldintza ber-beretan utziko ziola hitz eman zion[306]. Aita Manuelek hiru ikustaldi egin zizkion eta hirugarrenean Markesak komentuan konponketak, batez ere oso gaizki aurkitzen zen elizako zoluan, egiteko hitza ere eman zion[307].

Baina, elkarrikusketa garrantzitsuena, Karmeldarren berreraikuntzaren historian hain erabakiorra izango zen gizonarekin, hain zuzen ere, jauregia Bergaran zuen Arrasatetar Candido Gaytan de Ayala y Areizaga, Villafranca-ko kondea eta data haietan senadorea zenarekin egina izan zen.

---

[304] Ibd., 6.orr. Aita Maldonado-ren arabera, hasieratan ez zitzaion guztiz argi esan Lazkaon fundazioa egin nahi zenik, elkarrizketaren amaieran baino, horrek ez ziola inolazko atseginik eman: ik. *Breve extracto...*, 6.orr., 1867.eko ekainaren 2ko gutuna.

[305] Ibd. 1.orr.

[306] Ibd.

[307] P. VICTORIANO(?), *Notas...*, 8.orr.: BAS, 26 /P (MKA, A-I-281).

Oraindik Frantzian zegoela, baina Lazkaorako bidean, Aita Manuel Bordeleko komentutik iragan zen; han, berreraikuntza ihardueran halako eginkizun garrantzitsua izan zuen Pedro José de Jesús María markinarrarekin hizketatu zen fundazio-asmoei buruz, beharrezko kudeaketak egitera Madrilera joatea pentsatzen zuela esanez; orduan, markinarrak, Roman eta Maria Jesusa, Villafranca-ko kondearen seme-alabei bisitaldi bat egitea gomendatu zion[308]; eta bisitaldi honek Candido Jnarengana hurbiltzeko ateak ireki zizkion, seme-alaba haiek beren aitari ikustaldia egiteko enkargua eman zioten eta[309].

Horrela, Madrid-era heldu eta berehala joan zen Aita Manuel Konde Jnarekin elkarrizketatzera; Bordeleko Jesusen Bihotzaren ikastetxean zegoen beraren alabaren gutun bat eman zion[310]. Elkarrizketa hain hunkiorra izanik oso adiskide minak egin ziren. Aita Manuelek bere etorreraren helburua agertu zion eta fundazio asmoak azaldu, lortzeko laguntza eskatuz. Ezin izan zuen gizon egokiagorik aurkitu, oso ohitua baitzegoen politika eta erlijio arazoetan eta Ministeritzetako barne gorabeheretan eta, bestalde, erlijio-ideial handikoa baitzen. Aita Manuelek atsegin handiz eransten du: «Il semble qu'un même esprit nous animait â tous le deux; ce qu'il me dissait me paraissait bien, et ce que je lui propossait, il approvait»[311].

Handia izan zen bien gogo bizia eta oso estua eta etengabea elkarren arteko lankidetza; ezerk ez zuen haustuko beraien adiskidetasuna, ez eragozpenek ez eta zorigaitzek; ideia eta asmo ber-beretan iraungo zuten. Horrela adierazten zuen Aita Manuelek 1875.eko abuztuaren 20ko gutun batetan: «Oso gertakari berezia izan zen: nik ez nuen Berori Madrilen elkar ikusi arte ezagutzen, bada, ordutik beti bat etorri gara gauza guztietan»[312].

Gipuzkoar bi hauek gizon jatortasuna eta kristau osoei dagokien nortasuna erakutsi zuten fundazio-asmoa oso zaila zenean eta batzuri zorakeria zela iruditzen zitzaien garaian.

Lehen bisitaldi hau kontatu ondoren, pozez beterik bere alaitasuna eta betetasuna Madrileko herritarrengan jartzen zuen, kaleetan zehar habitu eta kapa zuriz jantzitako fraidea ikustean, 30 urte zirela ikusten ez zen zerbait, jendea belaunikatu egiten zitzaiola eskapularioari mun eginez diosku. Bidelagun Rafael García izaten zuen.

cc. *Elkarrizketa Erreginarekin*

Candido Gaytan Konde Jnarekin izandako bigarren ikustaldian, Aita Manuelek Isabel II. Erregina ikusteko gogoa agertu zion, oso garrantzitsua iruditzen baitzitzaion beraren bihotza, hainbeste eragozpen gainditu beharra izango zuen proiektuaren alde jartzea. Kondeak elkarrizketa lortu zion beharrezko formalitateak bete ondoren.

---

[308] *Correspondencia...*, 49.zk., Aita Pedro Josek 1868-VII-7an Gaytan Kondeari eginiko gutuna; BAS, 20 /D, Aita Pedro José de Jesús María fraidearen kontaketa.

[309] P. VICTORIANO(?), *Notas...*, 1-2.orr.: BAS, 26 /P (MKA, A-I-281).

[310] Ibd., 14.orr.

[311] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 7.orr.: BAS 26 /P (MKA, A-I-279; A-I-278).

[312] *Correspondencia...*, 504.zk.

Aita Manuel berberak deskribatzen du elkarrikuste-unea: «Berak, ikusi ninduenean, poztasun handia hartu zuen eta Andere Tx. Gorena nire eskua hartu eta mun egitera aurreratu zitzaidan. Honelako bisitaldietan ohizko diren zeremoniak bete ondoren, nik bihotza ireki nion eta bihotz-bihotzez egin nion hitz eta bera hain ona zenez, ontzat eman zuen proposatzen nion guztia eta Gaytan Villafranca-ko kondeari deitu eta arazoari buruz hitz egiteko Jauregira etor zedila esateko erregutu zidan. Eskerrak eman ondoren erretiratu nintzen»[313].

Erreginak Candido Konde Jnari Aita Manuelek, Lazkaon Karmeldarren fundazioa egiteko zuen proiektua eta asmoa jakinerazi zion eta berak ere gogoko zuela esan; eta eginbideak egin zitzala ministeritzetan eskatu.

Ez zen izan honako hau, Erreginarekin izandako azken elkarrikusketa; Madriletik irten aurretik eskatu eta bigarren bat lortu zuen; bertan berak Erreginari dozena bat eskapulari eskaini zizkion eta hark 7 hartu seme-alaba bakoitzarentzat bana; eta, karmeldarrari, gogoko izango zuela bere seme-alabak bedeinkatzea baina paseatzera atera berri zirela esan zion; Erregea ikusteko aukera ere izan zuen[314].

dd. *Harreman gehiago*

Eliz pertsonaiekin eginiko elkarrizketen artean, Cirilo Alameda y Brea Toledoko artzapezpiku kardinale Jnarekin, hiri horretan koinatuarekin izan zela eginikoa dugu. Era berean, ikustaldia egin zion Antonio María Claret Trajanopolis-eko apezpikuari[315]. Zioa, esku artean zuen berreraikuntza proiektua zen.

c. **Ministeritzetan, dekretua lortzeko lanetan**

aa. *Kondea Ministeritzetan*

Candido Konde Jnak formalitateak ministeritza ezberdinetan betetzeko ardura hartu zuen. Lehen eta behin, Erreginak esandakoari jarraituz Lorenzo de Arrazola, Grazia eta Justizia Ministrariarekin elkarrizketatu zen. Elkarrizketa horretan Itsasoz-bestaldeko Ministrari Jnari, Itsasoz-bestaldeko misioetarako Karmeldar Teresiarren ikastetxe bat sortzeko eskari bat egitea erabaki zuten. Horrela egin zuten.

bb. *Ordenak eta Gipuzkoako agintariek Ministeritzari eginiko eskaria*

Arazoa ministeritzetan aztertua izan zedin komenigarri zen zenbait eskari aurkeztea: alde batetik, Karmeldar Teresiarren Ordenak egina eta, bestetik, fundazioa egiteko zeneko herriek zein Gipuzkoako diputatu eta senadoreek eginak.

---

[313] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 7-8.orr.
[314] Ibd., 10.orr.
[315] P. VICTORIANO(?), *Notas...*, 8.orr.

Horrela Gaytan Kondeak Aita Manueli Ordenaren izenean eskaria egitea proposatu zion, baina, honek ez zuen sinatu nahi, ez zuelako berreraikuntza bideratzeko Aita Jeneralak horretarako emandako baimen ofizialik; hala ere, hainbesterainoko indarra egin ziotenez Kondeak eta Euskal Herriko Senadore eta Diputatuek, azkenean, sinatu egin zuen. Horrela aitortzen du bi aldiz Villafranca-ko Kondeak fundazioari buruz idatzitako agiri batetan: «Nik eskaria sinatzea proposatu nizunean zuk ez zenuen nahi izan, Aita Jeneralaren zuzeneko baimenik ez zenuelako eta, era berean, zu Italiako Kongregaziokoa zinelako; baina guk Euskal Herriko Senadore eta Diputatuok burrukatu egin genuen eta zuk amore eman zenuen gure eskaria zela medio». Eta beranduago ideia bera baieztatzen du: «nik eskaria sinatzeko proposatu nizunean, ez zinela ausartzen erantzun zenidan, zu Agen-go Priorea zinelako etc.etc. baina ia behartua izan zinen egitera; nik Euskal Herriko nire lagun Senadore eta Diputatuei eskaria eramango niela hitz eman nielako»[316].

Agiriak 1867.eko apirilaren 8ko data darama: «El R.P. Prior de Agen, a nombre del P.Fr.Domingo de San José, General de Carmelitas Descalzos de la Congregación de Francia[317], español, pide autorización para establecer en Lazcano, Guipúzcoa, en un convento perteneciente al Marqués de Valmediano, que lo cede al efecto, un Colegio de Misiones para Ultramar»[318].

Eta, Gipuzkoako agintariek eta bertako denadoreek Alejandro Castro, Itsasoz-bestaldeko Ministrari Jnari, on ugari ekarriko zuela eta beraren bitartekotasuna alde erabiltzeko erregutuz, Lazkaon karmeldarren komentua ezartzeko 1867.eko apirilaren 13ko data duen honako eskari hau aurkeztu zioten: «Muy Señor nuestro y amigo: varios pueblos de la provincia de Guipúzcoa elevan a S.M. la Reina nuestra Señora la exposición que tenemos el honor de remitirle, pidiendo que en el antiguo convento de Lazcano se funde un Colegio de Misioneros Carmelitas Descalzos para las Misiones de Ultramar.

Acompañando a la solicitud de los pueblos, biene otra exposición con igual objeto, que el R.P.Fray Manuel de Santa Teresa direige a S.M. en nombre del M.R.,Padre General de la Orden del Carmen en Francia[319].

Nosotros, Diputados y Senadores de la aprovincia de Guipúzcoa, tenemos una singular satisfacción de servir de conducto para poner en manos de V.E. las dos citadas solicitudes, rogándole, con todo empeño incline el ánimo de S. M. la Reina

---

[316] BAS, 26 /P, Gaytan kondeak Aita Manueli 1872-VII-5ean eginiko gutuna.

[317] "Congregación de Francia", Aita Maldonadok salatu zuen esaldi desegokia... Aita Manuel berberak esaldi honen berri izan zuenean (*Correspondencia*..., 17.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1868-III-30ean eginiko gutuna) honako hau idatzi zuen: "Por este mismo motivo quisiera que U. viese el Secretario del Ministro del Ultramar para que cuando den el decreto real no pongan la fórmula que veo en el folleto del P.Maldonado, es decir, estas palabras de la 'Congregación de Francia' yo me acuerdo muy bien, que yo no puse dichas palabras, porque es verdad que no hay Congregación de Francia. Yo me acuerdo que con previsión evité de hablar ni de la Congregación de Italia, ni de la de España (no hay más) para no chocar ni los unos ni los otros"; eta 'Francia' jarri beharrean 'Italia' jartzeko eskatzen zion agiria goiko agintarien eskuetara behar zen moduan egokiro hel zedin...

[318] *Breve extracto*..., 19.orr.; P. VICTORIANO(?), *Notas*..., 10.orr.

[319] Ik. 317. oharra.

nuestra Señora, para que los pueblos solicitantes obtengan la autorización que solicitan; pues estamos íntimamente convencidos de los beneficios que han de resultar a la nación del establecimiento de un Colegio de Misioneros en el pueblo de Lazcano.

Con este motivo nos ponemos a la orden de V.E. como sus afectísimos seguros servidores Q.B.S.M.- El Conde de Villafranca de Gaytan. El Marqués de Valmediano, Señor de la casa de Lazcano. Por mí y por el compalero ausente D. Juan José de Unceta, Tirso de Olazabal Aubelaiz. Por mí y por el compañero ausente D.Esteban Zurbano, Roque de Heriz, Diputado por Guipúzcoa»[320].

Instantzia bi hauekin batera, beste bat zihoan, hau ere, instantziak bidaltzen zizkiola jakineraziz Konde Jaunak Alejandro Castro Ministrariari apirilaren 14eko datan zuzenduta eta honako hau eransten zuela: «S.M. se interesa mucho en este asunto, y como he oído decir que se marcha V. mañana a Sevilla, le ruego encarecidamente que antes de su salida resuelva el asunto a fin de que se pueda tramitar y no se pierda tiempo»[321].

Izapideak eginbidean jarri ondoren eta itxaropen handiz beteta Aita Domingo de S. Jose Jeneralari eta Akitaniako Probintzialari idatzi zien emandako urratsen eta arazoaren egoeraren berri emanez eta guzti hori Aita Santuaren Komisari zen Aita Maldonadorekin hitz egin ondoren egin zuela jakineraziz[322].

Eta 1867.eko maiatzaren 10ean, Akitaniako Probintziako Kapitulura joan behar zuenez, Madril utzi behar izan zuen Carcasonne-rako bidea hartuz, arazoa Candido de Gaytan Kondearen eskutan utziz. Apirilaren 21.ean Aita Maldonadori agur egin eta 22an atera zen Madriletik Avila, Peñaranda, Alba de Tormes, Salamanca, Medina del Campo, Valladolid zehar, Burgosera maiatzaren 1ean gauez heldu zela[323].

cc. *Aita Maldonadoren eragozpena eta erreakzio ezberdinak*

Aita Maldonadoren nortasuna ezagututa ere, oso gutxik uste zuten halako eragozpen erabakiorrik jarriko zuenik. Aita Manuel bisitatzera joan zitzaion egun berean, 1867.eko apirilaren 21ean, Jose Nacarino Jnari Aita Manuel eta Villafranca-ko kondeak martxan jarritako eginbide guztiak, ahalik eta berak oharpen batzu aurkeztu arte, geldierazteko idatzi zion[324]. Hain zuzen ere, Aita Manuelek esanda Lazkaoko fundazioaren berri izanik, ministeritzetan muturra sartu nahi izan zuen, hain gogoko zen berreraikuntza proiektua berak bere eran aurrera eramateko, apirilaren 26an Itsasoz-bestaldeko Ministrariak Estatuko Ministrariari honakoa jakinerazi baitzion:»La

---

[320] *Breve extracto...*, 16.orr.; P. VICTORIANO(?), *Notas...*, 11.orr.

[321] Ibd., 15.orr.; 11.orr.

[322] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 8.orr. (BAS, 26 /P; MKA, A-I-279; A-I.278).

[323] *Correspondencia...*, 4.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1867-V-2an eginiko gutuna; P.VICTORIANO(?), *Notas...*, 12-13.orr. (BAS, 26 /P; MKA, A-I.281).

[324] BAS, 139 /H.

solicitud [del P.Maldonado] para el establecimiento de un colegio de misioneros]de su Orden para las provincias de Ultramar»[325].

Eta apirilaren 27ko agirian argi ageri da Aita Maldonado, arrazoi juridikoak zirela bide, Aita Manuelen planaren aurka zegoela; legalki eskaria egitea berari bakarrik zegokiola gogor defendatuz idatzitako gutunak Ministeritzako arduradunak zurt eginda utzi zituen: «que habiéndose presentado en esta otra solicitando autorización para establecer en Lazcano un Colegio de Carmelitas de la Congregación de Italia, no puedo menos de exponer las dos consideraciones siguientes: 1ª que la Congregación de España, a que él pertenece, es completamente separada de la de Italia por una Bula de Clemente VIII de 1597 [sic]; y 2ª que el exponente per sí y a nombre de sus compañeros de la Congregación de España, tiene pedida la autorización para instituir un Colegio como queda dicho, y por las cuales espera la resolución conveniente»[326].

Hain zuzen ere, 27ko egun bereko data zuela, antzerako eran idatzi zion gutuna Erreginari, nola zuen egina indarrean zeuden legeen arabera misioetarako ikastetxe bat egiteko eskaria eta erregua; eta Grazia eta Justiziako Ministrariak onartuta zegoen arren Estatuko ministeritzan aurkitzen zela eta ez zuela erantzunik jasoten gogoratuz[327].

Laguntzaile leiala zen Candido Jnak eman zion lehen arrisku-deia Aita Manueli 1867.eko apirilaren 28ko gutun baten bidez: «Atzo hamabi t'erdietan iragan nintzen Itsasoz-bestaldeko Ministeritzatik, Lazkaoko Ikastetxearen espedientea bideratu zuten ala ez ikustera. J. Nacarino Bravo, nire adiskide eta Zuzendari Jnak, une batetik bestera etortzeko zela Aita Maldonako zuk eta guk, Goi Andere [Erregina] baten nahieraz Lazkaon egiteko eskatua dugun fundazio eskariaren aurka protestatzeko iragarri zidan. Berri honek harridura sortu zidan oso larria dela iruditzen zaidalako»; eta inorentzat onurarik ez zekarren zerbait zela, eta berehala Nuntzioarengana zihoazela gertatutakoaren berri ematera eta nola kendu eragozpenak esaten jarraitzen zuen[328]. Baina, bazegoen gutunean Aita Maldonadori buruzko Kondearen esakune gogor bat ere, Kondearen gogortasuna eta benetako izpiritu berriztatzailea adierazten duena: «oso-osoan Santa Teresaren izpirituaren araberakoa ez den edozein fundazioen aurka egingo dudala eta 1836.ean esklaustratuak bilduz Santa Teresa handiak izandako izpiritutik oso urruti izango diren komentuak sortzearen beldurra dudala esan diot».

Apirilaren 26 eta 27an bilerak egin zituzten Gaytan Jnak, Nacarino Jnak eta Aita Maldonadok; eta argi eta garbi azaldu ziren ikuspuntu ezberdinak. 29an Aita Maldonado Estatuko Ministeritzara aurkeztu zen beraren eskariaz hitz egiteko; eta itxaropen batzu zituela atera zen: «...yo estoy por ejércitos permanentes que estén bien ordenados y que sean fecundos. Para esto es preciso un plantel formado de

[325] *Breve extracto...*, 14.orr.
[326] Ibd., 20.orr.
[327] BAS, 139 /H.
[328] *Correspondencia...*, 2.zk.

plantas sanas y robustas...». Ikastetxea Desierto de las Palmas-en (Castellón de la Plana) hasi nahi zuen[329].

Nahiz eta Aita Maldonadok, Aita Manuel de S. Teresa eta Gaytan Kondearen ahaleginaren aurka izpirituzko arrazoi ezberdinak atera, sankoneko arrazoiak, psikologikoak, hain zuen ere prestigio eta buruaskitasun mailakoak zein 'espainiar nazionalismo' alorrekoak ziren, Nacarino Jnari idatzitako beraren gutun batetan ikus daitekeenez. 1868.eko maiatzaren 7ko Erret Dekretua lortze lanetan berak porrot egin eta beste batzu arrakasta lortu ondoren, penaz eta kexaz Espainiako Karmeldarren Kongregazioak «lapurreta merezigabea eta umiligarria» jasan zuela zioen, Lazkaon 'bandera atzerritarra' ageri baitzen eta mehatxu-herronkaz amaitzen zuen: «Si hay una segunda humillación, no respondo de la polvorada que levantaría Lazcano. Polvareda razonada y justificada como español»[330].

Aita Manuel maiatzaren 5ean atera zen Burgos-etik; Gasteizetik zehar Beasainera heldu zen, hemendik erantzun ziola Konde Jnaren gutunari maiatzaren 6an, eragozpenen aurrean animoak eta adorea emanez; Aita Maldonadorekin Alcalá de Henaresen izandako azken elkarrizketan berak ere kezkak izan zituela eta egoera juridikoa neurri batetan ez zekiela, honakoa hau idazten zuen: «Beraz, Aita Maldonadoren ezgaraiko protestak ez du inolako indarrik, gaur egun ez dagoelako Espainian ez probintzialik, ez jeneralik ez beste ezer eta erlijioaren eta probintziaren izenean egin duen protestak ez du inolazko oinarririk; zergatik ez zidan esan ezer niri Madrilen egin nuen aldi luze osoan? Ni defendatu egingo nintzela zekielako. Beraren ekintza laudagarria izan beharrean, eta hau min handiz diot, gaitzesgarria da, eta mundu osoak, hau da, Erlijioaren berreraikuntza Lazkaon egitea txalotu duten erlijioso guztiek oso gaizki hartuko dute, bere burua, izendura hutsa izan eta egun batetik bestera Nagusi Jeneralen nahieraren arabera kendua izan daitekeela, Bikari Jeneral izendatu duen erlijioso batek oso ezaguna den Jainkoaren ekintzaren aurka ihardutea; zinpleziaz ohore gutxi egiten dion ekintza bat dela esan nahi dut. Ondorioz, jo aurrera ezerk larritu gabe; ezerk ez diezazula ahalegin hauetan bidean aurrera egitea oztopa»[331].

Aita Maldonadok aurkeztutako eragozpenak nahikoa indar juridiko zuen eta Aita Manuelen plana oztopatzen zuen; eta hori, gehiago oraindik, garai hartako Gobernuen legalismo-joerak kontutan hartuz.

Beraz, Karmeldar Teresiarren bi Kongregazio zeuden: Espainia eta beraren Itsasoz-bestaldeko lurraldeetakoa eta Italiakoa, Europa eta Asia barnehartzen zituena; eta guztiz debekatua zuen batek bestearen arazoetan muturra sartzea zein seinalatutuko mugak zeharkatzea. Une honetan Espainian ez zegoen komenturik esklaustrazioaren ondorioz eta Aita Maldonadok, Aita Santuaren Komisari gisa zuen eskumena benetakoa baino gehiago izendapen hutsezkoa zen. Baina, aurrean zegoen gertakari juridikoa; eta, ondorioz, alde batera utzi egin behar zen fundazioa edota Klemente VIII.aren 1600.eko Buldaren indargabetzea lortu.

---

[329] BAS, 139 /H, Aita maldonadok Nacarino jaunari 1867-V-2an eginiko gutuna.
[330] BAS, 139 /H, 1868-VII-13ko gutuna.
[331] *Correspondencia...*, 6.zk.

Laster ikusi zuten arazo hau Konde Jnak eta Nacarino Bravo bere laguntzaile Jnak: honek maiatzaren 4ean Itsasoz-bestaldeko Ministraritzak informe guztiak Estatuko Ministeritzara aldatu zituela eta Estatuko Kontseilura iragateko unean zirela jakinerazi zion[332]. Azken honek eragozpen batzu jarri zituen: adibidez, espedienteari Valmedianoko Markesak komentuaren gain zituen eskubideak ezartzea eta Itsasoz-bestaldeko ikastetxerako uzten zeneko baldintzak falta zitzaizkiola.

Kontseilu honetako Itsasoz-bestaldeko atalak, 1867.eko maiatzaren 4ean, Grazia eta Justiziako Ministeritzaren erizpidea jasotzea komeni zela jakinerazi zuen, ordurako Penintsulan sortuak izanak kontutan hartuz, honelako ikastetxe mota baten eraikuntza baimentzeko eragozpenik zegoen ala ez adieraz zezan; era berean, baita ere, gai honetaz Itsasoz-bestaldeko agintariek erantzunak izatea eskatuz; eta, azkenik, ez zirela ageri espedientean Misiolarien Ikastetxearen alde uzteko gertu zegoen komentuaren gain Valmedianoko Markesak zituen eskubideak ezta uztearen baldintzak[333].

Txosten hau maiatzaren 28an onartu zuen Estatuko Kontseiluak eta ekainaren 8an idatzi zuen berea Itsasoz-bestaldeko Ministeritzako Eliz arazoetarako Negoziatuak antzerako hitzetan[334].

Aita Manuelek ekainaren 16an idatzi zion Lyon-dik Kondeari, bere koinatuaren bidez Itsasoz-bestaldeko Ministeritzak arazoa oso txarto aurkezten zuela jakin zuela esanez; eta gutunaren azken aldean arazo guzti hauei buruz idatzi ziola Aita Domingo de S.José Jeneralari eta berarekin hitz egingo zuela hurrengo hilean, Aita Jenerala Belgikara joatean Lyon-dik iragotean erantsiz: «dekretuaren zain dago arazoa Erroman oso-osoan konpontzeko. Delako dekretua lortzeko ez uzteko bazterrik higitu gabe eskatzen dizut eta astirik har dezazunean eman iezadazu berri edota zeregin hori gustora beteko duen nire koinatuari jakinerazi. Era berean, jarraian zu Madriletik aterako zarela uste dut; eta besteentzat uzten dena, beti egiten da berandu eta gaizki. Hobe Erromarantz atera aurretik Erregina Maiestate Gorenarekin elkarrizketa lortzen baduzu»[335].

d. **Aita Domingo de S. José eta Aita Manuel, Aita Maldonadoren kexa pean**

Aita Maldonadoren kexek beren eragina egin zuten: hain zuzen ere, egoera judirikoa argitu eta, gehingoak oso bihotzez nahi zuen Ordenaren batasuna bultzatzea eta, bide batez, Aita Maldonadok suposatzen zuen eragozpena kentzea.

aa. *Aita Manuel Frantzian itxaroten*

Entzun diogu Aita Manueli, Espainiako hirietatik zehar eginiko bidaian gogo biziz eta begikortasun handiz onartua zela, batez ere, esklaustratutako Karmeldarren eta eliz agintarien artean[336].

---

[332] *Correspondencia...*, 5.zk.
[333] *Breve extracto...*, 24-25.orr.
[334] Ibd., 21.orr.
[335] *Correspondencia...*, 8.zk.
[336] *Correspondencia...*, 4.zk. (1867-V-2); 6.Zkia (1867-V-6).

Esan den bezala, Frantziara joan beharra izan zuen maiatzaren 10ean Akitaniako probintziako kapitulua biltzen zelako Carcasonne-n.

Aita Manuelek 1867.eko ekainaren 2an poz handiz kontatu zion Villafranca-ko kondeari, Salamanca-ko nobizioek karmeldar jantzia Lazkaon hartu nahi zutela entzun zuela eta ea noiz helduko zen Gobernuaren dekretua. Beste bizkaitar erlijioso batek, Montpellier-ko nagusiak Lazkaoko fundaziora berarekin joan nahi zuela idatzi ziola..., beste batzuk ere beste hainbeste adierazten ziotela. Guztiak zain zeudela[337].

Probintziako aipaturiko kapituluan, Lyon-go komentuko nagusiorde eta nobizioen irakasle izendatu zuten. Kapituluan berreraikuntzari buruz eginiko kudeaketen berri eman zuen; eta bere adiskide Kondeari gaineratzen zion: «Ezin da hitzez aditzera eman nolako poztasunez, alaitasunez eta onespenez hartu duen Kapituluak gure Espainiako berreraikuntzaren berri ona»[338]. Eta gutun berberean Erromako Aita Jeneralari egindako urrats guztien berri eman ziola jakinerazi zion.

bb. *Gutunak eta kexak*

Azaldu ditugu itxaronaldi honetan Aita Maldonadok izandako jokaera eta Ministeritzetan eginiko salaketak. Baina, Aita Maldonadok Aita Domingo de S. José, Italiako Kongregazioko Aita Jeneralari ere idatzi zion 1867.eko ekainaren 2an Aita Manuelen jokaerari buruzko kexak agertuz; gutunean, hark legez kanpo eginiko eskariari berea erantsi ziola eta horrela, eginbideak Klemente VIII.aren Buldak ematen zizkion eskumenak erabiliz zuzendu zituela esanez: «Pasé a Madrid y me dió el expediente que inicia una petición de V.R. firmada por N.P.Prior de Agen como Secretario. En ella se habla de la *Congregación de Francia* que no existe, nada se habla de la de Italia que es una verdad canónica»...»presenté a D.José Nacarino Brabo la Bula de Clemente VIII, que pone un veto respetable entre la Congregación de Italia y la de España»...» uní a la irregular petición de V.R. la mía, y así se puso en vía recta y canónica la exposición primera. Esta sigue los trámites que son indispensables; trámites que no son obra del momento como suponía el bendito P.Prior de Agen que esperaba en Vitoria la Real orden del 7 al 8 de Mayo próximo pasado»[339].

Aita Domingo Sagastik, Iruñetik Aita Maldonadoren gutun honen kopia bidali zion Aita Manueli; jarraiko hau idatzi zion honek Gaytan Kondeari ekainaren 20an: «harako gutunaren edukina ez denez egiazkoa, nik nire legezko Nagusien aurrean neure burua zuritu behar dut eta Jainkoaren aintzarako eta Karmeldarren erlijioaren onerako egin dena, eginbidean dena eta gerora egiteko asmotan dena aditzera eman behar dizkiet»[340].

---

[337] *Correspondencia...*, 4.zk.
[338] *Correspondencia...*, 7.zk.
[339] *Breve extracto...*, 6-8.or.
[340] *Correspondencia...*, 9.zk.

Aita Jeneralak, egoera juridikoa guztiz aurkakoa zuela ikusirik, 1867.eko ekainaren 21ean erantzun zion Aita Maldonadori, Aita Manuelek bere kasara, baimenik gabe jokatu zuela eta berak, Espainiako Kongregazioan profesioa egin zuelako benetako maitasuna bazioan ere Italiako Kongregazioan aurkitzen zen artean ezin zuela inolazko laguntzarik eman esanez: «Cuanto al negocio de Lazcano, yo nada sabía hasta que recibí la carta que el Prior de Agen me escribió en su regreso a Francia; porque él no tenía misión alguna, ni se me pasó por la cabeza dar paso alguno en propósito; por lo que en contestación a la suya le dí un rapapolvo diciéndole había hecho un grandísimo disparate. El es hombre de buenas intenciones y de celo; pero no basta esto.

Como General de la Congregación de Italia, yo nada tengo que intervenir en la Congregación de España, siendo las dos Congregaciones enteramente independientes la una de la otra. Como español y profeso de la Congregación de España, pues yo jamás he hecho profesión en la Congregación de Italia, me intereso mucho y muchísimo por la Congregación que me ha dado el ser religioso; pero mientras estoy en la Congregación de Italia, yo no puedo concurrir en favor de la de España más que con mis oraciones; y aun cuando volviese a la Congregación de España, ¡qué puedo yo ayudar, viejo de 68 años cumplidos!»[341].

Egin-eginean ere, Aita Manuelek idatzi egin zion Aita Jeneralari eginiko guztiaren berri emanez, arazoa bide onetik ari zenean[342]. Eta argi eta garbi aitortzen zizkion egoera zein buruan zerabiltzan asmoak: «Nik uste dut gutun hauek egin zuten eragina ez zela fundazioaren aldekoa izan. Hau garbi ikus daiteke. Nik, horretarako espreski baimenduta egon gabe ihardun nuen, nire bihotzaren nahieren arabera, guztiek nik bezalako ikuspegiak, nik bezalako gogoak izango zituztela pentsatuz; eta hona hemen, non botatzen zidan aurpegira egindakoa Aita Jeneralak Lyon-era idatzitako gutun batetan»[343].

Argi ikusten zen eskumenen arazo hau Erroman konpondu beharrekoa zela.

cc. *Liburuxkaren argitalpena eta erreakzioak*

Aita Maldonadok, bere pertsona eta jokaeraren aurka, berak normaltzat jotzen zituelarik Karmeldar esklaustratuen hainbat kexa eta kritika jasoten zituen. Eta bere burua zuritu eta defendatzeko, Espainiako Karmelo-ren berreraikuntza ahaleginei zegokien bere iharduera aditzera ematen zuten agiriak jasoz, 31 orrialdetako liburuxka bat argitaratzea bururatu zitzaion.

Madrilen argitaratu zuen 1867.ean honako izenburu hau zuela: *Breve extracto y fragmentos varios del expediente incoado en el Ministerio de Ultramar para la fundación de un convento de Carmelitas Descalzos*.

---

[341] *Breve extracto...*, 9.orr.

[342] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 8.orr. (BAS, 26 /P; MKA, A-I-279; A-I.278). *Correspondencia...*, 7.zk.,1867-VI-2ko gutuna.

[343] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 8.orr.

Azken bi orrialdeetan egoera larrian uzten zuen Aita Manuel. Aita Manuelen espedienteari ministeritzetan oztopoak jarri ondoren eta eskuratu nahi zena lortu zorian zegoela, liburuxka honetan Lazkaoko Karmeldarrari hitz hutsetan fidatzen zen gizagaisoa izatea eta Lazkaoko priore izateko gogoak edukitzea eta halakoak leporatu zizkion. Guzti honek, sakonean, Aita Maldonadok ez zuela bere burua Espainiako Kongregaziorik egiatan ez zegoela aitortzera makurtu nahi ematen du aditzera.

Liburuxkak sortu zuen erreakzioa, egileak uste zuenaren aurkakoa izan zen. Esklaustratuak bere aurka jarri ziren.

Aita Manuelek liburuxka hau aipatzen zuen Gaytan Kondeari 1867.eko abenduaren 27an idatzitako gutunean; liburuxka Bordele, Bagneres, Agen eta zenbait herritako komentuetara bidalia izan zen; eta, baita Aita Domingo Jeneralari ere. Idatziak aserrea sortu zuen Frantzian. Eta Aita Manuelek, bestalde, bere aurka jaurtitako salaketak desegin zituen[344]. Eta geroagoko gutun batetan, 1868.eko martxoaren 2an, liburuxka horrek Espainiako Kongregazioko Karmeldarrengan sortutako nahigabea adierazten zuen; eta Probintzialak hori adierazten zuten hainbat gutun jaso zituen honako hau eransten zuela: «Espainian geratzen diren Aita Karmeldar gehienek gure Aita Domingok jarrai dezala ihardunean eta Aita Maldonadok buru egiten jarraitzen duen artean ez dela ezer onik izango Espainian esanez idatzi dute»[345].

e. Gaytan eta Nacarinok dekretua lortzeko eginiko ihardunak

Eragozpenak eragozpen, Aita Manuelek eta Konde Jnak lanean jarraitu zuten, fundazio dekretua lortzeko beharrezko agiri guztiak biltzen[346]. Gipuzkoar protagonista biek eginkizun hau Jainkoarena zela eta zeuden[347].

Jarrai dezagun espedienteak Ministeritzetan zuten egoera aztertzen. Gaytan Kondearen adiskide eta Itsasoz-bestaldeko Ministeritzan idazkari orde zen Jose Nacarino Bravo Jnak 1867.eko uztailaren 8ko txostenean kanonen aginduei eta Erreinuko legeei egokitzeko, Karmeldarrek beren apostolutza-ministeritza egingo zuten elizbarrutiko apezpikuaren erizpena eskatu behar zutela uste zuen: «por estas razones, y si en el

---

[344] *Correspondencia...*, 13.zk.

[345] *Correspondencia...*, 16.zk.,Aita Manuelek Gaytan kondeari eginiko gutuna. Ik.,era berean, BAS, 26 /P (MKA, A-I-279, 11.orr.; A-I-280, 6.orr.): "Aussitôt que le R.P. Thomas de J.M.J. eut connaissance de la brochure que le P.Maldonado avait publiée contre moi, fit une protestation, et il envoya cette protestation à Madrid à une dame que s'appelle la marquise de Santiago. Cette dame, très puissante et très adroite, se présente chez le ministre, et celu-ci appelle le P.Maldonado et l'oblige à retirer tous les exemplaires de la brochure. Vous voyez que ce n' était pas moi seul qui s'occupait de cette affaire: les RR.PP. Pierre et Thomas ne cessaient point d'écrire à leurs amis de Madrid, mais la marquise de Santiago fut ce qui travaillat d'une manière extraordinaire".

[346] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 8.orr.

[347] *Correspondencia...*, 8.zk., 1867-VI-16ko gutuna: esakune oso ausarta: arrakasta lortuko da. "Zuk diozu eta nik ere bai, eta guztiz agerikoa da Eginkizun hau Jainkoarena dela, niretzat fedeko sineskai baten antzekoa da".

ánimo de V.M. existe la convicción de la utilidad que reportaría a la Iglesia y al Estado de la admisión en la Isla de Cuba de la Orden de Carmelitas Descalzos, cuya historia ha dejado tan gratos recuerdos a nuestra patria, pudiera prescindirse de pedir informes al Ministerio de Gracia y Justicia y V. Patrono de Cuba, y toda vez que los Prelados de la misma Antilla están en la actualidad con Real licencia en Roma y es natural el que vengan a la Península, pudiera suspenderse el curso de este expediente hasta que pidiéndose el informe y consentimiento debidos a los MM.RR. Arzobispo de Cuba y Obispo de la Habana, se someta a la aprobación de V.M. el establecimiento de un Colegio de Misioneros Carmelitas Descalzos para Ultramar»[348].

Nacarino Jnak 1867.eko abuztuaren 14eko gutunean erantzun zion Kondeari, Karmeldarren arazoaz hitz egiteko Kubako Artzapezpikua eta Habanako Apezpikua noiz etorriko itxaroten zegoela; artzapezpikua La Granja-n aurkitzen zela eta apezpikua, Madrilen egon ondoren kanpora joan zela baina itzultzeko asmoak zituela[349].

Uztailean Bergarara joan zen Kondeak[350], Rafael Garcia, Aita Manuelen kuinatuaren berriak jaso zituen urriaren 2an eginiko gutunean: Lazkaoko fundazioari buruzko espedientea Kubako Artzapezpiku Jnaren eskuetan zegoela eta txosten hura gomendatzeko eskatzen zitzaiola[351]. Nacarino Jnak hurrengo hilean itxaronbide onak ematen zizkion Konde Jnari, Elizbarrutien hautaketaren arabera Erlijiosoen Ordena batzuren ezarkuntza une batetik bestera konpontzeko zorian zegoelako eta hau gaineratzen zuen: «es imposible que en España se prescinda de los Carmelitas»[352].

Ministeritzan onartu egin zen Nacarino Jnaren eritzia eta txostenak eskatu zitzaizkien Santiago de Cuba-ko artzapezpikuari eta Habanako apezpikuari; Erroman *ad limina* bisitaldia egiten zirelako atzeratu egin zuten erantzuna. Baina, Habanako apezpikua alde atera zen 1868.eko urtarrilaren 15ean: berak pozik hartuko zituela bere elizbarrutian Santa Teresaren semeak, horretan Jainkoaren aintza eta Erreginaren zerbitzua izango zela itxaronez[353].

Apezpikuen txostenak bildu ondoren, Jose Nacarino Jnak 1868.eko otsailaren 24ean Gaytan Kondeari, Lazkaoko espedientea aurkezteko gertu zegoela jakinerazi zion[354].

Martxoaren 2ko gutunean Aita Manuelek Lyon-dik Villafranca-ko Kondeari, martxoan zeudela, hau da, arazoa hasi zenetik urtebete iragan zela, azken arrakasta San Joseren Bedeinkapenean jarria zuela, beraren hilabetean egonik komentuan horretarako otoitz bereziak egiten zirela eta erlijioso ugari, korista zein anaia, lizentziaren zai zeudela Lazkaoko fundaziora joateko gogoratzen zion[355].

---

[348] *Breve extracto...*, 22-23.orr.
[349] *Correspondencia...*, 11.zk.
[350] *Correspondencia...*, 11a.zk., 1867-IX-24eko gutuna.
[351] *Correspondencia...*, 11b.zk.
[352] *Correspondencia...*, 12.zk., 1867-XI-17ko gutuna.
[353] P. VICTORIANO(?), *Notas...*, 23.orr.
[354] *Correspondencia...*, 15.zk.
[355] *Correspondencia...*, 16.zk.

Hain zuzen ere, 1868.eko martxoaren 24ean eman zuen Estatuko Kontseiluak fundazioa egiteko aldeko ebazpena[356]. Pozez eta adorez beterik idatzi zion Aita Manuelek Rafael bere koinatuari Lyon-go nobiziatutik martxoaren 30ean: «Bakartade honetan Moises Mendi Santuan bezala besoak zerura jasota nauzu Jainkoari gure eskariak entzun ditzala erreguka. Batez ere, bihar San Joseren hilabete honen azken egunean Santu dontsu honi Jesus eta Mariarengandik Lazkaoko fundaziorako eskatzen duguna lor dezagula eskatuz. Ezin duzu iruditu zer nolako atsegina hartu dugun Estatuko Kontseiluko emaitza jakitean. Erromara eta hainbat komentutara idatzi dut berri ona jakinerazteko»[357]. Baina gutunaren azkenaldean eman beharreko urratsak gogoratu zizkion: Aita Santuarekin eta Erregularren Kongregazioarekin hitz egitea komeni zela.

Era berean, 1868.eko apirilaren 6an agertzen zuen Lazkaoko komentuaren berreraikuntzarako dekretuaren berri onak eman zion atsegina Gasteizeko apezpikuak[358].

Dekretua ateratzeko zegoela hil zen Estatuko Buru zen Narvaez Jenerala apirilaren 23an; hori zela eta, bi egun geroago, 25ean, Nacarino Jnak Gaytan Kondea lasaitzen zuen, ez zuela Karmeldarren espedientea ahazten eta ongi gertatuta eta prest izango zuela esanez[359].

Egin-eginean heldu zen hainbeste itxarondako eguna: Maiatzaren 7a! Lortuta zegoen, azkenean, Berreraikuntzari hasiera emateko Erret dekretua:

«Ministerio de Ultramar.

La Reina (q.D.g.) accediendo a lo solicitado por V.P. y por los Ayuntamientos de Lazcano y otras villas de la provincia de Guipúzcoa, y conformándose con lo consultado por el Consejo de Estado en pleno, se ha servido autorizarle para que, previa la adquisición en debida forma, que deberá acreditar en este Ministerio, de su edificio, lleve a efecto la instalación de un Colegio de Misioneros de su Orden con destino a la isla de Cuba, el cual deberá quedar sometido: 1.° A todas las leyes, decretos y órdenes que regulan el ejercicio del Real Patronato concedido por la Santa Sede a la Corona de España, así como también a las demás disposiciones vigentes respecto a los demás institutos religiosos de Misioneros para Ultramar que están establecidos. 2.° Que esta concesión se entenderá hecha sin obligación por parte del Estado de hacer gasto alguno. 3.° Que el Colegio de Carmelitas descalzos gozará de las mismas ventajas que a los demás de Misioneros para Ultramar están concedidas. 4.° Que no se procederá a la apertura del Colegio hasta que V.P. dé cuenta de la adquisición del local en que lo haya de establecer. y 5.° que debe V.P. poner en

---

[356] *Correspondencia...*, 17.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1868-III-30ean eginiko gutuna: "Qué providencia! no sé si U. ha reparado. El 24 de marzo el Consejo de Estado ha aprobado la fundación de Lazcano, ese mismo día llegué yo a Alcalá de Henares para hablar al P.Maldonado de dicha fundación"..."No se puede U. imaginar el grande placer y el grande júbilo que esta noticia ha causado en toda la provincia de Francia".

[357] *Correspondencia...*, 17a.zk.

[358] *Correspondencia...*, 18.zk.

[359] *Correspondencia...*, 19.zk.

conocimeinto de S.M. por conducto de este Ministerio del día en que se verifique dicha apertura acompañando un estado del personal que forme la comunidad, comprensivo de los nombres, edad, naturaleza, estado de instrucción y demás circunstancias que concurran en cada uno de los individuos de la misma y todos los demás datos que V.P. conceptúe oportunas, para que se pueda tener un exacto conocimiento del dicho personal. Lo que de Real Orden digo a V.P. para su conocimiento y efectos corresponedientes.

Dios guarde a V. muchos años. Madrid, 7 de mayo de 1868. *Marfori.*

A Fr. Domingo de S.José, Superior de la Orden religiosa de Carmelitas Descalzos de la Congregación de Francia»[360].

Izugarria izan zen zeregin hauetan protagonista nagusia zen Gaytan Kondearen poztasuna; batez ere, fundazioa ez zegoelako Lazkao bezalako toki bati baldintzatuta (garai haietarako, ikusiko dugunez, Lazkaon egitea ez baitzegoen hain argi); horrela edozein ustekabe tarteko izanik ere ziurtatu egiten zen funfazioa[361].

f. Valmedianoko Markes Jnaren ezetza

Gaytan kondeak eta Aita Manuelek eta beste laguntzaile batzuk aurrera eramandako lan guztiek ia burututa zeudenean, ustekabea sortu zen: Valmedianoko Markes Jnak Lazkaoko komentua uzteko erakutsitako gogoa aldatzea.

Lehen esaldi susmagarria, 1868.eko apirilaren 6an Gasteizeko apezpikuak eginiko gutun laburrean zetorren, proiektua bide onetik zioelako Kondeari bere poza aditzera eman ondoren, honako hau esan bait zion: «ez dakit Vamedianoko Markes Jna gaur egun hasieratako eginbideetan bezala aldekoa denik»[362].

Baina zergatik ez zuen egon behar fundazioaren alde? Arazoren bat gertatu ahal zen?

Egiatan, Erret Dekretua lortzeko emaniko azken urrats hauetan, oso arduratuta zebiltzan gipuzkoar protagonista biak Markes Jnaren isiltasuna ikusirik.

Hain zuen ere, 1868.eko martxoaren 30ean Aita Manuelek bere adiskide Konderi honako hau idatzi zion: «zure gutun atsegina jaso ondoren Valmedianoko markes jaunari idatzi nion, Lazkaoko komentua bertatik karmeldarrak kanporatuak izan aurretik genituen zama eta betebehar berdinetan, bera betiko patroi geratuz uzteko eman zidan hitza gogoratuz. Ez dakit zer erantzungo didan. Ez dakit egokia izango den zuk berari bisitaldia egitea; zeuk ikusiko duzu zer komeni den»[363]. Eta jarraian apezpikuaren esaldi iluna argitzen zuen honakoa erantsiz: «geroago, behar bada, apez-

---

[360] *Correspondencia...*, 27.zk.; MKA, E-I-30; SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 45-46.orr. "Congregación de Francia" azken hitzk dela eta errakuntza horri buruzko. 317. oharra.

[361] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 45.orr.

[362] *Correspondencia...*, 19.zk.

[363] *Correspondencia...*, 17.zk.

pikuak eragozpenen bat jarriko du elkarren artean izan duten tirabiragatik». Hemen datza zioa, nahiz eta ez dakigun zein izan zen Markes Jnaren eta Apezpikuaren artean izandako eztabaida.

Hilabete batzu geroago jakin zituen Aita Manuelek aldaketa horretan eragina izan zezaketen beste arrazoi batzu: Lazkaoko «karmeldarren» elizako kaperauaren eta Gasteizeko apezpikuaren arteko eritzi ezberdinak[364].

Markesak Kordoba-tik erantzun zion apirilaren 7an, Karmeldarren beldurrak egiaztatuz. Gutun horretan, berak ez zuela inoiz komentua uzteko hitzik eman eta harriduraz ikusten zuela Estatuko Kontseiluak bere Lazkaoko komentuan Karmeldarren fundazio bat egitea onartzea. Azaltzen ez zituen zioak zirela bide, ezezkoa eman beharra zuela esanez amaitzen zuen gutuna; hain garrantzitsua izan zelako osorik jasoko dut:

«Córdoba, 7 de abril de 1868.

Reverendo Padre Manuel de Santa Teresa.

Muy Señor mío y de mi consideración, recibí la carta de V. fechada 28 de Marzo próximo pasado, y ví en ella la noticia que me da de que el Consejo de Estado había aprobado con fecha de 24 del mismo mes la fundación en Lazcano de un convento a lo que parece en el de mi propiedad en aquella villa. No dejaré de decir a V. lo mucho que me ha sorprendido esta noticia, pues no habiendo yo dado paso alguno para ello, no comprendo el cómo sin contar conmigo y mis demás hermanos, dueños del convento, iglesia y demás pertenecidos, ha podido el Consejo de Estado sin constarle de ninguna manera nuestra aquiescencia en dicho asunto y sin que tampoco nos haya comunicado nadie dicha impremeditada resolución.

Muy cierto es el que V. me visitó el año pasado y que me habló del objeto que llevaba a la Corte para ver de lograr el permiso de establecer una casa de Misiones

---

[364] Uzkailan ordurako Lazkaoko fundazioa alde utzi eta Markinakoa burutzeko unean aurkitzen zela, Lazkaoko alkateak eta jendeak, atsekabe beterik azken ahalegina egin zuten 1868.eko uztailaren 10eko gutunean ikus daitekeenez:

"Amado P^e. Fr. Manuel:

Salud y gracia en el Sr. El Sr. Alcalde y otros individuos de este pueblo me dicen haga el favor de escribir a V.R. a fin de hacerle presente que, hasta que han visto pasar a V.R. a Marquina, no habían consentido en que no vendrían a este convento; suponiendo habiesen allanado con el Sr.Marqués los ostáculos que se presentaban; los cuales aquí se ignoran, y sólo se supone haya sido motivados a causa de alguna diferencia con el último capellán y el Sr.Obispo. Todo lo cual ha causado un sentimiento general en el pueblo y en los circunvecinos; y desean saber si VV.RR. en caso de conseguir del Sr. Marqués (el que es de venir en brebe a Villafranca) si estarían prontos para benir antes a este convento; pues están dispuestos a hacer toda diligencia, bien sea presentándose una comisión al Sr. Marqués cuando benga a la Diputación de la Provincia o si VV.RR. mismas les parece presentar cuando benga a Villafranca; desean saber la voluntad de V.R., y caso que sea afirmativa, que progonga a V.Rs un medio que les parezca más adecuado para poder conseguirlo, y así espero que hablándolo con el P.General y demás hermanos, me participe aquello que crean más conbeniente para yo participarlo al Sr.Alcalde, y que deseo se consiga como se desea.

Sin más por hoy, mis afectos a nuestro Rmo.P.General y demás Padres y hermanos, suyo afm. hermano. Fr.Juan de Garmendia" (*Correspondencia...*, 61.zk.).

de su Orden en España indicándome su deseo de que fuese en Lazcano, y también muy cierto el que yo no me quise comprometer nunca a nada, diciéndole siempre que me habló de dicho asunto que no siendo yo el único dueño del convento, su iglesia y pertenencias, nada quería ni podía resolver por mí, sino a una con mis hermanos y consultar su volutad. Circunstancias posteriores y harto desagradebles para mí imposibilitan hoy en un todo nuestra resolución en este asunto, asegurando a V. que quedará como ha estado hasta aquí, y se halla hoy. Me apresuro a comunicárselo a V. para su conocimiento y a fin de que no proceda a tomar medida alguna, pues le repito nuestro deseo de que el convento, iglesia y demás no salgan de nuestro poder de manera alguna ni por ningún motivo.

Es de V. suyo y su mui afectísimo Q.S.M.B.- Marqués de Valmediano»[365].

Pazko egunean, apirilaren 12an, jakinerazi zion Rafael Garcia koinatuari, Markes Jnaren erantzuna hartu zuela eta ez zetorrela bat lehenago agindutakoarekin esanez[366]; García Jnak, bere aldetik, Gaytan Kondeari jakinerazi zion apirilaren 27an.[367].

Egiatan hitzari eutsi ez ziona Markes Jna izan zen; bada, ez ahal zuen sinatu 1867.eko apirilaren 13an Erreginari Lazkaoko komentuan ikastetxe bat ezartzeko eskabidea?[368].

Aita Manuelek 1868.eko maiatzaren 6an Lyon-dik idatzitako gutunean kontatu zion Gaytan Kondeari nola zegoen arazoa Markes Jnaren ezezkoaren ondoren, baina etorkizunean konfidantza handia zuela erantsiz: «Gurtu ditzagun Jaunaren asmo handi eta sakonak. Valmedianoko Kondeak ez daki zer egiten duen, emandako hitzari ustel eginez, zuk dakizunez ni horretan oinarritua, aipatutako jauna komentua uzteko gertu zela uste nuela aritu nintzen eta. Eta orain ukatu egiten du Jaunari emaniko hitza. Berriro diotsuk ez dakiela zer nolako galera duen Jainkoaren aurrean eta, baita, une honetan sinesmenaren arabera pentsatzen duen jendearen aurrean ere»... «betor dekretua; ez da etxerik eta komenturik faltako»...»idatzi nion gure Aita Domingori Estatuko Kontseiluaren onarpena. Badirudi aurten etorriko dela Frantziara Aita Jeneralek hiru urterik behin egin ohi duten ikustaldia egitera. Aukera hobezina izango litzateke Frantziara etorri aurretik dekretua eskuetan izan eta ber-berak Erroman, Erregularren Kongregaziokoekin zein, gertu-gertu delarik, Kongregazio bakar bat baino ez izatea nahi duen Aita Santuarekin tratatzea». Eta egoera honetan Jainkoak Gaytan Jna aukeratu zuela aurrera eraman nahi zuen eginkizun handi honetarako eransten zion[369].

Aita Manuelek maiatzaren 13an kontsulta egin zion Gaytan Kondeari, ea gutun bidez ihardunean ekin behar zion Markes Jnari ala Gaytan bera joan behar zen Madrilen berarekin hitz egitera ala behin betiko bertan behera utzi behar zuen kontu hura[370].

---

[365] *Correspondencia...*, 22.zk.
[366] *Correspondencia...*, 20.zk.
[367] *Correspondencia...*, 21.zk.
[368] *Breve extracto...*, 16. orr.
[369] *Correspondencia...*, 23.zk.
[370] *Correspondencia...*, 24.zk.

Konde Jna harrituta utzi zuen Markes Jnaren aldaketak, pertsona hain erlijiozalea eta eskuzabala zela jakinik. Gaytan Kondeak bi gutunen bidez Markes Jnaren eritzia bideratu nahi izan zuen; eta hark ekainaren 15ean erantzun zion bigarrenari ezezko biribila emanez, zioak aditzera eman gabe: «Pues bien, amigo Conde, siento decir a V., que motivos que no son para escritos, me obligan a decir a V. terminantemente que bajo ninguna base y que de manera alguna pienso ceder el uso del convento por ahora, ni a comunidades ni a nadie. Mis hermanos, dueños conmigo del citado convento, se niegan igualmente a dicha cesión»[371].

Horrela ixten zen behin-betiko Karmeldar bizimodua Lazkaoko komentuan berreraikitzeko bideko atea. Kondeak ekainaren 17an jakinerazi zion Aita Manueli[372].

g. **Emaitzak**

Valmedianoko Markes Jnak Lazkaoko komentua uzteari ezetza ematea itxurazko porrota izan zen arren, oso onak izan ziren berreraikuntza lan honetan, batez ere, Aita Manuel eta Gaytan Villafranca-ko Konde Jnak eta Rafael Garcia, lehenaren koinatuak eta Jose Nacarino bigarrenaren adiskide laguntzaileak lortutako emaitzak:

— Lortuta zegoen zerik garrantzitsuena eta zailena: hots, Itsasoz-bestalderako Misiolarien Ikastetxea eraikitzeko Karmeldarren edozein fundazio ahalbideratzen zuen dekretua.

— Irekita zegoen berreirakuntzarako bidea eta geraezina zirudien fundazio konkretua egiteko abiadurak.

— Itxaropen handia sortu zuen Karmeldarren eta Karmelo-ko adiskideen artean eta gazte bokaziodunak aurkezten hasi ziren eta gertu zeuden, bestalde, Frantziako hainbat erlijioso Berreraikuntzari hasiera emateko.

— Ahalegin guzti hauek Karmeldar Teresiarren Ordenaren batasuna Kongregazio bakar batetan, Erroman biziko zen Aita Jeneral baten gidaritzapean eginbeharraren kontzientzia sortu zuten.

— Berreraikuntzari hasiera emateko bide berri eta ezberdinak ireki ziren.

5. **Karmeldar bizitzaren berreraikuntza Markinan (1868)**

Erret Dekretua lortu ondoren garrantzitsua zen berehala etxe bat bilatu eta fundazioa egitea, ingurumenek egoera politikoa, irailean gertatu zen bezala gaiztoatu egingo zelako susmoa adierazten baitzuten. Konde Jnak 1868.eko ekainaren 20ko gutunean, fundazioa Estatuko Kontseiluak eta Gobernuak bestelako ebaspenik hartu

[371] *Correspondencia...*, 28.zk.

[372] BAS, 20 /C. Aita José Maria fraidearen kontaketa laburretik ateratzen denez, Aita Maldonado-k nolabaiteko eragina izan zuen Valmediano-ko Markesarengan, komentua utz ez zezan: BAS, 26 /P.

aurretik egitea komeni zela idazten zuen, hain zuzen ere,tarte horretan, Clemente VIII.aren Buldaren ondorioz, Espainiako Karmeloko Kongregazioaren eskumeen arazoa zegoelako[373]. Hori zela eta arin ibili ziren etxea bilatzen eta berehala ikusiko dugunez zenbait aukerabide izan ziren.

Markinako komentuaren Berreraikuntzaren urrats berri eta behin betiko honetan, eginkizuna burubidera eramango zuten bi pertsonaia garrantzitsu ageri dira: Domingo de S.Jose, Ordenako Aita Jenerala, kualitate handiko gizona, arazo larrien artean bidea egiten trebea eta eskuhartze hain eraginkorra izan zuen Aita Pedro José de Jesús María markinarra. Aurreko protagonistek, Aita Manuelek eta Gaytan Konte Jaunak lanean jarraitu zuten, beste laguntzaile batzurekin batera.

a. **Aita Maldonado eta arazo juridikoa**

aa. *Aita Santuaren laguntza*

Aipatu dugu Aita Manueli berreraikuntza ahaleginetan sortu zitzaion arazoa: hain zuzen ere bi Karmeldar Kongregazio, batak bestearen eskumen eremuan eskurik ez sartzeko debekua izatea; honetan oinarritu zen Espainiako Karmeldar esklaustratuen Aita Santuaren Komisari zen Aita Maldonado, asmo oneko gizona eta Jainkoaren eta Ordenaren benetako maitalea izan arren, ikuspegi teoriko-juridikoak hain ongi ezagutzen ez zituen Aita Manuel de S. Teresaren ahaleginei oztopoak jartzeko.

Domingo de S.Jose, Aita Jeneralak zuzen-zuzenean parte hartu zuen Berreraikuntza bideko bigarren eta behin betiko epealdi honetan, lehen eta behin eragozpenak kentzeko ihardunean arituz.

Aita Domingok Erret Dekretua Erroman izan zuenean, elkarrikusketa eskatu zion Pio IX.ari, berehala eman ziolarik. Aita Santuari Karmeldarren Berreraikuntzari Espainian hasiera emateko aukera azaldu zion eta zer nolako oztopoa zen 1600.ean Klemente VIII.ak emandako Bulda adierazi, irtenbideren bat eskatuz. Aita Pedro Josek honela kontatzen digu Aita Santuak elkarrikusketa horretan emaniko erantzuna: «Aita Santuak, legeei dagokienean beste Aita Santu batek agindua indargabetzeko ahalmena zuela erantzun zion; Espainian fundazio bat egiteko ahalmena emango ziola hitz eman eta lehenbailehen nazio hartarantz irten eta fundazioa egitera animatu zuen»[374].

Egiatan, Aita Santuak laster bete zuen hitza, 1868.eko Ekainaren 5ean Ezohizko Eliz Arazoetarako Kongregazio Santuaren bidez Erreskriptu bat argitaratzeko aginduz, bertan Italiako Kongregazioko Aita Jeneralari ahalmena ematen ziola, 1600.eko Klementeren bulda oztopo izan gabe, Espainiko erreinuetan Kuba Irlarako beraren Or-

[373] BAS, 20 /C.

[374] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 59.orr.; ik., era berean, BAS, 139/F. P. MANUEL DE S.TERESA, *Notas...*, 12.orr.

denako misiolarien ikastetxe bat eraikitzeko, horrela Aita Santuaren Komisari zen Aita Maldonadoren agintaritza eta eskumenetik kanpo uzten zuela, Aulki Santuak beste zerbait erabakitzen zuen arte[375].

Lau egun barru, ekainaren 9an, Aita Jeneralak Aita Santuaren erreskriptuaren berri ona jakinerazten zion Konde Jnari maitasunez beteriko gutun batetan Lazkaoko komentuan ezin bazen besteren bat bilatu beharko zela jakineraziz: «Bihotzez aditzera eman nahi dizut nire esker ona eta onespena arantzez beteriko arazo honetan egin duzun lan izugarriagatik. Aurrerantzean ere fundazioa burutu ahal izateko niri babesa eta laguntza ematen jarraituko duzula itxaroten dut. Lazkaoko komentua emango baligute, nik laster jarriko nuke bertan Frantzian dauden sei espainiar apaizek eta anaia ez-mezako batzuk osoturiko komunitatea. Komentu horren patroiak ezezkoa ematen jarraitzen badu, urratsak eman beharko dira beste leku berri bat lortzeko. Ni Frantziarantz datorren uztailean aterako naiz eta orduan ikusiko dugu nola burutu fundazio hori»[376]. Hil bereko 15ean Aita Pedro José de Jesús María markinarrak idatzi zion pozez gainezka Gaytan Jnari berri bera emanez eta berreraikuntzari hasiera emateko Markinako komentuaren berri emanez[377].

bb. *Aita Maldonadoren oztopoa eta ondorioak*

Espainian fundazioa egitearen aldeko Vatikano-ko erreskriptua lortu eta zazpi egun barru, hau da, ekainaren 12an, seguraski Aita Maldonadok oraindik ez zuela ezagutzen, Aita Domingo de S. Jose Jeneralari idatzi zion Erret Dekretua lortzeagatik neurri batetako atsegina erakutsiz baina oraindik Aita Manuelek lortutakoa zelako kexak zituela: «Sea Dios bendito. La 1ra piedra está ya colocada. Lo demás vendrá por sus pasos contados, si la prudencia bien entendida y aplicada nos dirige, y si un celo precipitado y no muy caritativo como el del P. fr. Manuel del Smo. no viene a colocar piedras en el camino»[378].

Aita Jeneralak berak, fintasun eta jatortasunez jakinerazi zion Aita Maldonadori Aita Santuarekin izandako elkarrikusketa eta azken erreskriptua[379].

Aita Maldonadoren jokaera ez zen bat ere jatorra izan: ministeritzetara jo zuen eta 1868.eko ekainaren 5eko erreskriptua gaizki ulertuz Aita Domingo de S. Jose Italiako Kongregazioko Jeneralak Espainiako Karmeldarren Kongregazioa hil eta Santa Teresaren Ordena osoaren buru, 1600.eko Klemente VIII.aren buldak zioenaren eta Espainiako Erregeen eskubideen aurka, bera bakarrik geratu gura zuela Ministrariei buruetan sartu nahiean.

---

[375] MKA, B-I-3; BAS, 26 /P: P. VICTORIANO(?), *Notas...*, 30-31.orr.
[376] *Correspondencia...*, 30.zk.
[377] *Correspondencia...*, 29.zk.
[378] BAS, 26 /P. lk., era berean, BAS, 26/P: Aita Maldonadok Aita Domingo de S. José Jeneralari 1868-V-16an eginiko gutuna.
[379] *Correspondencia...*, 35.zk.

Azken argudio hau arriskugarria gerta zitekeen: Gobernuek oso berekoiak izaten baitira beraiei dagozkien eskubideen alorrean; hemen Aita Maldonadok bat egiten zuen erregezaleen jokaerekin.

Egiatan txarrera bultzatu zuen egoera, Gaytan Kondeak Aita Manueli ekainaren 20an eginiko gutunean ikus daitekeen bezala; Gobernuak kezkagarritzat jo baitzuen Klemente VIII.aren Konstituzioa indargabetzea eta beraien eritzia eskatu zien Ordena guztietako Probintzialei: «Anoche estuve en el ministerio de Ultramar a despedirme de mi amigo Nacarino Bravo, Director de Negocios Eclesiásticos de Ultramar, y me dijo que era muy grave la derogación de la Constitución de Clemente VIII y que el Gobierno tenía que meditar mucho»... «Yo le hice muchas observaciones y como es buen amigo y religioso se calmó; pero no estoy tranquilo. Me sospecho que de los Padres de España hay alguna reclamación; pues el negocio ha pasado al Consejo de Estado y se han pedido consultas a todos los Provinciales de otras Ordenes religiosas... He hablado con el Sr. Nuncio y de conformidad con él salgo mañana para Vitoria a hablar con el Sr.Obispo y tratar del mejor modo de que cuanto antes se haga la fundación. El Sr. Nacarino me prometió que tan pronto como se tubiera un convento, él daría la orden para abrir la casa»[380].

Horrela, Gaytan Jnak berria eman zion Gasteizeko apezpikuari, hau laguntzeko gertu agertu zela[381]. Aita Domingok, Ministeritzetan aurkakotasuna sortzeko erreskriptuari eman nahi zitzaion ulerkuntzaz zurt eginda, Gaytan Kondeari idatzi zion ekainaren 28an. Bertan Aita Santuak ez zuela orokorrean Klemente VIII.aren Bulda indargabetzen esan zion; alderantziz baino, Gobernuak onartutako fundazioa ahalbideratzeko zen salbuespena ezartzen zuen, gainerako etxeak Espainiako Kongregazioaren menpe jarraituko zutela: «La tormenta que de nuevo se ha levantado contra nuestra religiosa empresa no puede tener origen sino de un error sobre la derogación de la Bula de Clemente VIII. El S.Padre no ha derogado dicha Bula absolutamente ni generalmente. El P. Comisario Apostólico sigue siempre con su jurisdición en España: el Santo Padre sólamente ha derogado lo que era necesario para corresponder al decreto de S.M.C.S. Magestad me da facultad para fundar un Colegio de Misiones en España, yo no podía ejecutar dicha fundación sin tener la juridicción sobre dicho Colegio, ha derogado en esta parte la Bula, dejándola en todo vigor en lo demás. De manera que S. Santidad no ha echo otra cosa que quitar un obstáculo particular que impedía la ejecución del decreto de S.M., y no sé cómo de esto puedan lamentarse en el Consejo, habiendo ellos mismos concedido a mí la facultad dicha. Sería bueno que se diese esta explicación al Sr. Nacarino Bravo y a los consejeros, pues no pueden impedir la fundación sin contradecirse a sí mismos»[382].

Aita Pedro Josek adiera berdina eman zion Gaytan Jnari: horrela, Berreraikuntza egiteko komentu bakar bat geratzen zen Aita Santuaren Komisariaren eskumenetik kanpo eta, ondorioz, ez zen desegiten Espainiako Kongregazioa[383].

---

[380] BAS, 20/C, (3.kuadernoa).
[381] *Correspondencia...*, 32.zk.
[382] *Correspondencia...*, 46.zk.
[383] *Correspondencia...*, 41.zk., 1868-VI-29ko gutuna.

Azkenean, sen onak eta zuzenbideak bidea egin zuten ministeritzetan Aita Maldonadoren ulerkuntza okerra deseginez. Baina, presa-presakoa komentuaren fundazioa egitea zen; toki konkretuak ez zuen garrantzirik.

b. **Etxe bila**

Valmedianoko markesak azken orduan Lazkaoko komentua uzteari ezezkoa eman ez bazion, berehalaxe egingo zen bertan berreraikuntza. Baina orain, protagonistek komentu bila zihardute...; laster izan ziren ahalbide batzu esku artean.

aa. *Gaytan Kontearen etxe bat*

Egoera hain larria eta presakoa izanik Konde Jna bera aurreratu zen bere etxe bat eskaintzera, Aita Manuelek eskerrak eman zizkiola[384]. Markinan edo Avila-n egiteko ahalbideak atzeratzen baziren fundazioa egiteko aukera eskainiko zuen Kondearen jabepeko etxalde bat zen[385]; etxea Bergaran zegoen[386].

bb. *Avila, Burgos, Larrea eta Markinan egiteko ahalbideei buruzko eritziak*

Bilaketa horretan, irtenbiderik errazena zuten ahalbideak hartu ziren kontutan, hau da, kanporatutako karmeldar batzu ofizialtasunik gabe bizi zireneko komentuak, hain zuzen ere, Avila, Burgos, Larrea edota Markinakoak. Protagonista eta interesdunen artean benetako eztabaida zabala izan zuten.

Aita Manuel de Santa Teresa izan zen Lazkaoko bere komentuaren ordezkoa bilatzen saiatu zen lehena eta 1868.eko maiatzaren 16ko gutunean, Burgoseko moja karmeldarren kaperau zen Aita Pedro Goiri-ri Larrea eta Markinako etxeei buruzko informazioa eskatu zion. Maiatzaren 25ean jaso zuen Aita Goiriren erantzun interesgarria; oso balio handikoa delako ia oso-osorik eskaintzen dugu jarraian: «Atsegin handiz irakurri ditut hil honetako 16an idatzi didazun gutun ederra eta Kubako gure lurraldeetarako Karmeldar Misiolarien Komentu edo Ikastetxea ezartzea Aita Domingo-ri baimentzen dion Erret Dekretuaren kopia. Honako hau erabaki oso garrantzitsua da Espainiako Karmeldar Oinuts osorako, Nagusiek, ekar ditzakeen onura guztiak ateratzen jakin ezkero. Iraultzak indarrik handiena izan zuenean ere errespetatu egin zituen Misiolarien Ikastetxeak eta hauek ez ziren kenduak izan gainerako komentuak itxiak izaterakoan. Aita Maldonadok nire lagun den Frai Jose Zarrabe karmeldarrari idatzi zion dekretu horren berri emanez, baina ez zuen esaten Aita

---

[384] *Correspondencia...*, 23.zk., 1868-V-6ko gutuna.
[385] *Correspondencia...*, 31.zk., Kondeak Aita Domingori 1868-VI-19an eginiko gutuna.
[386] BAS, 20 /C, Aita Pedro Josek Aita Manueli 1868-V-26an eginiko gutuna.

Domingoren alde emana izan zenik, alderantziz, bere lan eta eginbideei esker lortutako zerbait zela suposatzen zuen. Aita Domingori idatzi ziola honetaz eta zer erabakitzen zuen itxaroten zegoela. Bihotzez nahi izan eta hala eskatzen diot Jaunari bien artean arazo interesgarri hau batasunean eta adiskidetasunean konpon dezaten, baina, Jainkoak ez bedi halakorik gertatzea, egitearen aurkako eragozpenak jartzen hasiko balitz, beharrezkoa da oztopoak oztopo burutzea. Jainkoaren aintzarako eta arimen salbamenerako izango den eginkizun honek aldeko ugari eta apezpiku zein herrien babesa izango duela itxaroten dut eta egin ondoren ez dela bokaziorik faltako.

Gure Markinako komentua, oraindik egoera onean dago, konponketa batzu beharko baditu ere, bertan gaur egun umeen eskola bat dagoelako eta alde bat ospitale zereginetako erabiltzen delako eta beste bat goardia zibilek dutelako. Bertan bizi da, era berean, gure erlijioso bat ere, Karmeldarren Probintziako elizarik ederrena dena zainduz. Larreako komentuan 11 urte hauetan 5 edo 6 erlijioso ditugu; bertako jabea, komentua eta ortua eta guztia erlijiosoei eman dien Bilboko Jaun jainkozale bat da. Eta azkenik, hemen dago Burgos-ekoa, zeuk ikusi zenuenez agintari zibilen eta elizakoen eta herri osoaren begirunea duela. Artzapezpikua Karmeldar Oinuts baten antzerakoa da. Hala ere, egin nahi den komentua Euskal Herrian jartzerik baldin bada hobe, iraultzarik izanez gero, fraideek han askozaz ere babes handiago izango dutelako»[387].

Aita Pedro Goirik, geroago, ekainaren 21eko gutunean berriro adierazi zituen bere eritziak: egoera onean dagoen Larreako komentua lor daiteke, eta bertako buru den Aita Julian berreraikuntza egiteko gogoz beterik dago. Gainera, Burgos-ekoa baino askozaz errazago lor daiteke, hemengoak 60 gela baino gehiago eduki eta Artzapezpikuak hiri honetan Karmelo-ko berreraikuntza egiteko gogo bizia duen arren[388].

Konde Jnak, beharrezkoa izanez gero berehala bere jabegopeko etxalde bat eskaintzeaz gainera ekainaren 19an idatzi zion Domingo de S.Jose Aita Jeneralari, Markinako komentua erabiltzea pentsatzen zuela, baina gobernuarena zenez, behar bada, aldi luzea iragan beharko zela lortu aurretik eta Avila-ko apezpikuak komenturen bat eskaini zezakeela, baina, denbora beharko zela jakineraziz[389]. Eta hurrengo egunean, 20 idatzi zion Aita Jeneralak, fundazioa Euskal Herrian egiterik ezbazegoen Avila-ko apezpikuarengana joteko esanez[390].

Baina, buru-belarri, berehala Markinako komentuaren alde jokatu zuena, bertako seme zen Aita Pedro José de Jesús María izan zen: horrela erantzun zion Aita Manuel de Santa Teresa fraidekideari maiatzaren 26an: «atsegin handiz hartu nuen zure gutun preziatua, baina bagenuen fundazioaren berria Santiago-ko Markes andereak emanda. Zuk Larrea eta Markinako komentuei buruz galdetzen didazunari erantzuteko, da-

[387] BAS, 20 /C. Aita Manuelek erantzun honen edukina 1868.eko maiatzaren 26an jakinerazi zion Gaytan kondeari; *Correspondencia...*, 26.zk.
[388] BAS, 20/C.
[389] *Correspondencia...*, 31.zk.
[390] BAS, 20 /C.

kidana esango dizut. Markinako komentua oso atsegina da; eliza, ortua eta komentua egoera hobezinean daude eta diru gutxi erabiliz konpondu daitezke falta diren holtzak eta gainerakoak. Ortua, nik oso ongi ezagutzen dudan Peñaflorida-ko Kondeak erosi zuen eta gertu dago etortzen direnean erlijiosoei emateko. Eliza eta komentua ez ziren saldu; azkenan Hiriak Gramatika-gela eta ospitale gisa erabili zuen; baina, Hiriak karmeldarrak eta komentua bihotzez maite izanik, ez zuen saltzerik nahi izan eta gobernuari beraien beharrizana zuela esan zion; beraz, Gobernuarena da eta orain Gobernuari etxea aurkitu dela eta Markinakoa dela esanik konponduta egongo da arazo osoa; Hiriak kendu egingo lituzke ikasgela eta ospitalea; beharrezkoa izango balitz neu arduratuko nintzateke udalean bideak gertatzen eta ziur nago mundu osoa alde izango dugula eta zuk bisitatu zenuen Gasteizeko apezpikua poztu egingo litzateke. Markina, Hiri txiki garrantzitsua eta baliabideduna da; oso jende jatorra bizi da bertan eta benetako eta egiazko on ugari egin daiteke bertan; uste dut Larrea baino hobea dela; Larrea, gainera, beti izango dugu, gaur egun, beren eskuetan duten erlijiosoei ematen dien markes batena delako eta Markinakoa, aldiz, Gobernuarena da eta abagadune hau erabili behar da eta horrela bi komentu izango ditugu, Larreakoa eta Markinakoa eta batean Karmeldar jantzia erabiltzea baimendu ezkero bestean ere eramango lukete. Villafranca-ko Kondeak Bergara ondoan eskaintzen dizuna kapera edo antzeko bat da, nik ez nuke hartuko zure postuan banengo, alderantziz, ahalegin guztiak egingo nituzke zeru eta lurrak astinduz ikuspegi guztietatik hain atsegina den Markinako komentua eskuratzen; eliza, barriz, jende ugarikoa eta ederra da»[391].

Bera izan zen urak errotara eraman zituena. Lehenego Aita Manueli idatzi bazion ere, hurrengo hilean, 1868.eko ekainaren 15ean, Konde Jnari idatziko zion Markinarren aldeko gogo onei buruz: «jakinerazi egin behar dizut Markinako udalak, Lazkaoko komentua eskuratzeko Valmedianoko Markes Jnak eragozpen batzu jartzen dituela entzunez, gogo bizia agertzen du fundazio horretarako Markinako komentua aukeratua izan dadin eta hori lortzeko eman behar diren urratsen berri emateko erregutzen du, horretarako egin beharrekoak egiteko gertu dela»... «Zure gain duzu arazo osoa, zutaz mintzatzen baita Aita Domingo Jenerala, pertsonalki ondo ezagutzen duen Markinako komentua erlijiosoentzat oso atsegina eta erosotasun handikoa, esaterako, ura, ikuspegia etab., etab. dituena delako, aukeratzea ere pentsatu duela esanez. Zuk udalarekin ezer bideratu nahi baduzu nahi duzuna egingo dut, edo zuzenean egin dezakezu, hona egin zenuen azken bisitaldian ikusi zenuen Francisco de Alcorta nire anaia udalekoa baita eta ahal duen guztia egingo du»[392].

Eta egun batzu geroago, ekainaren 21ean, Aita Domingo de S. Jose Jeneralari zuzendutako batetan, Markinako komentuaren aukeraketa defendatzen zuen: «Udalaren asmoak ongi ezaguturik, herrialdean ahaltsua eta asko maite gaituen pertsona ona den Peñaflorida-ko Kondearenak ere jakin nahi izan nituen. Honek eta konde zen bere anaia nagusiak erosi zuten ortua. Zuk ikusiko duzu zer diozun batari zein besteari buruz; eta oraingo udalarekin nahi dena lor daiteke. Ziur nago ortua, 'tot ou

[391] BAS, 20 /C.
[392] *Correspondencia...*, 29.zk.; Aita Pedro Josek Gaytan kondeari eginiko gutuna.

tard', osorik emango digula oraingo Konde honek ez duelako familiarik eta adinekoa delako; oso jainkozalea da eta beraren emaztea oraindik gehiago. Etxekoandre honek jagoten du elizako kultua eta gastu handiak egiten beharrezkorik denean»[393].

Ordurako argi ikusten zuen Aita Manuelek berreraikuntzarako tokirik aproposena Markinako komentua zela eta horrela jakinerazten zion ekainaren 21ean Aita Domingo de S. Jose Jeneralari: «Markinako komentuaren alde saiatu behar dugu»[394].

c. **Lehen kudeaketak Markinako Karmengo komentuaren alde**

Kondeak bide errazagoa ikusirik Markinako komentuan, Aita Pedro Jose Bordeleko Prioreari komentuaren aurkitzen zen egoerari buruz galdetzen zion; eta Aita Karmeldarrak ekainaren 22an erantzun zion: «fundaziorako lokalari buruz esaten didazunari erantzunez, aldi baterako Gobernuak Markinako hiriari emana izan zen eta gaur egun zenbait zerbitzutarako erabilia den gure komentua behin betirako eman dezake Maiestate Gorenak agindutako fundazio berria ezartzeko, hiriko udalak gogo biziz Aita Karmeldarren etorrera eskatzen baitihardu eta nahi den helburua lortzeko beharrezkotzat jo dadin edota jakineraz diezaiogun edozein eginbiderako eskaini baitu bere laguntza. Peñaflorida-ko Konteari idatzi diot eta, egiatan udala fundazioaren alde bere esku dagoen ezozer egiteko gertu dagoela erantzun dit»[395].

Villafranca-ko Kondeak Markinako udaleko zinegotzia zen Francisco Alcorta, Aita Pedro Jose-ren anaiari idatzi zion udalari Karmengo komentua eskatzeko esanez; horrela zion Aita Pedro Joseri ekainaren 23ko gutunean, arazoa hain larria izanik, Andra Maria eta Santa fundatzaileari erregu egiteko eta fundazioa nahitaez Aita Santuak berreraikitako bidetik egin behar zela esanez: «Ya el P.General tiene los religiosos prontos para vivir, y el señor Nuncio y señor Obispo nos protegen. Cuando su hermano de V. me remita la escritura de cesión del convento a favor del P.Fr.Domingo, yo escribiré a Madrid para que envíen la orden y se abra el convento. Se necesita que ustedes pidan a Dios y a su Madre Santísima, sin olvidarse de la Santa Reformadora, que nos asista en este espinoso asunto»... «Es importantísimo, y hasta esencial, que el primer convento se funde bajo la base dictada por su Santidad, porque sobre ella se han de fundar los conventos que vengan. Digo a V. francamente, que prefiero que no funden a que estén basados en antiguos fundamentos»...[396].

Aita Pedro Josek, Markinako komentua eskuratzeko emaniko lehen urratsen berri eman ziola, lehenbailehen eta Markinan egitea komeni zela jakineraziz, Aita Jeneralari idatzi zion eta ziur zegoela Udalak bere onespena emango zuela esanez eta alkatea aldekoa eta adiskide handia zuela erantsiz; baina, komentua uztea lortu ondoren, Gaytan Konde Jnak Madrilen zituen adiskideen bidez baimena lehenbailehen

---

[393] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 68.orr.
[394] *BAS, 20 /C.*
[395] *Correspondencia...*, 33.zk.
[396] *BAS,20 /C.*; SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 68-69.orr..

lortzen saiatu beharko zuela[397]. Aita Manuelek, Lyon-dik baimena eskatu zion Aita Jeneralari Espainiara itzuli eta komentua lortzeko beharrezko eginbideak burutzeko[398].

Kondeak, bestalde, bidek irekitzen zihariduen; eta horretarako idatzi zion Markinan aurkitzen zen Peñaflorida-ko kondeari; honek, era berean, udala berreraikuntzaren alde jartzeko eragina egin zuen[399]. Bitartean bere adiskide zen José Nacarino Jnari egin zion kontsulta Markinako Karmengo komentua eta eliza lortu ahal izateko eginbideei buruz. Nacarino Jnak ekainaren 28an erantzun zion eman beharreko urratsak argituz: elizaren eta abarren jabeek uzte-eskriturak egin behar zituztela eta agiriak hartuz ministeritzara aurkeztu, irekitzeko baimena eskatuz[400].

Kondeak uztailaren 3an berriro egin zion kontsulta, ea herriko eskribauak udalaren aurrean udal korporazioak Aita Domingo de San José eta Aita Pedro Joseren alde komentua uztearen eskritura publikoa egiletsi zezakeen galdutuz[401]. Nacarino Jnak biharamunean erantzun zion eman behar zituen urratsak argiro eta zehazkiro azalduz,hain zuzen ere, eliza eta komentua erabiltzeko Apezpikuaren eta udalaren baimenak eta ikastetxea ingurukoentzat oso onuragarria izango zela esanez eginiko txostenak aurkezteko gomendatuz: «1.° Que los Padres Carmelitas pidan dicho convento o iglesia al Sr. Obispo; lo uno y lo otro al ayuntamiento. 2.° Que el Ayuntamiento, dándose por enterado de la pretensión de los PP. en sesión, acepten el pensamiento, y con certificación del acta, elevar una exposición a Su Majestad por el Ministerio de Hacienda para que le permitan hacer uso para el convento, debiendo advertirle, que en dicha exposición debe hablarse mucho de las ventajas a la villa por el establecimeinto del Colegio, etc., etc.»)[402].

Aholku hauek kontutan hartuz Kondeak trebetasun handiz jokatu zuen hilabete t'erdian eginbide guztiak amaitu zituela. Bere aldetik Markinako udalak ekainaren 28ko batzarraldian, guztiak ahobatez uzte-eskrituraren alde atera zirelarik, komunitatea inoiz hustuko balitz hiriak komentua uzketa aurreko egoera berberean berreskuratuko zuela erabaki zuen: «todos unánimes acordaron que se otorgara una escritura de cesión de los derechos que esta villa tubiese en el convento del Carmen de la misma como patrona y propietaria, a favor del Reverendo padre fray Domingo de San José, y en falta de éste a Fray Pedro José de Jesús María y que después de los días de estos pase a los Padres Carmelitas que formen el Convento del Carmen, y caso de que se extinga dicha comunidad la villa quedará con los mismos derechos que tenía antes de verificarse esta cesión»[403]. José Sodupe alkateak eta Pedro A. de Garamendi idazkariak sinatu zuten.

---

[397] *Correspondencia...*, 34.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-VI-25ean eginiko gutuna.
[398] *Correspondencia...*, 35.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1868-VI-24ean eginiko gutuna.
[399] *Correspondencia...*, 38.zk., Victor jaunak Gaytan kondeari 1868-VI-28an eginiko gutuna.
[400] *Correspondencia...*, 40.zk.
[401] *Correspondencia...*, 44.zk.
[402] *Correspondencia...*, 47.zk., 1868-VII-4eko gutuna.
[403] MUA, *Libro de acuerdos..., 1859-1876*, (MKA, A-I-107).

Bestalde, Erroman 1868.eko ekainaren 15ean atera zen Aita Santuaren erreskriptua, beraren arabera Erromako Aita Jeneralak Misioetarako Ikastetxe zeregin etarako Markinako komentua hartzen zuela.

d. Aita Jeneralaren etorrera eta fundazioa egin arteko azken kudeaketak

aa. *Aita Domingoren etorrera*

Egunerik egunera beharrezkoagoa egiten zen Aita Domingo de San Jose Jeneralaren etorrera eta geroago eta gogo handiagoz itxaroten zen. Etorrera honen zai zeuden beste hiru protagonistak, hots, Gaytan kondea eta Aita Manuel eta Aita Pedro Jose.

Horrela iragartzen zuen Aita Manuelek (oraindik Lyon-en) uztailaren 4ean, Montpellier-era helduko zela jakineraziz, Aita Jeneralak ekainaren 26an bidalitako telegrama hartu bait zuen[404].

Aita Jeneralak berak jakinerazi zion ekainaren 28an Gaytan Kondeari eta fundazioa Larrean ere egin zitekeen kontua aipatuz: «Beranduen uztailaren 15ean zu Bergaran bisitatzeko kontsolamendu handia izatea itxaroten dut eta baliabide guztiak erabiliko ditugu. Larrean, Zornotza ondoko gure komentuaren Patroiak baimena eta ortua eman dizkie gure erlijiosoei bertan bizitzeko eta 4 edo 5 erlijioso daude eta jabeak sentimendu onak ditu. Patroi honek ikastetxea bertan ezartzeko baimena emango baligu, errazena izango litzateke; nik nahiago nuke Markina, baina atzeratzeko arriskurik balego eta Larreako komentua emango baligute ahalik eta lasterren hartuko nuke. Berorrek ni Bergarara heldu orduko zer egin ikusi eta Gasteizeko Apezpikuarekin ere tratatuko balu, erraztu egingo litzateke arazoa. Nik ez dakit nor den ez eta non bizi den Patroia.

Datorren asteazkenean irten nahi nuke Erromatik, baina ez dakit asteartean Aita Santua agurtu ahal izango dudan; dena dela, Jainkoa lagun datorren igandean, uztailaren 5ean, arratsaldean aterako naiz. Beraz, Berorrek jakinerazteko ezer izango balu, gutuna Bordelera bidal diezadake; Bordeletik abisatuko dizut noiz joango natzaizun Bergarara»; eta, era berean, Nuntzioari Aita Santuaren erreskriptuaren adiera azaltzeko eskatzen zion[405].

Hain zuzen ere, Aita Domingo uztailaren hasieran atera zen Erromatik, ikustaldi kanonikoa Frantziako komentuei egiteko asmoz; baina, bidaia erabili nahi izan zuen Espainiako Berreraikuntza arazoa bideratzeko. Hauxe zen Aita Pedro José de Jesús María Bordeleko Prioreak ekainaren 30eko gutunean Gaytan Kondeari jakinerazten ziona; berehala joan zen Aita Domingo Espainiarantz Bordeletik zehar Frantziako komentuen ikustaldia gerorako utziz[406].

---

[404] *Correspondencia...*, 39.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1868-VI-27an eginiko gutuna.
[405] *Correspondencia...*, 46.zk.
[406] *Correspondencia...*, 42.zk.

Montpellier-era uztailaren 3an heldu zen; 6an Bordelen aurkitzen zen. 7an bildurik aurkitzen ziren Espainiarantz irteteko Aita Pedro José de Jesús María (Bordeleko priorea), Aita Manuel de S. Teresa (Lyon-go nobizen maisua) eta Erromatik Aita Jeneralari laguntzen zetorren anaia bat[407].

Aita Manuel bakarrik irten zen Donostiarantz 7an eta beste hirurak biharamunean; Zumarragatik iragateko asmoa zuten lehenbailehen Markinara heltzeko[408]. Zumarragan itxaron zien Aita Pedro Goiri-k (Burgosen bizi zen) Bergarara lagun egin ziela[409]. Eta, handia izan bazen Aita Jeneralak Gipuzkoako lurrak zapaltzean hartutako poza ez zen txikiagoa izan Candido Gaytan Villafranca-ko Konde Jn. adiskide eta onegile beneragarriarekin izandako elkarrikusketa. Karmeldar taldea begikotasun handiz hartu zuen Kondearen familia kristau eta patriarkar hark Bergaran. Biak, kondeak eta Aita Jenaralak, sentimendu eta helburu berdinak zituztela, eman beharreko urratsak zehaztu zituzten; eta hoberena eta egokiena Markinako fundazioa zela ikusi zuten argiro.

bb. *Kudeaketak Gasteizen eta Markinan*

Aita Jenerala oraindik Frantzian aurkitzen zela, aurrea hartu zion Markinako udalak eta uztailaren 2ko ezohizko batzarraldian, Karmeldarrak Karmengo komentuan ezartzea bertako hiriarentzat eta inguruko herrientzat interes larrikoa zela uste izanik, hiriak irtenbidea bilatuko zien bertako zerbitzuei (eskola berriak egin ondoren eta ospitalea komentutik ateratzeko unean zela), komentu osoa beraren eskubideekin Aita Frai Domingo de S. Jose karmeldarren Jeneralari edo beraren faltan Aita Pedro José de Jesús María karmeldarrari eta bi hauen faltan komentuko komunitateari uztea erabakiz[410].

Aita Jeneralak bidaia egiten jarraitu zuen, Bergaratik Gasteizera joanez Aita Pedro José lagun zuela, Diego Mariano Apezpikua agurtu eta Markinako fundaziorako baimena eskatzeko; berehala eman zion baimen hori: «Autorizado V.Rma. para abrir Colegio de Misiones con destino a Ultramar por Real orden de 7 de mayo pasado, y habiendo obtenido la cesión del edificio-convento que fue de Carmelitas Descalzos en la Villa de Marquina, Señorío de Vizcaya, en este obispado, presto toda mi conformidad canónica para que se realice dicha fundación, y cedo la iglesia de dicho convento que se halla abierta al culto público para todos los fines que convengan a la nueva comunidad.

---

[407] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 12.orr.: BAS, 26 /P (MKA, A-I-279); *Correspondencia...*, 49.zk., Aita Pedro Josek Kondeari 1868-VII-7an eginiko gutuna.

[408] *Correspondencia...*, 49.zk.,Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-VII-7an eginiko gutuna.

[409] *Correspondencia...*, 110.zk., Aita José María de S. Luis Gonzaga fraideak Kondeari 1869-VII-9an eginiko gutuna.

[410] MUA, *Libro de acuerdos..., 1859-1876*, (MKA, A-I-108), José Sodupe alkateak eta Pedro A. de Garamendi idazkariak sinatzen dute. Ik. *Correspondencia...*, 67.zk.

Dios guarde a V.Rma. muchos años.
Vitoria, 10 de julio de 1868.

Diego Mariano, Obispo de Vitoria»[411]

Atzeramendurik gabe, baimena eskuetan zuela, Markinarantz atera zen eta maitzaren 11an errespetu handiz eskaria egin zion Aita Domingo de S. Jose Jeneralak udalari Karmengo komentua eskatuz. Izan ere, beharrezkoa zen udal hori bitarteko zela Ogasuneko Ministeritzari azalpen bat egitea. Egun berean berronetsi zuen Udalak 2an hartutako erabakia eta ezohizko batzarraldian Aita Jeneralak nahi zuen eskaria Ogasuneko Ministeritzari egitea erabaki zuen; honela irakurtzen da aktetan: «Abierta la discusión por el señor Presidente, fue acogido con estusiasmo el pensamiento de creación del Colegio de Misioneros para Ultramar en el convento de Carmelitas de esta villa, cuyo uso tiene dos objetos, y considerando que la escuela de instrucción primaria tiene trasladada el Ayuntamiento al mágnifico edificio que hace años construyó; considerando, además, que el hospital, aunque sea superando mil obstáculos, puede colocar en uno de los departamentos del edificio que fue cárcel de este Juzgado suprimido, unánimente inspirados de los inapreciables beneficios, ya en el orden material, como en otros conceptos de importancia, ha de reportar el establecimiento de dicha comunidad al Valle de Marquina, al Señorío de Vizcaya, y toda la nación, como a las provincias de Ultramar, acordaron la alta conveniencia de ceder el uso del convento al Reberendo Padre Fray Domingo de San José, con el saludable fin de que pueda plantear su pensamiento; y a fin de coadyudar eficazmente, como el proyecto aconseja, elevar una reverente exposición al Gobierno de S.M.»[412].

Ezohizko batzarraldi hartan honako hauek izan ziren: Domingo de Zuluaga, Alkateorde batzarburuak; José Román de Urquieta, Juan José de Aranceta eta Francisco de Aramburu erregidoreak; (Francisco Alcorta zindikoa ez zen egon kanpotik zelako); zergaordaintzaile handienak zirelako, ohituren arabera batzarraldiak behar zuen bezala, honako Jaunok: Victor de Munibe, Peñaflorida-ko Konde Jna, Román Pedro Gabiola, José Joaquín de Goenechea, Estanislao Montejo, José de Onaindia, Manuel Gogeascoechea, Juan Antonio de Bermeosolo, José María Olasolo eta Blas Barroetabeña. Manuel Gogeascoechea Jna eta Pedro A. de Garamendi udaleko idazkaria arduratu ziren ekainaren 12an Maiestate Gorenari azalpena idazteko, Victor Peñaflorida-ko Konde Jnak Candido Gaytan Villafranca-ko Konde Jnari jakinerazi zion bezala: «erabakitakoaren arabera idatziko dute beti komentuaren gozamena hiriari ematen zion maiatzeko Erret Aginduari aipamen eginez; eta Probintzia honetako Gobernadoreari bidalduko diote»[413].

---

[411] MKA, B-VIII-5.

[412] MUA, *Libro de acuerdos..., 1859-1876*, (MKA, E-I-31); ik., era berean; MKA, A-I-113).

[413] *Correspondencia...*, 50.zk.,1868-VII-12ko gutuna. Eta biharamunean, 13an, Manuel de Gogeascoechea jaunak ere Gaytan Kondeari idatzi zion:" Ayer me habló el amigo Peñaflorida para que redactase la exposición encaminada al Excmo.Sr.Ministro de Hacienda, en el sentido convenido con U. y el R.P.Fray Domingo y quedó Garamendi en enviar[la] a U. hoy, con el acta de cesión del uso del convento. También he redactado una proposición, cuya copia incluyo. Lléva[la] al síndico de ésta., quien

13an Pedro A. de Garamendi Jnak Gaytan Kondeari Ogasuneko Ministrariarentzat adierazpena eta udalaren aktaren ziurtagiria bidali zizkion[414]. Eta 14ean beste adierazpen bat Gobernadore Jnaren bitartez[415]. Markinako Udalak Ogasuneko Ministrariari bidalitako ofizioan hiriko komentuan Karmeldarren Ikastetxea ezartzea onura handikoa izango zela esaten zion baimena emateko eskatuz:

«Exmo. Señor Ministro de Hacienda.

Exmo. Señor:

El Ayuntamiento de la Villa de Marquina, por medio del Teniente de Alcalde, por hallarse, su digno Alcalde Presidente, de apoderado en el Congreso Vizcayno só el árbol de Guernica, respetuosamente con la más distinguida consideración a V.E. expone: Que con ferbiente júvilo y entusiasmo acogió el loable pensamiento concevido por el R.P.Fr.Domingo de San José, Superior de la Orden Religiosa de la Congregación de Francia, de plantear en el Convento de su Orden de esta villa, un Colegio de Padres Misioneros con destino a Ultramar; proyecto, Exmo. Señor, en todas sus ramificaciones de tan alta importancia, de resultados a no dudarlo por cierto tan benéficos, ya en el orden moral, ya en el orden social, ya en el orden material, no sólo para el valle de Marquina, y para los hijos de este solar ilustre sí también para la Nación entera, consideraciones son que entrañadas en los sentimientos religiosos del País, le han impulsado al Ayuntamiento a renunciar el uso del convento que V.E. en su inata bondad vino a ceder en Real Orden de 6 de julio de 1845, a objeto de que este Ayuntamiento estableciera en él su escuela de instrucción primaria y el Hospital.

El Ayuntamiento hace años trasladó la escuela de instrucción primaria a un edificio, sin esageración el más suntuoso de la Provincia, que a sus espensas erigió de nueba planta con destino a enseñanza pública.

El Hospital se propone arreglar, aunque sea haciendo algunas obras, trasladando a uno de los departamentos del edificio que fue cárcel de este Juzgado suprimido o a otro adecuado al efecto. En consecuencia, a V.E. le ha de interesar esta Municipalidad a fin de que el R.P.Fr.Domingo de San José de conformidad con la Real Orden de 7 de mayo p.p. funde un Colegio de Padres Misioneros, en el convento de su Orden de esta Villa, con destino a Ultramar, cuyo ruego lo hace de la manera más encarecida en atención a los caros objetos que comprende.

Por lo tanto, suplica a V.E. rendidamente se sirva estimar lo consignado en el fondo de esta exposición.

El Ayuntamiento ruega al Todopoderoso para que conserve en multiplicados años la vida de V.E. para prosperidad de la Nación

---

dirá a U. desde Guernica algo de su resultado. Fuera bueno que U. escribiese al Sr. Gobernador, a fin de que la Ilma.Diputación estando Vizcaya en Juntas, hiciera la exposición al Gobierno de S.M.'' *Correspondencia...*, 51.zk.

[414] *Correspondencia...*, 53.zk.

[415] *Correspondencia...*, 54.zk.

Dios guarde a V.E. muchos años.

Marquina, 13 de julio de 1868»[416].

Egun beren Batzar Nagusiek Gernikan, bizkaitarren erlijio sentimenduak jasoten zituztela uste izanik, Diputazio Jeneralak Markinako komentuaren berreraikuntzan Karmeldarren aldeko adierazpena Maiestate Gorenari aurkez ziezaiola onartu zuen[417].

cc. *Madrilera. Azken kudeaketak*

Hala, bada, 13an, Aita Jenerala, Aita Pedro Jose lagun zuela, Madrilerantz atera zen. Burgos-en Aita Pedro Goiri-k 14ean Gaytan Kondearen eskutik hartutako beharrezko agiriak jaso zituen; eta 15ean goizez atera zen Burgos-etik[418].

Aita Jeneralak bidaia egiten zuen artean, Narciso Muñoz Bizkaiko Gobernadore Jnak, 15ean Konde Jnari beronen gutunak hartu zituela eta ahal zuen guztia egingo zuela alde jakinerazten zion; eta Ministrariari eginiko eskaera gomendio eta guzti zihoan Kondeak nahi izan zuen bezala[419]. Aita Manuel Markinan aurkitzen zen, bertatik animoak ematen zizkiola Kondeari, jende ugari eta eskapulario asko bananduz eginiko Karmengo eguneko jai ederra aipatuz[420].

Aita Jenerala 15eko 20,30etan heldu zen Madrilera. Berari lagun egiten zihoan Aita Pedro Josek Gaytan Kondeari zehaztasun guztiak emanez, Aita Jeneralak lehenengo egin nahi zuena Alejandro Franchi Nuntzioari ikustaldi bat egitea izan zela eta La Granja-ra joan zela; gaua Aita Pedro Jose-ren lehengusun baten etxean egin zuela; baina, aurrerantzean Cerila-ko Anderearen etxean, Atocha k/ko 30ean izango zuela ostatua jakinerazten zion uztailaren 26ko gutunean[421].

Horrela, 16an, Aita Jenerala Gobernuak uda iragaten zuen La Granja-n aurkitzen zen; oso ongi hartu zuen Nuntzioak; eta bertan egon zen 19ko iganderarte. Era honetan ematen zion berria Aita Pedro Josek Kondeari uztailaren 18ko gutuneko biharamunean, hau da, 19an: «Aita Jenerala noiz etorriko zain izan naiz gutun hau ixteko eta ez denez etorri gaurko igande honetako goizeko 8ak arte, hortik sortu da atzeramendua. La Granja-tik oso pozik etorri da; Nuntzioak oso ongi hartu eta ez omen zekien zer egin gure Aitaren alde; gutunak eman dizkio, besterik beste, José Nacarino Bravo jaunarentzat; Erreginarekin elkarrikustea izatea lortu dio hark gure Aita Jenerala *on*

[416] MUA, 29 Erregistroa, *Instancias*... 1761-1890, (MKA, A-I-32), Ministrariari bidali zionaren kopia.

[417] *Correspondencia*..., 52.zk.

[418] *Correspondencia*..., 56.zk., Aita Pedro Gorik Gaytan Kondeari 1868-VI-15ean aginiko gutuna.

[419] *Correspondencia*..., 57.zk., Narciso, Bizkaiko Gobernadore Jaunak Gaytan Kondeari 1868-VII-15ean eginiko gutuna.

[420] *Correspondencia*..., 58.zk.

[421] *Correspondencia*..., 59.zk.; 68.zk. Antonio Zarandonak Gaytan Kondeari 1868-VII-16an eginiko gutuna.

ne peut mieux, eskapularioan, eskuan mun eginez etab. hartu du. Maiestate Gorena Santa Teresagatik behar den guztia egiteko gertu omen dago»[422].

Iharduera ugari hauen ondorioz Aita Domingo ondoezik sentitu zen eta egun batzu ohean egin behar izan zituen. Bidaia luzeek eta hainbeste pertsonaia publiko zein pribatuekin eginiko etengabeko eginbideek, sortzen ziren eragozpenek, Italiako Kongregazioak Itsasoz-bestalderako Misiolarien Ikastetxearen fundazioa egitea irentsi ezin zuen Aita Maldonadoren aurkako jokaerak..., eragina egin zioten ohiz hain ona izaten ez zuen osasunean[423].

Aita Pedro Josek egoera oso zaila zela ikusirik, telegrama bat bidali zion Konde Jnari Bergarara hil bereko 21ean, 7,55.etan: «Aita Domingo ondoezik, beharrezkoa zu hona etortzea. Etor zaitez berehala»[424]. Candido Gaytan Kondeak biharamunean erantzun zion: «Bihar express-ean helduko naiz goizeko bederatzietan»[425].

Kondeak beti erakutsitako interes eta trebetasunez uztailaren 27an jakinerazten zizkion Aita Santuaren Nuntzioari ordurarte eginiko eginbideak; kudeaketen egoera emateaz batera Erreginaren eta Ministroaren aurrean arazoari irtenbide lasterra emateko bitartekotasuna eskatu zion; interes handikoak gertatzen zaizkigu beraren hitzak:

«Muy Sr. mío y de todo mi respeto:

Por la carta que ha debido recibir V.E.I. del P.General Fray Domingo de San José, tiene noticia de que estoy en Madrid. Desde el jueves que vine, me he ocupado del expediente del Colegio de PP.Carmelitas. El primer día hablé con el señor Subsecretario de Ultramar, queien expidió inmediatamente una Real [Orden] transmitiendo al Ministerio de Hacienda la del 7 de mayo de este año, en la que S.M. autoriza al R.Padre para fundar un Colegio de Misiones. Con esta Real Orden se ha probado en Hacienda la personaldiad del P.General, y se ha unido al expediente, incoado por la villa de Marquina, pidiendo que se establezca en aquel pueblo el Colegio. La villa de Marquina obtuvo en junio de 1845 el usufruto del convento para establecer en él las escuelas, el hospital y el cuartel de Guardia Civil, y ahora solicita que se cambie el destino y se establezca el Colegio.

Como V.E.I. conoce, la resolución de este expediente es cosa muy fácil y que debía hacerse en 24 horas, pero nuestras oficinas están acostumbradas al expedienteo, y todo se resuelve tarde. Por este motivo y para mirar el curso del negocio, no voy a esa villa [La Granja] para informar a S.M. de la única formalidad que nos queda que llenar para abrir el Colegio, porque en el Ministerio de Ultramar se dará, inmediatamente que se obtenga la Real Orden del de Hacienda, la autorización que se solicita.

---

[422] *Correspondencia...*, 65.zk.
[423] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 13.orr. (BAS, 26 /P).
[424] *Correspondencia...*, 63.zk.
[425] *Correspondencia...*, 64.zk.

Si V.E.I. no encuentra alguna causa que se oponga a mi deseo, éste es que la Reina N.Sra. sea informada y encargue al Ministro la pronta resolución del expediente»[426].

Franchi Nuntzioak, bestalde, biharamunean, uztailaren 28an, une hartan ezin zuela Erreginarekin hitz egitea eskatu, berarekin egon berria zelako, baina Ministrariari idatziko ziola, Aita Jeneralaren bidez gutuna bidaliz eta arazoari lehenbailehen irtenbidea emateko eskatuz eta, era berean, Karmeldarren alde eginiko ahalegin guztiak eskertuz erantzun zion La Granja-tik:

«Excmo Señor.

Muy Sr. mío y apreciable amigo:

He recibido su muy atenta de ayer, con que tiene V. la bondad de poner en mi conocimiento el estado en que se encuentra el asunto de la fundación del consabido Colegio de Carmelitas Descalzos en la Vizcaya, y me ruega encomiende a S. M. la Reina el pronto despacho de este negocio en el Ministerio de Hacienda. Como ya en estos días he tenido muchas ocasiones de ver a S.M., ahora no me es posible molestarla tan pronto; y, además, he creído mejor escribir directamente al Sr. de Osorio, Ministro de Hacienda, encomendándole el P.General a quien le he enviado la carta para que él mismo se la entregue. Veremos si de este modo algo se logrará, lo que no dudo; pero, de cualquiera manera, buscaremos otros recursos. Entre tanto le felicito a V. por el interés y esmero que manifiesta en esta obra tan piadosa, y Dios y la Virgen del Carmen no dejarán de pagarle a V. muy bien»[427].

Antza denez Nuntzio Jnaren gomendio hauek oso eraginkorrak izan ziren, uztailaren 29an eman baitzen hainbeste itxarondako Ogasuneko Ministrariaren Erret Agindua eta Markinako udalaren eskaria kontutan hartuz Gasteizeko Apezpikuaren esku jartzen zen komentua Markinako Karmengo komentuaren gozamena Kubako Irlarako Misiolarien Ikastetxea ezartzeko eman ziezan; baina jabetza Estatuaren esku geratzen zelarik. Itsasoz-bestaldeko Ministeritzak 1868.eko abuztuaren 5ean jakinerazi zion Gasteizeko Apezpikuari[428].

Eta abuztuaren 3an Gaytan Konde Jnak, ase-ase eginda jakinerazten zion Franchi Nuntzioari arratsaldean Nacarino Jnak Aita Jeneralari eman ziola Itsasoz-bestaldeko Ministrariaren Erret Agindua; Ministrariak Maiestate Gorenari eskura eman nahi ziola baina Aita Jeneralaren bidaia ez atzeratzearren honi eman ziola esanez. Era berean, Ministrariak eta Nacarino Jnak Lekeition ikusteko asmoa zuen Erreginari jakinerazteko enkargatu zioten[429].

Markinako fundazioa baimentzen zuen abuztuaren 3ko Erret Aginduak honako hau zioen:

---

[426] *Correspondencia...*, 70.zk.

[427] *Correspondencia...*, 71.zk.

[428] MKA, A-I-117.

[429] *Correspondencia...*, 72.zk. Nuntzioak egun berean, abuztuaren 3an erantzun zion (erratuz uztaila jarri zuen), era berean "arazo honetan izan duzun eskuharmenagatik milioi bat esker"... emanez (*Correspondencia...*, 73.zkia).

«Ministerio de Ultramar

La Reina (q.D.g.) se ha servido disponer se autorice a V.P. para que instale en el Convento de Marquina, provincia de Vizcaya, el Colegio de Misioneros de su Orden para la Isla de Cuba, en la forma que se previno en Real Orden del 6 [7] de mayo, en la cual se le autorizó para llevar a efecto dicha instalación, previa la adquisición del local oportuno, y cuyo requisito ha sido llenado con la cesión que del referido convento ha hecho el Reverendo Obispo de Vitoria para el expresado fin.

De Real Orden lo digo a V.P. para su conocimiento y efectos correspondientes. Dios guarde a V.P muchos años.

Madrid, 3 de agosto de 1868. — *Rod. Rubí.*

A Fr.Domingo de San José. Superior de la Orden Religiosa de Carmelitas Descalzos de la Congregación de Francia»[430].

dd. *Markinako Karmeloren Berreraikuntza (1868-VIII-14)*

Eragozpen guztiak gainditu eta atseginez beterik, Markinara itzuli eta komentuaren jabetza hartu baino ez zen geratzen.

Gaytan Kondea, Ministeritzetan eta Nuntziaturan halako iharduera eraginkorra burutu ondoren berehala itzuli zen Gipuzkoara[431].

Horrela Aita Jeneralak eta Aita Pedro Josek, Avila, Alba de Tormes, Burgos eta Zumarragarako bidea hartu zuten. Bidaia honetan telegrama bidez itzulerako azken tarterako plana egin zuten: abuztuaren 12an Azpeitian izango ziren, 13an Deban eta 14ean Markinan[432].

Burgos-etik, bertara abuztuaren 11n heldu ondoren, Aita Jeneralak gutun labur bat idatzi zion Gaytan Kondeari, 12an Azpeitirantz aterako zela jakineraziz eta 13an Loiolako S.Inazioren Santutegian meza esan ondoren, beraren familia agurtzeko aukera izango zuela eta ostiralean, 14ean, biak batera Jasokunde jaia ospatuko zutela Markinako Karmengo elizan[433].

Horrela egin zen baina Villafranca-ko kondea Debara atera zitzaion bidera; hemen zuten zain Aita Manuel de Santa Teresa Markinara eramateko behar ziren zalburdi eta guzti[434].

Bien bitartean Nepomuceno Valdespina Jnak Ermuatik idatzi zion abuztuaren 6an Gaytan Kondeari, harrerarako gertatutako prestaketen berri emanez: Kondea, antza denez, inaugurazioa «zarata» handirik gabe egitearen aldekoa zen; baina, Mar-

[430] MKA, E-I-33; Ik., era berean,: *Correspondencia...*, 73a. zk.
[431] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 13.orr. (BAS, 26/P).
[432] *Correspondencia...*, 74. zk.
[433] *Correspondencia...*, 77. zk.
[434] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 13.orr.

kinako Gogeascoechea Jnak ezin zitzaiola udalari korporazio osoak musika eta guzti partehartzeko askatasuna ukatu eta udalak Aita Jeneralari ongietorria egiteko asmoa zuela erantzun zion[435].

Egiatan horrela egin zen. Aita Jenerala Debatik atera zen eta Ondarroatik zehar 1868.eko abuztuaren 14eko goizeko 10etan heldu zen Markinara. Egun handia izan zen Karmelo Teresiarraren Ordenarako eta Markinako erlijio-gizarte bizitzarako. Ikus dezagun zer dioskun egun horretako protagonista bat izan zen Aita Manuel de S. Teresak:

«Herria zain zegoen musika eta guzti; Markinako gure elizatik hurbil jaitsi ginen eta geure kapak jantzi ondoren, gure Aita Jeneral Beneragarriak mundu osoaren aurrean eta gure elizako ate aurrean irakurri erazi zion Udaleko idazkariari Erregina Maiestatearen Dekretua eta, baita ere, Markinako antxinako komentuaren jabetzari zegokion agiria. Jarraian Aita Agurgarriak *Te Deum* abestia hasi zuen eskerrak emanez, eta elizara sartu ginen.

Hainbat malko ikusten ziren jendearen aurpegietan. 1868.eko abuztuaren 14a izan zen Markinako komentuaren jabetza hartu zen eguna. Benetan jai handia izan zen egun hori herri osoarentzat»[436].

Honako hau dio *jabetza-hartze aktak:*

«En frente del convento de Nuestra Señora del Carmen que radica en el arrabal de su nombre de esta villa de Marquina a cosa de las diez de la mañana de hoy catorce de agosto de mil ochocientos sesenta y ocho, ante el Señor Alcalde D.José de Sodupe compareció, asociado de varios religiosos de su Orden el Reverendo Padre Fr. Domingo de San José, Superior de la Orden religiosa de Carmelitas Descalzos de la Congregación de Francia y exhivió una comunicación oficial del tenor siguiente: 'Ministerio de Ultramar.— La Reina (q.D.g.) se ha servido disponer se autorice a V.P. para que instale en el convento de Marquina, provincia de Vizcaya, el colegio de Misioneros de su Orden, en la forma que se previno en la Real Orden de seis de mayo, en la cual se le autorizó para llevar a efecto dicha instalación previa la adquisición del local oportuno, y cuyo requisito ha sido llenado con la cesión que del referido convento ha hecho el Reverendo Obispo de Vitoria para el espresado fin. De Real Orden lo digo a V.P. para su conocimiento y efectos correspondientes. Dios guarde a V.P. muchos años. Madrid, tres de agosto de mil ochocientos sesenta y ocho. *Rod.Rubi*. A fr.Domingo de San José, Superior de la Orden Religiosa de Carmelitas Descalzos de la Congregación de Francia'.

Leída que fue en alta voz por mí el infraescrito Escribano y Notario público la preinserta comunicación de orden del señor Alcalde, pidió a su merced el nominado fr. Domingo de San José que se le diera posesión de este citado convento y en efecto se la confirió haciéndole entrar en su iglesia, donde enseguida dicho R.P.Fr.Domingo

[435] *Correspondencia...*, 77. zk.; era berean, Victor de Peñaflorida jaunarekin zuen arazoa ere jakinerazten zion, ortu erdia baino ez zuelarik uzten, ez baitzen berea.

[436] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 13-14. orr. (BAS, 26/P).

de San José en acción de gracias al Todo Poderoso por la gracia dispensada en la preinserta comunicación, entonó el *Te Deum laudamus,* que se cantó con toda solemnidad, quedando de este modo el repetido Fr. Domingo de San José en quieta y pacífica posesión de este espresado convento y su iglesia. Con lo que se da fin a esta acta que la firman el señor Alcalde, el R.P. posesionado y dos de los varios testigos presenciales D.Manuel de Gogeascoechea y D.Hilario de Uncilla, de este vecindario, y en fe de todo lo hago yo el Escribano y Notario. José de Sodupe. Fr. Domingo de S.José. Manuel de Gogeascoechea. Hilario de Uncilla. Ante mí: licenciado Ramón Pedro de Gaviola.

Conforme con su original, en cuya fe signo y firmo con remisión en esta segunda hoja de papel común por no usarse del sellado en este Señorío de Vizcaya. Marquina, diez y nueve de agosto de mil ochocientos sesenta y ocho. Lic.do Ramón Pedro de Gaviola»[437].

ee. *Aita Domingo eta lehen komunitatea*

17an, Aita Domingo de S. Jose, Jenerala, Lekeitiora joan zen oporrak pasatzen aurkitzen zen Erreginari eskerrak ematera. Anaia italiarra, alkatea, Manuel Gogeascochea Markinako sindiko eta erregidorea, Candido Gaytan Villafranca-ko kondea eta Felipe Gaytan Jna izan zituen lagun; Kondeak ohar hau jarri zuen: «Erreginak, Erregeak eta Asturias-eko printzeak adeitasun handiz hartu gintuzten»[438].

Eta Aita Jenerala Markinara itzuli ondoren, 19an hartu zuen Erromarako bidea. Donostiarako Ondarroako portuan itsasoratzea zuten gertatuta[439], handik Iruñera joateko asmoz. Hemendik Gares, bere jaioterrira joan zen, hunkimendu handiko jarrera egin ziotela[440].

Berreraikuntza historiko honetako irekieran honako Karmeldarrok egon ziren: Aita Domingo de San Jose Jenerala eta Erromatik bidelagun zuen anaia eta Aita Pedro José de Jesús María eta Aita Manuel de Santa Teresa eta mezakoak ez ziren Juan Tomás, Martín eta Ambrosio anaiak[441].

Aita Jenerala joan ondoren honako kideok ageri zaizkigu komunitatean:

— Aita Pedro José de Jesús María, priorea (ordurarte Bordeleko komentuan priore zena).

— Aita Manuel de Santa Teresa, prioreorde eta nobizen maisua (ordurarte Lyongo komentuan nobizen maisu zena).

— Aita Miguel de la SS. Trinidad (Miguel de Calle, Aulestin, Bizkaian, 1881.ean jaioa; Lazkaon egin zituen botuak 1829-II-22an; eta 1868.eko urte

[437] MKA, A-I-118.
[438] *Correspondencia...*, 78. zk., 1868-VIII-18.
[439] *Correspondencia...*, 78. zk., 1868-VIII-16.
[440] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 14.orr.
[441] BAS, 26 / P.

honetan Definitore probintziala zen eta Carcasonne-ko komentuan bizi zen), lehen kontseilari eta aztertzaile zereginetan ziharduen.

— Aita Julián de la Virgen (Juan Antonio Zorroza; Zornotzan, Bizkaian 1830.ean jaioa; botuak Le Broussey-Frantzian egin zituen 1843-VIII-3an; eta 1868.ean Montpellier-eko komentuko prioreordea zen).

— Aita Toribio de la Virgen del Carmen (Pedro Jaime, Kalagurrin, Errioxan 1838.ean jaioa; botuak Frantzian 1855-V-5ean egin zituen; 1868.ean Bordeleko komentukoa zen)[442].

— Anaia Juan Tomás del Sagrado Corazón de Jesús (Juan Tomás Zubero; Durangon, Bizkaian 1824.ean jaioa; botuak Frantzian 1851-XII-26ean egin zituen; 1868.ean Rennes-ko komentuan aurkitzen zen).

— Anaia Martín de la Cruz, Burgos-ekoa; abuztuaren azkenetan heldu zen Markinara[443].

— Anaia Ambrosio de S. Joaquín (Bordeleko komentuan aurkitzen zena) eta

— Anaia José Luis de Jesús María (José Ramón Zubiaur, Lezaman, Bizkaian 1826.ean jaioa; botuak Frantzian egin zituen 1852-XI-6ean; eta 1868.ean Agen-go komentuala zen)[444].

Egun batzu geroago, Irailaren amaieran beste anaia ez-mezako bat zegoen[445].

Horrela, hasiera eman zitzaion berreraikuntzari eta poztasun izugarria nabari zen. Hain zuzen ere, une honetan Karmeldarren eta beste zenbait pertsonen esker oneko begiek Villafranca-ko Kondearengana zuzendu ziren: berau izan zen protagonistarik ezagunena eta, dudarik gabe, merezimendurik handienetakoa; hori zela eta agertu zieten esker ona eta zorionak eman Frantziako zein Espainiako Karmeldarrek, esaterako, Aita Domingo de San José Jeneralak, Aita Manuelek, Aita Pedro Josek etabarrek; eta Elizaren izenean Franchi Nuntzioak...; egia hutsezkoak ziren 1868.eko abuztuaren 23an Montpellier-etik Aita José María de S. Luis Gonzaga karmeldarrak idatzitako lerrook: «Beraz, Markinako komentuan gizairudi bat eraiki beharko litzateke Villafranca-ko Konde Jnak gure alde egindako guztien oroitzapenean»[446]. Eta arrazoi osoa zuen.

e. **Komentuaren konponketa: irekiera ospetsua gertatzen (1868-X-15)**

1868.eako abuztuaren 14ean Karmeldarren komentuaren Berreraikuntzari hasiera eman eta berehala hasi ziren lanean, komentua, bertan bizimodua egiteko eran jartzeko; zeregin honetan, batez ere, fundazioko bi nagusiek, Aita Pedro José eta Aita Manuel saiatu ziren.

---

[442] Aita Toribio de la Virgen del Carmen fraideak ere, 1890.eko maiatzaren 23ko gutunean (BAS, 26/P) Aita Pedro de S. Elías lehen komunitateko kide gisa aipatzen du.

[443] *Correspondencia...*, 80. zk.

[444] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 14.orr.; BAS, 26/P); MKA, A-V-1: *Liber continens nomina religiosorum*; BAS, 26/P.

[445] *Correspondencia...*, 88. zk., 1868-IX-30eko gutuna.

[446] *Correspondencia...*, 80. zk. Eta arrazoi osoa zuen!

— Lehen zeregina gainerako pertsonak komentutik ateratzea izan zen. Ezaguna dugu Udalean, 1868.eko uztailaren 26an eta beste data batzutan komentuko alde bat betetzen zuen ospitalearen arazoa aztertu eta kentzea erbaki zela; eta badakigu, baita ere, beste alde bat hartzen zuen Goardia Zibilaren koartelaren berri. Udalak koartelerako antxinako kartzela proposatzen zuen[447]. Goardia Zibilen Komandanteak baldintza batzu jarri zituen komentua uzteko, udalak 1868.eko irailaren 3ko batzarraldian aztertu zituela[448].

Dena dela irailaren hasieratan oraindik komentuan jarraitzen zuten Goardia Zibilek. Horrela kontatzen zion irailaren 4ean Aita Pedro Josek Kondeari arazo batzu eta komentuaren egoera zela eta adorea erdi galduta; eskola kendua izan bazen ere Goardia Zibilek oraindik komentuan jarraitzen zuten; Bilbora joan zen Gobernadorearekin zein Goardi Zibilen komandantearekin arazoari irtenbidea bilatzera; biek oso ongi hartu zuten[449].

Egun batzu geroago, 8an, Kondeari jakinerazten zion Goardia Zibilak hurrengo egunean, 9an, aterako zirela emanda zegoelako agindua[450].

— Bazen Aita Pedro José kezkatzen zuen beste arazo bat: ortua. Ez zuen argi ikusten beraren geroa eta Peñaforida-ko Kondearen ezbaiak arduratu egiten zuen: egun batetan emateko gertu bazen ere, hurrengoan bertako fruituak etab. gozatu nahi izaten zituelako. «Hala, bada, oraindik honela aurkitzen gara, baina eroapenik handiena jartzen dugu aldeko emaitza eta komunitatearentzat askatasuna lortzeko»[451]. Baina egun batzu geroago irailaren 8an Gaytan Kondeari, zalantzak uxatu ezinda, aurreko larunbatean, 5ean, Peñaflorida-ko Kondeak ortu osoa ematea erabaki zuela eta eskerrak eta zorionak ematen idazteko erregutzen zion, berria Aita Pedro Joserengandik hartu zuela jakineraziz; eta honek erabakia sendotzen lagunduko ziola gaineratzen zuen[452].

Gayan Jnak berehala bete zuen bere betebeharra 9an; eta 13an erantzun zion Victor, Peñaflorida-ko Kondeak beraientzat oso astuna zela ortu erdia, batez ere bertako fruituak ematea esanez, eta nahigabetuta zebilela Aita karmeldarrek zuten prisagatik[453].

— Obrak eta konponketak egiten jarraitzen zuten; horrela, adibidez, teilatutik jaisten zen hodieria amaitzen[454]. Konponketa hauei dagokienean Aita Manuelek idazten zuen: «Komentua konpontzen hasi ginen. Pentsa dezakezu nolako egoeran aurkitu genuen. Nahikoa da bi hilabete iragan orduko hogei mila franko baino gehiago gastatu genituela esatea. Ez geneuzkan baina Probidentziak beti eman ohi du laguntza»[455].

---

[447] MUA, *Libro de acuerdos... 1859-1876*; MKA, A-I-11.
[448] Ibd., (MKA, E-I-34).
[449] *Correspondencia...*, 81. zk.
[450] *Correspondencia...*, 82. zk.
[451] *Correspondencia...*, 81. zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-IX-4ean eginiko gutuna.
[452] *Correspondencia...*, 82. zk.
[453] *Correspondencia...*, 84. zk.
[454] *Correspondencia...*, 82. zk.,Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-IX-8an eginiko gutuna.
[455] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 14.orr.(BAS, 26/P).

Udaleko liburuetan ere ageri dira 1868.eko abuztuaren 22tik 1869.eko irailaren 12ra artean ordaindutako gastu batzu jasota: behin 11.405 erreal eta 50 zentimo; beste behin 9.712 erreal, beste behin 1.696 erreal eta 5 zentimo etab...[456].

— Konponketez gainera, Aita Pedro Jose-k berriak ematen dizkigu fabrikatzaile ezagun bati Frantzian erosi nahi zuen sukalde ekonomiko batetarako tresnerien eta sakristiarako jantzi eta ontzi sakratuen erosketari buruz eta Konde Jnari galdetzen zion nolako tramiteak egin behar zituen Irungo muga iragateko[457]. Gaytan Jnak Itsasoz-bestaldeko Ministeritzan kargua zuen bere adiskide Nacarino Jnari jakinerazi zion, hark berehala erantzun ziola eskari hori egitea bidezkoa ikusten zuela esanez: «Por mi parte considero muy justa la pretensión de V. respecto a los objetos para el convento de Marquina, y por lo tanto deben VV. desde luego hacer una exposición a S.M. pidiendo esta gracia y detallando los efectos; la cual han de remitir a este Ministerio, para que aquí podamos recomendarla de Real orden al de Hacienda»[458].

Eta Gaytan Jnak aholku hau betez, azalpena bidali zuen Ministeritzara irailaren 13an[459]. Hiru egun geroago, Nacarino Jnak beraren azalpena eta Aita Pedro Josek bidalia Erret agindu baten bidez eta idazkariordeari eskariari baiezko erantzuna ematea bihotzez eskatzen zion gutun bat erantsiz Ogasuneko Ministeriari bidali zizkiola erantzun zion[460].

Aita Manuelek irailaren azkenaldian idatzi zion Kondeari sukaldea Irailaren 8an atera zela Lyon-dik eta mugan egon behar zuela esanez eta gutun bat eskatzen zion Irungo aduanako zuzendariarentzat[461]. Badirudi jaso zutela eta Markinara eraman Zumarragatik zehar.

— Irailaren 8an Aita Manuel Lekeitiora, Erregina zegoen lekura joan zen; badirudi hark gauzaren batzu eskaini zizkiola fundaziorako eta gogoratzera joan zitzaion.

— Beste egun batetan, Irailaren 26an, larunbatez, Aita Manuel Bilbora joan zen nobiziatuko otoizlekurako aldare baten bila[462].

Abuztuaren 14eko Berreraikuntza egunetik Aita karmeldarrak etxe pribatu batetan bizi ziren: Aita Pedro Jose, priorea, irailaren 8an sartu zen komentuan lo egiteko eta gutun batetan zartagina bat bilatu behar zuela arrautzopilak egiteko gogoratzen zuen[463].

Irailaren azkenetarako nahiko konponduta zegoen komentua. Aita Jeneralak lehenbailehen komentu bizitza hastea nahi zuen. Irailaren 29an, San Migel Goiaingeruaren egunean eman zien hasiera beren ihardunei eta jendaurrean eliz otoitza

---

[456] MUA, 38. Erregistroa; ik. A-XVII-8(1).
[457] *Correspondencia...*, 82. zk., 1868-IX-8ko gutuna.
[458] *Correspondencia...*, 83. zk., 1868-IX-10eko gutuna.
[459] *Correspondencia...*, 85. zk.
[460] *Correspondencia...*, 86. zk., 1868-IX-16ko gutuna.
[461] *Correspondencia...*, 88. zk., 1868-IX-30eko gutuna.
[462] *Correspondencia...*, 88. zk.
[463] *Correspondencia...*, 82. zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-IX-8an eginiko gutuna.

egiteari[464]. Une honetan 5 Aita Karmeldarrek eta beste 5 Anaiak osotzen zuten komunitatea[465].

Irailaren 23an eraiki zen prioretza, Aita Pedro José de Jesús María izendatuz priore, kargua urriaren 8ko komentuko kapituluan hartu zuelarik[466].

— Komentuko konponketa eta moldaketa zereginetan eginiko hilabete t'erdi hauetan zehar, irekierako egun bat aukeratu zen, bertara Akitaniako Probintzialak etorri nahi zuela[467]; izendatutako eguna urriaren 15a, Santa Teresaren eguna izan zen: Aita Pedro Josek fintasun handiz Markinako «funtziora» etortzeko deia bidali zion Gaytan Jnaren adiskide handi eta Madrileko Itsasoz-bestaldeko Ministeritzan laguntzailea zen Nacarino Bravo Jnari, zenbait eginkizun zirela tarteko ezin izan zuelarik etorri. Gasteizeko Apezpikuak ere, Markinara etortzeko ziren karmeldar apaizentzat ministeritzarako beharrezko baimenak ematen zizkiola, nahigabez ezin zuela ospetasunezko irekierara joan esaten zion[468].

Baina Irailaren 30ean Candido Gaytan Jnari eginiko gutunean, inaugurazio eguna atzeratzea aipatzen zen[469]; behar bada, obrak, burutzen ari baziren ere, uste baino astiroago ari zirelako edota, ordurako, laster ikusiko dugunez hurrengo hilean egia bihurtu ziren giza-politika alorreko indarkeria eta erasoketa laino indartsuak hurbilean ikusten zirelako eta, ondorioz, ez zelako halako irekiera ospetsuetan ibilterik komeni. Hain zuzen ere, antza denez, ez zen irekiera hori egin edota pentsatu zena baino apalagoa izan zen, ez baita gutunetan berririk ageri, egoera iraultzaileari buruz hainbat berri kezkagarri irakurtzen ditugun artean.

6. Berriro erbesteratze-zoritxarra. Kentze berrien eta iraupenaren artean (1868-1871).

a. Gobernuen eta politika sozio-erlijiosoaren aldaketak orokorki[470].

1868.eko apirilaren 23an hil zen Ramón Narvaez Gobernuburua, Aulki Santuko agintariengan sentimendu handia sortuz, politikari hori moderatua izan zelako; Barili beraren hiletera joan zen. Ordezkotzat Luis Gonzalez Bravo (1868-IV-23) izendatu

---

[464] *Correspondencia...*, 88. zk., 1868-IX-30eko gutuna.
[465] *Correspondencia...*, 88. zk.
[466] *P. MANUEL DE S. TERESA, Notas...*, 14.orr.(BAS, 26/P).
[467] *Correspondencia...*, 81. zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-IX-4ean eginiko gutuna.
[468] *Correspondencia...*, 87. zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-IX-19an eginiko gutuna.
[469] *Correspondencia...*, 88. zk., 1868-IX-30eko gutuna.
[470] Ik.: V.M. ARBELOA - A. MARTINEZ DE MENDIBIL, *Documentos diplomáticos sobre las relaciones Iglesia-Estado tras la revolución de septiembre de 1868*, Scriptorium Victoriense 20 (1873) 198-232; Idem, *La prensa ante la Iglesia en la revolución de septiembre (septiembre de 1868-febrero de 1869). Una visión anticipadora de la Iglesia de España*, in: *Miscelánea José Zunzunegui (1911-1974). II.Estudios históricos*, Gasteiz 1975, 265-323; V.CARCEL ORTI, *El nuncio Franchi en la España prerevolucionaria de 1868*, Scriptorium victoriense 20 (1973) 330-357; Idem, *La revolución burguesa (1868-74)*, in: *Historia de la Iglesia de España*, 5.t. Madrid 1979,. 227-276 (BAC maior,20); F.RODRIGUEZ DE CORO, *El obispado de Vitoria en el sexenio revolucionario*, Gasteiz 1976; Idem, *Reacciones vascongadas ante un nuevo comportamiento religioso en España (1868-1869)*, Scriptorium Victoriense 24 (1977) 65-100, etab.

zuten; izendapen hau errakuntzatzat jo izan dute historiagileek. Beraren polizia erako metodoek aurkakotasuna ekarri zioten Gobernuari. Erlijioari zegozkionetan, beraren aurrekoaren tankera moderatua erabili nahi zuen eta Elizarekin akordio batzutara heldu. Baina Franchi nuntzioaren agiri edo gutunetatik Gobernuak zenbatuak zituela bere egunak atera zitekeen.

1868.eko iraileko iraultzak egun gutxitan lortu zuen garaipena, uste baino lehenago; hasiera irailaren 17an izan zuen eta 18tik aurrera Juan Prim Jeneralak eta Juan Bautista Topete Almiranteak burutua izan zen eta hil bereko 28an Isabel II.a kargutik kentzean amaitu zen.

Horrela eman zitzaion hasiera sei urtetako iraultza aldiari. Erregina Lekeition aurkitzen zen; Flotak Donostira eraman zuen eta handik Frantziara irailaren 30ean, bertan itxaroten zuela Napoleon III.ak.

Irailaren 30ean eratu zen behin-behineko Gobernu Batzordea; eta urriaren 8an Gobernua, buru Francisco Serrano zuela.

Iraultzaldiko lehen asteetako ezaugarririk nagusiena hiriburuetan askatasunaren aldeko deiak eginez berehala iraultza-batzordeen iharduera kontrolgabeak ezartzea izan zen. Historiako beste garai batzutan gertatu izan zen bezala, askatasunaren aldeko deiok diktadura tankera zuten eta erlijioaren aurkako joera garratza eta antiklerikalismo gogorra ekarri zuten.

Antonio Romero Ortiz, Grazia eta Justiziako Ministrariak, ministeritzara heldu eta lau egunetara, kendu egin zuen Jesusen Lagundia 1868.eko urriaren 12ko dekretuz. Jesuitek itxi egin behar izan zituzten beren institutuak hiru egunetako epearen barruan, beraien ondasun guztiak Estatuak bereganatzen zituela.

Hiru egun geroago, urriaren 15ean, indargabetu egin zuen erlijiosoei ondasunak edukitzea zein eskuratzea baimentzen zien 1868.eko ekainaren 25eko dekretua. Eta urriaren 18an kenduak izan ziren 1837.eko uztailaren 29tik aurrera eraikiak izan ziren gizonezko zein emakumezko erlijiosoen monastegi, komentu, ikastetxe, kongregazio eta gainerako etxe guztiak; eta ondasun guzti horiek, eraikinak, errentak etab. Estatuaren jabetzara iragaten ziren eta pertsonala elizbarrutietako apezpikuen menpe geratzen.

Arau eta tankera iraultzaile guzti hauek eragin zuzena izan zuten Euskal Herrian, eta zuzenagoa Markinako Karmengo komentuan, berehala ikusiko dugunez. Hala ere gizarteari, politikari zein erlijioari dagokienean zer bereziak izan ziren Euskal Herrian Gobernu liberalek osoturiko sei urtetako iraultzaldi honetan zehar [471].

Madrileko mugimendu iraultzaile eta zentralista hauek bultzada eman zioten elementu bateratzaile eta elkartzaileari Euskal Herrian. Ez da komeni hirugarren karlistadako mugimenduak (1872-1876) ahazterik. Indarra hartu zuen euskal askatasun politikoen zein erlijio katolikoaren defentsa sentimenduek.

---

[471] Ik. Francisco RODRIGUEZ DE CORO, *Política eclesiástica de los Gobiernos liberales en Euskadi (1868-1876)*, Vitoria-Gasteiz 1988, 293 orr. (Azterlanak, 17).

b. **Markinako Karmengo komentuaren kentze berria (1868.eko urria).**

Urriaren 15ean S. Teresaren jaia ospatu ondoren Aita Pedro Jose Priorea Bordeleko komenturako bidean jarri zen; aurreko hilabete batzu arte bera priore izan zen komentu hartako arazo batzu konpontzeko asmoa zeraman eta bide batez komentuko konponketetarako limosnak bildu nahi zituen. Horrela Aita Manuel geratu zen komunitatearen arduradun[472].

Gobernuaren, zehazkiago esanda Grazia eta Justiziako Ministeritzako urriaren 15 eta 18ko Dekretuen bidez kendu egiten ziren 1837.eko uztailaren 29a baino geroago eraikitako komentu, ikastetxe etab; eta, ondorioz, kenduta geratzen zen bi hilabete lehenago eraikitako Markinakoa.

Horrela, Martin Tosantos Bizkaiko Gobernadoreak urriaren 28an Markinako udaleko alkateari «frantziskotar Erlijiosoen» (errakuntza eginez karmeldarren ordez) eraikina, bertako mobleria, liburuak etab..., guztien zerrendaketa eginez bahitzeko agindu zion[473].

Hurrengo egunean, 29an, Jose de Onaindia Jna, Udaleko lehen erregidorea, Alkatearen ordezko lanean zihardueia, eta Eskribaua aurkeztu ziren Karmengo komentuan, bertako nagusi zen Manuel de Elosegui-ri mobleria osoa, liburuak, paperak etab... aitortzeko eskatuz. Eta zerrendaketa egin zen:

...«hegoaldean eta ekialdean muga errepide publikoa eta sartaldean eta iparraldean Victor de Munibe, Peñafloridako Konde Jnaren ortua dituen eraikin bat eta hamabi aldare beraientzako zamau, estalki eta guzti
Brontzezko sei argimutil handi
Brontzezko beste sei argimutil txiki
Bi Arrano
Asko erabilitako bi tapiz
Kristalezko bi lanpara
Brontzezko kriseilu bat
Brontzezko hiru txilin
Kristalezko eliz-ardontzi pare bat
Hiru meza-liburu zahar
Meza-liburuetarako lau atril
Paperezko hamabi sakra
Brontzezko bost gurutze txiki
Atril handi bat koruan
Bi atril askatu txiki
Paperezko bi estampa txiki
Estanpa aske handi bat

[472] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas*..., 15.orr. (BAS, 26/P).
[473] MKA, E-I-34-1.

Zurezko bi beilari txiki
Lau aulki eta jarleku bat
Kanape bat
Organu erregular bat
Kopa barrua urreztatua duen zilerrezko kaliza bat
Kopa barrua urreztatua duen brontzezko kopoi bat
Hiru gortina hiru leiho handirentzat
Gortinaz estalitako hamaika aldare
Mahai bat eta lanka bat
Pulpitu bat zapi batekin
Eskaintzarako botila bat eta pitxer bat
Zortzi aitortoki erregular
Estainuzko lau loresorta
Bi armairu txiki dituen kaxondegi erregularra sakristian
Kaliza, hostia eta abarrentzako hormako armairua
Zazpi estanpa aske handi
Hiru alba arrunt
Bi errokete erregular
Bi amito zakar
Erabilitako bi mezajantzi zuri
Erabilitako bi mezajantzi gorri
Bi beltz nahiko zaharrak
Oso erabilitako bi dalmatika beltz
Erabilitako gaineko beltz bat
Erabilitako mezajantzi more bat
Erabilitako mezajantzi berbe bat
Erabilitako gaineko zuri bat
Lau korporal boltsa
Sei korporal bikoitz
Zortzi garbi-zapitxo
Garbitzeko bi oihal
Banda zuri bat
Mahai bat eta lanka bat
Etxola aske bat
Garbitontzi bat
Ezartzeko anda bat
Santu irudi askeak
Aldaretan aldaketak egiteko sei bat zamau
Bost giltza

Honela amaitu zen zerrendaketa hau, bertan, lekuko gisa, Julian de Jainaga eta Jose Manuel de Madariaga hiriko auzotarrak egon zirelarik, egiteko inolazko salbuespenik ez zutela egiaztatu, ondoren Berroarekin batera izenpetzen zutela; Elosegui Apaiz esklaustratuak, ostera, ez zuen izenpetu. Horrela, bada, lekukoak eta berori, zerrendaketa eskritura hau irakurtzeko zein irakurtzen entzuteko zuten eskubideaz

oharterazi nituen eta jakinean zinetelarik bigarren era aukeratu zenuten eta nik aipaturiko Notari honek irakurri ondoren onartu egin zenuten, horretaz fede ematen dudalarik: José de Onaindia, Julián de Jainaga, José Manuel de Madariaga. Sinatua: Julián de Bascarán»[474]. Ikus daitekeenez ez zegoen gauza garrantzitsurik, baliozkoak sasoiz erretiratuak izan baitziren. Horrela jakinerazi zion Aita Manuelek Gaytan Kondeari egun berean, irailaren 29an goizez idatzitako gutunean: alkatearekin egon berri zen eta honek Gobernadorearen agindua jakinerazi zion; eta horrela Aita Karmeldarrek astia izan zuten gauzarik garrantzitsuenak komentutik ateratzeko[475].

Erlijiosoek komentutik irten beharra zuten; Udala prest zegoen erlijioso batzu komentuan elizaren zerbitzuan kaperau gisa eskatzeko. Habitua utzi behar zutenez, Aita Manuelek, behar bada Matias Jnak edo Santiago Jnak edukiko zituen sotana zahar batzu eskatzen zizkion habitua estaltzeko[476].

Egun berean, komentua itxi ondoren giltzak alkateari eman zizkioten. Izugarria zen fraideen nahigabea, komentua eskuratzen hainbeste lan eta ahalegin egin ondoren berriro utzi egin behar! Askatasuna kentzen zuen erasoaldia zen.

Erlijiosoak Aita Pedro Jose markinarraren amaren etxean babestu ziren. Aita Toribio de la Virgen del Carmen Kalagurrikoa eta Anaia Martin Burgos-ekoa eta Anaia Jose Luis Lezamakoa beraien etxeetara joan ziren egun batzu iragatera[477].

Aita Manuelek, biharamunean, 30ean, hartu zuen Gasteizerako bidea apezpikuarekin hitz egiteko eta apaiz gisa janzteko sotana batzu eskuratzeko. Apezpikuari komentuko elizaren zerbitzuan bi Apaiz eta bi Anaia Karmeldar geratzea proposatu zion, esklaustrazio garaiko erasoaldirik gogorrenean ere beti egon izan zela elizaren zerbitzuan Karmeldarren bat esanez[478].

c. **Donibane-Lohizun eta Markina artean: karmeldar bizitzaren berreskuraketa**

aa. *Donibane-Lohizunera*

Aita Pedro Josek, Aita Jeneralari aurkeztutako proiektu batzu jakinerazi zizkion Aita Manueli: Donibane-Lohizunen Karmeldarren fundazio bat egiteko kontua zen; horrela, gainera, Markinatik hurbil izango ziren edozein gertakizunerako. Markinan etxe bat hartu zuen alogeran komentura itzultzeko baimenaren zain egongo ziren lau erlijiosoentzat. Eta beraren etorkizunaz kezkaturik agente baten bidez Gobernuaren asmoak ezagutzeko pertsonarik egokiena zen Gaytan Kondeari idatzi zion, Markinako udalari bertan eskola, ospitale etabar jar zitzan uzteko ala saltzeko asmoak zituen

---

[474] Ibd.
[475] *Correspondencia...*, 89. zk.
[476] *Correspondencia...*, 89. zk.
[477] Ik. BAS, 26/P: Aita Toribioren 189=-V-23ko gutuna.
[478] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 15.orr. (BAS, 26/P).

jakin zezan. Itxaropenak, beste zenbait egoera larritan bezala Candido Gaytan Jnarengan jarri zituzten[479].

Markinako udalean azaroaren 1eko batzarraldian aztertu zen arazoa eta Gobernuari Karmengo komentuko eraikinaren erabilera, bertan lehenago egin zuen bezala, lantinaren irakaskuntza eta ospitala edo ermandadea jartzeko eskatzea erabaki zen[480].

Azaroaren 16an, Aita Pedro Jose Prioreak aginduta, Aita Manuelek Donibane-Lohizunera joan behar izan zuen, 17an heldu zela; egun berean heldu zen Aita Pedro Jose eta etxe bat hartu zuten alogeran[481].

Aita Pedro Jose diru bila zebilen Markinan egindako gastuak ordaintzeko eta elizarako eliz-jantzi eta abar lortzeko. Azaroaren azkenaldian heldu ziren Donibane-Lohizunera Aita Toribio eta Anaia Martin[482].

Markinan karmeldar bizitza aurrera eramateko egoera sozio-politikoa oso zaila zela ikusirik, Aita Karmeldarrek Donibane-Lohizunen martxan jarritako karmeldar bizitza aukera garrantzitsutzat jo zuten komunitatean bizitzen jarraitzeko; horrela jakinerazi zion Markinatik Aita Pedro Josek Aita Domingo de S. José Jeneralari: «Oraindik iragateko oso zaila izan daitekeen ekaitza etor daiteke, mundu guztia babesten ari dela; hemen, bada, inork ez du uste egokia denik Donibane-Lohizuneko Aita karmeldarrak ekartzea ezta hura uztearen aldeko eritzia duenik, oso onuragarria izan daitekeelako; alderantziz baino, han oinarritzea eta maitatuak izatea eta bertan onegileren bat aurkitzea; nork jakin zer behar izango dugun honelako garai zail eta berezi hauetan? Hemen ekaitzik sortzen bada edota honek luzaroan honela jarraitzen badu argi dago nahikoa dugula, nobizerik hartu ezinda eta ezer egiteko biderik gabe gauden bezala jarraitzeaz; hala gertatuz gero, erraz gerta dezakegu han behar dena nobizek hartzeko eta hau utzi gabe denbora aurreratzeko eta orain arte bezala beti giltzak gorde. Hau da, era berean, hemen gertatzen ari dena entzuten duten Aita karmeldarren zein egoerari buruz gure adiskideek uste duten eritzia[483]».

Hiru hilabete geroago, indartu egin zen Aita José María de S. Luis Gonzaga fraidearengan, Karmeldarren egoera Donibane-Lohizunen indartzeko ideia; horretara bultzatzen zuen, baita, bere elizbarrutian fundazio bat nahi zuen Baionako apezpikuak ere; zer esanik ez, Donibane-Lohizunen egin nahi zen etxea etorkizunerako bideak gertatu eta larrialdietan babeslekua hurbil izateko aparteko aukeratzat jotzen zen. Hain interesgarriak direnez, jarraian beraren hitzak jasoko ditut: «El señor Obispo de Bayona, insistiendo mucho al P.Manuel para que hiciésemos una fundación en su diócesis, le dijo *nous ferons quelque chose*, y se cree también que nos ayudará, porque puede y tiene con qué. Vea V.R.,Padre Nuestro, lo que le parece y cómo

---

[479] *Correspondencia...*, 91. zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1868-XI-11n eginiko gutuna.

[480] MUA, *Libro de acuerdos... 1859-1876*, (MKA, A-I-122).

[481] P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas...*, 15.orr. 1868-XI.14ean Aita Manuelen gutunari eginiko ohar batetan kondeak 17an, eguerdian heldu zela Arriaranera eta gauez Astigarragara eransten zuen; eta 18an Donibanera: *Correspondencia...*, 93. zk.

[482] Ibd., 16.orr.; *Correspondencia...*, 93. zk.

[483] MKA, A-I-128, 1869-I-5eko gutuna (Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean).

convina V.R. este asunto como traslación de Marquina si quiere, y más tarde si las cosas de España se componen vamos allí con los novicios o profesos que hemos formado y se encontrará medio de conservar también lo hecho en San Juan de Luz. Todos los Padres están de acuerdo que la fundación de la frontera será utilísima en todo evento, aún cuando las cosas de España se arreglen más tarde. De todos modos queremos que la nueva obra o traslación esté bajo la jurisdicción inmediata de V.R. como traslación de Marquina y para España, a fin de restaurar más tarde nuestra Reforma. V.R. obtendrá fácilmente esto de Santo Padre y le rogamos encarecidamente lo haga así; esto nos dará ánimo porque la vida que llevamos y con perspectiva de durar mucho, es la opinión de todos los que están al corriente de las cosas. Yo aguardo con impaciencia la respuesta de V.R.»[484].

Baina Aita Jeneralaren erantzunak tristura handia eman zien, ez baitzen Donibane-Lohizunen fundazioa egitearen aldekoa. Aita Pedro Josek bere tristura ematen zion aditzera eta intuizio argia zuela (laster hilko baitzen Aita Jenerala) konfidantza handiz jakinerazten zion Bordeletik: «Hau [komunitate bat Donibane-Lohizun mantentzea] erosoagoa da guretzat eta zeregin gutxiagokoa, baina bihotzez sentitzen dudala esan behar dizut, geroago italiar Jeneralek ezta frantziar probintzialek ez baitute zuk duzun gure Espainia gaixoaren aldeko ardurarik hartuko eta zuk egin eta konpondutakoa gerorako eginda eta konponduta geratuko litzateke»[485].

Aita Jeneralaren eritzi hau zela eta, Aita Karmeldarrek behin-behinekotasunez ikusten zuten Donibane-Lohizuneko egotaldia. Maiatzaren 18a arte alogeran hartutako etxean egon ziren; baina, alogera eguneko 20 frankotara jaso zietenean, babesa eskaini zieten ospitalean[486].

Eta geroago ikusiko dugunez, 1869.eko urte horretan Aita Jeneralak Markinara aldatzeko agindu zien.

bb. *Itzulera isilean Markinako komentura.*

Bestalde, Markinan, komentua berreskuratzeko kudeaketak egiten ari ziren. Gaytan Konde Jna irtenbide bila zebilen eta laguntza eskatu zion Martín José de Mendia Jnari; honek 1868.eko azaroaren 11n Karmeldarren alde ahal zuen guztia egingo zuela eta apezpikuari 12an idatziko ziola erantzun zion[487].

---

[484] MKA, A-I-134, Aita José María de S.Luis Gonzaga fraideak Aita Jeneralari 1869-III-6an eginiko gutuna (Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean).

[485] MKA, A-I-136, Aita Pedro Josek Aita Domingo de S.José Jeneralari 1869-IV-12an eginiko gutuna (Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean).

[486] MKA, A-I-139, Aita José María de S.Luis Gonzaga fraideak Aita Jeneralari 1869-V-12an eginiko gutuna (Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean).

[487] *Correspondencia...*, 92. zk.

Martin Jnak[488] laguntza ordaingaitza eman zuen; Arrieta Mascarua diputatuaren eta Bizkaiko gobernadorearen aurrean aurkeztu eta Markinako Karmeldarren kanporaketa zela eta zituen sentimenduak agertu zizkien. Gobernadoreak Markinako udala Karmeldarren aldekoa zela ezagutu ondoren, Markinara joan eta udalarekin tratatzeko eta bere izenean Karmeldarrei komentuan sartzen uzteko gomendatzeko esan zion. Sartzea lortu zen baina elizatik eta ez ataritik. Martin Jna Bilbora itzuli eta emaitzen berri eman zion Gobernadoreari. Orduan honek gutun bat idatzi zion alkateari komentuko giltzak Prioreari emateko esanez. Horrela, normaltasunez komentura sartzea lortu zen kanporatuak izan eta 17 egunen barruan[489].

Aita Pedro Jose Markinan aurkitzen zen azaroaren 23an, behinik behin, egun horretan idatzi baitzion Aita Jose Maria adiskideari zer nolako egoera zalantzakoan aurkitzen zen Markinako komentua: «Nuntzioak Santiago-ko Andere Markesari Markinako komentua ez zegoela dekretuan barrusartuta eta Karmeldarrak ez zutela irten behar jakinerazi zion; Markesak kanpoan aurkitzen zirela jakinik berriro itzultzeko Itsasoz-bestaldeko Ministeritzari azalpen bat egitea proposatzen zion gure Aita Jeneralari. Honetarako bidali ninduen gure Aita Jeneralak hona, baina diputatu baten eta jaun on bat den Bilboko Gobernadorearen aurrean emandako urrats batzuren ondorioz Aita Karmeldarrak isilik itzuli ziren komentura»[490].

Azaroaren 26an Aita Pedro Josek edukin handiko gutun bat idatzi zion Kondeari, eginiko kudeaketak eta komentuan sartutako fraideen bizimodua kontatuz; egoera on hau, hainbatetan, Villafranca-ko kondeari, Peñaflorida-koari zein Bizkaiko Gobernadoreari zor zitzaien; gogora dezagun kontaketa:

«Hona heldu nintzenean gure fraideak komentuan aurkitu nituen, baina ez zituzten komentuko giltzak eta sartu-irtenak elizatik egiten zituzten, alkateak ez baitzizkien komentuko giltzak eman nahi erantzunkizunik ez izateko. Biharamunean, joan zen larunbatean, Bilboko gure adiskide batek idatzi zidan eta barruan Gobernadore Jn.Tx.Gorenak alkateari idatzitako gutun bat bidali zidan; bertan jakinerazpen ofizial bat hartu arte, mesedez, komentuko giltzak Karmeldarren nagusiari emateko

[488] BAS, 26 /P, *Varias cartas sobre la fundaión de Marquina*, Martín Landia jaunari buruz mintzatzen da; ezin dut zehaztu, bada, aipaturiko Martín José de Mendia jaunaren ordez erabilitako oker bat den ala beste pertsonaiaren bat; hori dela eta, orain *Martín* izena bakarrik aipatuko dut.

[489] BAS, 26 /P: *Varias cartas sobre la fundación de Marquina*, hirugarrena. Martin Landia Jn. hau Mungiakoa (Bizkaia) zen. Ez-mezako gisa sartu zen Karmengo Ordenan 20 urte inguru zituela. Bilbon nobiziatua egiten ari zen, gerra karlistetako une zailen eta jazarpenen zioz iges egin beharra izan zuen (1833, 1839?) eta karlisten taldera joan zen Garoscain koronelaren laguntzaile egin zutela. Gerra amaitu ondoren Bilbora erretiratu zen eta alargun batekin ezkondu zen.

[490] MKA, A-I-123 (Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean. Ik.,era berean, azaroaren 11n Aita María Francisco del Sagrado Corazón de Jesús fraideak idatzitako gutuna bertan Madriletik Santiagoko Markesa andereak idatzitako gutun bat bilduz: "Me acaba de mandar a decir el Nuncio que el convento de Marquina no está en el número de los suprimidos, que nada tiene que ver con él, el Ministro de Gracia y Justicia que depende de Ultramar y que los Padres no deben salir, yo no tengo tiempo para escribir ni sé dónde está N.R.P. General, así agradeceré a U. se lo escriba o al P.Pedro, pues si quieren hacer una esposición que lo hagan, que yo la presentaré, y hablaré al Nuncio enseguida" (MKA, E-I-35; jatorrizkoa GPKA-n).

eskatzen zion. Peñaflorida-ko Konde Jnaren etxean aurkitu nuen alkateak berehala bidali zizkidan giltzak txinel baten bidez eta une horretatik gure komentuan gaude, oso pozik baina zaratarik atera gabe eta oraindik sotana jantzita ateratzen garela etxetik kanpora joan behar dugunean. Ez daukagu jendaurreko elizkizunik ere arazoa nola aterako den ikusi arte eta gorabeherak finkotasuna hartu arte. Santiago-ko Markesa andereak idatzi dit baina zertxobait berandu, ama hil zaiolako, santa bat zenez izpirituzko laguntza guztiak zituela hil da. Markesa Andereak Nuntzio Jnak esan diona jakinerazten dit, hau da, ez genuela irten behar gure etxetik, Itsasoz-bestaldekoaren menpeko garelako eta bertako Ministraria, Nunzioak dioenez, oso gertu omen dago alde egiteko; gehiago oraindik, ez garelako batzorde iraultzaile batek kanporatuak izan, halakoan arriskutsuagoa izango litzatekeela itzultzea. Horregatik eta agertu den Elkartze Dekretuaren ondorioz, Markesa Andereak herrialde honetan geure etxera itzuli eta bertan bizi ahal izango dugula uste du. Hala ere, Gobernadorearen aginduaren kopia bidaltzen badiot, Markesa andereak Itsasoz-bestaldeko Ministrariarengana joan eta Gobernadoreari arazo honetan ez sartzeko eskurik eskatuko diola dio. Nik ez dut azken hau egiteko gogo handirik baketsu geure etxean gaudelako, Gobernadorearen aginduz (gutun partikular bidez) giltzak eman baitizkigute, une honetan nahikoa dugularik»[491].

Aita Manuelek, beste bi erlijiosoekin batera, Markinan irtenbide egokiagoa izango zela itxaronez, Donibane-Lohizunen jarraitzen nuen nonbait. Donibane-Lohizunen geratzen ziren hiru erlijioso hauek ez zekiten euskararik[492] eta ez ziren une hartan hain beharrezkoak Markinarako. Donibane-Lohizunen ondo hartuak izan ziren karmeldarrak eta jende jainkozaleak laguntza ematen zien[493]. Aita Manuel aitortze lanetan eta sermoigintzan aritzen zen eta meza esaten zuen parrokiko parrokuak oso ongi hartua izan zen; eta parrokuak Natibitate eguneko hitzaldia enkargatu zion eta hirian Karmeldarrak izango zuen hitzaldiari buruz mintzatzen ziren. Baiona-ko moja karmeldarrek ahizpa Veronica-ren bidez, gogo-ihardunak egiteko hizlaria eskatu zioten apezpikuari; eta pozik joan zen Aita Manuel[494].

Markinan Karmeldarrak zuhurtzia handiz zebiltzan zarata gutxi eginez eta jendaurrean gutxi agertuz. Baina Sortzez Garbiaren egunean izugarrizko jendetza etorri zen Karmengo elizara, jendea aitortzen izan zirela goizeko 5etatik eguerdiko 12,30etara arte[495]. Data hauetan, abenduaren 10ean itxaropen hobeak hartu ziren; horrela jakinerazi zion Aita Pedro Josek Kondeari, frantziskotarrek ere Sortzez Gar-

[491] *Correspondencia...*, 94.zk.

[492] MKA, A-I-126; A-I-121.

[493] MKA, A-I-123, Aita Pedro Josek Domingo de S.José Aita Jeneralari 1868-XI-23an eginiko gutuna; Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[494] MKA, A-I-126, Aita Pedro Josek 1868-XII-18an Aita Jeneralari eginiko gutuna; Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean. *Correspondencia...*, 96.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1868-XII-11n eginiko gutuna; 99.zkia, Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-XII-30ean eginiko gutuna.

[495] *Correspondencia...*, 95.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1868-XII-10ean eginiko gutuna.

biaren jaia ospe handiz ospatu zutela esanez; eta herriaren erlijiotasunak ematen zion atsegin handia jakinerazten zion[496].

Sortutako poztasun horrek iturburutzat Mascaroa Bizkaiko diputatu jaunak adeitsuki Aita Pedro Joseri idatzitako gutuna zuen; bertan Ministrariaren dekretuak ez zuela Markinako komentua barruhartzen eta poz handia ematen ziola fraideak komentuan aurkitzen zirela jakiteak esaten zion[497].

Egoera honetan Aita Pedro Josek Gaytan Kondeari, Bilbora egin behar zuen bidaia Gobernadoreari eta Mascaroa Diputatuari fundazioaren alde hitz egiteko erabil zezala eskatzen zion; biak oso ongi jokatzen ari ziren Markinako Karmeldarren alde; Peñaflorida-ko kondeak ere laguntza eskaini zien Gobernadorearen aurrean[498].

cc. *Isiltasunean finkatzea*

— Zer gertatuko zai.

1869.eko urtearen lehen erdialdearen ezaugarririk nabariena, egoerarik zuhurrenean iraunez gerta zitekeenaren zain isilik egotea eskatzen zuen «status quo» zen... Hori izan zen, hain zuzen ere, eramandako jokaera protagonisten gutunetan ageri denez.

Espainiako egoera sozio-politiko orokorrari buruzko sentimenduan ekaitzen zein ziurtasunik ezaren beldurra nabari zen bazterretan eta horrela ageri da Aita Jose Mariaren gutunetan[499].

Aita Pedro Josek Gaytan Kondeari idatzi zion 1869. urteko hasieratan; honek «geldirik» egoteko gomendatzen zien[500]. Eta hurrengo hilabeteetan areagotu egin zen geldi egote edo berri falta hori Markinako komentuan[501].

Zuhurtziak, hain ziurtasun gutxiko aldian Markinako jokaeraren antzekoa eskatzen zuen: hain zuzen ere geldirik, lortutakoa jagonez, bestelako bide berrietan ihardun gabe eta, bada ezpada ere, Donibane-Lohizuneko egoera ere gordez ihardutea[502].

---

[496] *Correspondencia...*, 95.zk.; eta egoera sozio-politikoari buruz Aita Pedro Josek "Hemen obetitu egiten dira baina ez bete Gobernuaren aginduak" Euskal Herriko esakuna eta jokaera gogoratzen zuen.

[497] MKA, A-I-125, Aita José María de S.Luis Gonzala fraideak Aita Jeneralari 1868-XII—16an eginiko gutuna; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[498] *Correspondencia...*, 98.zk., 1868-XI-16ko gutuna.

[499] Aita Karmeldar hura Carcasonne-n aurkitzen zen: etengabe heltzen ziren berriek sentimendu hori sortzen zuten: ik. MKA, A-I-128 (1869-I-5); A-I-131 (1689-II-3), etab.; jatorrizko gutunak Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[500] *Correspondencia...*, 98.zk., 1869-I-7ko gutuna.

[501] MKA, A-I-133 (1869-III-10); A-I-140 (1869-VII-14); jatorrizko gutunak Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[502] MKA, A-I-134 (1869-III-26), Aita José María fraideak Aita Jeneralari; jatorrizko Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

Harako egoera hartan, Aita Karmeldarrek Gaytan kondearen laguntza erabakiorrean zituzten jarriak begiak, «Jainkozko Probidentziak bere Etxe Santua berreraikitzeko erabili izan duen lehen baliabidea» zela uste zutelako[503]. Eta Bermeoko frantziskotarrei gertatua eta karmeldarrengan sortutako beldurra eta Martin bere semearen heritzak sortutako nahigabea bazituen ere, Gaytan Kondearen hitzak itxaropenez beteak ziren; beraietan Markinako komentuari zion maitasun handia ageri da eta era berean zein garai txarretan aurkitzen ziren; hala eta guztiz ere, Jainkoaren lana zela eta berarengan itxarona jarri beharra gogoratzen du: «En medio de esta infamia y desorden los Padres de Marquina vivien tranquilos, dando gracias al Señor y rogando por sus enemigos, no solamente viven, sino que prosperan y aumentan preparándose para hacer nuevas fundaciones, cuando llegue la hora que tiene dispuesto el Señor. He estado en Marquina hace pocos días, y todo es admirable: allá se ve y se siente el dedo de Dios. Pidámosle humildemente que continúe dándonos su protección»... «En fin yo espero, aunque parezca imprudente tener esperanza en estos momentos. Sepamos pedir y confiar y Dios es siempre el mismo, hoy el de ayer y mañana y de siempre. Repito mi R.Padre, yo espero, y mi esperanza no será vana e inútil. Cuando todo conspira contra Dios y su ley, yo espero, porque será más manifiesto la voluntad y poder de Dios»[504].

— Konponketak.

Ziurtasun ez hori handia izan arren, komentua konpontzen hasi ziren, koste ekonomikorik txikiena eginez bazen ere; beste batzutan, nobizioak hartzeko itxaropena biztuz lastertu egiten ziren konponketak.

Aita Pedro Josek 1869.eko urtearen hasieratan komentua aterik eta lehiorik gabe eta beste hainbat gauza falta zituela aurkitzen zela jakinerazi zion Aita Jeneralari–; ondorioz Markinan lanean ari zen Anaia Santosek erabakitako aldian baino luzaroagoan bertan jarraitzea eskatzen zion, ez baitzuen beste langilerik hartu nahi kosturik ez egiteko eta anaia hau ez zelako hain beharrezkoa Bagneres de Bigorre-n[505]. Anaia Santosek, bada, lanean jarraitzen zuen apirilaren 12an, baina Markinako Prioreak laster bidali beharko zuen nahigabe handiz Bagneres-era[506].

Hala ere, uztailan ere Santosek Markinako sukaldea eta jantokia konpontzen ziharduen lanean[507]. Instalazio hauek egitera animatu ziren Markinako alkateak eta Bizkaiko Gobernadoreak emandako itxaropen onak zirela tarteko[508].

---

[503] *Correspondencia...*, 105.zk., Aita Miguel de Calle fraideak Gaytan kondeari 1869-V-6an eginiko gutuna.

[504] MKA, A-I-154, Aita José María fraideak Domingo de S. José Aita Jeneralari 1870-III-25ean eginiko gutuna; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean; *Correspondencia...*, 106.zk., 1869-V-7ko gutuna.

[505] MKA, A-I-128, (1869-I-5), jatorrizko Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[506] MKA, A-I-136, Aita Pedro Josek Bordeletik Aita Jeneralari 1869-IV-12an eginiko gutuna; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[507] MKA, A-I-141, (1869-VII-19), jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[508] *Correspondencia...*, 111.zk., (1869-VII-19), Jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

Horrela, bada, 1869.eko maiatzean konponketa oso ugari eta garrantzitsuak egin ondoren, komentua gertu zegoen, Martín Tosantos Bizkaiko Gobernadoreari jakinerazi zitzaion bezala, hainbat pertsona hartzeko[509].

— Txostenak.

Gaytan Kondearen lehengusu eta Karmeldarren adiskide eta mesedegile handia zen Martín Tosantos Gobernadore zintzoak, Gobernu zentralaren aginduak betez, 1869.eko maiatzaren 3an Markinako alkateari 1868.eko Maiatzaren 6ko eta abuztuaren 3ko Erret aginduen bidez bertan ezartzeko onartuak izan ziren Karmeldarren egoera eta iharduerei buruzko txosten bat bidali behar zuela jakinerazi zion[510]. Eta Julián de Bascaran, Markinako alkateak 1869.eko maiatzaren 7an bidali zion txostena Gobernadoreari, honek sinatu ondoren Madrilera bidali zuela; bertan ikastetxe-komentuaren benetako egoera azaltzen zen, hau da, Karmeldarrek 1868.eko abuztuaren 14ean etxea bereganatu zutenean etxe hura egoera negargarrian aurkitzen zela eta ahalegin handien bidez egokitua izan zela; era berean, karmeldarren alde egiteko eskatuz, geroago eta gazte gehiagok eskatzen zuela bertako komentuan sartzea gogoratzen zion: «presentaba aquel edificio un aspecto a la verad lúgubre, lastimoso y desconsolador a causa del estado de su completa ruina que dentro de muy poco tiempo debía alcanzarle; hoy, merced a las sabias y acertadas disposiciones adoptadas por el referido Superior Fr. Domingo y su subalterno actual Fr. Pedro de Alcorta para proporcionar a costa de inmensos sacrificios y diligencias, cuantiosas sumas de dinero que han tenido que invertir en la reposición del tal edificio, puede afirmarse sin género de duda que éste se halla como uno de nueva planta magnífica y recientemente construído si bien todavía se continúa con la ejecución de algunas obras y reformas que mejoren y aún superen su estado primitivo atendido el importantísimo, especial y nuevo objeto a que ahora se dirige, siendo hoy mismo capaz de poder dar entrada con sujeción a las reglas del instituto a más de 40 colegiales.

Verdad es que en la parte formal o sea el objeto principal de este establecimiento, cual es la formación e instrucción de jóvenes para Misioneros de Ultramar, no se ha podido adelantar lo que con su celo y desvelos se proponían el Superior Fr.Domingo y sus compañeros de religión, siendo así que desde un principio contaban con unos quince o veinte jóvenes, los que seguramente por la in[e]stabilidad de las circunstancias que precisamente coincidieron con la instalación del nuevo colegio, han debido retraerse hasta que éste ofrezca un carácter de firme y segura estabilidad, en cuyo caso desde luego se pudiera formar la halagüeña esperanza de un feliz y satisfatorio porvenir, puesto que con los espresados jóvenes y otros nuevos aspirantes que a cada momento se presentan, se conseguiría un numeroso y hermoso plantel de jóvenes

[509] *Correspondencia...*, 107.zk., Aita Miguel de Calle fraideak Gaytan kondeari 1869-V-10ean eginiko gutuna.

[510] MKA, A-I-36; ik. GPKA; MUA, "Asuntos tocantes..." paper-sorta.

misioneros que después de su noviciado y años de estudios reglamentarios, pudiesen completamente realizar las benéficas y piadosas miras que el Gobierno se propusiera al autorizarlo este Colegio.

No dudo, pues, que V.S. sin necesidad de más esplicaciones penetrará de los muchos trabajos y costosos sacrificios con que de su parte han procurado estos religiosos cumplir con el compromiso en el particular contraído, en cuya firme persuación se hallan también las personas más visibles y de mayor suposición de este vecindario de quienes me ha parecido del caso informarme para este intento, suplicando a V.S. por conclusión que al elevar su razonado informe a la Superioridad se servirá hacerlo en términos favorables como es de esperarse de sus religiosos sentimientos, inclinándola a que tenga a bien prestar su apoyo y protección a este nuevo Colegio en la segura inteligencia que contando esté con ellos, sabrá corresponder de un modo digno y satisfactorio al objeto de tan útil y religioso instituto»[511].

Baina hiru hilabete geroago oraindik jaso gabe zuten txosten honen erantzuna; hala ere, Gobernadoreak ziurtasun osoa emanten zieten, ziurtasun osoa Gobernuak Misioetarako Ikastetxearen garrantzia eta nazioari ekarriko zion onura handia ulertuko zituela uste zuela esanez[512].

Bazen Aita Pedro Josek burutu nahi zuen beste arazo bat ere: hau da, batez ere Gobernadore eskuzabalaren joera ona aprobetxatuz egokitzat jo zuen oraindik Itsasoz-bestaldeko ministeritzarekin bete gabe zuen baldintza bat betetzea. Horrela, Bilbora joan zenean, Gobernadoreari fundazioko azken baldintza betetzeko nahia agertu zion: Misiolarien Ikastetxeko erlijio eraikitzaileen izenak Ministeritzara bidaltzea. Gobernadoreak, lankidetza ezin hobea eta baikorra erabiliz, ohar horri jarri beharrekoa baino lehenagoko data, hau da, 1868.eko urriaren 8koa, jarriko ziola esan zion. Beraz, berak Itsasoz-bestaldeko ministeritzari paper artean desbideratutako edo erdigaldutako agiri gisa bidaliko ziola.

Aita Pedro Josek ez zekien noren izenean jarri Misioetarako Ikastetxea; baina Aita Jeneralak, Pedro José bere izen propioan egiteko gomendatu zion; horrela egin zen Gaytan Kondearen laguntzaz eta beste erlijiosoen izenak aparteko paper batetan jartzeko asmoz[513]. Baina Antonio Zarandona jaunak, Madriletik, Ministeritzak espreski ikastetxe-komentuko pertsolaren zerrenda eskatzen ez bazuen hobe zela isildu eta ezer esan gabe jarraitzea erantzun zion kondeari[514]. Horrela, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari Kondearen aholkuari jarraituz isilik geratu zelarik, ez zuela pertsonalaren zerrendarik bidali Ministeritzara jakinerazi zion[515].

---

[511] MKA, E-I-38.

[512] MKA, A-I-141, Aita Pedro Joseren gutuna (1869-VII-19), jatorrizko Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[513] *Correspondencia...*, 117.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1869-XII-28an eginiko gutuna; 119.zkia (1870-I-26).

[514] *Correspondencia...*, 118.zk., 1870-I-4.

[515] MKA, A-I-148, 1870-II-2ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

— Berri txarrak.

Pertsonei loturiko bi berrik atsekabe handia sortu zuten Markinako komunitatean: bi protagonista handienei zegozkienak zirelako.

Candido Gaytan Kondeari Martin semea (1849-1870) hil zitzaion. Berehalaxe idatzi zizkioten doluminezko gutunak 1870.eko martxoan Aita Pedro Josek, ostegunean, Martxoaren 10ean, goizeko bederatzietan egingo zituztela hiletak erantsiz[516]; Aita Jose Mariak Carcasonne-tik[517] eta Aita Domingo de S. José, Jeneralak Erromatik[518]. Berrien arabera tifusezko kalenturen ondorioz hil zen[519].

Beste heriotza, Aita Domingo de San José, Italiako Kongregazioko Jeneralarena izan zen; galera izugarria etortzeko ziren urteetarako, Karmeldarren bi Kongregazioen batasuna eta berreraikuntzaren zabalkuntza eginkizun handia eginbidean zirelako. Honela jakinerazi zion Aita Pedro Josek Gaytan Kondeari berri ilun hau, sentimendu pertsonal biziekin nahasturik emanez: «Hil honetako 12an, gaueko 11,30etan aurkeztu zion bere arima ederra Gure Aita Jeneralak, lasaitasun handian eta elizakoak hartu ondoren. Gure Aita ahaztezina nahiko txarto gaisorik egona zen baina hobeto zebilen eta zer eduki zuen kontatuz idatzi zidan, baina gaixondoa iragan ondoren kontzioliora joateko asmotan. Hain zuzen ere, joan eta lanetan partehartzen hasia zebilen; ez dakigu hau erorialdi baten ondorio izan den. Egiatan Kongregazio osoa, atsekabez, umezurtza gorrian geratu da; guztiek izan dute galera handia; utzitako hutsunea nekez bete daiteke, ezin dela ez esatearren; batez ere, guk, beste inork baino gehiago galdu dugu. Nik ez dizut, nere aldetik beste ezer esango, ondo baino hobeto baitakizu zer nolako lotura nuen Berarekin eta zenbat zor nion. Direla 25 urte hartu nuen bere eskutik Ordenako habitu santua; ordutik honantz hainbat maitasun eta konfidantza seinale (merezi gabe) eman dizkit; ezin hobea izan da niretzat; hori dela eta, bada, lur jota eta zeharo atsekabetuta nauzu»[520].

dd. *Komentuko bizitza eta nobiziatua sortzea.*

— Betekizunak.

Karmengo komentuan karmeldar gutxi batzuk zihardute bizitzen 1868.eko azken bi hileetan hasi eta 1869.eko lehen erdialdian zehar; erlijiosoek egoeren arabera eta ez Ordenako legeen eginkizun zehatzen eran bizi ziren. Hau zela eta, Aita Juan de la Virgen zeritzonak kexak aurkeztu zizkion 1869.eko maiatzaren 9an Aita Je-

[516] *Correspondencia...*, 124.zk., 1870-III-8ko gutuna.
[517] *Correspondencia...*, 126.zk., 1870-III-15eko gutuna.
[518] *Correspondencia...*, 127.zk., 1870-III-20ko gutuna.
[519] MKA, A-I-148, Aita José María fraideak Aita Jeneralari 1870-II-16an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[520] *Correspondencia...*, 132.zk., 1870-VII-20ko gutuna.

neralari erreguladunen bizitza ez betetzeagatik, erregulartasunez otoitza bakarrik egiten zelako[521].

Hainbeste konponketa egiten ari zen komentuaren harako unea eta, etxetik kanpo, komentu edo ikastetxe gisa iraun zezan legezkotasuna lortzeko ahaleginetan burubelarri lanean edota etorkizuna egokiro finkatzeko eta gertatzeko dirulaguntza bila Frantzian eta Euskal Herrian zihardute Aita Pedro Jose eta Aita Manuelen egoera kontutan hartuz, ez zen bat ere bidezkoa eta egokia Aita Juan fraidearen kexa.

Finkatzen ari zen, bestalde, Karmeldarrek jende aurrean zeramaten bizimodua. 1869.eko martxorako erlijioso gutxi haiek lasai bizi ziren komentuan habitu eta guzti, kanpora irteteko kentzen bazuten ere[522]. Gobernadoreak habitu eta guzti irteteko eskubidea zutela eta horrela jendea ohitu egingo zela esaten zien; eta horrela egiten zuten bidaia luzeetan izan ezik[523]. Egoera hobetu adinean ugaritu egin zen komunitatea 1869.eko ekainean Aita Pedro José eta Pedro de S.Elías bertaratu zirela.

Geroxeago, Aita Domingo de S. José Jeneralak urriaren 3an, agindua eman zion Markinako Prioreari oraindik Donibane-Lohizunen aurkitzen ziren Aita Karmeldarrak itzulerazteko eta elkarrekin bizitzen hasi eta misiolari ikastetxean nobizioak hartzeko[524].

Baina, antza denez, erabakita zuten itzultzea, urriaren lean Aita Manuel Markinarako bidaia gertatzen eta Gaytan Kondearen arreba, Casilda María de Valdespina agurtzen ageri zaigu eta[525]. 1869.eko urriaren 5ean atera ziren (Aita Manuel, Aita Toribio, etab...) Donibane-Lohizunetik[526].

Horrela, Aita Manuel berberaren testigantzaren arabera, 1869.eko urriaren 8an bildu ziren Markinan talde bizitzari behin betiko errregulazko eran hasiera emateko[527].

— Liturgia.

Ezaguna dugu, esaterako, 1869.eko martxoko igandeetan jende ugari biltzen zela Karmengo elizan; lau edo bost leguatako distantziatik, praktikoki Lea-Artibaiko eskualde osotik etorritako jendea, Karmeldarrek goizeko 5etatik eguerdirarte aitortzen egiten zutela[528]. Uztailan oso ongi gertatu zuten Karmengo Amaren jaia[529].

---

[521] MKA, A-I-147, 1869-V-9ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[522] MKA, A-I-134, Aita José María fraideak Bordeletik Aita Jeneralari 1869-III-26an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[523] MKA, A-I-141, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari 1869-VII-19an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[524] SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico*, 88-89.orr.

[525]

[526] BAS, 26 /P: Aita Toribioren 1890-V-23ko gutuna.

[527] P.MANUEL DE S.TERESA, *Notas...*, 16.orr. (BAS, 26/P).

[528] MKA, A-I-133, Aita José María fraideak Aita Jeneralari 1869-III-10ean eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[529] *Correspondencia...*, 110.zk., 1869-VII-9ko gutuna.

Eta uztailaren 10ean Aita Pedro Josek konbidapena egin zion Gaytan Kondeari jantoki berriari hasiera emango zioten Karmengo jaiko ospakizunera[530]. Ospakizun handi honen deskribapen laburra heldu zitzaion Aita Jeneralari[531].

Haunditasunez ospatu ziren elizan 1870.eko martxoaren hasieratan ihauteriak zirela eta eginiko 40 orduak: lehen eguneko hitzaldia euskaraz egin zuen Aita Miguel karmeldarrak, jende ugari bildu zelarik; bigarren egunean, Aita Toribiok gazteleraz eta hirugarrenean, Aita Manuelek, oraingoan ere, gazteleraz. Eta hainbat jende etorri zen eta meza-eskaintza ugari emanez[532].

Jendea, Karmeldarrak bene-benetan begiesten zituela, gertu agertu zen, esklaustrazio aurreko urteetan bezala, gari, arto eta abarren dohaintzak egiteko[533]. Aita Pedro Josek jendea, elizan egiten ziren elizkizunak eta sortutako nobiziatua zirela bide, pozez zoraturik zegoela esatera ausartzen zela diosku[534].

Komentuko bizimodua eta liturgia berriztatu ondoren, komunitateko Aita Karmeldarrak kezkaturik ari ziren elizkizunetan jarraitu beharreko karmeldar liturgia egutegiaren zioz. Aita Pedro Jose Prioreak kontsulta egin zion Aita Jeneralari 1869.eko urtearen hasieran: ez zaukaten Espainiako Kongregarioko liturgia ofiziorik (orduen libururik), baina jai propio eta bereziak zaintzen zituzten; hala ere, ez zegoen ezer garbirik eta bera eta Markinako fraideek Akitania Probintziako karmelarren liturgia egutegiaren arabera egitearen aldekoak ziren[535].

Egun gutxi barru Aita Jose Mariak eritzi berdina agertzen zuen Carcasonne-ko bere komentutik; Akitaniako karmeldarren egutegiari hiriko eta elizbarrutiko santu zaindariak erantsiko zitzazkion[536]. 1869.eko urtearen bukaeran, Aita Manuelek Burgos-eko Aita Pedro Goiri fraidekideari kontsulta egin ondoren, oraindik konpondu gabe zegoen arazoa[537].

1870.aren hasieran Erromako Prokuradore Jeneralari idaztea pentsatu eta erabaki zuten, berak Espainian ospatu beharreko santuei buruz eskaria egin ziezaion Erritoen Kongregazio Santuari: Santiago (1. mailakoa), Pilarreko Andra Maria (1. mailakoa), San Inazio (1. mailakoa) elizbarrutiko zaindaria eta Markinako zaindariaren eguna: lau ofizio hauek eskatzen ziren eta gainerakoentzako 1856.eko ekainaren 26an Erritoen Kongregazio Santuak onartutako Italiako Karmeldar Kongregazioaren egutegia

---

[530] *Correspondencia...*, 114.zk., 1869-VII-10eko gutuna.

[531] MKA, A-I-141, 1869-VII-19ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[532] MKA, A-I-152, Aita José María fraideak Aita Jeneralari 1870-III-8an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[533] MKA, A-I-147, 1869-IX-7ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[534] MKA, A-I-148, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari 1870-II-2an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[535] MKA, A-I-128, 1869-I-5eko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[536] MKA, A-I-130, Aita Jeneralari 1869-I-13an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[537] MKA, A-I-145, Aita Manuel de S.Teresa fraideak Aita Jeneralari 1869-XI-15ean eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

hartuko zen; hau da, Akitaniako egutegiari jarrituko zioten zuzenketa txiki batzu eginez[538].

Ardura hauek eragina zuten hasita zegoen nobiziatuko otoitzordu liturgikoetan.

— Bokazioen lehen epealdia eta nobiziatuaren hasiera.

1869.aren hasieratan eta komentua konpontzen ari zirela, esan den bezala, bertan bizi ziren Karmeldar gutxiek, kanporantz begira estatuko politika eta erlijio alorreko egoera larria zelako isiltasuna jagonez, ez zela komeni Donibane-Lohizunen zeuden Fraideak etortzea eta ezin zela nobizerik hartu gogoratzen zizkioten Aita Jeneralari[539].

Hiru hilabete geroago Aita Pedro Josek Bordeletik Markinara itzultzea pentsatu zuen berarekin Aita Pedro eramanez, horrela, bakean uzten bazituzten, erlijozko betebeharrak egiteko lau Aita Karmeldar bilduz Markinan. Eta Bizkaiko Gobernadore onak jarraitu ezkero Donibane-Lohizuneko gainerako fraideak eramango zituzten. Aita Jeneralari, bazituela nobizegai batzu jakinerazten zion eta fraidegai horiek Le Broussey-ra joatea komeniko zen ala ez eta ea gero nobiziatuan jarraitzeko Markinara aldatu ahal izango zuten galdetzen zion[540].

1869.eko urrian erregulartasun handiagoz komunitate bizitza egiten hasi ondoren, argiago ikusten zen nobizek hartzeari zegokion arazoa. Hain zuzen ere, Martin Tosantos Bizkaiko Gobernadore Jnak zein Domingo de S. Jose Jeneralak nobizek Markinan hartzea nahi zutelako; eta Aita Pedro Josek Kondeari bazituela 9 nobizegai eta eskatuak zituela beharrezko agiriak eta txostenak apezpikuei jakinerazi zion[541]. Lau egun geroago Aita Pedro Josek zehazkiago eta pozez beterik honako hau idatzi zuen: «Zer esanik ez hasi gara geure eginbideak egiten eta Nobiziatu Santuko gure konponketak amaitzen, nobizegaiei idazten»... «laster dugu, bada, hasiera eta Gure Aita Jon Gurutzeko Santuaren bezperan bederatzi gazte eder, bokazio zintzo eta gramatikari oni habitu santua ematea itxaroten dugu; hauen ondoren beste bigarren multzo bat dugu beranduxeagorako utzita, gramatikari onak eta gerora buru argiak izatea nahi dugulako; beste batzuri ezetza eman diegu ez gintuztelako asetzen»[542]. Eta gutunaren azkenaldean gaitzetsi egiten zuen Aita Jeneralak Le Broussey-ko nobizek Markinara ekarri ahal izateko emandako ahalbidea: lehen eta behin, Aita Pedro Josek ez zituen ezagutzen eta, gainera, Markinako komunitatearen arabera, Markinan bertan egokiro heziera ematea komeni zen; komunitateko Aita Karmeldar guztiak

[538] MKA, A-I-149, Aita josé María de S.Luis Gonzaga fraideak Aita Jeneralari 1870-I-11n eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[539] MKA, A-I-128, 1869-I-5eko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[540] MKA, A-I-136, 1869-IV-12ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[541] *Correspondencia...*, 144.zk., 1869-XI-9ko gutuna.
[542] MKA, A-I-144, 1869-XI-12ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

eritzi horretakoak ziren; bestalde, nahi adina nobizegai zituzten ez-mezakoak izateko[543].

Bederatzi nobizegai onartu[544] eta hilabete barru Aita Pedro Josek 1869.eko abenduaren 28an jarraikoa idazten zion Gaytan Kondeari: Aita Jenerala «pozez zoraturik dago hain atseginak diren hemengo berriak jasota; oso ondo konpontzen gara herritar guztiekin; kanpaiak jotzen ditugu gauerdian; nobiziatu *charmant* bat dugu; konponketek aurrera jarraitzen dute; gauerdian *Messe Royale* abestu genuen, jende ugari etorri zelarik: alkatea eta beraren familia eta adiskideak, Mugartegui-tarrak, etab. etab. Guztira 19 gara eta laster izango dugu hogeigarrena»; mirari bat iruditzen zitzaion[545].

1870.eko urtarrileko 26aren aurreko egunetan beste nobizegai bat, Julian de la Purificacion, Galdakaoko semea hartu zuten eta habitua 1870.eko otsailaren 1ean hartu zuen arratsaldeko bost'erdietan: ordurako 10 nobize ziren eta guztira hogei kidek osoturiko komunitatea egiten zuten[546]. Baina otsailean Aita Pedro Josek, laster, martxoaren 23ko bozketan gaitzetsia eta etxera bidalia izango zela uste zuen; eta hau egin arte ez zuen sartzeko asmotan zebiltzan beste 7 edo 8 nobizegai hartzerik nahi[547].

Egiatan uztailaren 15ean beste lau nobizegaik hartu zuten habitua, beraiekin 19 nobizio izatera heldu zirela eta komunitate osoa 29 karmeldarrek osotzen zutela[548]. Ikus daitekeenez lehen zortzi hilabeteetan izugarrizko ugariketa izan zuen nobiziatuak.

Aita Domingo Jeneralak, heriotz bezperetan bidaltzen zien beharrezko izendapenak Miguel Aita Priorari eta Manuel de Santa Teresa nobizen maisuari eta Aita Pedro José lehen diskretu edo aholkulariari eta, era berean, Aita Priorea «bikario probintzialari zegozkion eskumenak zituela komisari nagusi» izendatu zuen[549].

Hilabete batzu geroago, 1870.eko abenduaren 18an, Aita Lucas de S. Juan de la Cruz Bikario Jeneralak (ordurako hila zen Aita Domingo de S. José Jenerala Aita Pedro José de Jesús María izendatu zuen, bikario probintzialari zegozkion eskumenak emanez bere komisari nagusi[550].

---

[543] Markinako nobiziatuan, Iraultzaldian Espainiara ihes egindako kaputxino frantses gazte bat hartzea ere aipatu zen... Baina, Baionako kaputxinoek hartu zuten: MKA, A-I-145, 1869-XI-15eko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[544] Aita Manuelek azaroaren 24ean 8 nobize hartu zirela dio: P. MANUEL DE S. TERESA, *Notas*..., 16.orr. (BAS, 26/P; MKA, A-I-279).

[545] *Correspondencia*..., 117.zk.

[546] *Correspondencia*..., 119.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-I-26an eginiko gutuna; MKA, A-I-148, berberak Aita Jeneralari 1870-II-2an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[547] MKA, A-I-151, 1870-II-28an Aita Jeneralari eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[548] *Correspondencia*..., 132.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-VII-20an eginiko gutuna.

[549] MKA, A-I-174, 1870.VI.16ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean; BAS, 139/H, Aita Domingo de S. José Jeneralak Aita Miguel fraideari 1870-VI-16an eginiko gutuna.

[550] BAS, 20 /D.

— Lehen nobizioak: datu batzu.

1870.eko uztailerarte sartu ziren 19 edo 20ren artean, hamasei izan ziren 1870-1871.ean profesio txikia egin zutenak: 11 bizkaitar, 4 arabar eta errioxar bat. Eta 1869.ean sartu eta geroago erantzukizun handiko postuak izan zituztenen artean bi gogora ditzegu: Jeronimo de la SS.Virgen (Garitagoitia), Zornotzako (Bizkaia) semea (1846), profesioa 1870-XI-24ean egin zuen; geroago probintzial eta Definitore Jeneral izan zen. Eta bestea, Bernardo de Jesús (Felipe de Arganzoniz), Zornotzako (Bizkaia) semea (1852); profesio txikia Felipe de la Purísima Concepción izena zuela 1870-XI-24ean egin zuen, baina 1873-XI-24eko profesio nagusian Bernardo de Jesús izena hartu zuen: Indian misiolari eta Verapoly-n 1896.ean artzapezpiku izan zen.

d. **Kentze berria edo aldaketa.**

aa. *Bizkaiko Gobernadorearen aldaketa.*

Segurtasunik gabeko garai hartan eta Gobernadore Martín Tosantos, Gaytan Kondearen senidea eta Markinako Karmeldarren adiskidea zelarik, 1869.eko hasieran, Aita Pedro Josek gerta zitekeen Gobernadorearen aldaketak sortzen zizkion kezkak eta beldurrak agertu zituen[551]. Eta bi hilabete geroago Aita Jose Mariak Bordeletik ezin zitekeela Tosantos adiskide onarengan gehiegi fidatu esaten zuen, edozein unetan etor zitezkeen agindu eta gainerakoak bete beharra izango zuelako[552].

Hain zuzen ere, Martín Tosantos Gobernadorea, «Santa Isabelen Gurutze»[553] ohoretsua eskuratu ondoren, Almeria-ra aldatu zuten, bertan laster utzi zuelarik gobernadore postua[554].

Laster, Salazar y Rivero-k Gobernadore postua hartu ondoren, Aita Pedro Josek berari ikustaldia egitea pentsatu zuen[555]. 1870.eko martxoa zen. Gobernadore berria erlijiosoen elkarteak eta eliza erasotera etorri zeneko zurrumurruak zabaldu ziren, zurrumurru horiek, behinik behin, Gobernadore berberaren belarrietara heldu zirela[556].

Martín Landia Jnaren laguntzaz, Gobernadorearekin entzunaldia izatea lortu zuen, berak oso ongi hartu zuela. Aita Pedro Josek Itsasoz-bestaldeko Misiolarien Ikastetxe egiteko komentuaren konponketan eginiko ahalegin pertsonal eta ekonomikoak eta Markinako herriari eta inguruetakoei ekarritako ondasunak eman zizkion aditzera, Karmeldarrak oso maitatuak zirela esanez. Gobernadoreak, egindako on guztia finkatu nahi zuela berak, erantzun zion; eta moraltasun-faltazko egoeraren

---

[551] *Correspondencia...*, 100.zk.,1869-I-7ko gutuna.
[552] MKA, A-I-134, 1868-III-2ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[553] *Correspondencia...*, 120.zk.,1870-I-12ko gutuna.
[554] *Correspondencia...*, 125.zk., 1870-III-9ko gutuna.
[555] *Correspondencia...*, 130.zk.,1870-IV-1eko gutuna.
[556] *Correspondencia...*, 128.zk.,1870-III-25eko gutuna.

aurrean emandako aginduaren ikuspegia azpimarratu zion. Ikustaldi honekin biak geratu ziren pozik[557].

Gobernadore Jnak geroxeago, urte bereko ekainean Markinako Karmengo komentuari ikustaldia egin zionean, egindako guztia erakutsi zioten eta berak lankidetzarako asmo onak agertu zituen[558].

bb. *Frantziskotarrak kentzea eta larrialdi berriak.*

Lankidetza asmo on guzti hauek hala ziren arren, Karmeldarrek ikaraka jarri ziren frantzizkotarrei, hain zuzen Bermeokoei gertatua ikusirik.

1869.eko maiatzean egin zen ageriko Bizkaiko Gobernu Zibilean Bermeoko frantziskotarren arazoak sortzen zuen nahigabearen berri, Itsasoz-bestaldeko Ministeritzaren joeraren ondorioz eraikina herriaren eskutan uzteko agindu etorri baitzen[559].

Baina egoera areagotu egin zen 1870.ean nahaste politikoak zirela tarteko. Horrela, Miguel de Calle Prioreak, 1870.eko irailean egunkarietan Bermeo eta Zarautzeko frantziskotarren komentuak kentzen zituen Itsasoz-bestaldeko Ministrariaren dekretuaren berri izaterakoan, barruan zuen kezka larria agertzen zion Gaytan Kondeari[560]. Egun batzu geroago, irailaren 14ean erantzun zion Nacarino Jnak Konde Jnari ez zuela bat ere harritzen Ministeritzak hartutako erabakiak eta berehala burura etorri zitzaiola Markinako komentua eta beraien jokaera oso-osoan komentua eraikitzeko emaniko baimeneko baldintzetara mugatzeko erreguz idatzi zion: «No me ha sorprendido el decreto de supresión de esos conventos de San Francisco. El P.Estarta no cumplía con lo preceptuado; y sobre todo cuando vi que los sesenta carlistas de Zarauz habían confesado y comulgado juntos y salido como que en la campaña del convento, temí lo que ha pasado y que siento con todo mi corazón.

Al momento me acordé de nuestros queridos PP. de Marquina, y he visto con gusto que nada se dice de ellos. He escrito al Ministro de Ultramar, para que con toda reserva me informe lo que puede haber, y en consecuencia obraré, y sin pérdida de tiempo avisará a V. según la urgencia.

Observo en la argumentación de Ustedes un error que nos puede ser fatal. Esa santa casa se ha abierto para Misiones de Ultramar, y no en otro concepto. Sin esta circunstancia no hubiera concedido su apertura o fundación el Ministro de Ultramar, y de seguro no la hubiera autorizado el Ministro de Gracia y Justicia»... «Por Dios, comprendan ustedes bien la posición de esa comunidad, a fin de no suministrar armas

[557] MKA, A-I-153, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari 1870-III-23an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.*Correspondencia*..., 128.zk., berberak Gaytan kondeari 1870-III-25ean eginiko gutuna.

[558] MKA, A-I-156, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari 1870-VI-17an eginiko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[559] *Correspondencia*..., 106.zk., 1869-V-7ko gutuna.

[560] *Correspondencia*..., 133.zk.,1870-IX-11ko gutuan; 134.zkia, 1870-IX-12ko gutuna.

de verdadera ley en su contra. Lean ustedes la Real Orden de su fundación y parapétense en ella, pues tienen apoyo legal»[561].

Lehen unean, Bermeoko frantziskotarren komentua kendua izan zenean, harrituta geratu zen Gobernadorea, era berean, Karmengo komentua ez zela kendua izan ikusirik[562]. Horregatik gomendatzen zion Nacarino Jnak Madriletik Kondeari Karmeldarrek lasai eta «higitu» gabe, hau da, isil-isilik egon behar zutela[563]

cc. *«El Imparcial» egunkaria eta kenduak izateko beldurrez.*

Itxarotekoa zenez, frantziskotarren gertakariak Karmeldarrak zipriztindu zituen, ondorioz kenduak izateko beldurra sortuz. Hain zihurtasun gutxikoak eta egunkari batzu erlijioaren aurkako ageri ziren garai hartan *El Imparcial* egunkariak egin zion gezurrez beteriko informazio bidez kalterik handiena Markinako Karmengo komentuari. Hain zuen ere, irailaren 16an Karmeldarrak karlisten altxamenduaren kobazulo zirela zekarren gezur hutsezko informazioa argitaratzen zuen. Aita Pedro oso minduta zegoen *El Imparcial* Madrileko egunkari eraginkor eta zabalduan agertutako gezurragatik; bertan karmeldarrak mundu guztiaren begibistan altxamendua bultzatzen eta zuzentzen ari zirela esaten zuen: «No se ha adelantado nada en Guipuzcoa con la supresión de los Colegios de Misioneros para las Antillas bajo el punto de vista [de] insurrección carlista. Los mismos focos que antes existían, sirven hoy de núcleo a los trabajos de propaganda, con la diferencia de que al Colegio de Misioneros de Zarauz, ha sucedido el de Carmelitas de Marquina, y el Cabildo de Vitoria, que con un descaro inaudito, a ciencia y paciencia de todo el mundo siguen fomentando y dirigiendo el movimiento insurreccional»[564].

Biharamunean, 17an, Nacarino Jnak, estu eta larri, Itsasoz-bestaldeko idazkariordeak Markinako komentuari buruz eskatu zuen espediente laster bat aipatzen zuen[565]. Arazoa hain larria izanik, Aita Pedro Josek Kondea informatu zuen: Gobernadore Jnak Markinan jaioa zen Jose María de Murga Diputatu Jnari dei egin eta Karmeldarrei buruz informazioa jaso zuen; Diputatuak fraide oso etxekoiak zirela eta ez zirela politika arazoetan sartzen esan zion. Arazoak itxura larriagoa hartu zuen eta Diputazioan bozketa egin zen, 22 bozemaileen artean 17 Markinako Karmengo etxearen alde eta 5 aurka agertu zirela. Prioreak esker ona agertu zion aipatutako diputatuari[566].

Udala ere fraideen alde atera zen, 1870-IX-21eko batzarraldian Karmeldarrek ez zutela parterik izan abuztuaren 21eko karlisten altxamenduan ziurtatuz: Julián de

---

[561] *Correspondencia...*, 135.zk.
[562] *Correspondencia...*, 138.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-IX-19an eginiko gutuna.
[563] *Correspondencia...*, 136.zk.,1870-IX-16ko gutuna.
[564] *Correspondencia...*, 138a.zk.
[565] *Correspondencia...*, 137.zk.
[566] *Correspondencia...*, 138.zk., 1870-IX-19ko gutuna.

Bascaran alkateak eta José de Onaindia, José de Munchaca, Patricio de Ugarteburu eta Pedro de Ibaibarriaga Jnek sinatzen zuten, amaieran Tomás de Urtiaga-k eginez[567]. Beste hainbeste egin zuen, egun berean, Markinan Manuel Gogoascoechea Jnak[568].

Iguramen hauen artean eta espedientea eginbidean zela Aita Pedro Josek Kondeari idatzi zion irailaren 21an, bera zela Karmeldarren itxaropena esanez eta beraren baliabide handiak erabiltzeko eskatuz, kasurik txarrenean, kentze Dekretua etorten bazen ere, bi edo hiru fraidek elizaren zerbitzuan jarraitzea lortzeko[569], Madrilera joan eta Gorte inguruan egotearen nahiera ere ematen ziola aditzera.

Hain zuen ere, Gaytan Kondea berehala hasi zen lanean Madrileko Ministeritzetara, bere Karmeldarren defentsan idazten: horrela idatzi zion Aureliano Beruete Jnari, beraren seme politiko eta ministrari zen Moret Jnaren aurrean bitarteko egin zezan eta Markinako misiolari erlijiosoei bakean uzteko erregut ziezaion[570]. Nacarino Jnak ere, ahal zuen guztia egingo zuela «gure erlijioso maitagarrion alde» agindu zion[571].

Eta Martín Tosantos, Bizkaiko aurreko Gobernadodea minduta zegoen eta Gaytan kondeari Markinako komentua ez zegoela espreski kenduta esaten zion; hala bada, kondea Madrilera joateko baldin bazen berak pozik lagunduko zion ahal zuen adinean eta «satanasen eta Rivero-n politika kaltegarriak Herrialde horri ekarriko dizkion ondorio larriak» aipatzen zizkion[572].

dd. *Kentzea edo aldaketa eta Gaytan Kontearen kudeaketak (1870.eko urria).*

— Kentzeko arriskuan.

Bazterrezina zirudien etxea kentzeak. Baina, Kondeak halakoa eragozteko sokamutur guztiak higitzen zituen. Aita Pedrok ezinbestekoa zela bera Madrilera joatea esaten zion «aulkirik aulki gutun bidez lortzen ez direnak lortzen direlako». Eta Madrilera Martín Tosantos Jnaren eta Markinako udalaren etabarren gomendiozko gutunez beterik joan ahal izango zuen[573].

Bien bitartean Nacarino Jnaren berri txarrak heldu ziren: erabakita zegoen kentzea; Kondeari irailaren 22an idatzitako gutun hori minberatasunezko sentimenduz beteta dago. Bertan, etxea kentzea erabakita zegoela jakin erazi zion. Era berean, egin zitekeen bakarra Konstituzioaren babespean apaizen habitua jantzi eta etxe partikularretan bizitzea zela esanez. Madrileko Ministeritzetan jende trataezina zegoela

---

[567] MUA, *Libro de acuerdos...*, 1859-1876, (MKA,A-I-161); *Correspondencia...*, 138.zk.
[568] *Correspondencia...*, 138d.zk.
[569] *Correspondencia...*, 138e.zk.
[570] *Correspondencia...*, 138c.zk.,1870-IX-19ko gutuna.
[571] *Correspondencia...*, 138f.zk.,1870-IX-21eko gutuna.
[572] *Correspondencia...*, 139.zk.,1870-IX-21ko gutuna.
[573] *Correspondencia...*, 140.zk.,1870-IX-21ko gutuna.

gaineratzen zion: «Como dice a V. el señor Beruete, está acordada la supresión del convento de Marquina, y eso se verifica a instancias del Gobernador Civil y del Capitán General. No hay medios de evitar esta catástrofe, que siento con todo mi corazón. Estos señores son inabordables.

En mi sentir, no queda otro recurso que el que V. les dé albergue vistiendo sólo hábito clerical como si viviesen en casa particular, a lo que tienen derecho perfecto y constitucional, procurando evitar las reales actas de sus enemigos.En verdad, atravesamos un período de grandes calamidades.

Cuando se verifique el despojo de la Santa Sede sin recabar una sola protesta, ¿qué ha de pasar a un humilde convento de Descalzos? Paciencia»... «Créame V., y sírvase así decirlo a esos santos varones, que siento con todo corazón cuanto les ocurre, pero que no está en mi mano hacer más en su obsequio. Que tengan paciencia, que el Señor mejorará sus horas»[574].

Horrela, Aureliano de Beruete Jnak hurrengo egunean Kondeari jakinerazten zion ezin izan zuela ezertan lagundu, kentzea ordurako erabakita zegoelako[575]. Bizkaiko Gobernadore militarrak arazoa kontu zibila zela eta ezin zuela nahastu erantzun ziola..., baina oraindik ez zela etorri kentzeko dekretua[576].

Oraindik ahalegin gehiago egin ziren hondamendia urrutiratzeko. Martin Tosantos Jnaren gutun bat bidali zion Kondeari Sagasta Ministrariarentzat Madrilen egiteko kudeaketetarako[577]. Eta irailaren 25eko gutunean delako Ministrariari Itsasozbestaldeko Ministrariaren aurrean Karmeldarren alde kudeaketak egiteko eskatzen zion[578].

Aita Pedro Josek berriro gogoratzen zion Gaytan Jnari agintarien aurrean arrazoi ekonomikoak, hau da, eginak izan ondoren oraindik ordaindu gabe zeuden gastuak erabiliz presioa egiteko[579]. Eta 27an idatzitako beste gutun batetan, berarengan zuen konfidantza handia aditzera emanez, Markinako komentu-ikastetxea, etorkizunean, edozein motatakoa zelarik gobernua, segurtasun handiagoan izan zedin, beraren izenean jartzea proposatu zion[580].

Ikara handiko eta zihurtasunik gabeko egoera honetan, Kondeak kudeaketa egokiak egin zituen itxaropenari zirrikituren bat bilatzeko: kentze dekretua aldatze-dekretu bihurtzen saiatu zen; Aita Pedro Jose beraren adiskideari itxaropena sortzen zion egundoko asmoa iruditu zitzaion; laster ikusiko dugunez, berehala jarri zen, leku bila; lehenengo bururatu zitzaizkionak Larrea eta Lazkao izan ziren[581].

Biharamunean, irailaren 30ean, bazterrezina zena baztertzeko asmo-multzaketa artean, Aita Pedro Josek onartu egin zuen Kondearen ideia, hain zuzen, Markinan

---

[574] *Correspondencia...*, 141.zk.
[575] *Correspondencia...*, 142.zk.,1870-IX-23ko gutuna.
[576] *Correspondencia...*, 144.zk.,1870-IX-24eko gutuna.
[577] *Correspondencia...*, 145.zk.,1870-IX-24eko gutuna.
[578] *Correspondencia...*, 146.zk.
[579] *Correspondencia...*, 147.zk.,1870-IX-27ko gutuna.
[580] *Correspondencia...*, 148.zk.
[581] *Correspondencia...*, 150.zk.,Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-IX-29an eginiko gutuna.

komentu-ikastetxean irakaskuntza ahaleginak ugaltzea, beharrezkoa zen frantseseko katedra bat sortuz eta beste hainbeste gainerako irakaskuntz alorretan eginez[582].

Baina, azkenean, heldu egin zen hainbesteko beldurra izan zitzaion Markinako komentuaren kentze ofiziala: kanporatze ofizioa 1870.eko urriaren 2an heldu zen eta Mariano Ballestero Itsasoz-bestaldeko Ministeritzako idazkariordeak sinatuta zegoen eta Markinako Misioetarako Ikastetxeko Prioreari, besterik gabe, etxea ixtea ala aldatua izatea nahi zuen galdetuz egina izan zen:

«Habiéndose acordado por el Ministerio la supresión del Colegio que V dignamente dirige, por hallarse en las mismas condiciones que los extinguidos en 3 de septiembre último, de orden de S.A. comunicada por el Señor Ministro de Ultramar, lo pongo anticipadamente en su conocimiento a fin de que a la brevedad posible manifieste si esa comunidad prefiere trasladarse al Colegio de Misioneros que con destino a Tierra Santa se halla establecido en Santiago de Galicia.

Dios guarde a V. muchos años.
Madrid, 2 de octubre de 1870.
El Subsecretario, Mariano Ballestero
S^{or}. Prior del Colegio de Misioneros de Marquina»[583].

Agiriak aldaketa egiteko bidea aipatzen zuen; kentzea aldaketa izatera bilakatu zen; berak aitortzen duenez, Gaytan Jnaren kudeaketen bidez lortutako zerbait zen[584]. Ezarpen hau hartuko zen jarraiko kudeaketak egiteko eta gobernuko erabakiei atzeramenduak emateko bidetzat.

Bestalde, Aita Pedro Josek, neurriak dekretu bidez hartuak izan ez zitezen ahal zuen guztia egiteko eskatuz idatzi zion Gaytan Kondeari urriaren 6an; ezinezkoa iruditzen zitzaion Larreara edo Lazkaora aldatzea. Ondorioz, isilik eta geldi egotea komeni zen; eta etxean egongo ziren zehazkiro kanpora botako zituen dekretua etorri arte; eta ongi iruditu zitzaion Kondea Bilbora joan eta agintariek ezjakinena egitea lortzea[585].

Hala ere, Gobernuak aurrera zeraman bere ideia, urriaren 6an bertan idatzi baitzion Ogasuneko Ministrariak Gaytan Kondeari Markinako komentua hustu eta beste zerbitzu batzutarako erabilia izango zela[586].

Aita Miguel de Calle Prioreak 1870.eko urriaren 8an erantzun zion Itsasoz-bestaldeko Ministrariari. Bertan, Markinako komentuko fraideak prest zeudela herriko gaztei frantseseko eskolak emateko aditzera eman eta, bestalde, berriztaketa egiterakoan Gobernuaren inolazko laguntzarik gabe beraien gain hartutako zorren (27.000 franko %5eko interesetan eta 10.000 erriel langileei eman beharrekoak) erantzun-

[582] *Correspondencia...*, 154.zk.,
[583] GPKA (MKA,E-I-41); ik., era berean, *Correspondencia...*, 158.zk., 159.zk.
[584] *Correspondencia...*, 173.zk., 182.zk.
[585] *Correspondencia...*, 162.zk.
[586] *Correspondencia...*, 164.zk.

kizuna nork hartuko zuen galdetu ondoren, Galitziara etxealdaketa egiteko dirulaguntza eskatzen zion honako idazki honen bidez:

«Excmo. Señor.

He recibido el oficio que V.E. me ha hecho el honor de dirigirme con fecha del 2 de este mes, y enterado de él, vengo con la mayor confianza a dirigir a V.E. una súplica respetuosa, pidiéndole se digne dejarnos continuar en este Colegio y prometemos a V.E., no sólamente estar a las órdenes del Gobierno para las Misiones, como es nuestra obligación, sino también utilizarnos en esta pequeña localidad enseñando el francés y otros ramos útiles a la juventud de este país. Si V.E. no tiene por conveniente concedernos la gracia que humildemente le rogamos, en este caso acepto la oferta que V.E. tiene a bien de hacerme de trasladar esta Comunidad a Santiago de Galicia, pero antes he de merecer de la bondad de V.E. la solución de una dificultad. El Gobierno no ha contribuído en nada para gastos de restauración de este ex-convento de Carmelitas, casi en un estado de ruina, y desde 2 años transformado en Colegio de Misioneros. Yo, encargado de llevar a cabo esta obra, he tenido que buscar medios y contraído compromisos que no puedo cumplir con motivo de esta nueva traslación a Santiago. He tomado de mis conocidos de Francia dinero prestado al interés del 5% al año, la suma de veinte y siete mil francos, los que se han invertido por completo en trabajos necesarios de este Colegio; desearía saber de V.E. quién ha de responder de estos intereses y del capital, como también de unos diez mil reales que aún debemos para los últimos pagos de los obreros. Mucho más que esto se ha gastado en restaurar este Colegio, pero todo ello se quedará en beneficio del establecimiento y Gobierno. De lo que llevo dicho arriba se desprende, Excmo. Señor que debemos estar enteramenmte desprovistos de medios para emprender una translación con esta su humilde Comunidad; por lo tanto, rogamos a V.E. que por el Ministerio de Ultramar venga a nuestro socorro para los gastos del viaje.

Dios guarde a V.E. muchos años.

Marquina, 8 de octubre de 1870. Fr.Miguel de Calle, prior»[587].

Une larri hauetan Markinako Karmeldarrei nolabaiteko lasaialditxoa eman zien gertari bat jazo zen. Ospe handiko pertsonaiei laguntza eskatze horien ondorioz, Belgikako ministrari batek Espainiako Nuntzioari gutun bat egitea lortu zen; eta Itsasoz-bestaldeko ministrariak, Belgikako beraren kidekoaren gutuna ikusiz arazoa konpontzeko itxaropenak eman zituen, seguraski Karmeldarrei ez zitzaiela etxean jarraitzeko eragozpenik jarriko esanez[588]. Itsasoz-bestaldeko ministrariak bere hitza bete zuen Markinako Prioreari zeuzkan kezkak uxatuz lasai egoteko esanez honako erantzun hau emanez:

«Sr.D.Miguel Calle.

---

[587] *Correspondencia...*, 167.zk.; GPKA (MKA, E-I-42).

[588] *Correspondencia...*, 177.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-X-14ean eginiko gutuna.

Madrid, 11 de noviembre 1870.

Muy Sr. mío: Enterado de la atenta que se ha servido V. dirigirme, me apresuro a decir a V. que tendré mucho gusto en complacerle en lo que me indica; pero, a pesar de sus temores, no creo sea necesario por ahora. Con este motivo tengo el honor de ofrecerme a V. afmo. s.s.q.s.m.b. -- S.Moret».

Eta Aita Migelek honako lerroak eransten zizkion Kondeari: «honen arabera, Konde Jna., ez dira alferrekoak izan zuk emandako urratsak eta jasandako nekeak eta burukominak. Jaunari eta Karmengo Amari erregu egiten diegu eskuzabalez ordain diezazun zure familia osoarekin batera, batez ere zeruan»[589].

Baina, inolazko ziurtasunik gabeko hilabete haietan, Ministrariaren hitz zehaztugabeak hala bazioten ere, ezin ziren fraideak lasai egon eta bi motatako ahaleginetan ihardun zuten: komentua erosteko ahaleginetan eta beren lekualdaketarako leku edo komentu egoki bila.

— Erosteko saioa

Aipatu dugu komentua kentzeko arriskuaren aurrean Aita Pedro Josek Kondeari komentua berehala erosteko egin zion ideia. Hain zuen ere, irailaren azkenetik azaroaren hasieratara bitartean, horretarako kudeaketak egin ziren zenbait agiritan ageri den bezala.

Etxea erostea komeni zen baina Kondearen izenean, fraideak ofizialki auzitegitan ager ez zitezen; ez zegoen Kondea bera baino erosle hoberik[590].

Konde Jna Madrileko adiskideekin harremanetan jarri zen erosketa egiteko. Irailaren 29an, mesedez, Ogasuneko Ministrariari komentua erosteko eskaintzaile gisa Gaytan, Villafranca-ko Konde Jna zegoela, kontutan har zezan, aditzera emateko eskatu zion Lope Gisbert-i[591]. Gaytan Jnak erosketa hau egiteko zituen kezken artean, adore ematen zion Aita Pedro Josek saio horretan aurrera egin zezan eta umorez esaten: «ez duzula pekaturik egingo, alderantziz, indulgentziak irabaziko dituzula diote eta Aita Maisuak zuk ziurtasunez Markinako Karmengo bazter honetan dauden erlijiosoak adina indulgentzia irabaziko dituzula gaineratzen du»[592].

Santiago-ko Markesa Andereak Lope Gisbert Jnaren bidez jakin berri zuena jakinerazi zion Kondeari: Ministraria ez zela saltzearen aldekoa baina Gaytan Jnak eska zezakeela enkatea eskatuz eta bertara aurkeztuko zela esanez[593]. Bi egun geroago, urriaren 7an, Kondeak Montero Rios, Grazia eta Justiziako ministrariari idatzi zion Ogasuneko Ministrariari Markinako komentua erosteko proposamena egin ziola esa-

[589] *Correspondencia...*, 199.zk., 1870-XI-13ko gutuna.
[590] *Correspondencia...*, 150.zk.,Aita Pedro Josek kondeari 1870-IX-29an eginiko gutuna.
[591] *Correspondencia...*, 153.zk.
[592] *Correspondencia...*, 155.zk., 1870-X-1eko gutuna.
[593] *Correspondencia...*, 161.zk., 1870-X-5eko gutuna.

nez, baina fraideak konstituzioaren arabera eta inolazko pribilegiorik gabe jabetza pribatuan bizi ahal izan dezaten eta Ministrarien Kontseiluan defendatzeko eskatuz[594].

Egiatan, aurreko egunean, 6an, Ogasuneko Ministrariari eskatu zion «legeen araberako tasazioa eta salmenta egitea agindu dezala berorrek, nire burua lizitatzaile gisa eskaintzen dudala»[595]. 8an, berri edo zurrumurru kontrajarriak izan ziren: Aita Pedro Josek ez zitzaiola komentuaren salmentari ibilbiderik emango uste zuen[596]. Hala ere, Kondeak enkantearen espedientea aste pare batetako kontua zela zioen[597].

Hain zuzen ere, urriaren 22an Lope Gisbert Jnak, Errenten Zuzendari Nagusiak jadanik emana zuela Markinako komentuaren salmenta agindua eta adi egoteko laster iragarriko zen enkantera aurkezteko jakinerazi zion Kondeari[598]. Abenduaren 3an iragarri zioten Gaytan Kondeari komentuaren enkantea; era berean, harridura sortu zion, S.Moret Ministrari Jnak komentuaren iraupena erabaki zuela jakiteak[599]. Egia esan, ziurgabetasuna, nahastea eta zalantza nabari ziren bazterretan. Eta Lope Gisbert Jnak Errenten Zuzendaritza Nagusiaren berria baieztatuz, fraideak komentua hustera behartu eta saltzeko erabakia hartu zuela Ogasunak idatzi zion: «según me dicen en la Sección de Administración de la Dirección General de Propiedades, lejos de existir orden alguna que continúen los religiosos ocupando el convento de Marquina, se han dado terminantes para que se desaloje, se incaute la Hacienda y se venda el edificio»[600]. Azkenean, arazoa aidean erabaki gabe geratu zen.

— Lekualdaketarako etxe bila

Gaytan Kondearen kudeaketen beste alderdia, gerta zitekeen Markinako Karmeldarren lekualdaketarako etxea bilatzea izan zen. Fraideek Gaytan Jnarekin batera, une berean, lekualdaketarako zenbait irtenbide edo leku aztertu zituzten.

Santiago: Dekretuak berak aipatzen zuen Santiago de Compostella-n ezarritako Lur Santurako Misiolarien Ikastetxea, bertara lekualdatzeko bidea emanez[601]. Aita Pedro Josek argi ikusten zuen eta hala adierazi zion Kondeari: Markinan jarraitzen saiatuko zirela eta ezinezkoa gertatzen bazen onartu egingo zutela lekualdaketa[602]; baina, orduan lekualdaketarako tokiari buruzko eztabaida sortu zen. Berehala idatzi zioten Santiago-ko Artzapezpiku Kardinaleari Madriletik, gerta zitekeen lekualdaketa horretarako laguntza eskatuz[603]. Lau egun geroago erantzun zion Artzapezpikuak

---

[594] *Correspondencia...*, 165.zk.
[595] *Correspondencia...*, 164.zk.
[596] *Correspondencia...*, 166.zk., Gaytan kondeari 1870-X-8an eginiko gutuna.
[597] *Correspondencia...*, 168.zk., Kondeak Cirilo Alvarez jaunari 1870-X-8an eginiko gutuna.
[598] *Correspondencia...*, 185.zk.
[599] *Correspondencia...*, 190.zk., Kondeak Aureliano Beruete jaunari 1870-X-5ean eginiko gutuna.
[600] *Correspondencia...*, 191.zk., 1870-XI-4eko gutuna.
[601] GPKA (MKA, E-I-41).
[602] *Correspondencia...*, 166.zk., 1870-X-8ko gutuna.
[603] *Correspondencia...*, 172.zk., 1870-X-10eko gutuna.

Gaytan Kondeari, Misiolarien Ikastetxeko erretorearekin hitz egin ondoren, honek ezinezkoa gertatzen zela, tokirik ez zuelako, Karmeldarren Ikastetxea bertara aldatzea esan ziola jakineraziz; baina astia irabazteko eta komunitatea salbatzeko komenigarri zela bi Karmeldar Santiago-ra arazoa tratatzera joatea gomendatzen zion[604]. Bestalde, fraideek ere ez zuten gogoko lekualdaketa hau urrutira joatea zelako.

Avila edo Burgos: Esan den bezala, lekualdaketarako tokirik egokienak, bost karmeldar, ofizialtasunik gabe bizi ziren Larrea edo Lazkao edota Arriaran ziren eta kudeaketa batzu ere egin ziren, baina laster ikusi zituzten oztopoak[605].

Berehala aurkeztu ziren leku egokitzat Avila edo Fontiveros eta Burgos; urriaren 10ean idatzi zion Gaytan Jnak Avilako apezpikuari, Gobernuak Markinako Karmeldarrei sortutako egoera azalduz eta bere elizbarrutian, esaterako, oso zaila ikusten zuen Santa Teresaren etxean edo Avilako beste alderen batetan bizitzen jartzeko aukerabiderik emango zion galdetuz[606]. Apezpikuak berehala, biharamunean erantzun zion: berak oso pozik hartuko zituela Karmeldarrak eta zenbat erlijioso izango ziren galdetzen zion, Fontiveros-en egiteko bidea ere, bide batez, aipatuz[607].

Bien bitartean, Itsasoz-bestaldeko ministeritzari erantzun beharra zegoenez Aita Miguel de Calle Markinako Prioreak urriaren 12an idatzi zion, Santiago-ra egin ordez Avilako elizbarrutira, hiriburura zein Fontiveros-eko herrira lekualdatu ahal izatea eskatuz[608].

Aita Pedro Josek 12ko egun berean idatzi zion Kondeari Santiago baino egokiago iruditzen zitzaiola Avila edo Burgos esanez, berak Burgos nahiago baldin bazuen ere; bialdua zuten ordurako, bestalde, errekadua Burgos-eko artzapezpikuari: zuzenketa-etxe bihurtutako Karmeldarren antzinako komentuan hiru Aita Karmeldar bizi ziren eta, gainera, nahikoa leku zuten eta beraren eritziz Avila baino hobeki gertatuta zegoen[609]. Eta egun batzu geroago, Avilako apezpikuaren galderei erantzunez berberak Kondeari Markinan 30 zirela, baina ez zirela guztiak Avilara joango, batzu Markinan geratuko zirelako, erantzun zion: zabalkundea egiteko estrategia aurkezten zion: «iruzur egin eta batzu hemen geratu nahi genuke komentutik kanpo bada ere, hau bertan behera ez uzteko»[610]. Horrela, hurrengo egunean Avila, irakasleen etxe gisa bikaritza izendatuko zela azaltzen zion[611]. Aita Pedro José ber-bera joan zen Avila-ra ahalbideak ikustera: Santo Tomas-eko eraikina, edo San Antonio-koa edota Fontiveros-ekoa... eta Segoviako Karmeldarren komentua ere gogoan zerabilen[612]. Fontiveros-eko antzinako komentua zeharo hondatuta ikusi zuen eta bertan, eskola

---

[604] *Correspondencia...*, 178.zk., 1870-X-14eko gutuna.

[605] *Correspondencia...*, 154, 155, 156, 162.zk.ak.: Lazkaoko komentuko jabea zen Valmediano Markesarekin mintzatuak ziren; eta, baita ere, Larreako komentuko arduradunekin.

[606] *Correspondencia...*, 173.zk.

[607] *Correspondencia...*, 174.zk., 1870-X-1eko gutuna.

[608] *Correspondencia...*, 176.zk., 1870-X-12ko gutuna.

[609] *Correspondencia...*, 175.zk.

[610] *Correspondencia...*, 181.zk.,1870-X-17ko gutuna.

[611] *Correspondencia...*, 182.zk.

[612] *Correspondencia...*, 197.zk., Aita Pedro Josek Kondeari 1870-XI-11n eginiko gutuna.

bat, dantzalekua etab. aurkitu. Segovia-koa ondo zegoen eta egokitzat jo zuen erostea eta hor-hemenka begira ari zen eta Palencia-ko antzinako komentua eskuratzean amets-asmoak jarri; baina, hala ere, atseginago zuen Burgos-eko fundazioa. Avila-ko apezpikuak ministrariaren borondate ona ikusirik, Markinako Aita Karmeldarrak bakean utziko zituela uste zuen, baina beharrizanik izanez gero, gertu zegoen bere laguntza emateko. Eta gehiago ere jakinerazi zion Kondeari, hots, aurreko bi urteak baino lehenagotik Bilboko Albian fundazioa egiteko buruan zerabilen 'txorakeria'[613].

Ikus daitekeenez, Aita Pedro Josek Markinako komentuaren defentsa egiteaz gainera, fundazio gehiago egiteko asmoz beteta ziharduen.

Hain zuen ere, Manuel Gogeascoechea Jnak, ministrari izandako Ardaraz Jn. bere koinatukidearen bidez kudeaketak egin ondoren, ez zuela lekualdetarik izango eta Markinan utziko zituztela jakinerazi zion[614]. Egin-eginean konfidantza hau zuela jakinerazi zion Aita Pedro Josek Urriaren 14ean Gaytan Jnari, nola egin zien ikustaldia Palominos Goardia Zibilen Komandanteak eta Gobernadoreak bezala laguntza eskaini; orain, bada, Markinako «etxe honen kimu gisa» Burgos-ekoa edo besteren bat eskatzea komeni zen[615].

Agiri guzti hauek aditzera ematen digutenez, baikortasuna eta ezkortasuna abiadura handiz txandatzen ziren elkarren arteko nahastean. Egia esan, fraideek Markinan jarraitzen zuten; eta orain beste etxe bat nahi zuten ikasleen etxe zereginetarako.

e. **Zeruko hodei beltz artean argi-izpiak.**

Orain bitxikeria bat jaso nahi dut. Historiagileen begiek iluntasun artean ikusi ohi dituzten «iragarpenezko» gertakari bat. Korellako moja erlijioso batek izandako ikuskari batzu dira. Hala ere, nolabaiteko sinesgarritasun itxura du kontakizuna edo gutuna idatzia izan zen lekua eta data kontutan hartuz gero.

Uz dezagun bazter batetan orain arte kontatu duguna: 40. urtetan zehar esklaustrazioa eta erlijioaren aurkako joera izan ondoren, 1868.eko abuztuaren 14ean berreraiki zen Markinako Karmeldarren lehen komunitatea. Baina bi hilabete geroago, urriaren 29an, Gobernuaren aginduz berriro itxia izan zen eta kanporatuak bertako erlijiosoak. Egoera inolazko itxaropenik gabea zen. Geroxeago, 17 egunetara, berriro komentura sartzea lortu zuten; eta horrela aurkitzen ziren 1869 eta 1870. urteetan, kanporatuak izateko mehatxuen eta burutzearen artean edota fraideak beste norabait lekualdatuak izateko arriskupean. Zalantza eta ziurgabetasun handiko egoera, beraz.

Eta, hara non izan zituen, une horretan, Korellako moja karmeldar batek 1870.eko azaroaren 1ean Markinako komentuaren etorkizunari buruzko ikuskariak.

---

[613] *Correspondencia...*, 201.zk., Aita Pedro Josek Kondeari 1870-XI-14ean eta 203.zk., 1870-XII-3an eginiko gutuna.

[614] *Correspondencia...*, 184.zk. Aita Pedro Josek Kondeari 1870-X-21ean eginiko gutuna.

[615] *Correspondencia...*, 177.zk.

Lehenago ere izanak zituen, Korellako mojen kaperau zen Aita Toribio de San José karmeldarrak laburkiro eta sinesmen handirik gabe kontatzen dizkigun beste ikuskari batzu.

aa. *Aurrekinak.*

— Lehenengo, San Elias beste hiru erlijioso hildakoekin batera agertu zitzaion eta Karmeldarren komentu bat eraikiko zela Espainian esan.

— «Beste ikuskari batetan, mahatsondo orritsu eder bat ikusi zuen eta mahastirik ederrena osotu zuten hainbat eta hainbat mahatsondo ederretan ugaritu zela; honela Markinako komentua ugaldu eta Espania komentuz eta erlijiosoz beteko zuela eman zitzaiolarik aditzera».

— «Beste ikuskari batetan, sei komentu ikusi zituen eraikita nahiz eta ez ulertu zeintzu herritan»[616]

bb. *Markinako Karmengo komentua babestuta dago.*

Interesgarriagoa gertatzen da Aita Toribio ber-berak, urte horretako ikuskariei buruz 1870.ean, hau da, Markinako etxearen egoera oso larria eta zaila zenean idatzitako gutuna.

Bertan, Abuztuaren 15ean, Markinako komentuaren berreraikuntza ondoko hirugarren urtean, Markinako Karmengo etxeak zituen eragozpenak eta arriskuak ikusirik Jainkoari eta Santa Teresari otoitza aritzen zela, Aita Domingo de S. José agertu zitzaiola distiratsu, oinazeak eroapenez eramateko adorea ematen diosku.

Eta urriaren 15ean, Santaren jaiegunean, mojak «zeruan Hirutasun Santuaren aulkia ikusi zuen eta Santa Teresa eta Aita Domingo Karmeldar aldra handi batekin batera Jainkoari erreguka: berak Santa Teresari Markinako komentuaren alde eskatzeko erregutu zion eta Santak bere babespean zuela eta jagongo zuela erantzun» eransten.

Azaroaren 1ean, Domusantu egunean, beste bi ikuskari izan zituen: lehena, goizeko seiak eta zazpiak artean: «bigarren aldiz agertu zitzaion Aita Domingo, esan den bezala distiratsu, eta Markinako Komentuari zer gertatuko zitzaion galdetzean, iraungo zuela erantzun zion, horrela lortu zutelako zeruan Santa Teresaren eta beraren otoitzek». Goizeko 10,30etan berriro agertu zitzaion Aita Domingo de S. José, «eta moja erlijiosoak delako komentuak iraungo zuen ala ez ziurtasunez esateko eskatzean, honela erantzun omen zion: ez bakarrik iraun, gehiago oraindik, bertatik aterako dira Espainiako beste hainbat tokitara». Aita Toribiok honako iruzkina egiten zion Car-

[616] *Correspondencia...*, 167a.zk., Aita Toribio de S. José fraideak (Korellan) Aita Toribio de la Virgen del Carmen (Carcasonne-n) bere loba eta karmeldarrari 1887-I-1ean eginiko gutuna.

casonn-en zuen bere loba karmeldarrari: «hau da esan diezakezudan guztia; baina, lehen ere esan nizun ezin dugula fidantzarik jarri ikuskarietan, beraietan iruzur ugari dagoelako eta egon ohi delako eta, sarritan, deabruak gu engainiatzeko eskua sartzen duelako eta emakumeen buruek askotan nahi dutena ikusten dutelako»[617].

cc. *Berrespena.*

Era berean Markina «Espainaia Karmeldar Oinuts erlijiosoz beteko zuen Duruelo berria» izango zela ere eman zitzaion aditzera[618].

Badirudi hedatu egin zirela 'iragarpen' hauek. Aita Toribio de la Virgen del Carmen karmeldarrak Candido Gaytan Villafranca-ko Kondeari bidali zizkion kontakizun edo gutun hauek[619].

Karmeldar berak, Larrea, Avila eta Desierdo de las Palmas-Castellon-eko fundazioak ikusi ondoren Carcasonne-tik idatzi zion Gaytan Kondeari: «Zuk bezala, Korellako mojak arrazoia zuela eta beraren ikuskariak oso-osorik bete direla uste dut»[620]. Hiru hilabete geroago berriro idatzi zion: «nire ustetan mirari bat ikusten ari gara eta Korellako mojaren ikuskariak betetzen, izan ere harritzekoa baita zer nolako azkartasunez ugaldu diren Espainiako gure fundazioak»[621].

Egiatan, ordurako sei fundazio zeuden. Urte batzu geroago 1899.ean, nobize eta botudunen artean 640 erlijioso zeuden 40 bat komentutan; horrek izugarrizko hedakuntza adierazten du.

f. **Fundazioen saioak (1871-1873).**

Lekualdaketa saio eta nahiera guztiak, jakina, karmeldarrak Markinan jarraituz, eragozpenen artean, batez ere Madrileko agintarien aldetik zetoztenen artean, ustelak atera ziren. Hala ere, Berreirakuntza plan eta amets haiek (Larrea, Avila, Burgos, Bilbao-Albia, Segovia, Palencia etab.) ez ziren guztiz alferrekoak izan, aurrera begira geroago izango ziren saioen abiapuntu izan ziren eta.

Zer esanik ez, Markinako komentuaren iraupenean eta geroago izango ziren fundazio saioetan protagonista nagusi Villafranca-ko Kondea izan zen. Arrazoi osoz deitzen zion beraren laguntzaile handia izan zen Aita Pedro Josek (Alcorta) «Gure

---

[617] *Correspondencia...*, 215.zk., 1870-XI-11ko gutuna.
[618] *Correspondencia...*, 1617a.zk., Aita Toribio de S.José fraidearen 1877-I-1eko gutuna.
[619] *Correspondencia...*, 416a eta 417.zk.ak, Aita Toribio de la Virgen del Carmen fraideak Gaytan kondeari 1873-VII-28an eta 1877-I-6an eginiko gutunak.
[620] *Correspondencia...*, 608.zk., Aita Toribio de la Virgen del Carmen fraideak Gaytan kondeari 1876-XII-8an eginiko gutuna.
[621] *Correspondencia...*, 651.zk., 1878-I-5eko gutuna.

babestaile miresgarria»[622]; eta Miguel de SS. Trinidad (Calle), Markinako Prioreak berriro aitortuko zuen: «Hainbat aldiz esan dugu eta ez gara esaten nekatuko, Villafranca-ko Konde Jnaren laguntzarik gabe hainbat aldiz eroriko zela fundazio hau. Bera aukeratu du Jainkoak irauneraztekо»[623].

aa. *Fundazio berri baten beharrizan larria eta kudeaketa berriak.*

Arazoak arazo, hainbat eragozpen, superbizitzarako ziurgabetasun eta milaka beldurraldiren artean ugalduz joan zen nahiko abiadura handiz Markinako komunitatea; Gazte ugari ari zen bertako atea joka; Aita Pedro Josek, bertan, 1872.eko urtarrilerarte, 40 nobize zenbatu zituen[624]. Jakina, ez zuten guztiek jarraitzen.

Aita karmeldar berberak, 1870.eko abenduan, jadanik, 20 nobize zeudela zioen[625]. Eta Aita Manuel, nobizioen maisuak, hilabete geroago datu zehatzagoak eskaintzen zituen: 6 fraide konbentual, 6 nobize botudun, 10 nobize koruko eta 7 anaia lego, guztira 30 erlijioso zirela[626] eta nobizegai gehiago itxaroten zeudela[627].

Oso onak ziren, bada, gerora begira bokazioei zegozkien itxaropenak eta ezinbestekoa gertatzen zen ikasleen ikastetxe bat izatea; bestalde, ikasleen eta nobizen bizimodua ezberdina zen. Horrela jakinerazten zion Aita Manuelek Gaytan Kondeari 1871.eko maiatzeko 23ko gutunean, era berean, berberagan zuen adiskidetasun eta konfidantza erakusten zuelarik, bien arteko harremanak «David eta Jonatan» pertsonaien artekoak bezalako zirela esanez; ordurako 11 gazte botudun zituzten eta bi hilabete geroago beste 5ek egingo zuten profesioa, guztira, beraz, 16 izango diren: «beraien hezierako behar-beharrezkoa dugu guk ikastetxea deitzen dugun komentu bat»[628].

Aita Pedro Josek edozeren gainetik fundazioa egiteko baimena lortu nahi zuen, Burgos-en itxaroten zeuden eta[629].

Baina aldi berean, hoztasuna eta arazo txikiak sortu ziren Ordenaren, hau da, Frantziako Nagusien (Akitania) eta Erromakoen aldetik. Erromako Ordenako Bikario Jeneralak pertsonal ezaren atxakia batzu ateratzen zituen; eta beste fundazio bat egiteko apaiz batzu gehiago beharko ziren; eta Frantzian, pertsona batzu bidal zezakeen aldean, nahiko egoera zailean aurkitzen ziren[630].

Bi hilabete geroago Aita Manuelek ekin eta ekin berriro idatzi zuen Erromara; han egoera ikusirik beldurra adierazi zuten eta, bestalde, Frantziako probintziak,

---

[622] *Correspondencia...*, 182.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-VI-18an eginiko gutuna.
[623] *Correspondencia...*, 206.zk., 1870-XII-24eko gutuna.
[624] *Correspondencia...*, 287.zk., 1872-I-16ko gutuna.
[625] *Correspondencia...*, 203.zk., 1870-XII-3ko gutuna.
[626] *Correspondencia...*, 208.zk., Gaytan kondeari 1870-I-1ean eginiko gutuna.
[627] *Correspondencia...*, 207.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-XII-28an eginiko gutuna.
[628] *Correspondencia...*, 235.zk.
[629] *Correspondencia...*, 241.zk., 1871-VII-21eko gutuna.
[630] *Correspondencia...*, 235.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1871-V-23an eginiko gutuna.

pertsonal falta handia zuenez, ezin zuen laguntzarik eskaini[631]. Aita Definidore bat frantsesa zen eta bazekien frantsesek pertsona batzu kenduko zizkien beldurra zutela. Hori zela eta esan zion Aita Pedro Josek Gaytan Kondeari beste eliz aginteri batzuren bidez Aita Jeneralari presio pixka bat egiteko[632].

Aita Lucas de S.Juan de la Cruz Bikario Jeneralak 1871.eko uztailaren 4ean erantzun zuen, Espainiako ingurumenak aurkakoak izanik, oso zaila ageri zela Gobernuarengandik Italiako Karmeldarren Kongregazioaren eskumeneko fundaziorako baimena lortzea eta Gobernuaren baimen hori lortu gabe Aita Santuak ez zuela berea emango esanez. Itxaron egin behar zen, bada. Bestalde, Frantziako bi probintziek ezin izango zuten pertsonal alorreko laguntzarik bidaldu fundazio berrietarako[633].

1871.eko urtea nolabaiteko ziurgabetasunaz hasten zen, baina Markinako fraideek gazteentzako ikastetxe beharraren aurrean Ordenako beste irakasleren bat Markinara ekarteko ahaleginetan ihardun zuten. Ez zen bakarrik fundazio berri bat eskatzen[634] eta helburu horretarako otoitzak egiten nobiziatuan...; horretaz gainera, Aita Tomás de Jesús María José (Aita Pedro Joseren anaia eta Markinako semea ekarri nahi izan zen ikasleen maisu izateko eta hala lortu zen Aita Lucas de S. Juan de la Cruz, Bikario Jeneralaren bitartez[365], baina ordezko gisa Aita Toribio de la Virgen del Carmen del Markinatik Frantziara joan beharrean aurkitu zen[636]; Markinatik Aita Pedro de S.Elías eramatea ere pentsatu zen.

Hasiera batetan, ea norantz jo, Madrileko agintari zibilengana ala lehenengo Erromara eztabaidatu zen. Argi ikusten zuten Erroman eliz agintariak eta Ordenakoak higitu behar zirela. Horrela Gaytan Kondeak uztailean Erromara idatzi zion Madrilen Nuntzioa izan zen Barilli Kardinaleari, Markinako bokazio ugariei erantzuteko, ordurako 33 erlijioso zituela, ezinbestekoa zela beste fundazio bat jakineraziz; eta laguntza eskatzen zion Ordenako Bikario Jeneralaren eta Aita Santuaren aurrean fundazioak egitea lortzeko. Horretarako, ezinbestekotzat jotzen zen Erromak eskumen zabalak ematea unerik egokienean, atzeramenduetan ibili gabe etxeak ireki ahal izateko: «Al escribir a V.Eminencia, es mi objeto el que el P.Vicario General del Carmen Descalzo conceda al P.Prior facultades para hacer fundaciones con los padres y novicios que están en Marquina. Yo también me atrevería a solicitar que la autorización fuese amplia, para obrar con libertad y según piden las circunstancias excepcionales de España. Vuestra Eminencia conoce perfectamente a nuestros hombres de gobierno y sabe que no es posible obtener de ellos ninguna intervención favorable para los asuntos religiosos; pero yo creo que podremos encontrar dentro de la misma legislación vigente algunos medios para hacer algunas fundacioens, siempre que el

[631] *Correspondencia...*, 239.zk.,1871-VI-17ko gutuna.
[632] *Correspondencia...*, 241.zk., 1871-VII-21eko gutuna.
[633] BAS, 139 /H.
[634] *Correspondencia...*, 207.zk., 1870-XII-28ko gutuna.
[635] BAS, 20 /D, Aita Lukasen 1870-XII-18ko gutuna.
[636] *Correspondencia...*, 210.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1871-I-1ean eginiko gutuna; 216.zkia, Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1871-II-16an eginiko gutuna.

R.Padre Vicario General y en su tanto el Padre Santo, concedan la autorización necesaria»... «Lo interesante en estos momentos es el aprovechar toda conyuntura favorable que se presente y hacer la fundación. Yo confío en que Dios hará lo demás, así como lo ha hecho en Marquina.

No son normales las circunstancias en España, y es necesario arreglarse a ellas por conseguir la propagación de la Orden»...

«Los Padres Carmelitas de Marquina necesitan fundar en otros puntos para dar salida al exceso de vida que Dios les concede, y me han buscado para que yo me dirija por conducto de V. Eminencia al Rmo. Padre Vicario, y si fuere menester al N.SSmo.Padre Santo, rogando que les conceda facultad para hacer nuevas fundaciones, libremente y en los puntos que las circunstancias lo permitan»[637].

Markinako karmeldarrak arduraz itxaroten zuten Erromako erantzuna baina ez zen ageri; Aita Migel prioreak atzeramendu hau seinale ontzat jotzen zuen[638] baina huts egin zuen.

Bien bitartean Espainian aterik ate ari ziren deika. Montero Rios Ministrariak Urberuagan, Markina ondoan eginiko egotaldia aprobetxatuz ikustaldi bat egin zioten fraideek: ordu erdiko elkarrikusketa izan zen eta ministrariak aitortu egin zuen Markinako eskualdean egiten ari ziren lan ona.

Fraideek, era berean, Martín Tosantos-en bisitaldia ere izan zuten[639].

Etenik gabe jarraitzen zuten Avila-ko apezpikuarekin gutun bidezko harremanek[640]. Berreskuratzeko ahalegin hauek areagotu egin ziren Pastranan (1855) ezarri ziren Alkantaratarrek, lehenago Korellako Karmeldarren komentua izandakoan, garai hartan ospitalea zenean, beren etxea ezarri nahi zutela jakitean[641].

Korellako moja karmeldarren komentuko prioresak eman zien horren berri Markinako Aita Karmeldarrei; hortik beraiengan sortutako nahigabea eta urduritasuna.

Hilabeteak aurrera eta ez zen ageri itxaroten zuten erantzunik. Bestalde Aita Toribiok Carcasonne-tik Markinarentzat bigarren fundazio bat eskatzen zion Kondeari[642].

Egiatan, Gaytan Jnak Erromara idatzi zuen baimena eskatuz[643] eta Aita Pedro Jose urduri zebilen Gaytan Jnak erantzuna Nuntziaturan noiz jasoko itxaroten[644]. Baina ez zen heltzen. Orduan Gaytan Jnak Aita Gil jesuitari idatzi zion Erromara egoera azalduz[645]; eta honek Erromako Karmeldarren Nagusiekin hitz egin zuela eta oraindik

---

[637] *Correspondencia...*, 242.zk., 1871-VII-25eko gutuna.
[638] *Correspondencia...*, 248.zk.,, 1871-IX-10eko gutuna.
[639] *Correspondencia...*, 248.zk., 1871-Ix-10eko gutuna.
[640] *Correspondencia...*, 251, 1871-X-8eko gutuna; 253. zkia, 1871-X-9ko gutuna.
[641] *Correspondencia...*, 238.zk.,1871-VII-12ko gutuna; 252.zkia, 1871-X-8ko gutuna.
[642] *Correspondencia...*, 249.zk.,1871-IX-28ko gutuna.
[643] *Correspondencia...*, 251.zk.,1871-X-8ko gutuna.
[644] *Correspondencia...*, 255.zk.,1871-X-16ko gutuna.
[645] *Correspondencia...*, 256.zk.,1871-X-6ko gutuna.

ezin zela egin esan ziotela erantzun zion[646]; oraindik bizirik zirauen Espainiako antzinako karmeldarrei zioten beldurrak.

Aita Pedro Josek, Gaytan Jnari ber-bera Erromara joan eta Aita Karmeldarrekin eta Aita Santuarekin hitz egitea gomendatu zion[647]. Eta egun batzu geroago, lehenengo Itsasoz-bestaldeko ministrariaren baimena lortzea proposatzen zion eta gero Aita Santuari, fundazio bakar batetarako baldin bazen ere, baimena eskatzea[648].

Horrela, Nacarino zintzoak kudeaketak egin zituen ministeritzan[649]; eta Konteak, bere aldetik, etxalde pribatu batetan fundazioa egiteko baimen eskaria aurkeztu zion ministeritzari[650].

Azkenean heldu zen Ministrarien Kontseiluko erantzuna: fundazioaren aurkakoa izan zen: misioak ugaltzeko beharra eta egokitasuna egiaztatu behar ziren eta Bermeo eta Zarautz eta beste bi herritako etxeak itxiak izan ondoren, ez zen berririk ezarri behar benetako beharrizana frogatu gabe. Baina, sakoneko arrazoiak politikoak ziren: beste fundazio bat egiten uztea Gobenuaren ahuldura gisa har zitekeen, Karlistei, erlijiosoen komunitateen alde zihartuten bakarrei atsegin ematea zela uste izango baitzen[651]. Hain zuzen ere, Parlamentua Erlijiosoen Ordenei buruz ezdabaidatzen ari zen eta alferrekoa zen Gobernuari baimen eskariak egitea[652]; eta diputatuen Kongresuan nahikoa zela Kondeak sortu nahi zen elkarteari buruz udal agintariei, zertxobait lehenago egina izan zen bezala, kontua ematea gomendatzen zuten[653].

Kudeaketek ez zuten itxaroten zen emaitzarik ekartzen. Hala ere, Gaitan Jn. ausartak eta Markinako Karmeldarrek ez zuten atzera egiten. Berehala ikusiko dugunez, Bizkaian eta Kantabrian fundazioak egiteko asmoak zituztela jarraitzen zuten.

bb. *Markinako fundazioa indartzen.*

Elkarteei buruzko 1871-III-21eko Erret dekretuaren arabera, nahikoa zen Markinako berreraikuntzarako 1868.eko maiatzaren 7an lortutako agiria[654]. Berehala jakinerazi zitzaion Moret Ministrari Jnari eta Antonio Fernández Bizkaiko Gobernadoreari[655]. Gobernadoreak martxoaren 21eko dekretua Boletinean agertzen zela eta bertan ikusiko zituela argitasunak erantzun zion Gaytan Jnari[656]. 30 egun barru aurkeztu behar zen Ekonomia Administrazioan Markinako fundazioa baimen-

[646] *Correspondencia...*, 266.zk.,1871-XI-6ko gutuna.
[647] *Correspondencia...*, 266.zk.,1871-XI-6ko gutuna.
[648] *Correspondencia...*, 261.zk.,1871-X-31ko gutuna.
[649] *Correspondencia...*, 263.zk.,1871-XI-4eko gutuna.
[650] *Correspondencia...*, 286.zk.,1872-I-16ko gutuna.
[651] *Correspondencia...*, 290.zk.,1872-I-24eko gutuna.
[652] *Correspondencia...*, 273.zk.,1871-XI-19ko gutuna.
[653] *Correspondencia...*, 283.zk.,1871-XII-11ko gutuna.
[654] *Correspondencia...*, 219.zk.,1871-III-26ko gutuna.
[655] *Correspondencia...*, 220.zk.,1871-III-26ko gutuna.
[656] *Correspondencia...*, 223.zk.,1871-III-29ko gutuna.

tzen zuen agindua edo dekretua, Administrazioak aztertua izan ondoren itzulia izango zelarik[657].

Aita Migel Prioreak ea agiriak Madrilen ala Bilbon aurkeztu behar ziren galdetu zion Kondeari[658]. Kondeak, bestalde, Gobernadorearengana jo zuen ea nahikoa zen 1868-V-7ko dekretua berari alkateak edo eskribauak egiaztatuta bidaltzea jakiteko. Era berean, eraikuntzan eginiko gastuen txostena egin behar zen ala ez ere galdetzen zion[659].

Eta Antonio de Fernández Gobernadoreak 1871.eko apirilaren 10ean erantzun zion, fundaziorako uzte-agiria Ekonomia Administrazioan aurkeztu beharra zegoela gogoratuz eta komentua egokitzen inbertitutako kapitalari zegokion ezer ez aditatzeko esanez: «A la vista su favorecida 4 del actual contesto a V. que los PP. deben mandar la orden de cesión, la cual les será devuelta después de examinada por la Administración económica, y toda vez que vienen cumpliendo el fin para que les fue cedido el convento pueden estar tranquilos por ahora.

En cuanto al capital invertido en obras de conservación, creo lo más conveniente no intentar nada al presente. La ley de 1.° de junio de 1869 obliga a las corporaciones o particulares a quienes se cedan edificios a costear las obras de reparación y conservación de los mismos y si por consecuencia de la reversión al Estado dispusiere este de las fincas por título lucrativo reconocerá y abonará el aumento de capital o renta; por lo tanto, comprenderá V. es mejor no tocar ahora este punto, pues la mente del Gobierno es indudablemente que no se desvirtúen las órdenes de cesión y que las corporaciones no tengan edificios del Estado sin previa autorización»[660].

Egun batzu geroago Aita Pedro Josek uzte-dekretu eraman zion Gobernadoreari, kopia bat Gasteizeko apezpikutegian eskuratu ondoren eta Markinako alkateak komentuaren fundazioari buruz eginiko aitorpena erantziz[661].

Eta 1871.eko maiatzaren 14ean Markinako udalak askatasun osoa eman zien Karmeldarrei eraikin bat egiteko, salbuespen batzu ezarriz[662].

cc. *Abando - Bilbo.*

Itxaropenak eta etsipenak elkarlotuz zihardutenean, Karmeldarrak ekin eta ekin ari ziren Markinako Karmengo ikasleentzat ikastetxe bat eraikitzeko saioak egiten. Horrela, 1871.eko urriko 22an Aita Pedro Josek Gaytani eginiko gutunean,

---

[657] *Correspondencia...*, 224.zk.
[658] *Correspondencia...*, 227.zk.,1871-IV-1eko gutuna.
[659] *Correspondencia...*, 226.zk.,1871-IV-4eko gutuna.
[660] *Correspondencia...*, 229.zk.
[661] *Correspondencia...*, 231.zk., 1871-IV-16ko gutuna; 232.zk., 1871-IV-18ko gutuna; 233.zk.,1871-IV-20ko gutuna.
[662] GPKA (MKA, E-I-43), Markinako hiriko alkatetzaren agiria, Julian de Bascaran Jnak 1871-IX-14ean sinatua.

ez zuela une hartan gogoko Karmeldarrena izandako Korellako komentuaren alde lan egitea esan zion eta Bilbo ondoan, Abandon, fundazio bat egiteko ideia azaldu: Bordelen egin zutenaren antzera etxe bat alogeran hartzea izango zen; geroago ortua eta eliza ezarri eta ikastetxea bertara eraman; eta hiru arrazoi ematen zituen horren alde: «1a) Bizkaia delako, unerik txarrenetan ere ordena izan ohi duen Herrialdea, aparteko antolamendua eta jende erlijiozalea baititu. 2a) herri barruan izan ezarren, bertatik hurbil, gure Ordenako helburuetariko bat den arimen alde egitea burutzeko ministeritza behar duen populazio berri bat delako; eta 3a) Abandon, Bilbo alboan dugula, bizitzeko eta fundazio hasiberria osotzeko baliabideak izango ditugulako»[663].

Egun batzu geroago fundazioa egin zitekeen tokia ikustera joan ziren: Aita Pedro Joseri, izpirituzko onura egiteko herritik aldenduta zegoela iruditu zitzaion... Egokiagotzat jo zuen Portugaleteko errepidean zegoen Picaza-ren jabetza. Escusa-ren jabetza alde utzi nahi zuten zeresanik ez sortzeko, bertan maisterrak zeudelako eta horretaz gainera etxean konponketa ugari egin beharko zirelako[664].

Aita Pedro Jose, lehenengo Itsasoz-bestaldeko ministeritzaren baimena lortu eta gero Aita Santuarengana fundazio bakar batetarako baimen bila joatearen aldekoa zen, gehiagorentzat baimena eskatzeak eginbide gehiago eskatuko zituelako[665].

Beste egun batetan Castet Jnaren etxaldea ikusi zuen Santimaminen (San Mames) baina «Bilbotik urrutitxo» zegoela uste zuen; fundazioa egiteko beste toki batzu ere arakatu zituen[666]. Nacarino Jnak Itsasoz-bestaldeko Ministeritzari ikasleentzako toki eskaria egin zion[667].

Bien bitartean Erromatik zetozten berriak ez ziren bat ere kontsolagarriak, Ordenako Nagusi Jeneralak ez zirelako une hartan fundazioa egitearen aldekoak horretarako behar adina apaiz karmeldar ez zegoela uste zutelako[668]. Eta Espainian, parlamentuko eztabaidak eskaria oztopatzen bazuen ere, Aita Pedro Jose ekin eta ekin ari zitzaion Candido Gaytan Kondeari Itsasoz-bestaldeko Ministrariari, Markinakoaren kimu berri gisakoa izango zen Abandoko ikastetxearen fundazioa baimentzea eskatu behar zitzaiola esanez[669]. Konde Jauna informazio bila zebilen Gobernuaren legeak betez bere jabetzan fundazio-ikastetxea egiteko nahiko zen Bizkaiko Gobernuaren eto udaleko alkatearen ezagutzan jartzea jakiteko[670].

Aita Miguel de la SSma. Trinidad (Calle) Markinako Prioreak beharrezko eskaria aurkeztu zion Ministeritzari Abandon erainkin bat ezartzea eskatuz[671]. Baina ukatu egin zuen Estatuko Kontseiluak 1872.eko urtarrilaren 10ean[672]. Eta José Namela Jnak

---

[663] *Correspondencia...*, 259.zk.
[664] *Correspondencia...*, 260.zk., 1871-XI-27ko gutuna.
[665] *Correspondencia...*, 261.zk., 1871-X-31ko gutuna; 276.zkia, 1871-XI-22ko gutuna.
[666] *Correspondencia...*, 262.zk., 1871-XI-4eko gutuna.
[667] *Correspondencia...*, 263.zk.,1871.eko azaroko gutuna.
[668] *Correspondencia...*, 259.zk., 1871-XI-6ko gutuna.
[669] *Correspondencia...*, 276.zk., 1871-XI-22ko gutuna. I-22ko gutuna.
[670] *Correspondencia...*, 277.zk., 1871-XI-22ko gutuna.
[671] *Correspondencia...*, 264.zk., 1871-XI-4eko gutuna.
[672] *Correspondencia...*, 291.zk.,Nacarino Jnak Gaytan kondeari 1872-I-21ean eginiko gutuna.

Gaytan Jnari, ez zela abagadune egokia baimen hori eskatzeko eta politikari on eta kristau batzu baziren ere, guztien arteko taldekeriek ezinezko egiten zutela halakorik bideratzea esanez eta politikariek ingumenen arabera kontzientziarik gabe hartzen zituztela erabakiak gogoratuz, honako hau idatzi zion: «No creí pudiera sorprender a V. mi última noticia sobre el nuevo colegio de Abando, cuando no debía esperarse otra cosa. Más de una vez le dije a V. que no era ocasión de solicitar nada porque los vientos son contrarios. Los progresistas más o menos son todos enemigos de la iglesia cuando son Gobierno. Hay sin embargo hombres muy buenos y cristianos que particularmente accederían a lo que se ha pedido, pero sin aventurar nada. La agitación política y el encono de los partidos hacen imposible el orden regular en muchos négocios, porque la pasión se sobrepone a todo. Los hombres políticos no tienen conciencia y lo miran todo y lo resuelven con arreglo a las circunstancias y no quieren pasar ningun disgusto sino cuando les resulta un apoyo o beneficio positivo.

Me olvidé decir a V. lo de pedir informe a los vice-patronos, pero esto no es más que un poco de miel para dorar la píldora»[673].

Hala ere, beranduago, 1873.eko urrian oraindik Abandon fundazioa egitea pentsatzen zen[674]. Baina ez zen lortu.

Aita Pedro Josek aitortu egiten zuen arrazoia zuela Gaytan Jnak fundazioa lortzeko bideari buruzko eran: hau da, irtenbidea Erroman bilatu behar zela esatean: «Gaur hartu dut zuk atzo idatzitakoa eta zeruertzak lainotsu ageri dira; bakarrik zuk duzun adoreak eta hain borondate txarreko jentearengan duzun konfidantzak indartzen naute! Zuk diozunez, alde guztietan eragozpenak baino ez daude gauza on eta erlijiosoentzat; gobernarien artean infernu osoa askatu dela dirudi eta geroago eta txarrago ari gara. Eta negargarriena, zu bezalako gizon on eta santu batzu baino beste inor ez dela Espainiako egoera moralaz arduratzen ikustea da. Markesa Andereak Madrilen guztiek dantza, antzerki eta mozorroetan pentsatzen ari direla dio! Zer nolako irtenbidea izango du gizarte zoro honek? Arrazoi handia duzu Erromak, Klemente VIII.en bulda dontsuak jartzen duen oztoporik gabe, baimendua izatea nahi izatean; hala izanik arriskuari aurre egin eta bestelako formalitaterik eta eskumenik gabe egin ahal izango genuke fundazioa indarrean diren legeen baldintzak betez eta judegu eta protestanteei emaniko lege arruntaren barruan babesa hartuz; horrela non aurkitzen den bidea irekitzeko era ikusiko genuke eta hala izan ez dadinean ere, oinetako hautsa astindu eta erlijiosoentzako askatasuna hemen baino hobeki ulertzen den beste norabait joango ginateke»[675]

dd. *Toulouse.*

Aita Pedro José de Jesús María hilabete batzutan zehar Bordelen izan zen helburu batzu betetzeko eta, era berean, Erroma eta Espainiako harremanetan bitarteko egiteko. Markinako fraideek Abandoko fundazioari emandako ezetza gogoan hartuz eta,

---

[673] *Correspondencia...*, 292.zk., 1872-I-31ko gutuna.
[674] *Correspondencia...*, 425.zk., Aita Miguel fraideak Gaytan kondeari 1873-X-2an eginiko gutuna.
[675] *Correspondencia...*, 294.zk., 1872-II-4eko gutuna.

bestalde, ikasleentzat ezinbesteko zela etxe bat ikusirik, beste bide batzu bilatzen zihardutenen. Horrela aurkeztu zitzaion bat Toulouse-n: Akitaniako karmeldarren probintziak etxe handi bat eta 8.000 m2 zituen toki bat erosi zuen[676].

Eta probintzialak eskaintza egin zion bertan ikasleen etxe bat ezartzeko. Aita Pedro Josek irtenbide on bat ikusten zuen bere ikasleentzat. Eta, horrela, Aita Basilio Akitaniako Probintzialaren baimena zuela proposamena egin zion Markinako Karmengo Prioreari. Eta Gaytan Jnari honako hau esaten zion: «ikusiko dugu zer erabakitzen duten Markinako Aita Karmeldarrek; zorigaitza izango litzateke nire ikuspegiaren aurka izatea. Eragozpenik baldin badute azal daiteke eta elkar hartu eta alde bien artean oinarri batzu jar daitezke. Ahal izan dudan neurrian azaldu dizkiet Probintzialaren ideia eta berarekin izandako elkarrizketak»[677].

Laster heldu zen erantzuna: Markinan ez ziren guztiz proiektu horren aldekoak eta, batez ere, hiruk ez zuten bat ere gogoko ideia hori. Aita Migel Priorea aldekoa zen baina Aita Basilio Akitaniako Probintzialari ezezko erantzuna eman beharrean aurkitzen zen[678].

Aita Migelek ez zitzaiola Probintzialak jarritako baldintza bat ere txarto iruditzen aitortzen zuen «baina hemengo batzuk, beraien artean Aita Manuelek, ez dute inolaz ere gazteak Frantziara joaterik nahi; azaldu dizkiot gaur egungo arazoen ondorioz aurkitzen gareneko gorabehera guztiak, han eskaintzen dizkiguten abantailak etab. etab. Baina ez du eritzirik aldatzen eta zuk ezagutzen duzun zaletasun hura erabiliz honako hau esan dit: 'Konde Jnarengana joten badut seguru berak ere nik bezala pentsatuko duela'. Aita on honek sinesmen bizi-bizia eta neurribako itxaropena du. Oso zoriontsua da eta nik ere beraren antzeko izan nahi nuke, baina ezin ditut bihotzeko kezka batzu uxatu noiz amaituko den ez dakigun ekaitz aldi honetan»[679].

Frantziara joan nahi ez zutenen artean aurkitzen zen, era berean, Aita Tomas, Aita Pedro Joseren anaia[680]. Aita Pedro Josek nolabaiteko nahigabe eta etsipenez idatzi zion Kondeari: «Ezin dut ulertu zer nolako zentzunezko arrazoiak izan ditzaketen hain onuragarria den ideia ez onartzeko. Zer galtzen du Markinak proposamen hau onartuz? Bizimodu ezberdina eginik gazteek ikasketak egokiago egin ahal izateko ikastetxe bat jartzen da, Markinan ikasketen aurkako bizimodua eta nekagarriago izan eta ikasteko nahiko astirik ez dutelako kexak egin baitiztute. Non eta nola egingo da fundazio errazagorik edota kostu gutxiagokorik eta hain aldeko baldintzetan?

Mutilak zertxobait heziko dira, batzuk preminarik badute eta; Aita Migelek uste duen bezalako bizimodu erregularra eta betetzailea eraman ahal izango dute, ikastetxea beraren menpe izango denez eta nahi duenean kendu ahal izango du, ustekabean

---

[676] *Correspondencia...*, 313.zk., 1872-VI-2ko gutuna.
[677] *Correspondencia...*, 316.zk., 1872-VI-9ko gutuna.
[678] *Correspondencia...*, 317.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1872-VI-21ean eginiko gutuna.
[679] *Correspondencia...*, 318.zk., Aita Miguel fraideak Kondeari 1872-VI-26an eginiko gutuna.
[680] *Correspondencia...*, 320.zk., 1872-VII-30ko gutuna.

arazoak Espainian konpontzen badira. Nik ez dut inolazko benetako eta zentzunezko arrazoirik ikusten; gaur arte ez zait bat ere eman, ez dutela onartzen esan baino, «voila tout»[681].

Horrela ateak betiko ixten zitzaizkion ikasleak Markinatik Toulouse-ra eramateari, Aita Basilio, Akitaniako Probintziala haserre samar geratu zelarik[682].

ee. *Hiru saioaldi Kantabrian.*

— *Santander.*

Abando eta Toulouse-ko fundazioak alde utzi ondoren, Gaytan Kondea beste bide batzu urratsen hasi zen: horrela, behar-beharrezkoa zela fundaziao ikusirik, Erroman bizi zen Aita Gil jesuitari idatzi zion Klemente VIII.aren bulda oztoporik handiena gertatzen ari zela gogoratuz eta politikariengandik, ongi ezagutzen zituenez, ez zegoela ezer itxaroterik esanez: «Estos santos Padres son tan favorecidos de Dios, que les embía cada día un número mayor de novicios, y siempre éstos de mayor importancia que es imposible dejar de hacer una nueva fundación. Para dar principio es indispensable una autorización del mismo Padre Santo. V. conoce la bula de Clemente VIII y es un obstáculo tan insuperable que con ella nada se puede hacer ni deja libertad para continuar la buena obra. Las circunstancias políticas ni las sociedades de nuestro desgraciado país no dejan ninguna esperanza de que ahora ni más tarde, al menos en mucho tiempo,se pueda esperar que se forme un gobierno católico, ni siquiera indiferente»... «No desconozco las circunstancias de mi país, y conozco hasta personalmente a los hombres que nos gobiernan, y también quizás a los futuros gobernantes. Por este conocimiento sé que nada puedo esperar de ellos en beneficio de mis buenos Padres, y apoyándome precisamente en este conocimiento, creo que no nos queda otro recurso para hacer algún bien a los principios católicos, sino obrar con entera independencia del poder civil, como si viviésemos en país de infieles, y sacar todo el partido posible de la libertad que nos dan las leyes revolucionarias». Eta aurreko ezaguera horretan oinarrituta Aita Santuarengandik Markinako Karmeldarrentzat fundazioak egiteko eskumen zabalak lortzeko eskatzen zion: «una amplia autorización para que los Padres de Marquina puedan fundar libremente y sin necesidad de acudir a Roma cualquier convento»[683].

Konde Jnak, Santander-eko moja karmeldarrek kaperau karmeldar bat nahi zutela entzun zuen eta Aita Karmeldarren komentu txiki bat egiteko ideia azaldu zien. Mojak 1872.eko irailaren 11n idatzi zioten Aita Pedro Joseri Apezpikua beraien aldekoa zela eta lursail merke bat zuela eta arazoa tratatzeko Santander-era joateko gonbidapena egiten zioten[684]. Bere aldetik, Kondeak berri gehiago eta zer nolako ahalbideak

[681] *Correspondencia...*, 321.zk., 1872-VII-2ko gutuna.
[682] *Correspondencia...*, 324.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1872-VII-7an eginiko gutuna.
[683] *Correspondencia...*, 293.zk., 1872-II-3ko gutuna.
[684] *Correspondencia...*, 330.zk.

zeuden jakitea lortu zuen Saturnino Fernández de Castro kanonigoaren bidez; Karmeldar bat Santander-era joan eta lursail bat erostea komeni zen; komenigarria izan zitekeen Markinako Karmeldarrentzat; baina apezpikuaz tratatu behar zen[685].

Saturnino Jnak ez zuen hirian horretarako eraikinik ikusten eta oso zaila iruditzen zitzaion etxe berria eraikitzea: «uste dut ez dela zuhurtasunezkoa horretaz hitz egitea», baina kanpoan, Ruiloban bideren bat izan zitekeela[686].

— *Ruiloba edo Ano-Santoña.*

Ruiloban, Comillas ondoan, moja Karmeldarrentzat 1867.ean eraikitzen hasi eta amaitzeko zorian aurkitzen zen komentua zegoen. Ondorioz Kondeak apezpikuarengana jo behar zuen[687].

Lau egun geroago berri gehiago bidali zien Saturnino berberak: Comillas-era joaterakoan Ruiloba-ko komentuaren fundatzaile hilaren anaiarekin hitz egiteko aukera izan zuela... Fundatzailearen nahiera mojentzako izatea zela eta gomendioak ematen zituen zer eta nola idatzi behar zion Gaytan Jnak Santander-eko apezpikuari: «1a) lortu nahi den helburua eta duen onura handia. 2a) beraren ezaguerara Ruiloba herrian komentua bat laster amaitzeko zorian eraikitzen ari diren berria heldu dela eta jakinik ordurako moja Karmeldarrak hirian ezarrita zeudela, burura etorri zaiola, agian, onura handia izango lukeela Ruilobakoa egin nahi den ikastetxerako erabiltzeak, guzti hori Berorren ardura eta zuhurtziaren esku utziz. 3a) Honako hau burutu ezina izango balitz, ea gertu izango litzatekeen beraren meneko Erlijiosoen Ordenaren batetakoa izan eta zoritxarrez gaur egun inor barruan ez duen elizbarrutiko komenturen bat uzteko. 4a) Jakitera eman diotenez, badela Toranzo-ko haranean, bi edo hiru apaiz zahar bakarrik dituela, Eskualde osoan debozio handia dioten Frantzizkotarrena izandako komentu bat, eta 5a) azkenik, Santoña ondoan, irlatxo batetan, Viluma-ren alarguna den Markesa Anderearena den komentu bat aurkitzen dela jakin duela eta atsegindura eta bakartadezkoa izanik oso aproposa litzatekeela ikasleentzat eta Prelatuak ontzat joko balu, itxaropen oneko kudeaketak egingo lirateela Markesa Anderearen aurrean, aipaturiko helbururako utz dezan»[688].

Kondeak aholkuari jarraituz 1872.eko azaroaren 24ean idatzi zion apezpikuari jakinerazitako eran[689]. Aita Pedro Josek, bestalde, arazoa behin-betiko erabaki aurretik toki hartara ikustaldia egitea proposatu zion[690].

Laster etorri zen Jose Apezpikuaren erantzuna: erabil zitezkeenak izan eta Gaytan Kondeak apezpikuari proposatutako hiru eraikinen artean (Ruiloba, Toranzo haranean

---

[685] *Correspondencia...*, 330a.zk., 1872-IX-14eko gutuna.
[686] *Correspondencia...*, 331.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1872-X-21ean eginiko gutuna; ik., era berean, 384.zk., 1873-II-21eko gutuna.
[687] *Correspondencia...*, 331.zk., 1872-IX-17ko gutuna.
[688] *Correspondencia...*, 344.zk., 1872-XI-21eko gutuna.
[689] *Correspondencia...*, 345.
[690] *Correspondencia...*, 346.zk., 1872-XI-25eko gutuna.

zegoen frantziskotarren antzinako komentua eta Ano-Santoña), errazen lor zitekeena Santoña aurreko irlatxoan zegoen Anokoa zen; hau lehenago frantziskotarren komentua izan zen eta ortu eta guzti Viluma-ko alarguntsa zen Markesa Anderearen aitak erosi zuen. Soto de Toranzo-ko komentuan hiru frantziskotar bizi ziren eta beraien probintziala berreskuratzeko urratsak burutzen ari zen[691].

Apezpikuak proposatutako aukerabidea kontutan hartuz, Konde Jna Saturnino Fernández de Castro kanonigoarengana zuzendu zen pertsonalki, Ano-Santoñako komentuan ikastetxe bat eraikitzeko ahalbidea planteiatuz eta jabearekin, Viluma-ren alargun Markesarekin harremanetan jartzeko eta ia komentua uzteko gertu zegoen galdetzeko eskatuz[692]. Era berean, Madrilen bere adiskide Nacarino Bravo Jna mugitu zuen, honek berehala bisitatuko zuela Markesa Anderea erantzun ziola[693].

Saturnino kanonigoak ere, laster erantzun zion, «benetako zaldun kristaua» deituz eta Francisca de la Puente Viluma-ren alargun Markesarekin harremanetan jarriko zela hitz emanez[694].

Markesak emaniko lehen erantzuna ez zen bat ere itxaropentsua izan; horrela jakinerazten zion Antonio Zarandonak Madriletik Kondeari; komentua lehenago frantziskotarrena izan zen; beraren aitak 1868.eko iraultza aurrean frantziskotarrei itzultzeko izan zuen nahia bete nahi zuen; ondorioz, sentitzen bazuen ere, ezin zien Karmeldarrei utzi[695]. Markesak erantzun berdina eman zion Nacarino Jnari baino honek eritzia aldatzea lortu zuen eta elkarrikusketan zehar, frantzizkotarrei itzultzea nahi zuela baina ez zuela inolazko konpromezurik ez Aita Estartarekin ez beste inongo frantziskotarrekin eta ondorioz Santander-eko apezpikuak Karmeldarrei uztea nahi bazuen, ez zuela eragozpenik jarriko jakinerazi zion[696].

Egiatan apezpikuak Markesari idatzi zion[697] eta honek komentua uzteko gertu zegoela jakinerazi zion Gaytan Kondeari[698].

Aita Migel Markinako Priorea berri hauek jasotean itxaropentsu eta baikor ageri zen «eta Aita Maisuak eta Aita Pedrok komeni zaigula uste badute, urrats handia izango dugu gure ahaleginetan eta geroago edo lehenago beharrezkoenetariko baldintza bat den Erromako onespena lortzen saiatuko gara eta han fundazio polit bat egitea lortzen badugu, guk eta gure ondokoek ez dute ahaztuko nor izan zen Jainkoaren Probidentziak bere Ama Agurgarriak etxe bat gehiago izan dezan aukeratutako baliabidea»[699].

---

[691] *Correspondencia...*, 350.zk., 1872-XII-1eko gutuna.
[692] *Correspondencia...*, 353.zk., 1872-XII-5eko gutuna.
[693] *Correspondencia...*, 354.zk., 1872-XII-7ko gutuna.
[694] *Correspondencia...*, 355.zk., 1872-XII-11ko gutuna.
[695] *Correspondencia...*, 356.zk., 1872-XII-17ko gutuna.
[696] *Correspondencia...*, 357.zk., Nacarino Jnak Kondeari 1872-XII-19an eginiko gutuna.
[697] *Correspondencia...*, 358.zk., Saturnino Fernández Jnak Kondeari 1872-XII-22an eginiko gutuna.
[698] *Correspondencia...*, 359.zk., 1872-XII-22ko gutuna.
[699] *Correspondencia...*, 360.zk., Gaytan kondeari 1872-XII-22an eginiko gutuna.

Baina laster hotzitu ziren itxaropenak. Viluma-ren alarguna zen Markesak, komentua uzteko zuen borondatea eta atsegina adieraziz idatzi zion Gaytan Kondeari, baina oharterazi egiten zion eliza ongi kontserbatzen bazen ere komentua nahiko hondatuta zegoela[700]. Nahiz eta 1873.eko hasieratan Saturniko Fernández Jnak[701] eta Nacarino Bravo Jnak[702] Markesaren borondate ona ikusirik karmeldarren fundazioa laster egingo zela uste izan, Aita Pedro Josek Ano-ko komentuaren egoera *in situ* ikusi beharra zegoela adierazten zuen[703]; eta gertu zegoen Aita Manuelekin batera Santander-erantz joateko eta horrela inguruak arakatzeko eta ea komeni zen eta bizitzeko eran jartzeko zenbateko gastuak egin beharko ziren kalkulatzeko[704].

Aita Karmeldar biak urtarrilaren 21eko goizean atera ziren Markinatik[705]. Aita Pedro Josek Kondeari bidalitako txostenak pikutara bota zituen Kondeak, Nacarinok eta Saturninok izandako itxaropen eta nahierak eta burututako kudeaketak eta ahaleginak: «irlatxoko kokapena ikusgarria da eta Santoña eta itsasoko ikuspegia atsegina: komentuaren egoera negargarria eta ia guztiz hondatua; alde bat erorita dago eta gainerako guztia teilatuetako hezetasunak kaltetua guztiz konpondu beharko dela; eliza da guztien artean ondoen kontserbatzen dena baina honek ere, bertan behera utzita egotearen ondorioz hezetasun handia du; ondorioz erdizka konpontzeko diru eta asti ugari beharko litzateke: ni, ia-ia errazagoa izango litzatekela hura konpontzea baino berri bat ezer ezetik eraikitzea esatera ausartuko nintzateke; bestalde lekua bazter batetan dago eta baliabide gutxi eskaintzen ditu bizitzeko eta gure erregelen araberako izpirituari jarraituz ministeritza santuan lan egiteko». Eta Ruiloba-ko komentuak askozaz ere abantaila handiagoak eskaintzen zituela baina Santander-eko mojak zatituta zebiltzala, batzu Ruilobara joan nahiean eta beste batzu Santander-en geratzeko gogoz eransten zuen[706].

Ezezkoa nahiko biribila izan zen; orain apezpikuari eta hain borondate ona agertu zuen Markesari jakineraztea baino ez zitzaien geratzen; eta «pilura gozatu» behar zen ez zela fundaziorik egin nahi esateko[707]. Markesak, gainera, egun batzu lehenago egin zion Ano-ko komentuaren uzketa Markinako Prioreari Karmeldarrentzat[708].

Aita Pedro Jose berberak jakinerazi zion Ano-ko etxearen eragozpena Santander-eko apezpikuari, gorago jakinerazitako arrazoiak emanez; baina, bide batez, Ruiloba-ko komentua interesatzen zitzaiela karmeldar ikasleentzat oso egokia zelako esanez[709]. Apezpikuak otsailaren 16an erantzun zien bai Gaytan Kondeari bai Markinako Prioreari Ano-ko komentuari emandako ezezkoaren errezibu hartzea eginez; eta Ruilo-

---

[700] *Correspondencia...*, 362.zk., 1872-XII-29ko gutuna.
[701] *Correspondencia...*, 364.zk., 1873-I-5eko gutuna.
[702] *Correspondencia...*, 364.zk., 1873-I-6ko gutuna.
[703] *Correspondencia...*, 365.zk., 1873-I-8ko gutuna.
[704] *Correspondencia...*, 366.zk., 1873-I-12ko gutuna.
[705] *Correspondencia...*, 371.zk., Aita Miguel fraideak kondeari 1873-I-21ean eginiko gutuna.
[706] *Correspondencia...*, 376.zk., 1873-II-2ko gutuna.
[707] *Correspondencia...*, 379.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1973-II-11an eginiko gutuna.
[708] *Correspondencia...*, 377a.zk., Markesa andereari 1873-I-25ean eginiko gutuna.
[709] *Correspondencia...*, 380.zk., 1873-II-12ko gutuna.

bakoari zegokionean berak ezin zuela moja karmeldarren komentua izatea nahi izan zuen fundatzailearen borondatea bete gabe utzi erantsiz[710]. Azkenik, Viluma-ren alarguna zen Markesak erantzun zion Prioreari bere nahigabea adieraziz, hainbeste ahalegin egin ondoren Ano-ko komentua hain egoera hondagarrian zegoelako ez zitzaielako egokia gertatu[711].

Elkarren jarraiko saioaldiak, elkarren jarraiko proiektuak hutsalak gertatu ziren. Eragozpenak gaindiezinak bilakatzen ari ziren. Baina Karmeldarren berreraikuntzaren protagonistek ez zuten amore emango. Jainkoarengan zuten itxaropena horretarako baino handiagoa zen. Eta orain behin betiko berreraikuntza edo, hobeki esanda, hedakuntzarako ateak irekiko zieten bide berri batetik joko zuten: Karmeldarren arteko bi Kongregazioen, Espainiakoaren eta Italiakoaren elkarketa lortze bidetik.

7. **Bi Kongregazioen elkarketa (1873-1875).**

a. **Itxaropen berriak.**

Markinako komentuaren Berreraikuntzaren historia honetan, beti agertu izan den eragozpenean egin dugu topo: hau da, teorikoki bi Kongregazio: bata, Espainia eta beronen menpeko antzinako Itsasoz-bestaldeko «lurraldeak» eskuhartzen zituena eta bestea, Italiakoa, Europa eta gainerako mundu zabalera hedatzen zena izatean. Markinako komentua Erromako Aita Jeneralaren agintaritzapean berreraikia izan zen. Baina beste edozein fundazio egin nahi zenean oztopo berdinean egiten zen behaztopo eta, ikusiko dugunez, Erromako Karmeldarren Nagusiek ez zuten ahalegin handirik egiten batasuna lortzeko.

Bestalde, ezinbestekoa zen ikasleentzat ikastetxe bat eraikitzea, oso zaila gertatzen zelako etxe berean, Markinan, bizimodu ezberdinak egin behar zituzten hainbeste ikasle eta nobizen bizimodua batera eramatea. Komentuaren bizitza oparoak berehalako zabalkuntza eta lasaitasuna eskatzen zituen.

Kontaketa honetan zehar, geroko Karmeloaren benetako iragarle izan zen Gaytan Konde Jnaren eritzia entzun dugu: argi eta garbi ikusten zuen karmeldar bizitza Espainian eraberritu eta berreraiki nahi izanez gero derrigorrezkoa zela Ordena osoa Erromako Aita Jeneralaren agintzapean elkartzea; beharrezkoa zen abiabidetzat Italia edo Europako Kongregazioaren izpiritu bizia eta apostolikoa hartzea.

Era berean, ikusi dugu, baita ere, non zegoen eragozpen handiena: Espainian esklaustratuta aurkitzen ziren Karmeldarren nagusi «teorikoa» zen Aita Maldonado Aita Santuaren Komisariarengan; eragozpena, hark, historia zehar hain ospe handikoa izandako Espainiako Kongregazioa berreraikitzeko zuen ametsean zetzan; baina beraren nortasuna eta pentsamoldea ere, esan dugun bezala, berreraikuntza horretarako oztopo bilakatzen ziren.

---

[710] *Correspondencia...*, 382, 383.zk.
[711] *Correspondencia...*, 385.zk., 1873-II-24eko gutuna.

Guzti honi, beste eragozpen bat gaineratu zitzaion, hots, Frantziako Karmeldarren eta Markinako komentuaren berreraikitzaile zen Aita Domingo de S. José, Jeneral nafarraren 1870-eko uztailaren 12an gertatuko heriotzea; seguraski gogo biziz ekingo zion Ordena osoko batasun arazo honi!

Urteetan zehar eskatu izan zen batasun hau... Ikusi dugu, baita ere, Aita Domingo de S. José Jeneralak partehartu zuen Vatikanoko I. Kontzilioan zehar bi Kongregazioen Batasuna lortuko zen itxaropena ugaldu zela, horrek Erlijiosoen Ordenei bizi berria emango ziela pentsatuz[712].

Fundazioa egiteko eta Gobernu zentraletik baimena lortzeko saioaldi ezberdinetan zehar Candido Gaytan Jnak Erroman bizi zen Aita Gil jesuitari honako hau adierazten ziola ikusi dugu: «Hasiera emateko derrigorrezkoa da Aita Santu berberaren baimena; zuk ezagutzen duzu Klemente VIII.aren bulda eta gainditu ezinezko oztopo gertatzen da, berarekin ezer egin ezin eta egite on hau aurrera askatasunez eramaten ez uztea sortzen duelarik» eta hori lortzeko «Markinako Aita Karmeldarrek askatasun osoz eta komentu bakoitzerako Erromara baimena eskatu beharrik gabe aritzeko eskumen zabala» eskatu ziola[713].

Eta Aita Pedro Josek aitortu egiten zuen Gaytan Jnaren arrazoia: Erromako baimena lortu behar zen eta Klemente VIII.ren buldak jartzen zituen oztoporik gabekoa[714]. Eta egun batzu geroago berriro esaten zion: «Guk Erroman eta mundu osoan beste Jeneralik ez izatea nahi dugu bizikiro»[715].

Ideia horrek indarra hartzen zihardueen eta inguramen batzu alde jartzen hasi ziren. 1872.eko apirilean Aita Lucas de San Juan de la Cruz aukeratu zuten Aita Jeneral; Aita Domingo hil zenetik Bikario Jeneral baino ez zela izan. Erroman batasuna zela eta arduratzen hasiak ziren eta ofizialki aipatua izan zen arazo hori 1872.eko maiatzean[716].

Euskaldunek poztasun handiagoa izan zuten Akitaniako Karmeldarren probintzian 1873.eko udaberrian (apirilaren amaieran eta maiatzaren hasieran) izandako kapituluan probintziala aldatzerakoan, Aita José María hautatu zutela ikustean; horrela jakinerazi zioten Gaytan Jnari bai Aita Pedro Josek Bordeletik bai Aita Migel Markinako prioreak[717]; eta honek bere poza agertzen zion lau definitore edo ahokulariak ere adiskideak zituelako. Akitaniako Aita Probintzialak oso ongi ezagutzen zuen Markinako egoera eta berreraikitzaileen asmo eta sentimenduen aldekoa zen; hortik, bada, Markinako komentuko Aita Karmeldarren poztasuna[718].

---

[712] MKA, A-I-153, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari 1870-III-23an eginko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[713] *Correspondencia...*, 393.zk., 1872-III-3ko gutuna.

[714] *Correspondencia...*, 394.zk., 1872-II-4eko gutuna.

[715] *Correspondencia...*, 300.zk., 1872-II-25eko gutuna.

[716] *Correspondencia...*, 311.zk., Aita Pedro Josek Bordeletik Gaytan kondeari 1872-V-20an eginiko gutuna.

[717] *Correspondencia...*, 393.zk., 1873-IV-5eko gutuna; 396.zk., 1873-V-3ko gutuna.

[718] *Correspondencia...*, 396.zk., Aita Miguel fraideak Gaytan kondeari 1873-V-9an eginiko gutuna.

Ordurako bazegoen, gainera, 1874.ean gertatutako beste aurretiko garrantzitsu bat: Domingotarrek bi Kongregazioak bakar batetan elkartzea lortu zuten. Horrek itxaropenez bete zituen Markinako fraideak[719].

b. **Elkartze-bidean azken urratsak.**

Aita Pedro Josek gutun interesgarri bat idatzi zion Bordeletik 1873.eko maiatzaren 4ean Gaytan Jnari; bi kongregazioak elkartzeari zegokion problematikaren laburpena zen eta gainditu beharreko eragozpenak iragartzen ziren: «hemen dugu Madrileko Santa Anako Karmeldarren kaperau eta Aita Maldonadoren idazkaria dena; nire ustetan hauek lehengo ideia berdinak dituzte Espainiako Kongregazioari zein beraren birbizkundeari buruz; komentu bat baino ez dugunez eta gehiago edukitzeko Erroman ezer ez denez konpondu, bihar-etzi besteren bat egin nahi denean nahigabeak izango ditugula uste dut; ezin izango dugu inoiz beraiekin elkar ulertu. Gure Nagusiek ez dute arazoaren larritasuna ikusi eta aurretiaz neurriak hartu beharra ulertu; nik uste dut beraiek Espainiako Prokuradore Jeneralarekin (izena baino ez duena) batera, behar bada, neurriren bat hartuko zuten gu Espainian zehar zabaltzeari eragozpenak jartzeko. Antza denez Aita Maldonado Baionan aurkitzen da bertara doan Aita karmeldar honek dioenaren arabera. Guk trumoiak hastean egiten diogu bakarrik dei Santa Barbarari; nik uste dudanean sartzen dut eskua, baina hori, honelako arazo batetan bideak askozaz ere aurreragotik gertatu behar direla uste dudalako da; hara, bada, egin bedi Jainkoaren nahia»[720].

Aita Pedro Jose, bere kasa bildu zen Bagnères-en Aita Jose Maria, Akitaniako Probintzilarekin eta elkarrekin itzuli ziren Bordelera, bertan egun batzu eginez; Probintziala gertu zegoen fundazio berri bat egiten laguntzeko eta bi Apaiz karmeldar eskaintzen zituen, euskal probintzia bat eraiki arte. Aita Pedro Josek nahiera eta isilik gorde beharra jakinerazten zizkion Gaytan Jnari; arazoari irtenbidea eman behar zitzaion ahalbait lasterren Erroman, beldurra baitzion Aita Maldonadori; eta, bestalde, ez zuen nahi anaien arteko nahaste eta burruka juridikorik; Aita Santuarengana jo eta behar ziren laguntzak lortu behar ziren; esaterako, Burgos-en bizi zen Aita Pedro Goiri-ren bidez Burgos-eko artzapezpikuaren laguntza eska zitekeen[721] edota laguntzeko oso gertu agertzen zen Urgel-eko apezpikuarena[722].

aa. 1873.eko irailean, ahalegin hauetan aurrera eginez Aita Migel Markinako Prioreak Erromara idatzi zuen[723]. Eta Aita berberak berriro egingo zuen Aita Santuarengandik Karmeldarren bi Kongregazioen batasuna lortzea eskatzeko; gutunak hainbat apezpikuren onespena zuen; eta Aita Manuelek, une berean, gutuna idatzi

---

[719] *Correspondencia...*, 441.zk., Aita Miguel fraideak Gaytan kondeari 1874-IV-8an eginiko gutuna.
[720] *Correspondencia...*, 404.zk.
[721] *Correspondencia...*, 421.zk., 1873-IX-16ko gutuna.
[722] *Correspondencia...*, 435.zk., 1874-I-14eko gutuna; 443.zkia, 1874-IV-29ko gutuna.
[723] *Correspondencia...*, 422.zk., 1873-IX-18ko gutuna.

zion Akitaniako Probintziakoa zen Aita Martín de la Inmaculada Concepción, lehen Definitore Jeneralari[724].

Bordelen aurkitzen zelarik, sarritan lehen berriak izaten zituen Aita Pedro Josek aste batzu geroago, Aita Santuak begi onez hartu zuela Markinakoen eskaria zioen isilpeko baina egiazko berria jakinerazten zion Gaytan Jnari; eta horren ondioz bere esker ona agertzen zien Jainkoari, Ama Birjinari, San Joseri eta Gaytan Jnari[725].

bb. Baina gertakariak ez ziren hain itxaropentsuak. Luzapen handiko isilunea izan zen. Hori zela eta, Markinako Aita Karmeldarrek beste saio bat egin zuten. Lehenago ere idatzia zuten gutun bat apirilean Aita Martín de la Inmaculada Concepción lehen Definitore Jeneralari; honek maiatzaren 14ean erantzun zien Aita Santuari eginiko eskaria ez zuela Aita Jeneralak bere Definitore edo Ahokulariekin egin behar, Markinako Aita Karmeldarrek baino esanez; eskaria bideratzea, apezpikuren baten bidez eta gutun labur bat Aita Santuari eta beste bat Markinako Aita Karmeldarren asmoen aldekoa zen Franchi Kardinaleari, Madrileko azken Nuntzioari zuzenduz egitea proposatzen zien eta arazoa guztiz isilean gordetzeko eskatzen[726].

Horrela egin zen. Maiatzaren azkenetan idatzita zegoen Aita Santuarentzako gutuna maiatzaren 30eko data zuela eta Bordelera bidali zen Aita Pedro Josek ere sinatua izateko[727]. Aita Santuari latinez eginiko gutun labur horretan, jadanik Aita Santuaren baimen bereziaz Markinako komentua eraikia izan ondoren beste etxeren baten beharrizana zutenez eta horretarako Klemente VIII.aren bulda oztopo gaindizezina gertatzen zenez, baimena eskatzen zitzaion, abagaduneek aukera ematen zuten bakoitzean Espainian zehar komentuak eraiki ahal izateko:

«Beatissime Pater,

Benignitate Vestra subsistit conventus hic Beatissimae Virginis Mariae de Monte Carmelo Marquinensis. Data enim licentia a Gubernio Reginae Elisabeth II fundandi in Hispania, Bulla Clementis VIII, felicis recordationis, obstabat ne id fieri posset a Religiosis Congregationis Italiae per haec verba «Praeter Hispaniae Locis ac Regnis». Dispensatione autem Sanctitatis Vestrae sublatis praelaudatis verbis pro casu seu effectu particulari, facta est ista fundatio anno 1868.

Et quoniam Dei benedictione succrevit haec Vestra Religiosa familia, et a christianissimo ac nobilissimo quodam viro ei offertur novi fundandi Monasterii occasio, ideo ad Sanctitatis Vestrae pedes humiliter provoluti supplicationem nostram porrigimus, ut nobis liceat per benignitatem vestram alia quoque fundare monasteria in Hispania prout opportunitas permisserit non obstantibus Clementis praeinsertis verbis. Dumque hanc gratiam a Sanctitate Vestra simul ac benedictionem Apostolicam ex-

[724] *Correspondencia...*, 441.zk., Gaytan kondeari 1874-IV-8an eginiko gutuna.
[725] *Correspondencia...*, 442a.zk., 1874-IV-4eko gutuna.
[726] BAS, 26/P; Monte Carmelo 13 (1912) 847-848.orr.
[727] *Correspondencia...*, 448.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1874-V-30ean eginiko gutuna; 450.zk.

postulamus, enixe Deum pro Vestra incolumitate et libertate deprecamus, et sacratissimos vestros pedes in spiritu osculamus.

Sanctitatis Vestrae humiles filii.

Fr.Michael a SSma.Trinitate prior,
Fr.Emmanuel a Sta.Teresia subprior,
Fr.Petrus-Joseph a Jesu Maria,
Fr.Thomas a Jesu Maria et Joseph,
Fr.Joannes a SSma.Virgine,
Frai Rafael del Niño Jesus»[728].

Baina, ordurako eskatua zion Aita Santuari Markinako komunitateak, antza denez 1874-II-31n, Karmeldarren bi Kongregazioak Bateratzea[728a].

---

[728] *Correspondencia...*, 465a.zk., ez du datarik.

[728a] MKA, B-I-3i: "Santísimo Padre: Fr. Miguel de la Santísima Trinidad, Prior de los Carmelitas Descalzos de Marquina (Provincia de Vizcaya en España), y Fr. Manuel de Santa Teresa, Suprior y Maestro de Novicios de este convento, ambos profesos de la Congregación de España, quienes después de la exclaustración de todos los religiosos, en este desdichado reino, fueron invitados por el M.R.P.Domingo de San José (que en paz descanse) predecesor de nuestro muy Revdo. P. General de la Congregación de Italia (quien murió en Roma en tiempo de la celebración del Santo Concilio Vaticano) invitados por él, digo, los exponentes para que le ayudasen en la fundación de los conventos de nuestra Sagrada Orden en Francia y habiéndose presentado después una ocasión favorable para que los religiosos volviesen a España, fueron elegidos por el mencionado Padre General pasado, con beneplácito y autorización de V. Santidad, para fundar una Comunidad sujeta a N.M.R.P. General en Roma, en este antiguo convento de Marquina, cuyo principio fué muy providencial y su conservación se puede decir cuasi milagrosa en medio de tantas revoluciones y guerras que devoran este infeliz país, de modo que todos, malos y buenos se dicen unos a otros; cómo existen frailes carmelitas en Marquina en estos tiempos de impiedad y de persecución declarada contra los religiosos?

Así es, Santísimo Padre, esta fundación que se hizo el año 1868 con los religiosos que N.M.R.P. General de la Congregación de Italia hizo venir de Francia. No solamente existe, sino que está muy floreciente y muy estimada no sólo en la Provincia sino también en el Reino, como podrán asegurar a V. Santidad el Exmo. Sr. Obispo diocesano y otros muchos Prelados Eclesiásticos de este Reino, entre ellos el Exmo. e Illmo. Señor Obispo de Urgel, quien ha estado varias veces en esta santa Casa y como nos conoce y ha visto nuestro género de vida, desea vivamente que nos extendamos en este Reino y en todos sus dominios; pero para conseguir este fin, ya sabe V.Santidad que nos encontramos con un óbice que sólo V. Santidad puede alejarlo, y que nos figura en las actuales circunstancias tan críticas, penosas que muy util sería para el bien general de la Iglesia y para que nuestra Santa Orden tome incremento en este Reino y se conserve en todo su vigor y no tenga la desgracia de disolverse, como se ha disuelto en este Reino, pues se puede decir que la Congregación de España no existe, (en cuanto a los religiosos) sino en nombre, creemos pues, Santísimo Padre, y vivamente desamos los dos exponentes, aunque hijos de esta Congregación pero agregados a la de Italia, y los demás Padres conventuales de esta Comunidad abajo signados, juzgamos, digo, que ha llegado el tiempo de pedir a V. Santidad que disponga, si así juzga, que no haya más que una Congregación en toda nuestra Orden de la Santísima Virgen del Monte Carmelo, cuya cabeza o General reside en Roma cerca de la Santa Sede, para que así como somos todos hijos obedientísimos e inmediatamente sujetos a V. Santidad, estemos también bajo la dirección de un solo General y seamos todos miembros de una sola familia en todo el mundo.

Es gracia que piden encarecidamente los exponentes infrascritos a V. Santidad y al mismo tiempo piden muy humildemente, besando respetuosamente los pies de V. Santidad, humildísimos hijos: Fr. Miguel de la SSma. Trinidad, Prior; Fr. Manuel de Santa Teresa, Suprior y Maestro de Novicios; Fr. Pedro José de Jesús María; Fr. Juan de la SSma. Virgen; Fr. Tomás de Jesús, María y José; Fr. Rafael del Niño Jesús".

Konde Jnak ekainaren 3an idatzi zion Franchi Kardinaleari, Karmeldarren eskariari laguntza emateko eskatuz eta gutunari, Kongregazio bakarra Italiako Jeneralaren ardurapean lortzea komeni zela esanez ematen zion amaiera: «Grande sería mi consuelo si N.SS.Padre concediera a los Padres Carmelitas de Marquina la unión con el Rmo.Padre General que está en Roma, porque reviviría para dar vida y grande desarrollo a la religión de Santa Teresa en España»[729]. Oraingoan ere Urgel-eko apezpikuaren aldekotasuna zeukan.

Aita Pedro Josek ere, Bordeleko artzapezpiku zen Donnet kardinalearekin tratatu zuen arazoa, hark Aita Santuarentzat Markinako eskariarekin batera joango zen gutun eder bat eman ziola[730]. Horrela Aita Pedro Josek Bordeletik bidali zion gutuna, Donnet kardinaleak eta Urgel-ko apezpikuak egindakoekin batera, Aita Santuari 1874.eko ekainaren 22an.[731].

Beste behin Erromako erantzunaren zain[732]. Aita Lucas, Ordenako Aita Jenerala ikustaldia egiten ari zen Brussela-ko Moja Karmeldarrengandik jasotako berriek Aita Santuak itxaropena ematen zuten hitzak esan zituela zioten[733]. Baina Aita Pedro Josek, urduri, berriro idatzi zion Erromako Aita Definitore bati Gaytan Kondearen nahierak azaltzeko zioz, baina, sakonean arazoari buruzko berriak jasoteko asmoz[734]. Eta uda heltzerakoan oraindik astunagoa egin zen isiltasun hura.

Urrira heltzerakoan indarra hartu zuen etsipenak. Hala idatzi zion Aita Pedro Josek Gaytan Jnari: arazoa ez zihoan bide onetik; eta Aita Martin, Definitore Jeneralarengandik hartutako gutunak ez zuen itxaropen handirik ematen. Errua Erromako Karmeldarrek zutela susmatzen zuen, batasunik ez zutela nahi antzematen baizitzaien, baina Markinako Aita Karmeldarrak aske uzten zituzten beraien ahaleginetan[735]. Erromako Nagusien jokaera hau ez zetorren bat beraien barne-barneko nahierekin, egiatan Batasuna nahi zuten eta. Baina arrazoiak beraien asmoetatik kanpokoak ziren: besterik beste, oraindik Karmeldar esklaustratu ugari (400 baino gehiago) bizi izatea eta horrela Markinako proiektua burutu ezina izatea, antzinako Aita Karmeldar horiek pisu astun bilakatuko zirelako, politika alorreko ziurgabetasuna zein Aita Maldonadoren aurkatasuna ziren Erromako Karmeldar Nagusiak isilik egotera bultzatzen zituen oztopoak[736].

cc. Egoera honetan eta Gaytan Kondearen alaba Dolores Erromara zihoela, Aita Pedro Josek Gaytan Erromara joatea proposatzen zuen, sakonean, hain zaila zen arazo hau eta une garrantzitsu hartan Gaytan Jnak bakarrik burutu ahal izango zuela uste

---

[729] *Correspondencia...*, 449.zk.
[730] *Correspondencia...*, 452.zk., 1874-VI-20ko gutuna.
[731] *Correspondencia...*, 453.zk., 1874-VI-29ko gutuna.
[732] *Correspondencia...*, 455.zk., 1874-VII-17ko gutuna; 456.zk., 1874-VVI-20ko gutuna.
[733] *Correspondencia...*, 457.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-VII-25ean eginiko gutuna.
[734] *Correspondencia...*, 458.zk., 1874-VII-29ko gutuna.
[735] *Correspondencia...*, 460.zk., 1874-X-9ko gutuna.
[736] Aita Martín de la Inmaculada Concepción fraidearen gutuna: 1874-VII-6, ik. Monte Carmelo 13 (1912) 848.

zuelako[737]. Aita Pedro José ber-berak arrakasta bidean urratsa bat eman zuen: Gaytan Jnari Ezohizko Arazoetarako Kongregazioko idazkari zen Marini Monsignoreari adierazpen bat bidaltzea proposatu zion: Kondeak berak aurkeztu zion eta Urgele-ko apezpikuaren gutun batekin batera egingo zen eta Franchi Kardinalearen aldekotasunaz arazoa aurrera eramango zuen. Eta Batasuna lortzeko erarik ez bazegoen, behinik behin, Klemente VIII.aren bulda indargabetzea lortu behar zen norabiderik gabeko unetik irtetzeko[738].

Arazoak azken abiadura hartu zuen Franchi kardinaleak erantzunkizuna pertsonalki hartu zuenean. Erroman aurkitzen zen Dolores-ek aitari idatzi zion kardinale honek lortu nahi zen guztiaren adierazpena bidaltzeko eskatzen zuela jakineraziz[739]. Eta Konde Jnak gutun luze eta interesgarri bat idatzi zion kardinaleari, bere nahiera guztiak agertuz bihotza irekitzen ziola: eta Markinako komentuaren berreraikuntzaren historia egin ondoren beste fundazio bat egin beharra gogoratzen zion ordurako 40 erlijioso zeudelako, jarraiko hau ziotsola: «Según he llegado a saber, se cree en ésa que los Padres de Marquina desean la incorporación de los pocos religiosos antiguos que aun viven, y esto lo encontraría V. Eminencia difícil o imposible de realizarse. Yo me tomo la libertad de hacer saber a V.Eminencia, que no es esto lo que nosotros deseamos ni pedimos, y que, muy al contrario, lo encontraríamos perjudicial para el Convento de Marquina: 1.° porque no se conformarían los antiguos a la vida del claustro después de 40 años; 2.° porque no se les puede obligar a ello; 3.° porque la reunión de los antiguos y nuevos religiosos ha dado en la práctica muy malos resultados a los PP.Franciscanos»... «Yo me atrevería a rogar a V.Eminencia que diese una resolución a este interesantísimo negocio estableciendo para los Padres de Marquina la libertad para fundar nuevos conventos y la unión con un único General como lo tienen los otros religiosos. La forma de la Unión, la oposición de la Bula del SSmo Padre Clemente VIII y el respeto a los antiguos Padres de España, a su historia y a los grandes servicios prestados por la Orden es el asunto que deseamos resolver. A primera vista se ven grandes dificultades, pero en la práctica desaparecen en gran parte. Si no se toma una resolución que dé libertad al Convento de Marquina para desarrollarse esta magnífica fundación, que ha sobrevivido milagrosamente a los destrozos de la revolución española, se verá obligada a morir estando llena de vida»[740].

Gaytan Jnak, astirik galdu gabe, Raimundo Campa, Franchi kardinalearen idazkariari idatzi zion abenduaren 27an egoera azalduz eta arrakasta izateko itxaropenen berri emateko eskatuz[741].

Bien bitartean Aita Manuelek ezin zuen ulertu Erromako Karmeldarren portaera, Markinan urrats guztiak beraiek erabakitakoaren arabera egin zirelako[742]. Luis Gon-

[737] *Correspondencia...*, 460.zk.
[738] *Correspondencia...*, 460.zk.
[739] *Correspondencia...*, 462.zk., 1874-XI-4eko gutuna.
[740] *Correspondencia...*, 467.zk., 1874-XII-22ko gutuna.
[741] *Correspondencia...*, 469.zk.
[742] *Correspondencia...*, 471.zk.

zález Jnak Erromako Nagusi Jeneralen aurkakotasuna jakitea lortu zuen, jokamolde hori aldatzea oso zail gertatzen zelarik[743]. Gorago jakineraziko ditugu Nagusien jokamolde horren zioak.

Hala ere, Raimundo Campa idazkariak arrakasta-itxaropen batzu ematen zizkion Gaytan Jnari, baina egoera politikoan eta Gobernua eta Aulki Santuaren arteko harremanetan, erogapenez, lasai itxaron behar zela esanez; era berean, Franchi Kardinaleak Karmeldarren arazo honetan jarritako interes handia jakinerazten zion[744]. Berehala idatzi zion Kondeak Donibane-Lohizunetik Espainiako politika egoera oso kaskarra iruditzen zitzaiola eta baimen eske ibiliz ezer gutxi egin zezakeela Elizaren onerako uste zuela esanez: «de aquí mi vehemente deseo de que el asunto de los Padres Carmelitas de Marquina se resuelva bien y de modo que en el momento que lleguen nuevamente sucesos desagradables para la Iglesia puedan encontrarse los Padres autorizados para fundar nuevos conventos, nuevos noviciados y casas de estudio, y en fin traladarse de un punto a otro sin necesidad de pedir nuevas autorizaciones. Esta libertad la creo yo indispensable para vivir precavidos ante los acontecimientos»[745].

1874.eko azken egunean erregetza berrezarria izan ondoren, Gaytan Jnak Aita Santuak Alfonso XII.a Espainiako errege aitortu zuen berria jaso zuen[746].

Propaganda Fide Kontregazioko buru zen Franchi kardinalaren partehartze erabakiorrak Ordenaren aldeko gainerako arrazoi, beldur zein oztopoek baino indar handiagoa izan zuen, 1875.eko otsailaren 12an heldu baitzen hainbeste itxarondako *Lectissimas Christi* agiria.

Agiriak, hasieran, 1600.eko azaroaren 13an Klemente VIII.ak *In Apostolicae Dignitatis culmine* buldaren bidez Ordena bi Kongregaziotan banatzearen historia laburra jasoten zuen. Eta, gero, aginduei dagokien alorrean, honakook xedatzen zituen:

1a) Italia eta Espainiako bi Kongregazioen artean, Erroman biziko den Jeneral bakarra izango duen bat egitea.

2a) Horrela hautatutako Jeneralari baimena ematen zaiola Espainian komentu berriak eraikitzeko zein eskubide osoak izan ditzan antzinakoak berreskuratzeko.

3a) Espainiako nobiziatuak Italiako Konstituzioen arabera eraiki daitezela eta aurrerantzean karmeldar nobizek haien arabera egin ditzatela botuak.

4a) Oraindik bizirik diren desagertutako Espainiako Kongregazioko erlijiosoei komentu berrietan bizitzeko aukera eman dakiela, beti ere Italiako Konstituzioen menpe izango direla, hauek agintzen duten laugarren botuan (hau da, norberarentzat ohorezko kargurik ez bilatzea) izan ezik.

---

[743] *Correspondencia...*, 467.zk., 1874-XII-22ko gutuna.
[744] *Correspondencia...*, 472.zk., 1875-I-21eko gutuna.
[745] *Correspondencia...*, 473.zk., 1875-II-2ko gutuna.
[746] *Correspondencia...*, 475.zk., Bernabé de Astorga Jnak Gaytan kondeari 1875-II-16an eginiko gutuna.

5a) Kapitulu Jeneralari probintziak eraikitzeko eta beraien mugak ezartzeko eskumena ematen zaiola[747].

Agiri hau ez zen beranduagorarte ageriko egin. Baina beraren zain zeuden Karmeldarrak laster hasi ziren itxaropenezko berriak jasoten. Horrela Jeronimo de la Inmaculada Concepción Erromako Prokuradore Jeneralak martxoaren 11ko gutunean Markinako Prioreari, Aita Santu Pio IX.eak onartu egin zituela Markinako eskariak jakinerazi zion; eta, ondorioz, ateak zabal zituztela filosofia eta teologia ikasketak egiteko etxe baten bila hasteko[748].

Apirilean Aita Migel Prioreak honelako iruzkina egin zion Gaytan Jnari: «Erromatik datozten berriak atseginak dira eta lokarriak askatu dizkigute eta fundazio berriak egin ditzakegu; hau urrats handia da eta gero beste zerbait izango da. Goraldua Jainko bedeinkatua»[749]. Aita Pedro Josek ere Bagneres de Bigorre-tik idatzi zion apirilaren 25ean Gaytan Jnari, agiri ofiziala jasoteko eta zer nola idatzita zegoen jakiteko gogo bizia aditzera emanez[750]. Karmeldar beronek, orain Markinatik, berriro idatzi zion maiatzaren 16an, oraingoan, izandako arrakasta zela eta pozez gainezka, Aita Martín lehen Definitore Jeneralak, izkutuan eta konfidentzialki Aita Santuaren agiriaren edukina jakinerazi baitzion: «orain arte jakinerazi ez badizute gorde ezazu isiltasunik handienean (horrela komeni zaielako); eta, erreserbarik handienaz Aita Martinek dioena jakinerazten dizut. Erroman nahi genuen guztia lortu dugu, hau da, ez bakarrik fundazioak egiteko baimena; gehiago oraindik; baina oraindik ez dela komeni Aita Santuaren Brebea argitaratzerik eta beraren kopia bat Aita Santuaren Nuntzioak eraman duela Madrilera dio. Ikus dezakezunez, hau guk Aita Santuari eginiko eskarien aldekoa da eta eskatu genuen guztia eman zaigu. Hala ere, ez digutenez bidaltzen jatorrizkorik ezta kopiarik ez dugu testua ezagutzen; eta, bestalde, Erroman, oraingoz, arazo hau izkutuan, isiltasun osoan gordetzea nahi dutela jakin dugu, beraz, Konde Jn. ona, aldeko arrakasta lortzea zuri zor zaizunez, zuri eta zuretzat bakarrik jakinerazten dizut berri hain pozgarri hau.»[751].

Eta Aita Manuelek pozez beterik ziotson Gaytan Jnari: «Bene-benetan aldarrika dezakegu: *Digitus Dei est hic*»[752]. Bihotz-bihotzez zer handia lortu zela uste izanik, izugarrizko poza zuen: «gure arazoari dagokionean, etengabeki hizketan arituko bagina ere, ez genuke inoiz amaituko gai oso garaia eta gorena izanik gizakion ahotsek nekez goraldu ahal izango genuke behar adineko neurrian. Nahikoa da Jainkoaren obra dela esatea. Jarrai dezagun, bada, hain indartsu laguntza eman digun Jainkoa goresten eta guk geurea jartzen badugu burutu arte lagunduko digula gogoan hartuz. Nire egoera berri honetan hain pozik nagoenez, ez dut gau t'egun Jainkoa goretsi baino besterik egiten»[753].

---

[747] Ik. *Gehigarriak*, IV, 48.
[748] *Correspondencia...*, 477.zk.
[749] *Correspondencia...*, 484.zk.
[750] *Correspondencia...*, 488.zk.
[751] *Correspondencia...*, 491.zk.
[752] *Correspondencia...*, 497.zk., 1875-VI-19ko gutuna.
[753] *Correspondencia...*, 503.zk., 1875-VIII-7ko gutuna.

Berreraikuntzaren historia honen laburpen gisa gogora ditzakegu Aita Manuelek Konde Jnari esandako hitzok: «Gauza harrigarria da; nik ez zintudan ezagutzen lehen aldiz elkar ikusi arte. Hara, bada, ordutik beti bat etorri gara gauza guztietan. Orduan nik ez nuen Jainkoak emandako gauza bakar bat baino, hau da, ezeren gainetik Jainkoaren aintza, Karmengo gure Amaren Erlijioaren zabalkuntza bilatzea. Horretarako ez zegoela iharduna geleraziko zidan inolazko oztopo edo eragozpenik uste nuen eta hala egin zen eta egin izan da orain arte; zuk oso ongi dakizunez ez da aurkakorik falta izan eta, hala ere, ez dut inoiz gure ihardunak arrakasta izango zuenik zalantza jarri. Hori dela eta, oso ongi deritzat zuk gutunean jartzen duzunari. Oraindik ez dugu Erromako erantzunik jaso. Ikusiko dugu zer nolakoa den; dena den, aurrera egingo dugu; konfidantza osoa dut»... «Gure Ama Teresa eta Gurutzeko Jon santuen Erreformaren historia gogora ekartean zurt eginda geratzen da edonor, gertatzen zaiguna ulertu ezinda. Direla 7 urte hartu genuen komentu hau geure esku; Jainkoak argiro agertu du bere eskua eginkizun honetan; eta hala ere, hemen aurkitzen gara geldialdia egiten duenaren antzera eta, itxura batetan, ez dugu aurrera egiten, eta harrigarria, izugarria eta miragarria da igaz bertan hasita egin izan den guztia; ez da gizakion bihotzean sartzen eta nahitaez esan behar edonork *Digitus Dei est hic*. Ez, gizakia ez da gai halakoak egin ahal izateko. Jainkoak bakarrik egiten ditu honelako mirariak. Aintza, bada, Ahalguztialdunari menderen mendetan»[754].

Bestalde, Kondeak gutunak idazten zizkien eskerrak emanez Franchi Kardinaleari eta beraren idazkari Raimundo Campa Jnari, Kongregazio bien Batasunerako Brebea lortzeko eskainitako babes eraginkorragatik: «El resultado que yo esperaba ha sobrepujado a mi esperanza, porque los Padres antiguos que a título en capellanes ocupaban los conventos de Larrea, en Vizcaya, y de la Santa Madre Teresa de Jesús en Avila, piden al convento de Marquina que vayan a fundar una comunidad»[755].

dd. *Espainiako Kongregazio desagertuaren azken kontrakotasuna.*

Historian zeharko bi Kongregazioak Erromako Aita Jeneralaren agintzapean bateratzen zituen *Lectissimas Christi* Brebea eskuratu ondoren, nolabaiteko zalantza edo beldurra nabari zen ez baitzen argi ikusten zer nolako joera hartuko zuten Karmeldar esklaustratuak eta bereziki Aita Maldonado Aita Santuaren komisariak.

Horrela, Aita Pedro Jose, Karmeldar esklaustratuek zuten isiltasuna zela eta harriturik ageri da: «orain arte ez da ezer ageriko egin eta, hala ere, ez dut uste beraiek gertatuari buruz ezjakinean direnik; isiltasuna zaintzen dutela uste dut»[756].

Hala ere, hilabete batzu barru agertu zen itxarondako erreakzioa; Aita Pedro Jose berberak kondatzen dio gogoeta pertsonal batzu eginez Konte Jnari: «Aita Man-

[754] *Correspondencia...*, 504.zk., 1875-VIII-20ko gutuna.
[755] *Correspondencia...*, 624 eta 625.zk.ak., 1875-XII-3ko gutunak.
[756] *Correspondencia...*, 503.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-VIII-7an eginiko gutuna.

donadok nik Avila-ra eginiko bidaiaren berri jakitean hainbat destaina eta hitz gogor etab.etab. dituen gutun garratz bat idatzi dit. Idazkiaren kopia eta Erromako beraren Prokuradore Jeneralaren helbidea eskatzen dizkit. Nik ahalik eta ondoen beraren gutunak zituen zati gogor eta merezigabeak alde utziz eta egiten zizkidan bi puntu edo galderei erantzun gabe kontatu dut. Hala beharrez hemen aurkitu izan da Iruñeko Aita Txomin, Larreako etxea onartzen zuen gure Definitorio beneragarriaren ebaspena heldu denean eta argi eta garbi azaldu diot guztia Buldaren irakurketa eginez. Jakinerazi egin behar dizut Aita Txomin Maldonadoren jarraitzaile amorratua dela eta guztia kontako diola eta seguruen beraren Erromako Prokuradoreari idatziko diola; baina, ezin dute ezer egin eta egiten duten guztia astia alferrik galtzea baino ez da izango; oharterazi diot guzti hau Aita Martín Definitore Jeneralari. Nik, neuk idatziko diot Aita Maldonadori Larreako azken ebaspena; nik begietsi egiten dut eta hainbat alditan berak aditzera eman izan dizkidan begirune eta maitasun seinaleak eskertzen, eta hala jakinerazi ziot nire gutunean»[757].

Hilebete batzu geroago, 1875.eko azaroan, Aita Maldonadok Franchi Kardinaleari idatzi zion; kexa agertzen zion Kongregazio biak bateratzeko Brebea, beste aldea, hau da, beraren kideak, «birtute-eredu ziren erlijiosoak», komentuetatik kanporatuak zituen Espainiako aldea entzun gabe lortu zelako, ondorioz apalduak sentitzen zirela esanez, «Yo por la misericordia de Dios, católico a toda prueba, y no levantaré mi pluma ni abriré mis labios durante esta época de dolorosas tribulaciones y de grandes persecuciones contra todo lo que es bueno. Por esto me remito al silencio»... Eta, bera Erromara joan eta oharrak aurkeztu arte, arazoa *in statu quo* uzteko erregutzen zion[758].

Hain zuzen ere, aipatu izan den Aita Pascual de Jesús María, Espainiako Kongregazioaren Erromako Prokuratoreak azalpen batzu eskatu zituen *Lectissimas Christi* Brebeari buruz, bost galdera zehatz eginez, berauei Ezohizko Eliz Arazoetarako Kongregazio Santuak 1876.eko azaroaren 13an erantzun zietela: 1. Brebearen bidez kendua izan zela Aita Santuaren Komisaria eta ez zegoela Espainiako Prokura Jeneralik. 2. Kargu horiek «ipso facto» kenduak izan zirela. 3. Espainiako antzinako Kongregazioaren artxiboa Erromako Aita Jeneralari emana izan behar zuela. 4. Kargu horietan arituek ez zutela eskurik sartu behar ezta agiri horren berririk eman behar erlijiosoei eta, oraindik gutxiago, Espainiako Moja Karmeldarrei[759].

Urte batzu geroago ere, oraindik indarrean zirauen antzinako Karmeldar esklaustratu batzuren irenstezinak; honetaz Aita Pedro Josek 1879.eko abenduaren 11ko gutunean jarraikoa esaten zion Kondeari: «Aita Maldonadoren adiskide den Karmeldar baten esaldi batzu transkribatu nahi dizkizut: 'Por lo que me dice de nuestros nuevos hermanos, éstos no pasan de ser unos Carmelitas Franco-italianos, que no estoy

---

[757] *Correspondencia...*, 539.zk., 1876ko urtarrileko gutuna.

[758] BAS, 20 /B -1-, 1876-XI-18ko gutuna. Kongregazioen batasun arazoari buruzko kexak dituen beste gutun bat ere aipa dezakegu, Aita Patricio de S. José fraidearen 1876-X-24ekoa da, BAS, 139 / H.

[759] Ik. SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico*, 285-286.

conforme con ellos ni puede estarlo el que como yo esté enterado de muchas cosas que no le digo a V.R. porque no se puede fiar a la pluma; pero le diré a V.R. para que vivan en cautela que nosotros tenemos nuestro P.General que es el P.Maldonado, y que éste hablará en su día y nada más por hoy'. Zer deritzazu, Konde Jna esaldi hauei? Hauek, beren erosotasunetan eta kalonjetzetan bizi ahal izateko Ordenaren alde ezer egingo ez duen Jeneral lebitaduna nahi dute, nonbait! Izango ote dute inolazko loturarik esaldi hauek eta Gaztelako legeen ezarkuntzari buruzko berriek? Hitz egin beza, berorrek gure adiskide Jose Nacarino Bravo Jnarekin eta ikus bedi zer dagoen eta zer egin daitekeen eginiko on guztia, zuk hainbeste ardura izan eta zuk ondotxo dakizunez 1868.etik hona izan ditugun aldi oso zailetan, mirariz hainbesteko eragozpenen artean iraun duen egintza alferrik gal ez dadin»[760]. Baina, Nuntzioak berak jakinerazi zion ofizialki Aita Santuaren agiriaren edukina Aita Maldonadori.

Honela, behin betiko amaitutzat geratu zen Espainiako Kongregazioaren eskubideei buruzko gatazka. Batasuna, zorionez, burututa zegoen.

Bestalde, aitortu egin behar da oso ongi hartu zutela antzinako Aita karmeldar batzuk, batez ere kaperau gisa karmeldarren antzinako komentu-elizetan zerbitzuak ematen ari zirenek, Batasuna eta Erromako Aita Jeneralaren eskumenean eginiko Espainiako Berreraikuntza, beraien komentuen berreraikuntzan eskuhartu baitzuten; Hau gertatu zen Larrea, Avila, Desierdo de las Palmas, Burgos eta abarretako komentuetako aintzinako Aita Karmeldarren artean[761]

8. **Berreiraikuntzaren berehalako zabalkundea.**

Aita Santu Pio IX.ak eginiko Ordenaren Batasuna, oso eragingarria bilakatu zen Teresiar Karmeldarren berreraikuntza laster eta indartsurako. Espainiar erlijioso batzu Frantziatik etorri eta arazorik gabe egokitu ziren eta erraztasunak ezkaini zizkieten jadanik urteetan zehar bizimodu askea egiten ohitutako esklaustratuei..., nahiz eta, itxaron zatekeen bezala, gehienek, adineko pertsonak zirelarik eta esklaustrazio urteetako bizimodu eta ohiturak zituztelarik ez ziren berriro komentuko bizimodura berritzuli.

a. **Erdiprobintziaren sorrera.**

aa. *Larrea (1876).*

Batasun Brebea lortzeari buruzko lehen berriak Erromako Aita Karmeldarren belarrietara heltzean, Aita Jerónimo de la Inmaculada Erromako Prokuradore Jeneralak halako berri ona Markinako Prioreari, oraindik agiriaren zain zeudela, emate-

[760] *Correspondencia...*, 726.zk.
[761] Ik. *Correspondencia...*, 521, 569,577,586. zk.ak,etab.

rakoan honako hau ziotson: «Beharrezkoa da Teologia eta Filosofiako Ikastetxea ezartzeko egoitza aurki dezazun»[762].

Konde maitagarriak, Aita Santuaren agiririari buruzko informazioa Aita Pedro Joserengandik jaso ondoren[763], Bilbora idatzi zuen, une hartan komenigarriena zela ikusten zen Larreako komentuaren berri jakiteko[764]. Larreako komentua eskuratzeak ardura handia sortu zuen Bizkaiko Aldundiak bertan ospitale bat jartzeko asmoak zituela zabaldu zelarik. Laster baztertu zen asmo hori[765].

Aita Pedro Josek urrats ziurrak eman nahi zituen eta Larreako fundazioa eskuratzeko eman beharreko urratsei buruzko aholkuak eman zizkien Erromako nagusiei[766]. Karmeldar hau, geroago, Larreako egoera aztertzera joan zen eta pozik eta guztiz ados etorri zen Larrean bizi ziren Aita Karmeldarrekin; hauek, lehenbailehen Komentuaren patroi zen Fidela de Olaeta, Aguirre Jnaren 25 urtetako andere alargunarengana joateko eskatu zioten; eta Aita Pedro Josek adeitasunezko ikustaldia egin zion baina arazoa argiro azaldu gabe, hori geroagorako utziz[767].

Hain zuzen ere, egun batzu geroago Aita Karmeldarra Gernikara joan zen Fidela de Olaeta Anderearengana, oso ongi hartu zuelarik eta, jabegoa eta patroi eskubidea bere esku gordez, beraren Larreako lurretan fundazioa egiteko eskritura-ahalmena eman ziolarik[768]. Egiatan Fidela Andrearen baimendu-agiria Gernikan 1875-X-22an sinatua izan zen; era berean, bertan sinatua izan zen, komentuaren gozamena Markinako Aita Karmeldarrei Kuba eta Puerto Rico-rako Misiolarien ikastetxea eraikitzeko ematen zien agiria[769].

Jarraian Aita Pedro Jose Durangora joan zen, bertan proiektuaren berri Diputatu Jaunei eman zielarik; hauek goraldu egin zuten asmoa eta, behar izanez gero, laguntza eskaini zioten[770].

Agiriok esku artean zituela aurkeztu zen Aita Pedro Jose azaroaren 5ean Gasteizeko apezpikuarengana, fundazioa egiteko baimen eske; oso pozik eman zion azaroaren 7an[771]. Pozez beterik, Aita Karmeldarrari Gaztelan zehar fundazioak egiteko gogo sortu zitzaion, baina une hartan bi fundazio egin nahi zituen bereziki, Larreako Teologiako Ikastetxea izateko eta Santaren komentua Avilan Filosofiako Ikastetxea ezartzeko[772]. Horrela abenduaren 1ean Aita Jeneralari bi fundazio hauei buruz idatzi zion[773].

---

762 *Correspondencia...*, 477.zk., 1875-III-11ko gutuna.
763 *Correspondencia...*, 491.zk., 1875-V-16ko gutuna.
764 *Correspondencia...*, 497.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1875-VI-19an eginiko gutuna.
765 *Correspondencia...*, 505.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1875-IX-6an eginiko gutuna.
766 *Correspondencia...*, 503.zk.,Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-VIII-7an eginiko gutuna.
767 *Correspondencia...*, 510.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-X-3an eginiko gutuna.
768 *Correspondencia...*, 514.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-XI-5ean eginiko gutuna.
769 LKA, A-II-83; (MKA, A-I-179, A-I-180).
770 BAS, 20 /D, Aita Pedro Joseren 1876-I-3ko gutuna.
771 LKA, A-II-83 (MKA, A-I-181); ik., era berean, *Correspondencia...*, 521.zk.
772 *Correspondencia...*, 521.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-XI-26an eginiko gutuna.
773 *Correspondencia...*, 523.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari eginiko gutuna.

1876.eko maiatzaren 25ean onartu zuen Definitorio Jeneralak Larreako fundazioa eta Markinako nobiziatua Larreara aldatzea[774], bertako nobizen maisu 1876-VI-30ean Aita Juan de la SS.Virgen izenatu zuelarik[775].

Hurrengo hilean heldu zitzaion erantzuna; une hartan alde uzten zen Avila-koa; eta Aita Jeneralak, Larreara joan eta Markinako nobiziatua Larreara aldatzeko beharrezkoak konpontzeko agindu zion Aita Pedro Joseri[776].

Baina Avilako fundazioa laster egingo zela uste zen. Aita Jeneralak patentea bidali zien egoitza Frantzian zuten Aita Jerónimo de Jesús María José y Aita Agustín karmeldarrei, Aita Pedro Josek Larreara laguntzera bidaltzeko eskatu ondoren[777]. Eta horrela apirilaren erdialdean iragan zuen Irungo muga[778].

1876.eko ekainaren 8an egun handia izan zen; Erroman Nafarroako S.Joakin deituriko erdi-probintzia sortu zen, Larrea, Avila eta Desierto de las Palmas-eko (Castellón) komentuak eta Markinako etxe nagusia barruhartzen zituela; eta Probintziako Bikario Aita Pedro José de Jesús María izendatu zuten: berria hori heltzerakoan, berehala jakinerazi zion Gaytan Konde Jnari: «*Te Deum laudamus!* Azkenik heldu ziren Erromako berriak Korpus egun gogoangarrian. Erroman Erdiprobintzia honetarako bikario probintziala izendatu dute bakarrik, beroni eman dizkiotela Larrea eta Markinako komentuetako kideak izendatzeko eskumena, jarraian dagozkien bi prioreak hautatuko dituztela. Lotsa handia ematen dit gure Aita Jeneral Agurgarriak nor izendatu duen komentu hauetako bikario probintziala zuri esateak»... «izendapen eta antolaketa guztiak burutu ondoren joango dira nobizeak Larreara; dispentsa eman die 4 apaiz gazte ikasleri, bi prioretxetako hauteskundeetarako nahikoa bozemaile izateko eta Avila-rako, hau ere gure Definitorio beneragarriak onartua izan dela eta nire ardurapean izango dela. Beste gauza miresgarri bat, zure bihotza pozez beteko duen berri bat, Konde Jna: *Desierto de las Palmas*-eko Aita Karmeldarrek Erromako gure Aita Jenerala onartu dute eta Bakartade santu eta zoragarri hura da Erdi-probintzia honek duen 4. komentua. Ikus bedi berorrek, Konde Jna, badugula eskatzen duguna baino askosaz gehiago ematen digulako, apaltasunez aurrean jarri eta Jainkoa goraltzeko ziorik ugari. Palmas-eko Aita Karmeldarrekin harremanetan jarriko nahiz eta jarraian ikustaldi bat egingo diet nola aurkitzen den nik neuk jakiteko eta nobizek Larreara ekartzeko profesio txikia egina dutenen profesioa berriztatzeko eta Larreara edo Markinara ekartzeko»[779].

Ekainaren 22an heldu ziren 6 Aita Karmeldar, beraien artean Aita Manuel de Santa Teresa, Markinatik Larreara etxearen jabe egitera; eta ekainaren 30ean egin ziren hautaketak, Markinakoen zein Larreako Karmeldarren artean, Larreako Priore Aita Pedro Jose izendatu zutelarik, baina honek nahiago izan zuen Markinan geratzea

---

[774] ADG, 95.orr.
[775] ADG, 100.0rr.
[776] *Correspondencia...*, 639.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-I-22an eginiko gutuna.
[777] *Correspondencia...*, 548.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-III-29an eginiko gutuna.
[778] *Correspondencia...*, 551.zk., Aita Jeronimok Gaytan kondeari 1876-IV-19an eginiko gutuna.
[779] *Correspondencia...*, 569.zk., 1876-VI-19.

eta geroago Aita Miguel de la SS. Trinidad (Calle) hautatu zuten Larreako priore, postua hurrengo egunean hartu zuela[780].

Aita Bikario-Probintziala, bestalde, abuztuaren 18an joan zen Larreara, «itxaropentsu begiratzekoak» ziren nobizieak eramatera[781]. Bi hilabetetan 15 nobizez, lau apaiz barne zirela, osoturiko nobiziatu eder bat eratzea pentsatzen zuen[782]. Horrela 1876.eko abenduan 18 nobize ziren[783].

Bestalde, berehala hasi ziren Larreako fundazioa agintari zibilen aurrean legeztatzen: Gaytan Jnak, Nacarino Brabo Jnak eta beste batzuk lanari ekin zioten eta adierazpenak aurkeztu zizkioten Itsasoz-bestaldeko Ministeritzari eta erregua Erregeari[784]. Biderapenak laster burutu ziren eta bi erret dekretu lortu ziren eta txostenak eskatu zitzaizkien Antonio Aranda, Bizkaiko Gobenadore Zibilari, Etxanoko Udalari eta Gasteizeko apezpikuari, ez zelarik beraiengandik inolazko eragozpenik itxaroten[785], hala gertatu zelarik[786].

Oso eraginkorrak izan ziren Nacarino Bravo Jnak Madrilen eginiko kudeaketak, berberak 1877.eko urtarrilaren 22an Kondeari Larreako fundazioa Gobernuak onartu zuela jakinerazi ziolarik[787].

Itsasoz-bestaldeko Ministeritzak (Grazia eta Justizia Zuzendaritza Orokorrak) 1877.eko urtarrilaren 19an igorri zuen Larreako fundazioa baimentzen zuen Erret Agindua: Markinan kokatuta aurkitzen zen Misioetarako Karmeldar Teresiarren ikastetxeko buruari zuzenduta zegoen[788]. Eta Itsasoz-bestaldeko ministeritza berberak beste agiri bat ere igorri zuen 1877.eko martxoaren 16an, Gortearen aurrean Ordenaren Prokuradore Jeneral izateko Aita Agustín de la Asunción (Rodriguez) izendatuz[789].

Harrigarria izan zen Larreako nobiziatuaren aurrerapena: Fidela Olaeta Andreak komentua berehala uztea; nobiziatua laster baten konpondu eta Markinatik bertara aldatzea; elizaren eta agintari zibilen legeztapena lortzea,... Egiatan, Aita Pedro Jose, Bikario Probiantziala oso pozik zebilen Gaytan Jnari nobiziatuan 24 gela eder zeudela jakinerazi zionean[790]; eta Larreako Priore zen Aita Migelek hilabete geroago Konde berberari ordurako 31 erlijioso zirela jakinerazi zion[791]; hurrengo urtearen amaieratan, 1877.ean, 40 ziren[792].

---

[780] *Correspondencia*..., 571.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VII-4ean eginiko gutuna.
[781] *Correspondencia*..., 583.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VIII-17an eginiko gutuna.
[782] *Correspondencia*..., 584.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VIII-22an eginiko gutuna.
[783] LKA, A-VII-3.
[784] *Correspondencia*..., 597.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-X-10ean eginiko gutuna; 598.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1876-X-10ean eginiko gutuna.
[785] *Correspondencia*..., 603.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-X-31an eginiko gutuna.
[786] *Correspondencia*..., 605.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-XI-30ean eginiko gutuna.
[787] *Correspondencia*..., 621.zk.
[788] LKA, E-I-57 (MKA, E-I-46).
[789] GPKA, (MKA, E-I-47).
[790] *Correspondencia*..., 605.zk., 1876-XI-16ko gutuna.
[791] *Correspondencia*..., 615.zk., 1876-XII-27ko gutuna.
[792] *Correspondencia*..., 648e.zk., Aita Miguel fraideak Gaytan kondeari 1878-I-1ean eginiko gutuna.

Egiatan, Larreako habitu-hartze eta profesio liburuetara begiratuz gero, izugarrizko bokazio loraldia ageri zaigu: 1876.etik 1880.eko abendura arteko tartean Larreako nobiziatutik 119 pertsona igaron ziren: 54 bizkaitar, 15 nafar, 8 gipuzkoar, 7 Burgoseko, 5 arabar eta Castellón de las Palmas-eko, 4 Soria-ko eta gutxi batzu, Valladolid, Avila, Asturias, Valentzia, Teruel, Orense, Palencia, Oviedo, Ciudad Real, Santander, Zamora, Caceres eta abarretakoak; Londres-eko bat ere bai.

1882.aren amaierako, igaronak ziren 93 bizkaitar, 21 nafar, 14 gipuzkoar, 17 Burgos-eko etab[793]. Beraien artean 8 markinar eta, guztira, 15 Lea-Artibai eskualdeko.

bb. *Avila-ko La Santa (1876).*

Hainbat aldiz aipatu izan dugunez, Karmelo berreraiki nahi zutenen gogoetariko bat Avila-n «La Santa» komentuaren fundazioa lortzea zen. Hain zuen ere, Aita Santuaren Batasun agiria lortu eta berehala Larrea Bizkaian eta «La Santa» Avilan berreraikitzea pentsatu zuten eta horrela jakinerazi zion Aita Pedrok Erromako Aita Jeneralari[794]. Gehiago oraindik, Larrea Teologiako ikastetxe eta Avila Filosofiako ikastetxe egiteko asmoak zituzten[795].

1875.ean, lehen urrats gisa, Markinako hiru Aita Karmeldar Avila-ko «La Santa» elizako kaperau gisa bidaltzeko saioaldia egin zen[796].

Baina, Erromako Ordenako nagusiek astiroago ibili nahi zuten; eta, ondorioz, 1876.eko maiatzean Larreako fundazioa baimentzean, ez zen onartu Avilakoa, hurrengo Definitorio Jenelaren batzarraldirako utziz[797]. Baina, Aita Bikario Probintzialak ate-atean ikusten zuen «La Santa» zeritzonean egiteko fundazioa; egin-eginean ere, Aita Gregorio (Avilan), Avilako apezpikua, apaizak eta erria, ezinegonean, fundazioa noiz egingo itxaroten zeuden; Erromako Aita Nagusiak «italiar jatorrei dagokienez geldiro-geldiro badabiltza ere» Ama Santak presa zuen[798].

Eta hala, Definitorio Jeneralak 1876.eko ekainaren 8an onartu zuen Avilako fundazioa[799].

Horrela, Larreako nobiziatua gertu-gertu utzi zuen Aita Manuel de Santa Teresa gipuzkoarra izendatu zuten 1876.eko abuztuan[800] Avilako La Santa-ko kaperau[801]. Eta

---

[793] LKA, A-VII-3, eta A-VII-1.

[794] *Correspondencia...*, 523.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-XII-1ean eginiko gutuna.

[795] *Correspondencia...*, 521.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1875-XI-26an eginiko gutuna.

[796] BAS, 139/H, Aita José Martín fraidearen 1875-XII-1eko gutuna; BAS, 20/D. Aita Pedro Joseren 1876-I-3ko gutuna.

[797] ADG, 95.orr.; ik., era berean, *Correspondencia...*, 569.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-I-22an eginiko gutuna.

[798] *Correspondencia...*, 542.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-II-11an eginiko gutuna.

[799] ADG, 99.orr. Ik.,era berean, *Correspondencia...*, 569.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VI-19an eginiko gutuna.

[800] *Correspondencia...*, 580.zk., Aita Miguel fraideak Gaytan kondeari 1876-VIII-10ean eginiko gutuna.

[801] *Correspondencia...*, 583.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VII-17an eginiko gutuna.

hilabete bereko 13an heldu zen[802]. Komunitate-bikarietxe hau Aita Manuel de Santa Teresa, Agustín de la Asunción eta Gregorio de Santa Salomé karmeldarrek osotzen zuten. Aita Manuelek hurrengo urtean La Santa-n ikastetxe bat sortzeko asmoa zuen.

Aita Manuel 1876.eko abenduan, Desierto de las Palmas-era (Castellon), bikario izendapena zuela bidaldua izatean, 4 hilabetetan arazoak konponduta utzi zituen bikari-etxea izateko, Avilan erlijio betekizunezko bizitza bideratua geratzen zelarik; eta La Santa-n hiru Aita Karmeldar geratzen ziren: Agustin, Gregorio eta Camilo (honek profesio nagusia hurrengo hilean egin zuen) eta bi anaia ez-mezako, Martin eta Larreatik etorritako beste bat[803]; Aita Agustin geratu zen bikario zereginetan[804].

Eta Larreako egoera legeztatu ondoren, Konde Jna, beraren Madrileko adiskide Jose Nacarino Jnarekin batera Avilako «La Santa» fundazioa legeztatzen saiatu zen[805]. Itsasoz-bestaldeko ministraria aldatzean, arazoa errazago lortzeko bideak ireki ziren[806]; Aita Pedro Jose, Bikario Probintzialak, 1877.eko martxoan, Madrilen aurkitzen zelarik, Avilakoa legeztatzea, Nacarino Jnaren eta eragin handiko beste pertsonaia batzuren laguntzaz erraza, egun gutxi batzutako zera zela uste zuen[807]; Aita Pedro Jose, eskabidea aurkeztu ondoren, Ministrariarekin elkarrizketatu zen martxoaren 11n, hark oso ongi hartu eta beraren laguntza osoa eskaini ziola[808].

cc. *Desierto de Las Palmas (Castellón) (1876).*

Desierto de las Palmas-eko komentuaren kasua berezia zen. 1876.eko maiatzean aztertu zen komentu honen egoera, bertan Aita Karmeldar batzu zeudela eta nobizeak hartzen zituztela gogora ekarriz[809]. Bikario Probintziala oso ongi informaturik zegoen, komentu horretako Aita Karmeldar batek, Mariano Rojo-k, erdiprobintziako karmeldar adiskide batekin idatzizko harremanak zituelako[810].

Kezkagarria zen egoera. Hartutako nobizen artean bik bakarrik egin zuten profesioa; komentua Erromako Aita Jeneralaren eskumenean jarrita zegoen baina desagertuko ote zen zalantza-beldurra sortu zen; eta nobizerik ez hartzeko agindua zuen[811].

Definitorio Jeneralak, Las Palmas-eko Espainiako Antzinako Kongregazioko Priorarekin arazoa aztertzeko agindua eman zion Aita Pedro Joseri, Italiako Kon-

---

802 *Correspondencia...*, 585.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1876-VIII-24ean eginiko gutuna.
803 *Correspondencia...*, 609.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1876-XIII-9an eginiko gutuna.
804 *Correspondencia...*, 611.zk., Aita Agustín fraidearen 1876-XII-15eko gutuna.
805 *Correspondencia...*, 621.zk., Nacarino Jnak Gaytan kondeari 1877-I-22an eginiko gutuna.
806 *Correspondencia...*, 622.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-I-23an eginiko gutuna.
807 *Correspondencia...*, 626.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-III-3an eginiko gutuna.
808 *Correspondencia...*, 627.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-III-12an eginiko gutuna.
809 *Correspondencia...*, 562.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-V-23an eginiko gutuna.
810 *Correspondencia...*, 564.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-V-27an eginiko gutuna.
811 *Correspondencia...*, 566.zk., 1876-VI-5eko gutuna.

gregazioko Konstituzioen araberako Karmeldar komunitatea izatera aldatzeko (ordurako Kongregazio biak bateratuta zeuden); ordurako Desierto-ko Aita Karmeldarrak Erromako Aita Jeneralaren eskumeneko jarrita zeuden: bertako komunitatea, antzinako bi Aita Karmeldarrek, hiru anaia ez-mezatakok eta bost nobizek (bi korukok eta hiru anaia legok) osotzen zuten[812]. Horrela, Las Palmas, Karmeldar Erdiprobintziako laugarren komentu bilakatu zen.

Bertakoek nobizen lekualdaketa zela eta arduratuta aurkitzen ziren; Aita Pedro Josek Larreara eroan eta 15 nobize, beraien artean 4 apaiz, bilduz nobiziatu eder bat eratu nahi zuen[813]. Aita Pedro Jose «Desierto de las Palmas»-era joan zen eta bertan egon zen irailerarte. Eta urrian Las Palmas-eko sei gazte Larreara bidali zituen[814]; eta hala jakinerazi zion Erromako Aita Jeneralari[815].

Abenduaren 8an, Aita Manuel de Santa Teresa, Avilako bikarioak Desierto de las Palmas-eko bikario izateko patentea jaso zuen[816]. Gipuzkoarra abenduaren 14ean atera zen Avilatik; Madrilen geratu zen, bertatik 19an atera zela eta 21ean beraren bikaritza berrian aurkitzen zen: han bi Aita Karmelar, hiru anaia botudun ez-mezako eta lau anaia hirugarrendar aurkitu zituen: «Izpirituzko bizitzari dagokionean oso pozik aurkitzen naiz; egoera materialari dagokionez, ostera, komentu barruan eta bertatik kanpo lan egin beharra dago, komentuan utziko ala bertatik botako zituzten ez zekiela beti mehatxupean bizi izan zirenez iraun baino beste ezer gutxi egin izan dute eta. Etxaldeak ere beharrizana dauka ez duelako behar lukeen adina ematen eta lur zabal ugari dago hutsik, zuhaitzik ere ez daukala. Ikus dezakezunez, badut zertan ihardun. Gainerakoan, gure Aita Bikari Probintzial Agurgarriak esango lukeenez, Herrialde hau zoragarria da»[817].

Aita Manuelen ardurarik handienetarikoa, komentuan bigarren nobiziatu bat eratzea izan zen, bokazio-etorkizun itxaropentsua ikusten baitzuen. Beraren eta Aita Bikari Pribintzialaren artean izandako gutunetan ageri diren ezadostasunek eta Kondeari eginiko gutunek honetan egin zituen ahaleginak erakusten dituzte[818].

Asmo hauek Tortosako apezpikuaren laguntza osoa zuten[819]. Arazoa, Aita Pedro Joseren eta Kondearen artean gaizkiaditua sortzeraino nahastu zen; Aita Manuelek, Kondeari, arazoa Aita Pedro Joserekin tratatzeko eskatzeak min zorrotza eman zion Aita Bikariari, bien arteko konfidantza eta adiskidetasuna oso anaiekikoak zirelako[820].

---

[812] ADG, 98.orr. Ik., era berean, *Correspondencia*..., 569.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VI-19an eginiko gutuna.

[813] *Correspondencia*..., 584.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-VIII-22an eginiko gutuna.

[814] *Correspondencia*..., 594.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1876-X-10ean eginiko gutuna.

[815] ADG, 103.orr.

[816] *Correspondencia*..., 609.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1876-XII-9an eginiko gutuna.

[817] *Correspondencia*..., 614.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari 1876-VIII-22an eginiko gutuna.

[818] *Correspondencia*..., 624. 637. 646. 659, 683, 691, 701. zk., 1877-1879. urteetako gutunak.

[819] ADG, 121.orr., 1878-XI-26ko atala.

[820] *Correspondencia*..., 707.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-II-12an eginiko gutuna; 708.zkia, 1879-II-25eko gutuna.

Aita Pedro Josek inork baino gehiago nahi zuela nobiziatu hori, baina une hartako egoera zailetan hain ugariak izanik fundazioak egiteko eskariak eta Apaiz Karmeldarren falta handia, oso zaila egiten zela erantzun zion[821]. Horretaz gainera, Desiertoko komentuan zeuden 7 karmeldar apaizen artean 2k ez ziotela beren mena eman Erromako Aita Jeneralari eta gainera zaharrak eta ajetsuak zirela esanez: «eroapen handia behar da bakoitzak nahi dituen zerak aurrera eramateko»[822].

Hilabete batzu geroago, 1879.eko maiatzaren 27ko batzarraldian, komunitatea prioretxe izendatu zuen Definitorio Jeneralak[823]. Eta Priore Aita Manuel izendatu zuten abenduaren 16an[824]. Eta ugaritu egin ziren honek nobiziatua sortzeko zituen itxaropenak[825].

Hala, 1880.eko martxoan heldu zen Las Palmas-eko nobiziatuaren eraikuntza kanonikorako Aita Santuaren erreskriptua[826]. Eta «Desierto»-ko Aita Karmeldarrek, gogo biziz nobiziatu hori eraikitzea eskatzen zuten[827]. 1884.eko azaroan jadanik nobiziatua zen eta, gainera, Valentziako fundazioa guztiz egokitua izan arte, ikastetxe bilakatzeko bidean[828].

dd. *Burgos (1877).*

Berreraikuntzaren historia honetan zehar, Burgos-eko komentua beti agertu izan da Espainiako Karmeloren berreraikuntzari hasiera emateko erabil zatekeen komentu gisa. Lehen aukeraketak Lazkao, Markina eta Burgos-en artean izan ziren.

Hainbat aldiz aipatu izan dugu Aita Pedro Goiri; honek harreman estuak izan zituen berreraitzaileekin eta Burgos-eko komentuaren egoerari buruzko berri egokiak ematen zien; bera eta Aita José María de la Soledad (Zarrabe, Muxikarra, Bizkaitarra) izan ziren esklaustrazio-aldi luzean zehar komentua zaindu zutenak.

Berreraikuntza arazoa jadanik zabal aztertua izan da. Aita Pedro Jose mintzatu zen Itsasoz-bestaldeko ministrariarekin 1877.eko martxoaren 11an Burgos-eko komentua berreraikitu beharrari buruz, Burgos-etik eskatzen baizuten... eta ministrariak ontzat hartu zuen[829]. Anastasio Rodrigo Yusto Burgos-eko artzapezpikuak bihotzez nahi zuen eta Ministrariari idazteko gertu agertu zen[830].

---

[821] *Correspondencia...*, 707.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-II-12an eginiko gutuna.
[822] *Correspondencia...*, 701.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-I-7an eginiko gutuna; 708.zk., 1879-I-7ko gutuna.
[823] ADG, 123.orr.
[824] ADG, 132.orr.
[825] *Correspondencia...*, 716.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-VII-92an eginiko gutuna.
[826] *Correspondencia...*, 735.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1880-III-3an eginiko gutuna.
[827] *Correspondencia...*, 742.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1880-V-5ean eginiko gutuna.
[828] ADG, 196-197.orr., 1884-XI-26ko batzarraldia.
[829] *Correspondencia...*, 627.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-III-12an eginiko gutuna.
[830] *Correspondencia...*, 628.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-III-25ean Burgos-etik eginiko gutuna.

Aita Bikario Probintzialak, bere aldetik, baimena eskatu zion Definitorio Jeneralari, onartua izan zelarik[831]. Hilabete batzu geroago, 1877.eko azaroaren 22an, bikarietxea prioretxe bilakatu zen[832] eta priore Aita José María de la Soledad eta prioreorde Aita Paulo de Santa Teresa izendatu zituzten eta komentua ikastetxe egin[833].

ee. *Segovia (1877) eta Alba de Tormes (1878).*

1877. urtearen hasieratan Aita Pedro Jose, Bikario Probintzialak Gaytan Konde Jnari, Salamanca-ko apezpikuak Alba de Tormes-en fundazioa egiteko eske eta eske ziharduela jakinerazi zion eta Alba de Tormes eta Segovia-ko fundazioak proposatu behar zirela esan[834].

Albako fundazioak zabalik zituen bideak apezpikua guztiz alde zegoelako eta komentu gehiena Udalak eskaintzen zuelako[835].=Definitorio Jeneralak hiri bietan fundazioak egiteko Aita Bikario Probintzialaren eskaria jaso eta 1877.eko maiatzaren 29an onartu zuen[836]. Aita Pedro Josek Salamanca eta Segovia-ko apezpikuei idatzi zien[837].

Esklaustrazio garaian Segovia-ko komentuaren jagoleak Aita Felipe de Santa Teresa (+1853) eta Aita Gaspar de Jesus izan ziren; eta berreskuratuta aurkitzen zen komentua 1877.eko azaroan. Hurrengo hilean Aita Gaspar izendatu zuten komunitate berriko bikario[838]. Definitorio Jeneralak prioretxe egin zuen Segoviako komentua[839].

1878.eko uztailan Alba-ko komentua prestatzen ziharduten, ordurako arazoak konpondu eta komentua eskuratua baitzuten[840].

b. **Nafarroako S. Joakin Probintziaren sorrera (1879) eta etengabeko fundazio-eskabideak.**

— Fundazioei emaniko bultzada izugarria zen eta Larreako nobiziatua Markinako ikastetxea bezala ederra eta ugaria bazen ere, fundazio eskariak hain ugariak zirenez Aita Pedro Jose Bikario Probintzialak, ahaleginik handienak egin arren, ezin zien eskabide guztiei erantzun.

---

[831] ADG, 107.orr., 1877-VI-29. batzarraldia.
[832] ADG, 100.orr.
[833] ADG, 113.orr., 1877-XII-13ko batzarraldia.
[834] *Correspondencia...*, 618.zk., 1877-I-9ko gutuna.
[835] *Correspondencia...*, 628.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-III-25ean eginiko gutuna.
[836] ADG, 107-108.orr.
[837] *Correspondencia...*, 636.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1877-VII-6an eginiko gutuna.
[838] SILVERIO DE S. TERESA, *Resumen histórico*, 140-141.orr.
[839] ADG, 196.orr.
[840] *Correspondencia...*, 688.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1878-VII-13an eginiko gutuna.

Honako hau zen delako Aita Karmeldarrak Gaytan Kondeari 1879.eko otsailean aurkeztu zion ikuspegia, bere nahieren aurka ezin zuela bigarren nobiziatu bat Las Palmas-eko komentuan sortu esanez idatzitako gutunean. Gutun luze hori oso baliabide ederra dugu garai hartako egoeraren berri zehatzak jasoteko; luzea baldin bada ere, merezi dugu zati eder bat gogora ekartzeak:

«Egin didazun gutun estimagarriaren gaia aztertzen hasiz gero, egun bereko posta bidez Leon-eko Apezpiku Jn.Gorenaren gutuna jaso nuela jakinerazten dizut. Oso eskaintza handia da Apezpiku horrek egiten diguna; Ordenan dauden probintzia hartako erlijiosoei goralpen handiak entzun diet bertako Toribio Santuaren monastegiari buruz. Nork izango ote luke benetako Gurutzaren erlikia benegaragarria duen Santutegi hura hartzeko nik baino gogo eta atsegin biziagorik?

Konde Jauna, onezkero hartua izango duzu bidali nizun egutegia eta bertako amaieran gure komentuen kopurua eta beraietan dugun pertsonala ikusi ahal izango dituzu. Bestalde, badaki berorrek, gure Definitorio Jeneral Beneragarriak Puerto-Rico-n (Itsasos-bestalde) fundazioa egitea onartu zuela; oso larri ibiliko naiz burutzeko; fundazio hau amets handiz oso gogoko izan duzue zuk eta arduraz babesten gaituzten José Nacarino Jnak eta beste hainbatek, bertako Itsasoz-bestaldeko fundazioa ongi burutu ahal izatean, Gobernuarekin dugun konpromezua betez Espainian iraunkortasuna eta legezkotasuna lortzeko bidea ikusten dutelako.

Dispentsa nahiko zabalak eskatu eta lortu ditut azken urte hauetan Larrean botuak egin dituzten 6 apaizentzat. Uste dut badakizula, baita ere, Korellan nik bilatu gabe dudan konpromezua, Aita Jeneralarengana jo baizuten eta Udalak, herriak, karmeldar mojak eta adiskideak hain neke handiak izan dituztenez hasiera eman beharko zaiola uste dut, bertan dagoen Aita Karmeldarrarekin elkartzeko beste bi apaiz eta bi anaia bidaliz.

Hara bada, Iruñean mojen etxetik hurbil dagoen Aita Domingok bere burua eskaintzen du eta gertu dudala bera Elizbarrutiko Apezpikuak baimentzen badu hasiera emateko.

Talavera de la Reina-tik dei eta dei ditut bertako antzinako komentu bat ikustera joan nadin etab.etab. Soriako Apezpikuak Pedroso-ko Monastegi ospetsua, Alkantara-ko San Pedrok eraiki zuen lehena eskaintzen digu, berreraikitzeko hainbat diru gastatu duela esanez. Benameji-tik fundazioa Ordenako gure antzinako komentuan egitea proposatuz idatzi didate. Astorga-ko Apezpikuak Aita Frantziskotarren komentua proposatu dit fundazioa egiteko; badirudi aurretik Aita Domingotarrei eskaini dietela, ezin izan dutela onartu pertsonalaren eskasiagatik.

Toledo-ko Gobernadore Zibilak, mojek etabarrek Toledon ere hasiera emateko eske dihardute. Azkenik, zuk dakizun bezala, Leon-eko Apezpiku Jna ere deika dut..

Alde utziko ditut beste puntu batzu, batez ere Santanderrekoak, bertan jaun dontsu bat, behin eta berriro ezetza eman diodan arren, ortua duen bere egoitza batetan gelak egiten ari dela, zaharra delarik heriotze unea baino lehenago komentu bihurtuta ikusi nahi duela eta.

Guzti honek, Konte Jauna, Jainkoa goratzeko bada ere, atsekabez betetzen nau, ezin dizkiedalako gogoak bete eta atsegin eman Karmeldar Ordenari halako maitasun

handia dioten pertsona hain adeitsu eta duinei. Ordain diezazkiela Jainkoak beraien debozioa eta interesa! Zer deritzazu guzti honi, Konde Jauna? Eta nik, bihotz-bihotzez nahi izango nukeen bezala, zuri gauza hauek kontatzeko benetako astirik ez dudalako haserre jartzen zara eta niri burutik iragan ere egin ez zaizkidan zerak suposatzen jartzen zara? Berba labur batzu zuk proposatzen didazunari buruz: Zuk, lehen eta behin, ahal diren antzinako guztiak hartzeko Aita Jeneralarengana joteko etab. diozu; ez da beharrezkoa, horretarako ahalmena dudalako eta zera esango dizut, hots, onartu egin ditudala Gure Aita Jeneralak onartuz eskatu didaten guztiak, baina oso gutxi direla gaineratuko dizut eta horrek poza ematen didala, zuk inork baino hobekiago baitakizkizu aulkian aurrez aurre erabili izan ditugun zioak. Zuk, bigarrenez, 10 edo 12 italiarri deitzea aipatzen duzu; Konde Jna., horiek ezeren gainetik italiarrak dira eta ez dira beraien herritik ateratzen; esaterako, Italiako gorabehera politikoak izatean, bertara idatzi genien esku zabalik hartuko genituela esanez; ez zen inor etorri eta han dabiltza ahal duten bezala; eta Leon-eko Apezpiku Jn.Gorenaren proposamen ederrari erantzuteko Espainiara etorriko balira ere, ez lukete Apezpiku horren asmorik beteko misioak eta nobiziatua nahi dituelako. Eta, azkenik, nobiziatu hori ezartzea nahi duzu zuk, nik ere inork baino gehiago nahi dut, baina ez dugu pertsona egokirik eta nahikorik prioretxea eta nobiziatua ezartzeko.

Ikus bitza, Konde Jna., bihotza estu eta larri izateko ditudan zioak, kontatzea luze egingo litzatekeelako alde uzten ditudan beste gauza batzu alde uzten ditudala»[841].

Karmeldar esklaustratu gutxi itzultzen zela komentura aipatuz dionari buruz, hala zela ikus dezakegu; hain zuzen ere, 1876.ean 9 itzuli ziren; 1877.ean 6; gutun hau Aita Pedro Josek idatzi zuen 1879.eko unerarte 1 eta geroago beste bat; 1880.ean 5; 1884.ean 2 eta 1886.ean 1; hau da, bakarrik 25, gehienak zaharrak zirela, oraindik bizi ziren zenbait ehuneko multzotik[842].

Egoera hauetan eta hainbeste fundazio asmo artean, 1879.eko abenduaren 16a urrats garrantzitsua izan zen berreraiketa lan honentzat: hain zuzen, data horretan Erromako Definitiorio Jeneralak ordurarte bikaritza edo erdiprobintzia izan zen Nafarroako S. Joakin karmeldarren familia, Probintzia izendatu zuelako; eta nagusiak hautatu ziren: Probintzial Aita Pedro José de Jesús María eta Definitore edo Aholkulari: Miguel de la SS. Trinidad, Tomás de Jesús María José, Gregorio de Santa Salomé eta Manuel del SS. Sacramento; eta prioreak: Juan de la SS. Virgen Larrean, José María de la Soledad Burgosen, Paulo de S. Teresa Markinan eta Manuel de S. Teresa Desierto de las Palmas-en[843].

— *Lau fundazio.*

• *Begoña (Bilbao, 1880):* Aita Probintzialak, gerora begira ikuspegi argia zuela, interes handia jarri zuen Begoña-Bilboko fundazioan; eta komentu berri bat egiteko eskaintzen zitzaizkion lur ederrak «ikuspegi izugarriak zituztela eta Bilbotik hurbil»

---

[841] *Correspondencia...*, 707.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-II-12an eginiko gutuna.
[842] GPKA, esk.: *Liber adhaesionum PP. eta FF. Cong.Hispaniae ad R. Adm. P. N. Generalem Romae residentem incipiens anno 1876.*
[843] ADG, 134.orr.

zeudela deskribatzen zituen. Eta ez zuen eragozpenik ikusten ez Gasteizeko apezpikuaren aldetik ez eta Madrileko agintari gobernarien aldetik[844]. Eta zainak emanik fundazio oso garrantzitsua izango zela esaten zuen[845]. Eta fundaziorako baimena eskatu zion Erromako Definitorio Jeneralari. 1880.eko apirilaren 30ean, Aita Toribiok, antza denez informazio ziurrak zituela, Gaytan Jnari Agen-dik jakinerazi zion onartuta zegoela Begoñako fundazioa baina oraindik ez zela berri ofiziala[846].

Probintzialak, batera, Gaytan Konde Jnari[847] eta Definitorio Jeneralari[848], Juan de Gorostizaga y Galíndez Jnak 75.000 franko balio zituen etxe bat eta ortu handi bat eskaini zizkiola jakinerazi zien. Definitorioa gorabeherak hobeki zuzendutakoan baimena emateko gertu agertu zen. Maiatzean bertan egin ziren eskriturak eta horrela jakinerazten zuen Probintzialak: «Bilbo-Begoñan, Pentekostes bezperan (maiatzaren 15ean) izenpetu zen eskritura publiko bidez etxalde eder baten jabe naiz»[849].

Eta fundazioa, Begoña-Bilbon edo Lazkaon egiteko eztabaida edo aukeraketa sortu zenean Aita Pedro Josek Begoñaren alde zegoela adierazi zion Kondeari[850].

Definitiorio Jeneralak 1880.eko abuztuaren 2ko batzarraldian onartu zuen Begoñako fundazioa[851]. Aita Pedro Jose Bilbon egon zen abuztu-irailean zehar fundazioa ongi burutzen[852]. Lehen bikarioa Aita Juan de la SS. Virgen izan zen eta bertan bi Karmeldar mezako eta hiru anaia ez-mezako geratu ziren. 1884.ean eman zitzaion hasiera eraikin handiari.

• *Kalagurri (1883):* Hainbeste Komentu-berreraiketa eta eskabide izan ziren urte hauetan, Gabino Catalina del Amo Kalagurriko apezpikua seta handiz ahalegindu zen Karmeldarrek Kalagurriko beren komentua berreraiki zezaten[853]. Aita Pedro Jose, Bikario Probintzialak ezin zituen bere asmoak bete 1879.eko urte horretan, pertsonal ezagatik eta une hartan egiten ziharduen fundazio ugarien zioz.

1883.ean Aita José María de S.Luis Gonzaga, Akitaniako Probintziala, giza-politika mailako une oso zailak jasaten ari ziren bere Frantziako erlijiosoentzako komentu bila zebilen; bertan bildu zituen beraren Herrialdetik kanporatutako erlijiosoak; eta Definitorio Jeneralari Kalagurriko komentua bere eskumenean berreraikitzeko nahia azaldu zion. Baiezko erantzuna eman zion[854]. Hasiera eman zien Berreraiketa obrei eta 1883.eko urrian ezarri ziren bertan. Komentuaren erosketa Kala-

[844] *Correspondencia...*, 739.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1880-IV-30ean eginiko gutuna.
[845] *Correspondencia...*, 740.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1880-V-2an eginiko gutuna.
[846] *Correspondencia...*, 738.zk., 1880-IV-30eko gutuna.
[847] *Correspondencia...*, 742.zk., 1880-V-5eko gutuna; 743.zkia, 1880-V-21eko gutuna.
[848] ADG, 138.orr., 1880-VI-3eko batzarraldia.
[849] *Correspondencia...*, 743.zk.
[850] *Correspondencia...*, 745.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1880-VI-21ean eginiko gutuna.
[851] ADG, 139.orr.
[852] *Correspondencia...*, 753.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1880-IX-21ean eginiko gutuna.
[853] *Correspondencia...*, 707.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-II-12an eginiko gutuna.
[854] ADG, 176.orr., 1883-IV-2-17ko batzarraldia; 178-179.orr. 1883-V-8ko batzarraldia.

gurriko Ahizpa Karmeldarren bidez egin zen 1883.ean; eta 1884.ean, jadanik ezarrita zegoen komentu-bizitza[855].

• *Valentzia (1885):* Definitorio Jeneralak, 1883.eko abenduaren 20ko batzarraldian aztertu zuen Nafarroako San Joakin probintziako definitorioak Valentzian fundazioa egiteko aurkeztutako baimen-eskaria[856]. 1884.eko otsailaren 3an eman zuen Valentzian Karmeloko fundazioa egiteko baimena[857]. Azaroan oso aurreratuta aurkitzen ziren komentua konpontzeko obrak baina Definitorio Jeneralari baimena eskatu zitzaion nobizek nobiziatua bukatu ondoren beraien ikasketak Desierto de Las Palmasen egin zitzaten Valentziako komentua ongi gertatuta aurkitu arte[858].

1885.eko maiatzean komentua gertu zelarik, Definitorio Probintzialak beste behin Erromara jo zuen ikasketak Valentzian egiten jarrai zezaten baina ez prioretxe gisa bikarietxe gisa baino oraindik ez baitzuten nahikoa Karmeldar apaiz. Definitorio Jeneralak gutxienez 5 Apaiz kapitular izatea nahi izan zuen[859].

• *Madril (1888):* 1887.eko abenduaren 22ko Erret Dekretuak baimena ematen zuen Itsasos-bestaldeko Misioen Prokuradorearentzat Egoitza ezartzeko[860]. 1888.eko otsailaren 16an lortu zen apezpikuaren baimena; eta jendearentzat Karmengo Amari eskainitako elizatxo bat ireki zen.

• *La Habana (1880):* Aita Pedro Josek 1878.eko maiatzaren 26an Gaytan Kondeari jakinerazten zion Aita Jeneralak begi onez ikusten zuela fundazio bat Kuban edo Puerto Rico-n egitea[861]. Definitorio Jeneralean aipatu egin zen 1979.eko abenduaren 10ean, fundaziorik egiteko aukerarik zegoen ikustera bidalitako Aita Manuel de S.Teresa eta Aita Agustín de la Asunción Kuba-rantz atera zireneko berria[862]. Fundazioa egiteko Puerto Rico-ko apezpikuaren baldintzekin ados ez zetoztenez, errezago ikusten zuten fundazioa La Habana-n egitea[863]. La Habanako apezpikuak Agustindarren antzinako komentua eskaini zien Aita Karmeldarrei[864]. Apezpikuaren baimenaz fundazioa 1880.eko urriaren 15ean egiteko asmoak zituzten. Onartu egin zuen Definitorio Jeneralak[865].

---

[855] KKA, A-II-59. Aita Higinio Gandarias-ek honako lan hau utzi digu: *Monografía documental del convento de los RR.PP. Carmelitas Descalzos de Calahorra (Logroño)*, Gasteiz 1979, 229 orr.; ziklostil eran egina.

[856] ADG, 188.orr.

[857] ADG, 189.orr.

[858] ADG, 196-197.orr., 1884-XI-26ko batzarraldia.

[859] ADG, 205.orr., 1885-V-17ko batzarraldia.

[860] ADG, 239.orr., 1888-V-15eko batzarraldia.

[861] *Correspondencia...*, 675.zk.

[862] ADG, 132.orr., 1879-XII-16ko batzarraldia.

[863] *Correspondencia...*, 711.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1879-VI-13an eginiko gutuna.

[864] ADG, 135.orr., 1880-V-13ko batzarraldia.

[865] ADG, 139.orr., 1880-VIII-2ko batzarraldia.

Interesgarria iruditzen zait fundazio horren bultzatzaile zen Aita Manuel de Santa Teresaren hitzok hemen jasotea: «Aita eta Anaia Karmeldarrak aurreko hilaren 28an heldu ziren; elizan sartzean *Te Deum* abestu zen. Abenduaren 31n egin zen ospe handiz ezarkuntza eta egun berean hasi zen komentu-bizitza. 3 Aita Karmeldar eta 5 Anaia etorri dira hil honetan eta beste 2 Aita Karmeldar itsasoratu dira Santander-en»[866]

c. Probintzia berriaren eraiketa (1889) eta hedakuntza handia.

1889.ean Genoan egin zen Kapitulu Jeneralak, maiatzaren 15eko batzarraldian, Nafarroako S. Joakin Probintziaren handitzea eta gobernatzeko zituen eragozpenak ikusirik bikoiztea erabaki zuen: horrela berreraiki zen Gaztela Zaharreko San Elias antzinako probintzia.

Berreraikitako probintzia honen eskumeneko egin ziren Desierto de las Palmas, Valentzia, Segovia, Alba de Tormes, La Habana eta Avilako bikarietxea. Nafarroako S. Joakin Probintziari Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa, Logronio, Burgos, Soria, Santander eta Asturias probintzia zibilen mugak jarri zitzaizkion; orduko komentuak honakook ziren: Markina, Larrea, Burgos, Begoña eta Kuba-ko Puerto Rico-ko bikarietxea[867].

1895.ean bikoiztu egin zen S. Elias probintzia, Aragoa eta Valentziako Santa Teresa probintzia eraikiz; 1905.ean Andalusiako Erdiprobintzia egin zen eta 1920.ean probintzia bihurtu. 1906.ean berreraiki zen Kataluniako San Jose probintzia, etab.

Eta gure berriak oraingo Nafarroako S. Joakin probintziara mugatuz, honako fundaziook aurkitzen ditugu: Gasteiz (1890), Korella (berreraiketa, 1892), Villafranca de Navarra (berreraiketa, 1893), Iruñea (berreraiketa, 1895), Rigada-Desierto (Hoz de Anero, 1897), El Soto (1898), Santander (1900), Donostia (1908), Altzo (1917), Logronio (1918)... 19 fundaziotik gora Amerikan 1917. urterarte.

1917.eko urte honetan Nafarroako S. Joakin Probintziak 449 erlijioso zituen 40 komentutan banatuta.

Euskal probintziaren garapenaren berri zehatzagoa izateko nahikoa da datu estatistikoren bat, esaterako, 1875-1918. urteen artean Larreako nobiziatutik 860 pertsona iragan zirela gogora ekartzea[868].

Gainerako probintzien ama izan zen euskal probintziak izandako hedapen laster honen iturburua, Espainian zein Amerikako alderik handienean berreraikuntza gune izan zen Markinako Karmengo komentua berreraiki zuten euskaldun haiek hasieran eman zioten bultzada indartsua dugu.

Markinako komentuak berreraikuntzaren hasieran izan zuen zerikusi handi horrek bultzatu nau aldi horretako berriak hainbesteko zehaztasunez bildu eta eskaintzera.

---

[866] *Correspondencia...*, 767.zk., Aita Manuelek Gaytan kondeari1881-I-5ean eginiko gutuna.
[867] ADG, 256.orr., 1889-VI-11ko batzarraldia.
[868] Ik. LKA, A-VII-3.

d. Markinako Karmengo komentuko datu estatistiko batzu (1867-1900).

Euskalerrian eta Espainian izandako Ordenaren berreraikuntzari eskainitako kapitulu hau amaitzeko, urte horietan Markinako Karmengo komentuan izandako pertsonalari dagizkion datu batzu ekarriko ditugu gogora.

Pertsonala, etxeak urteetan zehar hartu izan zituen helburuen arabera zehaztuta zegoen: batzutan, komunitate arruntazko komentua izan zen; beste batzutan, nobizen etxea edo profesio-eginberrien etxea edota teologia zein filosofiako ikastetxea; eta lehen urteetan, ikusi dugunez, zeregin guztiak batera betetzen zituen.

Eta pertsonalean gertatutako kopuru aldaketak, hainbatetan, karmeldar probintzian izandako aldaketek, hau da, nobiziatu eta ikastetxe berriak eraikitzeak bultzatuak izan ziren. Horrela 1877.ean eta jarraiko urteetan Larreako komentua egin zen nobiziatu eta Burgos-ekoa 1878.ean filosofiako ikastetxe, Markinakoak teologiako ikastetxe izaten jarraitzen zuen artean. 1885-1888. urteetan teologiako ikasleek Markina eta Alba de Tormes-eko etxeetan banatu ziren; 1889.ean Markina profesio-eginberrien etxea zen, Alba de Tormes eta Begoña filosofoen ikastetxeak eta Burgos, Valentzia eta Segovia teologoen etxeak zirelarik[869].

Urtea	Etxe mota	Apaizak	Koristak	Legoak	Guztira
(1868	Nobiziatua	5		5	10)
1869	«	6	0	4	10 (19)
1870	«	6	8	5	19 (30)
(1871					(36-39))
1872	Nobiziatua eta filosofia etxea	7	22	6	35 (36)
1873	»	8			
1874	»	8	19	6	33
1875	Nobiz. filosofia, teologia	10 (12)	20	6	36
1876	»	13	17	6	36 (37-41)
1877	Filos./teologia	15	11	5	31 (33)
1878	Teología-etxea	8	2	5	15
1879	»	9	7	10	26
1880	»	10	12	6	28 (ia 50)
1881	»	11	17	9	37
1882	»	7	26	8	41
1883		15	14	10	39
1884		22	6	9	37

[869] Estatistika datu hauek Aita Bernardo de S.José fraidearen *Restauración y Progresos de la Orden Carmelitana en España* eskuskributik hartu ditugu: BAS, 69 /J.

Oharterazi egin behar da datu hauek ez direla guztiz zehatzak batez ere lehen urteei dagokienean, datu zehatzagorik ageri delako beste agiri batzutan, bereziki hain sarri aipatuak izan diren Gaytan kondearen etxean gordetakoetan. Hori dela eta, gako artean jartzen ditut agiri horietatik ateratako datu zehatzagoak.

1885 »	12	25	7	44
1886 »	11	19	7	37
1887 »	17	11	7	35
1888 »	19	0	5	24
1889 Profesio-etxea	10	18	7	35
1890 »	8	22	7	37
1891 »	9	0	8	17
1892 »	9	11	7	27
1893 »	8	22	7	37
1894 »	10	7	5	22
1895 »	9	5	4	18
1896 »	9	22	9	40
1897 Filosofia-etxea	11	37	7	55
1898 »	9	35	7	51
1899 Profesio-etxea	10	22	7	37
1900 »	10	1	6	17

E. MARKINAKO KARMENKO KOMENTUA BERRERAIKUNTZA ONDOKO GARAPENA (1875-1933)

Abiaburu, bultzada berriztatzaile eta motore Markinako Karmengo komentua izan zuen Euskal Herriko zein Espainia osoko Karmeldarren berreraikuntzan izandako ibilbidea zehazkiro aurkeztu ondoren, kapitulu honetan, Markina hartuko dugu ia soilki aztergaitzat, bertako eguneroko bizitza, hots, komunitateak 1936.eko anaiarteko gerraterarte izandako bilakaera azaltzen saiatuz. Hemen, jakina, 60 urte luze horietako gertakari jakingarrienak jasoko ditugu bakarrik.

Badugu berreraikuntzako lehen urteak deskribatzen dituen datu interesgarri bat: hau da, berreraikuntza burutu zuten bultzatzaile edo eragileen batasuna: horrela esaten zion Aita Miguel de la SS.Trinidad fraideak Candido Gaytan, Villafranca-ko Konde Jnari: «gainerakoan argi ikusiko du Berorrek, hirurok erromatarrena baino lotuagoa den triunbiratu bat osotzen dugula eta hirurok arima eta bihotz bat dugula eta batek egiten duena hirurok egintzat jotzen dugula»[870]. Eta elkarri zioten onespena ere handia zen; adibidez, 1870.eko otsailean, Aita Pedro Josek, Markinako berreraikuntza egin eta urte t'erdira Priore zelarik, Aita Domingo de S. Jose Erromako Aita Jeneralari idatzi zionean, Aita Migel Markinako priore on bat izan zitekeela esaten zion[871]. Horrela, lau hilabete geroago, 1870.eko ekainean Priore izendatu zuen Erromako Definitorio Jeneralak[872].

1. Komunitatearen garapena

Gorago ikusi izan dugu Markinako Karmengo komentuaren berreraikuntzaren hasieran, bertako Priore Aita Pedro José de Jesús María, nobizen Maisu Aita Manuel de S. Teresa eta lehen Diskretu edo aholkulari Aita Miguel de la SS. Trinidad izan

---

[870] *Correspondencia...*, 484.zk., 1875-IV-4eko gutuna.
[871] MKA, A-I-151, 1870-II-28ko gutuna, jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[872] ADG, 51.orr.

zirela izendatuak[873]. 1870.eko ekainean bestetara izan ziren izendapenak: Priore, Aita Migel, nobizen Maisu, Aita Manuel eta lehen Aholkulari Aita Pedro Jose[874]; kargu hauek errepikatu egin ziren 1872.eko apirilaren 30ean[875]. 1875.eko apirilaren 24ean, honako izendapenok izan ziren: Priore, Aita Pedro Jose, nobizen Maisu Aita Juan de la SS. Virgen eta lehen Aholkulari Aita Migel; Teologiako irakasle Aita Tomás de Jesús María y José eta filosofiakoa Aita Paulo de S. Teresa[876].

1879.eko abenduaren 16an Nafarroako S. Joakin Karmeldar Probintzia eraiki eta Aita Pedro Jose Probintzial izendatu zutenean, Aita Paulo de S. Teresa izendatu zuten Markinako Priore[877]. Geroago uko egin zion postuari eta Definitorio Probintzialak Aita Manuel del SS. Sacramento hautatu zuen 1882.eko urtarrilaren 31n eta kargua otsailaren 4ean hartu zuen[878].

1882.eko apirileko Kapitulu Probintzialak Aita Tomás de Jesús María José izendatu zuen bertako priore; 1885.ean, Aita Juan de la SS. Virgen; 1888.ean Aita Andrés del Sagrado Corazón de Jesús[879].

Markinako Komunitatearen garapenerako garrantzi handiko lehen urteetan une edota gertakari nabarmengarri batzu ere izan ziren. Lehen eta behin, gorago, bidenabar izan baldin bada ere, aipatu dugun Markinako Karmengo etxeak izandako ugalketa izugarria: 1868.etik 1872.ra arteko urteetan 40 gazte onartu ziren nobize gisa[880]; 1870.ean 20 nobize zeuden bertan, guztira 30 erlijioso bizi zirela[881]. 1871.ean 36 erlijikoso aurkitzen ziren[882].

1874-1875. urtean bete-beterik aurkitzen zen Markinako Karmengo etxea: hori zela eta saiatzen ziren fundazio berri bat egiteko ahaleginetan, ikasleei irtenbidea aurkitzeko. Donnet, Bordeleko Kardinale Artzapezpikuak Markinakoen alde Aita Santuari 1874.ean eginiko eskabidean guztira 60 erlijioso zirela zioen[883].

Markinako sei Aita Karmeldar, beraien artean Aita Manuel, 1876.eko ekainean aldatu ziren Larreako fundazio berrira[884].

Larreako fundazioa egin eta hilabete batzu barru, 1876.eko abuztuaren 18an, Aita Pedro Josek Markinatik Larreara aldatu zituen nobizeak[885].

---

[873] ADG, 44.orr.
[874] ADG, 51.orr.
[875] ADG, 60.orr.
[876] ADG, 85.orr.
[877] ADG, 132.orr.
[878] BAS, 26 /P.
[879] GPKA, *Acta Cap.Provincialis*, I, 5v, 10v,15r.
[880] *Correspondencia...*, 287.zk.
[881] *Correspondencia...*, 208.zk.
[882] *Correspondencia...*, 245.zk., 1871-X-16ko gutuna.
[883] Kopia GPKA-n, 1874-VI-20k agiria; baina, zalantzak ditut zenbaki hauei buruz; seguruaski kopiatzaileak gaizki jasota.
[884] *Correspondencia...*, 576.zk., 1876-VII-24eko gutuna.
[885] *Correspondencia...*, 583.zk., 1876-VIII-17ko gutuna.

1877.ean, Markina, jadanik ez zen nobiziatua, baina bai filosofia, teologia, Eskritura santuak eta abar irakasten zireneko ikastetxea[886]. 1877. urteko Komunitatea osotzen zuten pertsonen izenak ezagutzen ditugu. Aita Pedro Jose, Bikario Probintzialak Itsasoz-bestaldeko ministrari jaunari 1877.eko martxoaren 7ko datan bidalitako txostena[887] eta Markinako erlijiosoen zerrenda da. 33 erlijiosok osoturiko zerrenda hau da:

Ihardueta / Izena	Adina	Jaioterria
Bikario Probintziala eta Priorea: Pedro José de Jesús María (Alkorta)	54	Markina (Bizkaia)
Prioreorde eta nobizen maisua: Gerónimo de Jesús María y José (Tellería)	53	Araia (Araba)
Konbentuala: Aita Manuel de la Madre de Dios (Gabiola)	61	Markina (Bizkaia)
Teologia irakaslea: Aita Tomás de Jesús María José (Alkorta)	44	Markina (Bizkaia)
Konbentuala: Aita Ignacio de la SS. Virgen (Garaitagoitia)	30	Zornotza (Bizkaia)
Filosofia irakaslea Aita Pablo de Sta. Teresa (Uriarte)	31	Bilbo (Bizkaia)
Teologiako ikasle botudunak:		
Apaizak:		
Bernardo de Jesús (Arguinzoniz)	24	Zornotza (Bizkaia)
José Ramón de los Dolores (Larrinaga)	24	Galdakao (Bizkaia)
Gabriel de Jesús María y José (Pérez)	26	Roitegi (Araba)
Cirilo de Jesús María y José (Aidillo)	25	Ezcaray (Errioxoa)
José María de S. Luis Gonzaga (Izaguirre)	30	Ajangiz (Bizkaia)
Domingo de la SSma. Trinidad (Sarasua)	24	Etxebarria (Bizk.)
Eliseo María del Sdo. Corazón (Cuñado)	24	Presencio (Burgos)
Elías de San José (Elorriaga)	24	Mungia (Bizkaia)
Ikasle diakonoak:		
Fr.Timoteo de la Asunción (Sagasti)	22	Ullibarri (Araba)
Fr. Angelo del Sdo. Corazón (Iturriaga)	22	Albiz (Bizkaia)
Ikasleak:		

[886] *Correspondencia...*, 632.zk., Aita Tomas de Jesús María José fraideak Gaytan kondeari 1877-V-3an eginiko gutuna.

[887] GPKA, Markina 4; ik, era berean, MKA, A-V-7.

Fr.Joaquín de S. Simón Stock (Olabarrieta)	21	Dima (Bizkaia)
Fr. Estanislao del Niño Jesús (Ugarte)	21	Urduña (Bizkaia)
Fr. Luis del Corazón de María (La Fuente)	22	Urduña (Bizkia)
Fr. Alberto de S. José (Gorrichategui)	21	Berriz (Bizkaia)
Fr. Pio de la Concepción (Arroniz)	19	Roitegi (Araba)
Fr. Bernardino de la Visitación (Zamalloa)	19	Zornotza (Bizkaia)
Fr. Mariano de Jesús (Arguinzoniz)	18	Zornotza (Bizkaia)
Fr. Nicolás de S. Teresa (Aranzeta)	17	Etxano (Bizkaia)
Fr. Pascual de Cristo (Serra)	27	Picasent (Valentzia)

Botudun legoak:

Fr. José Luis de Jesús María (Zubiaur)	53	Lezama (Bizkaia)
Fr. José de Jesús María (Guerricaechevarria)	28	Berriatua (Bizk.)
Fr. Martín de la Cruz (Carrillo)	43	Pedrosa (Burgos)

Nobize legoak:

Fr. Pablo de la Visitación (Notario)	33	Biana (Nafarroa)
Fr. Manuel de S. José (García)	22	Biana (Nafarroa)
Fr. Manuel de S. Pascual (Pitrach)	19	Villarreal (Castellón)
Fr. José de Cristo (Gomiz)	20	Burriana (Castellón)

Hiru urte geroago, 1880. urteko amaieran, 50 erlijioso zeuden[888].

2. Egoera sozio-politiko-militarrak eta karmengo komentua

Hirugarren Karlistadak (1872-1876) zipriztindu egin zuen Markinako Komunitatearen bizitza. Bizkaian Domegaray-k bultzaturik sortu zen karlisten guduak, Nafarroa eta Euskal Herriko beste hiru probintziak mende zituela, Karlos III.ak bere Gortea Lizarran jartzea ekarri zuen (1873-1874). Baina, 1876.eko otsailean Espainiatik ihes egin behar izan zuen. 1876.eko uztailan, era berean, karlistak menperatuak izan ondoren, kenduak izan ziren euskaldunon foruak.

Egoera sozio-politiko hauetan, Bilboko *Irurac-bat*egunkariak 1974.eko ekainaren 16an testu bat argitaratu zuen Markinako Aita Karmeldarrei buruz, Aita Pedro Josek iraingarri eta zitaltzat jo zuelarik; eta lau urte lehenago Madrileko *El Imparcial* egunkarian argitaratutako kaluniazko berri baten ondorioz Markinako Karmeldarrak komentutik kanpora bidaliak izan zirela gogoan izanik, beldurrak eraginda Bordeletik arazoari irtenbidea bilatzen ahaleginak egiteko eta beraren bihotzeko zen Markinako komentuaren alde egiteko eskatuz honako hau jakinerazi zion Gaytan Jnari: «Vea V.,

[888] *Correspondencia...*, 766.zk., Aita Pablo fraideak Gaytan kondeari 1881-I-3an eginiko gutuna.

señor Conde, de poner al corriente el Emo. Sr. de Castillo, Dn. Manuel María de Gortazar y algún otro suponente de Bilbao, como también los Gefes que pudieran acercarse de Marquina (si llega el caso) para evitar malos ratos a nuestros PP. El Sr. Conde de Peñaflorida es buena recomendación para el Sr. de Gortazar; V. conoce también Dn.Rafael Murga y Dn. Federico Mugartegui; en fin, V. verá el mejor modo posible para evitar pruevas penosas a la comunidad, que es la suya por muchos títulos. Bueno es que sepa V., en caso que no lo sepa, que en el número del día 14 de corriente apareció en la Epoca, con referencia al *El Imparcial*, la misma especie, pero lo de *Irurac-bat* está adornada de manera inicua y más extensa. Escriba V. a los PP. a Marquina lo que se dice por el mundo en caso que no lo sepan para que estén prevenidos»[890]. Zurrumurru eta estualdi hauetan laguntza handia eman zien, baita ere, Gerrako Ministrariaren alaba zen Santiago y Lazan-go Markesa Andereak[891].

Baina bi urte geroago, karlistada azkenetan aurkitzen zela, garai hartan arazo batetatik irten eta beste batetan sartu ohi ziren Markinako karmeldarrak zeharo beldurtuta geratu ziren 1876.ean Markinako fraideek guduan izandako itxurazko partaidetzari buruz agertu ziren zurrumurru, esamena zein kalumniak zirela eta; Barcaistegui Jna. Ministeritzetara aurkeztuko zen Karmeldarren alde hitz egiteko.[892].

Ordurako agerikoa zen Bilbon 23 apaiz atxilotu zituztela eta, era berean, baita ere, Markinako 2 eta Markina-Etxebarriko 3 atxilotzeko aginduak eman zirela[893].

Madrilen haserre bizitan ziren Euskal Probintzietan gertatuaren ondorioz eta Aita Pedro Josek, lehenago beste une batzutan gertatuaren arabera, komentua itxiko zuten beldurra zuen; horregatik eskatu zion Kondeari bere eragipen osoa erabiltzeko Madrilen[894].

Gudua amaitu ondoren, 1876.eko urrian, gudu-mendeku eta segurantzarik eza nabari ziren; horrela sentitzen zuen, behinik behin, Aita Migelek Larrean egoera, hilabete batzu lehenago Markinan bizi izan ondoren. Datu interesgarri batzu eskaintzen dizkigu: «Iragandako guduan izandako partaidetzari buruz, bene-benetan ez dugula inolazko partaidetzarik izan esan diezazuket; esan dizudanez batzuk gertatu gabeko zerak leporatu nahi izan dizkigute, hala, esaterako, Ondarruan izandako bapore misteriotsu batetara elizbira-eran joan ginela ikustera, inor ez zelarik komentuko ataritik kanporatu; edota izenpetu gabeko Bilboko paperak zekarren beste halakoa, hots, gure komentuan kartutxoak egiten genituela eta ahalik eta liberal gehien hil zitzaten bedeinkapenak ematen genizkiela eta antzerako beste hainbat gauza; guzti horiek beste ezer baino gehiago barregura eman zidaten ez nuelako eta ez dudalako sinesten bere senean dagoen inortxok halako burugabekeriak sines ditzakeenik.

---

[890] *Correspondencia...*, 452.zk., 1874-VI-20ko gutuna.
[891] *Correspondencia...*, 453.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1874-VI-29an eginiko gutuna.
[892] *Correspondencia...*, 561.zk.,Barcaistegui Jnak Gaytan kondeari 1876-V-22an eginiko gutuna.
[893] *Correspondencia...*, 563.zk., Aita Tomás de Jesús María Jose fraideak Gaytan kondeari 1876-V-26an eginiko gutuna.
[894] *Correspondencia...*, 562.zk., 1876-V-23ko gutuna.

Madrileko Jeneralek kanoiak eta munizioak Markinako komentuan sartu zituztenean gure borondatearen aurka izan zen ala ez galdetzen didazu; apaltasunez erantzuten dizut Loma Jeneral Gorena eta Billegas, artileria, kanoi eta munizio eta guzti soldadu-aldra handi bat zekartela Markinatik iragan zirenean, komentuan ostatu ziren, guk borondaterik onenaz eta atseginik handienaz hartu genituela eta Gobernuaren tropak Markinatik iragan ziren bakoitzean artileria gure atarian jartzen zuten, guk geure komentu osoa eskaini arren, beraiek, eskerrona agertuz, nahikoa zutela ataria esanez.

Zu karlisten kanoi eta munizioei buruz ari baldin bazara, egiatan gure Markinako komentuan inoiz ez dela karlisten kanoirik ez eta muniziorik izan erantzun behar dizut; baliteke, norbaitek, Karlisten Diputazioak Durangotik ihes egin zuenean gure komentura, barruko patiora zorro batzu eta zerez beteta zeuden ez dakidan gurdi batzu sartu zirela esan izatea, baina horren aurka atera ginen eta Alkateak sartzeko agindu zuen eta guk berak beharturik egiten zela idatziz agintzeko eskatu genion eta hala egin zuen, baina guk ez genuen ezerten zerikusirik izan..

Harritu egiten nau guk iragandako gudu politikoan eskuhartu dugula entzuteak, nire ahaleginik handiena, gudaldi osoan Markinako priore izan naizelarik, nire menpekoak politikan eskurik ez hartzera bultzatzea izan zelako eta lortu nuela uste dut; oso ongi dakizunez gure institutua ez da gai politikoetan aritzeko, Jainkoari eta urkoari gure otoitz eta izpirituzko laguntsekin zerbitzua eskaintzeko baino eta horretan ihardun izan dugu bakarrik, besterik egin gabe.

Zuk dinamita-gordailuaz esaten didazunari buruz zera esan behar dizut, hots, garai hartan Markinako Komunitateko izan gabe etxe partikularretan bizi ziren erlijioso bakar batzuren ahotik jakin dudanez, karlisten Diputazioak hemen utzi zuten; beraiek eragozpenak jarri zieten baina ezer gutxi egin zezaketen indar handiagoen aurrean; behin eta berriro eskatu zietela harako gai konprometagarriak kentzeko baina ez zietela jaramonik egin eta soldadu-aldra handia azken aldiz iragan zenean, erlijioso batek Gobernuburuari berri eman ziola handik atera zitzan eta hala egin zuela, baina honetan zein bestelakoetan ez zutela parterik izan etxe hartan bizi zirenek.

Esan iezaiozu, beraz, Jn. Tx. Gorenari gure erlijio betikizun hutsetan ihardun izan dugula; bide hau hautatu dugula gure profesioan eta, goraxeago aipaturiko bide horretara makurtu izan garela pentsatzeko arrazoi susmagarriak daudela esaten badiote ere, esan iezaiozu lasai egoteko, Jainkoa lagun honetan ez diogula atsekaberik emango uste dut eta» [895].

Eta informazio horiek hara eta hona mugitzen ari zen Konde Jaunari, Quesada Jeneral Jnak, fraideak ezertarako politikan nahastu gabe erlijio zereginetan aritzen baziren ez zirela nekaraziak izango ziurtatzen zuela jakinerazi zion[896]. Gertakari guzti hau ikaraldi handi bat baino ez zen izan.

[895] *Correspondencia...*, 599.zk.,Gaytan kondeari 1876-X-10ean giniko gutuna.
[896] *Correspondencia...*, 601.zk., Luis Jnak Gaytan kondeari 1876-X-19an eginiko gutuna.

3. Udala eta karmengo komentua

Historia honetan zehar ikusi izan dugun bezala, garai honetan ere, kasu txikiren batetan izan ezik, oso harreman onak izan zituzten beraien artean Udalak eta Karmengo komentuak. Horrela, 1917. urtean, Prioreak bere kargua uztean, Cecilio Bustingui alkate Jnari eta udalari Karmeldarren komunitatearekin izandako harreman onak eskertu nahi izan zizkien[897].

Kexen artean, fraideak beraien otoitzerako gauerdian kanpaiak jotzean hiritarren loaldia eten egiten zutelako 1890.eko martxoaren 9an Barrenechea Alkateordeak Alkate eta gainerako Zinegotziei eginikoa ageri zaigu[898].

a. Urak

Lehenago, 1757-1788.urteei zegokiela, erakunde biek ur-beharra eta Karmengo Plazako iturria zirela eta izandako harremanak aipatu ditugu.

Eta aztergai dugun garaitik hurragoko egunetan, hau da, 1861.ean, Peñafloridako kondeak komentuak soberan zuen ura erabiltzeko baimena eskatu zion udalari[899]. Urte batzu geroago, 1869.ean, Karmeldarren berreraikuntza eginda gero, fraideek ura eskatu zuten gutxi heltzen zitzaielako[900] eta ea noren erantzukizuna zen ur-hodierien konponketa galdetzen zuten[901].

Honako hau ageri zaigu 1891.ean: begiratu egin da «herriko iturrira, portalera eta Karmeldarren komentuko aldera doazen uren urtegira urak banatzen dituzten hodien egoera ikusteko eta ez dela txaparik ageri ikusi izan da eta ondorioz nahiko ur multzo handia alferrik galtzen dela; udal honek mila zazpiehun eta larogeita zortzian erabakitakoa gogoan hartuz, txapak berriztatu bearra ikusi du, data hartan eginiko uren banaketa errespetatuz»[902].

1912.ean Karmeldarren Komunitateak 1.165,65 pezeta, hau da, obretan egindako gastuen zazpirena ordaindu zuen Hirirako uren zazpiren baten jabe zelako; Aita Karmeldarrek zazpiren honetatik atal bat dohainik ematen zien moja karmeldarrei[903].

Hamaika urte geroago, 1923.ean, Markina Hiriko («Villaviciosa») Alkatetzak honako hau jakinerazi zion Karmengo Priorari: «Ohore handiz jakinerazten diot Berorri, agintzapeko dudan udalak gaurko egunez eginiko batzarraldian, ahobatez, zuk

---

[897] MUA, *Libro de actas... 1916-1920*, 144-145.orr., 1917-XII-30.
[898] MUA, *Libro de actas... 1890-1896*, 8v-9v (MKA, A-I-194).
[899] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*, 1861-VII-28an; MKA, A-XVIII-7(14).
[900] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*, 1869-X-3an; MKA, A-XVIII-7(15).
[901] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*, 1869-X-24ean; MKA, A-XVIII-7(16).
[902] MUA, *Libro de decretos... 1890-1896*, 70v-71r, 1981-IX-20; MKA, A-XVIII-7(17).
[903] MKA, A-XVIII-7(18), 1912-VIII-29an.

halako duintasun handiz zuzentzen duzun komunitate beneragarriari, saneamendu-hodieria komentuko ortutik iragan zedin emaniko zerbitzuagatik eskerrik beroenak ematea erabaki duela, gerorako ziurtapena gera dadin aktan jasoz»[904].

b. Obrak.

Karmeldarrek eginiko obra ezberdinetarako behar-beharrezkoa gertatzen zen Udalaren lankidetza.

Horrela, 1895.eako martxoaren 29an, Aita Segundo de S. Jose Prioreak, komentuko komunitateak lehengo eraikina, aurrekaldean eta errepideko espaloi ondoan, aste bi lehenago martxoaren 13an Diputazioak onartutako planoaren arabera handitzeko asmoa zuela jakinerazi zion udalari; eta Federico Mugartegui alkate Jnak 1895.eko apirilaren 1ean sinatu zuen korporazioak aurreko egunean onartutako proiektuaren baimena; baina, era berean, kontutan hartzeko, etxea zabalduko zuen eraikin berriari oinarriak jarri behar zitzaion lekutik iragaten zen uren hodieria eskatzen zuen[905].

Udalaren 1904.eko abuztuaren 14eko batzarraldi arruntean, Korporazioaren eta Karmengo komentuaren arteko jakinerazpen ezberdinei buruz aritu ziren. Aita Vicente de S. José Prioreak, uztailaren 4ean Diputazioak errepidearen eta komentuko plazatxoaren arteko areka estaltzeko baimena eman ziola jakinerazi zuen; honekin batera, jaurnartze-kaperak kanporantz egiten zuen irtenunean, elizaren kanpokaldean eliza eta errepidearen artean aurkitzen zen baztertxoa horma bat jasoz ixteko asmoak zituela adierazi zuen lekune hura oso zatar egoten zelako. Fernando de Olea Alkateak abuztuaren 6an, ezin ziola baimenik eman, lursail hura udalarena zela uste zuelako esanez erantzun zion. Bi egun geroago, abuztuaren 8an erantzun zion Prioreak, jende guztiak lursail hura komentukotzat zuelako bere harridura azalduz: «arazoa oso ongi ezagutzen duen Aita Jose Maria etxe honetako fraideak esan eta baieztatzen du lursail honetan eta ondoko errepideak hartzen duen ataltxo batetan komunitateak sabai edo teilape bat zaukala, aztarnak oraindik elizako hormetan ageri direla eta, era berean, Federico Mugartegui aurreko Alkate Jnak, beraren aurrean argi eta garbi Komunitate edo Elizako lursaila dela aitortu zuela ziurtatzen du»[906]. Korporazioak alkateak adierazia onartu zuen.

1919.eko urriaren 28an Aita Prioreak, Iturralde deituriko biderantz ematen zuen eraikinaren ondoko aldean bi lehio ateratzeko eta ortuko horman ate bat egiteko baimena eskatu zuen. Udalak aho batez onartu zuen[907].

Beste behin, 1920.eko martxoaren 21ean, Arambarri Jnak salaketa egin zuen Udalean Iturraldecua etxean eta Karmengo komentuko ikastetxearen aldean teilatue-

---

[904] MKA, A-XVIII-7(18), 1923-XI-6; ik., era berean,: MUA, *Libro de actas...1923-1927*, 17-18.orr.

[905] MUA, Erregistroa, 30 (*Instancias 1891-1905*).

[906] MUA, *Libro de decretos...1896-1905*, 503-507.orr.

[907] MUA, *Libro de actas...1916-1920*, 329-330.orr.

tako ubideak egokiro jarrita ez egoteagatik, ura espailora erortzen zela bertako lurra eramanez. Udaleko udalburuak akatsak zuzentzeko, Sarasola Jnaren eta Karmengo Priorearen aurrean eginbide egokiak egiteko hitza eman zuen[908].

c. **Kanposantua ortuan.**

Karmengo Komunitateak, kanposantua komentuko ortu barruan eraikaitzeko proiektua egin zuen. Udalak 1892.eko urriaren 21.ean txosten bat eskatu zuen erlijiosoek kanposantua egin nahi zuen tokiak higienezko baldintzak betetzen zituen jakiteko. Markinako udaleko sanitate batzordeak 1892.eko azaroaren 5ean, bilera aurreko egunean egin ondoren, eman zuen bere ebazpen-txostena:

1. Ortuaren albo batetan kokaturiko tokiak baldintza onak zaituela.
2. Tokia hirigunetik 120 metrotara aurkitzen zela... baina, eskualde honetan ohizkoak ziren haizeek gorpuak usteltzean sortutako gas kiratsuak ekar zitzaketela hiririantz.
3. Iturburua, egiteko asmotan den kanposantu-tokitik 60 metrotara aurkitzen zela.

Batzordearen eritziz kanposantuak ez zituela ezinbesteko baldintzak betetzen; ondorioz egitearen aurkako erizpena zuela[909].

Aita Maximo de la Purísima Concepción Prioreak, Estatuko agintariei baimena eskatu zien ortuan sei hilobitako kripta bat egiteko, udaleko sanitate batzordearen eritziz kanposatua egiteak ez zituelako higienezko baldintzak betetzen: proiektu berria hiru medikuk aztertua izan zen udaleko Batzordearen aurkako erizpena emanez: «Los cuales afirman que se encuentra a gran distancia del nucleo de población, no se ve en sus cercarías ni caminos, ni fuente de agua potable, pasando el río a unos cien metros de distancia y no permitiendo filtraciones el sistema de sepulturas que se trata de construir: considerando que el informe técnico que obra en expediente es favorable a la pretensión del recurrente»... Eman egin zitzaion aipaturiko baimena Aita Prioreari 1892.eko azaroaren 30eko Erret Dekretuaren bidez[910].

Urte batzu geroago, 1932.eko uztailaren 12an, José Luis Gaytan de Ayala Alkateak Karmengo Prioreari kanposantu pribatuei buruzko 1932.eko urtarrilaren 30eko legea jakinerazi zion: ez zen aurrerantzean kanposanturik egiterik ez eta lehengoak ugaltzerik baimenduko; horretaz gainera, hilabeteko epearen barruan ezarritako eskubideak berraztertu behar ziren eta zeintzu pertsonak zuten bertan hilobiratuak iza-

---

[908] MUA, *Libro de actas...1916-1920*, 374-378.or.

[909] MUA, Erregistroa 38, 10.zk.

[910] GPKA, Markina 4. Plan honek aldaketa izan zuen 1954-1957.ean, Aita Pedro María de S.José priore zela.

teko eskubidea zehaztu..., Udalak zerrendak egin behar zituen zentzu pertsonei zegozkien hilobiratzea zehaztuz.

Aita Domingo de S. Millán Prioreak 1933.eko maiatzaren 14ean erantzun zuen kriptaren legezko egoera azalduz eta indarrean ziren legeak betez urte bereko maiatzaren 16ko datan erlijiosoen zerrenda aurkeztu zuen, Karmengo kanposantu pribatua Markinako udalaren eskumen peko halako kanposantuen zerrendan barrusartua izatea eskatuz. Udalak baietz erantzun zion 1934.eko martxoaren 10ean[911].

Anaien arteko guda aurreko erlijiosoen zerrenda honek komentuko pertsonalaren egoera ematen du aditzera; osorik jasoten dugu Aita Karmeldar eta ikasleak osoturiko Komunitatea delako: gako artean izen zibilak eta erlijio-profesioa egin zuteneko data jartzen dira:

Fr. Domingo de San Millán (Juan Uriarte Artabe, 1884-IX-29).
Fr. José Mateo del Sagr.Corazón de Jesús (José Mateo Ugartetxea, 1907-I-18)
Fr. Jacinto de la Virgen del Carmen (Jacinto Artalarrea, 1881-X-22).
Fr. Higinio de San José (Higinio Gorrochategui, 1882-I-30).
Fr. Policarpo de Santa Bárbara (J.Domingo Cortabitarte, 1884-VIII-18).
Fr. Leandro del SSmo. Sacramento (Julián Garaitagoitia, 1886-VI-27).
Fr. Cecilio de la Virgen del Carmen (Leandro Jauregui, 1888-III-19).
Fr. Carlos de la Virgen del Carmen (Indalecio Garate, 1894-VIII-12).
Fr. Bautista de S. José (Eugenio Legarra, 1919-IX-1).
Fr. León de S.Elías (Leon Aranguren, 1924-VII-8).
Fr. Benito de la Virgen del Carmen (Benito Echebarria, 1932-VII-7).
Fr. Antonio M. de S. José (Joaquín Zamalloa, 1932-IV-13) (?).
Fr. Sabino de Sta.Teresita (Santiago Guerrica, 1933-VII-18).
Fr. Jeremías del Niño Jesús (Pedro Ondagoitia, 1933-VII-18).
Fr. Joaquín M.del Smo.Sacramento (Joaquín Guibert, 1933-VII-18).
Fr. Ciriaco del Niño Jesús (Rufino Barrenechea, 1933-VII-18).
Fr. Arcángel del Niño Jesús (Manuel Iturbe, 1933-VII-18).
Fr. Cándido de Santa Teresita (Juan Arrieta, 1933-VII-18).
Fr. Lorenzo de Santa Teresita (León Arteaga, 1933-VII-18).
Fr. Celestino de Santa Teresita (Domingo Garachena, 1933-VII-18).
Fr. Fructuoso de Cristo Rey (Fructuoso Irurzun, 1933-VIII-7).
Fr. Samuel de la Sagrada Familia (Vicente Ariz,1933-VIII-7).
Fr. Tirso de S.Agustín (Jesús Herrero, 1933-VIII-7).
Fr. Eliseo de la Virgen del Carmen (Teodoro Amoriza, 1933-VIII-7).
Fr. Eladio de J.Crucificado (Jesús Zabaleta, 1933-VIII-7).
Fr. Bernardo M.de San José (Antonio B.Alzola, 1933-VIII-7).
Fr. José Martín de Jesús (Martin J. Balda, 1922-XII-6).

[911] GPKA, Markina 4.

Fr. Pedro Luis de S.José (Pedro L. Alberdi, 1930-XII-3).
Fr. Jose Francisco del Niño Jesús (José Francisco Iturrarán, 1932-VII-31).
Gregorio Aldaba Zuazu (morroia).

d. **Karmengo jaiak eta elizbirak (1890-1925).**

Karmengo jai zibil eta erlijiosoen inguruan hainbat datu dugu; honetan ere, bide batez, Udalaren eta Karmengo Komunitatearen arteko lankidetza ageri da. Hain zuzen ere, urtero errepikatzen ziren datu eta gertakerak, bereziki elizbirak ditugu.

Atal labur honetan, lagin gisa, erakunde bien arteko egoera eta harremanen berri emango diguten datu gutxi batzu jasoko ditut bakarrik.

Udaleko aktetan etengabeki aipatzen dira Karmengo jai herritarren gertaketak, horrela, adibidez, 1890-1905, 1907,1913,1920. urte eta abarretan[912].

Jai herritarren gertaketei buruzko datu bitxitzat 1920.ekoa gogora dezakegu: alkateak ekainaren 27ko batzarraldian honakoen berri eman zuen: Afinatzera Parisera bidali ziren musika-tresnak atzerapen handiz itzuli zirela, ondorioz musika bandak ezin izango zuela jo Karmengo jaietan gertaketa-saioetarako astirik ez zuelako; baina, Onaindia Jnak kontsulta egin ziola musika zuzentzaileari ea musikalaririk trebeenak hartuz saioak egin zitezkeen eta baiezkoa izanez gero, beste banda batzutako kide batzu kontrata zitezkeela eta horrela jaiak alaitu... Aurrekoa egiten saiatuko zirela eta ezin bada kanpoko banda bat kontratatuko da. Era berean, Longa Jnak proposamena eginik, aho batez, jaietako egitaraua gazteleraz eta euskaldean erabili ohi den euskaraz argitaratzea onartu zen[913].

Urte bereko uztailaren 4eko batzarraldian alkateak ibiltarien lehiaketarako bi lehen sarietarako erositako zilarrezko sari batzuren berri eman zuen: «El Sr. Alcalde dió cuenta de haber adquirido en la casa de Serrano de Bilbao, una copa de plata y un juego de petaca y fosforera para los dos primeros premios de las carreras de andarines que se proyectan celebrar en las fiestas del Carmen, que han importado la cantidad de 95 ptas., por unanimidad se aprobó la compra y se acordó pagar la referida cuenta»[914]. 21 egun geroago, pertsona partikular batzuk beren produktuak salmentarako gertatzen zihartuten jaietan saldu ahal izateko; horretarako eskatu zuten baimenaren berri ere ageri da aktetan: «Dió cuenta el Sr.Alcalde de que el día 13 del actual mes le fue presentada por D. Germán Arrate una instancia, solicitando autorización para colocar mesas y sillas para servir el café y licores los días de las fiestas del Carmen debajo de la casa de Ayuntamiento; y por D.Benito Aguinaga el día 15 del mismo mes otra pidiendo permiso para instalar esos mismos días un puesto

[912] MUA, *Libro de actas...1890-1896*, 17, 20, 59, 62, 98, 124, 156, 183.orr...; *Libro de actas...1896-1905*, 21, 25, 95, 147, 211, 288, 323, 394, 498, 569, 571. orr...; *Libro de actas...1923-1927*, 116.orr...; "Asuntos tocantes" paper-sortan. (MKA, A-I-209).
[913] MUA, *Libro de actas...1916-1920*, 433-434.orr.
[914] Ibd., 437-438.orr.

de bebidas en el espacio correspondido entre la pared de rebote del frontón y el Paseo del Prado. Como no había lugar a esperar a la 1.ª sesión, concedió la autorización solicitada a los expresados señores. Por unanimidad se acordó aprobar lo hecho por el Sr. Alcalde»[915].

Urte hauetako jai erlijiosiei dagokienean, bi gertakera nabarmendu ahal dira: uztailaren 16ko Karmengo Amaren jaieguneko meza nagusia eta uztailaren 31n, San Inazio egunean egiten zen Karmengo Amaren elizbira. Urte hauetan, esaterako, 1907, 1914-1917, 1924-1925. urteetan eta abarretan, Karmengo komentuko Prioreak gonbidapen ofiziala egin zion Udalari elizkizunetara etorri eta meza nagusian zein elizbiran buru izateko[916].

Esaterako, 1907.ean, uztailaren 31ko Karmengo Amaren elizbiran buru izan zedin Udalari eginiko gonbidapenaren testua honako hau izan zen:

«Debiendo celebrarse el próximo miércoles la procesión de costumbre, tengo el honor de invitar a dicho acto V.S. y Ayuntamiento que tan dignamente preside. Empezará el santo rosario a las 4 de la tarde, a continuación será el sermón en bascuence y seguidamente se organizará la procesión. Recibiré placer especial en vernos presididos por una representación del M.I.Ayuntamiento.

Dios guarde a V.S. muchos años. Marquina, 28 de julio de 1907.

Fr. Celedonio de la Virgen del Carmen.

M.I.Sr.Alcalde de la Villa de Marquina»[917].

Udalak, gehienetan, oso-osoan joatea erabakitzen zuen eta pozik gainera, bai meza nagusira bai elizbirara. Gehiago oraindik; udalak berak enkargatu eta ordaintzen zuen Karmengo eguneko sermoia; hala irakur daiteke aktetan jaia baino askozaz lehenago 1913.eko otsailaren 2ko batzarraldian: «teniendo en cuenta el realce que les da la solemne función religiosa de los RR.PP. Carmelitas a las fiestas que se celebran con motivo de la festividad de Nuestra Señora del Carmen, acordó el Ayuntamiento por unanimidad, se destinen veinticinco pesetas para predicar el sermón en dicha función religiosa del referido día de Nuestra Señora del Carmen, asistiendo a ella en corporación»[918]. Eta Aita Jerónimo de SSma. Virgen Prioreak urte bereko uztailaren 4ean Karmengo eguneko elizkizunetarako gonbidapena egitean eskertu egin zion udalari hartutako erabakia[919].

1914. urtean bakarrik ageri zaigu ezadostasuna edo tirabira; antza denez, Markinako Korporazioaren sentiberatasun handiegiaren ondorioz; uztailaren 12ko batza-

[915] Ibd., 445-447.orr.

[916] MUA, *Libro de actas...1913-1916*, 211, 215, 392-393, 550-551, 555-556, 583-584.orr.; *Libro de actas...1916-1920*, 95, 207-208, 314.orr.; *Libro de actas...1923-1927*, 10-11, 233.orr.

[917] MUA, "Asuntos tocantes"...paper-sorta.

[918] MUA, *Libro de actas...1913-1916*, 12.orr.

[919] MUA, "Asuntos tocantes"...paper-sorta.

rraldian eztabaida bizia izan zen: Alcorta zinegotzi Jnak Udalari, azken urteetan egin zen bezala Karmengo eguneko Meza Nagusira Korporazio gisa joatea proposatu zion. Baina Udalburuak egintza horretarako Prioreak eginiko gonbidapena ez zela aurreko hiru urteetan bezala nahikoa aurretiaz egin uste zuen,... eta ondorioz ez zuela joan behar defendatu. Arazoa eztabaidatu ondoren botuetara jo zuten, hiru botu (Calzalis eta Pradera Jaunenak eta Udalburuarena) ez joatearen alde eta beste hiru (Alejandro eta Julián Duralde Jaunenak eta Alcortarena) alde izan zirela. Errepikatu egin zen bozketa, baina emaitza berdina atera zenez Udalburu Jnaren kalitatezko botuz uztailaren 16ko Meza Nagusira korporazio gisa ez joatea erabaki zen[920]. Antza denez, gonbidapena idatziz egin beharrean hitzez bakarrik egin zelako izan zen.

Aita Jeronimo de la SSma.Virgen Prioreak biharamunean, uztailaren 13an idatzizko gonbidapena egin zion Alkateari. Baina, Uztailaren 15ean Udalak «gonbidapena garaiz egina izan ez denez eta kontutan hartuz aurreko hiru urteetan hala egin izan dela» atsekabe handiz ez joatea erabaki zela erantzun zion[921].

e. **Beste xehetasun batzu.**

Bizitza arrunteko beharrizan ugarien artean ere, batzutan konfidantzaren ondorioz eta beste batzutan lege zibila betez, Karmengo Komunitateak sarri agertzen zizkion bere beharrizanak Udalari. Horrela, esaterako, 1879.ean, «janarien eta, orokorrean, kontsumo-gaien prezio-igokera zela bide, txirotasunean edota bere esku dituen adinean pozik eskainitako izpirituzko zerbitzuak jasoten dituzten eliztarren borondatezko laguntza hutsez bizi zen komunitate santu honen bizibiderako errentarik edo sarrera-iturririk ez zuelarik»..., Aita Pedro José de Jesús Prioreak udalari: «Komunitatearen erabilera arrunterako zein lanparetako eta meza sakrifizio santurako behar zuten olio eta beharrezko ardoa» zerga edo arielik gabe salbuetsia izatea eskatu zion[922].

Beste behin, 1885.eko maiatzaren 19ko erret dekretua betez, Casiano de Jesús Crucificado Prioreak, 1902.ean, medikuaren txostena edo ziurtagiria eskatu zion ordurako burua galdua zuen anaia Lazaro (Molinero Pérez) Bermeoko soroetxe probintzialean sartzeko[923]

4. **Apostolu-zerbitzua eta parrokiak (tirabira batzu)**

Historian zehar, Udalaren eta Karmengo komentuaren arteko harremanak onak ziren artean, Karmengo etxearen eta eliz kabildoen artean, behin eta berriro, une laburrekoak baldin baziren ere, gai berari buruz tirandurak eta liskarrak izan zirela ageri zaigu.

---

[920] MUA, *Libro de actas...1913-1916*, 211-215.or.
[921] MUA, "Asuntos tocantes"...paper-sorta.
[922] MUA, Erregistroa,29 (*Instancias 1761-1890*),1879-IV-16.
[923] MUA, Erregistroa,30 (*Instancias 1891-1905*),1902-I-15; MKA, A-I-207.

Bestalde, argi ikus daiteke gatazken iturria, ez zela apostolutza alorrekoa parrokiek arrazoiz defendatzen zituzten eskubideen defentsakoa baino. Arazoaren sakoneko muinean, apostolutza bera baino gehiago, alde bien interes ekonomikoak zeuden jokoan. Sarritan hori apostolutzaren kaltetan gertatu zela aitortu beharra dago.

a. 1871 (eta 1957).

Esaterako, 1871.ean, erlijioso guztientzat, beraz, baita ere, Markinako Karmeldarrentzat, hain zaila eta larria zen aldian, atzerrian eta erbestean urte luzeak egin ondoren ostera itzuli ziren Karmeldarrak, Karmengo komentua 1868.eko abuztuaren 14ean berreraikiz. Hilabete bi geroago, berriro kanporatuak izan ziren Madrileko gobernuaren aginduz. Baina 17 egun geroago berriro sartu ziren komentuan; eta 1871.ean Aita Karmeldarrak komentuan bizi ziren isilean eta arreta handiz, berriro kanporatuak izateko beldurrez. Garai honetan herritarrek maitasun handia erakusten zieten Karmeldarrei, hauek, nobize gazteak izanik, oso ongi gertatzen zituzten elizkizunetara joanez; horrek, bestalde, poza eta itxaropena sortzen zuen jendearengan.

Une honetan etorri zen Jemein-Markinako parrokia-elizako bikarioaren kexa: Karmengo elizan parrokiako ordu berberetan elizkizunak egiten zirelako eta «hartara (parrokira) jende gutxi zetorrela ikusten zuelako eta bertan erregulartasuna izan zedin, komentuan ordutegiaren aldaketa egin zezaten Udalaren laguntza eskatzen zuela». Udalak 1871.eko martxoaren 16ko batzarraldian ez zela bere eskuduntza «erlijiosoen elizkizun-orduak konpontzea, eta beraien artean konpontzerik ez bazuten, kasu honetan eskuduntza zuen Gasteizeko apezpikuarengana joteko» erantzun zion[924].

Antzerako zerbait gertatu zen 1957. urte inguruan ere, eta beste data batzutan. Arazo honek ez zuen zuzenean zerikusirik parrokiaren eskubideekin. Behin eta berriro errepikatu ziren kexa hauek Karmeldar ikasle gazteen inguruan liturgia-pastoraltza mugimendu berriak indartzean.

Esaterako, Elías Lasuen Jn. on eta estimatuak ordutegi aldaketa eskatzen zuen 1957.eko apirilaren 30ean[925]. Aita Pedro Maria Priorearen erantzuna erabatekoa izan zen: ukatu egin zuen horrek gaizpiderik sortzen zuenik: «Norbaitek, inolaz ere ez, jakina, zuk, inguruak nahastu nahi dituela uste dugu. Apezpikuaren aurrean ere 'Markinako gaizpidea' zela eta salaketa egin zutelako. Hemengoek diote, hain zuzen ere, esakune hori aurpegira jaurtikiz hartu zuela apezpiku Jnak nire aurreko izan zen Aita Fr.Sebastian, Markinatik heldutako salaketa bat argitzera apezpikutegira deitua izan zenean».

Egiatan, arazoaren benetako gakoa, Karmengo elizan eskaintzen ziren pastoraltza-liturgia zerbitzuek (ez bedi ahaztu karmeldar ikasle gazteek ematen zioten bizitasuna) geroago eta jende gehiago erakartzean eta parrokiara geroago eta gutxiago joatean zetzan[926].

---

[924] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*, (MKA, B-XI—10).
[925] MKA, B-XI-13.
[926] MKA, B-XI-13, 1957-V-4.

b. 1912.

Gorago aipatu eta iruzkindu ditugun 1721-1735. urteei zegozkien desakordioak errepikatu egin ziren 1912.ean, nahiz eta arazoa, XVIII. mendean bezala, auzitegietara eramana ez izan.

1912.eko otsailaren 24ean Ondarrun idatzi eta Karmengo Prioreari Jose Agustin Cenarruzabeitia Markinako artzapezak eta Lizentziatu Juan Cruz L. de Larrucea Lekeitioko artzapezak idatzitako gutunean oso salaketa gogorra egiten zuten, komentuko eliza parrokien aurkako guztien biltoki bilakatu zela leporatuz: «de la actitud de esa comunidad que, sin premeditarlo seguramente, se ha constituido en refugio de feligreses disidentes, fomentando el desafecto de estos a la Parroquia, y causando así el efecto material y moral perniciosísimo para la misma y aún para toda la comarca de Marquina y Lequeitio» Aita Prioreari betidaniko ohitura ez errespetatzea leporatuz, oraindik konponbidea ezartzeko garaia zela esaten zioten honako hau erantsitz: «aún es tiempo para que esa comunidad desista de amparar a gente infundadamente descontenta, que so pretesto de piedad persigue otros fines terrenos»[927].

Prioreak otsailaren 26ko gutunean zuribideak eman eta arazoa konpontzeko ahaleginak egin ondoren, artzapez biek berretsi egin zuten otsailaren 24ean eginiko beren protesta, otsailaren 29an «egintzak egintza dira» esanez[928]. Bi egun geroago berriro idatzi zien Prioreak baina artzepez biak ez ziren konforme geratu[929].

Hiru arazo zeuden eztabaidan: Karmengo elizan ondrak egin ziren parrokian hiletak edo proguak egin aurretik... Karmeldarrek ezin zuten halakorik egin XVII eta XVIII. mendeetan Karmeldarren eta Markinako Kabildoaren artean eginiko akordioaren ondorioz. Prioreak aitortu egin zuen errakuntza, baina, era berean, gorago arazo hau aztertzerakoan ikusi izan ditugun arrazoi berdinak oinarritzat hartuz, hiletarik egingo ez bazuten ere, askatasun osoa zutela eliztarrek hildakoen alde mezak eta ondrak eskaintzeko zein Karmeldarrek beraiek egiteko esanez[930].

Uztailaren 9ean akordio-bideak aurkeztu ziren Markinako Apaiz Parroku Jnaren eta Karmeldarren Aita Probintzialaren artean Markinako Karmengo elizan ondrak eta urtemezak egiteari zegokienean. Arazoari irtenbidea emateko urtebeteko etenaldia ezarri zen, beti ere eliztarrek, parrokiako betebeharrak bete ondoren, halakoak komentuan eskaintzeko eskubide osoa izango zutela:

«1. [La comunidad de los Carmelitas] no aceptará honras ni aniversarios de aquelas personas que con el Sr. Párroco hayan convenido en celebrar los funerales, honras y aniversarios por los difuntos de su familia según la costumbre antigua, es decir, comprometiéndose desde el principio a hacer los funerales, honras y aniver-

[927] MKA, B-XI-12.
[928] Ib d.
[929] Ibd., 1912-III-6ko gutuna.
[930] GPKA, Markina 4, Aita Valentin de la Asunción probintzialak Francisco de Hormaechea Markinako parroko abadeari 1912-IX-5ean eginiko gutuna.

sarios por una cantidad determinada en metálico o trigo, a no ser que quieran celebrar algunas honras o aniversarios de superrogación además de los que se hagan en la parroquia; o a no ser también que convengan nuevamente con el Sr. Parroco en confirmar los sufragios en otra forma.

2. Las personas que desean hacer los sufragios de su familia según el arancel diocesano, una vez que hayan concluido el funeral propiamente dicho, es decir, el primer oficio en la iglesia y el sepelio, habrán cumplido con los deberes parroquiales, y si quieren celebrar honras y aniversarios son libres de acerlo donde crean oportuno. Para facilitar cuanto se pueda el arreglo de la cuestión pendiente entre la comunidad del Carmen y el clero secular de Marquina, y evitar que personas extrañas al asunto vengan a torcer la voluntad de los que desean hacer sufragios, los Padres del convento, reconociendo que tienen derecho de hacer toda clase de sufragios que se celebran después del entierro, por amor a la paz y a la armonía se comprometen a no aceptar por espacio de un año ninguna honra ni aniversario de aquellas personas de Marquina que quieran por los difuntos de su familia ajustarse al arancel diocesano sin que primero hayan hecho honras o respectivamente aniversario en la parroquia.

Podrá sin embargo la Comunidad celebrar, aun durante este año, las honras y aniversarios de superrogación que los fieles deseen celebrar además de los oficios de la parroquia, como también los que quieran celebrar personas o sociedades extrañas a la familia.

3. Después de pasado el año, podrá la Comunidad hacer libremente las honras y aniversarios de los que sigan el arancel diocesano»[931].

Bost egun geroago Aita Valentin Probintzialak Karmengo Prioreari idatzi zion konponketa-oinarri hauei eta artzapezen jokaerari buruz berri emanez: Probintzialak Ondarruko artzapeza Karmeldarren aurkako joera zuela aurkitu zuen, baina, probintzialak hitz egiterakoan lasaitu eta konponketarako oinarriak aurkeztu zizkion, hau da, lehen egiten zen bezala, parrokuen nahieren arabera; biak ados egon ziren. Baina Markinako artzapeza ezbaian hasi zen eta berari ez ziola axola eta Lekeitioko artzapezarekin hitz egin behar zuela... Eta Jose Agustin Jnaren etxetik irten eta automobilera joatean Markinako parrokuak Probintzialari urtebetean barik bi urtetan lehen ondrarik ez egitea proposatu zion; Probintzialak Markinako komunitatearekin tratatuko zuela erantzun zion...; eta aholku hau eman zion Priorari: «Joka beza berorrek eskuzabaltasun eta zuhurtzia handiz eta aholka bitza Fraideak ez dezatela arazo honetaz sekularrekin hitz egin.

Zerbait ahaztu dut. Agustin jaunak, bere pentsamendua proposatzean, Markinako Apaiz Jnari, pulpitutik gauzak antzina bezala zeudela, hau da, arazoa sortu zenean bezala, bestelako azalpenik eman gabe iragar zezakeela esan zion. Ondorioz, Aita Agurgarriok Apaiz Jnak pulpitutik iragarri duela entzuten baduzue, ez eman garrantziarik.

---

[931] MKA, B-XI-12, 1912-VII-9ko data duena.

Zuk eskuzabaltasun handiz jokatuz Karmengo egunean Apaiz Jna. gonbidatzea nahi nuke»[932].

Antza denez, apaizek eztabaida honetan eskubidez sor zitzaien baino onura handiagoa atera nahi zuten; hori zela eta Aita Valentin Probintzialak, ongi arrazonatuta eta zalantzarik gabe, aurrerago tratatukoei segurtasuna emanez eta parrokuen eskari berriei uko eginez, gutun luze bat idatzi zion Francisco de Hormaechea Markinako parroku Jnari 1912.eko irailaren 5ean, argi eta garbi azaltzen zizkiola fraideek zituzten eskubideak eta horretaz zuzenbide kanonikoan zekartzanak, besterik beste, fraideak (bake bila uko egin arren) hiletak egiteko eskubidea ere bazutela gogoratuz: «A pesar del buen deseo que me anima de llegar a una concordia y evitar el mal ejemplo que se va dando a los fieles de esa comarca, me es sensible manifestar a V. que no puedo aceptar su fórmula, porque no está en mis atribuciones renunciar a un derecho que la comunidad lo mismo que cualquier rector de una iglesia tiene de hacer honras por los difuntos, después que la parte haya satisfecho al párroco los derechos de funeral o exequias. Las razones que a esto me mueven no se escaparán seguramente al claro entendimiento de V. si considera un poco los principios de derecho canónico que existen sobre esta materia y toma en su genuino sentido las cláusulas del compromiso aceptado por los Padres Carmelitas desde el principios de la fundación.

Yo acepto en toda su integridad y la comunidad de Marquina se compromete hoy lo mismo que el primer día a cumplir el compromiso de la fundación de no hacer ningún entierro por los fieles difuntos.

Pero advierta V. que el pacto habla sólo de entierros, y de esta cláusula no saca V. en buena consecuencia la doctrina que contiene las palabras de su fórmula: por consiguiente, si algún feligrés, después de celebrar el entierro en su parroquia trata de celebrar otro funeral en el convento (llámese como se piensa) deberá antes celebrar en su parroquia otro de idéntica clase al que desea hacer en el convento. Precisamente ahí es donde flaquea su consecuencia, como espero que comprenderá V. y desde luego habrá ya comprendido el ilustrado clero del Arciprestado de Marquina»... «Renunciaron los PP. al derecho de hacer entierros. Según el derecho canónico los fieles tienen derecho a elegir sepultura para después de su muerte en cualquiera, aún fuera de la parroquia, dado el caso que alguna la elija; el rector, párroco o Comunidad de la iglesia eligida puede lícitamente hacer entierro, pagando al párroco, a cuyo pago no están obligados los Carmelitas por privilegio concedido por la Santa Sede. Los Padres de Marquina cuando se comprometieron a no pretender derecho a entierros, renunciaron según mi entender al derecho que les asistía a hacer los entierros de los que elegían sepultura en nuestra iglesia.

De esta renuncia no se puede deducir lo que V. pretende, porque es inaudito en el derecho confundir los funerales o exequias con las honras y aniversarios»[933]. Eta jarraian uztailaren 9ko konponketako oinarriak berronesten zituen.

[932] MKA, B-XI-12, 1912-IX-14ko gutuna.
[933] GPKA, Markina 4.

5. Komentu-bizitza: gertaera batzu

Atal honetan, eguneroko otoitz, ikasketa eta apostolutza bizitzaz gainera, Markinako Karmengo komentuako bizitzan oihartzuna izan zuten Ordenako gertaera batzu nabarmen ditzakegu: esaterako, S. Teresaren beatifikazioaren hirugarren mendeurrena (1914); Markinan egin zen kapitulu probintziala (1915); Berreraikuntzaren 50. urtea (1918) eta bizitza eta hedapenaren ezaugarri gisa, Probintziaren bikoizketa (1927).

a. Misio-bultzada.

Alor hau aztertzen hasi aurretik egintza historiko garrantzitsu bat ekarri nahi dut gogora. Berreraikuntzari buruz aritzerakoan, Markinan hasiera izan zuen berreraikuntzak Espainian zein Amerikan zehar izan zuen hedapen lasterra aipatu dugu.

Oraingoan, 1877.ean, hedapen hori India-rantz egin zen; Nafarroako San Joakin probintziari misio etorkizun disdiratsua emango zion hasiera izan zen. Honela kontatzen zion Markinatik Aita Pedro Jose de Jesús María Bikario Probintzialak Candido Gaytan Villafranca-ko Kondeari: «Datorren udazkenean, komentu hauetatik gure Aita Jeneralak Fedearen Zabalkunderako Kongregazioak behin eta berriro eskatzen dituen hiru gazte misiolari joango dira Ekialdeko Indiako (Verapoli) misioetara»[934].

1878.ean atera ziren Indiarantz, hiru apaiz sagaratu berri:

- Buenaventura de S. Francisco (Aboitiz, Nabarnizen (Bizkaia) 1841.ean jaioa; Markinan egin zuen profesioa 1874-X-14ean).
- Eliseo María del Sagrado Corazón de Jesús (Cunnado, Presencio-n (Burgos) 1852.ean jaioa; Markinan egin zuen profesioa 1872-II-12an).
- Elías de S. José (Elorriaga, Mungian 1825.ean jaioa; Markinan egin zuen profesioa 1872-VIII-17an)[935].

Laugarren bat, Bernardo de Jesús, bost urte geroago, lagunkide beste 4 karmeldar zituela, joango zen.

«Ordutik aurrera Probintziak ez zuen misiolari berri taldeak bidaltze horretan utz egin. Gogoera ditzagun talderik handienak: 1901. ean, zazpi; 1907. ean, lau; 1908.ean, bost; 1909. ean, lau eta 1991. ean beste lau. Eta horrela, aurrerantzean ere: 1931.ean, 10 bidali zituela; 1936.ean, sei; 1947.ean beste sei eta 1949.ean 10. Misio ahalegin handi hau ia oso-osoan Nafarroako San Joakin Probintziak bakarrik egina izan da. Kontatzeko zeregin pozgarria izango litzateke gure erlijiosoek Indian ehun urte hauetan eginiko lanaren berri ematea. Baina bakarrik gizon batzuren heroitasun argitsua gogoratuko dugu. Hain zuzen ere, osozko eskaintzaren berezita-

[934] *Correspondencia...*, 636.zk., 1877-VI-6ko gutuna.
[935] MKA, A-VII-1: *Liber professionum...*

sunean eta benetakotasunean sortu ohi den heroitasuna, egiatan heroitasun luzea, apala, bizi-bizia eta eraginkorra izaten delako. Horrelakoak izan ziren gure misiolariak: Aita Bernardo de Jesús, Verápoly-ko artzapezpikua eta Aita Angel María de Santa Teresa, hau ere, Verápoly-ko artzapezpikua; Aita Buenaventura de San José, Vijayapuram-eko apezpikua; Aita Ambrosio de la Virgen del Carmen, Vijayapuram-eko apezpikua; Aita Damasceno de la Virgen del Carmen, misiolari lanetan, zuzenean eta etengabeki eginiko berrogeitamar urte luzeetan zehar 35 kapera eraiki, 40 misio zentro ireki eta 50.000 adineko baino gehiago bateatu eta bost mila umeri zerura joateko hegoak eman zizkiena; Aita Alfonso María de los Angeles, santutasun ospea zuela 1916.ean hil zena; Aita Fulgencio del Niño Jesús, santuen ospea eta egintzak eta mirarizko eskuharmenak zituela ebanjelioa zabaltzen aritu zena; Aita Juan Manuel del Corazón de Jesús, Kottayam-eko inguruetan ebanjelizatzailea izan zen; Aita Diego de Santa Teresa, Indian 61 urte egin ondoren Probintziko misiolari dekanoa; Aita Vicente de Jesús María, Indian zehar misiolari izanik ebanjelizatzen eta gainerakoei beraren idazkietatik eta ahotik irteten ziren esaldien bidez misio-garra piztu ziena. Eta izaera konparaezina zuten hiru pertsonaia handi Alwaye-ko San Jose Apaizgaitegian:Aita Juan Jose de Jesús, Probintziaren laguntzaz Apaizgaitegia eraiki eta bertako Errektore 32 urtetan zehar izan zena. Aita Aureliano del Santísimo Sacramento, bizitza osoan zehar, inoiz Probintziara etorri gabe, sorterriko kleroaren heziketa izpiritual eta intelektual lanetan aritu zena. Eta Aita Zacarias de Santa Teresa, hau ere, bizitza osoan zehar apaizgaien heziketa lanetan eta katolizismoaren zabalkunde zereginetan aritu zena»[936].

1890.ean Montevideo-ko apezpikuak ere Aita Karmeldarren fundazio bat nahi izan zuen bere elizbarrutian eta horretarako Markinako Karmeldarrengan jarri zituen begiak[937].

b. **Markinako Moja Karmeldarren fundazioa (1890).**

Aipatu berri baldin badugu euskal probintziak berreraikuntza ostean burututako misio-bultzada garrantzitzua, Markinako Karmeldarrek, S. Teresa de Jesús-en Ordenak bere-berea duen iharduera bati, hau da, moja karmeldarren izpirituzko gidaritzari ere ekingo zioten. Hori dela eta gertaera garrantzitsua izan zen jarraian laburkiro gogoratuko dudanaren arabera 1890.ean Markinan Moja Karmeldarren fundazioa egitea[938].

---

[936] Antonio UNZUETA, *Centenario de la Restauración de la Orden en España*, BOPSJN 5 (1968, 71.zk.) 567-568.

[937] GPKA, Markina 4, 1890-II-5eko gutuna.

[938] Markinako Moja Karmeldarren artxoboan (MLKA) aurkitzen diren agiriez gainera, A-II-1: *Recuerdos de la fundación de las MM.Carmelitas de Marquina* eskuskribua kontsulta daiteke; Aita Silverio de S.Teresa historiagileak ere argitaratu zuen fundazioari buruzko laburpen bat: HCD, XIII, 569-574.

aa. *Aurrekinak (testamentua eta lizentziak).*

Aita Pedro José de Jesús María, markinarra, Markinako Karmengo etxearen berreraikuntzan (1868) eskuhartu zutenen artekoa, Nafarroako S.Joakin (1882) euskal probintziako lehen probintziala eta geroago S. Elías de Castilla probintzia sortu berriko (1888) lehen probintziala izan zen; era berean Markinako Moja Karmeldarren fundazioari hasiera eman ziotenetarikoa ere bai; bera izan zen Epifania Argaiz y Munibe, Peñafloridako Kondesa Andere alargunaren bihotzean Markinan Moja Karmeldarren fundazioa egiteko gogoa erein zuena[939].

Epifania anderea 1889.eko martxoaren 23an hil zen 76 urte zituela. Andere honek 1886.eko martxoaren 23an eman zion testamentua, legezko formalitate batzu bete ondoren notariari eta bere asmoen nahierak betetzeko, Juan Carlos de Alzaa bere loba politikoa eta honen emazte eta bere loba zen Eloisa de Gortazar y Munibe jarri zituen[940].

Baina, 1884.eko martxoaren 8ko datako beste agiri bat zegoen, benetan beraren testamentua zena; bertan beraren ondasunak (beraren jauregi-egoitza, etc.) Santa Teresa de Jesus-en Moja Karmeldarren fundazioa egiteko (eta ez beste Ordena erlijioso batetarako) uzten zituen. Honakook ageri ziren betebeharren artean : a) beraren arimaren aldeko urteroko erreguak; b) elizan beraren gorpua jartzeko toki bat izatea[941].

Berehala hasi ziren fundazioa egiteko lanean: kondesa anderea hil ondoren, Juan Carlos de Alzaa eta beraren emazte Eloisa de Gortazar Jaun-andreek berehala bete nahi izan zuten izekoren testamentua eta Aita Pedro Jose, Gaztelako probintzialarekin harremanetan jarri ziren; eta urtarrilaren 27an lortua zuen Gasteizeko apezpikuaren baimena[942].

1890.eko otsailaren 17an, Juan Carlos de Alzaa eta beraren emaztearen eskari bereziz, Aita Tomas de Jesús y José, Itsasoz-bestaldeko Karmeldar Teresiar misiolarien Prokuradore Jeneralak, eskaria egin zion Angel de Pietro Nuntzioari Markinako fundazioa egiteko Avila-ko San José komentuko 6 moja karmeldarri irteteko baimena eman ziezaien. Nuntzioak, bere aldetik, horri buruzko berriak eskatu zizkion biharamunean Gasteizeko Elizbarrutiko Eliz Gobernadore eta Bikario kapitularrari; beste hainbeste eskatu zion martxoaren 17an Avilako elizbarrutiko erantzuleari[943].

Angel de Pietro, Nuntzio Jnak 1890.eko martxoaren 28an eman zuen baimena; eta Markinako fundazioa egingo zuten Avilako San Jose komentuko erlijiosoak izendatzen zituen: Luisa de S. Maria Magdalena, komentuburua; Angela del Corazón de Jesús y María, komentuburuordea; María Carmen de Jesús, Josefa de Jesús María, Carmen de S. Alberto eta Inés de S. Alberto[944]

---

[939] MLKA, A-II-1, *Recuerdos de la fundación...*, [2v].orr.
[940] MLKA, F-I-14, *Escritura de fundación*, 2-7.orr.
[941] Ibd., 7-10.orr.
[942] Ibd., 10-11.orr.
[943] MLKA, A-I-2
[944] MLKA, A-I-4. 6 aipatzen dira baina 5 izan ziren; Carmen de S.Alberto ageri da, baina, behar bada, errakuntza da.

bb. *Fundazioa.*

Beharrezko guztiak gertatu ondoren, 1890.eko ekainaren 9ko gaueko 11etan atera ziren Avila-ko S. José komentutik aipaturiko bost moja erlijiosoak (Carmen de S. Alberto ez da ageri bidaiarien artean), bidaialagun Aita Pedro Jose Gaztelako Probintziala eta Aita Jerónimo de la SS. Virgen, lehen definitore probintzial eta Avilako komentuko bikarioa zituztela.

Taldea ekainaren 11ko arratsaldeko ordu bietan heldu zen Markinara. Arratsaldeko 5etan abestu zen *Salve-a* Karmengo elizan jendetza handia bildu zelarik.

Ekainaren 14ea hautatu zen *San José* izenburua izango zuen fundazio berriaren ageriko irekiera ospetsua egiteko. Erritoa Julian Arrien artzapezak egin zuen Gasteizeko apezpikuaren izenean: goizeko 7etan hasi zen; parrokiako kleroak eta Karmengo erlijioso batzuk, mertzedarietako kaperauak eta agintari zibilek (José de Aguirre Sarasua alkateak eta Luciano de Alcorta udal epaileak) eta hainbat eliztarrek partehartu zuten.

Artzapezak «kleroa eta erlijiosoak alboan zituela bedeinkapen zeregina egin zuen. Bedeinkapena amaitu ondoren, talde osoa Karmengo elizara joan zen elizbiran eta eliza horretatik Sakramentu Santua eraman zuen, elizbiran, ospe handitan eliza berrira, bidean apaingarri ederrak eskegita ikusi zirela»... «Jarraian, aipaturiko Artzapezak lehen meza esan zuen; gero eskerrak emateko *Te Deum* abestu zen eta Sakramentu Santuaz bedeinkapena eman; gero, artzapez berberak hitzaldi sentikor eta egokia egin zuen Jainkoari eskerrak emanez eta eliztarrei, zerutik hiri osoaren gainera bedeinkapenak ekartzeko gau t'egun etengabeki beraien bihotzak eta eskuak jasoak zituztela ihardungo ziren arima laino haientzat eliza bat irekitzean Jainkoak Markinako hiriari egiten zion mesede handiagatik beste hainbeste egitera gonbidatuz; eskerrak eman zizkien agintariei sasoiz etortzeagatik eta baita gainerako etorleei eta Kondesa Andere Tx. Gorena zenaren eskuzabaltasuna eta pietatea gogoratu zituen. Hitz batez esanda, Artzapez Jnak bere hitzak egoerari hari-harian egokituz entzuleen artean negarrak sortzerainokoak egin zituen»[945]

cc. *Fundazio eskriturak: betebeharrak eta baldintzak.*

Epifania Argaiz y Munibe, Peñaflorida-ko kondesa anderearen dohaintzaren fideokomisiodun eta nahieraren beterazleak ziren Juan Carlos de Alzaa eta beronen emazte Eloisa de Gortazar Jaun-Andreek 1891.eko abuztuaren 5eko eskrituretan honako hau diote komunitate berriaren egoitzari dagokionean: «donan, ceden y transfieren por sí y sus sucesores por contrato irrevocable entre vivos a la reverenda comunidad de Carmelitas Descalzas de San Jose de Marquina para sí y sus derechos habientes legítimos y en representación de ellos a la reveranda Madre Luisa de Santa

[945] MLKA, A-I-3: *Acta de la nueva fundación...*

María Magdalena y Araquistain su Presidenta, la casa hoy número once y antes cinco del arrabal de abajo con todos sus pertenecidos, escepto las seis areas y treinta y nueve centiareas segregadas de la huerta y derechos»[946].

Komunitatearen betebehar orokorren artean jarraikook aipatzen dira: 1) Urtero, bi urtemuga ospatzea, kondesa anderaren arimaren alde nokturno, meza eta azken errespontsua abestuz. 2) Hilero, meza eta jaunartze bat eskaintzea. 3) Egunero, kondesa eta beraren familaren alde *De profundis* bat eskaintzea. Eta moja bakoitzak, bere aldetik: a) Astero, esandako helburuetarako, jaunartze bat eskaini, meza bat entzun, bi arrosario eta bi *Via Crucis* errezatzea. b) Egunero, Gogozko otoitzeko ordu erdi eskaintzea[947].

Eta azken aldian «baldintza deuseztagarri» bat dator; edozein gorabehera historiko dela bide, esaterako, Estatuaren aginduz Moja Karmeldarren komentuan elkarren arteko karmeldar bizitza debekatuko balitz, etab. berriro jabeen eskuetara joango ziren ondasunak: «desde ese momento se considerará y se tendrá por rescindido en todas sus partes este contrato de cesión y donación, y por nula y sin ningún valor ni efecto la transmisión de la finca que por este título se hace a su favor y como consecuencia de ello revertirá dicha finca en pleno dominio y posesión a favor de los señores Dn. Juan Carlos de Alzaa y Doña Eloisa de Gortazar y Munibe o sus derecho habientes designados»[948]. 1983.eko martxoaren 19an fundatzaileen oinordekoei Moja Karmeldarren komentua lehen jabeengana itzultzea agintzen zuen klausularen deuseztapena erregutu zitzaien[949]. Alvaro de Mendizabal Jnak 1983.ean eskritura publikoa egin zuen karmeldarren komentua bere eskutara etortzeko eskubideari uko eginez[950]

dd. *Eliza.*

Beharrezkoa zen eliza eraikitzea, baina diru gutxi zegoen. Kondesaren testamentu-betetzaileek 12.000 pta. eman zituzten laguntzeko. Eta hasiera eman zioten eraikitze lanei. Fundazio-testamentuan fondoak uzten ziren kondeen gorpuak duintasunez jasoko zaituen hobi edo kapera bat egiteko. Baina testamentu-betetzaileek ikusirik mojek ezin zutela eliza bukatu «hobia egiteko utzitako kopurua eliza bukatzeko erabiltzea erabaki zuten, alboko adar batetan oroitgarri txiki bat eginez, horrela eliza osoa Konde fundatzaileen panteoi gisa har daitekeelarik». Eliza berriaren irekiera 1896.eko Azaroaren 14ean egin zen[951].

Horrela, Peñafloridako kondeen gorpu-azternak 1897.eko ekainaren 7an aldatu ziren panteoian jartzeko.

---

[946] MLKA, *Escritura de la fundación...*, [31-32].orr. (F-I-14).
[947] Ibd., [37-39].orr.
[948] Ibd., [40].orr.
[949] MLKA, F-I-9, 10.11.
[950] MLKA, F-I-12.13.
[951] MLKA, A-II-1, *Recuerdos de fundación...*, [3v]. Eraiketari buruzko xehetasun gehiago MLKA-artxiboko hainbat agiritan aurki daitezke.

ee. *Ama fundatzailea.*

Avila-tik etorritako fundatzaileen artean aparteko aipamena merezi du batek: fundazioko nagusia, euskaldun bakarra, etorritakoen artean zaharrena izan eta beste guztiak baino luzaroagoan bizi izan zenak; Luisa de Santa Maria Magdalena dugu.

Getarian jaioa zen eta Luisa Joaquín Araquistain y Lamadrid zuen izena. Eta beraren familia Deban bizi baldin bazen ere, gazte zelarik egotaldiak egiten zituen Markinan; berton ezagutu zuen Aita Pedro Jose Markinako Karmengo komentuaren berreraikuntza egin berri zela eta arimako zuzendari izan zuen. Urte batzu geroago Moja Karmeldarren Avila-ko *S. José* etxean sartu zen. Hain zuzen ere, Aita Pedro Jose Gaztelako Probintzialak, beraren gobernu doaiak eta zuhurtzia ezagututa aukeratu zuen Markinako *S. Jose* komentuko nagusi izateko. 11 urtetan, hirurteko ezberdinetan, prioresa karguan izan zen. Erlijio-bizitzan 55 egin ondoren, 90 urte zituela hil zen 1925.eko otsailaren 11an[952].

c. S. Teresaren beatifikazioaren hirugarren mendeurrena (1914).

Santa Teresa 1614.eko apirilaren 24ean izan zen doatsu aitortua; eta 1914.ean Markinako Karmeldarrek handikiro gogoratu nahi izan zuten. Horrela, elizbarrutiko apezpikua buru zela ospatu zen mendeurren honetako abuztuaren 21-23ko hirurrunerako gonbidapen ofiziala egin zien Aita Jeronimo de la SSma. Virgen Prioreak alkateari eta Udalari, 23an, 16,30etan ospe handitan egiteko zen elizbiraren buruan izan zitezen. Gonbidapena abuztuaren 10ean egina izan zen[953].

Udalak 1914.eko abuztuaren 18ko batzarraldian aztertu zuen gonbidapena eta «aho batez gonbidatua izandako elizbirara korporazio gisa joatea erabaki zuen»[954]. Gertaera fraide eta herritarren atsegin handitan ospatu zen.

d. Kapitulu probintzialak Markinan.

Markinako Karmengo komentua Ordena Teresiarrak Penintsulan izandako mugimendu berreraikitzailearen iturburu eta gune izanik, garrantzi handia izan zuen, baita ere, Nafarroako San Joakin probintziaren berreraikuntzan eta eraketan: berreraikitako lehen komentua, lehen nobiziatua, teologia eta filosofiako lehen ikastetxea etb. izan zelako. Guzti horren ondorio izango ziren bertan 1882, 1894, 1915. urteetan burututako kapitulu probintzialak. Hain zuzen ere, 1879.ean Nafarroako S.Joakin probintziaren berreraikuntza egin ondoren, probintziako lehen kapitulua, bidezkoa

[952] MLKA, A-II-1, *Recuerdos de la fundación...*, [14-17].orr.
[953] MUA, "*Asuntos tocantes...*" paper-sorta.
[954] MUA, *Libro de actas... 1913-1916.*

zen bezala, Markinan egin zen 1882.eko apirilaren 28tik maiatzaren 3ra bitartean: 12 Aita Kapitular bildu ziren:.

Pedro José de Jesús María, *probintziala*.
Miguel de la SS.Trinidad, 1 definitore probintziala.
Tomás de Jesús María José, 2. definitore probintziala.
Gregorio de Santa Salomé, 3. definitore probintziala.
Bernardo de Jesús, 4. definitore probintziala.
Manuel del SSmo.Sacramento, Markinako priorea.
Pascual de Cristo, Desierto de las Palmas-eko priorea.
Jerónimo de la SS.Virgen, Larreako priorea.
Cirilo de Jesús María, Burgos-eko ordezkaria.
Juan de la SSma. Virgen, Markinako ordezkaria.
Paulo de Santa Teresa,Desierto de las Palmas-eko ordezkaria.
Gaspar de Jesús, Larreako ordezkaria.

Probintzial, Aita Pedro José de Jesús María markinarra hautatu zuten, bertaratutako 12etarik 11 botu lortu zituela. Eta Markinako teologia ikastetxeko Priore pronbintzialaren anaia zen Aita Tomás de Jesús María José, 12tik 7 botu jaso zituela[955].

1894.eko apirileko 13-19. egunetan zehar berriro bildu zen kapitulu probintziala Markinan: oraingoan 15 Aita kapitular izan ziren; probintzial Aita Paulo de S. Teresa aukeratu zuten 15etik 14 botu jaso zituela; eta Markinako Priore Aita Segundo de S.José 16tik 15 botu lortuz[956].

1936.eko anaien arteko gerra baino lehenago Markinan izandako hirugarren eta azken kapitulua, 1915.eko apirilaren 23a eta maiatzaren 4a bitartean izan zen. Kapitulu probintzial hau zehaztasun handiagoz deskribatuko dut nola garatzen ziren halako kapitulu probintzialak aditzera emateko[957].

Apirilaren 23a: lehen batzarraldia goizeko 9etan hasi zen; 27 Aita kapitular bildu ziren:

Gerardo del Sdo. Corazón de Jesús, Bikario probintziala.
Silverio de Sta. Teresa, 1. definitore probintziala.
Javier del Espíritu Santo, 2. definitore probintziala.
Damián de Jesús María José, 3. definitore probintziala.
Atanasio del S. Corazón de Jesús, 4. definitore probintziala.
Alberto de María y José, Iruñeko priorea.
Lorenzo de S. Joaquín, Burgo de Osma-ko priorea.
Ignacio de la Virgen del Carmen, Korella-ko priorea.

[955] GPKA, *Acta Capituli Provincialis*, I, 3-7v.
[956] Ibd., 30-36v.
[957] Ibd., 89-94v.

Leandro del SSmo.Sacramento, Burgos-eko priorea.
Jerónimo de la SSma. Virgen, Markinako priorea.
Casiano de Jesús Crucificado, Larreako priorea.
Tiburcio de S. José, Villafranca-ko priorea.
Celedonio de la Virgen del Carmen, Begoñako priorea.
Cornelio del Niño Jesús, Gasteizeko priorea.
Agustín del Sdo. Corazón de Jesús, Desiertoko priorea.
Ernesto de Jesús, Santiago de Chile-ko priorea.
José Joaquín de la Virgen del Carmen, Iruñeko ordezkaria.
Policarpo de Santa Bárbara, Burgo de Osma-ko ordezkaria.
Miguel de S. José, Korella-ko ordezkaria.
Victor de la Cruz, Burgos-eko ordezkaria.
Bernardino de la Visitación, Markinako ordezkaria.
Florencio del Sdo. Corazón de María, Larreako ordezkaria.
Antonio María de Jesús, Villafranca-ko ordezkaria.
Nicolás de Purís.Concep.de María, Begoñako ordezkaria.
Marcelo del Niño Jesús, Gasteizeko ordezkaria.
Domingo de S. Millán, Santo Desierto-ko ordezkaria.
Estanislao de S. Juan de la Cruz, Santiago de Chile-ko ordezkaria.

Izpiritu Santuaren laguntza «Veni Creator» goratzarrea abestuz eskatu ondoren eman zitzaion hasiera batzarraldiari. Aho batez Aita Joaquín de la Virgen del Carmen aukeratu zuten kapitulu barruko idazkari zereginetarako. Egiaztagutunak aurkeztu zituzten. Bikario probintzialak hitz beroak zuzendu zizkien kapitularrei barne bizitzari oso-osoan egokituriko arauak lortzen saiatzeko eta gazteak bide zuzenari jarraitzeko legeak gordetzen ardura handikoak izango ziren nagusiak hautatzeko erregu eginez.

Bigarren batzarraldia arratsaldeko hiruetan hasi zen. Agindutakoaren arabera Eliza eta Aita Santuaren dekretuak bete ziren.

24.eguna: Aita Probintziala aukeratzeari ekin zioten; kargu horretarako lehen bozketan Aita Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús, zornotzarra (1862), 42 urtetakoa hautatua izan zelarik; beronek garrantzi handia izango zuen euskal probintziaren historian eta baita ere, Jeneral hautatua izan ondoren, Ordenarenean. 27 botuetarik 26 botu jaso zituela hautatua izan zen. Une horretan Erromako Jeneralaren egoitzan aurkitzen zen.

25.eguna: kapitularrek probintzial hautatu berria Erromatik Markinara etor zedin zortzi egunetan itxarotea proposatu zuten; onartu egin zen proposamena 27 botutarik 25 alde zirela.

Maitzaren 1.a: Kapitularrek onetorria egin zioten Aita Ezekiel probintzial berriari eta elizara elizbira eginez joanik *Te Deum* abestu eta menpekotasuna eskaini zioten. Jarraian definitore probintzialak hautatu ziren:

- Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús, 1. def. prob., lehen bozketan, 28 boturik 25 aldeko zituela.

- Jerónimo de la SSma. Virgen, 2. def. prob., hirugarren bozketan 28tik 13 aldeko zituela.
- Victor de la Cruz, 3. def. prob., lehen bozketan 28tik 23 aldeko zituela.
- Marcelo del Niño Jesús, 4. def. probinb., hirugarren bozketan, 28tik 15 aldeko zituela.

Maiatzaren 2a: Kapitulu Generalerako ordezkariak eta abar hautatu ondoren, 11 komentu-prioretxeetako prioreak hautatu ziren: Markinarako Aita José Andrés de los Dolores izan zen 28 botutatik 20 aldeko izan zituela hautatua.

Maitzaren 3a: hiru epaile eta egiteko ziren fundazio berriak aukeratu eta prestatzeko beste bi kapitular hautatu ziren. Ohiturari jarraituz epaileek hauteskundeetan zuzenbide edo karitateren aurka ihardun izaterik izanez gero ageriko egin beharra ezarri zuten. Eta banan-banan hiru epaileen aurretik iragan ziren guztiak: buru egiten zuenak ez zuen zuzentzeko zer garrantzitsurik aurkitu.

Buru egiten zuenak, bakoitzari elkarren arteko bizitzaren hobakuntzarako gauza beharrezkorik edo egokirik edota gehiegikeriarik zuzendu beharrik ikusten zuen galdetu zion. Banan-banan guztiak entzun ondoren, ahalegin osoz kontenplazio-bizitza bultzatu eta hainbatetan egintza-bizitzari mugak ezarri beharra ikusi zuten. Mugak ezartzea definitorio probintzialaren esku utzi zen.

Aita Ezekiel Probintzialak, kapitularrei inork kapituluan hautatu berrien artean eragozpen kanonikoren bat zuen ezagutuz gero, 24 orduren barruan jakinerazteko agindua eman zien.

Jarraian kapitularrek aurreko kapitulu probintzialean hartutako erabakiak aztertzeari ekin zioten.

Gero Txileko erlijiosoentzako erabakiak irakurri ziren, orokorrean onartuak izan zirela, geroago definitorio probintzialak aldaketaren batzu egin eta, era berean, kapituluari aurkeztuak izan zitzaizkiolarik: Ernakulam-go (India) komentuaren egoera eta gobernatzeko era ere aztertu ziren. Kapitularrek, aho batez, arazo hau definitorio probintzialaren esku utzi zuten.

Komentuetako Ordezkariek Definitorioari nork bere komentuko aktibo eta pasiboen egoera aurkeztu zioten, Difinitorioak onartuak izan zirelarik.

Maiatzaren 4a: Kapitularrek belauniko sinesmenaren aitorpena egin zuten Aita Santu Pio IV.ak eta Pio IX.ak onartutako formula erabiliz eta, era berean, Aita Santu Pio X.ak *modernismoaren* aurka agindutako zina egin zuten.

Aita Probintzialak anaikiro aholkuak eman zien Probintziari zion maitasuna erakutsiz eta beronen egoera sasoitsua goratuz... era berean, gizakion egoeraren ondorio diren akats batzu gogora ekarri zituen, aita baten maitasunez, nagusi eta menpekoen artean onbidea lortzeko izan behar den ongi ulertze eta abarretara dei eginez.

Arratsaldean amaitu zen, bertaratutako guztiek kapitulu probintzialeko akta hauek izenpetuz: besterik beste, Aita Jeronimo de la SSma Virgen, Markinako aurreko priore eta orain 2. definitore probintzial zenak eta Aita Bernardino de la Visitación komunitatearen ordezkariak izenpetu zuten.

e. **Berreraikuntzaren 50. urtemuga (1918). Jai handiak.**

Urtemuga honek poztasunez, pertsonaia ospetsuz eta jendetza ugariz, liturgia eta kultura alorreko egintza handiz beteko zuen Markinako Karmengo komentua. Ospakizun hauek 1868.eko Markinako Karmengo berreraikuntza hark gerora izandako adiera zabalaren ikuspegi handiagoa sortuko zuen.

aa. *Prestaketa.*

Aita Damián de Jesús karmeldarrak 1918.eko maiatzean jakinerazi zion Candido Gaytan, berreraikuntzaren eragile izan zenaren izen berbera zeramala haren iloba zen Villafranca-ko Kondeari, Ordenak, Probintziako kapituluan horetarako batzorde bat eratu zuelarik, gertaera garrantzitsu hura egokiro ospatzeko gogoak zituela, bide batez, argitaratu nahi zen Album-erako aitonaren argazki bat eskatuz: «En el Capítulo Provincial, celebrado en nuestro convento de Vitoria, los RR.PP. Capitulares, secundando el proyecto presentado por el R.P. Provincial, acordaron con unanimidad celebrar solemnemente el 50 aniversario de la restauración de los Carmelitas Descalzos en España, y nombraron, al efecto, una comisión de Padres, que se encargaron de preparar y publicar oportunamente el programa religioso-literario que se realizará en nuestro convento de Marquina, por ser el primero restaurado»... «Y como su ilustre abuelo, de feliz memoria para nuestra Orden, sin perdonar fatigas ni desvelos, directa y personalmente, con perseverante entusiasmo, intervino eficazmente en las gestiones, la Comisión dicha desea publicar su retrato en el *Album*, y por mi conducto suplica a V. se sirva proporcionarle alguno que conserve de su distinguido predecesor, D. Cándido Gaytan de Ayala»[958].

Abuztuaren 11an jakinerezi zion Karmengo prioreak Markinako udalari Ordenako nagusiek 50 urtemuga ospatzeko zuten asmoa, «eta eskerronez eta poztasunez 1868.en urtean Hiriaren etorkizuna gidatzen zuen Udalak, Karmeldarren Ordenaren berreraikuntzaren alde eginiko kudeaketa eraginkorren bidez eskainitako laguntza eskergaitza gogora ekarriz, erregu egiten zion Korporazioari 15 eta 18. egunetan ospatzeko ziren Meza Pontifikalera eta azken eguneko elizbirara etor zedin eta, era berean, umeen eskolako lokaletan eginkizun publikoa ospatzeko, hostaiazko arkuak jartzeko eta bolanderak jaurtikitzeko baimena eskatuz. Udalak Karmeldarrak Hiri honetan ospatu nahi zituzten ekintzen garrantzia ikusiz eta horren ondorioz 18an Meza Pontifikala ospatuko zuen Elizbarrutiko Apezpiku Jn. Tx. Argiaren bisitaldi ohoretsua izango zutela kontutan harturik, aho batez aipaturiko elizkizun erlijiosoetara Korporazio talde gisa joatea eta 18an ospatzeko zirenetara Hiriko Bandera aldean eramanez egitea erabaki zuen, elizan aipaturiko elizkizunek irauten zuten egun guztietan Udalararentzat leku berezia jartzea eskatuz; era berean, baita ere, ahoz Alkate

[958] Lehenago Gaytan kondearen Bergarako Jauregiko artxiboan eta gaur egun Donostian; ik. MKA, A-I-228, 1918-V-17ko gutuna.

Jnari Udal Korporazioa egun batetan oturantza batetara Komentura joan zedin eginiko gonbidapena eskertzea eta bolanderak jaurtikitzeko eta arkuak jasoteko baimena ematea erabaki zituen»[959].

Hurrengo egunean, abuztuaren 12an, jaien bezperetan, Aita Damián karmeldarrak Villafranca-ko Kondeari Burgos-eko tipografian inprimatua izan zen jaietako egitaraua bidali zion gonbidapena eginez eta Aita Pronbintzialak jaietan ikusteko zuen gogo bizia azalduz «zuregan arrazoi osoz gure berreraikuntzaren aita dei dezakugunaren lan atsegingarria bizirik gogoratzeko»[960].

bb. *Jai handien kontaketa (Abuztuaren 15-19).*

Bezperan, 14ean, 1.000 erlijioso ordezkatuz Karmeldar Teresiarrek Espainian zituzten hiru Probintzietako eta beste bi Erdiprobintzietako (1868.ean izandako hasiera haren jarraiko 50 urteetan, Amerika, Siria eta Verapoly zein Ernakulam-ko (India) misio lurretan besoak zabalduak zituztela) etorle ordezkariei —zenbait apezpiku tarteko zirela— ongietorria eman zitzaien kanpai-hots alaitsuak eta bolandera-dantza zaratatsuak zeruetan zehar jolasean zihardutela; hainbat hormairudi apaingarri ageri ziren bazterretan... Arratsaldeko 7etan eman zitzaion hasiera urtemugari ospe handitan *Salve* abestuz.

Oraingoan bai nabari zela argi eta garbi, aurretiaz begibista handiz Aita Manuel de S. Teresa eta Aita Pedro José de Jesús María Berreraikuntzaren eragileek esandako hura: *Digitus Dei est hic...*

15.eguna:

Goizeko 7etan Jaunartze-meza Aita Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús Probintzialak eskainia. 10,30etan Meza pontifikala: Eliz taldea, txistulariak aurretik zituela eta Madrid-Alcalá-ko Apezpikua buru zuela... Sermoia euskaraz Aniceto Urrutia, Markinako parroku Jnak egina. Koruak, kide ospetsuez osotuta, bertan izan zirela Oses Jna, erret kaperako baritonoa, Luis Foruria Jna Madrileko erret antzokiko operako baxu ospetsua, Laborda Jna...; zuzentzaile Aita Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús, definitore probintzial eta Donostiko komentuko Priorea zuela, O. Ravanello-ren *«Misa in honorem S.Orestis»* meza entzungarria abestu zen. Eta arratsaldean elizkizuna, lauretan Mitterer, Beltjens, J.Busca, V. Goicoechea eta Aita Jose Domingo markinarraren musika-gaiak abestuz eta hitzaldia Aita Sebastián de Jesús María José, Gaztelako Probintzialak izan zuela.

---

[959] MUA, *Libro de actas...1916-1920*, 213-214.orr.
[960] MKA, A-I-233, jatorrizkoa Ik. 958.oharra.

16.eguna:

Goizeko 7etan Jaunartze-meza, Aita Saturnino de la Virgen del Carmen, Andalusiako Bikario Probintzialak eskainia. 10,30etan meza nagusia; koruak Goicoechea euskal musikari ospetsuaren *«Misa in honorem I. Conceptionis»* abestu zuen hiru ahotsetan; Sermoia, euskaraz, Berriatuko parrokuak.

Arratsaldeko seietan elizkizuna musika klasikazko gaiak abestuz: Palastrina, V. Goicoechea, J. Busca, Cicognani; eta hitzaldia Aita Antonio del Sagrado Corazón de Jesús, Balentziako Probintzialak[961].

17.eguna:

Aurreko egunetan bezala ospe handitan mezak goizeko 7etan eta 10,30etan eta arratsaldeko elizkizuna 5etan. Elizkizuna amaitzerakoan, Madrid-Alcalá eta Camagüey-ko apezpikuak, Karmeldar talde bat, Aita Ezekiel Nafarroako S.Joakin Probintzialeko Probintziala bertan zela eta herritar ugarik atzetik jarraitu zietela, Leopoldo Eijo y Garay, Gasteizeko Elizbarrutiko Apezpiku Jnari ongietorria egitera atera ziren. «Agurrak egin ondoren, taldeak parrokiako elizako bidea hartu zuen honako eran: parrokian ezarritako kofradien zutoihalak, beraietako hainbat pertsona atzetik zihoala. Jarraian parrokiako gurutzea kandela artean, klero erregularra eta sekularra, Apezpiku agurgarriak, agintari zibil eta militarrak eta musika banda. Gure komunitateak eta Elkarteek arku eder, artistiko bat eskaini zioten Apezpikuari hiriko sarreran eta udalak beste bat kalearen amaieran.

Bideko erakinak tapiz eta zintzilikariz apainduta zeuden eta parrokiako atarira heltzean, palio pean sartu zen bertara aipaturiko bi apezpiku bien artean. Parrokiako eliza bisitatu eta herriari bedeinkapena eman ondoren, etorri zen eran atera zen elizatik, jarraian eliz-taldeak Karmelo-rako bidea hartu zuela. Bertan erritualak seinalaturiko ospez onetorria eman ondoren, Komunitateak karmeldarren *Salve*-a abestu zuen, egintzari Jn.Tx.Argi eta Gorenaren bedeinkapenaz eman zitzaiolarik amaiera»[962].

18.eguna. Igandea:

Jai eta kultur egintza ikusgarrienen eguna izan zen. Karmeldarren eliza lehen orduetatik bete-bete egin zen. Goizeko zazpiretan, Jaunartze-meza, Camagüeyko apezpiku eta Cienfuegos-eko Aita Santuaren Administrari zen Valentin Zubizarreta karmeldarrak eskainia. Hainbeste jende bildu zenez, jaunartzea banatzen hiru ordu

[961] Ik. sermoia, BAS, 31/C.

[962] CASIMIRO DE LA VIRGEN DEL CARMEN, *Fiestas conmemorativas...*, Monte Carmelo 22 (1918) 442.orr.

laurden baino gehiago egin zuten, Aita Casimiro de la Virgen del Carmen karmeldarrak kontatzen duenaren arabera. Oso kontaketa interesgarria denez, luzea bada ere, hemen tokia egin nahi izan diogu:

«guardándose un orden y compostura nada común en casos de una aglomeración de gente tan grande como en el presente. A tan hermoso resultado contribuyeron las medidas tomadas por el Direcotr de las Asociaciones locales, R.P. Cecilio de la Virgen del Carmen, secundadas por la eficaz intervención de tan diestros organizadores como D. Carlos Cech, secretario de las Asociaciones carmelitanas de Bilbao y Don Rufino López que lo es de las de Vitoria. Mucho antes de las diez, hora para la que estaba anunciada la Misa de pontifical, la multitud llenaba por completo la iglesia. Momentos antes de la hora indicada llegó el Muy Ilustre Ayuntamiento en corporación, presidido por su dignísimo Alcalde Don Juan José de Mugartegui y precedido del Sr. Síndico D. José María Bernaola, que conducía el estandarte municipal. A la hora anunciada comenzó la Misa solemne, oficiando en ella de pontifical el Excmo. Sr. Obispo de Vitoria, asistiendo en el presbiterio los Excmos. Sres. Obispos de Madrid-Alcalá y el de Camagüey. Cantóse la misa *'Secunda Pontificalis'* de Perosi, y en el Ofertorio, el *'Ave María'* a cuatro voces, de Victoria. Los numerosos fieles que llenaban las amplias naves de la iglesia, quedaron maravillados de la insuperable y aquí nunca vista magnificencia que este día se desplegó en el altar y el coro. Tres ilustres Obispos en el presbiterio, y en el coro soberbio orfeón formado por tenores de la talla de Beobide, Iturriza, Garitaonaindia, Laborda, Larrinaga; bajos como Alberdi, Barrena, Foruria, Leiva, Osés y Urquiza y diez tiples escogidos de San Sebastián, Ondárroa y Elgoibar, mas valiosos elementos de Marquina y pueblos comarcanos y los mejores cantores de nuestra Provincia de Navarra. Son espectáculos que no pueden presenciarse todos los días. Calcúlese el efecto que produciría la grandiosa misa de Perosi interpretada por tanto maestro del divino arte y por un coro de voces tan escogidas. En cuanto al púlpito baste con nombrar a D. Francisco Abaitu, arcipreste de Munguía, hoy nombrado párroco de Durango, gloria de la oratoria vasca, por ser uno de los más castizos, elocuentes y apostólicos oradores vascos, para comprender que estuvo a la altura que las circunstancias exigían.

A medida que se acercaba la ora de la procesión, que debía poner digno remate a tan brillantes festejos, la villa se iba animando con la llegada de numerosos labriegos de los pueblos próximos, que materialmente se despoblaron con el fin de asitir a un acto que dejará memoria eterna en cuantos le presenciaron. La función comenzó a las cuatro, cantándose en ella escogidas composiciones de Haller, Goicoechea, Perosi y Otaño. El sermón, que estuvo a cargo de R.P. Ludovico de los Sagrados Corazones, fue una pieza oratoria de primer orden, que entusiasmó y conmovió hondamente al numerosísimo auditorio. Habló del espíritu de la Orden y de su misión providencial, y en párrafos de gallarda y soberana elocuencia cantó las excelencias y el poder de la oración y contemplación, que es el fin principal del Carmelo Teresiano, y ponderó con irrebatibles argumentos la necesidad creciente que la iglesia y la sociedad modernas tienen de almas contemplativas que hagan profesión de penitencia y oración, de donde dedujo por lógica consecuencia que la Orden eliana es hoy más necesaria y de más actualidad que nunca. Tal vez sea esta la explicación más racional de que

la Orden se haya extendido tan prodigiosamente en tan corto espacio de tiempo, no obstante los rigores de nuestra regla y la carencia casi absoluta de ciertos medios naturales de expansión y proselitismo en que otras Religiones abundan.

Terminado el sermón S.E. I. dió la bendición Papal al pueblo por concesión especial de Su Santidad y acto seguido se organizó la procesión, resultando una manifestación de fe católica y amor a los Carmelitas, grandiosa, colosal, como jamás pudo imaginarse. Formaron en ella las Asociaciones locales con sus estandartes, representaciones de las Cofradías de Amorebieta, Bilbao, Burgos, Oviedo, Pamplona, Santander, San Sebastián y Vitoria, llamando particularmente la atención la nutrida representación de jóvenes de la «Juventud del Carmelo y Praga» de Bilbao que iba al frente de las restantes con su precioso estandarte. Para dar más realce a la procesión las Comisiones mencionadas trajeron sus estandartes, que llamaron poderosamente la atención por su riqueza y gusto artístico. Formaban parte de la procesión dos largas filas de sacerdotes, en número de unos sesenta, a los que seguía la Comunidad, Superiores Provinciales y demás Padres de diversos conventos y Provincias en número de unos sesenta. Presidían la procesión los tres Prelados mencionados de Vitoria, Madrid y Camagüey, y el Ayuntamiento en pleno y cerraba la comitiva la banda de la villa que amenizó la procesión con las piezas más escogidas de su repertorio. De regreso en la iglesia se cantó solemnemente el *Te Deum* a cuatro voces de Perosi, terminando la función con una *'Despedida a la Santísima Virgen'* del P. José Domingo, carmelita descalzo.

Una hora después de terminada la función nos dirigimos al salón de las Escuelas municipales, cedido galantemente por el Ayuntamiento para que en él pudieran celebrarse la Velada organizada por la *Juventud del Carmelo de Begoña* de Bilbao. Los simpáticos jóvenes bilbainos representaron a las mil maravillas la graciosa zarzuela *Sorgin-Etxe* haciéndonos pasar un buen rato ameno y divertido. La velada comenzó con un saludo a Marquina por el Rdo. P. Director de la 'Semana Devota' de Bilbao. A continuación cantó el notable tenor Sr. Iturriza un precioso himno compuesto para este acto por el presbítero D. Resurrección M.ª Azkue. El R. P. Director de la Cofradía de Oviedo habló acerca del desarrollo de las Asociaciones Carmelitanas y sobre el carácter eminentemente popular de nuestra Orden. Las *Cofradías del Carmen y del Niño Jesús de Praga de Marquina* fue el tema que desarrolló en vascuence el R.P. Director de la 'Semana Devota' de esta villa siendo escuchado con vivo y marcado interés por cuantos entendían la lengua éuskara. El secretario de la 'Semana Devota' de Bilbao y Consiliario de la 'Juventud del Carmelo' disertó breve pero elocuentemente sobre los fines que persigue dicha Asociación que no es otro que el de apartar a los jóvenes de las peligrosas diversiones del mundo proporcionándoles honestos esparcimientos y al mismo tiempo confirmarles en la devoción que desde niños han profesado a la Virgen del Carmen y al Niño Jesús de Praga. El P.Teodoro de San José, que se había reservado la palabra para el fin de la velada, dirigió un breve discurso de despedida, en el que expuso la idea de erigir en la fachada de la Iglesia de Marquina una lápida conmemorativa de estas fiestas cincuentenarias, cuyo texto habrá de redactarse en vascuence, latín y castellano. En nombre de las Asociaciones de Begoña encabezó la suscripción con cien pesetas, haciendo un lla-

mamiento a todas nuestras Cofradías para que secunden y apoyen el proyecto. El Sr. Osés cantó un zortzico y un aire vasco, que fueron coreados por el público con aplausos. El discurso-resumen que fué de tonos altamente patrióticos y carmelitanos corrió a cargo del R.P. Provincial de Castilla, que con su verbo cálido levantó tempestades de aplausos, que le obligaron varias veces a interrumpir la peroración.

Día de gloria fué éste para Marquina, día de alegría y santo orgullo al verse honrado con la presencia de tres Príncipes de la Iglesia, de tantos ilustres Prelados de la Orden Carmelitana y de personas tan respetables. Para manifestar esta alegría levantó en las entradas de la villa, en el magnífico paseo del prado y en las calles principales caprichosos y artísticos arcos, los edificios hallábanse cubiertos con damascos, tapices y colgaduras, adornados con banderas, y por la noche no faltaron las luminarias. La banda municipal con sus pasodobles y conciertos, hizo agradable la estancia de los forasteros mientras que el continuo estampido de cohetes y bombas reales, templado por el frecuente volteo de las campanas, sostuvieron la alegría de la villa»[963]

19.eguna:

Egun honetan hildakoen meza pontifikala abestu zen berreraikitzaileen eta Ordenako onegileen alde: bereziki jarraian berriro aipatzen ditugunak: Villafranca-ko Konde zen Cándido Gaytan arrasatetarra eta Madrilen zuen laguntzaile José Nacarino Bravo Cadiz-tarra, Markinako Udala eta Peñafloridako Kondea eta Karmeldarren artean, Aita Manuel de S. Teresa lazkaotarra, Aita Domingo de S.José Garesekoa, Ordenako Jenerala izan zena eta Aita Pedro José de Jesús María markinarra. Meza pontifikala Valentin Zubizarreta apezpiku karmeldarrak eskainia izan zen koruak Vitoria-ren lau ahotsetako meza abestuz.

Presbiterioan Madrid-Alcalá-ko apezpikua zegoen eta presbiterio-aurrean, leku berezietan, aurreko egunetan bezala, Villafranca-ko Konde Jnaren familia eta Udala.

Arratsaldean, 6etan jaiei amaiera emateko literatura-musika saioaldi ikusgarri bat burutu zen jarraikook parteide izan zirelarik:

1. Sarrera: Aita Ricardo de S. José, pianoan: E. Granados-en *alegro*.
2. Wagner-en opera zatia (Lohengrin).
3. Aita Silverio: berreraikuntzari buruzko mintzaldia.
4. Aita Marcelo del Niño Jesús: Karmeldar Teresiarren egintza erlijioso eta sozialari buruz.
5. Wagner-en opera zatia (Parsifal), lau ahotsetara pianoa eta armoniuma joez.

[963] Ibd., 442-445.

6. Aita Claudio de Jesús Crucificado: gure ikastetxeetan bultzatu ohi den literatur garapenari buruzko hitzaldia.
7. Aita José Joaquín de la Virgen del Carmen: Karmeldarren berreraikuntzari buruzko olerkia.
8. Zorionbideak (Sarrera eta hiru ahotseko koruak): Cesar Franck.
9. Aita Casimiro de la Virgen del Carmen: karmeldar prentsari buruzko mintzaldia.
10. Aita Gerardo de S. Juan de la Cruz: karmeldarren mistika arimetan.
11. Aita Juan Vicente de Jesús María: karmeldar misioei buruzko iharduna.
12. Eta hitzaldi-laburpena, Aita Salvador de la Madre de Dios karmeldarrak egina.
13. Euskal kantak (Guridi)...

Agurtu aurretik, Aita Ezekiel Euskal Probintzialak apezpiku eta pertsonaia ospetsuenei Aita Silverio de S.Teresa karmeldarrak atera berri zuen *«Resumen histórico de la Restauración de los Carmelitas Descalzos en España, 1868-1918»* (Burgos 1918,290 orr.) liburua opatu zien.

Azken unean heldu zen Erromako Jeneral-etxeko telegrama: «Nagusi Jeneralek Berreraikuntza festekin bat egiten dute eta guztientzat goikoaren bedeinkapenak eskatzen dituzte».

50. urtemugako jai hauek bertan izan zirenen eritzitan oso ederrak eta arrakasta handikoak izan ziren[964].

cc. *Eskerrak udalari.*

Markinako udalaren 1918.eko irailaren 1ean egin zuen batzarraldian irakurri zen Euskal Karmeldarren Aita Probintzialak alkateari zuzenduriko gutuna, hots «bertan Ordenak beraren Berreraikuntzaren berrogeitamargarren epemuga zela eta eginiko oraintsuko jaietan zehar Markinako herri osoarengandik eta bereziki, garai haietan gure aurrekoekin hain eskuzabala eta lagun ona izan zen beste haren jarraitzaile duina den zure Udal Tx.Argigarri horrengandik hartutakoekatik eskerrak emanez eginikoa. Udalak atseginez entzun zuen gutunaren irakurketa; eta, aho batez, Lehen Alkateorde Jnak jaien aipamena eginez Akta berezi bat egin zezala, udal honek beraietan izando eskuharmena jasoz, etorkizunerako idatzita gera dadin eta harako aktaren kopia zigilatua Hiri honetako Karmeldar Oinutsen komentura bidal dadila erabaki zuen»[965].

---

[964] Ikus bedi Aita Casimiro fraidearen aipaturiko kronika, 438-448.orr.; ik., era berean, MKA, A-I-234: fundazioen egitaraua...

[965] MUA, *Libro de actas...1916-1920*, 216-218.orr.; (MKA, A-I-238).

dd. *Jai gomutagarria Bergaran.*

Abuztuaren 18an, Markinako jaiak amaitzeko zirela Aita Jerónimo de la SSma.Virgen karmeldarrak, Cándido Gaytan de Ayala y Areizaga, Villafranca de Gaytan-go Konde Jnak berreraikuntzan izandako eskuharmenari begirunea eginez, jai hauei koroapena emateko Bergaran, Rekalde jauregian egintza bat egitea proposatu zien bildutakoei. Eta proposamena oso ongi onartua izan zen. Urte eta hilabete bereko 26an Rekalde Jauregian bildu ziren Madrid-Alcala-ko Prudencio Melo y Alcalde eta Camagüey-ko (Kuba) Valentín Zubizarreta apezpikuak eta Nafarroako (Aita Ezekiel) zein Gaztelako (Aita Sebastián de Jesús María José) probintzialak, Aita Jerónimo de la SSma Virgen eta Aita Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús eta Villafranca-ko kondeak (Candidoren ilobak) eta beraien anai-arreba eta seme-alabak, eta Alejandro Gaytan de Ayala eta beraren emaztea Tola de Gaytan-go markesak eta Lariz-eko kondeak.

Jaiak kutsu erlijiosoa izan zuen; eta, horrela, hasiera jauregiko kaperan Valentin karmeldar apezpikuak berreraikuntzan protagonista izan zen Candido Jnaren alde *Misa de Requiem* eskainiz eman zitzaion... Era berean, hitzaldia egin zuen gaztelako Aita Probintzialak berreraikuntza enpresa goraipatuz,... Jarraian oturantza bat egin zuten 50. urtemugako ospakizunei amaiera emanez[966].

ee. *Villafranca-ko Kondearen mintzaldia.*

Markinako ospakizunetan ohorezko bisitaria eta Bergarakoaren anfitrioia, Cándido Gaytan Villafranca-ko Kondea izan zen; mintzaldi bat eskaini zuen berreraikuntzaren historia eginez eta Cándido Gaytan bere aitonak izandako eskuharmena gogoratuz. Mintzaldi horretan, bere familiak Karmeldarren Ordenan izandako eginkizuna aipatuz, bere aitonak Santander-eko apezpikuari eginiko gutun bat eskeini zuen.

Berreraikuntza historiaren eta Konde hark izandako eskuharmen garrantzitsuaren laburpen gisa testualki kopiatzen dut mintzaldi hori:

«Es grande, Excmos. e Illmos. Prelados, Venerable y amada Orden del Carmen, e ilustre Ayuntamiento, la satisfacción y el alto honor que experimento al recoger y agradecer con todo mi corazón en nombre de la familia Gaytan de Ayala el homenage que la Orden del Carmelo ha dedicado a mi queridísimo abuelo D. Cándido Gaytan de Ayala, conde Villafranca de Gaytan, por los trabajos que realizó durante más de 10 años por la restauración y consolidación de la Sagrada Orden del Carmen en España, pudiendo decirse con toda verdad que fue, por designios de la Providencia, el actor principal de esta grande y gloriosa empresa.

[966] José Luis Gaytan, Villafranca-ko kondearen kontaketa, 1919-I-11, jatorrizkoa kondeen artxiboan, ik. 958.oharra (MKA, A-I-240).

Y a la verdad, desde el año 1867 en que se hicieron las primeras gestiones, sin éxito, para la fundación de Lazcano hasta su muerte ocurrida en 25 de noviembre de 1885[1882], puede decirse que toda su actividad la consagró a la restauración, propagación y exaltación de su amada Orden en nuestra querida Patria; y fue tanta su intervecnión que lo mismo en los asuntos graves de la Orden como en los más menudos era consultado y escuchado; y consideraba como cosa tan propia todo lo que se relacionaba con la Orden que cuando hablaba de los PP.Carmelitas, y en especial de los de Marquina les llamaba 'mis frailes'. Las máximas y doctrinas de nuestra Santa Madre Teresa de Jesús y las de nuestro venerable San Juan de la Cruz las tenía siembpre en su corazón y en sus labios, y una de las últimas palabras que pronunció poco antes de morir fueron éstas:'¡Cómo estará mi cabeza que no me acordé ayer de que era el día de Nuestro Padre San Juan de la Cruz!'.

Bendito convento de Marquina, objeto principal de sus desvelos, que ha sido la cuna de la restauración carmelitana y escuela de tantos varones ilustres en virtud y letras que distribuídos por esta privilegiada patria de Santa Teresa y Juan de la Cruz y por los países de Ultramar, fundaron numerosas y fervientes comunidades, honra y prez de la Orden Carmeltana.

Entre las 790 cartas relativas a asuntos carmelitanos que se conservan en nuestro archivo de Vergara, hay una que por la relación que hace el homenageado de la restauración de este convento de Marquina y el espíritu que la informa merece, a mi juicio, ser leida en este acto»... «Pues bien: todos los trabajos realizados por nuestros antepasados en favor de nuestra amadísima Orden del Carmen desde los llevados a cabo, por encargo expreso de nuestro gran rey Felipe II, por Don Antonio Gaytan, tío hermano del 1er Conde de Villafranca hasta los de restauración realizados por mi queridísimo abuelo y los que podamos nosotros realizar siguiendo sus ejemplos, todos te los ofrecemos hoy a tí, SSma. Virgen del Carmen y a tu amadísima Orden para que el Señor se apiade de nosotros y nos dé fuerzas para que sirviéndole cada vez más y mejor cumpliendo la voluntad de Dios vinculada en su Iglesia Jerárquica, salvemos nuestras almas; porque 'al fin de la jornada el que se salva sabe y el que no, no sabe nada'.

Padres ilustres y venerables que os congregáis aquí, llevad a las respectivas provincias de vuestra jurisdicción el afectuoso saludo del último de los hijos del Carmen, y la súplica de que se acuerden nosotros en sus oraciones»[967].

f. **Probintziaren zatiketa (1925-1927).**

Markinako mugak zeharo gainditu zituen arren, bertako Karmengo komentuan eragina izan zuen beste gertaera garrantzitsuetariko bat, Nafarroako S. Joakin Probintziaren zatiketa (1925-1927) izan zen.

---

[967] Jatorrizkoa kondeen artxiboan, ik. 958.oharra (MKA, A-I-235); ik., era berean, *Correspondencia...*, 345.zk..

Hemen, Markinako Karmeldarren historia egiten ari garenez, oso laburkiro aipatuko ditugu zatiketa horren nondik norako egintzak..., nahiz eta ez aurkitu agiri asko Markinako Karmengo artxiboan[968], oso ugari dugu Karmeldarren Gasteizeko artxibo probintzialean[969].

Eztabaida eta zatiketa horren barne-muinean, kultura, politika, hizkuntza..., ezberdintasunek areagotutako ideiak eta sentimenduak ikus daitezke.

aa. *Zatiketa: 1925-1927.*

— *1924:* Jadanik urte horretan zatiketa-hotsak indartsu entzuten ziren; bi taldetan, beraiek erabilitakoaren arabera, gaztelarren eta nafar-euskaldunen artean egin nahi zen zatiketa. 1924.eko apirilaren 10eko Definititorio Jeneralaren dekretuaren arabera, sei Aita Karmeldarrek osotutako batzordea eratu zen: Nafarroako S. Joakin Probintziako definitorio probintzialeko bost (Aita Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús probintziala eta Aita Marcelo del Niño Jesús, Aita Juan Vicente de Jesús María, Aita Silverio de Santa Teresa eta Aita Rainaldo María de S. Justo definitoreak) eta Casimiro de la Virgen del Carmen, Burgos-eko Priorea partaide zituela. Apirilaren 19an bildu ziren Gasteizen; eta 20an bidali zioten beren ebazpena Erromako Definitorio Jeneralari: Aita Probintzialak, zatiketa horren aurka zegoela adierazi zuen, kaltegarri gertatuko zelako. Gero nola egin zatiketa aztertu zuten: Nafarroako S. Joakin Probintzia, euskal lau probintzia zibilak barru zituela geratu zen eta Gaztelako Probintzia berriak Burgos, Soria, Logronio, Santander eta Oviedo probintzia zibilak barnehartuko zituen. Verapoly-ko misioa euskaldunentzat izango zen. Ameriketako misioak bi aldetan banatuko ziren: euskaldunentzat, Uruguay, Brasil eta Txile; gaz-

[968] MKA, B-V-4; C-IX-2; eta inprimakiok: C-III-3.4; C-IX-1; C-X-15...

[969] Eskuskribu zein inprimaki eran agiri ugari (*Memoriales...*), agiri ofizialeak zein pribatuak, etab. B, 3,4 eta 5. kaxetan aurkitzen dira. Baita ere, aipa ditzakegun inprimaturiko idazki laburretan egoerari buruzko ikerlan eta eskuskribuzko oharrak.

Nafarroako S.Joakin probintziaren batasunaren aldekoenak:

— *Venerabili Definitorio Generali O.C.D., Romae. Status Provinciae Carmelitarum Excalceatorum St. Joachim Navarrae anno 1706 erectae et 1879 restauratae*, [Vitoria 1925), 10 orr.

— *Expositio 105 Patrum Vocalium Venerabili Definitorio Generali super proposita divisione Provinciae Sti.Joachim Navarrae*, Vitoria 1925, 8 orr.

— *Memoriale super proposita divisione Provinciae Sti.Joachim Navarrae*, Vitoria 1925, 14 orr.

— *Expositio P. Provincialis Carmelitarum Excalceatorum St. Joachim Navarrae (in Hispania) super dismembratione suae Provinciae*, Roma 1925, 7 orr.

— *Epistola ad Ven.Definitorium Generale super divisione Provinciae S.Joachim Navarrae*, Vitoria 1925, 29 orr.

Zatiketaren aldekoek, "gaztelauek" ere inprimatu zituzten zenbait idazki:

— *Memoriale circa divisione Provinciae S.Joachim Navarrae in Hispania*, [Burgos 1925], 21 orr.

— *Expositio. Ad Reverendissimos ac Venerabiles Patres Gremiales Capituli Generalis proxime celebrandi Romae, mense maii 1925, a religiosis castellanis in Hispanie filiali devotione exhibita*, [Burgos 1925], 27 orr.

— *Memoriale circa divisionem Provinciae S. Joachim Navarrae*, [Roma 1925] 24 orr.

telarrentzat, Peru, Kolombia eta Ekuador etab. Lehen saialdia izan zen. Geroago talde bakoitzak aurkeztu zituen txosten, azalpen ezberdinetan beste zatiketa-saio ezberdin batzu agertuko dira.

1924.eko maiatzaren 9-16. egunen bitartean burututako kapitulu probintzialean, Probiantziaren zatiketari buruzko berri puztu eta gezurrezkoak uxatu nahirik Aita Lucas de María Santísima Jeneralak, hautaketak erlijio ikuspegiz eta gogoak berotu gabe egiteko erregutuz eginiko gutun bat irakurri zen[970]. Pronbintzial Aita Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús hautatu zuten.

— Probintziako gehiengoa zatiketaren aurkakoa zen. Aita Ezekielek proposamen interesgarri bat egin zuen: zatiketak eragozpen larriak sortuko zituenez «Gaztelako probintzia indartzera joan zitezela jaiotez herrialde hartakoak ziren erlijiosoak edota Probintzia hartakoak izatea nahiago zutenak, edozein kasutan Probintzia horren esku utziz Burgos eta Osma-ko komentuak»[971].

Baina hau ez zuten bat ere gogoko izan gaztelatar «separatistek».

Nafarroako S.Joakin Probintziak ez zuen benetako «arrazoirik» ikusten zatiketarako. Konstituzioetan, halako kasuetarako oinarritzat, lurraldea zabalegia izatearen ondorioz, Nafarroako S.Joakin Probintzialaren kasu honetan gobernatu ezin bihurtzea aipatu zen, kasuan ez zelarik betetzen. Baina, beste arrazoi bat ateratzen zen, hain zuzen, herrialde-izpirituaren sentimenduak higitzen zituena: kultura, hizkuntza eta abarren ezberdintasuna; hau ere ez zen benetako arrazoia, Euskal Herriko lau probintzietako karmeldarren artean ere euskara gutxiengoen hizkuntza (heren batena) zelako.

S. Joakin probintzia zatitzekotan ere, ez zen gorago seinalatutakoa (hau da, S. Joakin probintziarentzat sei komentu 1.095.000 biztanle bizi ziren 17.682 km^2.tan; eta gaztelarrentzat 8 komentu 1.750.000 biztanle bizi ziren 45.674 km^2.tan) onartzen; jarraiko beste banaketa hau: euskaldunentzat, lau euskal probintziak, Santander eta Errioxa (28.000 km^2 eta 1.568.000 biztanle) eta gaztelarrentzat Burgos, Soria eta Oviedo (35.353 km^2 eta 1.232.000 biztanle) baino.

Definitorio Jeneralak bi taldeek egoerari buruz eginiko txosten eta azalpenak jaso zituen.

1925.ean Erroman Karmeldar Teresiarren Kapitulu Jenerala egin zenean, onartua izan zen Nafarroako S.Joakin Pronbitziaren zatiketa 59 botuetarik 51 alde (8 aurka) izan zituela.

Baina zatiketari buruzko azken erabakia Kongregazio Santuak zuen, arazoaren gorabehera guztiak aztertzen hasi zelarik.

Bien bitartean talde bakoitza Aita Santuak Espainian zuen Nuntzioaren gogoa, zenbait txosten eta azalpen eginez, bereganatzen saiatu zen. Txosten hauetariko ba-

[970] GPKA, *Acta Capituli Provincialis*, I, 113v-114r.
[971] GPKA, B, 4.kaxa, Aita Probintzialak Nuntzioari 1925-XI-9an eginiko gutuna.

tetan, euskaldunak zatiketaren aurka eta baita ere zatiketa egiteko eraren aurka agertzen ziren. Aita Sergio de S. Teresa, Nafarroako S.Joakin probintziako definitore probintziala Madrilera joan zen arazoa Nuntzioarekin tratatzera; 1925.eko azaroaren 3an elkarrizketatu ziren; Nuntzioak Aita Ezekieli zion begirunea agertu eta lasai egoteko esan ziola:.

«me recibió muy amable: me preguntó con mucho interés por V.R.; y al exponerle yo el objeto de mi visita y explicarle cómo se encontraba nuestro asunto, cuando le dije que nos parecía que había llegado a noticias del Rey, me contestó incontinenti: sí, es verdad, El Rey está enterado; pero diga al P. Ezequiel que no se preocupe, que la Sagrada Congregación no dará un paso sin pensarlo muy bien, después de consultárselo; que la exposición de V.R. *le hace honor* —palabras textuales— y que hemos procedido con tino que conviene»[972].

Bi egun geroago, azaroaren 5ean, Grove-ko Kondearekin elkarrizkatu zen, euskaldunengan zuen mesfidantza handia erakutsi ziola: «Se ve que la memoria de V.R. le es muy grata, y esto me ha valido para insinuarme mejor. Respecto a la cuestión estaba completamente desorientado y aún mal informado, a lo que parece: estaba persuadido de que éramos nosotros los que queríamos la división, y, aun cuando yo le he asegurado que por nuestra parte no sólo no la buscamos, sino que la lamentamos, le costaba hacerse a esa idea. El ha aducido el argumento de que Santander económicamente es necesario a la Provincia en ciernes, y que nosotros, los vasco-navarros, tenemos los conventos en situación económica mucho más floreciente. Yo he procurado desvirtuar la inexactitud de este argumento. Después me ha expuesto las muchísimas quejas que tiene el Rey, con tono un poco duro, emitiendo conceptos bastantes regalistas, como el decir que la Iglesia en su dirección y gobierno más que católica es romana; que no se concibe que una Congregación española por su origen esté supeditada a la dirección de un superior italiano»... «Me preguntó en qué estado se hallaba la cuestión; yo le dije que en la Sagrada Congregación, que era la que tenía que resolver, que los Superiores Mayores habían emitido su voto, sin que a nosotros nos constase su contenido, que él, desde luego, quiso averiguar»... «Mi impresión, ya se lo he dicho, es que está muy prevenido contra nosotros. Algo se refirió a que algún Obispo podría influir en las decisiones de la Congregación, pero no sé en qué sentido lo dijo, si en favor nuestro o de ellos. Veremos ahora qué impresión les hace la lectura de nuestro escrito. No tienen más que una obsesión: el nacionalismo; lo demás no lo consideran para nada... Ya le digo que no atendía a razones, ni casi me dejaba exponer el asunto, obsesionado con su idea...»[973]. Argi ikusten denez, Madrileko gobernariei batez ere Euskal Herriko fraideen ikuspegi politikoek sortzen zieten ardura eta inolaz ere ez Ordena barruko tirabirek.

1925.eko abenduaren 30ean jakinerazi zion Erlijiosoen Kongregazio Santuak Karmeldar Teresiarren Aita Jeneralari zehazkiro aztertuko zituela Nafarroako S.Joakin Probintziaren zatiketari buruzko proposamenak[974].

---

[972] GPKA, B, 4.kutx., Aita Sergio-k Aita Ezekiel probintzialari 1925-XI-3an eginiko gutuna.
[973] Ibd., 1925-XI-5.
[974] GPKA, B, 4.kutx.; (MKA, C-IX-2).

— *Itxarobidea eta ebazpena, 1927.* Aita Santuaren bisitari apostoliko zen Pasetto Monsignore eta Federico Tedeschini, Nuntzioa, alde jartzeko ahalegin hauetan oso sakona zen Vatikanoko isiltasuna, ebazpena 1927.eko abuztuan etorri zelarik. Salomon gizon ospetsuak emandakoaren araberako erabakia izan zela esan dezakegu: atsegina eman zitzaien gaztelarrei geldiezina zirudien zatiketa onartu eta Burgos-eko S. Juan de La Cruz probintzia berria sortuz..., baina zatiketa egiteari zegokionean euskaldunen proposamena onartzen zen.

Erromako agiriak 1927.eko abuztuaren 19ko data du eta Laurent Kardinalak sinatuta dago. Honako erabakiok jasotzen ditu:

1. S. Juan de la Cruz deituko zen Burgos-eko probintzia berriak Burgo de Osma (Soria), Burgos, Oviedo, Brasil eta Uruguay-ko komentuak barruhartuko ditu.
2. Beraientzat izango da Burgos-eko inprimategia.
3. Laguntza gisa ama-probintziaren eskutik 50.000 pezeta jasoko ditu.
4. Eraiketa honekin ama-probintziarekin izan dituen edota izan ditzakeen betebehar guztiak mozten dira.
5. Probintzia berrira joan ahal izango dute jaiotez eusko-nafar probintziakoak ez diren erlijioso, nobize eta erlijiosogaiek.
6. Erlijiosoei debekatu egiten zaie beren pertsonen erabilerako ez den gauzarik eramatea.
7. Sermoigintza eta postulazioa probintziako mugen barruan egingo dute. Kalagurriko eta Logronioko komentuen mugak probintzia bietako definitorioek zehaztuko dituzte.
8. Definitorio Jeneralak nagusi berriak izendatu arte, Aita Marcelo del Niño Jesús izango da probintzia barriko buru eta Burgos-eko Priore; eta aholkulari, Aita Eliseo de S. José eta Eduardo de Santa Teresa, etab.
9. Probintzia berriak erlijiosogaitegia, nobiziatua eta ikastetxea izango ditu.
10. Zatiketa hau burutu ondoren Nafarroa S.Joakin Probintziak kapitulu probintziala egingo du banaketa-dekretuaren ondoko 40 egunen barruan.
11. Kapitulu horretako ordezkari, horretarako hautatuak izan daitezen erlijioso eusko-nafarrak izango dira[975].

Zatiketa agindu eta burutu eta S. Juan de la Cruz probintzia eraiki ondoren, egun batzu geroago Nafarroako S.Joakin Probintziako kontseilua bildu zen Pasetto Monsignore bisitari apostolikoak, Burgos-eko S. Juan de la Cruz probintziako nagusi berriaren eskariz eginiko proposamena aztertzeko: eskari horren bidez Burgos-eko

[975] MKA, B-V-4; C-IX-2.

inprimategirako typograph ereduko makina berri bat eskuratu eta erosi nahi zelarik, dirulaguntza eskatzen zen..

Euskal Definitorioak ez zuela horretarako inolazko betebeharrik erantzun zion; hala ere, zatiketa bakez amaitzeko eta probintzia berriko Aita Marcelok eta beraren bi aholkulariek gehiago ez zutela beste ezer eskatuko adierazten zuen agiri bat izenpetzen bazuten beste 12.500 pezeta emango ziela erantzun zion honako honen bidez: «que por ningún motivo ni cláusula ninguna del Decreto de la S. Congregación que sancionó la dismembración de la Provincia de Navarra y el modo de llevarla a cabo, se cree obligada esta Provincia de Navarra a tomar sobre sí esa carga ni ninguna otra; puesto que a la nueva Provincia se le ha concedido ya una remuneración suficiente y más que proporcional, con la cesión de la propiedad de la Imprenta con las dos Revistas, liquidación de deudas de los conventos y la ayuda de 50.000 ptas que ha sobrepasado el cálculo económico establecido sobre los bienes de la Provincia.

Ahora bien, atendiendo lo expuesto por el Revmo. Visitador Apostólico, Mons. Pasetto, y buscando la conciliación y la paz, dentro del espíritu de caridad que debe reinar entre hermanos de una misma Religión, la Provincia de S. Joaquín de Navarra imponiéndose un sacrificio, y no pequeño, hace entrega a Mons. Pasetto de un título del interior 4 del Estado de 12.500 pesetas nominales, a condición de que recabe un compromiso formal y explícito, suscrito por el R.P. Marcelo y sus dos Consejeros, de dar por terminada con la presente toda discusión o diferencia sobre la entrega de la Imprenta con sus bienes y sobre la cantidad a entregar esta Provincia a la nueva Burgense fijada ya por la S.Congregación de Religiosos en 50.000 pesetas»[976].

bb. *Beste zatiketa ahalegin ustel batzu (1931-1943, 1975).*

— *1931-1943.*

Burgos-eko gaztelarren probintzia ez zen guztiz konforme geratu eta Errioxa eta Santander-ko komentuak, batez ere azken hau, nahi izan zituen eta bereganatzeko ahaleginetan jarraitu zuen.

— *1931-1937:* Ustekabea 1931.eko Kapitulu Jeneralean sortu zen. Nafarroako S.Joakin Probintziako ordezkari ziren Aita Redento del Niño Jesús, Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús eta Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús, Burgos-eko probintziak esku artean zuenaz, hots, Santander eta abarretako komentuak eskatzeko zuen asmoaz oharteraziak izan ziren. Aita Jeneralak arazoa ebatzita zegoela erantzun zuen; baina, burgostarrek, buru Aita Bonifacio Definitore Jenerala izango zuen bederatzi kidez osoturiko batzorde bat antolatzea lortu zuten. Batzordeburu horrek bertako batzordekideen aurrean burgostarrek Santander-eko komentua bakarrik nahi zutela eta euskaldunen aldetik ez zegoela konponbide horretarako eragozpenik eta

[976] GPKA, B, 4.kutx., agiria [1927, abuztu-irala].

berak Aita Ezekieli Basamortu Santua salbatuz gero ez zitzaiola Santanderko komentua axola entzun ziola... esan zuen; eta batzordeak sinetsi egin zion. Eta akta idatzi zen. Kapitulu Jeneralari Santander Burgos-i uztea proposatu ondoren onartua izan zen. Aita Bernardino-k, faltsukeriaz, nahi zuena lortu zuen. Gertaera hauen idazleak honela jarraitzen du: «Italiara itzultzean izan nuen Batzordean gertatuaren berri bertan partehartu zuen baten bidez. Erromara heltzean gertatuari buruz Pasetto Monsignoreari aurretiaz berri ematera joan nintzen. Harritu egin zen Kapituluan Aulki Santuak erabakitako arazo bat eztabaidatu zela jakitean. Baina, bere lehen esaera honako hau izan zen: 'Capari (Arraioa!) banuen susmorik. Aita Silverio eta Aita Marcelo-ri zatiketa dekretua irakurtzerakoan zera esan zuten: onartzen dugu dekretua baino ez dugu amore emango Santander eskuratu arte'. Honako arrazoi handi hau izan zen komentu hura eskatzeko Kapituluan erabili zutena; etxe hori gabe ezin izango zuela, inolaz ere, probintzia berriak bururik aurrera aterako»[977].

Interesik handiena zutenak: Aita Toribio de la Virgen del Carmen Santander-eko prioreak eta bertako komunitateak, 8 sinadura zituela, Probintziaren zatiketa arasoan Bisitari Apostoliko izan zen Lucas Hermenegildo Pasetto Jnari eta Erlijiosoen Kongregazio Santuari idatzi zioten burutu berri zen Kapitulu Jeneralean gertatuaren aurka protesta eginez eta Santander-eko komentua Gaztelako probintziara aldatze saialdiaren aurka agertuz[978].

Gaztelarren asmoak, Kapitulu Jeneralaren akordioa zutela, Erlijiosoen Kongregazio Santura aurkeztu ziren; baina honek ez zuen erantzuten.

Venetzia-ko 1937.eko Kapitulu Jenerala heldu zen. Eta berriro egin zitzaion galdera Kongregazio Santuari; eta erantzuna ezezkoa izan zen. Horrela jakinerazi zitzaion, era berean, Aita Ezekieli. Kapitulu Jeneralak ezagututzat jo zuen erantzuna eta ez zen bertan berriro hitz egin zatiketari buruz. Hala ere, urteetan zehar jo eta ke aritu ziren, azpijokoz beste bide batzu erabiliz, beren asmoak lortu nahiean. Gertaera hauen lekuko eta idazle denak honako hau diosku: «Fracasadas las tentativas de los burgaleses para obtener sus aspiraciones por la vía legal, recurrieron a otros medios. El primero consistió en hacer lo posible por adelantarse ellos en penetrar en Santander [en la guerra civil]. Pero el P. Augusto iba siguiendo las herraduras de los caballos de Franco y entró en Santander con los mismos militares. Fracasada esta tentativa, trataron de conseguir que los militares pusiesen en entredicho el patriotismo de los religiosos de la Provincia que habían ocupado el convento de Santander. Al efecto el P. Marcelo escribió una larga carta al Gobernador militar Sochaga, atribuyendo al P. Augusto todo cuanto se sabía del P.J. Martín... Otro tanto se atribuía al P. Doroteo, que acompañaba al P.Augusto. Resultado de ello fue que el P. Doroteo tuviese que salir de Santander. Lo referente al P. Augusto pudo deshacerlo personalmente el P. Sergio, como amigo del Sr.Solchaga»...

«Escribieron un folleto y lo presentaron a las autoridades militares. Yo no he visto el folleto. Pero no cabe duda de que existió. El R.P. Redento, prior de Pamplona

[977] Ibd., *Algunas notas sobre la división de la provincia.*
[978] GPKA, B, 5.kutx..

lo vió y también tuvo comunicación del mismo el R.P. Sergio, provincial, a quien informó del mismo el Sr. Obispo de Vitoria. Las cosas que en él se referían, debían de ser algo grave, sobre todo lo que cargaban contra N.P. Ezequiel; tanto que hicieron exclamar al Sr. Obispo de Pamplona: Ubinam gentium sumus? ¿No tienen Uds. en la Orden Superiores que repriman y castiguen estas cosas? Los militares, según referencias, contestaron proponiendo la nueva fusión de las dos provincias, haciendo desaparecer a la de Navarra. Pero esto no podía satisfacer a los castellanos. El intento, pues, de conseguir por este medio Santander, fracasó también.

En Roma, según parece, se fraguó otro, menos ilegal. Abandonando los caminos ordinarios de la Congregación de Religiosos, se recurrió al Sr. Nuncio de Su Santidad en Madrid. Llamado a informar el M.R.P. Redento del Niño Jesús, quedó desbaratado también este procedimiento. El R.P. Redento podrá informar a V.R. de lo contenido en la exposición de los burgaleses, o de N.P. Silverio; yo ignoro su contenido. Pero no estaría de más dejar algunos datos fidedignos de todas estas andanzas»[979].

— Aita Silverio de Santa Teresa-ren jokaera (1938).

Azken aldi honetan Mauro Elizondo Aita Beneditarrak argitara eman berri ditu Nafarroako S. Joakin Probintziako zatiketaren arazo honi aipamen egiten dioten hiru agiri[980].

Lehena, garai hartan Espainiako gobernu militarraren kanpo Arazoetarako idazkariorde Burgosen zen Eugenio Espinosa de los Monteros jeneral militarrarena da: 1938.eko martxoaren 14ean Aulki Santuaren aurrean Burgos-eko Gobernuaren enbaxadore zen Aycinena markesari idatzi zion; Santander eta Logronioko komentuak Burgos-ko karmeldar probintzira aldatzea nahi zuen karmeldar baten gomendioa egiten zion; eta laguntza eskatzen zion asmo horiek burutzeko...

Bigarren agiria, enbaxadoreak Erromatik 1938.eko martxoaren 22an Eugenio Jnari emandako erantzuna da. Aurretik ere erantzun zion martxoaren 17an: Karmeldar Ordenako probintzien antzinako mugetara berriro itzultzea komeni dela diotso «izpiritu separatistak oso garapen negargarria lortua dueneko Euskal Herrialdeko Komentuak behar den bezala kontrolatzeko baliabide gisa».

Baina hirugarren agiria dugu interesgarriena: Aita Silverio de Santa Teresa burgostarrak Espainia Nazionalak Aulki Santuan zuen Enbaxadoreari 1938.eko apirilaren 20ean bidalitako txosten bat da. Helburu nagusia, 'Altzamendu nazionaleko' agintari militar eta zibilengandik, Logronio eta Santander-eko komentuak San Juan de la Cruz Burgos-eko Pronbintziaren atal izan zitezen laguntza lortzea izan zen. Agiria, bederatzi orrietako txosten luzearen ondoren, bi foliotan eskari bat (*'Una Súplica respetuosa'*) eginez bukatzen du.

---

[979] GPKA, B, 4.kutx., *Algunas notas sobre la división de la Provincia.*

[980] *Documentos político-religiosos de la guerra civil. S.Juan de la Cruz de Burgos y S.Joaquín de Navarra,* Scriptorium Victoriense 37 (1990) 425-437.

Txostenaren lehen zazpi orrialdeak, militarrei egiten den Eskariaren bidezkotasuna argitzeko dira. Horretarako Aita Silverio de Santa Teresa Definitore Jeneralak su eta ke ekiten dio Euskal Klero osoaren, erregularrraren zein sekularrraren aurka, direnak eta ez direnak esaten beraien separatismoa dela eta Gobernu nazionalak neurriak hartu behar dituela gogoratuz. Karmeldar euskaldunak, erarik txarrenean, inolazko errukirik gabe tratatzen ditu.

Lehen azalpen gogorraren ondoren, 'separatistak' burugogorrak eta onbideratu ezinak direneko kexak agertzen ditu *'Sin rectificación de conducta'* gainidazkia erabiliz. Eta jarraian konpontzeko hartu beharreko neurriak eskaintzen *'Enseñanzas y remedios'* gainidazki pean[981].

— *Euskal Probintziaren kontraekintza.*

Cayetano Cicognani Aulki Santuak Espainian zuen Nuntzioak Burgos-eko gaztelarrak, Kongregazio Santura Santander eta Kalagurriko komentuak emateko eskatuz eginiko eskariaren berri jakinerazten zion Probintzialari[982].

Gaztelarrek zuten lehia eta euskaldunen egoera sozio-politiko larria eta zaila gogoan hartuz, Redento del Niño Jesús Probintzialak 1943.eko ekainaren 27an zortzi orrialdetako txosten bat bidali zion Cayetano Cicognani Jnari, Kalagurri eta Santander-eko komentuak Nafarroako S.Joakin Probintziako izaten jarraitzeko zeuden arrazoiak ematen zitzaizkiola[983]. Berdin esanez idatzi zion 1943.eko uztailaren 5ean Aita Pedro de la Virgen del Carmen Ordenako Jeneralari[984]. Zatiketa egiteko saialdi guzti hauek ez zuten irtenbiderik izan.

Arazoaren muinean giza-politika eta kultura alorreko zioak zeuden. Geroago ere izan da karmeldarren Nafarroako S.Joakin probintzia, inolazko ondoriorik babe, zatitzeko bestelako saioaldirik[985].

---

[981] M. ELIZONDO, *Documentos político-religiosos*..., 428-429.
[982] GPKA, B, 5.kutx., 1943-V-18ko gutuna.
[983] GPKA, B, 5.kutx..
[984] Ibd.
[985] Ik.: GPKA, B, 3.kutx.

F. GERRA ZIBILA ETA BERAREN ONDORIOAK (1934-1941). MARKINAKO KOMENTUA: ERREPRESIOA ETA BIZIMODUA TEOLOGIAKO IKASTETXEA ZELARIK

1. Egoera sozio-politikoa eta erlijiosoa orokorrean: 2.errepublika (1931-1936)[987].

a. Eliza: datu estatistikoak.

2. Errepublikaren hasierari buruz (1931-IV-14) nahikoa datu estatistiko eskaini ditzakegu: estatuak 23 milioi inguru biztanle izanik, elizgizonak 111.092 inguru ziren: 34.176 apaiz eta 14.035 apaizgai diozesiar; 12.903 gizonezko erlijioso eta 47.943 emakumezko erlijioso. Zehazkiago begiratuta, 7.094 Km^2.ko luze-zabalera (elizbarruti guztien artean hogeitamargarrena) eta 545.182 biztanle (elizbarrutien artean hamaikagarrena) zituen Gasteizeko elizbarrutiak 2.145 apaiz (elizbarruti guztien artean kopururik handiena) eta 5.123 erlijioso (hauek ere ugarienak) eta 750 apaizgai diozesiar (oraingoan ere kopururik handiena) zituen.

b. Errepublikaren eta beraren antiklerikalismoaren hasieratik Eusko Jaurlaritza eratu arte (1931-1936).

1931.eko apirilaren 12ko udal hauteskundeetan, errepublikazaleek irabazi zuten, batez ere hiri handietan. Egiatan errepublikazaleek (errepublikarrek, sozialistek eta komunistek) 39.248 zinegotzi lortu zituzten eta erregezaleek 41.22; Bilbon eta Donostian errepublikazaleek irabazi zuten. Hala ere, botere monarkikoa indarrik gabe sentitzen zen eta boterea errepublikazaleen esku utzi zuen. Eibar izan zen Errepublika aldarrikatu zuen lehen hiria. Apirilaren 14ean hasi zen bigarren errepublika.

Ezin dugu ahaztu errepublikazale batzuk bultzatu zuten apaizen eta erlijioaren aurkako giroa. Berau, giza gidarien zein intelektualen antiklerikalismoa herriarengana heldu zenean, adierazpen amorratu eta eraginkor bilakatu zen.

---

[987] Oso ugaria da Espania osoari zein Euskal Herriari dagokion bibliografia orokorra eta partikularra; ikuspegi orokorraren ikerlan laburra hauetan aurki daiteke: V. CARCEL ORTI: *La Iglesia durante la II República y la guerra civil (1931-1939)*, in: *Historia de la Iglesia de España*, 5.t. Madrid 1979, 331-394 (BAC maior,20). Ik., era berean,: S.J. GUTIERREZ ALVAREZ, *La cuestión eclesiástica vasca entre 1931-1936. Aspectos políticos y religiosos del nacionalismo vasco y su repercusión en la alianza con el Frente Popular*, León 1971.

Mugika Gasteizeko apezpikuak udal hauteskundeetan hautagai errepublikar eta sozilistei boturik ez ematea gomendatu zuen... eta, berehala, maiatzaren 17an kanporatua izan zen eta erbestean bizi behar izan zuen. Segura, Toledo-ko Kardinale artzapezpikua ere, Espainiatik kanpora bidalia izan zen; maiatzaren 11n atera zen Toledotik. Aulki Santuak sortutako botereei begirunea eta menpekotasuna gomendatu zituen, ordenua eta guztien ontasuna mantentzeko.

Maiatzaren 11n hainbat hiritan, Madrid, Valentzia, Alikante, Sevilla, Malaga, Kadiz eta abarretan ehun eraikin erlijioso zakuratuak edota sua emanak izan ziren, hiru egunetan zehar. Eta Gobernuak ez zuen nahi izan edo ahal izan kontrolatu. Gertaera hauek markatuko zituzten Gobernuaren eta Elizaren arteko harremanak jarraiko zortzi urtetan zehar..

1932.eko urtarrilean kendu zuten Jesusen Lagundia eta beraren ondasunak estatuak hartu. Otsailaren 6an protesta biziak izan ziren eskoletatik gurutzeak kentzea zela eta. Elizaren kontraekintza gogorra izan zen: apezpikuek, bat eginik, gutun gogor bat argitaratu zuten maiatzaren 25ean; Pio XI.enak ekainaren 2an *Dilectissima nobis* enziklika argitaratu zuen eta Goma, Toledoko artzapezkiku berriak *Horas graves* bere gutun ospetsu eta gogorra argitaratu zuen ekainaren 12an; Espainia bizitzen ari zen egoera larria salatzen zuen; eta Elizaren aurka hartutako neurri bereizgarri, bidegabe eta gogorrak gaitzesten zituen.

Eskuinak irabazi zuen, egiatan, 1933.eko apirilaren 25eko udal hauteskundeetan eta oso garbi egin zuen, baita ere, urte bereko azaroko hauteskunde orokorretan, horrela, biurteko moderatu bati bidea eginez. Aurkako sozialistek benetako iraultza egin nahi izan zuten, arrakasta 1934.ean Asturias-etan bakarrik izan zutelarik. Hemen oso gertakari larriak izan ziren: Elizaren aurka antolatutako benetako erasoaldia: 58 eliza desegin zituzten eta 34 apaizek galdu zuten bizia. 1936.ean gertatuko zenaren aurreabisua izan zen. A. Lerrous, Gobernu buruak ez zuen nahi iraultzarik ezta indarkeriarik, errepublika jasanbera, aurrerakoi eta erreformatzailea baino.

Frente popularrak irabazi zuen 1936.eko otsailaren 16ko hauteskundeetan (Euskal Herrian, eskuinekoek 155.500 botu izan zituzten eta frente popularrak 169.000 eta nazionalistek 151.000). Eta Manuel Azañak gobernua osatu zuen 1936.eko otsailaren 19an. Jarraiko hilabeteetan gertaera kaotikoak izan ziren: 199 biltoki politiko, publiko zein pribatu, eta abar zakuratu zituzten, beraien artean 36 eliza; eta beste 172 erre, hauen artean 102 eliza. Horretaz gainera, 11 greba orokor, 169 mutin etab. gertatu ziren, 76 hildako eta ehundaka zauritu eginez. M.Azaña, Errepublikako Presidenteak gehiegikeria hauek «kaltegarri eta tontakeriatzat» jo zituen. Izugarria eta ankerra izan zen erlijioaren aurkako erasoaldia. Zer esanik ez, Euskal Herriko egoera ezberdina izan zen.

1936.eko uztailaren 18an hasi zen militarren altxamendua eta gerra zibila. Eusko Alderdi Jeltzailea Errepublikaren legezkotasunaren alde atera zen. Gobernuak 1936.eko urriaren 1ean onartu zuen Euskal Estatutua eta 7an hautatu zuten Lehendakari Jose Antonio Aguirre y Lecue.

2. Markinako karmengo etxea eta gerrateko lehen hilabeteak (1936-1937).

a. Gerra hasierako komunitatea.

1936.eko uztailean gerra zibila hasi zenean Markinako Komunitatean ageri honako erlijioso hauek ageri zaizkigu:

Aita Martin del Purísimo Corazón de María, priorea,
Aita Pío de Santa Teresa prioreordea eta profesio eginberrien irakaslea,
Aita Policarpo de Santa Bárbara,
Aita Jacinto de la Santísima Virgen,
Aita Cecilio de la Santísima Virgen del Carmen,
Aita Higinio de San José,
Aita José Mateo del Sagrado Corazón de Jesús,
Aita Bautista de San José,
Aita José Ignacio de Jesús,
Anaia Pedro Luis de San José,
Anaia José Francisco del Niño Jesús,
Anaia Juan José de Jesús Crucificado[988].

Baina bertan aurkitzen ziren beste 15 erlijioso ikasle profesio eginberri eta beste bi fraidegai ere: guztira, beraz, 30 ziren.

Eusko Gobernuaren buru Jose Antonio Aguirre jeltzailea eta beraren alderdia zeudelarik, geldierazi egin ziren Euskal Herrian hondamena eta heriotzea ekarriz Espainiako gainerako tokietan nabari ziren erlijioaren aurkako erasoaldiak.

Lehen hiru hilabeteetan, Markinako karmeldarrek bizimodu arrunta egin zuten baina komentua galtzeko beldurra aldendu gabe; hori zela eta, hilabete horiek zenbait gauza ezkutatzeko erabili zituzten; zeregin horretan saiatu zen merezimendu handiz Anaia Jose Frantzizko.

b. Sakabanaketa[989].

Zituzten beldurrak egia bilakatu ziren. Irailearen 22an agindu zorrotz bat betez hutsitu egin behar izan zuten komentua intendentziako biltegi izateko. Herriko sozialistek, Markinako eraikin hoberenak tropentzat uzteko agintzen zuen Bizkaiko Gobernadorearen agindu bat zutela aurkeztu ziren komentuan. Ondorioz erlijiosoek komentua utzi behar izan zuten. Aita Pio eta Kandido (hau Txiletik etorri eta aldi baterako zegoen Markinan) Txaraka baserrian ostatu ziren; Aita Higinio eta Aita

[988] MKA, A-H-1a, *Libro de cróncias*, 3.orr.
[989] Ibd., 4.orr.; H-I-8: *Crónica del convento de Marquina, 1936...*, 2v; eta GPKA, Markina 3.ean bildutako lekukoen kondaketak.

Jazinto, Berrizkoak, beren etxeetara joan ziren. Zezilio eta Urbano-k, Olabe baserrian izan zuten babesa; Aita Bautistak Bermeoko bere etxean.

15 ikasleei zegokienean, beraien etxera joateko aukera zutenak familietan babestu ziren; eta gainerakoak, burruka-mugak eragotzitakoak, Aingeru-Guardako baserrietan zehar sakabanatuak izan eta geroago Munitibar eta Amorotokoetan. Gazte hauek, beren egotaldia nolabait ordaintzeko baserriko zereginetan laguntzen zuten.

Komentua erlebu-koartel egin zuten; tropak C.N.T.koak ziren. Erlijiosoek eskatuta, une hartan herrian agintzen zuen komiteak itxi eta zigilatu egin zituzten eliza, sakristia, korua eta biblioteka, errespetatuak izan zirela[990].

Anaia Pedro Luis eta Anaia Jose Frantzizkok komentuaren inguruetan jarraitu zuten eta beraien zerbitzuei esker baliozko hainbat gauza salbatu ziren; eta, era berean, komentuak eta elizak hondamen handirik ez izatea lortu zuten.

Aita karmeldar batzu, esaterako, Zezilio eta Urbanok apaiz zereginetan ihardun zuten baselizetan, esaterako, Ibarrako S.Jazintorenean, bertara sakramentuak hartzera eliztar ugari joaten zela. Amorebietatik etorritako Aita Apolinar Markinako Moja Karmeldarren kaperau izan zen, bere ministeritza ageriko kultua izaten zen haien elizan burutzen zuela.

Kronistek Olabe familiak izan zuen eskuzabaltasuna edo Karmeldarrei izandako estima handia azpimarratzen ditu, ez baitzuten ostatu-saritzat ezer hartu nahi izan.

1936.eko azaroaren 28an irakurri zen erlijiosoen etxeak, elizak eta abar errespetatzeko eskatzen zuen Euskadiko Gobernu Zibilaren agindua:

«Don Santiago de Meabe Bilbao y Don Francisco de Iturrioz Iztueta, Delegado y Secretario respectivamente del sector de Markina: HACEN SABER: Que después de las alegaciones que verbalmente nos formulan y el comunicado que nos envía la Autoridad Eclesiástica de la villa de Markina y de las Anteiglesias de Xemein y San Andrés de Etxebarria, considerando el espíritu laico que en materia religiosa es norma liberal de la República Española, el sentimiento católico de esta zona euskaldun y el carácter respetuoso con todas las religiones que distingue al Gobierno Vasco integrado por elementos del partido Nacionalista Vasco y del Frente Popular, no tenemos inconveniente alguno en decretar se abran al culto público todas las Iglesias Parroquiales y las Capillas conventuales, y que se pongan a disposición de sus respectivos hortelanos y cuidadores, las huertas y jardines que pertenecen a los sacerdotes y comunidades religiosas para su mejor ordenación y producción, siempre bajo el amparo y vigilancia de los subordinados de esta Delegación de Plaza.

En vista el Delegado de Plaza de este sector de Guerra... ORDENA: Que ninguna autoridad civil o militar impida el restablecimiento y funcionamiento normal del culto católico y el uso y labor en las tierras pertenecientes a los templos y conventos, no sujetas directa y exclusivamente a las necesidades de guerra, antes bien, amparen con su influencia la libertad y cumplimiento de estas órdenes»[991].

---

[990] GPKA, Markina 3, *Breve relación...*; Francisco José Anaiaren lekukotasuna.
[991] MKA, E-I-56.

Hala ere Markinako Karmengo elizan ez zen elizkizunik eskaintzen. Ibarrako S.Jazinto baselizan elizkizunak egiten zirelako Aita Karmeldar batzu pozik zebiltzan; hala ere, Eibarretik etorri eta Ibarrako baserri batetako alabarekin ezkondutako gizon batek heriotze mehatxua egin zion baselizako jabeari eta itxi beharra izan zuen. Aita Urbano, Amorotora aldatu zen eta Aita Zezilio, herrira jaitsi, lojamendua Isidra alargun hirugarrendarraren etxean hartuz eta meza Moja Karmeldarren elizan esanez.

Aita Zeziliok ematen digu bere kronikan gerra garaiko hilabeteon berri: «batzuk aurreratu eta besteek atzeratu gabe Markinako herri honetan izan genituen bederatzi hilabeteak, guretzat etenik gabeko ikaraldiak eta amairik gabeko arriskualdiak izan ziren, ordu batzutan gure buruen gainetik obus zaparrada iragaten zelako. Meza eskaini eta gozaldu ondoren, Montemar baserri azpialdean zegoen kobazulo batetara joaten nintzen eta hegazkinak iragatean bertara sartzen arriskutik aldentzeko. Baina ez genituen gure buruak hegazkinen erasoaldietatik babestu behar bakarrik; hori beraien etorrera kanpai hotsek iragartzen zutenez errezagoa gertatzen zen; kanoiek jaurtitzen zituzten obusek, isilak zirenez, heriotze arrisku handiagoa ekartzen zutela»[992].

c. **Komentura itzultzea eta errepresioa.**

Burruka mugan egoteak sortzen zuen etenik gabeko arriskua 'tropa nazionalak' aurrera egitean amaitu zen. Hain zuzen ere, 1937.eko apirilaren 27an. Orduan itzuli ziren erlijiosoak Karmengo komentura. Soldaduen egoitza izan ondoren egoera negargarrian aurkitzen zen. Desagertu egin ziren kuadru batzu eta beste batzu urratuta zeuden. Bestalde, auzotar batzuk, nahasteaz eta erlijiosoak ez egoteaz baliatuz, lapurtu egin zituzten koltxoi, burusi, tapiz etab. Eraikinak kalteak izan zituen, batez ere koru aurrean eta bibliotekan; organoa erabilezina geratu zen; elizako aurrekaldeko Karmengo Amaren irudia mankatuta. Erlijiosoek berehala hasi ziren komentuaren zein elizaren garbiketa egiten.

Berehala etorri zen Aita Martín del Purísimo Corazón de María priorea; kale erdian preso hartu eta Donostira eraman zuten eta iharduera nazionalisten parte hartu zuela leporatuz atzerriratu; kondena, karmeldarron Sevilla-ko komentuan bete zuen. Aita Apolinar, beste hainbeste egingo ziotela beldur izanik, leku ezkutu batetan babestu zen. Aita Pio eta Urbanok gerratik ihes egin eta Frantziara joan ziren eta gero Perura destinatuak izan ziren.

Lekeitio-Amorotora joan ziren gudariek eramen zuten Aita Apolinar, kalterik gabe etxean utzi zutela aske. Sabeltxiki bikoitzak jo eta min bizien artean, Aita Bautista lagun zuela, Amorototik Bilbora eraman zuten ebakuntza egiteko, baina beranduegi; gerra erdian hil zen bertako klinika batetan; gorpua Amorotora eraman zuten hiletak bertan egin zitzaizkiolarik.

---

[992] MKA, H-I-8, 8 orr.

Aita Zezilio eta Jazinto, nazionalismoaren salapen pean Gasteizeko Karmeldarren etxera baztertuak izan ziren. Aita Bautistari, salapen berdina zela medio, hainbat urtetako kartzela zigorra eman zioten.

Beraien etxeetan edota komentuko adiskideen etxeetan babestuta bizi ziren ikasleek Iruñeko komentura joateko agindua jaso zuten. Batzu sodadutza egiteko sasoian, kuartelera joan beharra izan zuten.

Maiatzaren 15ean, Pentekostes bezperan berriro ireki zen Karmengo elizako kultua, ospe handitan *Salve*-a abestuz; eta hurrengo egunean eskaini zen lehen meza nagusia.

3. Gainerako gerraldia nazionalen pean

a. Komunitate berria eta Teologiako ikastetxea (1937).

Gerrako lehen urtean izandako aldaketen ostean, komunitate bizitzari hasiera emateko komunitate berri bat eratu zen: Markiñara uztailaren 30ean heldu zen Aita Julio del Niño Jesús, priorea; Aita Celso de la Inmaculada, prioreordea eta ikasle teologoen maisua (abuztuaren erdialdean); eta gainerakoak, Aita Higinio de S. José, Aita Nicasio de Santa Ana, Aita Nicanor de Jesús, Aita Rainaldo María de S.Justo, Aita Mamerto de la Cruz,Aita Jenaro de S. José, Aita Gabriel del Purísimo Corazón de María, Aita Eduardo de Santa Teresita.

Eta Begoñako Karmeldarren komentua indar militar nazionalek espetxe bihurtu zutenez, horrela irauten zuen bitartean Markinako Karmengo komentua teologoen ikastetxe izendatzea erabaki zen; 1937.eko urrian hasi zen ikastaroa, irakasle Aita Eduardo eta Aita Jenaro eta ikasle zerbitzu militarra amaitutako 12 bat gazte zirela[993]. Nafarroako S. Joakin probintzian 131 erlijioso aurkitzen ziren zerbitzu militarra egiten: 16 apaiz, 45 ikasle teologo, 51 ikasle filosofo eta 19 anaia ez-mezako. Gerra amaitzerakoan, 1941.ean, ikasleen zerrendaketa egiterakoan, 2 hilik, 8 kanpora bidaliak eta 28 beraien borondatez etxean geratuak zirela ikus daiteke[994].

Horrela hasi zen Markinako komentuko bizitza berria, Teologoen ikastetxe izendatzeak indarberrituta.

b. Aita Silverio de S.Teresa, Definitore Jeneralaren ikustaldi kanonikoa (1937.eko iraila).

Benetan bitxia gertatzen da garai horietako kroniken bi laburutarik batek ere ez aipatzea Aita Silverio, Ordenako Definitore Jeneralak 1937.eko irailaren amaieran egin zuen ikustaldi kanonikoa[995]; gehiago oraindik, gerraren bihotzean komunitatean

---

[993] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 8.or.
[994] GPKA, B, 3.kutx., *Algunos datos sobre los religiosos...*
[995] MKA, A-II—1a, eta H-I-8.

halako aldaketak gertatzerakoan eta Teologiako ikasturteari hasiera ematerakoan izan zela gogotan hartuz.

Bisitariak *Liber Visitationum Generalium* deritzaneko ikustaldi-aktetako orrialde batetan idatzi zuen 1937.eko irailearen 30ean, bereziki bi puntu azpimarratu zituela, hots, 1a) Nagusiak Aberriaganako maitasuna bultzatu behar zuela, politikari, *Nazionalismo eta Separatismoari* buruz hitzik egin gabe, horrek erlijiosoen artean zatiketak sortzen zituelako; 2a) nagusiek ardura handiz neurriak hartu behar zituela aurrekoa bete eta fraideen artean anaitasuna bultzatzeko:

«1.ª Superior foveat debita cum prudentia amoren erga Patriam, cum hic minime adversetur amori originis uniuscujusque, qui etiam commendatur; et nemo loquatur super quaestiones politicas *attingentes Separatismum eta Nationalismum*, de quibus agitur in epistola Emmi.Cardinalis Secretarii ad R.Ad.P.N.Praepositum Generalem, quae causam dedit huic visitationi, quando talis locutio sit fomentum divisionis inter Religiosos, pacemque optatam perturbet cum praejuditio religiosae perfectionis et evangelici apostolatus;

2.ª Item Superior evigilet super adimpletione praecedentis ordinationis, et ipse suos subditos ferventer hortetur ad mutuam caritatem fovendam, et ut evitent quidquid eam ladere potest et sigillatim ea quae ocasionem dederunt huic visitationi»[996].

Hau da, Aberriaganako (Espainia, jakina) maitasuna bultzatu behar zen eta ez zen hitzik egin behar politika eta nazionalismoari buruz; berak uste zuen eran maitatu behar zen Espainia; berarentzat aberria zena hala izan behar zuen besteentzat ere; eta hau ez zuen jotzen arazo politikotzat,... Karitate izpiritu faltsuz eta elkarbizitza zuzenezko kutsuz jantzitako Aita Silverio Karmeldar burgostarraren berbok ulertzeko, Nazionalen Espainiak Aulki Santuaren aurrean Erroman zuen enbaxadoreari 1938.eko apirilaren 20an idatzi zion agiri edo txostena irakurri beharko dugu; lehenago aipatu dugun idazki hori Aita Mauro Elizondo beneditarrak 'panfletotzat' jotzen du[997]. Horrela egiten da ageriko Aita Silverio burgostarrak berak bezala sentitzen ez zuten Euskal Karmeldarrenganako zuen suhartasuna.

c. Aita Sergio de S. Teresa Probintzialaren ikustaldi kanonikoa (1937.eko abendua).

Kronikek ez diote ezer ikustaldi honi buruz ere. Aita Sergiok bere ikustaldiari buruz bi orrialde idatzi zituen *Liber Visitationum Provincialium* deritzon Akta liburuan. Markinako komentuak diktadura marxistaren pean eginiko hilabeteak gogoratuz hasten da eta gero, 'gure armadaren garaipenaren' ondoren komentua berreskuratzera heldu zela..., komunitatea aldatua izan zela eta komentuko kalteak ahalegin handiz konponduak kontatzen du. Komunitateko erlijiosoak birtute ugariz jantzita eta legeak

[996] MKA, A-X-1.
[997] M.ELIZONDO, *Documentos político-religiosos...*,428.orr.

zehatz betetzen aurkitu zituela... Ez da garai hartako une sozio-politiko larriari buruzko beste aipamenik ageri.

Berriro beste ikustaldi kanoniko bat egin zuen hurrengo urteko, 1938.eko abenduaren 13an; honetan ere ez da gerra-egoerari buruzko aipamenik ageri[998].

d. Markinako Kapitulu Probintziala (1939.eko apirila)[999].

Gerra zibila amaitu zen hilabetean bertan gertaera garrantzitsua izan zuen Markinako Karmengo komentuak, batez ere gerra zibileko gertakari sozio-politiko-erlijiosoen ondorioz zerikusi handikoa izan zena. Hain zuzen ere Nafarroako S. Joakin Probintziako kapitulua. 1939.eko apirilaren 28ko 9,30etan bildu ziren: 29 Aita Kapitular ziren.

Lehen batzarraldian, ohizko formalitateak bete ondoren, Kapituluburuak erlijiozko betebeharrak zehatz betetzera eta halako une historikoak Pronbintzaiarentzat izan zezakeen garrantziaz jabeturik, zuzentasun handienaz ihardutera egin zuen dei...; era berean, gerra zibileko 'martiriak' gogoratu zituen..

Egun berean, bigarren batzarraldian, arratsaldez telegrama bat bidali zioten Francisco Franco Jeneralari: «Capítulo provincial Carmelitas San Joaquín de Navarra reunido motivo renovación cargos convento Marquina - Vizcaya, rinde Vuecencia, Caudillo victorioso, sentido tributo admiración, prometiéndole fidelidad para el bien de la Religión y de España. Provincial Sergio»[1000].

29an Aita José León de la Inmaculada Concepción hautatu zuten probintzial 29 botuetarik 24 aldeko lortu zituela. Maiatzaren 1ean egin ziren komentuetako nagusien hautaketak eta Markinako Priore Aita Celso de la Inmaculada Concepción egin zuten 30 botuetarik 24 aldeko izan zituela. Egun horretan eta 2an aztertu ziren legeei zegozkien gorabeherak..

Maitzaren 3an arazo politikoei buruz hitz egin zen, kontraesanez beteriko hiru proposamen egin zirela:.

1. Batzuk salapen faltsuak erabiliz, buru militarrengana jo eta Santander-ko komentua Nafarroako S. Joakin Probintziari kendu eta Burgos-ekora aldatzeko eginiko ahaleginei buruz (arazo hau gorago aztertu dugu), kapituluak komentu horrek Nafarroako S. Joakin karmeldar probintzian jarrai dezan indar guztiak erabiltzea erabaki zuen.

2. Proposatu eta onartu egin zen: «El Ven. Capítulo prohibe toda manisfestación externa de política a nuestros religiosos por ser contraria a las leyes y a nuestro espíritu religioso; y declara a la vez: a) Que no es política hacer patria: que no ofende

[998] MKA, A-X-2.
[999] GPKA, *Acta Capituli Provincialis*, I, 155-164.orr.
[1000] Ib., 157.orr.

ni contradice a nuestras leyes ni está reñido con el espíritu religioso defender a la patria, para nosotros la patria española, ni hablar de sus glorias y grandezas, nombrarle con orgullo y honor ante propios y extraños cuando las circunstancias lo reclamaren. b) Prohibe también el Capítulo toda manifestación separatista por considerarla política, por considerarla, consiguiente, contraria a nuestras leyes y gravemente perjudicial al espíritu religioso. c) Encarga a los Superiores estrecha vigilancia sobre estos puntos y ordena que no permitan a sus súbditos ni dentro ni fuera de sus conventos ninguna manifestación política en la forma explicada, prohibiendo a los delicuentes, siempre que la prudencia o necesidad exigiere, toda comunicación con los seglares y religiosos hasta que se logre su enmienda».

3. Egokitzat jo zen, era berean, honako proposamen hau onartzea: «El Capítulo de la Provincia de S. Joaquín de Navarra, aceptando plenamente el mensaje de S.S.Pío XII y la carta colectiva del Espiscopado Español, presta su adhesión sincera y entusiasta al Movimiento Nacional y a las Autoridades que lo representan, en especial al glorioso Caudillo, el Generalísimo Franco; y, en cuanto a él le compete, dispone que sus religiosos presten esta misma adhesión y que en todas sus manifestaciones externas sean consecuentes con estos sentimientos. A la vez, el Capítulo reprueba toda manifestación contraria que cualquier religioso nuestro haya hecho o pudiera hacer en adelante, dentro o fuera de España»[1001].

Ikusten denez, karmeldar abertzaleak espetxeratuak, erbesteratuak edo baztertuak aurkitzen ziren unean burutu zen kapitulu hori, gehienak frankotar porrokatuak zirela eta aurreko erabaki bitxi horiek hartu zituela.

161. orrialdeko oharrean Kapitularrek «arazo bati buruz...» isiltasuna eta sekretua gordetzeko zina egin zutela irakurtzen da. Baina zein ote zen gai edo arazo hori?... Guztizko isiltasuna gorde zuten. Gaur egun ez da orduko kapitularrik bizi.

Arazo hau argitzeko, probintzia sakonetik ezagutu eta izugarrizko oroipena duen Aita Lino Akesolorengana jo nuen. Isiltasunezko zina, Bizkaiko gobernadore zibilak hautatzeko ziren karguetarako hautatuak izan ez zitezen betoak jarriz bidalitako erlijiosoen zerrendari zegokion. Eta hala gertatu zen. Isilpean gorde bazen ere, orduan bertan ere susmoak eta zurrumurruak izan ziren. Baina isilpeko hau ageriko egitea Kapituluan egon ez arren arazoa ezagutu eta bertan egon ez zelako zina egin ez zuen fraide bati zor diogu. Berau Begoñako komentuan bikario zereginetan geratu zen Aita Karmeldarra izan zen. Berak hartu zuen, une hartan Begoñako komentuko nagusi zela, Bizkaiko Gobernuko oharra eta Kapitulua egiten ari zen Markinara bidali. Urte batzu geroago Aita Karmeldar hori hil zenean Aita Lino Akesolok bere gauzen artean arazo horri buruzko paper bat aurkitu zuen[1002].

[1001] Ibd. 161.orr.
[1002] Aita Lino Akesolok agertutako datuak.

c. Gerraren amaiera: salaketak eta espetxeak.

1939.eko apirilean gerra amaitu zenean, ikasle teologoek, zerbitzu militarra bukatuta, jantzi militarrak utzi eta komentura itzuli ziren ikasketak eta erlijiozko bizimodua egiten jarraitzera, izpiritua eraberritu zien proba gogorra iragan ostean. Baina erlijioso batzurentzat bakealdiaren hasiera zena beste hainbatentzat salapen faltsu eta espetxe-aldi gogorra gertatu zen. 'Nazionalistak' deituentzat erasoaldia izan zen, kasu batzutan ez zirenak ere zigortu zirela.

Gudarien, hau da, errepublikazaleen aldean kaperau izan ziren erlijioso batzuk hainbat urte bete behar izan zituzten espetxean, presondegirako edo heriotzerako epai oso gogorrak jaso ondoren.

Jadanik 1937.ean, Nazionalak Bizkaiaz jabetu zirenean, Karmeldar erlijiosoen aurkako salapen batzu halako izenik eramateko duin ez ziren beste karmeldar batzuk eginak izan ziren, anaiak salatzeaz gainera faltsukeriaz jokatu zutela.

Horrela, salatuek (Leon, Rafael, Bautista, Nikolas, Sebastian, Lino, Angel, Luzio, Jose Domingo Aita Karmeldarrek-batzu gudarien kaperauak izan ziren-) 1937.eko abuztuaren 3an burutu zen Definitorio Probintzialari eginiko gutun bat izenpetu zuten: uztailaren 30ean, goardia zibilak zaintzale zituztela Auzitegira eraman zituztela, gerra kontseiluan epaiketa sumarisimoa (bat-batekoa) hartzeko: Aita Leonentzat heriotze zigorra eskatu zuten; Aita Rafaelentzat bizitza osorako espetxea; berdin Aita Nikolasentzat; eta gainerakoentzat hainbat urtetako espetxea. Eta Aita Bautista de S. Jose Markinako komentuko karmeldarrari dagokionean honako salapenak irakurtzen dira: «*1.°* De haber hecho propaganda separatista desde el púlpito y confesonario. 2.° De haber tenido amistad con los dirigentes nacionalistas y de tratar con sacerdotes separatistas. 3.° De haber dicho que 'El Pueblo Vasco' era el peor periódico. 4.° De haber proferido alguna frase injuriosa contra D.Esteban Bilbao. 5.° De ser nacionalsita saparatista exaltado.

A lo primero contestó no haber hecho nunca proganda desde púlpito, como se puede comprobar leyendo sus sermones, todos escritos. A lo segundo: que trataba por igual tanto con las Derechas Españolas como con los Nacionalistas. A lo tercero no recordaba haber proferido palabras injuriosas contra 'El Pueblo Vasco', ni contra D. Esteban Bilbao. A lo último contestó: Que no tenía fundamiento la acusación por ser desconocido de los denunciantes. El Fiscal pidió la pena de reclusión perpetua para el acusado, y el Abogado defensor pidió la absolución»[1003]. Eta txostena amaitzeko, salatariak probintziako fraideak izan zirela gogora ekarriz eta faltsukeria ugari erabili zutela esanez, era berean parkatu egiten zietela, honako hitzok erabili zituzten:

«Vimos con mucho sentimiento que la mayoría de las acusaciones, quizás las más graves, y algunas hasta calumniosas que se acumularon en el Juicio contra nosotros, partían de nuestros hermanos en Religión, sacando a pública luz cosas

[1003] GPKA, B, 3.kutx.

íntimas de nuestra vida religiosa, con harto escándalo para el público y no pequeño descrédito para nuestra Provincia.

Aún en el supuesto de que hubiesen sido obligadas y ciertas las acusaciones lanzadas contra nosotros —que no lo fueron en realidad, como podrán apreciar VV.RR.— creemos sinceramente que no había necesidad de llegar al extremo de violencia y exageración a que llegaron algunos PP. en sus declaraciones. Para su conocimiento de VV.RR. consignamos aquí algunas de las expresiones que se leyeron en el Juicio: Frases del R.P.José Agustín de los Reyes: «Que la revista 'Karmen'go Argia' es exclusivamente política y en todos los números y artículos exalta el nacionalismo y hace política separatista». El mismo Padre, llamó al P. José Domingo «propagandista del Nacionalismo entre los novicios», al P. Rafael calificó de «exaltado nacionalista y propagandista activo». Llamó a los PP.Ramón y Sebastián «nacionalistas peligrosos y exaltadores de la juventud en Amorebieta». Tiene también para otros PP. calificativos de exaltados, exagerados y exaltadísimos.

El R.P.Vicente de S. José fue muy semejante al anterior en sus declaraciones-exageradas e injustas.

También nos parecieron bastante atrevidas las declaraciones de los PP: Samuel de Santa Teresa, Augusto de la Cruz y Aniceto de la Sagrada Familia.

En cambio consignamos con agrado por su prudencia, cordura y caridad fraterna en las declaraciones, los nombres de los PP. Gregorio de Santa Teresa, Tobías de la Virgen del Carmen, Germán de Santa Teresa, Miguel María de S. Juan de la Cruz, Sotero de la Virgen del Carmen y del R.P. Teodoro de la Virgen del Carmen, prior de esta Comunidad.

Los firmantes manifiestan a N. Ven. Definitorio Provincial que al hacer de común acuerdo este documento, en modo alguno les ha inspirado el espíritu de venganza contra nuestros hermanos, a quienes de todo corazón perdonan; sino que se han considerado obligados a ello por el buen nombre de nuestra amada Provincia de S. Joaquín de Navarra, y prestigio de los injustamente acusados»[1004].

Honako zigorrok jaso zituzten behin-betiko epaietan: Aita Leoni, emandako heriotze zigorra bizitza osorako espetxeaz trukatu zioten. Aita Bautista, Markinako komentukoari eta Santiago de la Anunciación (Onaindia) fraideari 30 urtetako espetxe zigorra. Aita Rafael de S. Jose, Aita Nicolás del Niño Jesús eta Aita Lino de la Sagrada Familia Karmeldarrei 16 urtetakoa. Aita Sebastián de S. Justo fraideari 12 urtetakoa. Aita Angel de la Virgen del Carmen karmeldarrari 10 urtetakoa eta 8 urtetatako Aita Jose Domingo de Santa Teresa eta Aita Lucio de Santa Teresita karmeldarrei[1005].

[1004] Ibd.

[1005] GPKA, B, 3.kutx., *Nota de los documentos*... Markinako komentuko paperean, Bizkaiko Gobernadore Nagusiaren oharrean "separastista" gisa ageri diren erlijiosoen zerrenda ageri da:
Aita José Mateo, Logronion bizi zena,
Aita Doroteo, Korrelllan bizi zena,

Salatari nagusiena edo, hobeki esanda, kalumniatzailea Aita Agustín de los Reyes izan zen. Kasu oso bitxia izan zen: bera eta Aita Crisógono de Jesús Santander-en aurkitzen ziren gerra hasi zenean; eta Karmeldar euskaldunek, han egoera arriskutsuan aurkitzen zirela eta, Euskal Herriko abertzaleei eta bertako gudariei esker apaiz eta erlijiosoen bizitzarako leku seguruagoa eta baketsuago zen Bizkaira ekarri zituzten. Aita Agustin, erakusten zuen jarrera eta jokaeragatik atxilotu egin zuten indar errepublikarrek, baina, abertzaleek eta erlijioso euskaldun batzuk esku hartu zuten fraidea zela eta aske uzteko eskatuz...; eta hala gertatu zen. Maitasunez hartu eta elikatu zuten euskaldun karmeldarrek, esaterako, Larreakoek. Eta, gero, Franco-ren armada nagusitu zenean, berak aurkeztu zituen hainbat eta hainbat salapen erlijioso haien aurka[1006].

Geroago, 1940.eko urtarrilean zigorren berrazterketa egitean, Aita Agustín de los Reyes fraideak atzera jo zuen bere salapenetan, Rafael, Luzio, Lino eta Jose Domingo Aita karmeldarren aldeko aitortza eginez[1007].

Espetxeratutako fraide gehienak hiru urte presondegian eginda gero, euskal probiantzietatik, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoatik aldandutako komentuetara baztertuak izan ziren.

4. Komentuko bizitza eta teologiako ikastetxearen iharduera (1940-1948).

Atal honetan, gerra ondoan komentuko bizitzan izandako gertaerarik garrantzitsuenak bakarrik jasoko ditut, beste kapitulu batetan aztertuko dela, batez ere apostolutza eta ikastetxe-bizitzari dagokiena. Ez dezagun ahaztu, garai hau ekonomikoki une oso larrikoa, hots, elikatzeko zailtasun handikoa, hainbatetan gogorik gabeko egoerari zegokiona, aginduzko isiltasun-araua jarraitzeko ahaleginak eta izpiritu bizitza eta misio amespurua zituena zela.

a. Ordena sakratuak.

Ikasle gazteek, gerrako zereginetatik etorri eta erlijio eta ikasle bizitzan jarraitzen zuten. Lehen aipaturiko irakasleei Aita Aniceto del Redentor, Aita Leandro de la Inmaculada Concepción eta Aita Aurelio del Niño Jesús gaineratu zitzaizkien.

Aita Rogelio, Villafranca-n,
Aita Apolinar, Altzon,
Aita Tirso, egoitza ezjakinean, behar bada Frantzian.
Aita Gabriel, Aramaion,
Aita José Andrés Hoz de Anero-n edo beste nonbait,
Aita Narciso Soto-Iruz-en,
Aita Ramón, Gasteizen, Aita Emiliano Iruñean,... (GPKA, B, 3.kutx.).

[1006] Oraindik Larrea-Zornotzan bizi direnen Lekukotasunak. Lekuko hauek, gerrako egoera soziopolitikoak bero-bero jarritako buru eta adimen gutxiko txori-buru bat zela esanez zuritzen dute.

[1007] GPKA, B, 3.kutx..

1940.eko urtean 31 gaztek egin zuten profesio nagusia[1008] eta beste lauk, ordurako egina zuten gerraldian.

Irailearen 10ean onartu ziren 11 ikasle apaiz eginak izateko, 13 diakonatzarako eta 6 subdiakonatzarako[1009]. Kroniketan jarraiko ordenazio hauek aipatzen dira: a) irailearen 29an, 2 ikasle apaiz eta beste 29 subdiakono izan ziren sagaratuak; b) azaroaren 1ean, 23 ikasle diakono eta 1 subdiakono eta c) azaroaren 3an, 9 apaiz eta 1 subdiakono[1010].

Sagaratu zituen apezpikua Aita Angel María Pérez Cecilia de Santa Teresa, Verapoly-ko artzapezpiku-ohia izan zen; mintzaldian Nafarroako S.Joakin Probintziak Verapoly-n izpiritu eta misio alorrean zein kultura eta antolaketari zegokionean eginiko misio-lana goraipatu zuen eta gazteak misio-bide horretatik jarraitzera animatu zituen.

b. **Ospe handitako Karmengo Amaren bederatziurrena (1940).**

Ospakizun honek Karmengo jaiaren ohizko urterokoa gainditzen zuen; bestalde, gerran Francoren armadako artilerian kapitain izan zen Aita Salvador María de S.José fraideak jarri berria zuen aldare nagusiko argien instalazio berria.

Bederatziurrena oso ikusgarria izan zen jende ugari etorri zela. Sermoilaria, Aita Espiridion priorea izan zen; lehen aldiz ospatzen zen gerra ostean Karmengo Amaren jaia. Oso ongi abestuz, teologiako ikastetxeko abesbatzak alaitua izan zen. Eta San Inazio egunean, antzinako ohiturari jarraituz, elizbira egin zen Markinako kaleetan zehar, Pragako Ume Jesusen artxikofradiak, Aita Cecilio de la Virgen del Carmen buru zuela partehartuz, Karmengo Amaren irudia paseatuz[1011]

c. **Misio santuak (1942,1947).**

Garai honetako ezaugarririk behinenetarikoak eta pastoralgintza alorrean emaitza onak lortzen zituenak herri misioak izaten ziren. Gerra ondoko lehen misio handia 1942.eko martxoaren 11tik 19ra bitartean egin zen: euskaraz eta gazteleraz, ordu ezberdinetan. Komentuko kronistak erdarazko misioa egiteko zioak azaltzen ditu: Markinan, bazela pertsona multzoa, batez ere langileen artean, gazteleraz mintzatzen zena eta kontutan hartu behar zirela beraien izpirituzko beharrizanak.

Euskaraz, horretarako Altzotik eta Begoñako Karmelotik etorri ziren Aita Tirso de Jesús María eta Aita Apolinar de S. José Karmeldarrak mintzatu ziren. Gazteleraz,

---

[1008] MKA, A-IX-1: *Liber Profesionum solemnium*, 121-152.orr.
[1009] GPKA, Markina 4.
[1010] MKA, A-II-1a: *Libro de crónicas*, 10.orr.; H-I-8, 6-7.orr.
[1011] Ibd., 11-12.orr.; H-I-8, 8.orr.

Aita Gregorio de Jesús Crucificado Karmeldarra. Misio aurretik propaganda handia egin zuten, batez ere, langileen artean. Ordutegiari zegokionez, 15,30etan euskaraz eta 19,30etan gazteleraz, batez ere 'La Esperanza' eta 'Crucelegui' fabriketako langileentzat. Hasieran gaztelerako misioetara 200-300 pertsona hasi ziren eta 500 inguruk amaitu. Kronistak honela laburtzen du: «Misioen emaitza praktikoa, misioaldian zehar izandako 4.000 jaurnartzeak izan ziren. San Jose eguneko Jaunartze Mezan 673 gizonek hartu zuten jaunartzea. 1.400 txartel banatu ziren»[1012].

1947.eko martxoan, Aita Lucio de Santa Teresita priore zela, hiru misio antolatu ziren batera: Markinan, Etxebarrian eta Barinagan. Markinako misioko sermoiak Aita Miguel Angel eta Aita Jenarok egin zituzten; Etxebarrikoak Aita Alejandrok eta Barinagakoak Aita Luziok. Markinara jende oso ugari etorri zen; kronistak, Markinan bizi izando 40 urteetan ez zuela inoiz hainbeste jende ikusi aitortzen du: «azken eguneko jaunartze mezan 2.000 pertsonak jaunartu zuten. Arratsaldeko 4etan, Arrosario Santuaren ostean, *Via Crucis* eratu zen komentutik Jemeingo parrokira, hiru apaizek beste hainbeste taldetan, ahotsa jasoz, eliz txanda bakoitzean otoitz eginez eta txanda artean abesti egokiak tartekatuz: «Komentutik Parrokira antolatu zen *Via Crucis* ekitaldian Etxebarria eta Barinagatik Misio emaileak eta parrokuak buru zituztela etorritako hainbat eliztarrek hartu zuen parte, fede eta erlijio adierazpen ederra gertatu zela»[1013]

d. **Bi mendeurrenen ospakizuna.**

aa. *Joan Gurutzeko Santuaren 4.mendeurrena (1942).*

Joan Gurutzekoaren 4.mendeurrenak jai, erlijio zein kultura girozko oihartzuna izan zuen Markinako komentuan eta herrian.

Bederatziurrena ospe handitan egin zen azaroaren 21-29. egunen artean. Jai nagusia 29.ean egin zen: goizeko 6,30etan eta 8etan V.O.T. deritzan Karmengo Kofradiako eta Pragako Ume Jesusen Artxikofradiako eta gure karmeldar elkarteekoen jaunartze mezak eskaini ziren. 10etan meza nagusia, agintariak bertan zirela, teologiako ikastetxeak Aita Emiliano buru zuela, Perosiren meza pontifikala hiru ahotsetan hobezin abestu zuela. Arratsaldeko 4etan azken elizkizuna sermoia Aita Gregorio de Jesus Crucificado karmeldarrak izan zuelarik.

Kultur egintzak zinetokiko aretoan burutu ziren abenduaren 19an eta 20an: 19an, gaueko 8etan Santuaren bizitza eskenara eramanez eginiko literatura-musikazko ekitaldia eta beraren olerkien errezitaldia; eta ekitaldien arteko tarteetan ikastetxeko koruaren abestiak. 21an, goizeko 11,30etan bi hitzaldi: 1a. *Semblanza de San Juan*

[1012] Ibd., 13.orr.; H-I-8, 10-11.orr.
[1013] Ibd., 17.orr.; H—I-8, 16.orr.

de la Cruz izenburua zuena Aita Eduardo de Santa Teresita karmeldarrak eta 2a. *Influencia de la mística de San Juan de la Cruz en la Contrarreforma* Jose Luis Gaytan de Ayala Jnak[1014].

bb. *Berreraikuntzaren 75. urtemuga (1943).*

Oso luze aritu gara bere hasiera 1868.ean Markinan izan zuen Ordenaren Berreraikuntza lan gogoangarriaz eta, baita ere, 50. urtemugan eginiko ospakizunez.

Gertaera hau historikoki hain garrantzitsua izanik ezin zen ospatu gabe geratu beraren 75. urtemuga; jaiaren muina, bereziki Markinako komentuaren berraikuntzagatik zein Euskalerri, Espainia eta Ameriketa eta abarretan izango eraginagatik Jaunari eskerrak ematea izan zen.

Eskerrak emateko hirurrena abuztuaren 20-22.egunen artean izan zen; hitzaldiak Aita Teodoro de la Virgen del Carmen markinarrak egin zituen, Berreraikuntzaren historia laburra eginez eta protagonistak aipatuz. Hirurrenari, komentuko kofradia guztiak aipanduraz jantzita Markinako kaleetan zehar elizbira ospe handitan eginez eman zitzaion amaiera[1015].

e. **Konponketa batzu komentuan eta elizan.**

Gorago, gerra ostean, komentua zikin eta hondaketa ugari zuela aurkitzen zela aipatu dugu eta Aita Karmeldarrek berehala konpondu zutela esan.

Eliztarrentzat erosotasuna lortu nahirik elizan aulkiak jartzea erabaki zen; horren ardura Anaia Zirilo eta beste arotz batek hartu zuten; elizako aulkiak jartzea 1944.eko ekainaren 11n egin zen[1016].

Aita Lucio de Santa Teresita priore zela (1945-1948) bi obra egin ziren. 1946.ean komentuko harreralekua konpondu zen, pertsona ezberdinak batera hartzeko baldintza egokietan jartzeko, lehenago zegoen areto luzea hiru gela aproposetan bananduz.

Eta gero Lertxundi pintore Jnak egindako elizaren apainketa ederra[1017].

Gerraren hasieran komunitatean 10 karmeldar mezako eta hiru anaia ez-mezako baziren, 1948.ean, ikasleak aparte, 12 mezako eta 4 anaia ez-mezako aurkitzen ziren.

[1014] Ibd., 15.orr.; H-I-8, 13-14.orr.; ik., era berean, argitaratutako egitaraua: *Homenaje a San Juan de La Cruz, Fontiveros 1542-Marquina 1942*.
[1015] Ibd., 15-16.orr.; H-I-8, 14-15.orr.
[1016] Ibd., 16.orr.
[1017] Ibd., 17.orr.

G. BULTZADA BERRIA GAUR EGUNERA ARTE (1948-1991)

Karmengo komentuaren historiako azken aldi honi buruz gorabehera nagusiak bakarrik jasoko ditugu; kronikek eguneroko bizitzako hainbat eta hainbat berri eskaintzen digute; eta, hala, urtero errepikatuz. Horrelako gai batzu, hala nola ikastetxe zein apostolutza iharduera zein kultura eta abarri dagozkienak, astiroago aztertuko ditugu beren-beregi geroago, hain zuzen ere, garai honetakoak izanik ikuspegi oso garrantzitsua dutenak direlako.

Bi garai ezberdin aurkitzen ditugu: a) 1948-1968. urte artekoa, gazte profesio eginberrien ikastetxea izan zen garaiko komentu bizitza eta b) 1961-1991. urte artekoa, ikastetxea kendua izatean indarrik handiena apostolutza iharduerak hartu zuenekoa.

1. Gizarte, politika eta erlijio-egoera orokorki frankismoaren garaian (1939-1975)[1018]

Aldi honetako Elizaren historia, frankismoaren peko erregimen politikoak baldintzatutako garaia dugu.

Francoren erregimenak, hasierako urteetan politikoki falanjismo peko faxistengan eta militarrengan oinarriturik, 'izpiritu nazionala' zeritzana berreraikitzera jo zuen

---

[1018] Oso ugaria da gerrondoko egoerari buruzko bibliografia; ikus bedi egoera erlijiosoari eta berari dagokion bibliografiari buruzko laburpen orokorra: Joaquín L. ORTEGA, *La Iglesia española desde 1939 hasta 1976. Resumen cronológico*, in: *Historia de la Iglesia en España*, 5.t. Madrid, 1979, 665-714.

eta hori lortzeko hurbiltasun eta adiskidetasun loturak ezarri zituen Elizarekin, berau epe laburrean sistemaren euskarri justifikatzaile bilakatu zelarik.

Baina urteak iragonez gero, agiri-agirian bananduz joan ziren Estatuaren eta Elizaren arteko bideak, hasierako hurbiltasuna eta adiskidetasuna, frankismoaren bukaeran, etengabeko gatazkatan nabaria egin zen urruntze bilakatu zelarik.

Horrela, bada, harreman hauetan hiru epealdi bereiz daitezke:

a. Gerraren bukaeratik Konkordatua egin zen arte (1939-1953).

Espainiako Elizak bere askatasun gehiena galdu arte ihardun zuen erregimenarekin lankidetzan. Bestalde, logiko eta ulergarritzat jo daiteke, agian, Elizak frankismoak eskaintzen zizkion beso babesgarrietara bake eta atseden bila jotzea; hain zuzen ere, aurreko urteetako historia, XIX. mendeko erdialdian hasi eta gerra aurreko azken urteetan, egoera antiklerikal eta erlijioaren aurkako erasoaldi oso gogor artean iragan zelako.

Oraingoan, estatuak babestu egiten zuen Eliza eta beronen eskutik zilegitzapena jasoten zuen. Elizaren eragina ageriko egiten zen estatuko bizitzako sektore guztietan.

Berreraiketa nazionalarekin batera, bere mistika sortu zuen mugimenduak. Espainia berkristautzera eramateko nahiera. Estatua, egunerik egunera, geroago eta sendogoa egiten ari zen; gobernuak erlijio kutsuzko legegintza ezarri zuen; 1941.ean Estatua eta Aulki Santua akordio batetara heldu ziren: horrela, esaterako, Gobernuak, agintaritza bien eskumeneko gaietan edota Elizari zegozkienetan Aulki Santuarekin adostasuna lortu arte legerik ez egiteko hitza ematen zuen. Akordio horretako punturik garrantzitsuena apezpikuen izendapena izan zen. Era berean, lehenbailehen Konkordatu berri bat burutzeko konpromezua hartu zuten. Bestalde, erakunde biek bat egin zuten nazioarteko isolamenduaren aurka.

Erregimenak sortutako baldintzak oso egokiak ziren gizarteari indar handizko kristau kutsu bizia ezartzeko. Horren ondorioz pastoralgintza indartsua burutu zen, ezaugarri nagusitzat nazionalismoa eta masibotasuna izan zituela. Euforia handiz berreraikuntza eta balioen baieztapen berria bizi ziren. Misio herritarrak, Markinako kasuan ikusi dugun bezala, eta gogo-ihardunak bazter guztietara, esaterako, armada, fabrika eta gainerako erakundeetara heltzen ziren.

Ekintza Katolikoak indar handia hartu zuen eta eraginkor bilakatu zen. Kristauen artean era askotako talde ta mugimenduak sortu ziren. HOAC-ek eta JOC-ek laster egin zuten bat lan munduko zapalkuntza egoerekin eta pixkanaka-pixkana geroago eta kritikoagoak bilakatu ziren.

Gerra ondoko urte hauetan sortu zen, baita ere, *Opus Dei* 1947.ean. Urte batzu lehenago, 1940.ean, Mallorka-n eman zitzaion hasiera, munduan zehar hainbeste fruitu eman izan duen *cursillos de cristiandad* mugimenduari.

Hala ere, frankismoaren bihotz-bihotzeko urteetan indartsu agertu ziren aurkakoek, batez ere Bizkaian izandako grebaldi garrantzitsuan; 1947.eko maiatzaren lean

30.000-50.000 langilek egin zuten greba; horrek Bizkaiko Gobernu Zibilaren errepresio gogorra ekarri zuen.

Espainiako apezpikuek, elkarren artean 1937.ean eginiko gutun ospetsu eta eztabaidagarriaren ostean isilik jarraitzen zuten; 1948.ean sinatu eta zabaldu zuten Espainiako eliztarrei zuzendutako lehen jakinerazpen pastorala.

Euskal apaizek, beren aldetik, hainbat taldekako idazki eman zituzten argitara; halakoen artean ospetsuenetarikoa 339 apaizek 1960.eko maiatzean egindakoa izan zen; bertan Vatikanori «euskaldunoi Jainkoak emaniko ezaugarri etniko, linguistiko eta sozialen aurkako erasoaldiak» salatzen zizkioten. 1962.ean 500 apaizek jo zuten Kontzilioko Idazkaritzara salapen berdinak aurkeztuz.

1952.eko udaberrian izan zen Bartzelonan Nazioarteko Eukaristi Kongresua, erakustoki ederra bilakatu zelarik nazioarteko ikuspegirako eta frankismoak bere onerako erabili zuela.

1953.eko abuztuan burutu zen Konkordatua: erlijio katolikoa aitortzen zen estatuko bakartzat eta horren ondorioz beraren nortasuna, pastoralgintzako irakaskuntza, elkartzeko eskubidea etab. etab. aitortzen ziren. Bestalde, Gobernuak apezpikuak izendatzerakoan esku hartzea onartzen zen (seguraski Vatikanok berariazko deliberamenduz ez zuen pribilegio horretan apezpiku laguntzaileen izendapenik sartu; honek garrantzi handia izango zuen gerora). Konkordatuak Erregimenarentzat ageriko onezpena eta nazioarteko laguntza suposatu zuen. Egiatan, geroxeago, 1953. urte bereko irailean sinatu ziren Espainia eta Estatu Batuaren arteko lehen akordioak.

Euskal Herrian, euskal Elizaren bizitzako gertaerarik garrantzitsuena Bilbo eta Donostiko elizbarruti berrien eraiketa izan zen; 1949.eko *Quo commodius* bulda bidez sortuak izan ziren eta 1950.eko uztailaren 1ean burutuak.

b. **Konkordatutik Vatikanoko II. Kontziliora arte (1953-1965)**

Epealdi hau, Espainiako bizitzan iragapen garaia izan zela esan daiteke. Gerrondoko psikologia atzean geratzen ari zen. Espainia egunerik egunera nazioartean aitortuagoa ageri zen; eta, bestalde, kanpokoen eraginak joera sozio-politiko berriak sortzea ekarri zuen. Teknokrazia eta garapen urteak izan ziren. Ordurako, Estatu-Elizaren arteko harremanak hasiak ziren etendurak sortzen. Pixkanaka-pixkanaka urrintze arduratsua zein geroago eta handiagoa gertatu zen. Horren ezaugarri dugu eliz jerarkiari leiala zen *Ecclesia* aldizkariaren kasua. 1943.ean estatuko zentsurak isilerazi egin zituen Pio XII.ak, Alemanian naziek zerameten erlijioaren aurkako erasoaldia zela eta, ageriko eginiko kexak. Beste hainbeste egin zuen 1954.ean, zentsura berberak Aita Santuaren Gabonetako mezuaren atal batzu kenduz. Honek tirandurak eta eztabaidak sortu zituen. Eliz jerarkiaren eritziz prentsa lege bat behar zen; Ministrariaren ustetan, ez. Sindikatuen alorrean ere ezberdintasunak ari ziren agertzen.

Era berean, apezpikuen taldekako orientabideak agertu ziren. 1955.ean Elizaren irakaslegoari buruz: Elizaren irakaslegoa izpirituzko gaietara mugatu nahi izatearen

aurka, apezpikuek errealitate sozio-politiko eta kulturalei buruz erizpena eman ahal izateko eskubidea defendatzen zuten.

1956.ean berriro idatzi zuten apezpikuek Espainiako egoera sozialari buruz. 1957.ean *Instrucción sobre la moralidad pública* agiri luzea eman zuten argitara. Ekintza Katolikoko lan alorreko erakundeek -HOAC eta JOC- geroago eta indar handiago hartzen ari ziren.

Baina, benetan, Elizak erakundeekin eta Estatuekin zituen eskuharmenetan erabateko aldaketa ekarri zuen gertaera Vatikanoko II Kontzilioa izan zen. Espainiako gizartean izugarrizko ondorioak sortu zituen eragina izan zen. Egiatan, Espainiako apezpikuak zurt eginda geratu ziren munduan zehar giza maila guztietako jendeen bihotzak bereganatu zituen Aita Santu Juan XXIII.ak Kontziliorako deia egin zuenean.

Juan XXIII.a hil zenean, ez zen ongi ikusia izan Espainian Montini Kardinalea, Paulo VI.a izena hartu zuena, Aita Santu hautatua izatea. Zerbait dago argi: Espainian interes handiz bizi izan zela Kontzilioa. Kontzilioa 1965.eko abenduaren 8an itxi zen.

Hasieran Kontzilioak Espainiako apezpikuak ustekabean eta behar adineko gertaketarik gabe harrapatu bazituen ere, beraren azkenaldian eta ostean beraietarik hainbat Kontzilioak eskaturiko aldaketa sozio-erlijiosoen eta ikuspegi berriaren bultzatzaile bilakatu ziren. Hain zuzen ere, hilabete gutxi batzu geroago, 1966.ean eratuta zegoen apezpiku-batzarrea, beraren eragina erabakiorra izan zelarik frankismoaren beherakada gertatu zen Kontzilio-osteko hamarkadan. Kontzilioa bukatzerakoan Espainiako Elizarentzat eta Estatuarentzat tirandura eta garrantzi handiko hamarkadari ireki zitzaizkion ateak.

c. **Kontzilio osteko hamarkada (1965-1975)**

Frankismoaren hamarkada honetan hainbat gertaera eta gatazka ageri dira. Kontzilioak berrikuntza sozio-erlijioso eta politiko zabal bat, hau da, ikuspegi aldaketa edo *agiornamento*-a jarri zuen abiabidean, horretarako askatasuna eta mundu zabaleko Elizako partaide sentitzea eskatzen zelarik.

Bestalde, aldatu nahi eza nabari zen gizarte eta Elizako hainbaten artean. Apezpiku-Batzarrean nabarituko zen urte horietako eliz barruko eta Espainiako gizarte barruko tirandura osoa.

Hain zuzen, 1966.eko hasieratan Apezpiku-Batzarrea eraikitzeak bide berriak urratu zituen. Urte berean argitaratuko ziren beraren taldekako lehen bi agiriak: La *Iglesia y el orden temporal a la luz del Concilio* (ekainaren 29an). Kontzilioaren irakatsiak Espainiako egoerara egokitzea izan zen. Bigarren agiria abenduaren 6an argitaratu zen, Espainiako Erreferendumari buruzkoa izan zelarik.

Bestalde, krisialdi sakona izan zuten Ekintza Katolikoaren hainbat mugimenduk (1967). Era berean, apezpikuak aurkezteko pribilegioa zela eta gatazka sortu zen Franco-rekin. Egunerik egunera handiago zen giza-talde ezberdinek kalean zehar

emandako erantzuna. Politika alorrean ugaritu egin ziren unibertsitateko gatazkak (1968). Beste hainbeste gertatu zen izkutuko langile mugimenduekin ere. Aparteko larritasun sozio-politikoa sortu zuten Euskalerriko gatazkek. Apezpikuek geroago eta gehiago urruntzen ari ziren politika ofizialetik. Horrela, Apezpikuen XII. Batzar Osoa (1970-VII-11) zela eta *La Iglesia y los pobres* agiria argitaratu zuten, berau, Kontzilio ostean Espainian eginiko agiririk kritikoena zein profetikoena izan zela esan daitekeelarik.

Politika eta, baita erlijio alorrean gertakari gatazkatsu berri batzu ere sortu ziren Euskal Herrian. Burgos-eko epaiketak bereganatu zuen, zer esanik ez, une batetan gatazkortasun hori. Carrero Blanco admirante Gobernuburuaren hilketak eman zion amaiera gatazkaz beteriko 1973.eko urteari. Elizak, bere aldetik, une politiko-erlijioso hartan bizikiro bizi zen bakekuntza bultzatu zuen.

Estatu-Elizaren arteko harremanetan gatazkarik larrienetarikoa 1974.eko «Añoveros kasua» izan zen. Gatazka, egintza armatu eta errepresioaren dialektika arrisku handiz gorantz zihoan unean gertatu zen Bilboko elizbarrutiko elizetan 1974.eko otsailaren 24ean Añoveros Bilboko Apezpiku Jnaren homilia bat irakurri zenean; era moderatuz, etnia-gutxiengoen, konkretuki, Euskal Herriaren eskubideen gaia aztertzen zuen. Gobernuak su eta gar bortizki erreakzionatu zuen «estatuko batasunaren aurkako eraso larritzat» hartu zuelarik eta goi erakunde bien artean, Erregimenaren urte guztietan zehar izandako gatazkarik biziena sortu zen. Gobernuak Bilboko apezpikua atzerriratu nahi izan zuen; honek Erroma eta Espainiako apezpikuak izan zituen bere alde.

Egintza honek oihartzun izugarria izan zuen nazioarteko prentsan, batez ere Europakoan, Elizaren eta, bide batez, euskal gizartearen aldeko gertaera garrantzitsu bilakatu zelarik.

Estatuaren eta Elizaren arteko harremanen etendura geroago eta nabariagoa egiten ari zen frankismoaren azken urterarte (1975). 1975.eko apirilean apezpikuen agiri batek garai hartan pil-pil nabari zen honako gai hau aztertu zuen: *La reconciliación en la Iglesia y en la sociedad*.

1975.ean, Franco hil eta Juan Carlos I.a Errege izendatzean, demokrazia ahul baten hasiera izango zen garai berri bati ireki zitzaizkion ateak.

2. **Ikasketen aldaketa Karmengo komentuan (1948-1968)**

1948.ean aldaketa sakona izan zen Markinako Komunitatearen bizitzan. Gerratean zehar, 1937-1938.ean, teologiako ikastaroa hasi zen[1019].

1948.eko abuztuan, Markinan bildutako Definitorio Probintzialak Markinako Karmengo etxea, Teologiako ikasketak ematea utzi eta Ordenako ikasketak bizitza

[1019] GPKA, *Liber examinum...*

zibileko ikasketa-plangintza ofizialera egokitzeko goi batxilergoko ikastetxe bihurtzea erabaki zuen eta, horrela, Markina, ikasle profesio-eginberriek batxilergoko bostgarren urtea egiteko izango zuten egoitza bilakatu zen.

1948.eko Komunitatean jarraiko erlijioso hauek aurkitzen ziren: 12 mezako eta 4 anaia ez-mezako:

Aita Anselmo de S. José, priorea,
Aita Emiliano del Niño Jesús, prioreordea,
Aita Nicasio de Santa Ana,
Aita Cecilio de la Virgen del Carmen (1951.ean hil zen),
Aita Avelino de Santa Teresa (1948.ean, bertan hil zen),
Aita José Matías del Sagrado Corazón de Jesús,
Aita Alejandro de la Virgen del Carmen,
Aita Genaro de la Sagrada Familia,
Aita Eliseo del Niño Jesús,
Aita Conrado de Santa Teresa,
Aita Eulalio del Niño Jesús,
Aita Arcángelo de Jesús Crucificado,
Anaia Pedro Luis de San José,
Anaia Juan José de Jesús Crucificado,
Anaia Eduardo de Santa Teresita,
Anaia Jose Francisco del Niño Jesús.

1949.ean Anaia Martín María del Niño Jesús lotu zitzaien. Honakook izendatu zituzten irakasle:

Aita Conrado (erdal hizkuntza eta literatura, geografia eta historia),
Aita Eulalio (latin eta erlijioa),
Aita Arkangelo (Matemática eta gerkera),
Aita Emiliano (musika)[1020].

15 ikasleek egin zituzten beren azterketak 1949.eko ekainean[1021].

Erlijioso ikasle gazteak egotea bultzada handia bilakatu zen komunitateko bizitzarako eta liturgiarako.

3. **Hainbat urtemugen ospaketak**

Komentuko bizitza egunerokoaren edo arruntaren barruan, Karmeldarren gertaera erlijioso garrantzitsu batzuk edo beraien urtemugek aparteko nabarmentasuna izaten zuten bertako bizitzan eta, ondorioz, baita ere, hainbatetan Markinako herrikoan, agerpide berezien iturburu izaten zirela.

[1020] MKA, A-II-1a: *Libro de crónicas*, 18-20.orr.
[1021] GPKA, *Liber examinum...* (1943-1963), 84-85.orr.

a. VII. Mendurrena (1950-1951)

Ordenaren historian osperik handienaz ospatu zen gertaera Karmengo Eskapularioaren zazpigarren mendeurrena (1251-1951) izan zen. 1950.eko abuztuaren 6an Erroman Karmeldarren nazioarteko kongresuari irekiera emanez hasi zuen bere hitzaldia Piazza kardinale Tx. Gorenak: «Inoiz ez da, beraren historian zehar Karmeldarren familia handia bildurik aurkitu oraingo Kongresuan bezala, oso handia eta ezberdina bihurtu delarik bertako ordezkapen ugari eta kalifikatuen zioz, oso garrantzitsua deialdiaren hedaduraz eta proposaturiko argudioz, oso lilurakorra tokiaren —Erroma— eta ospatzen den garaiaren ondorioz, eraberritze handi eta barkamen handiaren Jubileuaren Urte Santua den honetan ospatzen baita»[1022].

Nazio ezberdinek hainbat egintza bidez ospatu zuten; argitalpen ugari geratu zaizkigu aldizkari, liburu eta abarretan. Espainian, Karmeldarren probintziek egitarau erlijioso, kultural eta herritar ugari burutu zituzten. Eskapularioaren doaiaren bidez bizitzako adiera eta errealitateagatik esker zabalak ematea izan zen helburu, bide batez Karmengo Amarenganako maitasuna ugalduz.

Aita Pio XII.ak ospatzera egin zuen dei, Eskapularioak barnean zuen mezu sakonaren garrantzia gogoratuz eta, era horretan, beraren bidez Andra Mariaganako debozioa indarberritu nahiez. Beraren hitzak bildu zituen Markinan banatutako egitarauak[1023].

Karmeldarren Nafarroako S. Joakin euskal probintzia handia ez zen atzean geratu. Gertaera honen kronika argitaratu zen[1024].

Bertan probintziako komentu bakoitzean, Penintsulan zein Itsasoz-bestaldean burututako egintza gomutagarriak jasoten dira, honako tokiok aipatzen direla: Iruñea, Korella, Markina, Larrea-Amorebieta, Villafranca, Begoña-Bilbo, Gasteiz, El Soto (Kantabria), Santander, Donostia, Logronio, Altzo, Eibar eta, baita, India, Txile, Peru, Kolombia bezalako euskal probintziaren babespeko urrutiko lurraldeak eta Portugal ere[1025] bai.

Markinan ospakizun honen egun nagusiak 1951.eko uztailan izan ziren: uztailaren 2an eman zitzaion hasiera goizeko 7etan eta 8etan jaunartze-mezak eskainiz eta 10etan meza nagusia abestuz. Arratsaldean, 8etan elizkizun nagusia, Arrosarioa, Sermoia eta *Te Deum* barru hartzen zituela. Eta bederatziurrena egin zen; uztailaren 16an, 10etan, meza nagusia, bertan zirela udala eta agintariak.

Aparteko handitasunez eginak izan ziren uztailaren 29-31ko ospakizunak. 31n meza pontifikala Aita Anbrosio Abasolo Lekue, Vijayapuram-go (India) apezpikuak buru egiten zuela izan zen.

[1022] *El Escapulario del Carmen. VII Centenario 1251-1952* aldizkaria, Madrid (1950, 3.zk.) 5.

[1023] MKA.

[1024] *Actos conmemorativos de la entrega del santo escapulario a S.Simón Stock en su VII centenario desarrollados en la Provincia de San Joaquín de Navarra de la Orden de Carmelitas Descalzos, 1251-1951*, Gasteiz 1954, 144 orr.

[1025] *1950-1953. urteen arteko datetan euskal probintziako erlijiosoek bederatzi bat liburu eta hainbat idazlan argitaratu zituzten Euskalerriko zein Itsasoz-bestaldeko aldizkarietan...*

Abuztuaren 27an Karmengo Kofradeen bilera nagusia egin zen Santurtzin mendeurrena ospatzeko, Itsasoko Karmengo Amaren irudia bedeinkatuz; Markinako Eskapulario Santuaren hainbat kofrade joan ziren bertara.

Mendeurrena gertatzeko, 1951.eko garizuman misio herritar bat eratu zen: goizetan Aita Juan Bizentek euskaraz eta arratsaldean 4etan Aita Juan Bizente eta Aita Jenarok euskaraz eta gauez Aita Rogeliok gazteleraz. Markinarrak eta inguruko herrietakoak ugari etorri ziren. Misioari amaiera emateko penitentziazko elizbira handi bat egin zen Karmengo elizatik irten, Moja Mesedetakoen eta Karmeldarren elizak bisitatu eta parrokian amaituz. Bitxikeria gisa, tartean txingorraldi handia izan zela eta Markinarrak beren zereginean jarraitu zutela oharteraz daiteke.

Komunitateko hainbat erlijiosok «eskapularioaren egunak» antolatu zituzten Elantxobe, Ibarrangelu, Mendaka, Ereño, Gatika, Elgoibar, Motriko, Bermeo, Albiz, Gerrikaitz, Aulesti, Berriatu, Ipazter, Mendexa, Bedarona, Natxitu, Ea, Amoroto, Belindez eta abarretako herrietan.

Kultur egintza gisa, Markinako zinetokian egin zen Aita Conrado de Santa Teresa Karmeldarrak Eskapularioaren ahalmenei buruz idatzitako *«El Holocausto»* lanaren antzezpena aipa daiteke.

Gertaera guzti horien kolofoi gisa Aita Emiliano Markinako komentuko karmeldarrak 1951.ean euskaraz argitaratu zuen *Andre Maria Euskalerriko mendietan* liburua gogora dezakegu[1026].

Andra Mariaren ospetan eginiko egintza hauei 1954.ean Mariaren Urte Santuan eginikoak gaineratu behar zaizkie; beraietarako, Markinako Komunitateak, 1954.eko martxoaren 31n, bizitza eta doktrina zein ospakizun erlijioso eta herritarrak zituen egitarau zabal bat onartu zuen[1027].

b. **Omenaldia Lisieux-eko Teresa Doneari**

Ume Jesusen Teresa Donea Misio Katolikoen Zaindari aldarrikatzearen 25. urtemuga (1924-1954) ospatu zen. Bazen Markinan Teresatxo Donearen Jaierazko Bazkuna baina ia guztiz desagertuta aurkitzen zen. Ekimena gogo biziz hartu zuen Markinako herriak, berehalaxe beren buruak eskaini zituztela Misioen Zaindariaren miresle ziren 300 gaztek. Ospakizunen egunetan Bazkuna berriztatu eta indarberritu nahi izan zen. Eta horrela bi gertaerak ospatu ziren. Markinan egin zen Omenaldira Amorebietako erromesak etorri ziren. Aukeratutako eguneko 9,30etan Aita Genaro de la Sagrada Familia Karmeldarrak eman zien ongietorria erromesei Markinako Karmengo elizan; eta meza ospatu zen. 11,30etan puntarako xistera partidua eta

---

[1026] Ik. *Actos conmemorativos...*, 25-26.orr.; MKA, A-II-1a: *Libro de crónicas*, 27-28.orr.

[1027] GPKA, Markina 3, *Programa de la comunidad de Marquina (Vizcaya) para el año mariano 1954*.

jarraian euskal dantzak Bilboko «Dindirri» taldeak eskainita; bertsolariak ere izan ziren: Enbeita eta Sollubepe. Arratsaldean 4,30etan arrosarioa eta misio-elizbira Karmengo elizatik parrokiara[1028].

c. Karmeldar Erreformaren IV. Mendeurrena (1562-1962)

Teresa Doneak 1562. urteko abuztuaren 24ean Avilan eginiko fundazioa Karmengo Ordena berriztatzeko emaniko lehen urratsa izan zen. Karmeldar Teresiarrek era ezberdinez ospatu zuten gertaera horren mendeurrena 1962-1963. urteetan zehar. Markinan ere bai.

Gertaeren unerik ikusgarriena eta herrikoiena Teresa Donearen Beso ustelgabea heltzea izan zen. Karmengo jaiaren bezperan, 1963.eko uztailaren 15ean heldu zen Beso Santua Markinara, arratsaldeko 7ak eta 7,30ak artean. Aurretiaz gertatu zuten jazokizun hau Karmengo Karmeldarrek. Erlikia Zaldibartik ekarri zuten; eta ordu batzu lehenago automobil aldra handi bat atera zitzaion bidera, lagun egitera. Heltzean hainbat herritarrek eman zioten ongietorria kanpai hots artean. Erlikia zekarren automobila puntarako xistera frontoi aurrean geratu zen: lehenengo, alkateak egin zuen hitz, zertxobait hunkituta, Teresa Donea Markinako jaietako ohorezko bisitari izendatuz. Gero Aita Luis Beobide Larreako komentuko prioreak euskaraz eta gazteleraz. Jarraian, Besoa Karmengo elizara eraman zen, Bandak joten zuela gertaera hartarako eginiko himnoa abestuz. Elizaren sarreran arkua egin zioten beraien joko eta folklore tresnak erabiliz puntarako xisterako jokalariek, ezpata-dantzariek eta gorulariek. Inguruetako balkoietan karmeldarren entseinak ageri ziren.

Bertan izan ziren ongietorria ematen, Imanol Jna gidari zutela Ondarruko haur kantari tipleak. Gaueko 10etan eraman zen erlikia Markinako Moja Karmeldarrengana, Karmengo elizara hurrengo eguneko goizean itzuli zutelarik. 16an jendaurrean egon zen erlikia Karmengo elizan; Ondarroako tipleek eta Markinako abeslariek Perosi-ren bigarren meza pontifikala abestu zuten. Jende ugarik ohoratu zuten Teresaren erlikia; Markinan inguruetako jendetza handia bildu zen.

Uztailaren 17an eraman zuten Santaren erlikia[1029].

d. Markinako Karmengo Komentuaren I. Berreraikuntza urtemuga (1868-1968) eta Ordenako Aita Jeneralaren ikustaldia

Markinako Karmengo etxearen historian unerik aipagarriena eta ospetsuena, hainbat aldiz esan dugun bezala, esklaustrazio aldi luzearen ostean 1868.ean burututako Berreraikuntza izan da; Markinan hasi eta Markinatik Euskal Herrira eta Es-

[1028] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 29-30.orr.
[1029] Ibd., 67-68.orr.; A-V-136; GPKA, Markina 3.

painiara zabaldu zen euskaldunen ekintza izan zen. Gogora ekarri dugu, era berean, ospe handitan ospatu zela 50. urtemuga (1918) eta apalgo 75. ena (1943).

Markinako Komunitateak ezin zuen ospatu gabe utzi, bertako historia barruko gertaerarik apartekoena. Horretaz gainera, bestalde, data horretan Joan Gurutzeko santuak 1568.ean fraideen Karmeldar Teresiar «erreforma» hastearen IV. mendeurrena gogoratzen zen.

Ospakizunari ohore handia eman zion data haietan Karmeldar Teresiarren Ordenako Jenerala zen Aita Migel Angel Batiz Markinako semeak. Migel Mari Juaristi Prioreak luzatu zion gonbidapena eta baietza emanez erantzun zion euskaraz[1030].

Hori zela eta ospakizunen datak aldatu behar izan ziren; Berreraikuntza data abuztuaren 14ean zen. Baina mendeurrena ekainaren 24-29. egunen artean ospatu zen. Aurrerakuntza hau, Aita Jenerala ekainaren 23an izateko zen Larrako Karmengo Santutegiko Ama Birjinaren koroapen kanonikora etortzeko zelako egin zen. Bestalde, Aita Jeneralak egun horietan (24-29) Araba eta Gipuzkoako komentuak ikustatu nahi zituen.

Barruko isiltasunezko giroan ospatzea pentsatu zen batez ere Karmeldarren anaiarteko bilera eginez. Egintzen egitaraua Espainiako komentuei eta, batez ere, probintzialei bidali zitzaien. Egiatan erlijioso multzo handia bildu zen bertan[1031].

Bestelako gertaketen artean, Miguel María del Niño Jesús (Juaristi) Markinako Prioreak aste batzu lehenago Bizkaiko Errepideen Arduradunari, Aita Migel Angel Batiz Jenerala, Markinako semea, ekainaren 24ean zetorrea eta beraren herritarrek omenaldi herritar handi bat egin nahi ziotela esanez «Matiena-Markinako errepideko 48-700 kilometrogunean ohorezko eta ongietorrizko arku bat jasoteko» baimena eskatuz eginiko eskaria aipa dezakegu[1032].

Aita Jenerala ekainaren 22an etorri zen Sondikako Bilboko aireportura, hurrengo egunean Larreako aipaturiko Koropen ospetsuan parte hartzeko[1033].

Ekainaren 24eko arratsaldeko 7etan etorri zen Markinara Iruzubietatik aurrera automobil karabana izan zuela bidelagun. Agintari zibilek eta erlijiosoek agurtu zuten.

[1030] MKA, A-IV-3, 1968-V-29ko gutuna.

[1031] Egintza honetara ezin etorria aditzera eman edota esangura historikoaren ondorioz etorri beharra zutelarik eskerrak eman zituztenen artean, Avilako priorea (ez dezagun Avilako komentuaren berreraiketa edo fundazioa 1876.ean Markinatik joanda egin zela) aipatu dezakegu; zehaztasun argirik eman gabe ematen zituen zuribideak 1968-VI-21eko gutunaren bidez: ezin zuen pertsonalki joan beste konpromezu batzu zituelako. Beste hainbeste esan daiteke Castellón-eko "Desierto de las Palmas" komentuari dagokionean. Baina ez-etortzerik narbarmenena Villafranca-ko kondearena izan zen, Donostiatik telegrama bat bidali zuela uztailaren (?) 16ko 10,30etan (Bitxikeria: zigiluan "16 julio 68" jartzen zuen): "siéndome imposible asistir actos asóciome cordialmente felicitándoles por entrañable centenario, Conde de Villafranca": MKA, A-IV-3. Ez da ahaztu behar Cándido Gaytan Villafranca-ko kondea izan zela 1868.eko berreraikuntzaren eragile nagusia; eta, bidezkoa zenez, Markinan izan zen 50. mendeurrena ospatu zenean...

[1032] MKA, A-IV-3, 1968-VI-3ko gutuna.

[1033] Aita Jenerala etorri eta egoteak oihartzuna jaso zuen komunikabideetan, zenbait idazlan argitaratu zirela: *El Correo Español*, ekainaren 21, 22 eta 23an; *Hierro* ekainaren 21ean etab.

Markinako herriak ongietorri beroa egin zion: txistulari bandak, puntarako xistera eskolako gaztetxoek, jantzi apainezko dantzeriek eta herritar ugarik alaitasunez hartu zuten. Ongietorria emateko hitzen ondoren Aita Jeneralak meza eskaini zuen euskaraz herritar ugarik parte hartuz.

25etan Aita Jenerala Espainiako probintzial eta komentu ezberdinetako nagusiekin elkartu zen. Elkarmeza eman zuten 25-30 karmeldarrek.

Egun horretan goiz erdian ospatu zen egintza gomutagarria. Lehen hitzaldia Aita Antonio Unzuetak egin zuen Markinako Berreraikuntzaren historia eta izan zuen garapena aurkeztuz eta Ordenako historian izandako adiera berezia azpimarratuz[1034]. Gero Aita Efren de la Madre de Dios karmeldarra mintzatu zen *El Carmelita suspirado por la Santa Madre Teresa* izenburua zuen gaiaz[1035].

Jarraian Aita Jeneralak Ordenaren egoerari eta Kontzilioaren jarraibideetara egokitu eta berriztatzeko arazoei buruz ihardun zuen[1036].

26 eta 27an, Aita Akesolo euskarologo eta Begoñako irakasleak Karmeldar izpiritualitateari buruzko hitzaldiak izan zituen euskaraz.

29an, San Pedro egunean, 11etan Aita Jeneralak meza eman zuen aldare-lagun Aita Probintziala, Priorea eta Markinako priore-ohiak zituela.

Uztailaren 1, 2 eta 3an Aita Bonifacio Luengas karmeldarrak, arratsaldeko meza ostean, izpiritualitateari buruzko hitzaldiak eman zituen gazteleraz.

Uztailaren 16an, Karmengo Amaren egunean, amaiera eman zitzaion Berreraikuntzako I. Mendeurreneko egintza gomutagarriei, meza nagusia, Aita Probintzialak eta Markinaldeko parrokuek elkarmezan eskaini zutela. Aita Jose Domingo markinarrak antolatutako koru mistoak Aita Emiliano del Niño Jesús (Barandiaran) Markinako komentuan bizi izan zenaren meza abestu zuen[1037].

e. Markinako Karmengo etxearen fundazioaren III. Mendeurrena (1691-1991)

Liburu hau burutzen denean egiteko den azken ospakizun garrantzitsua, Markinako Karmengo etxearen fundazioaren 3. mendeurrena izango da. Mendurrenaren hasieratan, ETB-k, 1991.eko urtarrilaren 30ean meza gomutagarria eskaini zuen, buru Juan Maria Uriarte elizbarrutiko apezpiku laguntzaleak egiten zuela eta Aita Luis Arostegi Nafarroako S. Joakin Probintziako Probintziala mezalagun zuela.

Ekintza eta iharduerak egiteko asmoak dira, beraien artean har daitekeelarik , komentuaren historian zeharko gorabehera behinenak jasoten dituen liburu hau.

[1034] *Centenario de la Restauración de la Orden en España*, BOPSJN 5 (1968, 71.zk.) 561-571.orr.
[1035] Ibd., 577-578.orr.
[1036] Ik. boletin berbereko laburpena, 575-576.orr.
[1037] Ospakinari buruz begiratu MKA, A-IV-3; A-II-1a, *Libro de crónicas*, 106-107.orr.; eta aipaturiko Aita Antonio Unzueta-ren idazlana.

4. Gorabehera ezatseginak: goardia zibila komentuan

Frankismoaren errepresio garaia gogorra izan zen; eta egoera hartan ez zuen salbuespenik izan Markinako komentuak. Gertaera osoaren lekuko izan zen batek, Aita Lon Arteagak zehaztasun osozko txostena utzi zigun, eginiko elkarrizketa eta galdeketak, komentura sartzea eta bertan eginiko etxearen araketa aktaren kopia eta guzti jasoten dituena[1038].

a. Aurretikoa: Aita Migel Mariren sermoia; salatua eta zigortua (1968)

Komentuaren araketaren aurretiko intzidente larri gisa, garaiko egoera zaila aditzera ematen duen 1968.ean izandako beste gertaera bat gogoera ekartea komeni zaigu; hain zuzen, Karmengo elizan Aita Migel Maria Jauristi Prioreak eginiko sermoi bat.

1968eko urtarrilaren 1ean, Bakearen aldeko munduko egunean, 10etako mezan Aita Migel Marik izan zuen sermoia: Pablo VI.aren «Bakearen aldeko mezua» testuko esaldi batzu (17 lerro) irakurri ondoren, bertako doktrina Euskal Herriko eta, zehazkiago, Bizkaiko eliza, fabrika zein familia-gizarteko egoerari egokitzeko esaldi batzu gaineratu zituen, gertatzen ari ziren egintza batzuren aurrean galdera batzu eginez:

«*Iglesia:* Habéis oído voces de alarma acerca del Seminario... Habéis oído hablar de tensiones de algunos curas jóvenes con el Sr. Obispo..., de manifestaciones de curas..., de sacerdotes perseguidos y multados por sus sermones... Algo no marcha bien... no es paz verdadera.

Hogar: Discrepancia de criterios entre padres e hijos... Temor de falta de trabajo con sus consecuencias... Chicas de 17 años que han pasado la Nochebuena en la cárcel, mientras la madre viuda lloraba la ausencia de la hija. Según nuestros informes no han robado, no han matado. Dicen que estuvieron en Bermeo en un domingo de octubre... No es de nuestra incumbencia señalar a los culpables, sólo señalamos el hecho... Algo no marcha bien... no es paz verdadera.

Sociedad: Un solo dato: los Colegios bilingües: ¿ por qué se puede abrir un Colegio de hebreo, inglés, alemán, etc. no se permite abrir Colegios vascos ni siquiera bilingües (castellano-vasco)? Algo no marcha bien... no es paz verdadera»[1039].

Urtarrilaren 6an Bilboko Bikario Nagusiak sermoia bidaltzeko eskatu zion. 9an, Priorea eta Prioareordea Bikarioarengana aurkeztu ziren. Honek Goardia Zibilaren Zuzendaritza nagusiaren salapena zeukan; eta Prioreari, leporatutako baieztapen batzu irakurri zizkion; honek onartu zituen berari leporatutako hitzak baina ez horiekin

[1038] MKA, F-I-1.
[1039] MKA, B-VIII-29, Aita Miguel Mariren homilia.

eginiko esaldiak. Aita Migel Marik sermoiaren eskema irakurri zion, baina Bikario Nagusiak homilia osoa eskatu zion.

Urtarrilaren 11n bidali zion Aita Migel Marik sermoi osoa. Egun horretan, bi polizia Udalera joan ziren Karmeldar horri aitorkuntza hartzera; honek ezezkoa eman zion etxetik irteteari. Arratsaldez lau poliziak idazkariarekin batera aitorkuntza hartu zien mezatan egon ziren pertsonei; eta kronistak eransten du: «Badakigu emakume gizagaixoek, mehatxu pean, ohizkoa denez, aitortzera behartuta zirela egin zutela aitorkuntza»[1040].

Urtarrilaren 12an berriro joan zen Aita Priorea Bilbora eta Markinan aurreko egunean jazotakoa adierazi zuen. Bikario Nagusiak lasaitu egin zuen «ad hoc» eratutako batzordeak erantzungo ziela salapenei esanez; Aita Migel Marik ez zuen inolazko adierazpenik egin behar Apezpikuaren berariazko baimenaz etorri ezik[1041].

Urtarrilaren 18an ohar bat heldu zen Bilboko Bikaritza Orokorretik, *«Juzgado de Orden Público —Madrid, Diligencias, Núm. 11 (68)»* deituak bidalitakoa kopiatzen zuela: Aita Migel Mari auzitara eraman nahi zen «sermoian Erregimeneko erakundeen aurka esaldi iraingarriak esateagatik»[1042]. Martxoaren 2an dei egin zitzaion Aita Migel Mariri Bikaritzan martxoaren 9ko 12etan aurkez zedin[1043].

Aste batzu geroago, Teodoro Jiménez probikarioak, apezpikuak arazoari buruz hartutako ebazpena pertsonalki jakinerazteko berriro Bikaritzan aurkezteko eskatu zion[1044]. Martxoaren 15ean joan zen Aita Migel Mari Apezpiku Jnarengana, bidelagun Aita Fidel Probintziala zuela.

Apirilaren 5ean heldu zitzaion Apezpikuaren martxoaren 28ko ofizioa Markinako Prioreari, Madrileko auzitegiari (auzipetaua izateko) «profesio eginberrien etxe batetako nagusia zelako» ezezkoa ematen zitzaiola adierazten zion jakinerazpena, baina, hilabetean zehar sermoirik egiteko lizentzia kentzen zitzaiola ezarriz[1045].

Apirilaren 6an idatzi zion Aita Fidel Probintzialak Aita Migel Mariri honako gutun hau euskaraz:

«Ene biotzeko A.Migel Mari:

Artuko uan ik ere Gotzai Jaunaren eskutitz-agiria.

J.E., auzitegietan ta aoz-ao ibilli gabe gelditzen aiz.

Ikusten diat, bai, ire egun artako jarduna txartzat gelditzen dala, baña gauza orri pakean utzitzea obe izango diagu ta Gotzai Jaunak diona ixil-ixilik egin ta...kitto.

Eskatu geniona egin ziguk ta eskertzekoa dek.

[1040] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 97.orr.
[1041] Ibd., 97-98.orr.
[1042] MKA, B-VIII-29.
[1043] Ibd., Jesús Gorosarri Jnak sinaturiko Bizkaiko gotzaindegiko Kamara idazkaritzako biletea.
[1044] Ibd., 1968-III-27ko gutuna.
[1045] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 104.orr.

Bein loreillaren 20 ezkero, alkarrekin egongo gaituk, Gotzaiak diona betetzeko.

Gogorrena orixe dek: ill osoan itzaldirik gabe egon bearra; jendea konturatuko dek bear ba'da; konturatu gabe egingo ba'litz obe, nere iritziz. Zenbat eta zalaparta gutxiago erabilli, obe bai guretzat bai Gotzaiak agindu ziguna gordetzeko.

Agur. Orko guztiei gorantzi.

A.Fidel»[1046].

Hala ere, Markinako Karmengo Komunitatea ez zetorren bat apezpikuak egindakoarekin eta Aita Prioreordeak Aita Migel Mariri elkartasun osoa erakusten zion erantzun-gutunaren ziriborro bat gertatu zuen:.

«Exmo. Sr.:

Los abajo firmantes, miembros de la comunidad de PP. Carmelitas de Marquina, enterados del contenido del oficio de S.E., del 27 de marzo próximo pasado, en el que amonesta y castiga a nuestro P.Prior, hacemos constar lo siguiente:

1. Que tal Padre en el sermón citado no incumplió ningún principio teológico o moral de predicación ni la doctrina moral relativa al octavo mandamiento.

2. Que todos los Padres de esta comunidad en aquel día nos hicimos solidarios y predicamos las mismas cosas poco más o menos. Y si no, que se demuestre.

3. Por lo tanto, o no se castiga a dicho Padre o nos castiga a todos. Así pues, si S.E. no alivia al dicho Padre de esa pena, los Padres hemos determinado lo que sigue:

a. Volver a repetir el sermón, haciendo hincapié en la cruel y genocida persecución de que somos objecto los vascos.

b. Señalar las torcidas interpretaciones que de ese sermón han hecho los denunciantes.

c. Y abstenernos todos de predicar, por lo menos durante el mes que señala al P. Prior.

d. Ponemos en conocimiento de nuestros Superiores y del Nuncio todo el proceso de este asunto».

Baina gutun hau, azkenean, ez zen bidali, interesatuak hobe izango zela 'no meneallo' uste izanik, hala erregutu zielako[1047].

b. **Araketa eta itaunketa (1973.eko abuztua)**

Aita Lon Arteagak deskribatzen dizkigu Markinaldean: Amoroto, Gizaburuaga, Mendexa, Allusti, Munitibar eta abarretan gertatutako errepresioa eta atxiloketak.

Goardia zibilek atxiloketa, araketa, isun eta abarren bidez, batez ere apaizen izen ona zikindu nahi zutela kontatzen digu aita Lonek laburkiro hainbat zer konkretu jasoz. Priorea Aita Lino Akesolo zen.

[1046] MKA, B-VIII-29.
[1047] Ibd.

Abuztuaren 2an Karmengo Karmeldar batzu ibilaldi bat Aralarrera egiteko ziren. Bezperan goardia zibilek komentua kontrolatzen zuten. Aralarrera, Lino, Lon, Tomas eta Arriola fraideak joan ziren. Arratsaldeko 4,30ak inguruan jo zuten komentuko atea. Aita Jenaro, atea irekitzean, goardia zibil multzo baten aurrean aurkitu zen, araketa jakinerazpena aurkeztu ziotela. Aita Lon Arteagaren gelatik, bibliotekari zenez artxibo eta bibliotekarako biltzen zituen paperez osotutako karpeta bat eraman zuten. Aita Zelso zaharra gelan aurkitu zuten; eta ea propaganda subertsiborik zuen galdetu zioten; berak une hartan errazatzen ziharduen arrosarioa erakutsiz, huraxe zela bere propaganda subertsioa erantzun zien.

Multikopista baten bila zetozten; Organoaren atzekaldean zegoela erantzun zieten; bakarrik bokazioei buruzko propaganda erlijiosoa zegoen idatzita. Bilketa honetan Tiki-Taka umeen aldizkariaren paperak eta alea aurkitu zituzten. Multikopista eta «Hermes 300» idazmakina bat eraman zituzten. Goardiek ahalegin biziz, bertan ez zegoen inprimategi txiki bat bilatu zuten. Aita Luis Baraiazarraren gelatik multikopistan idatzitako *«Euskal Erlijiosoen Batzarra»* liburuxka eta euskarari buruz Karmeldarren Probintziako kapituluari idatzitako gutun bat eraman zituzten.

Bibliotekan sartu ziren eta beraien ezjakintasuna hain handia izanik antzinako liburuak eraman zituzten. Aguirre-ren izena ikustean zera zioten: «hau da euskaldunen burua», egiatan Txomin Agirre apaizaren Garoa elebarria zen. Era berean, Espainian argitaratuak izanik edozein herritako liburudendetan aurkitzen ziren liburuak ere eraman zituzten.

Guztira 8 kilo paper. Paperak sailkatzen zituzten artean, goardia zibil batzu klaustroetan ibili ziren lekukorik gabe eta gela batzutara sartu ziren; bere gelan aurkitzen zen Aita Honoriok harrapatu zituen ustekabean.

Gaueko 12ak aldera joan ziren kuartelera Aita Lino, Lon eta Tomas fraideak lau lekuko zeramatzatela; eta han jarraitu zuten paperak sailkatzen. Hartutako gauzen zerrendan ageri ez diren batzu ere eraman zituzten.

Itaunketak egin zizkien. Aita Lino Akesolok protesta egin zuen erregistro eta egiteko era salatuz eta, edozein liburudendatan aurkitzen ziren hainbat liburu eta aldizkari bahitu eramatea salatuz eta epailea zela subertsiboak ziren ala ez erabaki behar zuena esanez. Protesta egiten zuen une horretan goardiak maltzurkeriaz irribarre eginez erantzun zion: «Eso no lo dice ni un niño de 6 años», eta Aita Linok erantzun: «No lo dice un niño de 6 años pero un hombre de 60 sí».

Aita Lon 2.000 pezeta eta 50 franko frantses kendu zizkiotela ohartu zen. Goardia zibilarengana joan eta salatu egin zuen; eta berdin egin zuen epailearen aurrean. Salapen horrek ernegu bizitan jarri zituen Goardia Zibilaren izen ona kutsatzen zuela eta. Aita Lino, Lon eta Tomas goardia zibilekin epailearengan joan ziren Gernikara; eta itaunketak egin zizkien. Aita Lino eta Lonek zuhurtzia eta ausardia handia erakutsi zuten itaunketa horietan[1047a].

[1047a] MKA, F-I-1; A.Lon: Goardia zibilak eginiko komentuaren araketa.

c. Oihartzuna prentsa idatzian

Egunkariek egintza hauen berri eman zuten, baina goardia zibilek ziotena jasoz. Horrela, esaterako, «Hierro» (Bilbo) egunkariak 1973.eko irailaren 26an honako izenburua zuen idazlana argitaratu zuen: «En un amplio servicio realizado por la Goardia civil,... 78 personas han sido interrogadas y puestas a disposición judicial. Supuesta propaganda ilegal y proselitismo separatista, entre escolares de 'ikastolas' y catequesis»[1048].

Era berean *«Vida nueva»* Madrileko elizako aldizkarian, berriak erakunde frankistengandik jasota, 7 apaiz eta 4 karmeldarren atxiloketa aipatzen ziren, Markinako komentuan 8 kilo propaganda aurkitu zituztela erantsiz. Aita Lino Akesolo Prioreak aldizkari berean[1049]. *No hay ningún carmelita detenido* izenburuaz idatzi zuen gaizki emaniko informazioa gezurtatuz. Eta «8,4 kilos de propaganda» datuari zegokionean, Aita Linok araketa egin zutenen ezjankintasuna jartzen zuen barregarri: «En ellos entran libros, folletos, revistas y hojas de diversa índole y de fechas varias, que corren desde 1916 a 1973: libros de ningún carácter propagandístico ni político, como *Garoa*, conocidísima novela del presbítero Domingo Aguirre, que en su primera edición data de 1907; números de la veterana revista *Gure Herria*, y colecciones de cantos populares y litúrgicos, viejos y nuevos. Otra partida es de libros referentes a la guerra civil, de tendencia varia, que datan de 1938 en adelante; y algunos hay de tema sociológico e histórico, lanzados por editores nacionales, como *Síntesis del pensamiento de Mars*, de Lefebure, y *Consejo Sumarísimo en Burgos*, con la historia del consabido proceso, escrito en línea con la tesis del fiscal y del Juez que actuó en el proceso. Bastantes más libros y revistas hubieran ido a sumar kilos, a no ser por la intervención del Capitán de la Guardia Civil, presente en algún momento en el examen del material secuestrado, por su mejor saber y criterio. Hasta algún libro de poesia religiosa de 1667 y un poema de 1853 hubieran ido al montón de secuestrados con la explicación de que, en última instancia, el Juez tenía la palabra decisiva.

Ya con muchísimo menos peso, entran en la cuenta de kilos, papeles conteniendo correspondencia familiar y simples ejercicios literarios o comunicaciones de régimen interno de los religiosos (hasta cinco pasaportes que a lo largo de sus años de misionero en India y Sudamérica fue renovando el padre bibliotecario); y, por último, hojas o folletos de propaganda varia que clandestinamente y por correo se han ido recibiendo en estos 15 años últimos, y archivados como documentos históricos, en ejemplares únicos, documentos del carácter de los que se recibieron en muchos conventos el año 1965, enviados por el Ministerio de Información y Turismo, para nuestra informacón y gobierno».

[1048] Ikus bitez *La voz de España* (San Sebastián), 1973-IX-7; *Diario de Navarra* (Iruñea), 1973-IX-27; *Ya* (Madrid) 1973-IX-27, etab.

[1049] *Vida Nueva* (1973, 905.zkia); ik., era berean, L. AKESOLO, *Idazlan guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 1142-1143.orr.

5. Garai berria (1968-1985). Hirurteko baten kontaketa kroniketan

a. Garai berria.

1968.ean, uztailaren 17an, ikasleak beren etxeetara joan ondoren, ez zen aurrerantzean beste ikasturterik izango eta ez ziren gehiago profesio eginberriak Markinan bilduko.

Gertaera honek aldaketa handia ekarri zion Markinako komunitateko iharduerari, hots, era bereziz apostolutza iharduerak bai bertako elizan bai kanpokoetan markatutako garai baten eta Markinako parrokiarekin apostolutza lankidetza handiago baten hasiera izatea.

Gerra ondoko eta garai demokratikoko komentuko bizitzaren kontaketa labur honetan, Kronika Liburuan ageri denez, beraren ezaugarria urterik urte etengabeko eta eguneroko apostolutza iharduera izan dela ageri da. Hori dela eta, errepikapenetan ez ibiltzeko, komentuko iharduerarен, barrukoaren zein kanpokoaren, bereziki apostolutzari dagokionean, berau azken garai berriaren ezaugarria dela, ohargarri edo lagin gisa urte edo hirurteko bat hartzea iruditu zait biderik zuzenena; eta horrela, lagin gisa, Aita Jenaroren hirurtekoari (1968-1972) dagozkion kronikak, alderik handienetan, kopiatuko ditut. Kronista Aita Migel Mari Juaristi izan zen. Jarraikook izan dira hirurteko hau hautatzera bultzatu nauten arrazoiak: a) Esan dudanez, ezaugarritzat apostolutza izango duen garai berriaren hasiera delako. b) Hilerik hileko ekintzen azalpena baino gehiago etorkizunari begira eginiko apostolutza egitarauen azalpena delako. c. Kronikak, alde handi batetan, bederen, lehen aldiz idazten direlako euskaraz. d) Aita Jenaro, markinarra, hamarkada honetako priore adierazlea, sarritan hautatua izan baitzen, izan zelako.

b. Kroniken testu osoa (1969-1972)[1050]

«Aita Jenaro, Priore. 1969.

Priore berriarekin albistari berria. Orain arte izan dana Aita Luis Zubizarreta, Larrea'ko Priore izendatu ziguten joan dan kapituluan. Utsune ederra laga du emen etxean, baita etxetik kanpora ere: gazte, osasuntsu, langille, asko egiten zuan eta asko estimatzen genduan. Pena artu degu, bada, bera joatean. Ala ere, Markiña' kin aztuko danik ez degu uste. Emen maite genduan beste eta geiago maiteko al dute Larrea' ko komentuan ere.

Gaurkoz, Markiña'n onela geratzen gera:

1. Aita Jenaro Larruskain. Maiatza'ren 12'an asi zuan bere nagusitza. Gañera, III. Ordenakoen Zuzendari jarraituko du. Gure mojatxoen eta Merzedekoen autorle ere ba'da. Ondarru'ko «Hijas de la Cruz» lekaimeak aitortzera asi da oraintsu.

[1050] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 113-122.orr.

2. Aita Migel Mari Juaristi. Leengo Priorea, orain bertako lenengo onulari (supriore) egin dute. Len bezela, Praga'ko Ume Jesu'en (Archicofradia) Anaidiaren zuzendari geratzen da. Eta «Zerutxu» ikastola ta kultura Alkartearen arduradun. Aita Luis Zubizarreta joatean, HOAC taldea ere beronen gain geratzen da. Definitorio'ak, Probintzi'ko Onularitza'k, Probintziko Apostolutza'ren Batzorde'ko izendatu du euskal-alderdirako. Prioreak, ordea, etxean komentuko albistari eta artxibozain egin du. Leendik da Mixioentzako diru eta abarren arduradun.

3. Aita Zelso Arruza, 82 urtetakoa. Gure iru aitona maitegarrietatik bat. Ankatatik asko sortuta dago, baña gazteentzat laguntza aundia da oraindik, aitortegian batez ere.

4. Aita Jose Domingo Ugartetxea. Larogei urtetako mutikotxua. Gazte ta bizkor arkitzen da oraindik eta ez da nolanaikoa bere abezlari-taldeakin artzen duan lana. Organua ere dotore jotzen du. Eta berari eta bere abeslari zintzoai esker, ateratzen dira ain politto gure elizkizunak. Gazte batzuei solfeoa ta ume bati pianoa ere erakusten die.

5. Aita Rafael Urionaguena. Irugarren aittona. 79 urte. Makal-aldi gogorrak igaro zituan lengo urteetan, baña gaur adoretsu dabil. Oraintsu, irubat illabete, ausi zuan besoa ere osatu zaio. Etxeko gauza txiki askotan laguntzen daki, Konfesonarioan egiten du lanik geien. Priorearentzat bigarren onulari izendatua dago.

6. Aita Juan Iturregi, diruzain berria. Onek artzen du, gañera, Aita Jenaro'k uzten duan Karmen'go Anaidia, Semana Devota. Txikia bezain bizkorra, 60 urteetara urreratu- arren, oindio gazte arkitzen da. Kanpotik datozenentzat gela ta etxakekuak atontzen, aparta.

7. Aita Onorio Gerenabarrena. Liburu onen beste leku baten aitatzen dan organugillea. Lan onek eramanda, aspaldian, Chile aldean dabil. Laister izango al degu geure artean, berriz ere.

8. Aita Juan Antonio Juaristi. 38 urte. Ain gazte danarren urte asko, 14, Tumako'n mixiolari egiña (Aurretik beste bi egin zituan Kolonbia'n, ikasle). Merezitako atseden-aldi bat artzen daukagu gure artean. Baña ez da orregatik geldi egotekoa: etxeko lanetan, elizan batez ere, asko laguntzen digu: erderazko itzaldi geienak, bere kontu izan dira askotan.

9. Aita Luis Baraiazarra. 29 urte. Auxe degu komentuko kapituloaren izkribau edo idazkaria. Aita Zubizarreta'k zeramakian Jose Deunaren Anaidiaren ardura ere artu du. Txofer ikasten diardu, jo ta ke, egunokaz. Eta, batez ere, eskola-maixutza lortu al izateko ikasketak serioski egiten. Jainkoa lagun, datorren irallean, joango da Valladolid' era azken-azterketak egitera. Amaitu dan kurso onetan, talde biri euskara irakasten jarduna da «Vera Cruz»ko kolejioan.

Anaien artean:

1. Larrañaga'tar Iñazio, guztizkoa etxeko atezaintza eta sakristautzia egiteko. Ba'degu bere bearra komentu onetan. Aita Probintzialak Corella'ra bialtzen digu, bi illabeterako izango dalakoan. Gezur txiki ori egia balitz. Aparteko abilidadia du anai onek lore ta loretegi konturako.

2. Jose Luis Iraeta anaia (Irugarrendarra). 74 urte. baratza lanetan parerik ez duana. Aspalditxoan osasunez makal xamar dabilkigu. Ondo merezita dauka euki, onezkero, osagilleak agintzen dion atsedena. Beronen esanak eta kontsejuak ez diote laguntza txikia emango beti ere Migel anai, baratza-zai berriari.

3. Migel Urretabizkaya anaia. 42 urte (Irugarrendarra au ere). Baratza, ollo ta txarrien arduria bere gain artu bear izan du. Mutil osasuntsua ta langintza auetarako aukerakoa. Igandetako aparia ere berak gertatzen digu, jai-arratsaldeak zukaldariari jai ematen zaizkio-ta.

Onelaxe, famili eder bat bezela, bakoitzak al duena egiñaz eta alkarri lagunduaz, alkar-maitasun gozoan bizi gera, Jaungoikaoren pakean [...].

Apostolautza.

Komentu barruko bizitza, Karmel-legeen araura al danik zintzoen bizitzen alegintzen gera. Ortik aurrera, erriari begira, ona gure zeregiñik nabarmenenak: Egunero: 6, 7, 8, 9 eta illuntzeko 8'tan esaten ditugu mezak. Bederatzitakoa erdaraz, beste guztiak euskaraz. Illuntzeko meza aurretik, urtearen egun guztietan, errosario santua errezatzen da. Gure moja Karmeldarren Kapellautzia ere, goizeko zortziretan meza, gure kontu dago.

Jai-egunetan: Goizean 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12 eta laurenetan mezak. Illuntzean, 8'tan. Goizeko 8 ta 12'15'etakoa, eta 10 (umiena) (amabostean bein) erdaraz esaten dira. Beste danak euskeraz. Meza onek guztiak kantuz egiten eta oarkari edo laguntzalleaz. Jenteak dionez, atentzioa ematen du, batez ere, amaiketako meza nagusiak. Onez gañera, jaiero, mojen meza abestua 8' tan eta Iturreta'koa 10'tan. Madariaga'ra ere (Gipuzkoa'n, Azkoiti'ko auzune bat) illean bein, edo geiagotan joan oi gera. Laugarren domeketan jakiñekoa izaten da.

Etxetik kanpora, edozenbat zeregin izan da maiatz eta (garagarrillean) bagillean: gañ-gañetik emen batzuk aitatu: Nik, komentu ontako albistari naizen onek, etxetik kanpora denpora-aldiak pasatu bearrea izaten det, gogo-jardunak ematen eta abar... Orregatik nere asmoak asmo-uts geratu dira etxeko jazoera nagusien gorabera jarraitu ezin dedalako, eta gertakizun askoren berri eman ezin.

Ala ta guztiz, urrengo jartzen ditudan, eta kanpora bialtzeko egiñak izan ziralako erdaraz dauden bi txosten auek, garai auetan Markiña'n egin izan dan ainbeste lan eta beste gauza asko adieraziko dute[1051].

Sin pretender entrar en detalles acerca del apostolado vario a que está dedicándose la Comunidad de Marquina y contentándome, por hoy, con solo la enumeración de sus principales actividades:

a. Asistencia a religiosas: Aparte de diversas tandas de ejercicios, charlas, etc. a lo largo del año; dirección habitual de Comunidades de Madres y Hermanas

[1051] Hemen amaitzen da euskarako testua. Eta aurkezten dudan testu luzearen azkenaldian berriro jarraitzen du testuak euskaraz.

Carmelitas Misioneras, Teresianas, etc., de Mercedarias, de Agustinas, de Hijas de Jesús, de Hijas de la Cruz...

b. Profesorado en tres colegios, dos de segunda enseñanza y uno de primaria.
c. Ministerio de Ayuda Parroquial en pueblos de Vizcaya y algunos de Gipúzcoa.
d. Predicación de triduos, novenarios, misiones y ejercicios cuaresmales.
e. Apostolado de la pluma, en vascuence y castellano, sobre todo en nuestras revistas.
f. Delegado de Vocaciones carmelitanas para Guipúzcoa y Vizcaya.
g. Dirección de la HOAC, de una sociedad cultural, de un colegio-bilingüe, etc.
h. Esmerada atención al culto de la propia iglesia a nuestras organizaciones.

...Y después de recordar que tenemos hasta un Padre «obrero» dedicado al trabajo manual en la construcción y reparación de órganos; paso, sin más al tema de las presentes líneas:

En la circular que el Presidente de la CPA (Comisión Permanente de Apostolado) dirigió en octubre pasado (1969) a todas las casas de nuestra Provincia, en el apartado *«IV.Pastoral de Conjunto»*, y tras de citar el *«De Apostolatu, 93»* de nuestros Decretos, se hacía la siguiente pregunta: ¿Se ha hecho algún intento en la vida apostólica la estupenda consigna del Capítulo General?

He aquí una breve relación de los primeros tanteos de pastoral de conjunto que, en plan muy modesto pero ciertamente eficaz, se vienen realizando en la comunidad de Marquina:

— Desde hace ya dos años en que dos párrocos de nuestra comarca, respondiendo a la llama del Papa en la *«Populorum progresio»* decidieron salir para Hispanoamérica con el fin de dedicar temporalmente sus esfuerzos en pro de aquellos pueblos: nuestra Comunidad se comprometió a prestar gratis cuantos servicios solictara el Sr. Arcipreste en orden a esas parroquias hasta el regreso de sus respectivos párrocos.

Hace algo más de un año se empezó a celebrar en nuestro convento el retiro mensual de todos los sacerdotes de la zona. La Comunidad hace con ellos el retiro en el que, aparte de las dos pláticas y el canto de sexta (todo ello en euskara) se proponen y discuten diveros proyectos pastorales, se plantean problemas, se unifican criterios de acción apostólica, etc. Comida fraternal en el refectorio de la comunidad, para continuar en una sabrosa sobremesa en la que se intercomunican y comentan diversas e interesantes noticias a nivel diocesano.

(Desde este mes, escrito en diciembre 1969, debido a que los arciprestazgos de Marquina y Lequeitio han sido fusionados en una única zona pastoral, los retiros de mes tendrán lugar en Lequeitio y Marquina alternativamente, pero asistiendo dos o más Padres de los nuestros aún cuando se celebre en Lequeitio).

— Quizá podría encajar asimismo dentro de este espíritu de pastoral de conjunto, el dato de que un Padre de la comunidad, comisionado por la diócesis, haya estado acudiendo a las reuniones de traducción de la nueva liturgia de la misa al vascuence,

que las distintas comisiones diocesanas de Bayona, Pamplona, San Sebastián y Bilbao suelen celebrar semanalmente en el Seminario donostiarra.

— Y, concretándonos a sólo el pueblo de Marquina, todos los sábados tienen lugar unas simpáticas reuniones, verdaderas mini-asambleas del pueblo de Dios, en las que curas, religiosos nuestros, monjas mercedarias y seglares de ambos sexos discuten sobre diversos aspectos pastorales, litúrgicos, sociales, etc....

Como frutos inmediatos de dichas reuniones, tenemos:

1. La «semana de orientación litúrgica» que tuvo lugar en los últimos días del pasado noviembre; aparte la catequesis acerca de la última reforma de la misa, que se había dado ya en todas las iglesias de Marquina durante cinco domingos consecutivos.
2. Una comisión compuesta de un religioso nuestro, una mercedaria y varios seglares, que se encarga de preparar los monitores y lectores que han de actuar en las diversas misas dominicales y festivas de cada una de las iglesias de Marquina. Cuentan para ello con un equipo mixto de más de cuarenta voluntarios.
3. Además, otra comisión (Parroco, Prior, Mercedaria y Seglares de ambos sexos) se encarga de presentar un esquema orientador de la línea que debiera seguir la homilía del siguiente domingo.

En el esquema definitivo se perfila en una reunión posterior, en nuestro convento, entre curas y frailes solamente.

Pequeños y modestos tanteos, como ven pero por algo se empieza.

No quedó ahí la cosa. Estos primeros balbuceos fueron madurando poco a poco hasta la creación de un verdadero Consejo Pastoral Parroquial (octubre de 1971). No me detengo en dar más detalles acerca de este Consejo Pastoral y las obligaciones (no aprobadas por algunos miembros de la comunidad) que de ahí surgieron para nuestros Padres y para nuestra iglesia. Me remito a la correspondencia habida con la autoridad competente sobre este asunto y que debe existir en el archivo conventual. Dejo así este punto por la razón dicha anteriormente, que por mis frecuentes ausencias debidas al ministerio desarrollado entre religiosas, no he podido ser testigo de los sucesos que podrían figurar en estas crónicas.

Orain (epailla 1972), aita Jenarok bere Prioretza bukatzeko orduan, alegia, ia asierako komunidade berdiña gaude, praille berrien bat edo beste geiago degula. Orain iru urte bezelaxe, azkenean ere bakoitzaren berri labur bat eman dezagun. Praile bakoitzaren berri labur au Gazteiz'era, Kapitulo egunetan egiteko dan era-kusketarako gertatu dedan txosten berdiña da. Orregaitik dijoa erdaraz:

'Mns. Ambrosio Abasolo: De seguro que muchos no habían caído en la cuenta de que el convento de Marquiña es nada menos que «sede episcopal». Aquí está Mns. Ambrosio, 67 años. Humilde, sencillo, alegre. Hoy es un religioso más de la

Comunidad, disfrutando del bien merecido descanso después de sus 41 años de servicio a las misiones de la India».

Eta kronikek hirurtekoaren hasieran egindakoaren arabera pertsonalaren eta bakoitzak duen iharduerari buruzko berriak ematen jarraitzen du.

c. Apostolutza-konpromezuei buruzko datu batzu eta elizbarrutiarekin lankidetza.

Aurkeztutako 1969-1972. urteetako kroniketako testu luze honetan ikus daitekeenez oso garantzitsuak izan ziren apostolutzari emandako bultzada eta parrokiarekin izandako harremanak; ondorioz, hirurteko honetan eta jarraikoetan Karmengo komentuak konpromezu batzu hartu zituen Markinako parrokiako eta eskualdeko pastoralgintzan: konpromezu horiek Markinako parrokia eta Karmengo etxearen artekoak zein beronen edota Karmeldarren Probintzialaren eta apezpikutzaren artekoak izan ziren. Hain zuzen re, lankidetza konpromezu horiei buruz ditugun idazkiak oinarritzat hartuz egingo dut laburpen hau.

1970.eko abuztuaren 28an, Pastoralgintzarako Bikario Nagusi zen Jose Angel Ubieta Jnak, Markinaldeko apaizek Pastoralgintzako sektore horretan baterako zerbitzu pastorala eskaintzeko eginiko proiektuaren oinarrizko puntuak bidali zizkion Markinako Prioreari.

Egin nahi zen apaiz-taldeak, bere ardurapean Markina, Etxebarria, Barinaga, Bolibar, Ziortza eta Amalloako parrokiak eta beste baseliza batzu eta komentuetako elizak hartuko zituen. Talde hori hainbat apaiz diozesiarrek eta bi edo hiru Karmeldarrek osotuko zuten..., eta iharduketa-arau batzu ematen ziren[1052].

Aita Jenaro Larruskain Prioreak, bere eretzitan ez zela hain erraza lakindetza hori erantzun zion; Komunitatean aldeko giroa zegoela, baina, zer batzu zehaztu behar zirela, horretarako bilera bat egin zitekeela[1053]. Aita Jose Francisco Ibarmia de la Virgen del Carmen Probintzialak, Markinako lankidetza proiektua zela eta bere atsegina jakinerazi zion José María Cirarda apezpikuari; eta Vatikanoko II. Kontzilioko (P.C.9) bideei jarraituz Karmeldarrek euren parrokia lana bakarrik komentuko elizan eta komunitateko Aita Karmeldarrek lagunduta egin behar zutela uste zuela... Baina, zerbitzuak eskaini ahal zituztela eskualdeko beste eliza eta parrokietan[1054].

José María Cirarda apezpiku Jnak 1970.eko abenduaren 31n gutun bat idatzi zien Markinako apaiz-taldeko apaizei, xehetasun batzu eginez eta taldekako lan hori egiteak izan behar zituen baldintzak jarriz:.

Gorago aipaturiko parrokiei zerbitzuak eskaintzeko: 6 apaizek eta 2 karmeldarrek (Aita Jenarok eta Aita Luis Baraiazarrak) hartuko zuten parrokia erantzunkizuna:

[1052] MKA, B-X-9.
[1053] MKA, B-X-14.
[1054] GPKA, Markina 3, 1970-X-12ko gutuna (MKA, B-X-8,c.

- Etxebarriko San Andres: parroku, Bernardino Barrutia jauna eta laguntzaile, Juan Vicente Gallastegui jauna.
- Barinaga: parroku, Juan V. Gallastegui jauna eta laguntzaile, Bernardino Barrutia jauna.
- Bolibar eta Ziortza: parroku, Francisco Garroguerricaechevarria eta laguntzaile Aita Luis Baraiazarra.
- Amalloa: arduradun,Julian Olazabalaga jauna.
- Markina-Jemein: parroku Benito Anzola jauna eta laguntzaileak Aita Jenaro larruskain, Jesus Oar-Arteta jauna eta Julian Olazabalaga jauna.
- Guerena: arduradun, Juan Vicente Gallastegui Jna.

Saialdi honek hiru urtetako iraunpena izango zuen, ibileraren arabera, arazoaren berrikusketa bat egingo zela 1972.eko udaberrian[1055].

Baina hiru urtetara egiteko zen berrikusketa 1976. urtera arte atzeratu zen. 1976.eko martxoaren 12an, José Angel Ubieta, Pastoraltzako Bikarioak Komunitatea bildu zuen hilabete bereko 17ko bilera gertatzeko; egiatan egun horretan egin zen bilera inolazko konponbiderik gabe amaitu zen. Berriro bildu ziren ekainean: bi helburu zituen: 1. Apaiz-taldekoa zen apaiz diozesiar baten eta komunitatearen artean sortutako arazo batzu konpontzea. 2. Apezpikutzaren eta Komuniatearen artean, baterako pastoralgintza egiteko asmotan hiru urtetarako egina izan zen hitzarmena berriztatzea[1056].

1976.eko urriaren 5ean egin zen bilera Karmengo etxean José Angel Ubieta Jnarekin: honakook bildu ziren: Benito Anzola, Julian Olazabalaga, Karmelo Arrizabalaga eta Andoni Pérez apaizak eta Komunitatearen ordezkapenean Jenaro Larruskain, Tomas Zugazartaza eta Fabian Juaristi (priorea) Karmeldarrak. Helburutzat sortutako arazo batzu, batez ere, ekonomikoak konpontzea zuten; karmeldarrek, beren zerbitzuak ez zirela behar adina ordainduak uste zuten eta Pastoraltzako Bikarioari nomina bat gehiago eskatu zioten, hark eskariari, horretarako eskumenik ez zuelako, ezezkoa eman ziola. Bilerak ez zuen irtenbiderik izan, bikarioak, Karmeldarrei Kontsultarik egin gabe apezpikutegian gertatutako planak ezarri nahi izan zituelako. Aita Fabian Juaristi kronistak kontaketa irriz-mirriz amaitzen du: «zeuden arazoak konpondu gabe utziz eta beraren jokabidez apaiz-taldeko apaiz batzuren eta komunitatearen arteko zatiketa arazoa sakonduz, bete-bete eginda joan zen 'arazo guztiak konponduta geratzen dira' esan ondoren»[1057].

Egun batzu barru, urriaren 4ean, Antonio Añoveros Bilboko apezpikuak Markinako Prioreari Barinagako parrokiako eta Iturreta auzoko pastoraltza ardura eman zion[1058]. Eta hurrengo egunean José Angel Ubieta Jnak Prioreari, Aita Jenaro La-

---

[1055] MKA, B-X-8,d (fotokopia).
[1056] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 138.orr.
[1057] IBd., 142.orr.
[1058] MKA, B-VIII-28.

rruskain apaiz-taldeko kide izendatu eta Aita Fabian Prioreari Barinagako parrokiaren eta Iturretako auzoaren ardura ematen zizkion proposamena bidali zion, era berean, aurreko eguneko agiria bidaliz. Horretaz gainera, beharrezkotzat jotzen zuen harremanak eta hitzarmen ekonomikoa eguneratzea[1059].

Aita Prioreak komunitatearen izenean, bi aste geroago erantzun zion proposamenak atsegin handiz onartzen zirela esanez. Aita Jenarok ere pozik onartu zuen izendapena. «Komunitateak ikusirik Parrokian, batez ere gaisoei laguntza ematen egiten zuen lan ona, begi onez ikusi zuen eta onartu ordurarte bezala apaiz-taldean lanean jarraitzea»[1060].

Aita Jesús Zuazua Probintzialak, aldez aurretik Probintziako Nagusiari kontsulta egin gabe Barinagako parroku izendatzea zela eta, harridura agertzen zion apezpikuari. Hala ere, karmeldarrak elizbarrutiarekin ihardute horren alde agertzen zen[1061]. Bi aste geroago erantzun zion Antonio Añoveros apezpikuak, era berean, pastoraltzako Bikarioak Markinako Prioreari bidalitako gutuna bidaliz; eta Aita Probintzialari arrazoia emanez eta «lapsus» hura barkatzeko eskatuz eta, baita ere, lankidetzan iharduteko agertzen zuen borondatea eskertuz[1062].

Bi urte geroago, 1978.ean, berriro agertu ziren diferentzia ekonomiko txiki batzu, Prioreak zeregin edo zerbitzu berrien ordez zegokien ordain ekonomikoa eskatzen zuelako[1063]; eta José Angel Ubieta Bikario Nagusiak Aita Jenaro Priore berriari proposamen berriak egiten zizkion 1978.eko uztailaren 1eko gutunean[1064].

Hurrengo urteetan lehenean jarraituko zuten arazo ekonomikoek, horrela, esaterako, 1980.ean[1065], 1984[1066]...

Aita Leon Aranguren karmeldarrak pastoraltza taldean elizbarrutiaren zerbitzuan zihardueu, baina, beraren adinaren eta osasun ezaren zioz ez zuen jarraitzerik; eta Juan María Uriarte, apezpiku laguntzaleak Aita Probintzialari idatzi zion 1981.eko irailaren 15ean, beraren ordezko izateko eta Aita Jenarorekin batera pastoraltza iharduera horretarako beste apaiz karmeldar baten izena eskatuz[1067]. Aita Domingo Fernández Probintzialak, arazoa Markinako komunitatearekin aztertuko zuela erantzun zion[1068]. Eta, hala, Aita Joseba Zubikarai-k ordezkatu zuen Aita Leon Barinagako parroku zereginetan 1982.eko urtarrilean[1069].

Baina Karmengo komentuko pertsonalaren egoerak goitik beherantz egin zuen, erlijiosoak, batzu zahartuta eta beste batzu gaisorik zirela, gutxitu egin zirelako.

[1059] MKA, B-X-10.
[1060] MKA, B-X-11, 1976-X-28ko gutuna.
[1061] GPKA, Markina 3, 1976-XI-3ko gutuna.
[1062] GPKA, Markina 3, 1976-XI-18ko gutuna.
[1063] MKA, B-X-12, 1987-IV-18ko gutuna.
[1064] MKA, B-X-15.
[1065] MKA, B-VIII-27.
[1066] MKA, B-XI—17; B-XI-18; B-IX-18,b; B-XI-19...
[1067] GPKA, Markina 3.
[1068] GPKA, Markina 3, 1981-X-1eko gutuna.
[1069] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 182-183.orr.

Horrela, 1984.eko urrian, apezpiku-bikariatik apaiz-talderako karmeldar bat eskatu zenean[1070] Aita Domingo Probintzialak, ezinezkoa zela laguntza hori ematea erantzun zuen Komunitateko pertsonalaren egoera txarra areagotu egin zelako[1071].

Egiatan, gutxitu egin zen komunitateko pertsonen kopurua, gaur egun, 1991.ean, eguneroko bizitzan bost erlijioso baino ez direlarik, 1972.ean, esaterako, 12 zirela edota 1978.ean, oraindik 11.

6. Konponketak eta apainketak. Organo berria

Markinako Karmengo etxearen historia barruko azken lau hamarkadatan komentuan izandako apainketa eta konponketa ezberdinak eta ugariak azaltzerik ez dugunez, bakarrik kroniken Liburuko berriak jasoz gainbegiraketa labur bat egingo dugu; aparteko arretaz gogora ekarriko dugu organoaren konponketa.

a. Konponketak eta apainketak (1949-1990)

— 1949.ean komentuko batzarrak komentuko horma hondatuak konpontzea erabaki zuen eta urte bereko ekainaren 30ean Muñoz Markinako enpresariak hartu zuen obren ardura. Urte bereko azaroan bukatu ziren. Era berean, teilatua ia osorik konpontzeko erabakia ere onartu zen[1072].

— Aita Pedro María de S. José Priorearen hirurtekoan (1954-1957) organo berriaz gainera, konponketa berriak egin ziren, esaterako, zerbitzu berriak (komunak, dutxak, konketak), geletako berogintza, logela aurreko klaustroa zuzen jartzea, etab. Lauza jarri zen jantoki aurreko klaustroan ere. Ortuko goikaldean ur-putzu bat egin zen ortua udan ureztatu ahal izateko. Era berean, Kanpo Santua berriztatu zen. Profesio eginberrien ikastetxean gela guztietako ormak eta komun guztiak konpondu ziren[1073].

— 1958.ean amaitu zen Kanpo Santuaren konponketa. 1957-1960. hirurtekoan erropen garbigailua eta zegokion lehorgailua, biak elektrikoak erosi ziren; 1959.ean gertatu zen, horretarako lekua, antzinako komun bat kendu eta ormak zuritu eta pintatuz. Bigarren azotea ere konpondu zen, zurezko zolua aldatu zitzaiolarik (1959). Eliz jantzi berriak eskuratu ziren; eta, kanpai berriak ere bai[1074].

— Hurrrengo hirurtekoan (1960-1963) kanpaiak joteko eskuzko ohizko era utziz, instalazio elektrikoa ezarri zen; osorik konpondu zen Kanpo Santua eta beheko frontoi

---

[1070] GPKA, Markina 3, Jose María Rementeria Jnak 1984-X-25ean Aita Probintzialari eginiko gutuna.
[1071] Ibd. 1985-II-14eko gutuna.
[1072] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 22-23.orr.
[1073] Ibd. 34-43.orr.
[1074] Ibd. 47-48, 51-52.orr.

txikia ere bai; azaleztapen gaiak erosi ziren eta urte pare batetan 500 liburuki azaleztatu ziren. Bozgorailuak jarri ziren elizan; eta, azkenean, jantokia eta sukaldea berriztatu ziren. Era berean, ostarien gelak eta alboko erizaindegi berria etab. ere konpondu ziren[1075].

— 1963-1964.eko ikasturtean ikasleek obra berriak egin zituzten, nabarienak biblioteka eta oilategia izan zirela. 1964.eko abenduaren 8an eman zitzaion hasiera elizako berogintzari[1076].

— 1967.ean egin zen ikasgela berria eta ikasleentzako jolas-zelaia. Kapera bat egin zen lehen batzargela zen tokian.

— 1978.ean, Komunitateak, komentuko eta elizako teilatuen egoera penagarriaz kezkatuta, obra hastea erabaki zuen. Gastua hain handia izanik, lehenengo elizako teilatua konpontzea pentsatu zen, egoera larriagoan zegoelako. Baina kontratistak 1.000.000 pezetatan egitea pentsatutako konponketa arruntaren edo erreteilaren ordez, teknikari gaituek ez zela nahikoa erreteila hutsa uzte izan zuten, lata gehiena oso hondatuta zegoelako. Eta guztizko konponketa egitea erabaki zen. «Cunchillos-Leache, S.A.» etxeak 3.600.000 pezetatako aurrekontua aurkeztu zuen; baina komunitateak 5.000.000 ptatara helduko zela susmatzen zuen.

1979.eko otsailaren 20an hasi zen obra. Ekainean amaitzeko unean zegoen, baina geratu egin zen elizaren kanpokaldeko horma pintatzeko eta horretarako hormak lehortu arte itxaron beharra izan zen. Pintaketa abenduan egin zen. Guztira, 5.502.660 pta kostatu zen.

Gastuei aurre egiteko ekarpenik handienak honakook izan ziren: Markinako herriak 955.650 pta. Probintziako Kontseiluak 500.000 pta. Karmeldarren Komentu ezberdinek eta Markinatik kanpoko pertsona batzuk 589.096 pta. Moja Karmeldarren komunitate batzuk 192.000 pta eta Karmengo komentuko Pragako Ume Jesusen kofradiak 91.661 pta; guztira 2.329.307 pta. Gainerako kostu guztien erantzunkizuna Karmengo komuniateak hartu zuen bere gain.

1981.eko urrian, 32 urte ingurutan berriztatu gabe egoniko komentuko teilatuaren erreteila hasi zen. Kostua 2.033.355 pezetatakoa izan zen[1077].

— Maitzaren 1ean, eliza eta Markinako kale ondoko plazaren zoladura obren zabaltzea egin zen; Obrak Eusko Jaurlaritzak eta Diputazioak ordainduak izan ziren[1078].

Azken urteotan, bestalde, obra garrantzitsuak egin izan dira, hala nola, elizan (1988) eta komunitatean (1989) berogintza jartzea; 1989.ean konponketa handiak egin dira eliza barruan: megafonia aparailu berriak, aldare-aldeko konponketak, eliza-pintaketa, etab.

[1075] Ibd. 55-58, 65.orr.
[1076] Ibd. 70-71,74.orr.
[1077] Ibd. 161-165, 169-170, 174-175, 182-191.orr.
[1078] Ibd. 192-193.orr.

b. **Organoa**

1957.ean, Aita Pedro María Duñabeitia organista priore zela egin zen organoaren berriztaketa, bultzatzailerik handiena hainbat urtetan prioreorde eta organista izandako Aita Emiliano del Niño Jesús izan zelarik.

Baina aurretiko gisa, Karmengo organoari buruzko datu batzu gogora ekar ditzakegu. Lehenago esan dugu Frantseste garaian bertako organoa Mundakakoek erosi zutela 17.500 errealetan[1079].

Baina esklaustrazio (frantseste) ostean, 1813.ean komentura itzuli ondoren, berriro eskuratu zuten 1816.ean organo bat[1080].

Organoari buruzko hurrengo berri hau 1898.ekoa da; Aita Maximo de la Purísima Concepción karmeldarrak Aita Ezekiel Probintzialari idatzi zion, Bartzelonara joateko zenez abagadunea erabil zezala Amezua organogile Jnarekin hitz egiteko eta Markinako Karmengo organoa guztiz desafinatuta zegoela eta bera edo beste norbait konpontzera etor zedila esateko[1081].

Organoa, neurri erregular eta materiale onekoa, 1929.ean egin zuten elektrikopneumatikoa. Baina, gerra zibilean, bonba edo obus batek jo ondoren matxuratuta eta neurri handi batetan hondatuta geratu zen, nola edo hala martxan jartzea lortu bazen ere[1082].

Aita Emiliano, 1942.etik prioreorde eta organista zenak organoaren konponketa zuen amets gozo. 1947.ean gutun bidezko harremanak izan ziren Juan Braun organo konpontzaile-egilearen eta Aita Pedro María de San José (orduan Villafranca-n zegoen) karmeldarraren artean: Braun ordurako harremanetan ari zen Larrea, Markina eta Donostiako (Amara) organoak konpontzeko[1083]; Braum Jna eta Aita Emiliano harremanetan hasi ziren 1948.ean; eta Markinara etorriko zela esaten zen[1084].

Fondo ekonomikoak behar ziren. Aita Emilianok sentimenduzko metodo familiarra erabili zuen: 1951.eko abuztuan, Aita Amalio de San Luis Gonzaga probintzialak baimena eman ondoren, 1934-1942. urteetan Iruñan ikasle izan zituenei idaztea erabaki zuen; hainbat, 1951.eko datan, Euskalerriko zein Ameriketako komentuetan karguetan aurkitzen ziren; eta dirulaguntza eskatzeko atxakiatzat bere apaizgoaren 25. urtemuga ospatzea hartu zuen[1085]. Oso erantzun oparoa jaso zuen; kroniketan organoa konpontzeko zerbait eman zuten ehun bat erlijiosoren izenak ageri dira[1086].

[1079] MKA, A-I-70, *Apuntaciones...*, 26.orr.
[1080] MKA, A-XVIII-2.
[1081] MKA, A-XVIII-2 (1).
[1082] EMILIANO DEL NIÑO JESUS (BARANDIARAN), *Renovación e inauguración del órgano*, BOPSJN 3 (1958, 37.zkia) 234.orr; MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 6.orr.
[1083] MKA, A-XVIII-2(3), Braun Jnak Aita Pedro María fraideari 1847-VII-3an eginiko gutuna.
[1084] MKA, A-XVIII-2(3), Braun Jnak Aita Emiliano fraideari 1948-XI-24ean eginiko gutuna.
[1085] MKA, A-XVIII-2(1); EMILIANO DEL NIÑO JESUS (BARANDIARAN), *Renovación...*, 234.orr.
[1086] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 39-43.orr.

Aita Emilianok sortutako interes eta ardura zabalaren ezaugarritzat, Aita Angelo de la Sma. Trinidad aramaioarrak, bere aldetik, beharrizana azalduz Txileko komentu guztietara idatzi zuela esanez Aita Emilianori emaniko erantzuna aipa dezakegu[1087].

Nahikoa laguntza izango zela ikusirik aurrekontua egin zen Alemaniako Walcker Etxetik materiale elektriko eta magnetiko berriak ekartzeko eta Kontsola eta Erregistroen sistema igortzailea guztiz berriztatzeko.

Walcker Etxearen Espainiako (Bartzelona) teknikari aparteko Juan Braun, ospe handiko organari alemaniarrak egin zituen organoaren desmuntaketa, garbiketa, berriztaketa eta handiagoketa zein berriro jarri eta doitzea. Aita Honorio laguntzaile fina zuela; honek une honetan eta geroago eginiko lana neurtezina izan da[1088].

1957.eko uztailaren 18an egin zen inaugurazioa ospe handitan; ekintzen egitaraua zabaldu zen[1089]. Meza, organo berriaren soinu artean eskaini ondoren Aita Bernardino del Niño Jesús Probintzialak bedeinkatu zuen eta jarraian izan zen inaugurazioko kontzertu nagusia, Manuel Azkue organista gazte trebeak J.S.Bach, C.Franck, L.Larramendi, L.Vierne, G.Litaize eta C.Chaiz musikagileen obrak jo zituela[1090].

26 urte geroago, 1986.ean, organo ederraren konponketa eta garbiketa egitea pentsatu zen, 1983.ean laguntza eskatu zitzaiola Bizkaiko Diputazioari[1091]. Diputazioak *«Euskal Herriko Organo Lagunen Elkartea»* deritzanaren bidez, Bizkaiko Batzar Nagusietako kide zen Augustin Zubikarai Jnari 500.000 pta. eman zizkion organoaren konponketarako[1092].

Azpeitiko «Calvano-Bernal Organeros» deritzanak organoa konpondu eta egokiro afinatuta uzteko eginiko aurrekontua 786.000 pezetatakoa izan zen[1093]. Ordainketa 1986.eko maiatzaren 9an (262.000 pta) eta urte bereko ekainaren 14ean (524.000 pta) egin zen[1094].

1087 MKA, A-XVIII-2(6), 1951-X-4eko gutuna.
1088 EMILIANO DEL NIÑO JESUS (BARANDIARAN), *Renovación...*, 234.orr.
1089 MKA, A-XVIII-2(8).
1090 *MKA, A-XVIII-2(9).*
1091 MKA, A-XVIII-2(10) Aita Ignacio Olaizola Priorearen 1983-XII-24eko gutuna.
1092 MKA, A-XVIII-2(10) Anton Juaristi Jnak Markinako prioreari 1985-X-24ean eginiko gutuna.
1093 Ibd., 1985-XII-14eko gutuna.
1094 Ik. bi errezibu MKA-n, A-XVIII-2(10).

III

JABETZAREN HISTORIA KOMENTUA, ELIZA ETA ORTUA

Karmengo komentua, eliza eta ortuaren jabetzaren historia nahikoa nabarmena eta gorabehera handikoa izan da. Eragozpen guzti horien iturbururik nagusiena XIX. mendearen erdialdean Gobernu liberal-iraultzaileek aurrera eramandako harrapaketa izan zen, geroago hainbat salerosketa ahalegin, itxura hutsezko erosketak etab. egin izan direlarik.

Jabetza berreskuratzeko azken ahaleginean Aita Higinio Gandariasek (oraintsu hil denak) agiri guztien bilketa lortu zuen, jabetzaren ibilbidearen azalpen laburra eginez, azkenean, ondorio gisa, betirako gozamenean emaniko ondasunak osozko jabetzara itzuli beharra gogoratuz; lan hau 1976-1977. urteetan zehar burutu zuen eta Nafarroako S. Joakin Probintziako Gasteizeko Karmeldarren Artxiboan aurkitzen da.

Kapitulu hau hiru ataletan banatuko dugu, aipaturiko hiru jabetzek, hots, komentuak, elizak eta ortuak, beraien jabeek ezberdinak izatean, ibilbide historiko ezberdina izan dutelako.

A. KOMENTUA: BERAREN JABETZA ZIBILAREN BILAKABIDEA

1. Aurretikoak

Markinako Karmengo komentuaren fundazioa 1691.eko urtarrilaren 31an egin zen data horretan egindako emate eskritura bidez, eta etxe-hartzea bi egun geroago, otsailaren 2an. Fundazioa Ignacio de Munibe y Axpe Ziortzako abatearen eskuzabaltasunezko dohaintzen bidez egin zen. Jarraian, mende luze oso bat baino luzeagoko epean bakean bizi izan ziren bertan Karmeldarrak, behin eta berriro Markinako Udaleko hainbat agiritan errepikatuz irakurri izan dugunez, Markinako hiriari eta inguruko eskualde osoari izpirituzko onura ugari ekarriz.

Komentuaren bizimoduan eta jabetzaren historian gertatu zen lehen ikaraldia frantseste garaian izan zen. 1809.eko urriaren 14ean kentze dekretuaren eraginez komentua utzi behar izan zuten erlijiosoek eta komentua koartel bihurtu zuten. Eta ezin izan zuten berriro bertaratu 1813.eko abuztuaren 17a arte. Aita Bartolomé de Santa Teresa sartu zen lehenengo bertara. Komentuak izan zituen hondaketak konpondu eta bertan bizitzen jarraitu zuten erlijiosoek. Ortua eskuratzeko arazo batzu izan ziren, frantsestean zehar bidegabekeriaz erabili zuten Pedro Aguirre Sarasua eta Juan Pradea jaunek berenganatu nahi izan zutelarik; baina Diputazioak Karmeldarrei itzuli zien 1813.eko irailaren 17an[1].

Karmeldarren jabetzak jaso zuen zartadarik handiena, 1835 eta 1836. urteetako desamortizazio dekretu eta legeen bidez etorri zen: 1839an, Markinako udalaren 1839.eko irailaren 18ko batzarraldian irakurri zen Seigarren Dibisioko komandante

[1] MKA, A-I-70: FRAY BARTOLOME DE S. TERESA, *Apuntaciones...*, 33.orr.

jeneralak komentua kentzeko eta bertakoak kanporatzeko aginduz irailaren 16ko datan emaniko agindua[2]. Horrela Gobernuak oso-osoan lapurtu zituen Karmeldarren ondasunak.

2. Jabetzaren geroagoko bilakabidea eta karmeldarrek berreskuratzeko eginiko ahaleginak

Esklaustrazio-aldiko urteetan zehar komentua zeregin ezberdinetarako erabilia izan zen. Udalak 1845. urteko ekainean, Gobernuak komentuaren gozamena ospitale eta lehen heziketarako eskola bihurtzeko bere esku uztea lortu zuen[3]. Baina bertan, goardia zibilen destakamendu bat ere egon zen[4]. Karmengo elizan neurri batetako liturgia iharduera eskaintzen zen. Baina ortua, ikusiko dugunez, Peñafloridako Kondearen eskuetara heldu zen.

a. Jabetza

Hainbat izan ziren Erlijiosoen Ordenak desagertzea ekarri zuten legeak. Garrantzitsuena 1837.eko uztailaren 29koa. Une horretatik aurrera, legezko xedapenen indarrez, beraien ondasunak Estatuaren jabetza izatera aldatu ziren, trukean ezer ordaindu gabe. Aginte zibilak 1839.eko irailaren 18an kendu zuen formalki Markinako Karmeldarren fundazioa, erlijiosoak komentua uztera behartuz. Horrela Estatuaren ondare izatera iragan zen.

1851.ean Espainiako Estatuak eta Aulki Santuak Hitzarmen edo Konkordatu bat izenpetu zuten. Bertako 35 eta 38. artikuluetan lehenago konfiskatuak izan ondoren, salduak izan ez zirelako eta, beraz, beste pertsona batzuren eskutara aldatu gabe aurkitzen zirelako oraindik Estatuaren eskumenean aurkitzen ziren ondasun guztiak Elizari itzultzea hitzartu zen. Konkordatu honen xedapenen ondorioz, eta bestelako formalitaterik gabe, Markinako udalari gozamenean utzia izan zitzaion Markinako komentua berriro Karmeldarren ondare izatera itzuli zen. 1860.eko apirilaren 4eko Hitzarmen Gehigarriko 4. artikuluak, berretsi egin zuen egoera hura: «zuzenbide berberaren indarrez, Maiestate Gorenaren Gobernuak Konkordatuaren bidez itzuliak izandako ondasun guztien eta bakoitzaren jabe absolutua aitortzen zuen Eliza»..

1851.eko Konkordatuan ezarritako salmentarako aurrikusmenak edota 1860.eko Hitzarmen Gehigarriko trukerakoak ezin ziren komentuari aplikatu, une hartan zeregin soziala egiten iharduteak ezinezkoa egiten zuelako trukaketa edo salmenta enkante publikoan egitea zein Elizari berehala itzultzea. Era berean, gainera, Hitzarmen Ge-

[2] MUA, *Libro de decretos... 1834-1859*, 78r-78v.
[3] BAS, 26 /r.
[4] MUA, "*Asuntos tocantes*"... paper-sorta, 1945-II-6ko agiria.

higarriko 6. artikuluko lehen lerroaldearen amaieran aipatzen diren trukaketaren menpe ez izateko zioak hari-harian ezarri zitzazkion kasu honi 1868.ean. Karmeldarrek, horrela, komentuaren gozamena eskuratu zuten, era berean, jabetza eta erabilera gaur egun arte batera izanik.

b. **Gozamena**

Espainia osoan lehena izan zen Markinako komentuaren Berreraikuntza lortzeko burututako ahalegin handian zehar, hainbat dekretu eta lizentzia ezberdinak lortu behar izan ziren Markinako Karmeldar bizimodua berreskuratzeko. Horrela, Cándido Gaytan Villafranca-ko Konde Jnaren eta beste adiskide batzuren laguntza handia erabiliz, eta negoziazio neketsu luzearen ondoren, Itsasoz-bestalderako Karmeldarren ikastetxea ezartzeko lizentzia ematen zuen 1868.eko maiatzaren 7ko Itsasoz-bestaldeko Ministeritzaren dekretua lortu zen[5].

Baina agiri hark ez zuen ezer esaten Markinako komentuari buruz. Lehenengo Lazkaoko komentua berreraikitzea pentsatu zen, baina azken orduan, ustekabean bertako jabe zen Valmediano-ko Markez Jnak ezetza ematerakoan, Markinan egiteari ekin zioten..

Orduan izugarrizko laguntza eman zuen Markinako udalak Markina hiriko Karmeldarren komentuaren berreraikuntzarako, barruan zeuzkan osasun zerbitzuak, eskolak eta koartela komentutik ateratzeko gertu agertu zela.

Ikus ditzagun agiririk garrantzitsuenak. Aita Santu Pio IX.ak Kanpo Arazoetarako Kongregazio Sakratuaren 1968.eko ekainaren 5ean fundazioa egiteko bideak ireki zituen 1600.eko agiri ospetsuak suposatzen zuen eragozpena kenduz[6].

Hurrengo urratsa Gasteizeko apezpikuarekin eman zen, berreraikuntza burutu zutenek berarengandik Karmeldarren Markinako fundazioa egiteko baimena eta eliza uztea lortu zituztelarik; agiria, pertsonalki apezpikuarenga joan zen Aita Domingo de S.José Karmeldarren Jeneralari zuzenduta ageri da, bertan argi eta garbi komentuko eliza uzten diola:.

«Autorizado V.Rma. para abrir Colegio de Misiones con destino a Ultramar por Real orden de 7 de mayo pasado, y habiendo obtenido la cesión del edificio-convento que fue de Carmelitas Descalzos en la Villa de Marquina, Señorío de Vizcaya, en este obispado, presto toda mi conformidad canónica para que se realice dicha fundación, y cedo la iglesia de dicho convento que se halla abierta al culto público para todos los fines que convengan a la nueva comunidad. Dios guarde a V.Rma. muchos años. Vitoria, 10 de julio de 1868.
Diego Mariano, Obispo de Vitoria»[7].

---

[5] *Correspondencia...*, 27.zk.; ik., era berean, SILVERIO DE S.TERESA, *Resumen histórico*, 45-46.orr.

[6] MKA, B-I-3.

[7] MKA, B-VIII-5.

Ministeritzak 1845.eko ekainaren 23ko datan Karmengo komentua Markinako udalari eman zion gozamenean, udal artxiboetako hainbat agiritan ageri den bezala. Udalak, komentua beraren benetako jabeentzat, Karmeldarrentzat, eskuratu nahiean, 1868.eko uztailaren 2ko erabakia berretsiz, bederatzi egun geroago, 11n, ezohizko batzarraldi batetan Aita Jeneralaren eskaria Ogasuneko ministrariari aurkeztea erabaki zuen: «Unánimentente inspirados de los inapreciables beneficios, ya en el orden material, como en otros conceptos de importancia ha de reportar el establecimiento de dicha comunidad al Valle de Marquina, al Señorío de Vizcaya, y toda la nación, como a las provincias de Ultramar, acordaron la alta conveniencia de ceder el uso del convento al Reberendo Padre Fray Domingo de San José»[8].

Udalak uztailaren 13ko datan Ogasuneko Ministeritzari eginiko azalpen-gutunean, udalak bi egun lehenago esana errepikatuz, gogo biziz nahi zuela Itsasoz-bestaldeko Ikastetxea Markinako hirian ezartzea ematen zion aditzera, horren alde egiteko erregutuz: «En consecuencia, a V.E. le ha de interesar esta Municipalidad a fin de que el R.P.Fr.Domingo de San José de conformidad con la Real Orden de 7 de Mayo p.p. funde un Colegio de Padres Misioneros, en el Convento de su Orden de esta villa, con destino a Ultramar, cuyo ruego lo hace de manera más encarecida en antención a los caros objetos que comprende»[9].

Egun berean, uztailaren 13an, Gernikako Batzar Nagusiek Markinako Karmengo etxearen berreraikuntzaren alde atera ziren eta Diputazioari bizikiro eskatu zioten Gobernuari Karmeldarren aldeko azalpena aurkez ziezaion[10].

1986.eko Maiatzaren 7ko Erret Dekretuan honako baldintza hau irakurtzen zen: «Que no se procederá a la apertura del Colegio hasta que V.P. dé cuenta de la adquisición del local en que lo haya de establecer»[11].

Ikastetxea Markinako komentuan ezartzea erabaki ondoren, Itsasoz-bestaldeko Ministeritzak abuztuaren 3an eman zuen Markinako fundaziorako baimena, maiatzaren 7ko agirian eskatzen zen tokia eskuratua izatearen baldintza bete ondoren: «previa la adquisición del local oportuno, y cuyo requisito ha sido llenado con cesión que del referido Convento ha hecho el Reverendo Obispo de Vitoria para el espresado fin»[12].

«Negociado 3.° Excmo. Señor. Por el Ministerio de Hacienda se dice a éste de Gracia y Justicia con fecha de 29 de junio [julio?] último lo siguiente: 'Il. Excmo. Sr. Ministro de Hacienda comunica con esta fecha al Director General de Propiedades y Derechos del Estado, la Real Orden que sigue: Ilmo.Señor. Enterada S.M. de la solicitud del Ayuntamiento de la Villa de Marquina, en la Provincia de Vizcaya, pidiendo se conceda al R.P.Fr.Domingo de San José para establecer un Colegio de

[8] MUA, *Libro de acuerdos...1859-1876*, (MKA, E-I-31).
[9] MUA, Erregistroa, 29 (*Instancias*... 1761-1790), 1868-VII-13; Ministrariari bidalitakoaren kopia da.
[10] *Correspondencia*..., 52.zk.
[11] MKA, E-I-30; *Correspondencia*..., 27.zk.
[12] MKA, E-I-33.

Misioneros con destino a Ultramar, el ex-convento de Carmelitas de dicha Villa que la Municipalidad ocupaba con el Hospital y escuela de primera educación que ha de traladarse a otro edificio, ha tenido a bien resolver, conformándose con lo propuesto por esa Dirección General»... «a fin de que pueda establecer en el mismo un Colegio de Misioneros con destino a la Isla de Cuba, autorizado por Real Orden de 6 de mayo último»... «y poniéndose desde luego dicho edificio a disposición del R.Obispo de Vitoria con los espresados fines'. De Real Orden comunicada por el Sr.Ministro de Gracia y Justicia lo traslado a V.E. para los efectos consiguientes. Dios guarde a V.E. Madrid 5 de agosto de 1868. El subsecretario Vicente Gorriz. Sr. Obispo de Vitoria»[13].

Argi ikusten denez, Ministeritzak Gasteizeko apezpikuari ematen dio komentua bera zelako 1851.ean Espainiako Estatuaren eta Aulki Santuaren artean izenpetutako Hitzarmen edo Konkordatuaren arabera Elizaren zuzeneko ordezkaria, honek, gorago ikusi dugunez, komentuko elizarekin batera Karmeldarren Ordenako Aita Jeneralaren esku utzi zuelarik. Ordutik aurrera, egoera sozio-politiko larri batzuren ondorioz, Karmeldarrek, batez ere karlista garaian, beren etxean jarraitzeko arazorik izan bazuten ere Markinako komentuan jarraitu izan dute, jaun eta jabe, nahi izan dituzten aldaketa, konponketa eta abar, inongo jaberi baimenik eskatu gabe eginez eta hasieratik eurena izan zuten etxearen jabetza osoa izanik eta gozatuz.

[13] MKA, A-I-117.

B. KARMENGO ELIZA

1. Aurretikoak

Ez dugu Karmengo fundazio uneko egoera (1691) errepikatu nahi, gorago ongi azalduta geratu baita. Hasiera batetan Komunitateak kaperatxo edo otoizleku bat erabili zuen[14].

1722.ean Karmengo eliza eraikitzen ari ziren[15]; 1974.ean amaituta aurkitzen zen, maiatzaren 7an Karmeldarrek gonbidapena egin zioten Udalari Karmengo eliza berrira aldatze-eguneko egintzara[16]. Inaugurazio-jai handia abuztuaren 15ean ospatu zen[17].

Geroago Udalak laguntza eman zuen elizako hainbat konponketarako; 1726.ean, elizako gurutzadura berriro eraikitzeko[18]; 1733, 1739, 1769 eta abarretan hagak dohainik emanez[19] edo 1736.ean alboko aldaretarako dirulaguntza emanez[20].

Frantsestean esklaustrazio urte gutxi batzuren ondoren (1809-1813), berreskuratu egin zituzten eliza eta komentua. Baina komentuari buruz esan dugun bezala, XIX. mendeko erdialdeko erlijioaren aurkako garaialdian 1835-1836. eko dekretuen bidez Gobernuak kendu egin zituen Markinako Karmeldarren jabetzak, komentua eta ortuaz bera jabetuz eta eliza mitraren ondareetara, hau da, Kalagurriko elizbarrutira eskualdatuz.

---

[14] MBN, 2680. esk., 9v, (MKA, A-I-2).
[15] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 5v-6r, (MKA, A-I-16) 1722-VII-12ko agiria.
[16] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 17, (MKA, A-I-28).
[17] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 27v-28r.
[18] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 42r, (MKA, A-I-33).
[19] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 118v-119r, (MKA, A-I-37).
[20] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 145r,146r, (MKA, A-I-39).

2. Elizaren-jabetzaren geroagoko bilakabidea

Une honetan, agiri ezberdinek *komentuko eliza* deritzanari buruz hitz egiten dutela esan beharra dugu; hala ere, aipatzeko era horrek ez zuen egiatan Karmeldarren jabetza pekoa zenik esan nahi; dena den, elizbarrutiko ondarea izan arren apezpikutegiko agirietan *'komentuko eliza'* deitzen dute.

a. Esklaustrazio garaian zehar (1839-1868)

1847.ean udalak ez zuen baimenik eman Elejabarriko San Pedroren ermita berreraikintzeko «alboan, elizkizunetarako, itxia izandako Karmeldarren komentuko eliza zegoelako egokituta»[21]. Karmeldar batek zuen elizako liturgia zerbitzuen ardura; Aita Román de San Bartolomé (Sagasti) zen[22]. Honek zerbitzu ugariagorako plana aurkeztu zuen, lau edo bost karmeldar biltzeaz lor zitekeela esanez; onartu egin zuen Udalak eta onarpena eskatu zion Kalagurriko apezpikuari 1854.eko martxoaren 6ko agirian, «Karmengo *komentuko elizan* ezartzeko erabakiak»[23]; Cipriano apezpiku Jn. Agurgarriak martxoaren 22ko gutunean erantzun zion udalaren azalpen-eskariari, bertan «Karmengo komentuko eliza» aipatzen dela[24]; esakun berbera agertzen da Udalaren 1857.eko martxoaren 29ko agirian ere[25].

b. Berreraikuntza garaia eta osteko urteak

Aita Domingo de San José Ordenako Jenerala Markinako Karmengo komentuaren berreraikuntzari behin betiko bultzada ematera etorri zenean, Diego Mariano Gasteizeko apezpikuarengana aurkeztu zen; honek atsegin handiz eman zion baimena 1868.eko uztailaren 10ean; agiri horretan jabetzaren egoera zehazten da: apezpikuak utzi egiten zion eliza; komentuaren jabetza aipatzerakoan, transkribatu berri dugun deitzeko era erabili zuen.

Urteak geroago, 1895.ean, Gasteizeko apezpikuak Markinako Karmengo elizan S. Joseren Kofradia sortzeko baimena ematean, honela adierazten zuen: «*Komentu honetako elizan*, kanonikoki San Joseren deboziodunen izpirituzko elkartea sortzeko eskatutako baimena ematen dugu»[26]

---

[21] MUA, *Libro de decretos...1834-1859*, 185v-186r, (MKA, A-I-79).
[22] MUA, *"Asuntos tocantes..."* paper-sorta (MKA, A-I-79).
[23] Ibd.
[24] Ibd. (ik., era berean, MKA, A-I-84; B-VIII-4).
[25] Ibd.
[26] MKA, B-VIII-9.

c. Azalpena Bilboko apezpikuei (1977)

Aita Higinio, Karmeldarren Euskal probintziako artxibariak, agirien bilketa lana burutu ondoren, Karmengo elizaren jabetzari buruz txosten bat aurkeztu zien 1977.eko maiatzaren 6an Bilboko apezpikuei, jatorrian Karmeldarrena izan zenez, aurrerantzean legez ere hala ager dadin lehenago Gasteizeko apezpikuak aldi baterako eginiko jabetza-uztea behin-betirako egin zezatela erregutuz: «que según todo lo expuesto la Iglesia del Carmen de Marquina perteneció en propiedad a los Padres Carmelitas Descalzos y que después de la desmortización y haber sido traspasada su propiedad a la Mitra de Calahorra, el Excmo. Sr. Obispo de Vitoria nos *cedió* a los Padres Carmelitas (...). Por todo ello querríamos obtener de SS.EE. una nueva *cesión completa y el documento espiscopal*, con fuerza notarial necesaria para inscribirla a nuestro nombre, legalmente, conforme al artículo 206 de la Legislación Hipotecaria, inmobiliaria... reconocida por el Estado en virtud del Concordato»[27].

Txostena apezpikuei aurkeztu zitzaien; baita ere Teodoro Larrea elizbarrutiko Ondarearen arduradunari; honek agiriak ikusi ondoren arazoa argi zegoela esan zuen: eliza Markinako Karmeldarren 'jabetza' zela, baina arazo hau elizbarrutiko ondasunen ardura zuen Kuriako batzordeak aztertu behar zuela. Beronek, pertsonalki, apezpikutzak ez zuela elizaren jabetza epe laburrera itzulea eragotz zezakeen ezer ikusten uste zuen[28].

Hala ere ez zen erantzunik jaso.

[27] GPKA, Markina 4, *Informe sobre la propiedad de la iglesia...*
[28] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 149-150.orr.; 1977.eko maiatzeko data du.

C. ORTUA[29].

1. Aurretikoak: jabetza kendu arte

Esan dugu Markinako Karmeldarren fundazioa, 1691.ean, Ignacio de Munibe Ziortzako abatearen dohaintza baten bidez egin zela. 1724.ean amaitu zen eliza ederraren eraikuntza eta horrela aurrerantzean Karmeldarren jabetza izan zirela komentua, eliza eta ortua.

Ez zen arazorik izan ortuaren jabetzan frantseste garaian erlijiosoek komentua, eliza eta ortua utzi beharrean aurkitu ziren unerarte (1809-1813).

Garai hartako lekuko zen Aita Bartolomé de Santa Teresa karmeldarrak, ortua norbaiti izkutuan saldua izan bazitzaion ere, bi frantsestarrek hartu zutela alogeran eta frantsetea bukatu zenean, beraien eskubideak defendatu zituztela Diputazioaren aurrean kontatzen digu:

«Luego que se suprimió la Comunidad, tomaron en arriendo la otra huerta Juan de Pradea francés, y Pedro de Aguirre Sarasua vecinos de esta Villa, que a cara descubierta han seguido al Yntruso; a la sombra de él sin más arriendo ni derecho han usurpado por espacio de 4 años. Y aun tuvieron la osadía de alegar derecho a ella en el Tribunal de la Diputación general de este Señorío, quando se les quitó las llaves de la huerta. Se creè que se vendió la huerta, pero no se ha savido el comprador»[30]. Diputazioak, ostera, beraiek aurkeztutako eskariak zein fraideek defendatuak aztertu ondoren, Karmeldarren aldeko ebazpena eman zuen; bidegabekeria osoz kendua izan zitzaielako, Karmeldarren aldeko ebazpena eman zuen: «Prefiérase

---

[29] Agiri ugari MKA, A-VI-1ean.
[30] MKA, A-I70: FRAY BARTOLOME DE S. TERESA, *Apuntaciones...*, 26-27.orr.

en la entrega y arriendo del Convento de Marquina y su huerta al P. Fr. Bartolomé de Santa Teresa, conventual de él, según el encargo hecho anteriormente al Administrador de bienes Nacionales, quien dispondrá del cumplimiento de este decreto, y por el que se separen del arriendo y cuidado de la huerta y Convento de Marquina, Pedro de Aguirre Sarasua y Juan de Pradea, y den sus cuentas prontamente al mismo Administrador. Bilbao, 17 de septiembre de 1813. Loyzaga, por orden de su E. su Secretario de Govierno, Joaquín de Pereda»[31].

Baina ortuaren jabetza kendu egin zioten Karmeldarrei 1835-1836. urteetako desamortizazio dekretu eta legeen indarrez eginiko estatuaren bahipen edo usurpazioaren bidez. Markinako Karmeldarren esklaustrazioa 1839.eko irailean egin zen eta komentu, ortu eta abarren administratzaile Francisco de Olerdi, Markinako herritarra izendatu zuten[32].

2. **Ortuaren jabe berriak eta berreskuratzeko ahaleginak**

Hainbat agiritan ageri denez, Karmengo ortuaren jabe berriak Peñaforida-ko Kondeak izan ziren Estatuari erosi ondoren; horrela, esaterako, 1860.eko maiatzaren 25eko agiri batetan. 1854.ean José María de Munibe Jnak testamentu bidez Victor Munibe bere anaiari uzten zion 'Karmengo ortua' jabetza eta gozamen osoz, Aita Kameldarrak berriro Markinara etortzen baziren, dohaintzan ematen zion ortu erdiaren gozamena beraiei eman beharra ezarriz[33].

Eta 1868.eko abuztuaren 14ean Karmeldarrek Karmengo komentuan erlijioso bizitzaren berreraikuntza lortu zutenean Peñaflorida-ko Kondeek beraien esku jarri zuten ortua. Aita Karmeldarrek berehala eskuratu nahi izan zuten ortuaren jabetza osoa; baina oraindik ezer gutxi zegoen eginda 1869.eko irailean, arazoa behin betiko konpontzeko itxaropenak zituzten arren[34].

Lau hilabete geroago, Aita Pedro José karmeldarraren gutun batetan konde Jnak emaztearen eraginez Karmeldarren esku uzteko hitza emana zuen arren, atxakiatan zebilela gogoratzen zuen: «Respecto a la huerta escribí una carta a la Sra. Condesa antes de la llegada del Conde; a su llegada se la dieron y la condesa tomó la cosa con mucho interés por nosotros, y respondió el Sr. Conde que sí, que todo lo que quería la Condesa. Días después fueron a verle, sacó la conversación, hizo las mismas protestas de darnos, con algunas reservas ridículas que dan impaciencia en un hombre de sus intereses y posición. Ya van días y días, y nadie da señal de vida, y eso que la Condesa para provocarle sin duda, dijo que fuésemos a comer a su casa el día que

[31] Ibd. 33.orr.
[32] MUA, *Libro de decretos...1834-1859*, 78r-78v, (MKA, A-I-75).
[33] MKA, A-XVIII-6(2); A-VI-1, 1-B agiria.
[34] *Correspondencia...*, 114.zkia, Aita Pedro Josek Villafranca-ko kondeari 1869-IX-9an eginiko gutuna.

se pasaba la escritura, lo que yo accepté con regocijo; en fin, 'patience et esperons que le jour arrivera'»[35].

Egun batzu geroago idatzi zion, era berean, Aita Domingo de S. José Jeneralari, Peñaflorida-ko Kondeak ortuaren gozamena zuen arren, ez zuela berehala eskriturarik egin nahi esanez[36]. Eta 26an egun batzu geroago berriro idatzi zion: «ortukoa konponduta dago, Jainkoari esker, eroapen eta pairamen ugariz lorturik; guztiz konponduta dago eta geure esku ditugu ortua eta giltzak, etb. etb.; ateratzen eta landatzen dihardugu; lehortuta eta hondatuta zeuden arbolak landare berriak sartuz ordezkatzen»[37]. Baina oraindik atzeratu egingo zen legezko erregulazioa egitea... Uztaila-abuztuan oraindik egin gabe jarraitzen zuten legezko konponbideak; horrela Aita Pedro Jose karmeldarrak konponbidera heltzeko gogo biziak agertzen zizkion Peñaflorida-ko kondeari; eta uren aipamenik ez egiteko eskrituretan gomendatzen zion azken bi urteetan ez zelako inongo eragozpenik izan[38]; eta Victor Kondeak hiru egun geroago idatzi zion etorkizunerako puntu guztiak argi eta garbi gera zitezen ezinbestekotzat jotzen zuela aipamena egitea jakineraziz: «He recibido su atenta carta del 31 de julio en la que me manifiesta que se otorgase la escritura de cesión de la huerta sin que se haga en ella mención del aprovechamiento de las aguas que tenemos por cesión del ayuntamiento de la Villa. Si sólo se tratase de un arreglo entre U. y esta casa podría pasarse sin hacerse la expresión que me aconsejan personas que me merecen buena reputación; pero U. mismo conocerá que no es lo mismo cuando se trata de un documento público entre una comunidad y una familia. La personalidad para la parte administrativa cambia a menudo en una comunidad religiosa y aun sin eso hemos oído no hace muchos días espresarse en términos y manifestando ideas muy diferentes de las que me complazco en creer que U. profesa en esta parte a uno de los religiosos que ocupan una posición digna. ¿Qué estraño sería que cambiadas las épocas y las personas, se olvidasen los antecedentes y diese lugar la omisión a cuestiones desagradables? Fuera de esta convicción que poseo, está la oposición de las personas que he consulta[do] que corraboran más y más mi opinión, lo que me mueve a ref]erirme a cuanto tengo declarado en mi anterior.

Si esa Santa Comunidad desea según decía U. en su grata del 15 de enero se regularice la escritura de que se trata puede disponer el Sr. Prior y fijar el día»[39].

Irailearen azkenetan eskriturak egiteko gertu zeuden[40]. Hain zuzen ere, hilabete batzu geroago, 1871.eko martxoaren 11n egin ziren eskriturak Julián Bascarán, Markinako Notariaren aurrean: Victor Munibe Aranguren, Peñaflorida-ko Kondeak utzi egin zien Markinako Karmeldarrei ortuaren gozamena; erdia José María bere anaia-

---

[35] *Correspondencia...*, 119.zkia, Aita Pedro Josek Villafranca-ko kondeari 1870-I-26an eginiko gutuna.
[36] MKA, A-I-148, 1870-II-2koa; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[37] MKA, A-I-151, 1780-II-28koa; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[38] GPKA, Markina 3, 1870-VII-31ko gutuna.
[39] Ibd., 1870-VIII-3ko gutuna.
[40] Ibd., Peñaflorida-ko Kondeak Aita Pedro Joseri 1870-IX-24ean eginiko gutuna.

rengandik eskuratua eta beste erdia berea zena; agirian hainbat klausula zeuden, jarraikoak direlarik garrantzitsuenak: komunitateak komentuan zirauen artean izango zuen gozamena; dohaintza, beraz, Komunitatea Markinan egoteari loturik egiten zen, horrela gerora gerta zitekeen edozein kentzetik babestuta geratzen zelarik: «Quinta, que caso de que por alguna circunstancia imprevista la mencionada comunidad mudase de residencia estableciendo su morada habitación fuera de este pueblo, el usufructo y dominio útil cedido de la recordada huerta ha de devolver al señor relatante o su legítima representación, entendiéndose que tan pronto como otra nueva circunstancia tragere a esta villa la comunidad disfrutará durante su permanencia en ella el derecho a usufructo, cediéndolo tantas, cuantas veces se establezcan en comunidad en esta villa»[41].

Baina, jabetza, Victor Kondearen 1860.eko maiatzaren 25eko testamentuan ageri denez, Juan Carlos de Alzaa y Larrañaga, beraren seme politikoaren eskutan geratu zen[42]

3. Oinordekoak eta dohaintza bi karmeldarri

Aurrerantzean beste ibilbide hau izango zuen ortuaren arazo honek oso-osorik Karmeldarren eskuetara heldu arte. Hasiera Juan Carlos de Alzaa y Larrañaga jaunaren testamentuaren banaketan izan zuelarik: «Los señores doña María Aquilina de Alzaa, Don Anselmo, doña Mercedes y don Esteban de Gomendio y Alzaa fueron declarados herederos ab-intestato del señor don Juan Carlos de Alzaa y Larrañaga por el juzgado de primera instancia de Vergara en auto de veinte de nueve de marzo del año próximo pasado, por haber quedado incumplido en parte el tetamento abierto que otorgó con fecha once de agosto de mil ochocientos ochenta y cinco, ante don José Antonio de Segura, notario que fue de la dicha villa de Oñate, y a virtud de ese testamento recayó en favor de su hermana la citada señora doña María Aquilina de Alzaa el usufructo de todos los bienes raíces del testador, y por el auto ya citado de veinte y nueve de marzo de mil ochocientos noventa y siete, la nuda propiedad de los mismos bienes en la proporción de una mitad a doña María Aquilina, y la otra mitad por partes iguales a don Anselmo, doña Mercedes y don Esteban de Gomendio»[43].

Beren aldetik ortuaren jabe ziren aipatuek (Maria Aquilina, Anselmo, Mercedes eta Esteban) Markinan 1898.eko azaroaren 29ko datan Luis de Basterra notariaren aurrean, Karmengo ortuaren jabetza soileko dohaintza eskritura, bertako alde batetan eraikitako etxe batekin batera egin zuten Emeterio eta Juan Uriarte Artabe anaien alde[44].

---

[41] MKA, A-XVIII-8(2) (= A-VI-1, 1-b agiria). Asetuak izan zirelarik bai Aita Manuel (1871-III-17) bai Aita Pedro Jose (1871-III-27) eskritura hauen berri ematen zioten Cándido Gaytan Villafranca-ko kondeari: *Correspondencia...*, 218, 221.zk.ak.

[42] MKA, A-VI-1, 2. agiria, fotokopia.

[43] Ibd.

[44] MUA Erregistroa, 160.f. (MKA, A-VI-1, 2.agiria, fotokopia).

Anaia bi hauek, Emeterio eta Juan, bi karmeldar ziren, hots, Celedonio de la Virgen del Carmen, 1951.ean Liman (Peru) hil zena[45] eta Domingo de San Millán, 1945.ean Begoñan (Bilbo) hil zena[46].

Emaile gisa, María Aquilina de Alzaa eta beraren ezkontidearen ordez, Rafael de Olazabalaga Jna ageri dira, azken hau, agiriak esan ez arren Aita Rafael del Niño Jesús karmeldarra izan zelarik[47]. Eta hartzaile gisa Ignacio de Zamalloa y Artobiza Jna agiri da, hau ere Karmeldarra, hots, Aita Bernardino de la Visitación[48].

Argi dago, Rafael, Ignacio, Juan eta Emeterio Jnek ezin zutela halako arazoan parterik hartu egiatan Karmengo ortuaren jabetza Ordenarentzat eskuratzeko asmoz izan ezik.

Bestalde, Karmeldarren artean, argi zegoen emaileek Karmengo ortua aipaturiko Emeterio eta Juan Jnei Karmeldarrak eta Ordenaren ordezkariak eta ez partikular batzu zirelako eman zietela; Elizaren aurkakoa zen giro sozio-politikoak, hitzarmen horretan, nortasun erlijiosoa ezkutuan gordeta esku hartzera bultzatzen zuen; eta horrela egin nahi izan zen egintza juridikoa, agiri batetan bi erlijiosori eginiko dohaintza itxura pean ezkutatu zelarik, Karmengo Ordenari egina izan zen arren. Komunitate erlijiosoen ondasunak babesteko Aulki Santuak gomendatutako erabidea baino ez zen.

4. **Jabetzaren eskurapena lortu arteko azken urratsak**

Arazo guzti honetan oinarri-oinarrizko eta argitasun osozko egintza batzu ditugu:.

— Karmengo ortua, eskriturak hala eginak izan ziren arren, beti Markinako Karmengo Karmeldarren jabetzako zertzat hartua izan da. Horrela, ez Emeterio ezta Juan Uriarte anaiek, ez zuten inoiz, beren bizitza osoan, ezta beren familiartekoek ere erreibindikatu ezta etxalde edo ortuaz ardurarik hartu. Gehiago oraindik, Markinako Udalak 1979.ean, ortuaren jabetza (9.540 m2) Fraide Karmeldarren izenean agertzen zela ziurtatu zuen eta «ez da ageri udal honek Fraide Karmeldarrei ezta beste inori, jabetza horren zioz hirilur edo baserrilur kontribuziorik eskatu dienik»[49].

— Estatuak berak auzibidezko lege bereziak aldarrikatu izan ditu Ordenek beren ondasunak pertsona partikularren eskuetan utzi zituen kasuetarako : «de los casos en que la Iglesia, Ordenes o Congregaciones religiosas hubieran apelado al efugio de valerse de personas interpuestas, hoy muertas o desaparecidas, haciendo ratificar nominativamente en éstas la titularidad de su dominio, cuya disposición en realidad se reservaban». Horrela, 1941.eko uztailaren 11ko legeak eta 1942.eko urtarrilaren

[45] MKA, A-VI-1, 6.agiria.
[46] Ibd., 7.agiria.
[47] Ibd., 11.agiria.
[48] Ibd., 11.agiria.
[49] Ibd., 28.agiria.

lekoak argitaratu ziren. Erabaki horiek argitasun-bide gertatzen dira, jokaera mota hori, etxeetan irauteko zein iharduteko hain garai zailak izandako une haietan, Elizaren eta Erlijiosoen komunitateen eremuan ohizkoa zela aitortzen duten adinean[50].

Hala ere, lege zibilaren aurrean Emeterio Uriarte Artabe Jnaren izenean zegoen. 1970.eko hamarkadaren bukaeran, Juan eta Zeledonio karmeldarren loba batzu baino ez ziren bizi[51].

Bilboko 1. Auzialdiko auzitegian, Karmeldarrek ortuaren jabetza eskuratzeko zuten eskubidearen alde eginiko demandak epaiketa bidez aldeko erantzuna izan zuen 1988.eko urtarrilaren 13an eta 1988.eko otsailaren 13an argitaratu zen *Bizkaiko Egunkari Ofiziala*-ko 1290. orrialdean:.

«Sentencia: En villa de Bilbao, a trece de enero de mil novecientos ochenta y ocho. La Ilma. Ser. doña M.ª Luisa Segoviano Astaburuaga, habiendo visto y oído los autos de juicio declarativo de menor cuantía seguidos en la sección 2.ª de este Juzgado al número 691 de 1987, a instancia del Convento de Nuestra Santísima Madre del Carmen de Marquina (Vizcaya), presentada por el procurador don Alberto Olaortúa Unceta y defendido por el letrado don José Luis Ureta Izurrieta, contra don Agustín Vicarregui Iturrondobeitia, mayor de edad, casado, productor, vecino de Basauri, c/Antonio Trueba, N.° 9, con D.N.I. n.° 14.196.970, doña Emeteria y doña Natividad Vicarregui Iturrondobeitia, ambas mayores de edad, solteras, vecinas de Getxo, carretera Cientoeche, s/n. y con D.N.I. n.° 16.033.702, 16.033.698, respectivamente, representados por el Procurador don José M.ª Bartau Morales y defendidos por la Letrado doña Leonor de Oleaga y Echevarria, contra don Juan Tomas Bicarregui Iturrondobeitia, declarado en rebeldía, contra el Ministerio Fiscal, allanado a la demanda y contra el Estado español, representado por el Sr. Letrado del Estado y los herederos desconocidos de don Emeterio, don Juan Uriarte Artabe, doña Aquilina de Alzaa y Larrañaga, don Anselmo, doña Mercedes y don Esteban de Gomendio y Alzaa y cualesquiera otras personas desconocidas, sobre nulidad de donación y otros extremos.

Fallo: Que con estimación de la demanda formulada por el procurador señor Olaortua Unceta en representación del Convento de Marquina (Vizcaya) contra don Agustín, don Eulalio, doña Emeteria y doña Natividad Bicarregui Iturrondobeitia, don Juan Tomás Bicarregi Iturrondobeitia, el Ministerio Fiscal, el Estado español, los herederos desconocidos de don Emeterio y don Juan Uriarte Artabe; doña Aquilina de Alzaa y Larrañaga, don Anselmo, doña Mercedes y don Esteban de Gomendio y Alzaa y cualesquiera otras personas desconocidas debo declarar y declaro que la donación efectuada el 29 de noviembre de 1898 ante el Notario de Marquina don Luis de Basterra entre don Rafael de Olazabalaga y Urizar en nombre y representación de doña Aquilina de Alzaa y Larrañaga, don Anselmo de Gomendio y Alzaa, doña

[50] MKA,A-VI-1, "*Escrito de conclusiones. Al Juzgado de primera instancia, N. 1*" agiria; José Luis Ureta Jnak aurkeztutako 1987-XI-18ko agiria.

[51] Ibd., "*Al Juzgado de primera instancia de Guernica*" agiria, 1986-X-27koa.

Merdedes de Gomendio y Alzaa y don Esteban de Gomendio y Alzaa como donantes, por una parte y don Ignacio de Zamalloa y Astobiza en nombre y representación de don Emeterio Uriarte Artabe y don Juan Uriarte Artabe como donatarios, por otra, es un negocio simulado con simulación relativa ya que don Ignacio de Zamalloa y Astobiza adquirió el bien donado «Huerta del Carmen» sólo en apariencia para sus representados y en realidad para el Convento de Nuestra Santísima Madre del Carmen de Marquina (Vizcaya) y debo declarar y declaro la nulidad del negocio aparente y la validez del negocio verdadero y la nulidad y cancelación de la inscripción derivada de dicha donación a favor de los citados don Emeterio y don Juan Uriarte y Artabe obrante al tomo 114 general, 13 de la villa, finca 92, triplicado, inscripción 5.ª, folio 160 del Registro de la Propiedad de Marquina cuya descripción registral es la siguiente: «terreno en el Arrabal de arriba de esta villa, titulada huerta del Carmen, parte labrante y parte huerta de cabida de 2.987 estados, confinante por el Norte con la heredad de don Toribio de Ibaseta, por Este con el Convento del Carmen y huerta de la casa llamada Solartecoa, por Sur con la carretra de Durango a Ondárroa y por Oeste con la huerta de Iturraldecoa y heredad de la casa de Idoeta, finca registral 314 que obra al folio 68, del tomo 24 general del archivo, libro 4 del Ayuntamiento de Marquina» a favor del Convento de Nuestra Santísima Madre del Carmen de Marquina (Vizcaya), condenando a los demandados a estar y pasar por estas declaraciones, sin hacer expresa imposición de las costas causadas.

Así, por ésta mi sentencia, definitivamente juzgando en esta primera instancia, lo pronuncio, mando y firmo.»[52].

Epaitza honen bidez ematen zitzaien amaiera Markinako Karmengo Karmeldarrek ortuaren jabetza berreskuratzeko eginiko ahalegin guztiei.

[52] Ibd., 691.zkidun epaia.

IV

KARMENGO KOMENTUKO BIZITZA: IHARDUERA ETA ERAGINA

Markinako Karmengo komentuak hiru mendetan zehar izandako gertaera historiko nabarmenenak gogoratu ondoren, orain barruagokoa den zerbaitetan jarriko ditugu begiak: erlijiosoen eguneroko eta egun berezietako bizitzan, beraien apostolutza eta kultur ihardueran eta abarretan. Azken batetan, bertako bizitzak Markinan zein inguruko Eskualdean, Euskal Herrian eta munduan izandako eraginean.

Hori dela eta, bada, datu hotz eta gertaera berezi eta gatazkatsuen ordez, eguneroko bizitzan ihardueran eta izpiritu zein kultura alorrean, bakarkako zein taldekako bizitza sortu zein berregiten aritu izan diren pertsonak ikusiko ditugu. Horrela, ikusi ahal izango dugu Markinako Karmengo etxeak bertako Hiriarentzat zein eskualdearentzat eta Euskal Herriko mugetatik kanpo ere bai izan duen garrantzia. Horrela egia bihurturik ikusiko dugu fundazioaren hasieratan Markinako Udalak Karmengo fundazioa hiriaren zein eskualdearen «izpirituzko onura eta onerako izango da» esanez agertzen zuen nahiera[1].

Karmengo etxeak, fundazioa egin eta 8 urte barru irauteko eragozpen batzu izan zituenean, Udalak beraren alde egin zuen «ikusi izan den beraren doktrina on eta izpirituzko janariaren zioz» Hirian eta Eskualdean «izpirituzko onura handiak» sortzen zituela errepikatuz[2].

Hasierako esperientzia hura areagotu egingo zen mendeetan zehar, jarraian ikusiko dugunez.

---

[1] MUA, *Libro de decretos...1689-1808*, 15r-17v, 1690-XII-23ko data (MKA, A-I-4).
[2] Ibd., 132v-133r, 1697-XI-11koa. (MKA, A-I-14).

A. KOMENTUKO BIZITZA: NOBIZIATU ETA IKASTETXE GARAIETAN

Lehen eta behin oinarrizkoa eta funtsezkoa izan ohi den zerbait nabarmendu nahi nuke: pertsona edo erakunderen baten historia egiten denean, batez ere agerikoak diren gertaera handiak edo ezohizkoak, onak zein txarrak, gatazkak, liskarrak etab. plazaratzen dira, baina, sarritan bazterrean uzten da, aipatzeko nahiko 'duintzat' joten ez dena, hain zuzen ere, ohizkoa, egunerokoa eta ustez ezaguna delako.

Gertaera honi garrantzia emanez, guri ere antzerako zerbait jazoten zaigula aitortu beharra dut; baina aitortu egin behar, era berean, komentuko eguneroko bizitza arrunta alde utzi eta beste egintza batzu jartzeak errealitatea faltsutu dezakeela; egin eginean ere, egunerokoa delako aipatua izaterakoan naikoa 'duintasunez' agertzen ez den bizitza arrunt hori da bertako benetako bizitzaren oinarrizko muina.

Historia egin eta gaiak aztertzerakoan ezinbestekoa da honako guzti hau gogoan hartzea; hala, esaterako, Ordenako legeak egunero zehazkiro betetzea, bakartade eta otoitz bizitza, komunitatearen eguneroko bizimodua edota elizan egiten duen eguneroko apostolutza eta abar.

Dena den, ez da nire asmoa hemen xehatasun guztiak jasotea, historian zeharko une batzutako datu edo atal labur batzu biltzea baino.

1. Otoitza eta bakartadea; erlijio alorreko betebeharrak

Otoitz bizitzari dagokionean Markinako Karmengo komentua eraiki zen garaiko Karmeldarren legeek diseinatutako komentu bizitza honakoa zen: batetik, eliz otoitza eta meza eta, bestetik, gogamenezko otoitza ziren eguneroko otoitz eta bakartade bizitzaren bizkarrezurrak.

Gau erdian hasten ziren fraideen otoitzaldiak Maitinak edo Irakurgaien otoitzak zirela bide. *Goizaldean,* lehen orduan, gozieko 5 edo 6etan (urteko aldiaren arabera)

gogamenezko ordubeteko otoitzaldia, batera, elizako koruan: Izpiritu Santuari laguntza eskatuz hasten zen; gero, gogoan erabiltzen edo begiesten laguntzeko irakurgaia irakurri; azkenik, ordubeteari amaiera emateko, otoitz bat Andra Mariari. Horretaz gainera, Eliz otoitza bete behar zen, Goresmenak, Prima eta Tertzia errezatuz eta, ostean, Komentu Meza eskainiz. *Eguerdi aurrean,* Sesta eta Nona eta zortzi minutu ingurutako Kontzientzi azterketa.

Arratsaldean: Bezperak, taldean biago edo bazkalondoko atsedenaldiaren jarraian eta bostetan beste ordubete gogamenezko otoitz, hau ere, taldean eta koruan. Iluntzean, Arratseko otoitza (Konpletak) eta Kontzientzi azterketa zortzi bat minututan.

Eguneroko otoitz bizitza hau, urtero, 10 egunetako gogo-ihardunen bidez eraberritua izaten zen[3].

Badakigu fundazioaren hasieratan otoitz ordu batzu eta Meza kaperan izaten zirela[4], 1724.ean Karmengo eliza ereikitzea bukatu zen arte; irekiera egintza abuztuaren 14ean egin zen[5].

Berreraikuntza ostean (1868.eko abuztuaren 14ean) baditugu otoitz bizitzari eta komentuko bizitzari buruzko datu batzu. Hain zuzen ere, urte bereko urrian Komunitatea berriro kanporatua izan eta 17 egun geroago isilean bertara itzuli ondoren, fraideak Donibane eta Markinako Komunitate bien artean bizi ziren, berriro kanporatuak izateko mehatxu eta itzelezko arrisku pean; hau da, segurtasun falta handiko garai hartan, Aita Pedro José eta Aita Manuel karmeldarrek laguntza ekonomikoak bilatzen ziharduten harako egoera larri hartan, hau da, Komunitate bizitza oso-osorik egiterik ez zuten garai hartan ere, otoitzaldiak, hau da, gogamenezko bi otoitz orduak zehazkiro betetzen ziren[6].

Urrirako komunitate bizitza erregularra zeramaten. Matutiak edo irakurketa otoitza gauerdian, kanpaiak ere jotzen zituztela[7] 1890.ean ere, oraindik gauerdiko eliz otoitza egiten jarraitzen zuten, baina herritar batzu kexatu egin ziren kanpaiak gau erdian jotzen zirelako[8].

Eragozpen handiak eta komentua ixteko mehatxuak zituen garai hartan, 1870.ean, hots, Markinako Karmeldarrei gezurrezko salapenak eginik, mugimendu politikoetan ta karlisten altxamenduetan partehartzea leporatu zitzaienean, José María

---

[3] Ik. *Constitutiones fratrum Discalceatorum...*, Madrid 1701, 21-33.orr.

[4] MBN, 2680. esk. 9v, (MKA, A-I-2).

[5] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 27v-28r.

[6] MKA, A-I-147, Aita Juan de la Virgen fraideak Aita Jeneralari 1869-V-9an eginiko gutuna; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[7] MKA, A-I-144, Aita Pedro Josek Aita Jeneralari 1869-XI-12an eginiko gutuna; jatorrizkoa Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.

[8] MUA, *Libro de actas...*1890-1896, 8-9.orr., 1890-III-9koa (MKA, A-I-194).

de Murga diputatuak Bizkaiko Gobernadoreari Markinako fraideak bakartade handian eta arazo politikoetan nahasi gabe bizi zirela jakinerazi zion[9].

Erlijio alorreko eginbideei dagokienean ere, baditugu Berreraikuntza garaiaren ondoko urteetako berriak; erlijio eginbidea, otoitzean zein karitatean, hasieratan Markinan izan zen harako berreraikuntza mugimendu handiaren iturburuei zegokionaren arabera, benetan imitagarria izan zen. Aipatu ere, sarri aipatzen da Berreraikuntzako lehen urteetan Aita Manuel de Santa Teresa, Aita Pedro de Jesús María eta abarren gutunetan, bertako eginbide onak eta anaiarteko maitasunak bihotzetan sortzen zieten atsegina. Berreraikuntzaren aparteko haste honek fruituak utziko zituen gerora Markinako Karmengo bizitzan zehar[10].

Horrela, esaterako, Aita Probintzialak ia urtero egiten zituen ikustaldi kanonikoetan, hau da 1886.etik 1936. eko gerra zibilerarte, *Aita Probintzialaren aktetan* ia urtero Markinako Karmengo Komunitatearen erlijiozko eginbide ona, izpirituzko joera zuzena eta Komunitatearen alaitasuna egiaztatzen dira.

Adibide gisa, Definitorio Probintzialak onartua zela Markinako Karmengo Komunitateak 1948.ean jarraitzen zuen ordutegia jasoten dut hemen; egun arrunta batetako neguko ordutegia dugu:

4,45 — *Hora surgendi (Jeikitzeko ordua)*
5,00-6,30 — *Recitatio quatuor Horarum minorum et oratio mentalis, intra quam Missa* Conventualis (Lau ordu txikiak errezatzea eta gogamenezko otoitzaldia, Komentu-meza barne delarik).
6,30 — *Missa cantata (quoties habetur)* (Meza kantatua, dagoen bakoitzean)
11,30 — *Examen conscientiae* (Kontzientzi azterketa)
12,00-13,30 — *Prandium et recreatio* (Bazkaria eta jolasaldia)
13,30-14,30 — *Quies* (Atsedenaldia)
14,30 — *Vesperae cum litaniis* (Bezperak eta litaniak)
17,30-18,45 — *Oratio mentalis et Completorium* (Gogamenezko otoitza eta Arratseko otoitza)
20,00 — *Matutinum cum Laudibus* (Maitinak eta Gorespenak).
21,00 — *Collatio, examen eta disciplina* (Afaria, Kontzientzi azterketa eta zigorkaldia)
22,00 — *Quies* (Atsedenaldia)[11].

Erlijiosoen izpirituzko bizitzak, apostolutza iharduerari buruz hitz egiterakoan ikusiko dugun legez, Andra Mariarenganako maitasun kutsu sakona zuen. Gehiago, oraindik, fundazioaren lehen urteetan, norbaitzu Markinako fundazio hau desegin nahi zutenean, Bizkaiko Jaurerriko erakundea beraren alde atera zen eta Jaurerriak Karmeloko Amaren debozioa defendatzen zuela eta Markinako etxea izan ezik ez

[9] *Correspondencia...*, 134.zkia, Aita Pedro Josek Cándido Gaytan kondeari 1870-IX-19an eginiko gutuna.
[10] MKA, A-X-2: *Liber Visitationum Provincialium.*
[11] MKA, A-I-262.

zuela (Jaurerriak) Ordena horretako beste komenturik esaten zion Erregeari[12]. Egineginean ere, Markinako Karmeldarrek, berehala, Bizkaia osoan zehar zabaldu zuten debozio handia zen.

Kontutan hartu behar da, bestalde, komentu ezberdinetako bizimodua, orokorrean, beti berdintsua izaten bada ere, bizimodu horren tankera, intentsitatea zein kanpoko formak aldatu egin ohi direla komunitate bakoitzaren norabide eta helburu zehatzen arabera. Horrela, fundazio egunetatik esklaustrazio garaira arte bizimodu-tankera berdintsua izan zuen; Markinako Karmengo komentuaren berreraikuntza osteko lehen urteetan (1868-1876), ostera, une hartan Espainian zegoen karmeldar erlijiosoen komentu bakarra izan zelarik, une berean, nobiziatua zein filosofia eta teologiako ikastetxea izan behar izan zuen... eta, geroago teologiako (edo filosofiako) ikastetxe izandakoa, batxilergoa egiteko ikastetxe bilakatu zen. Hori zela eta, Markinako Karmengo komentuak bizimodu-tankera ezberdinak izan zituen; horien berri emango dugu jarraiko lerroetan.

2. Nobiziatua

1868.eko abuztuaren 14ean Markinako Karmengo etxearen berreraikuntza egin ondoren, Euskalerriko eta Espainiako komentu bakarra zena nobizeak hartzen hasi zen. Hilabete t'erdi geroago Bilbotik aldare bat ekarri zuten nobiziaturako; orduan 5 Apaiz Karmeldar eta beste 5 Anaia Karmeldar aurkitzen ziren komentuan[13]. Aste batzu geroago, esan den bezala, berriro kendu zuten komentua; baina, 17 egun barru «isil-isilik» berriro sartu ziren komentura.

Ondoko hilabeteak eta urteak, behin eta berriro gogoratu dugunez, eragozpen handien artean iragan zituzten. Baina 1869.ean, bai Bizkaiko Gobernadoreak baita Erromako Aita Jeneralak Markinakoek nobizeak har zitzatela nahi zuten; eta bederatzi hartu zituzten[14]; horrela, guztira 19 erlijioso izatera heldu ziren[15]. Eta 1870.eko urtarrilean «nobize galant bat» lotu zitzaien: hamargarren nobizea[16]. Urte bereko uztailerako 19 nobize izatera heldu ziren[17]. Eta urtearen amaierako 20 izatera[18]. 1870. urtearen amaieran guztira 30 erlijioso bizi ziren: 7 konbentual, 6 profesio eginberri, 10 nobize koruko eta 7 anaia[19].

Poztasunez gainezka idatzi zion Aita Tomás de Jesús María José Prioreak Gaytan Kondeari 1871.eko apirilaren 29an, 18 gazte «zein zein baino jatorragoak» zituztela[20].

---

[12] MBN, 2680. esk., 18r-24r.
[13] *Correspondencia...*, 88.zkia, Aita Manuel de S.Teresa fraideak Gaytan kondeari 1868-IX-30ean eginiko gutuna.
[14] *Correspondencia...*, 114.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1869-XI-9an eginiko gutuna.
[15] *Correspondencia...*, 117.zk.
[16] *Correspondencia...*, 119.zk.
[17] *Correspondencia...*, 132.zk.
[18] *Correspondencia...*, 203.zk.
[19] *Correspondencia...*, 208.zk.
[20] *Correspondencia...*, 234.zk.

Horrela, egunerik egunera gazte gehiago ari zen sartzen Markinako nobiziatuan. 1872. urteko hasierako 40 gazte izan ziren onartuak nobiziatuan[21].

Hurrengo urteetan, ikasleak beste norabait aldatzeko beste fundaziorik egiteko biderik izan ez arren, sartu eta sartu ari ziren gazteak.

Baina, zer esanik ez, nobiziatuan sartzen ziren guztiek ez zuten profesioa egitea lortzen; bokazioaren azterketa ardura eta erantzunkizun handiz egiten zelako, batez ere, nobizen maisu Aita Manuel de Santa Teresa izan zenean. Profesio eginberrien akten arabera[22] 1870-1875. urteetan 31 gaztek egin zituzten botuak: 6k, 1870.ean; 10ek, 1871.ean; 7k, 1872.ean; 1ek, 1873.ean; 4k, 1874.ean eta 3k 1875.ean; eta Markinako nobiziatura 1876 eta 1877. urteetan sartu ziren batzuk Larreako (Zornotza) nobiziatu berrian egin zituzten beren botuak..

1876.eko abuztuaren 18an Aita Pedro Jose-k Markinako nobizeak Larrako komentu berreraiki berrira eraman zituen[23], horrela, aurrerantzean berau bilatu zelarik nobiziatu; ihardun horretan arituko zen urte ugaritan zehar nobiziatu gisa, ospe handiko historia lortu izan duela.

Nobiziatua izan zen urte gutxi haietan, Markina Karmeloko mintegi bilakatu zen, erlijiozko bizitza eta gogo-gar bizi artean; hasiera haien ondorio izango zen, gerora, Euskalerri, Espainia, Amerika, India eta abarretara eginiko zabalkundea.

3. **Ikasleen etxea**

Karmengo komentuak hiru mendeetako historiaren ildo barruan, 1868.eko Berreraikuntzatik aurrera hartu izan zuen izugarrizko garrantzia, Markinako komunitateak Nafarroako S. Joakin Probintzian, bereziki Karmeldarren heziketa etxe bilakatzeari zor dio.

Gorago zehazki azaldu dugu Euskalerriko eta Espainiako Karmeldarren Berreraikuntzak hasiera Markinan izan zuela eta lehen urteetan nobiziatu eta filosofia zein teologiako ikastetxe izan zela, bertan, batera, 40 erlijioso gazte bizitzera helduz eta nobizen eta ikasleen bizimodua hainbatetan ezberdina izanez. Aita Pedro José, Aita Manuel eta abar ikasle-etxe zereginetarako izango zen bigarren fundazio baten bila aritu ziren, baina, zeharo erlijioaren aurkakoa zen egoera sozio-politikoak beteezin egiten zituen beraian asmorik ederrenak; hala ere, 1876.ean fundazio berriak (Larrean, 1876.ean; Avila-n, 1876.ean; Desierto de las Palmas-en -Castellón-, 1876.ean; Burgos-en, 1877.ean; Segovia-n, 1877.ean; Alba de Tormes-en, 1878.ean; etabarretan) egiten hasi zirenean, Markinako gazteak etxe ezberdinetan banatu zituzten; horrela, esaterako, 1876.eko abuztuan nobiziatua Markinatik Larreara eraman zuten[24];

---

[21] *Correspondencia...*, 287.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1872-I-16an eginiko gutuna.
[22] MKA, A-VII-1: *Liber Professionum Votorum Simplicium.*
[23] *Correspondencia...*, 583.zk.
[24] Ibd.

1878.ean, Burgos-eko komentua filosofoen etxe bilakatu zen; 1885.ean, ikasleak Burgosen eta Segovian zeuden; 1886.ean. Alba de Tormes-en ere teologoak zeuden, etab. Probintzia 1889.ean zatitu zenean, Probintziako ikasle ezberdinak Burgos, Markina, Begoña-Bilbo, Gasteiz eta abarretan bilduak izan ziren[25].

Eta urte asko geroago, Markinako Karmengo komentuan egingo zituzten ikasketak batxilergoko ikasleek. Azken mende honetan komentuko bizimodua ikastetxe izateak baldintzatuta egon izan da. Eta ikasleen bizimoduaren tankeran, bestalde, filosofo-teologoena eta batxilerrena bereiztu beharra dago.

a. **Filosofia zein teologiako ikastetxea**

Markinako Karmengo komentua, esan den bezala, bakarrik Berreraikuntza ostean izan da ikastetxe. Aurreko urteetan komentu arrunta izan zen mendeetan zehar. Bestalde, agirien urritasuna dela bide, ezinezkoa egiten zaigu orduko bizimoduko zenbait ikuspunturen berri jakitea. Dena den, ezaguna dugu 1809.eko Definitorio Probintzialak Iruñeko eta Markinako komentuak teologia eskolastikoa irakasteko ikastetxe izendatuak izan zirela[26].

aa. *Garapena eta estatistikak*

Markinako Karmengo komentuan filosofiako ikastaroak eman izan dira 1871-1885, 1895-1896.eko urteetan; eta teologiakoak 1874-1888, 1893-1894, 1937-1946. urteetan. Baina, ikastaroen kopurua oso ezberdina zen; 1871 eta 1876.ean filosofia eta teologiako urtez urteko ikastaro guztiak eman ziren artean, geroagoko urteetan filosofia edo/eta teologiako ikasturteren bat eman zen bakarrik[27].

Filosofiako hasierako ikastaroko lehen azterketan 17 gazte karmeldar ageri dira; eta teologiako lehen urte edo ikastaroan, 1875.ean, 13 ikasle aurkeztu ziren azterketara. Geroagoko ikasturteetan, 1882.ean, filosofiako hirugarren ikasturtean, 23 ikasle ageri dira azterketak egiten (aurreko urtean 22) eta 1897.eko filosofiako lehen urtean 35 ikasle ziren (hurrengo bigarren ikasturtean 36 izan zirela); 1866.eko teologiako bigarren ikasturtean 22 ikasle egon ziren; 1941.ean, ikasturte ezberdinetakoak zirela, guztira 39 teologo, etab.

Lehen urteetan irakasle bakarra izan zuten, hots, Aita Tomás de Jesús María José (Alkorta) markinarra, Erromako Definitorio Jeneralak 1870.eko abenduaren 7an

---

[25] Ik. BAS, 69 /J: BERNARDO DE S. JOSE, *Restauración y Progresos de la Orden Carmelitana en España*.

[26] BAS, 1947.esk.: *Libro del Definitorio de la Provincia de San Joaquín de Navarra. Año de 1807*, 15.orr. (fotokopia GPKA-n).

[27] Hemen aurkezten ditudan datuak GPKA-n azterketen aktak jasoten dituzten eskuskribuetatik hartu ditut: 1. *Examen Studentium* [1872-1942], 2. *Liber examinum Fratrum Studentium Carmelitarum Discalceatorum Provinciae Sti.Joachim Navarrae* [1943-1962].

Markinako komenturako filosofiako 'Lector' (irakasle) izendatua[28]; 1875.eko apirilaren 24ean, Definitorio berberak, era berean, Teologiako 'lector' izandatu zuen, filosofiako 'lector' Aita Paulo de Santa Teresa (Uriarte) izendatuz[29].

Aita Paulo de Santa Teresa, lehenago, 1872-1873. ikasturtean hasi zen filosofiako eskolak ematen. 1876.ean Teologiako irakasle lanetan lagun berria izango zuten, Aita Jeronimo de Jesús María José (Telleria).

Zenbait urtetan zehar teologia edo filosofiako ikasleei azterketak egiten agertzen diren irakasleen izen gehiago jaso nahi ditut: Aita Bernardo de Jesús (teologia eta filosofia, 1877), Aita Joaquín de S. Simón Stock (teologia, 1886), Aita Juan Vicente de Jesús María (teologia, 1887), Aita Berardo de San José (filosofia, 1897), Aita Jenaro de S. José eta aita Eduardo de S.Teresa del Niño Jesús (teologia, 1938), Aita Aniceto del Divino Redentor, Aita Leandro de la Inmaculada Concepción eta Aita Aurelio del Niño Jesús (teologia, 1940), Aita Segundo de la Eucarístia eta Aita Gregorio de Jesús Crucificado (teologia, 1941), Aita Miguel Angel de S. José eta Aita Bernardo de San José (Teología, 1943) eta Aita Emiliano del Niño Jesús (musica sacra, 1943...), Aita Buenaventura de San José eta Aita Bernardo de María (teología, 1945)...

bb. *Gaiak, egutegiak eta ordutegiak*

Argi geratu denez Markinako ikasturteak era askotakoak izan ziren, ikasturteen kopuruari zein filosofia edo/eta teologiako gaiei zein ikasleen kopuruari zegokienean. Urte guztietako datuak jasotea luzeegia litzatekeenez, adibide gisa, gerra zibil ondoko ikasturte bati, egin-eginean, 1939-1940.ari dagozkionak bilduko ditut: guztira teologiako 36 ikasle ageri dira azterketa aktetan: laugarren ikasturteko 3, hirugarreneko 23 eta lehenengoko 9; eta beste bat, teologia osoari edo «de universa» deituari buruzkoa egin zuela[30].

Datu ezberdinak laburkiro eskainiz honakook ekar ditzakegu gogora:[31].

1. *Ikasturtea:*
    1. Oinarrizko teologia
    2. Eskritura Santua
    3. Elizaren Historia
    4. Ordenaren Historia
    5. Hizkuntz greko-biblikoa

[28] GPKA, *Examen Studentium*, [2v].
[29] ADG, 85.orr.
[30] Ikasle hauetaz gainera beste 11 zeuden Korellan filosofiako hirugarren ikasturtean, Gasteizen beste 24 filosofiako bigarren ikasturtean, Iruñean 23 filosofiako lehen ikasturtean eta 18 nobize Larrean: guztira 110 gazte: GPKA, B, 2.kutx., *Catalogus Fratrum studentium Theologiae et Philosophiae...*
[31] GPKA, Markina 3.

6. Hebraiera
7. Eliz kantua.

2. *Ikasturtea:*

1. Teologia dogmatikoa
2. Eskritura Santua
3. Elizaren Historia
4. Patrologia (Eliz Gurasoen Historia)
5. Eliz kantua.

— *Ordutegia:*

Goizez bi eskola (8,30etan eta 10,30etan) eta beste bat arratsaldez.

— *Irakasleak:*.

Aita Jenaro de S. José, Aita Eduardo de S. Teresa del Niño Jesús, Aita Aniceto del Divino Redentor, Aita Leandro de la Inmaculada Concepción, (Aurelio del Niño Jesús).

— *Testu garrantzitsuenak:*

Aita Valentín Zubizarreta-ren *Teologia dogmatica;* Ferreres-en *Teología Moral;* Aita Crisógono de Jesús karmeldarraren *Teología Mística;* Llovera-ren *Sociología;* Rauschen-en *Patrología;* Lamy eta Inciso-ren *Introducción a la Sagrada Escritura;* Goñi-ren *Grekoa eta Hebraiera,* etab[32].

1940.eko abuztuko azterketen ondoren, deliberamenduak izan ziren 37 ikasle, Apaizgoko Ordena Santuak eta Ordena Txikiak hartzera zein Profesio Nagusia egitera onartzeko.

cc. *Onarpen-sistema eta notak*

Filosofia eta teologiako irakaskuntza urteetan bi aldi ezberdin ageri zaizkigu kalifikazioak jartzerakoan: 1872.etik gerra zibilerarte, notetan *nahikoa/gutxiegi* ageri da bakarrik; baina, 1938.etik aurrera kalifikazio zehatzak jartzen dira, handiena 10a, nahikoa 5a eta hortik beherakoak gutxiegi direla.

Era berean, portaeran ere *nahikoa* lortu beharra izaten zuten. Lehen urteetan (1872-1884) guztiak aprobatuak izan ziren zientzian zein portaeran. 1885.ean, portaeran gutxiegi duen bat ageri da. 1888.ean, beste batek *gutxiegi* du portaeran zein zientzian eta hiruk zientzian; 1894.ean batek *gutxiegi* portaeran; 1897.ean, 22k na-

[32] Ibd., *Cursus theologicus* II...; *Relación de los libros de textos...*

hikoa lortu zuten zientzian eta portaeran, bostek *gutxiegi* portaeran eta 9k gutxiegi zientzian. 1898.ean, 32k *nahikoa* eta 4k *gutxiegi* lortu zuten zientzian.

Gerrondoko urteetan (1937-1946), kalifikazioak nota eta guzti agertzen direnean, ez du inork *gutxiegirik* ez zientzian ezta portaeran, asko izan ziren arren Markinako Karmengo ikastetxetik iragan ziren teologiako ikasleak[33].

Notak jarri ziren lehen urtean jarraiko kalifikazio hauek izan ziren (oraindik ikasle gutxi aurkitzen zen, gerra amaitu gabe zegoelako)[34]:

Hirugarren ikasturtea:

Izena	Teol.dog.	Der.Can.	Soziol.
Ludovico del Niño Jesús	7	7,25	7,25
Atilano de la Vir. del Carmen	8,50	8,25	8
Justo de S. Teresa	8,50	8,25	8,50
Jenaro de la Sagr. Familia	6,25	7,25	8

Lehen Ikasturtea:

Joaquín M.ª del SS. Sacramento	9,50	9,25	9
Bernardo María de S. José	9,50	9,25	9,50
Carlos del Niño Jesús	10	10	10

dd. *Eztabaida teologikoak*

Ikasgai teologiko nagusiak (Oinarrizko teologia, Dogmatika, Morala, Eskritura Santua, Elizaren Historia eta Zuzenbide kanonikoa), ikasgai lagungarriak (Teologia mistikoa, Pastoraltza, Patrologia, Ordenako historia, Liturgia, Greko eta Hebraiera hizkuntzak, eliz kantua) eta, batez ere udako oporraldian ematen ziren aukerakoak (Arkeologia edo Kristau Artea, Sermoigintza, Misionologia, Hizkuntz Modernoak) ematez gainera, beste zenbait iharduera akademiko izaten ziren ikasturtean zehar, esateroko, ageriko eztabaida teologikoak, ohizkoak zein ezohizkoak, etab; beste batzutan idatziak ere bai.

1939-1940.eko ikasturteari zegokion eztabaiden egitaraua geratu zaigu eta garai hartan zuten ikasteko gogoaren ezaugarri nabaria dugu[35]:

Ageriko eztabaidak:

[33] GPKA, *Examen Studentium*; *Liber examinum*...
[34] Ibd.
[35] GPKA, Markina 3, *Collegium theologicum Marquinense Programa disputationum et exercitationum pro anno Domini 1939-1940.*

Azaroak 30 (osteguna): moralari buruzko gaia: hain zuzen: kontzientziari buruzkoa:
Moderatzailea: Aita Leandro de la Inmac. Concepción
Defendatzailea: Alvaro de la Inmaculada Concepción
Aurkakoa: Justo de S.Teresa.

Abenduak 21: dogmatikari buruzko eztabaida: Tesia: *«Facienti quod est in se Deus non denegat gratiam»* (Bere esku dagoena egiten duenari Jainkoak ez dio graziarik ukatzen)
Moderatzailea: Aita Aniceto del Divino Redentor.
Defendatzailea: Bartolomé de la S.Familia
Aurkakoak: Restituto de S. Teresa eta Buenaventura de S. José.

Urtarrilak 25: moralari buruzko gaia
Moderatzailea: Aita Leandro de la Inmac. Concepción
Defendatzailea: Bernardo María de S. José
Aurkakoa: Atilano de S. Teresa.

Otsailak 22: dogmatikari buruzko eztabaida.
Moderatzailea: Aita Eduardo de S.Teresa
Defendatzailea: Valeriano del Niño Jesús
Aurkakoak: Constantino del Niño Jesús eta Javier de S. José.

Martxoak 14: moralari buruzko gaia.
Moderatzailea: Aita Leandro de la Inmac. Concepción
Defendatzailea: Higinio de S.Teresa
Aurkakoa: Joaquín María del SSmo. Sacramento.

Egitarauetik kanpo: Akino-ko S.Tomasen ohoretan: dogmatikari buruzko eztabaida.
Moderatzailea: Aita Aniceto del Divino Redentor
Defendatzailea: Juan Vicente de S. José
Aurkakoa: Aureliano de la Virgen del Carmen.

Horretaz gainera, Aita Eduardo de S.Teresa irakasleak: *«Sobre la autoridad de S.Tomás en la filosofía según los Romanos Pontífices»* gaia azaldu zuen.

Ikasturte honetan, horietaz gainera, izan ziren beste ohizko eztabaida batzuk ere, hau da, ikastalde edo maila bakoitzak izaten zituenak; ikasgelan, bi asterik behin, egiten ziren. Horrela, esaterako, azaroaren 20an egin zirenak:

Teologiako hirugarren mailakoek:

Tesia: *«Ad omnes et singulos actus salutares est homini lapso simpliciter necessaria gratia Dei»* (Jainkoaren grazia ezinbestekoa da gizakiaren egintza guztiak eta bakarrak merezimenduzkoak izan daitezen).
Defendatzailea: Angel María de S. José.
Aurkakoa: Amador del Niño Jesús.

Teologiako lehen mailakoek:

Tesia: *«S.Theologia est vera scientia; sed in actuali statu adhuc imperfecta»* (Teologia benetako zientzia da, baina egungo egoeran oraindik osagabea)
Moderatzailea: Aita Eduardo de S.Teresa
Defendatzailea: Salvador María de S. José
Aurkakoa: José Joaquín del Niño Jesús.

Eta horrela egiten ziren hainbat eta hainbat eztabaida teologiko. Ariketa idatziak ere egiten ziren.

ee. *Ospakizunak eta ekitaldiak*

Ikasle teologoen ikastetxearen izpiritu eta dinamismo honen barruan zenbait ospakizun erlijioso-kultural eta ekitaldi akademiko burutu ohi ziren:.

— Karmengo ikastetxeak, esaterako, 1939.eko Gabonetan eta 1940.eko urtearen hasieratan Jesusen jaiotzaren omenez zenbait ospakizun burutu zituen, egitarau osoa eskuratu ahal izan dugularik[36]. Halako iharduketak 17 egun jarraikoetan zehar egin ziren. Era eta mota askotakoak izan ziren iharduketak; hala nola, mezak, hitzaldiak, abestiak, bederatziurrena hitzaldi eta guzti, eta, baita ere, sukalde, kirol eta joko ospakizunak; esaterako, pilota txapelketa, musika eta antzerki ekitaldiak, umorezko ihardunak etab. Lau foliotako egitarau luzea izan zen, argi nabari delarik Karmengo teologiako ikastetxeak erlijio, kultura eta izpiritu alorrean zuen bizitasuna.

— Kultur egintzetarako oso aproposa izan ohi zen data ezagun bat, martxoaren 7koa, Akinoko Tomas Santuaren eguna izaten zen, ikastetxeak beraren omenetan literatura-musika ekitaldiak antolatzen zituelarik. Lagin gisa, 1944,1945 eta 1946. urteetako egitarauak aipatzen ditut[37]:

- 1944.eko ekitaldiko gaia honako hau izan zen: *La maternidad divina de María fundamento de sus relaciones para con nosotros: 1. Maternidad espiritual; 2. Mediación.*

  Lau hitzaldi egin zituzten Aita Jaime de la Virgen del Pilar, Aita Eliseo del Niño Jesús, Aita Antonio de S. José eta Aita Pedro María de S. Jose fraideek, beraien artean abestiak lau ahotsetan tartekatuz.
- 1945.eko ekitaldiko gaia beste hau izan zen: *La evolución expositivo-doctrinal de la teología católica en el decurso de la historia.* Bost hitzaldi teologiko egin zituztela Eulalio del Niño Jesús, Eusebio del Niño Jesús, Bernardo de la Inmaculada Concepción, Augusto de la Inmaculada Concepción eta Fermín de la Virgen del Carmen, laugarren ikasturte edo mailako ikasleek. Tarteka

[36] Ibd., *Programa de los festejos...*
[37] GPKA, Markina3: *Homenaje literario-musical a Sto.Tomás de Aquino*; 1945: *Velada a Sto.Tomás de Aquino*; 1946: *Velada literario musical en honor del angélico doctor Sto.Tomás de Aquino.*

J.Kreitmaier, J.Valdés, L.Iruarrizaga eta abarren abestiak lau ahotsetan abestu ziren.

- 1946.eko ekitaldia, Mezako oparia eta Akinoko Tomas Santuaren doktrinaren azalpenean oinarritu zen. Hitzaldiak laugarren ikasturte edo mailako teologoek eginak izan ziren.

— Izpiritualismo eta ikasketa giro honetan barnesartu dezakegu, garai hartan eta geroago ere bai, komentuetan oraintsu arte izan den lehiaketa izpirituala edo joko izpirituala egiteko ohitura ere; Komunitate batek beste bati birtute goiesgarri bat edota halakoaren alde bereziren bat nork hobekien bizi eginiko herronka izaten zen; adibide gisa, hiru gutun idatzi dakartzat gogora: 1934-1935. ikasturteko lehiaketa; Markinako Karmengo komentuak herronka egin zien beste komentu batzuri *sinesmena eta Jainkoaren presentzia* nork ondoen bizi saiatzera; 1945-1946. ean Teologiako ikastetxeak herronka berdina egin zien gainerako ikastetxeei; 1949-1950.ean herronkaren muina karmeldar Eskapularioaren zazpigarren mendeurrena ahalik eta duintasun handienaz ospatzera eginiko deia izan zen[38].

b. **Humanistika-ikastetxea edo batxilergoko azken urtea**

aa. *Garai berria eta garapen estatistikoa*

Markinako Karmengo etxea, filosofiako ikastetxea izan ondoren, profesio eginberrien zein batxilergoko azken urteko ikasleen etxea izan zen. Gerra zibil aurreko urteetan, *«Examen studentium»* deritzan liburu ofizialean batxilergoko ikasketak lau urte jarraikoetan ageri dira bakarrik; 1911-1915. urteetan zehar, Markinatik guztira 35 ikasle karmeldar iragan ziren.

Baina azterketa liburu hori behaztopo gerta dakiguke, halako ikasketak, bestelako urteei dagokien berririk edo aktarik ez denez ageri, bakarrik urte horietan (eta 1929) izan zirela pentsatzera bultzatuz. Horregaitik, oharterazi beharra dago gerra baino lehenago, XX. mendean, Larreako nobiziatuaren ondoren, profesio eginberriek «profesoratua» edo profesio eginberrien urtea egiten zutela Markinan. Benetan penagarria izan da *«Examen studentium»* liburuak Markinan hainbete humanistika-urteetan zehar eginiko egintzak ez jasotea; urte hau, bestalde, filosofia-ikasketen sarrera urtea gertatzen zen.

Gudatean, esan dugun bezala, Markinako Karmengo etxea teologiako ikastetxe bilakatu zen; eta zeregin hori utzi zuenean, berriro profesio eginberrien etxe eta batxilergoko azken urte, bostgarren ikasturte, eta geroago seigarrena egiteko etxe. Epealdi hau, 19 urte edo ikasturtetan zeharkoa, 1948.etik 1968.era artekoa izan zen, bi etenaldi izan zituela (1954-1956); horietako lehen urtean ikastaroa Larrean egin

[38] GPKA, Markina 3 (MKA, A-I-261).

zen eta bigarrenean ez zen ikaslerik izan. 19 urte iraun zuen azken epealdi honetan 286 karmeldar ikasle gazte iragan ziren Markinatik. Hauek izan ziren urtero aztertutako ikasleak: 17 (1949); 8 (1950); 18 (1951); 16 (1952); 13 (1953); 12 (1954); 15 (1957); 18 (1958); 16 (1959); 21 (1960); 24 (1961); 14 (1962); 16 (1963); 16 (1964); 12 (1965); 21 (1966); 9+10 (1967) eta 14+13 (1968)[39].

bb. *Ordutegiak eta egutegiak*

— Azken garai honetako hainbat ordutegi eta egutegi ditugu, baina urte edo ikasturteren batzutakoak baino ez ditut hemen jasoko, urterik urteko ordutegi eta egitarauen errepikapenik ez egiteko.

Horrela, esaterako, 1960. urteko eguneroko ordutegia edo lan egunetakoa, honelako zen:

5,40 *Hora surgendi* (jaikitzeko ordua)
6 *Recitatio Horarum* (Eliz Orduak errazatzea)
6,30 *Oratio mentalis cum Missa conventuali* (Gogamenezko otoitza eta komentumeza)
7,30 *Missa Professorum* (profesio eginberrien meza)
9,45 *Prima lectio* (lehen eskola)
11,45 *Secunda lectio* (bigarren eskola)
12,50 *Examen conscientiae* (Kontzientzi azterketa)
13 *Refectio, recreatio, visitatio SSmi.Sacramenti...* (Bazkaria, jolasaldia, ikustaldia Sakramentu Santuari...)
14,30 *Quies postmeridiana* (bazkalondoko atsedenaldia)
15,30 *Recitatio vesperarum* (bezperak errezatzea)
17 *Tertia lectio* (Hirugarren eskola)
17,45 *Recreatio studentium* (ikasleen jolasaldia)
18,15 *Praeparatio ad orationem* (otoitzerako gertaketa)
18,30 *Oratio mentalis* (Gogamenezko otoitzaldia)
19,30 *Competorium et Matut. cum Laudibus* (Arratseko otoitza, Maitinak eta Gorespenak)
21,15 *Collatio, examen, etc.* (Afaria, kontzientzi azterketa, etab.)
22 *Hora cubandi* (oherako ordua)[40].

— Esaterako 1962-1963. ikasturtean, Aita Gregorio de Jesús Crucificado Probintzial zela, 1962.eko urriaren 5ean onartutako eskola ordutegia, 1962.eko urriaren 1ean hasten zen eta 1963.eko ekainaren 28an amaitzen; 13 ikasle zeuden, urtean zehar beste hiru hegoamerikar lotu zitzaiela[41].

---

[39] MKA, A-XV-1:*Colegio de Marquina: notas correspondientes a los exámenes de fin de curso.*
[40] GPKA, Markina 3, *Domus Professorum Marquinae horarium communitatis et collegii 1960.*
[41] GPKA, Markina 3: *Domus professorum Marquinae. Kalendarum scholae por anno academico 1962-1963*; ik, era berean, MKA, A-I-267.

cc. *Ikasgaiak eta irakasleak*

Kontserbatu izan diren eskueskribuetan[42], gerra osteko 19 urte edo ikasturtetan zehar aztertuak izan zirenen eta ikasi zituzten ikasgaien izanak ageri zaizkigu; berri gutxiago, ordea, gerra aurreko lau ikastaroei (1911-1915) buruz. Ezaugarri gisa, 1962-1963. ikasturteko datuak aurkeztuko ditut:[43]

Urte hartako Priorea, Aita Jenaro de la Sagrada Familia zen eta ikasleen maisua Aita Emiliano del Niño Jesús. Hauek izan ziren azterketetan ageri diren ikasgaiak:

1. *Latina,* 5 ordu astero: irakaslea Aita Gabriel de la Virgen del Carmen. Latinezko idazketa eta konposaketa ariketak egiten ziren eta gramatika ikasten.
2. *Idazketa* eta *estiloa gaztelera hizkuntzan,* bi ordu astero; irakaslea Aita Miguel María del Niño Jesús; Garcia Mata-k argitaratutako liburua erabiltzen zen.
3. *Literaturaren historia,* bi ordu astero; irakaslea Aita Miguel María; Díaz Plajaren liburua erabiltzen zen.
4. *Grekoa,* bi ordu astero; irakaslea: Aita Emiliano.
5. *Euskara,* bi ordu astero; Irakaslea: Aita Migel Mari; Zabala Arana-ren gramatika aztertuz eta euskal literaturari begirada emanez.
6. *Frantsesa,* ordubete astero; Irakaslea: Aita Emiliano.
7. *Ordenako legeria,* bi ordu astero; irakaslea: Aita Gabriel.
8. *Aszetika,* ordubete astero; Irakaslea: Aita Migel Mari, Aita Aureliano-ren testuliburua erabiliz.
9. *Musika,* ordubete; irakaslea: Aita Emiliano.

Eskolorduak: 10, 11,50 eta 17etan izaten ziren.

dd. *Kalifikazioak*

1912-1915. urteen arteko azterketetako aktetan kalifikazioak nota berezirik gabe eta bakarrik *nahikoa* edo *gutxiegi* jarriz agertzen dira; 4 urte horietan 37 ikasle izan zirelarik, bat ageri da bakarrik *gutxiegi* duela 1913.ean.

1949-1968. urteen arteko ikasturteetan notak ageri dira, kalifikaziorik handiena 10 delarik. Nahikoa kalifikazio onak ageri dira eta ia *gutxiegirik* ez; kasuren batetan portaeran; Nobiziatuko aurreko urteko lan onaren emaitzatzat jo behar dugu, jarraiko urtean hain portaera ona izate hori zein ikasketeko gogo bizia erakuste hori..

Urte guzti hauetan zehar, kalifikaziorik handienak 1962-1963. ikasturtean ageri dira; hurrengo hau zen 13 euskaldun ikasleen batazbestekoa (ez ditut sartzen beranduago etorri ziren hiru hegoamerikarrak): *Aszetika* 8,5; *frantsea* 8; *latina* 8,6; *Literaturaren historia* 8,6; *Idazkera eta estiloa* 9; *grekoa* 8,8; *musika* 8,8; *Euskara* 9, (eta *piano* azterketa egin zuten laurena 8,5), etab.

---

[42] GPKA, *Examen studentium* [1872-1942]; MKA, a-XV-1: *Libro de Reuniones de los profesores [1959-1967]*; A-XVI-1, *Colegio de Marquina: Notas...* [1948-1968].

[43] GPKA, Markina 3, *Domus professorum Marquinae. Kalendarium scholae pro anno academico 1962-1963*; ik., era berean, MKA, A-I-267.

c. «Collationes» (Eztabaidak)[44]

Humanistika ikastetxea izan zen garaian, 1954.eko maiatzaren 12ko Nafarroako S. Joakin probintziako batzarraren araua betez (komunitatea bakoitzean teologiazko gaiei buruzko eztabaidak, hau da, arazo moralei irtenbidea bilatzeko bilerak egitea agintzen zuen) Markinako Karmengo komunitatea 1954.eko irailaren 28an bildu zen eta kasu moral bat aztertu zuten. Teologia-moral gaiei eta liturgiari buruzko azalpen hauek nahiko erregularitasunez egiten ziren, 1968. urtean amaitu zirela. Lehen hiru urteetan moralari zein liturgiari buruzko 54 gai aztetu ziren; 1958-1959.ean 13 kasu; 1959-1960.ean beste 13; 1960-1961.ean 10 kasu; 1962.ean 6 kasu bakarrik; 1966-1967.ean 18raino eta 1967-1968.ean zortzi kasu. Hau da, guztira, 138 kasu edo gai aztertu ziren.

Teologia eta liturgiari buruzko eztabaida hauen bidez, zeintzu ziren kezkatzen zituzten gaiak, zer nolako maila intelektuala eta interesa, bertako kideen ikuspuntua eta heziketa teologikoa etab. ezagutu ditzakegu. «Collationes» deritzan liburuan laburpen txikiak kontserbatu dira bakarrik: lehen urteetan orrialde bakoitzean bi kasu; geroagoko urteetan, oraindik laburrago azaltzen ziren.

Hala ere garai hartan zuten teologiako prestakuntza mailaren ezaugarria izan ohi dira[45].

4. Biblioteka

Antzinatik gure legeetan garrantzi handia eman izan zaiei komentuetako biblioteka edo liburutegiei, batez ere komentua ikastetxe bilakatzen zenean:

«En todos nuestros conventos habrá una librería común, en que se pongan todos sus libros, y el Lector de casos cuidará por lo común de ella como Bibliotecario: mas en los Colegios de moral lo será el Maestro de estudiantes, y en los desiertos tendrá este encargo el Religioso que señale el Prior. El Bibliotecario cuidará con diligencia de la librería, procurará que esté cerrada, ordenará los libros, según sus diversos facultades, y hará un inventario de todos ellos, que siempre estarán en la librería»....»Procuren los Prelados que haya en la librería todos los libros necesarios así para el aprovechamiento de religiosos, como para el bien de los próximos, y particularmente libros devotos y espirituales: que éstos y los demás se conserven y aumenten cada día; que se compren todos los libros de Autores graves que de nuevo salgan a luz» [46]...

---

[44] MKA, A-XIV-1, *Collationes de re dogmatica et morali.*

[45] Komunitatearen barne-bizitza sakonagotik ezagutzeko jarraiko urteetako egunerokoak irakur daitezke: 1948-1949 (MKA, A-I-263), 1957 (MKA, A-I-266), 1960-1961 (MKA, A-I-268), 1961-1962 (MKA,A-I-271).

[46] *Regla Primitiva y Constituciones de los religiosos descalzos de la Orden de Nuestra Madre Santísima...* Madrid 1788, 214-215.orr.

a. **Historia laburra**

Fundazioa egin ondoren, 1809.erarte, hau da, 118 urtetan zehar komentuko biblioteka aberastuz joan zen, 1809.ean, frantseste garaian, komentuko artxiboko alderik handiena galdu zen bezalaxe, «Liburutegiak» edo bibliotekak ere hondamen itzela jasan zuen, galera handiak izan zituela[47].

Karmeldarrak 1813an itzuli ziren komentura. Baina, 1839.ean, erlijiosoen komunitateak kenduak izatean, Markinako fraideak komentua berriro utzi beharra izan zuten. 1868.ean berreskuratu zuten komunitate bizitza. Normala da halako hondamen handien artean, bibliotekan ere liburu eta fondo garrantzitsuen galera izatea. Horrela, 1872.ean oso kezkatuta ageri zaizkigu Markinako Karmeldarrak, ardura handiz Frantziatik ikasleentzat filosofiako liburuak ekartzeko ahaleginetan[48].

Gorago esan dugu, era berean, 1973.eko abuztuaren 2an Markinako Karmengo etxean goardia zibilek eginiko araketan ere, bibliotekako liburu batzu eraman zituztela[49].

Aita José León de la Inmaculada Concepción Probintzialak 1940.eko apirilean Markinako Karmengo etxeari ikustaldi kanonikoa egin zionean, biblioteka egokiro antolatzeko eta ongi zaintzeko aginduak eman zituen[50].

1958.ean komunitateak bibliotekari indar berria eman nahi izan zion, esaterako, beste hainbat erosketen artean *«Biblioteca de Autores Cristianos» (B.A.C.)* erosiz[51].

b. **Bibliotekaren azken kokapena eta antolaketa**

1963-1964. ikasturtean zehar egin zen bibliotekaren azken kokapena. Horretarako zenbait obra burutu ziren baldintza egokietan jartzeko. Honela deskribatzen digu kronistak: «Se tiraron primeramente las celdas del 2.° piso del colegio. Se llevaron las gallinas al frontón y se tiró el suelo que separaba el gallinero del piso de arriba, aprovechando las vigas (pinotea) para sacar el entarimado de la futura biblioteca. Se echó toda la placa de cemento armado de separación entre el gallinero y la biblioteca»[52]. Bibliotekan horma bikoitza egin zen hezetasunak kentzeko.

1968.ean Anaia Adolfok tokiz aldatu zituen eta toki berrian jarri biblioteka zaharreko zurezko apalategiak. Horretaz gainera, beste lau apalategi metaliko ere ezarri ziren[53]. Jarraian liburuak ezarri ziren bertan, gaur egun guztira, egokiro jarrita

---

[47] MKA, A-I-70: FR. BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 23.orr.
[48] *Correspondencia...*, 337.zk. 1872-X-12ko gutuna; 340.zk. 1872-X-22ko gutuna.
[49] MKA, F-I-1.
[50] MKA, A-X-2, *Liber Visitationum Provincialium.*
[51] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 49.orr.
[52] Ibd., 71.orr.
[53] Ibd. 99.orr.

eta fitxategian ongi sailkatuta, 12.000 lituruki baino gehiago direlarik; une honetan biblitekaren ardura Aita Joseba Zubikaraik dauka[54].

[54] GPKA, Markina 3-an 17 orrialdeko eskuskribu bat dago (*Apuntes bibliográficos sobre algunas obras de la Orden que existen en nuestras bibliotecas*''...); bertan Karmeldarren Ordenari aipamena egiten dioten liburu nagusiak biltzen dira; beraien arteko 85 Markinako Karmengo bibliotekari dagozkionak dira eta iruzkin txikiak eskaintzen ditu: XVI-XX.mendeetako liburuak (XX.mendeko gutxi) daude, hainbat XIX.mendekoak direla. Esaterako, jarraikook aipa ditzakegu: 3. P. TOMAS DE JESUS, *Commentaria in Regulam Primitivam Fratum Beatae Mariae Virginis de Monte Carmelo*..., Salamanca 1599, 485 orr. 7. Ordenako Jeneral izan zen P. JUAN DE LA ASUNCION, *Promptuario del Carmen*, 2 t. Madrid 1698. 17. Ordenako Jeneral izan zen P. ALONSO DE JESUS MARIA, *Peligros y reparos de la perfección y paz religiosa*, 1625, 651+49 orr. 23.(eta 32). ''Salmanticenses'' eta ''Complutenses''... ospetsuen zenbait liburuki. 42 *Bullarium Carmelitanum*, Erroma, 1768, 3 eta 4. liburukiak. 48-49. Frai Bartolome Santa Teresaren euskarako lanak. 82. *Ven.P.Fr.Joannis a Jesu Maria Carmelitanae Excalceati, Calagurritani, Opera omnia*, 3 t. Florencia 1771. 83. P. DANIEL DE LA VIRGEN MARIA, *Speculum Carmelitanum*, Amberes 1680, etab. .

B. APOSTOLUTZA-IHARDUERA

Orain arte gogoratu ditugun Markinako Karmengo etxearen historiako gertakarien artean, Karmeldarren mendez mendeko ibilaldi luzeko uneren batzu edo beraien apostolutza-iharduerak ikusi izan ditugu: gaisoei emaniko zerbitzuak, sermoigintza iharduerak, beren elizako liturgia zerbitzuak etab. Kapitulu honetan zehazkiago aztertuko ditugu, Markinan eginiko apostolutza-iharduera eta, aparteko eran Karmeldarrek beren ezaugarritzat duten Andra Mariarenganako maitasun bizitza azpimarratuz.

1. Markinatik kanpo

Fundazioaren lehen urteen berri ematerakoan, handia zela Karmeldarrek izpiritu eta kultura alorrean burututako onegitea Markinarentzat eta kanpokoentzat, bereziki ingurukoentzat esanez Udalak agertutako erizpena aipatu dugu[55]; bizkaitarrentzat zuten onegite hau zela eta atera zen, era berean, Bizkaiko Jaurerria Markinako Karmeldarren alde fundazioaren lehen urte nekagarri eta larrietan[56].

Antzinako legegintzan, Karmeldarren komentuetan Sermolari langintza egon ohi zen, beraren eginkizun nagusiena zeregin hori betetzea zelarik. Markinan, aldi luze batetan, eginkizun horren ardura Frai Bartolome de Santa Teresa, euskal idazle ezagun eta sermolari ospetsuak izan zuen. Honek, gorago ikusi izan dugunez, eskuharmen handia izan zuen frantsetearen ondoren (1809-1813) berehala Karmengo komentua eta eliza berreskuratzeko orduan.

---

[55] MUA, Libro de decretos...1689-1708. 15r, (MKA, A-I-4).
[56] MBN, 2680. esku., 18r-23v (MKA, A-I-2).

Esklaustrazio urte luzeetan zehar (1839-1868), Markinako Karmeldarrek zein Larrea, Balmaseda, Lazkao eta abarrekoek zerbitzuak eskaintzen zituzten Bizkaiko herri eta eliza ugarietan, egoera hori erabili zutelarik, batez ere, Karmengo Amarenganako debozioa zabaltzeko.

Baina Markinako Karmengo komentuaren apostolutza-adiera nabarmenena, lehenago esan denez, beraren 1868.eko Berreraikuntzan datza, Euskalerria, Espainia eta, geroago, Amerika eta abarretako Karmeldarren berreraikuntzaren abiapuntu bilakatu zelako. Honek apostolutza eta misio ihardueran ekarri zuen ondorioa neurtezina da: gertakari hau, bereziki apostolutza eta misio ikuspegiz begiratuta oso garrantzi handikoa izanik, laburbildurik eskainiko ditugun geroagoko gainerako ihardueraK berarekin gonbaratuz huskeria txikiak izango ditugu.

Markinak, apostolu, apezpiku, jeneral, misiolari, santu eta abarren jatorri eta abiapuntu izan delarik, apostolutza alorrean izan duen garrantzia oso aparta eta berezia izan da Euskalerriko Karmeldarren artean eta, baita, azken mende hauetan Espainia osoan zehar ere. Aldra handi hori Markinatik atera zen Larrea, Avila, Burgos, Alba de Tormes, Desierto de Las Palmas (Castellón), Amerika, India eta abarretan fundazioak egitera, era berean, fundazio horiek beste hainbat eta hainbaten sorbide eta apostolutza abiapuntu bilakatu zirela.

Hiritik kanpo eginiko apostolutzari dagokionean Markinako Karmengo komentuarentzat garrantzia hain handiko izan den gertaera hau aparte utzirik, beste datu zehatzagoak, batez ere, Bizkaian zehar eskainitako sermoigintzari dagozkionak aurkeztuko ditut lerro hauetan.

Etenik gabekoa izan da Markinatik kanpo burutu izan duten sermoigintza iharduera, batez ere garai berrian (1868.eko berreraikuntzaren ostean) gaur egunerarte, nahiz parrokia eta herri ezberdinetako santu zaindarien jaietan, nahiz misio herritar santuetan edota, bereziki, garizumako urteroko sermoigintzan.

Horrela, esaterako, 1878.eko apirilean Markinako Karmeldar bik misioa predikatu zuten Fruizen[57]. Hurrengo urtean, 1879.eko martxoan, misio herritar santuetako sermoiak egin zituzten Mundakan, sinesmen ugari aurkitu zutela; eta Aita Migelek Larrean labur idazten zuen: «izugarrizko jendetza izan da Jainkoaren hitza entzuten zein aitortzak eta jaunartzeak egiten. Goratua izan bedi Jainkoa! Eta Jainkoak bakea ematen badigu, finkatu egingo dira Erlijiosoen Ordenak eta Misio Santuen bidez herriak Jainkoaren bidera etorriko dira, eta hau da estatu guztietan benetako bakea jagoteko bide bakarra»[58].

Hurrengo urteetan iharduera hauek egiten jarraitu zuten eta, antza denez, Markinako Karmeldarrak sarriro deituak izan ziren, batez ere sermoiak euskaraz egitera. Horrela, 1882.eko otsailean Ermuan Markinako Karmeldar sermolariak eskatu zirenean, Aita Pedro José de Jesús María Probintzialak, gutun batetan, euskaraz ser-

[57] *Correspondencia...*, 667.zk. Aita Miguel de la SSma.Trinidad Gaytan kondeari 1878-IV-25ean eginiko gutuna.
[58] *Correspondencia...*, 710.zkia, 1879-III-13ko gutuna.

moiak egiteko gai ziren bertako Karmeldar guztiek hitza emanda zutela herri ezberdinetarako eta ezin zutela Ermuara joan erantzun zion Cándido Gaytan Kondeari[59]. Urte bereko uztailan Aita Tomasek Markinatik erantzun zion Gaytan Konde Jnari, parrokuari, jaietako sermoia Aita Jeronimo Larreako Prioreak egingo zuela esateko eskatzen zion[60].

Eta gure garaiko azken urteetara begiratuz, herrietan zehar garizumako sermoiak egiteko ohiturari jarraitu izan zaiola esan dezakegu. Horrela, esateroko, 1968.eko otsailean Migel Mari Prioreak eta Aita Honoriok aste betean zehar izan zituzten sermoiak eta Aita Jenarok lau astetan zehar[61]. Hurrengo urtean ere egin ziren garizumako sermoiak: Aita Jenarok sei astetan zehar eta Aita Luis Baraiazarrak bi astetan; Aita Prioreak, Katalunian, Karmeldar Hirugarrendarrei eta beraien ikastetxeko neskatoei, etab[62]. 1977.eko martxoan: Aita Jenaro Larruskain-ek aste bete osoko garizumako-ihardunaldiak Lezamako parrokian eta beste aste bete Lekeition eta hiru egunetakoak Urberuagan; Aita Leon Aranguren-ek hiru egunetakoak Santa Luziako kaperan (Bolibar) eta beste hiru egunetakoak Larruskainen; Aita Paben-ek astebeteko ihardunaldiak Bolibarren; Aita Tomas-ek hiru egunekoak Murelagako parrokian; hau da, lau Aita Karmeldarrek parte hartu zuten garizumako sermoigintzan, beraien artean lan ugariena Aita Jenarok burutu zuela[63].

Markinatik kanpo burututako apostolutzaren adierazpen labur hau amaitzeko Karmengo kofradiari buruz aritzerakoan aurkeztu dudan egintza aipagarria ekarriko dut gogora: hots, XVIII-XX. mendeetan, baina bereziki XIX.ean ta, baita ere, esklaustrazio garaian (1839-1868) zeharo zabaldu zuten Karmengo Ama eta beraren Eskapularioaganako debozioa, hasiera 1777.ean duen Karmengo kofradiako liburuan mila eta mila kofrade ageri direlarik izana emanda; ez dago ia-ia Bizkaia osoan Markinako Karmengo etxean kofrade ugari ez duen herririk; neurri txikiagoan bada ere, oso ugariak dira Gipuzkoan ere[64].

2. **Markinan (eta inguruan)**

Karmeldarrak Markinan burututako apostolutzaren historia, itxarotekoa den bezala, iharduera bereziak zein emaitzak direla tarteko, ezohizko unerik baldin bada ere, batez ere, bizitzan etenik gabe burututako eguneroko iharduerek mugatuta dago.

Kapitulu honetan, Karmengo elizan eta Markinako herrian burututako iharduera orokor honen ezaugarri izan daitezkeen datu batzu seinalatzeaz gainera, batez ere

---

[59] *Correspondencia...*, 782.zkia, 1882-II-23ko gutuna.
[60] *Correspondencia...* 786.zkia, 1882-VII-12ko gutuna.
[61] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 102.orr.
[62] Ibd., 111.orr.
[63] Ibd., 147.orr.
[64] MKA, C-XVIII-1.

Andra Mariari buruzko apostolutzari, hau da, Karmengo Amaren debozioari eta horrek herrian eta inguruan izandako eragin eta oihartzunari buruzko berriak aurkezten saituko naiz.

a. Apostolutza iharduera orokorrak

— Fundazioaren hasiera-hasieratik, Karmeldarrek, ihardueraril nagusienetarikoa sermoigintza zuten, nahiko zabala eta ugaria izan zelarik Hirian zein inguruetan. Gorago ikusi izan dugu fundazioa egin eta geroxeago, 1696. eta 1699. urteen artean, Udalak baldintza gisa Hiriak seinalaturiko egunetan urtean bi sermoi egin beharra ezarri ziela Karmeldarrei[65]; baldintza hori Espainiako Ordenako Definitorio Jeneralak 1697.ean eta 1699.ean onartu zuen[66].

Antonio Idiaquez Jnak Bartolomé Ramírez Jnari 1722.eko martxoaren 11n eginiko gutunean fraideak sermoiak egiten, aitortzen zein hilzorian zeudenei laguntzen egiten zituzten ahalegin handiak aipatzen dira[67].

Karmengo Amari eta herriak Berari zion debozioari eta liturgi ospakizunei buruzko berriak alde batera utziz gero, hasierako urteetako berri zehatz oso gutxi dugu apostolutza iharduerari buruz. Gehiago aurkitzen ditugu 1868.eko Berreraikuntzatik aurrera.

— Garai berri honetan, Karmengo elizako liturgi ospakizunak geroago eta ederragoak izan ziren, hainbatetan hobetu eta ugaritu egin zirela herriari elizan eskaintzen zitzaizkion zerbitzuak; 40 urtetako esklaustrazio aldian zehar karmeldar komunitaterik izan ez zuen herria geroago eta ugariago etortzen zen karmeldarren elizkizunetara.

Horrela, esaterako, 1870.eko martxoan, Karkasona-tik poztasuna aditzera emanez idatzi zion Aita José María de S. Luis Gonzaga karmeldarrak Aita Domingo de S. José Jeneralari Markinako etxeari eta Karmengo erlijio elizkizunei buruz berriak emanez: «Handitasunez ospatu dituzte ihauterietako 40 orduak: lehen egunean, Aita Migelek euskaraz egin zuen sermoia eta jendetza batu zen. Bigarrenean Aita Toribiok gazteleraz eta hirugarrenean Aita Manuelek, honek ere gazteleraz eta jende ugari bildu da»[68]. Ez dezagun ahaztu urte honetarako nobizeak zeudela bertan eta hauek zein, geroago, filosofia eta teologiako ikasleak izango zirela liturgia-egintzei bizitasuna eta edertasuna emango zietenak eta herriak bihotzez eskertzen zuela guzti hori.

Hain zuzen ere 1870. urte larri honetan, komentua berriro ere itxia izateko benetako mehatxu pean aurkitzen zela, fraideak, adorez beterik, «elizkizun izugarria» egin zuten urriaren 15ean, Santa Teresaren egunean[69]. Bi hilabete geroago «elizkizun

---

[65] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 108r, 1696-XII-31ko gutuna. (MKA,A-I-11).
[66] MUA, Erregistroa,8, 13.zk., 31.orr., 16v-17r, 19v-28r.
[67] Jatorrizkoa MPA-n, (kopia GPKA, Markina 3).
[68] MKA, A-I-152, 1870-III-8ko gutuna, jatorrizko Karmeldarren Erromako Artxibo Orokorrean.
[69] *Correspondencia...*, 181.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-X-17an eginiko gutuna.

ederrak» egin zituzten, baita ere, Gabonetan, hainbat jende bildu zuen gauerdiko meza nagusi eta guzti[70].

Hurrengo urtean, Aita Pedro Jose karmeldarrak Gaytan Kondeari idatzitako gutun batetan, bidenabar, Markinako Karmengo liturgi egintzek zuten ospea aipatzen dio, esaterako, larunbatetakoena; bertan ikusten denez Markinatik eta kanpokotik hainbat jende etortzen zen larunbatero *Salve*-an partehartzera : «La señora condesa de B. no nos ha visitado, por el Sr. Deán que ha estado aquí y que la conoce mucho supe que este año iba a Zarauz para el verano, yo desearía mucho que viese esta hermosa comunidad; el Sr.Deán decía:'qué gusto tendría la Señora Condesa B. si viese todo esto! ¿No se detiene Ud. en Zarauz? Es, pues, lástima el que Ud. no la pueda invitar a venir aquí a pasar unos días y oir una Salve; hasta de Alzola, Saturrarán y otros puntos vienen más de 20 a 30 coches todos los sábados y jente muy buena en general»[71].

Herriko jendea hain ugari Karmengo elizara joate horrek ardura sortu zuen Jemeingo parrokian, bertara oso jende gutxi urreratzen zelako, ondorioz parrokiako arduradunek Karmengo elizan liturgi egintza eta mezen orduak aldatu nahi izan zituztela, horrela erregulartasunez jendea parrokira joatea lortzeko[72]. Antzerako zerbait gertatu zen 1957.ean ere[73].

Karmengo elizan eskaintzen zen meza-zerbitzuaren adierazgarri gisa 1969. urteko datuak kopiatuko ditugu: astegunetan, 6, 7, 8, 9 (hau gazteleraz) eta 20etan eta jaiegunetan 6, 7, 8 (hau gazteleraz), 9, 10 (umeena), 11, 12,15etan (gazteleraz), 16 eta 20etan izaten ziren.

1969.eko urte hau, lehenago esan dugunez, Karmengo komunitatearen pastoraltza iharduera berri baten hasiera izan zen.

Honetaz gainera, ohiturei jarraituz, garizumako sermoi eta kultu bereziak zituztela ospatzeko eginiko ahalegin biziak azpimarra ditzakegu. Gorago, era berean, gerrondoko garaia aztertzerakoan zerbait esan dugu Markinan, 1942.ean eta 1948.ean, arrakasta handia lortuz eginak izan ziren misio santuei buruz.

b. **Andremariar biziera eta kofradiak.**

Karmeldar Ordenak bere-berea duenez, Karmeldarren andramariar biziera gorigoria izan da mendeetan zehar, eta hau argi ikus daiteke Markinan, bertako apostolutza iharduera, Karmengo Amaren izenpean, era bereziz andramariarra izan delarik; debozio hori Euskal Herrian zehar zabaldu zuten Markinako fraideek, Karmengo kofradiari buruz hitz egiterakoan ikusiko dugun bezala. Baina, era berean, Ordenan

[70] *Correspondencia...*, 207.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 170-XII-28an eginiko gutuna.
[71] *Correspondencia...*, 245.zk., 1871-VIII-9ko gutuna.
[72] MUA, *Libro de decretos...1859-1876*, (MKA, B-XI-10).
[73] MKA, B-XI-13, 1857-IV-30ko eta 1957-V-4eko gutunak.

sustrai sendoak errotuta zituzten beste debozio batzu ere zabaldu zituen, esaterako, San Jose, Praga-ko Ume Jesus edota Teresatxo Donearen kofradiak ezarri eta bultzatuz. Apostolutza honetan herriaren erantzun zabala eta harrera ona ikus ditzakegu.

aa. *Karmengo Amaren debozioa Karmeldarren apostolutza osoaren eragile*

1) Hirugarren Ordena

Hirugarren Ordena (gaur egun, *Karmelo sekularra* deitzen dena), Lehen Ordenakoak (Gizonezko Erlijioso Karmeldarrak) edota Bigarren Ordenakoak (Klausurako Emakume Erlijioso Karmeldarrak) izan ezin dutenek, izpiritu-bizitza sakona bizi izanik, ahal dutenik egokien Karmengo Ordenaren bizimodua, beraren izpiritua, egoera sekularrean, munduan, Jainkoaren eta elizaren legeak betez eta Ebanjelioko kontseiluei jarraituz egin nahi dutenek osotzen dute.

Honelako bizimoduaren iturburuak historiaren antzinako laino ilunen artean ezkutatzen dira; Ordena Europan XIII eta XIV. mendeetan zabaltzerakoan berezkoa izan zen halako pertsonak Ordenari atxekitzea. Juan Soreth Dontsua (1394-1471), Ordenako Jenerala hartu ohi da Hirugarren Ordena honen fundatzailetzat, berak bultzatu, antolatu eta legeak ezarri zizkiolako, ofizialki Aita Santu Nikolas V.aren 1452.eko urriaren 7ko «Cum nulla fidelium» dekretuz eraikia izan zelarik.

Erakunde honen historiak, hasieratan «barrubilduak» deituak zirela diosku; hurrengo urratsa *«serorategiena»* izan zen Hirugarren Ordenaren egitura hartu zuten arte. Baina, beti garai haietan komentu bakoitzeko karmeldarren komunitateari hurbilekoak zitzaizkion pertsonak ziren[74].

Markinan, Hirugarren Ordena, hainbatetan, berandu sortu zen eta indarra Berreraikuntza (1868) ostean izan zuen, Euskalerri eta Espainiako gainerako Ordenan bezala, XIX. mendearen bukaeran indar berria hartu zuelarik; eta ugarituz joan zen kopuruan zein kalitatean.

Hala ere, badira horren aurretikoak izan daitezkeen berri gutxi batzu: 1726.ean, komentuari lotuak ageri zaizkigu emakume batzu, Markinako *«beatas de la Casilla de sobre el convento del Carmen»* aipatzen direla[75]. Eta hilabete batzu geroago Udalak *«Karmengo serorategian egin nahi dituzten obretarako»* emaniko laguntza aipatzen da[76]. Badugu hurrengo urteko, 1727.eko berri bat ere, bertan komentuak Markinako Karmengo Serorekin lur-trukaketa eskritura bat egin zuela[77].

[74] Ik. HIGINIO DE SANTA TERESA, *Apuntes para la historia de la venerable Orden Tercera del Carmen en España*, Portugal y América, Gasteiz 1954, 156 orr.; ik, era berean, HIGINIO DE SANTA TERESA, *La Orden Tercera del Carmen*, Donostia, 519 orr.

[75] MUA, *Libro de decretos*...1722-1742, 46v-47r, 1726-VIII-5ekoa (MKA, A-I-34).

[76] Ibd., 56.orr, 1726-XII-31koa.

[77] MKA, A-I-1, antzinako *Indice de los papeles del Archivo*, A, 20.zk.

Aipatu dugunez, batez ere berreraikuntzaren ostean, komentu batzu berreiki eta fundazio berriak egin ala, berrezarri zen Hirugarren Ordena eta indar berria hartu. Karmeldarren Nafarroako S.Joakin probintziako jarraiko komentu hauetan zeuden Hirugarren Ordenakoak ezarrita: Iruñeko komentuko elizan 1728.ean; Korellan 1916.ean; Santander-en 1900.ean; Donostian 1908.ean; Logronion 1922.ean; Villafranca-n 1897.ean; Begoña-Bilbon 1887.ean; Gasteizen 1901.ean; era berean, bazen Hirugarren Ordena Larrea eta abarretan ere[78].

XIX. mendearen azkenaldiko indarberritze honen bidelagun Ordenaren apostolutza ahaleginak izan ziren eta *«Regla de la Orden Tercera del Carmen y Santa Tersa de Jesús»* 1883.ean onartu zen eta 1913.ean eguneratu, geroago, 1921.ean, Zuzenbide Kanoniko berrira egokituz. 1944.ean Karmeldarren euskal probintzian 13 Hirugarredar talde zeuden eta guztira 1224 anai-arreba. 1970.ean onartu zuen Aulki Santuak une hartan Ordenako Jenerala zen Aita Miguel Angel de San José (Batiz) markinarrak aurkeztutako *«Regla de vida-Estatutos de la Orden Tercera Seglar de los Carmelitas Descalzos»*.

Baliteke XVIII. mendean edota, behinik behin, XIX.aren lehen erdialdian Markinan Hirugarrendarrak izatea baina ez dugu agiri bidezko daturik, 1726-1727.eko Karmengo «serorak» deituei buruzko datu gutxi horiek baino. Baina berreraikuntza ostean, 1886.ean, *Liber Profesionum Tertiariorum* (Hirugarrendarren Profesio Liburua)[79] deritzanean ageri den lehen hirugarrenarra seguruen apaiza izan zen: «En el año del Señor mil ochocientos ochenta y seis a diez de octubre, a las seis de la mañana, El R.P.Fr. José Vicente del Corazón de Jesús, en el siglo D. Juan Vicente Dermit y Daguerre, natural de la anteiglesia de Begoña, Provincia de Vizcaya, diócesis de Vitoria, nació de D. Juan Bautista y D.ª María Ana, el día 22 de enero de 1831 (?), trascurrido el año de su noviciado y previa la competente licencia de N.M.R.P. Provincial, en el Coro de la Iglesia de este convento, delante de la comunidad, hizo su profesión de Terciario de N. Sagrada Orden, en manos de N.R.P.Prior Fr. Juan de la SSma. Virgen en estos términos: Yo Fr. José Vicente del Corazón de Jesús, hago profesión y prometo a Dios y a la Santísima Virgen del Monte Carmelo, a Santa Teresa y a los Superiores de la Orden, obediencia y castidad que quiero observar con la mayor perfección posible, hasta la muerte».

Baina, hirugarrendarren bizimodua, Hirugarren Ordenan elkarren jarraian hainbat zirelarik pertsona sartzen zirela, erregulartasunez hasi zen urtea 1899.ea dugu: lau, irailearen 8an sartu ziren: Josefa Antonio de Lazcano, Benita de Uribe, Manuela de Espilla eta Josefa de Espilla andereak. 1900.etik 1970.era arte, harako *Liber Professionum Tertiariorum* eskuskribuan 158 hirugarrendarren profesioak ageri dira; profesio kopuruari dagokionean urterik onenak honakook izan ziren; 1927.ean, 33 pertsonak (29 emakumek eta 4 gizonezkok) egin zuten profesioa; 1928.ean, 6k (denak gizonezkoak); 1936.ean, 10 emakumek; 1947.ean, 13k (6 emakumek eta 7 gizonez-

[78] HIGINIO DE SANTA TERESA, *Apuntes...*, 111-117.orr.
[79] MKA, C-XVII-3.

kok), 1949.ean, 8k (7 emakumek eta gizonezko batek); 1951.ean, 11 emakumek, etb[80]. 1954.ean 65 hirugarrendarrek osoturiko talde eder bat zegoen[81].

Registro General de la V.O.T. del Carmen eskuskribuan, 1970. urterarteko zerrendan 170 pertsona ageri dira[82]; *Liber Professionum* deritzaneko eta Registrokoen arteko aldea, azken honetan beste toki batzutatik etorritako hirugarrendarrak (profesioa eginikoak) ere apuntatuta egotearen ondorio da[83].

Egon dauden hiru *Aktetan*[84] Hirugarren Ordena honen barne bizitzari buruzko hainbat datu ageri dira: Aita Karmeldar Zuzentzaileen izenak; Hirugarrendarren Prioreenak zein Prioresenak, nobizen Maisu eta Maistrenak etab. Eta horretaz gainera, Markinako Hirugarren Ordena honen barne bizitzaren historia egiteko lagungarri izan daitezkeen bilera, hitzaldi eta abarri buruzko aktak. Baina, beude, oraingoz, Markinako Karmengo komentuaren historia orokorraren barruan Hirugarren Ordenaren bizitzari buruzko laburpen-lerro hauek.

Oraindik gogora ekar dezakegu 1952.ean egin zen Hirugarrendarren areto berria: hain zuzen ere, urte haietan hirugarrendar izateko bokazioek izandako gorakadak, gertakari ezberdinetako bileretarako (vg. Hirugarrendarrek egiten zituztenetarako), hitzaldietarako eta abarretarako areto egoki bat eduki beharra ekarri zuen. Aita Sebastián de S. Justo, Priorea laguntzak biltzen hasi zen. Ikasleek ere gogor ekin zioten udako oporraldian sakristia-ostea eta zaborreriaz beterik zegoen antzinako kanpo santu izandako tokia banatzen zuen horma sendoa botatze-lanari. Anaia Angel, Amorebietako komentuala zenaren zuzendaritza pean areto berriak eskuratu ahal izan ziren. 1952.eko Gabonetan eta 1953.eko urtarrilean Beristain pintatzaile azkoitiarra etorri zen eta aste betean apaindu zuen[85].

Hirugarrendarrek ere parte hartu zuten obrako gastuak ordaintzerakoan; horrela, esaterako, 1952.ean 1.000 pezeta eman zituzten Hirugarren Ordenako lokaleko obretarako[86]. Eta ordurako obra guztiz burutua zela, 1952.eko abenduaren 21eko Hirugarren Ordenako bileran, «laguntza oparoa eskatu zitzaien Anai-Arreba Hirugarrendarrei laster irekiko zen egintza-areto berrirako aulkiak eskuratzeko»[87]. Ez zen jaso pertsona bakoitzak eman zuen kopurua. Lokalak 1953.eko urtarrilean bedein-

[80] Eskuskribu-liburu honetan, X-XVII-3, beste geroagoko lau folio askatu daude 77 izen biltzen dituztela; seguraski, eskuskribu-liburu horretan hirugarrendarren izenak idaztea utzi osteko 1970.eko data baino geroagoko hirugarrendarren izenak izango dira.

[81] HIGINIO DE SANTA TERESA, *Apuntes...*, 116.orr.

[82] MKA, C-XVII-7.

[83] MKA-n bada beste eskuskribu hau ere: *Libro de cuentas de la Venerable Orden Tercera de Nra.SSma.Virgen del Carmen y Santa Teresa de Marquina* (C-XVII-7, haisera 1936an duena) 1936-1970. urteen arteko datuak dakartzala.

[84] MKA, C-XVII-4, 1925-1946.urteetakoa; C-XVII-5, 1949-1959.etakoa eta C.XVII-6, 1960-1970.urteetakoa.

[85] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 27.orr.

[86] MKA, C-XVII-7, *Libro de cuentas...*, 35.orr.

[87] MKA, C-XVII-5, 92.orr.

katuak izan ziren. Otsailaren 15 eta 19aren arteko bileran «gogo-ihardunei hasiera ematean ireki zen kapera berria, bertan eskaini zelarik gogo-ihardunetako Meza Santua»[88].

2) *Karmengo Eskapularioaganako debozioa.*

Askotan Eskapularioaren apostolutza eta zabalkundea Hirugarren Ordena izatearen jarraipena izaten zen; baina, sarritan, alderantziz ere gertatzen zen: Karmengo Amarenganako debozioak edota Karmengo Kogradian parte hartzeak pertsona batzu Ordenako Hirugarrendar egitera bultzatzen zituen. Hala ere, ezin da ukatu, bestalde, hainbat hirugarrendarrek Andra Mariarenganako debozioaren aldeko apostolutza egin dutela, alde guztietan harrotasunez Eskapulario santua eramanez.

— Karmengo kofradia.

Zehazkiago esanda, Markinako hirugarrendarrek hainbat kofradia bultzatu zituzten eta lehen eta behin Karmengo Amarena. Kofradia honen helburua, Andra Mariarenganako maitasunaren eta santifikazio bidearen ezaugarri gisa Eskapulario Santuarenganako debozioa bizi eta zabaltzea izan zen.

Karmengo Kofradia aipatzerakoan ezin dugu ahaztu jendearen arteko mugimendu bat, debozio herritarrean kokatutako mugimendu bat zela. Egiatan ez zitzaizkien kofradeei aparteko betebeharrak ezartzen, arrunt eta orokorrak baino: Eskapularioa ezartzea eta Kofradiako erregistroan kofrade gisa izena emanda egotea.

Eta, hain zuzen ere, eskuskribu handiak, Markinan kontserbatutako antzinako erregistroak, Markinako Karmengo kofradiari dagozkion datu historiko batzu eskainiko dizkigu. Honako izenburu hau dauka: *Libro de la Archicofradia de N.M.SS.ª del Carmen. Fundada en este convento de Marquina. Año de 1777, por comisión de N.M.R.G.[eneral] F. Franco de la Present[ació]n*[89].

aa. *Fundatzeko baimenak*

Hasiera batetan, bertako fraideak Ordenako nagusiekin jarri ziren harremanetan Kofradia eraikitzeko baimenak lortzeko. 1776.eko azaroaren 21ean, Aita José de Santa Teresa Probintzialak (era berean, Aita Clemente de Santa Teresa idazkariaren izendura zuela) gutun bat idatzi zion Aita Francisco de la Presentación Ordenako Jeneralari, bertan, 1776.eko urriaren 23an Aita Probintzialari Karmengo kofradia ereikitzeari buruz eginiko «instrukzio gutun» bat barrusartzen zuela [90].

[88] Ibd., 94-95.orr.
[89] MKA, C-XVIII-1.
[90] Ibd., 21-22.orr; eskuskribu-liburuan josita ez dagoen plegu bat da.

Geroago, 1777.eko urriaren 8an Aita Jeneralak baimena emanez, inprimaki bat, hutsune batzu eskuz beteta eta benetako sinadurak zituela bidali zuen Markinara: «licencia para que se funde, e instituya la propia Arquicofradía del Santo Escapulario de nuestra Madre Santísima del Carmen en la Iglesia de nuestro convento de Carmelitas descalzos de Marquina cometiendo nuestras veces para su execución, gobierno y dirección, con todo lo demás que puede conducir al intento o esté anexo a este empleo, al P. Prior que es o fuere, o al Religioso que dicho P. Prior nombrare y practicado, que sea, la fundamos, erigimos e instituimos por nosotros mismos, declarando a la dicha Arquicofradía desde ahora para entonces por legítima Eclesiástica y Canónica»[91].

Baina, honek Kalagurriko elizbarrutiko baimendua behar zuen[92], Markinako Aita Karmeldarrak ordurako lortuta zeukaten bezala. Ordurako emanda zeuden jarraiko urratsok:

Francisco Pérez Mediano Jnak 1777.eko abuztuaren 27an, Markinako Karmengo Priorearen eta erlijiosoen izenean eta lehen zortzi jaun fundatzaileen eta geroago izendatuko ditugun lehen anaia kofradeen izenean eskaria egin zuen elizbarrutiak Kofradia hura ezartzeko baimena emateko eskatuz[93]. Eta Jose Angel Ruiz de Otheo Kalagurriko elizbarrutiko ofizioduna eta Bikario Nagusia zenak baimena eman zuen harako kofradia eraikitzeko; agiriak 1777.eko abuztuaren 29ko data dauka[94].

Hurrengo urratsa, *«Estatutos y Ordenaciones de la Cofradía de Nuestra Señora del Carmen»* arauak aurkeztea zen; hala egin zen 1777.eko irailaren 10ean, Aita Andrés de la Encarnación Prioreak, beste hiru Karmeldarrek eta lehen jaun-andre fundatzaileek, zortzik[95] sinatuak izan ondoren, onarpenerako elizbarrutian irailaren 17an aurkeztu zirela[96]; eta Cavañas Jnaren onespenaz[97], 1777.eko irailaren 18an onartu zituen José Angel Ruiz de Otheo Jn.Doktoreak[98].

Eta horrela, azkenik, eskumen eta baimen guztiak eskuetan zituela, Aita Andrés de la Encarnación Markinako Prioreak 1777.eko urriaren 19an «Markinako Komentuan Karmelo Mendiko Andra Maria Zoriontsuaren Kofradia» ezarri zuen[99].

bb. *Lehen kofradeak.*

Aipaturiko lehen agirietan 8 kofrade fundatzaile agertzen badira ere, *«Señores Fundadores y primeros Hermanos de esta santa Cofradía de N.S.ª del Carmen del convento de Marquina»* deritzaneko lehen zerrendan bederatzi izen ageri dira 1777.eko urriko datan: Miguel de Argaiz Jna., apaiz benefizioduna.

---

[91] Ibd., 15v.
[92] Ibd., 15v.
[93] Ibd., 9r.
[94] Ibd., 10r.
[95] Ibd., 11-12.orr.
[96] Ibd., 13r.
[97] Ibd., 13v.
[98] Ibd., 13v-14v.
[99] Ibd., 23r.

Miguel José de Iturralde Jna., apaiza.
Jose Ignacio de Urquieta Jna., alkatea.
Pedro José Mugartegui Jna.(hau ez da aipatzen aurreko agirietan).
José Antonio de Ubilla Jna.
Andrés de Iturralde Jna.
Pedro Ignacio de Urquieta Jna.
José de Ibaseta Jna.
Martín José de Urquieta Jna[100].

Hauen ondoan Markinako komunitateko erlijiosoen izenak ematen dira, guztira 28 (30), historia honen hasieratan jaso izan genituela[101].

Lehen folio idatzian hilabete batzu geroago idatzitako arau bitxi batzu aurkitzen dira; Aita Andrés de la Encarnación Prioreak sinaturik daude eta jarraian transkribatzen ditut: «Dictámenes que tubieron los Señores Fundadores sobre varios puntos de los Estatutos, y en orden a la economía de la cofradía, que pueden servir de govierno para lo sucesivo.

Que lleven por ahora seis de los Hermanos cada uno su vela, y acopañen a N.Señora en las Procesiones de los terceros Domingos, y que se procure sean los sacerdotes y señores diputados, dando las velas que restan a otros hermanos a elección del P.Sacristán (esto lo determinaron los Señores Diputados).

Que aunque haya limosna para muchas luces, nunca se den velas sino a los dichos seis Hermanos, a los sacerdotes de la Hermandad, a los religiosos y al Sr. Alcalde si asistiere, y a ningún otro se dé. Que en cuanto a las pláticas desean solo se tengan tres al año de quatro en quatro meses cada una para renovar la memoria de las obligaciones pero que no son de parecer se grave la comunidad, teniéndolas todos los terceros Domingos y que aun aquellas tres veces las pueda omitir la comunidad si gustare el P. Prior.

Que toda esta Hermandad es una sola Cofradía y de la elección de los Hermanos el tomar sólo las leyes que puso N.Sra. o el obligarse a essas leyes y a las demás de los estatuos.

Los Señores Diputados dieron su comisión al P. Prior para que por sí examine y admita los que le pidieren la entrada en la Cofradía y dan por admitidos a los que admitiere.

Para que siempre conste lo firmé en Marquina y Marzo 14 de 1778»[102].

Lehen hilabete honetan, hau da, urrian erregistratuta aurkitzen diren lehen «Andere kofradeak» hauek ziren: María Teresa de Barroeta, María Angela de Aguirre, Antonia Joaquina de Ugarte, María Ventura de Junnebas, María Antonia de Laca, Josefa de Laca, Nicolasa de Urquieta, Jacinta de Juaristi[103].

---

[100] Ibd., 14r.
[101] Ibd., 24v, ik. 26.orr.
[102] Ibd., 2r.
[103] Ibd., 216.orr.

cc. *Zabalkundea*

Fundazio urte (1777) honetatik aurrera izugarria izan zen Markinako Karmengo Kofradiaren ugalketa, batez ere Markinan, baina, era berean, baita, Bizkaiko herri gehienetan ere. Kofrade pila handia izan zen, hainbatetan herri txikiak zurenetan, esaterako, Berriatua, Aulestia etab. bezelakoetan.

414. foliotako *«Libro de la Archicofradía»* eskuskribu handian, kofradeen zerrenda luzeak ageri dira, kopurua, guztira 50.000 ingurura heltzen dela; Bizkaiko hainbat eta hainbat herritako kofradeak dira. Hona hemen gehien ageri diren herri izenak: Abadino, Aginaga, Amoroto, Arteaga, Aulestia, Barinaga, Basagoiti, Bermeo, Berriatua, Berriz, Bilbo, Bolibar, Busturia, Durango, Etxebarria, Elantxobe, Ereino, Ermua, Forua, Guerena, Gernika, Gerrikaitz, Gisaburuaga, Ibarrangelu, Igorre, Ipazter, Kortezubi, Larrauri, Lekeitio, Mallabia, Mañaria, Markina, Markina-Etxebarria, Meaka, Mendexa, Mendata, Mundaka, Mungia, Munitibar, Nabarniz, Ondarroa, Zaldibar, Ziortza etab. Baina Markinako Karmengo etxeak bazituen Gipuzkoan ere kofradeak: Azkoitia, Azpeitia, Deba, Eibar, Elgoibar, Getaria, Itziar, Arrasate, Zumaia etabarretan. Beste toki batzutan ere bai, hala nola, Aramaio, Trebino, Gasteiz eta abarretan.

Kofradeen zerrenda hauetan, gutxi baziren ere, baziren beste karmeldar kofradia batzu ezarrita zeuden herri edo hirietako pertsonak ere, hala, esaterako, Bilbo, Amorebieta, Donosti, Balmaseda, Lazkao eta abarretakoak.

Kofrade hauek, gehienak, XVII. mendeko azken hamarkadatik XIX. menderartekoak dira eta gutxienak XX. mendekoak.

Zabalkunde izugarri honen iturburua, Karmeldarrek herririk herri sermoi, misio eta abarren bidez burututako apostolutza zabala dute, nonbait. Interesgarria da, era berean, hainbat eta hainbat kofrade Karmeldarrek esklaustrazio garaian (1839-1868) eman zutela izena gogoratzea; Karmeldarrak kanporatzeak Karmengo Amarenganako eta beraren Eskapularioaganako debozioa zabaltzea ekarri zuen: apaiz zereginetan zihardutenherri eta toki askotan Karmengo Amarenganako maitasuna zabaltzen zuten.

Horrela, Karmengo eskapularioa jartzea zein Karmengo Amarenganako debozioa, Euskalerriko eta mundu zabaleko elizako andramariar egintzarik herritarrenetarikoa izan da. Kontutan har dezagun Markinako komentuan halako zabalkundea izan bazuen, beste komentu batzutan ere ez zirela atzean geratuko ahalegin horietan.

— *«Semana Devota»* elkartea.

Oso hurbilekoa izanik, sarritan Karmengo kofradiarekin nahastu izan den elkarte bat *«Semana Devota»* deritzana da; hots, Bizitza andremariarra, Karmengo Amaren eta beraren Eskapularioaren izenpean, bilera, egintza bateratu eta abarretan debozio-dunak nolabaiteko elkarbizitza egitera bultzatzen dituena. Hau da, herriko kofradeak beraien artean astero, hilero, urtero egintza antolatuak egitera eramaten dituen Kofradia.

Markinako «Semana Devota» 1903.ean antolatua izan zen elkarte gisa: abuztuaren 16an, beraren zuzentzaile zen Aita Vicente de S. José garai hartan komentuko prioorearen ekimenez egin zen: «se constituyó la Asociación de la Semana Devota de la Virgen del Carmen, como integrante de la Cofradía de dicha Augusta Virgen»[104].

Irailaren 13an egin zen elkarteko buruaren eta idazkariaren izendapena, hurrenez hurren Natividad de Zabala Recalde Andrea eta Maria Zabala Recalde Andrea izan zirela izendatuak. Egun berean egin ziren ikuskarien eta jagoleen izendapenak. 1903.eko urte bereko azaroaren 27ko bileran Teresa de Ugartechea izendatu zuten elkarteko diruzain[105].

Elkartearen lehen garai honetan (gerra zibilera artekoan) elkarteko eskuskribu bietan edo aktetan ikus daitekeenez, bi atal izan ziren: bata emakumeena eta bestea gizonezkoena; hain zuzen ere, 1903.eko abenduaren 20an hasi zen *«Libro de Actas correspondientes a la 'Sección de caballeros' de la Semana Devota de Markina»*[106] Gizonezkoen atalekoek abenduaren 13an, lehen bileran hartutako erabakiak transkribatzen ditut:

1.° Que la sección de caballeros de la mencionada Asociación veía con sumo agrado y con un voto de gracias al P.Director, aprobaba por unanimidad cuanto dicho Padre había hecho para establecer y organizar la piadosa Asociación de la Semana Devota en el Carmelo de Marquina.

2.° Que los señores reunidos estaban dispuestos a seguir oyendo con sumisión filial las exhortaciones del Padre Director y cumplir con exactitud los deberes de sus respectivos cargos coadyuvando así a que se extienda entre los fieles esta tierna devoción y se mejoren las costumbres privadas y públicas.

3.° Que el Sr. Tesorero de esta sección Dn.Juan José de Azcuna, se hizo cargo de veinte pesetas, que resultan en baja, para atender a los ulteriores gastos de la misma, pues se hallan satisfechos los ocurridos hasta la fecha, gracias al desprendimiento de algunas personas caritativas.

4.° Que se adhería esta sección al acuerdo de la de señoras de que se celebren, mientras los fondos de la Asociación lo permitan, dos misas mensuales: una, a las siete de la mañana del tercer domingo de cada mes, y la otra, el lunes inmediato a la hora que se anunciará oportunamente desde el púlpito, siendo el estipendio de cada una de ellas tres pesetas. La primera misa se celebrará para pedir al Señor por la poderosa intercesión de la Santísima Virgen del Carmen, el remedio de todas las necesidades de los asociados de la Semana Devota, y la segunda en sufragio de los asociados difuntos de la misma. Igualmente se conformó esta sección de caballeros en que se pusieran dos cepillos en los reclinatorios de visita, y en que lo recaudado

[104] MKA, C-XVIII-4, *Actas de la Semana Devota*, 2r.
[105] Ibd., 2r.
[106] MKA, c.XVIII-3.

en dichos cepillos ingresase en las tesorerías de ambas secciones para sufragar los gastos de la Asociación.

5.° Que el Sr. Tesorero de esta sección se ponga de acuerdo con la Señora Tesorera de la de señoras sobre el día y hora en que se han de abrir los cepillos del reclinatorio, colocados para la coleta voluntaria.

6.° Que los Señores Inspectores, además de procurar tener siempre completas las listas de sus series, comunicándose para ello con frecuencia con sus respectivos celadores, presenten al fin del año al P. Director una lista completa de la serie a su cargo.

7.° Que todos los meses, en la semana anterior al tercer domingo, pasen aviso los señores inspectores al P.Director si ha fallecido algún socio durante el mes, a fin de que puedan ponerse sus nombres en el cuadro-anuncio según lo acordado.

Después de ratificarse los señores presentes en todo lo consignado en la precedente acta, se levantó la sesión.

El Director, Fr. Vicente de S. José.

Jose F. de Larruscain»[107].

Elkarte hau oso emankorra izan zen Eskapularioaren eta bizitza andremariarraren zabalkundeari zegokionean; antolaketa xumea baina oso emankorra izan zen, bai Markinan baita mundu osoan zehar.

Aktetan ikus daitekeenez Elkarteak egintza erlijiosoak antolatzen zituen; horrela, esaterako, 1915.eko urtarrilaren 31ko bileran «aurreko urteetan bezala ihauterietako hiru egunetan Jainko Maiestateari jagonaldia egitea» erabaki zen[108]; uztailaren 21ean jarraiko erabakiok hartu zirela:

«1.° Como en años anteriores se celebraría el triduo los días 23, 30 y 31 de julio haciendo guardia a Su Divina Magestad el último día, dando fin con la procesión y las demas funciones del mes.

2.° Los sermones del triduo fueran dos en bascuence y uno en castellano quedando a cargo del Padre Director»[109]. Eta urriaren 17an Arimen elizkizuna azaroaren hirugarren igandean egitea erabaki zuten[110].

Egin-eginean ere, 1915eko urte horretako uztailaren 1ean Aita José Andrés de los Dolores, «Semana Devota» elkarteko Aita Zuzentzaileak baimena eskatu zion Markinako alkateari, Elkarteak uztailaren 31n, Elkartearen gastuei aurre egiteko dirua lortzeko laurehun pieza zozketan jartzeko; onartua izan zen eskaria[111].

---

[107] MKA, C-XVIII-3, 1-4.orr.
[108] MKA, C-XVIII-4,18v.
[109] IBd., 19r.
[110] Ibd., 19v.
[111] MUA "*Asuntos tocantes*"... paper-sorta (MKA, A-I-219). 1915.eko uztailaren 1eko agiri honetan Aita José Andrés fraideak sinatzen du: *Zuzendaria*; baina, akta liburuan (C-XVIII-4) 1915.eko urtarrilaren 31an nahiz ekainaren 27an eta urriaren 17an Aita Cecilio de la Virgen del Carmen ageri da "Semana Devota"-ko zuzendari zereginetan.

Gerra ostean, bakarrik 1937-1966. urteei dagokien 'Semana Debota' elkartearen akta liburu bakarra dugu. 1937.eko udako lehen aktetan Karmengo Amaren ohoretan egin beharreko ospakizunak aztertu ziren; eta beraien artean uztailakoak zeuden; batzorde zuzentzaileak hartu zuen San Inazio eguneko sermoien ardura, ospe handitan ospatu zela; era berean, gazteen laguntzaz kantuak abestuz bizitasuna eman zioten Karmengo bederatziurrenari[112]. Ez dezagun ahaztu Karmengo elizbira nagusia San Inazio egunean egiten zela[113].

3) *Karmengo Amaren ohoretan eginiko ospakizunak*

Markinako Karmeldarrek kofradia ezberdinen bidez burututako apostolutza andremariar honen barruan, aparteko aipamena merezi dute Karmengo jaien ospakizunek, hain garrantzia handiko gertaera izanik, Markinako herriko jai nagusiak izatea lortu zutela.

Herrian ospatzen ziren Karmengo jai erlijiosoen artean, Karmengo bederatziurrena, uztailaren 16ko jai herritarra eta uztailaren 31n, San Inazio egunean egiten zen Karmengo Amaren elizbira bereiz daitezke.

Fundazioa egin eta laster, Markinako Karmengo etxea batzuren aurkatasuna zela bide, au da, Madrileko agintari zentralen dekretuen bidez desagertzeko zorian izan zenean, Markinako udalak alde eginez Jaurerriko korrejidoreari «beraien doktrina zuzena eta izpirituzko elikaduraren zioz» hirian eta eskualdean sortzen zituzten «onura izpiritual handiak» adierazten eta gogoratzen zizkion[114]. Eta Bizkaiko Diputazioak memorial bat idatzi zion Erregeari Markinako Karmengo komentuaren defentsan, jarraiko hitzokin Jaurerriak zion aldekotasuna adieraziz: «Karmengo Amaren debozio maitagarria, ez duelarik Jaurerri honek erlijio sakratu honetako etxerik bertako herrialde osoan Markinako hirian dagoena baino besterik»[115].

Horrela, hasiera-hasieratik hasi ziren Markinako Karmeldarrak uztailaren 16ko Karmengo jaia ospatzen. Elizea 1724.erako eraikita zegoen. Hamarkada gutxiren buruan Karmengo jaiek jendetza izugarria bildu eta garrantzitsuak izatea lortu zuten. 1775.ean Karmengo Amarenganako debozioa hain handia izanik eta jai erlijioso eta herritarrak hainbeste jende bertara ekartzeko arrakasta zuenez, udala oso arduratuta ibili zen egun horretan gastatuko zen ogia zela eta, urte horretan hirian gari gutxi zeukatelako[116].

---

[112] MKA, C-XVIII-5, *Actas de la Semana Devota*, 3-4.orr.

[113] MKA-n ere bi eskuskribu-liburu daude: *Libro de cuentas de la Semana Devota* (C-XVIII-6 eta CXVIII-7) 1939-1954 eta 1954-1970. urteei dagokienean, baina, lehen eskuskribuaren hasieran "continuación de otros cuadernillos sueltos" oharterazten denez eskuskribu-liburu hau gaur egun galduta aurkitzen direnen jarraipena da.

[114] MUA, *Libro de decretos...1689-1708*, 132v-133r, 1697-XI-11koa (MKA, A-I-14).

[115] MBN, 2680. eskuskribua, 18r-23v, (MKA, A-I-2). Memorialea 1697. urte ingurukoa da.

[116] MUA, *Libro de decretos...1768-1778*, 253v-254r, (MKA, A-I-50).

Debozio handi hau 1777.ean Karmengo kofradia sortzean ikusi zen, bertarako milaka pertsonak izena eman zuela[117]. Debozio honen beste era batetako ezaugarriak, 1805.etik aurrera Karmengo Amaren maitale ugarik erruz utzitako «betiko meza-oroipenak», Karmengo eguneko *Salve* abestuak etab. dira[118].

Esklaustrazio garaian, komentuan fraide-komunitaterik izan ez arren, lehenean jarraitu zuten debozioak eta Karmengo Amaren jaiak: 1861.ean hiriko gastuen aurrekontuan «Karmengo Amaren ohoretan ziren ospakizun publikoetarako» 600 errealeko gastua ageri da[119]. Eta lau urte geroago udaleko aktetan gastuak egiteko erabakia jasoten da: «para dar algún realce a los festejos públicos que se celebaran en esta villa por los días de Nuestra Señora del Carmen, destinándolas dichas cantidades al alumbrado a la veneciana, cohetes, partido de pelota a doble, músicos, etc.»[120]. Eta hurrengo urtean honako hau: «discutieron sobre los regocijos públicos que según costumbre desde tiempo inmemorial veníanse practicando en esta villa por la festidad de Nuestra Señora del Carmen, a cuya discusión tuvieron por oportuno que concretarse al estado de los fondos municipales y en consonancia a estos, resolvieron que lo necesario se realizase, pero evitando todo gasto de consideración, puèsto que con tal de que la música de aficionados recorriese las calles y tocase en el prado, y con los cohetes e iluminación de costumbre por las noches, habría suficiente para el recreo de los concurrentes»[121].

Eta Markinan karmeldar bizitzaren berreraikuntza egin ondoren (1868), liturgi-elizkizunek indar berria hartu zuten: horrela, 40 urtetako esklaustrazioaren ondoren Karmengo lehen jaiak: Aita Karmeldarrak, Karmengo egunean elizkizun nagusia, sermoia goizez eta arratsaldez eginez, ospatzeko gertatu ziren[122]. Hain zuzen ere, Berreraikuntzan protagonista izan ziren Aita Karmeldar horien artekoa zen Aita Pedro José (Alkorta) markinarrak gonbidapena bidali zion Gaytan Kondeari 1869.eko uztailaren 10.ean Karmengo Amaren jaira etor zedin: «jai handi honetara bezperatik etor zaitezen. Bezperan abesten den *Salve*a eta eguneko elizkizuna izango zenituzke»[123].

Eta hurrengo urtean, 1870.ean, jadanik nobize gazteak komentuan zirela, guztira 30 erlijioso, Aita Pedro José berberak Santa Teresaren egunean «hiriko agintariak aurrean zirela eginiko elizkizun ederra» jakinerazten zion[124]. Askoz ere hobekiago egingo zuten urte horretako Karmengo egunean. 1871.ean, beste urte batzutako ohiturari jarraituz udalak honako hau aztertu zuen: «llevar por su cuenta la apertura y

---

[117] MKA, C-XVIII-1, *Libro de la Archicofradía...*

[118] Ik. MKA, G-III-30: *Libro de las fundaciones de Memorias Perpetuas de Missas, Nocturnos, responsos, salves*"...

[119] MKA, E-I-26.

[120] MUA, *Libro de acuerdos*...1859-1876, 1865-VIII-9koa (MKA, A-I-88).

[121] MUA, *Libro de acuerdos*...1859-1876, 1866-VII-15ekoa (MKA, A-I-90).

[122] *Correspondencia*..., 110.Zk.,Aita José María fraideak Carcasonne-tik Gaytan kondeari 1869-VII-9an idatzitako gutuna.

[123] *Correspondencia*..., 111.zk.

[124] *Correspondencia*..., 181.zk., 1870-X-17ko gutuna.

gastos o utilidades que resulten del anuncio que tiene dado de llebar a efecto dos bailes en las dos noches de las fiestas de Nuestra Señora del Carmen, se serviría el Ayuntameinto coadyuvarle con alguna cantidad; a cuyo fin y con objeto de realizar aires y piezas escojidas por la mañana y tarde y prolongara además en la noche las horas de baile que tiene anunciadas, con el fin de dar gusto al público»[125].

Lehenago, beste kapitulu batetan 1890-1925. urteei zegozkien Karmengo jaiak eta San Inazioko elizbirak aztertu ditugu[126].

Eta gerra ostean, komentuan filosofoak eta teologoak eta geroago gazte profesio-eginberriak aurkitzen zirela, elizkizunek bultzada berria hartu zuten. Nahikoa dugu kroniketara begirada bat egitea horretaz jabetzeko: horrela, esaterako, 1941.ean ospe handitan egin ziren bai bederatziurrena baita jaieguneko ospakizunak eta San Inazio eguneko elizbira. Hona hemen nola deskribatzen digun kronistak: «resultó brillantísimo por todos conceptos; ya por la afluencia de la gente que asistió devota más que en otras ocasiones, ya por el orador sagrado R.P. Espiridión, Prior del Convento, que predicó con mucha unción los nueve días que precedieron a su fiesta, ya también por el orfeón del colegio teológico del convento que cantó admirablemente, llamando poderosamente la atención de los propios y extraños. De esta manera trasluciose todo el mes, asistiendo a los actos religiosos tanto de la mañana como de la noche más devotos que de ordinario, y el último día para feliz remate quiso solemnizar el P. Director de la Semana Devota con una función extraordinaria el día de San Ignacio, predicando a la mañana el R.P. Gregorio de Jesús Crucificado, y a la tarde el R.P. Tirso de Jesús María, verificándose a continuación la gran procesión por las calles de Marquina paseando triunfalmente la Reina del Carmelo con la Archicofradía del Milagroso Niño Jesús de Praga a la cabeza con su Director Fr. Cecilio de la Virgen del Carmen»[127].

Kontzilio ondoko garaian jai liturgikoa ospe handitan ospatzen jarraitu da; esaterako, horrela agertzen da 1967, 1972, 1977. urteetako kroniketan[128]. Baita ere, 1978, 1981, 1984, etab[129].

---

[125] MUA, *Libro de acuerdos*... 1859-1876, 1871-VII-9koa. (MKA, A-I-167).

[126] Ik. 252-254.orr.

[127] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 11-12.orr.

[128] "El acontecimiento más importante de este mes fue la fiesta de nuestra Santísima Madre del Carmen. Comenzó la novena como todos los años, el día 7. El acto más importante de la novena fue la misa vespertina, concelebrada y solemne, con predicación a cargo del P.Satur, conventual de Alzo"... " El día del Carmen, el horario de misas, fue el mismo que los festivos y dominicales. A las 11 "Erri meza" concelebrada y solemnísima con "Bertsolaris". Se unieron a la concelebración varios sacerdotes diocesanos, entre ellos el famoso sacerdote vasco e hijo de Marquina, Dn. Alberto Onaindia, conocido en el extranjero con el nombre de Padre Olaso, durante 40 años exiliado en Francia. E hizo de celebrante principal y predicó. La coral de Jemein cantó la Misa Vasca del P.José Domingo de Santa Teresa. A continuación de la misa tuvo lugar el tradicional 'aurresku', con asistencia de las autoridades civiles. Hay que constatar que la asitencia a la misa mayor o 'Erri meza' fue muy numerosa, estando la iglesia completamente repleta": MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 150-151.orr.

[129] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 90, 129,150-151, 159, 180, 199, etab.

bb. *Andre Mariaren debozio eta ospakizun gehiago (Sortzez Garbia)*

Karmeldarrek, beraien lege eta ohiturei jarraituz, Karmengo Amaren goraipenak egiteaz gainera, historian zehar etengabeki eta gogo biziz zabaldu dute era ezberdinetan agertu izan den Andre Mariarenganako debozioa beraren jai liturjikoak ardura handiz ospatuz. Jai horien artean Sortzez Garbiarena aurkitzen da; debozio hau era bereziz bizi izan zuen Markinako herriak... eta Karmelarrak bultzatu eta zabaldu egin zuten Markinako herriak Sortzen Garbiari zion debozio hori.

1) Markina Sortzez Garbiaren alde.

Karmeldarren apostolutza andremariarraren eta, zehazkiago, Sortzez Garbiari zioten debozioaren aurretiazko egintza modura, Markinakoena baino aurreragokoa den egintza bat azpimarratu nahi nuke.

Nahiz eta Felipe III.aren garaian ez lortu Sortzez Garbiaren aldarrikapen dogmatikoa, hala ere, Aita Santu Paulo V.ak Erroman agiri garrantzitsu bat argitaratu zuen 1617.eko irailaren 12an: dekretuak debekatu egiten zuen sermoietan, ikasgaietan eta gainerako egintza publikoetan Andra Maria jatorrizko pekatuan sortua izan zela baieztatzea; herriarengan ezbaiak sortuz gaizbidea ekiditzeko hartutako erabakia zen. Dekretu hau zekarren posta 1617.eko urriaren 8an heldu zen Madrilera; Aita Santuak erabaki honen berri, inork baino lehenago Erregeak jakitea nahi izan zuen.

Eta harrigarria da, markinarrek Sortzez Garbiaren jaia ospatzeko zein beraren misterioa behar izanez gero odola isuriz defendatzeko hain laster zin egin izatea. Bizkaia osoan lehenak izan ziren; 1617.eko azaroaren 1a zen, Gabriel de Ibarlucea, Jemeingo parrokua, Udaleko justiziak eta erregidoreak, kapare jaunak eta Hiriko auzotarrak bildu ziren Markinako kontseilu etxean eta Andre Maria Sortzez Garbiaren eguna jai egitea, sinesmenezko misterio hori defendatzea eta jaieguna, elizkizun bereziak zirela tarteko egiteaz gainera, herrian jai handia eginez ospatzea erabaki zuten: «Y considerando la grande obligación que esta villa y sus hijos en particular tienen a la Concepción de Ntra. Señora por ser tan pía y devota como de cosa tocante a la Madre de Dios y Abogada nuestra sería necesario que la dicha villa y sus becinos la celebrasen la dicha fiesta en su día solemnemente con su octava regocijando espiritual y temporalmente con primeras y segundas bísperas y haciendo procesión solemne por toda la dicha villa o alrededor de dicha iglesia mayor conforme hubiere tiempo y disposición misa solemne con músicas, canto y danzas y corriendo toros y regocijando la dicha fiesta con grande contento y alegría de todos y colgando y adrezando la iglesia lo mejor que ser pudiere» ... «decretaron todos de un acuerdo y voluntad se haga todo el regocijo espiritual y temporal que se pudiere hacer a costa de la dicha Villa y de sus propios y rentas en honra y servicio de la limpia Concepción de Nuestra Señora sin mancha de pecado original confesando como siempre ha confesado esta pía devoción de que para mayor aumento y gloria suya toda la dicha Villa y sus vecinos todos en general y cada uno en particular agora de presente hacían e hicieron voto en forma de tenerlo y creerlo y confesar hasta dar la vida por ello y celebrar la dicha fiesta agora y perpetuamente».

Era berean, Kalagurriko elizbarrutiko apezpikuaren onespena eskatzea erabaki zuten; apezpikuak 1617.eko azaroaren 22an onetsi zuen «excepto el correr toros el mismo día de fiesta» izan ezik, hau debekatuta bait zegoen.

Bilbo izan zen Sortzez Garbiaren aldeko botua egin zuen bigarren herria, 1620.eko abenduaren 13an egin zuela[130].

Espainian zehar Maria Sortzez Garbiaren dogmaren aldeko beste saialdi batetan Bizkaiko Diputazioak ere parte hartu zuen Aita Santuari 1732.eko urriaren 9an gutun bat idatziz[131].

2) Sortzez Garbia Markinako Karmeldarrekin

Hain zuzen ere, 1691.ean Markinako Karmeldarren fundazioa egin zenean, Udalak karmeldarrei Hiriak seinalaturiko bi egunetan bi sermoi egiteko betebeharra ezarri zien; Andre Mariaren bi jaiegun aukeratu zituzten: abuztuaren 15ekoa (Igokundea) eta abenduaren 8koa (Sortzez Garbia)[132].

Markinako Karmengo etxea, berreraiketa egin eta egun gutxi barru, berriro ere esklaustrazio arrisku gorrian aurkitzen zela, Aita Pedro José Karmeldarrak Markinatik bere poza ematen zion aditzera Gaytan Kondeari: «Sortzez Garbiaren egunean jendetza handia izan genuen, goizeko 5etatik eguerdiko 12,30etararte jendea aitortzen egonez. Bermeon ere ospe handiz ospatu zen Sortzez Garbiaren eguna eta elizankultuak egiteko baimenduta dago, Aita frantzikotarrak gu bezala komentu barruan bizi ez diren arren»[133].

Markinarren zein karmeldarren debozioaren historia honetan data garrantzitsua gertatu zen 1954.ekoa, hau da, Sortzez Garbiaren dogmaren aldarrikapenaren lehen mendeurrena.

Karmengo fraideek, parrokiarekin bat eginik, 1954.eko Sortzez Garbiaren jaia bederatziurrena eginez ospatu zuten. Oroitzapen gisa Aita Emiliano del Niño Jesús Prioreordeak Sortzez Garbiaren irudi bat jarri zuen ortuan; horretaz gainera, Karmeldar horrek «Andre Mari Gaztediaren eskuetan» liburua argitaratu zuen[134].

Bere aldetik Markinako herriak oroitgarri bat eraiki zuen Sortzez Garbiaren omenetan honako idazki hau zuela: «1617-1954. Bendita y alabada sea la Pura y

---

[130] Andrés E. de MAÑARICUA, *La Inmaculada en Vizcaya*, Bilbao 1954, 137-146; Sortzez Garbiari Markinak eginiko botua 213-217.orr. Ik., era berean: P. SEVERINO DE SANTA TERESA, *Vizcaya por la Inmaculada*, Gasteiz, 1955, 32-42. orr. Jatorrizko agiria MUA-n, Erregistroa, 1, 12.zk. edo *Libro de decretos...1607-1621*, 134r-137r.

[131] Julen URKIZA, *Euskal Herria gizaldi bat aurretik Maria Sortzez-Garbiaren eske. Erroportai dokumentala*, Karmel 1988-2, 70-75.

[132] MUA, *Libro de decretos*...1689-1708, 108r-v,177r-177v, Erregistroa, 8, 13.zk., 16-17.19-28.orr.

[133] *Correspondencia*..., 95.zk., 1986-X-10eko gutuna.

[134] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 35-36.orr.

Limpia Concepción de la Virgen María Nuestra Señora». Aulki Santuak, Markinako herriak Sortzez Garbiaren dogmaren alde agertutako gogo bizia ikusiz, Estatuko idazkaritzaren bidez, onginahiez bedinkapenak bidali zizkion honako gutun hau Casimiro Morcillo y González Bilboko apezpikuari idatziz: «La ciudad de Marquina, que se gloría de haber sido el primer municipio de la provincia de Vizcaya que formuló el voto de defender hasta con el sacrificio de la vida, la verdad de la Inmaculada Concepción de María, se propone, dentro del marco del Año Mariano, conmemorar esta honrosa efeméride con especiales festejos religiosos.

Su Santidad, a quien he informado de tales propósitos, ha visto con particular complacencia esta piadosa iniciativa que refleja la religiosidad de esa amada grey.

El Santo Padre, sintiéndose espiritualmente presente a esos Sus hijos, eleva a una con ellos Sus oraciones a la Madre del Cielo para que extienda siempre su benéfica protección sobre toda la comarca. Sean las nobles tradiciones, con que justamente se honra, estímulo y aliento para custodiar celosamente y enriquecer siempre más y más el patrimonio espiritual que le legaron sus mayores.

Desciendan sobre esa tierra cubierta de ermitas y templos dedicados a María, lo mismo que sobre sus hogares y familias, las bendiciones del Cielo, de las que es prenda la que el Augusto Pontífice a cada uno de los fieles de Marquina y su arciprestazgo, gustoso envía.

Aprovecho la oportunidad para reiterale las seguridades de mi distinguida consideración, con que soy de Vuestra Excelencia Reverendísima seguro servidor.

A.Del'Acqua»[135]

c. **Beste kofradia batzu Karmengo elizan**

Markinako karmeldarren apostulutzaren benetako bultzagilea, bertako kofradiak, elkarteak etab. zirela bide, Karmengo Amarenganako eta beraren Eskapularioarenganako debozioa izan bazen ere, ezin ditugu aipatu gabe utzi fraideek bultzatu zituzten beste elkarte edo kofradia batzu, hala, San Joserena, Praga-ko Ume Jesusena eta abar.

aa. *San Joserenganako debozioa*

Markinako Karmengo etxean izandako San Joserenganako debozioari eta beraren kofradiari dagozkion datu eta ikuspegi historikoak biltzeko lana, Aita Higinio de Santa Teresa karmeldarrak 1969.ean argitaratu zuen *«Devoción al Patriarca San José en la villa de Marquina (Vizcaya)»* idazlanak errazten digu[136].

---

[135] *Boletín Oficial del Obispado de Bilbao* 5 (1954, 51.zk.) 493.
[136] *Estudios Josefinos* 23 (1969, 45.zk.) 231-262.

Karmeldar Ordenan San Joseri izandako debozioak, emaitza ederrak ekarriko zituen bultzada berria hartu zuen Teresaren fundazioetan eta familian, bera bilakatu baitzen gerorako San Joserenganako debozioaren pregonari, berak eraikitako komentu gehienak San Joseren izen eta babes pean jarriz. Eta, horrela, geroko historia luzean zehar ere, komentuetako elizak San Joserenganako debozio zentru bilakatu dira. Eta hau ageri-agerikoa dugu euskal probintzian eta, zehazkiago, Markinako Karmengo komentuan.

1) Esklaustraziorarte.

Eskriturak 1691.eko urtarrilaren 31an egin ondoren, bi egun geroago, otsailaren 2an, ezarri zuten Karmeldarrek beren egoitza Markinan. 1702.ean eraiki zuten komentuko alde bat eta 1724.eko abuztuaren 15ean eliza.

Laster, 1736.eko martxoan eginda zegoen San Joseren alboko aldarea[137]; eta aldare honen urreztaketa 1760.ean egin zuen Manuel Fernández de la Vega apaintzaileak 6.275 errealetan[138].

Ez dugu urte hauetan San Joseri buruz Markinan eta bertako eskualdean burututako apostolutza iharduerarik ezagutzen (beste zenbait gairi buruz ere ez, jakina, agiriak, batez ere, frantsestean galdu egin zirelako); baina, hala ere, Bolibar ondoko herri bateteko gertaera ageri zaigu; hain zuzen, San Joserenganako debozioa aditzera ematen duena.

Yturriza historialari ospetsuak, Ignacio de Erkeaga, Ziortzako eliza-kolegiatako kalonjeari bidalitako San Joseren bederatziurrenaren kopia transkribatu zigun: «Bolibar y marzo 1 de 1778. El año de 1745 tubo principio la Nobena de Sn.Joseph en Bolibar, por el Cura de dicha Puebla, Dn. Antonio de Olea, y en el del 1778 se empezó en Bascuence traducido por el Cura Dn. Francisco de Apoita y para que conste firmé. Yturriza»[139].

Badirudi bederatziurrena egitea, ordurako herrian zabalduta eta sustraituta zegoen debozioaren ezaugarria zela Aita Higinio de Santa Teresa karmeldarrak dioskun bezala. Halako bederatziurrenek nolabaiteko tradizioa zein zaletu ugari izatea suposatzen zuten.

Badugu Markinako Karmengo elizan San Joserenganako debozioari izugarrizko bultzada eman zion norbait: Teresa Barroeta anderea. San Joseren aldarea urreztatu zenean, 2.000 erreal eman zituen. Teresa Anderea Karmeldarren onegile handia zen eta kontserbatzen diren garaiko agiri gutxietan fraileen alde deboziozko oroipenak sortzen ageri da.

Artxiboko paperen antzinako aurkibidean, Teresa de Barroeta andereak eskainita, ministro eta guzti bi meza kantaturen oroipenezko fundazio eskritura aipatzen da,

---

[137] MUA, *Libro de decretos...1722-1742*, 145r, 146r, (MKA, A-I-39).
[138] MKA, A-I-43.
[139] *Antigüedades de Vizcaya...*: MKA, J-I-1, 395-398.

meza bakoitzaren bukaeran errespontsoa kantatu beharra ezarriz, bata, San Jose Gure Aitaren babespeko zortziurren-barruan eskaintzekoa dela[140].

Badugu beste berri bat ere: «Fundación de la Novena de S. José en el Convento del Carmen de la Villa de Marquina, por la S.ª D.ª. María Theresa de Barroeta, siendo secretario Dn. Josef Domingo de Gabiola. En 19 de Junio de 1805»[141].

Andere hau 1803.eko martxoan hil ondoren, aipaturiko papera ireki zen eta Karmengo komentuari 500 dukatako zentsuko fundazioa utzi ziola ikusi zen. Teresa Barroeta Anderearen testamentuan punturik garrantzitsuena, Karmengo elizan ospe handitan egiteko San Joseren bederatziurren bati zegokion: a) meza bederatziurren bat; b) *Salve* abestua San Joseren jai bezperan; c) martxoaren 19an Meza nagusia ministroekin eta sermoia eginez; d) Meza aldian zein sermoi aldian agerian egon behar zuen Sakramentu Txit Santuak; 500 dukatei, María Joaquina de Barrueta beraren lobak beste 50 dukata gaineratu zizkion, horrela egin zela fundazio hau. Aita Marcos de Santa Teresa Probintzialak Definitorio edo kontseilua Logronion bildu zuen 1805.eko apirilaren 26an eta maiatzaren 3an sinatu zuen oroipen honen fundazioa eta onarpena egiteko eskaria[142].

San Joseren ohoretan eginiko deboziozko oroipen honen fundazioa zela bide, Santuarenganako debozioak bultzada berria hartu zuen herrian.

Baina, beste pertsona batzuk ere, askozaz lehenago gainera, egin zituzten, hain garrantzi handikoak ez baziren ere, San Joseren ohoretan meza-fundazioak; horrela, esaterako, Fortun Iñiguez de Acurio Jnak 1720.ean; Josefa de Basterrechea Andereak 1741.ean; María Clara de Ibarra Andereak 1755.ean; Maria de Martitegui Andereak 1815.ean; Ahizpa Ignacia de San José zeritzanak eta abarrek[143].

Ezaguna dugunez, komunitate-bizitza etenda geratu zen 30 urtetan zehar (1839-1868) Madrileko Gobernuak dekretuz agindutako erlijiosoen esklaustrazio edo kanporaketaren ondorioz; garai horretan behera egin zuen, guzti horren ondorioz, San Joserenganako debozioak ere[144].

2) Berreraikuntza eta bultzada berria.

1868.ean Markinako Karmengo etxeko komentualak zirela, Euskal Herrian eta Espainian Berreraikuntzaren protagonista eta San Joserenganako debozioaren zaletu izan zirenen artean Aita Manuel de Santa Teresa lazkaotarra eta Aita Pedro José de Jesús María markinarra aipa ditzakegu.

---

[140] MKA, A-I-1, *Indice de los papeles del Archivo*, C, 19.zkia; Ik, era berean, G-III-30,8.orr.
[141] MKA, G-III-31, Ik., era berean, A-I-1, *Indice...*, C, 39.zk.
[142] Ik. G-III-31, HIGINIO DE S.TERESA, *Devoción...*, 256-260; ik., era berean: MKA, G-III-30, 16, 36,96.
[143] MKA, G-III-30, 17, 25, 37,114...
[144] Jatorrizko Idazlana frantsesez, gazteleraz Bartzelonan 1905.ean argitaratua (263 orr.).

Benetan oso apartekoak dira Aita León de S. Joaquín karmeldarrak, *El Culto de San José y la Orden del Carmen* idazlanaren itzultzaileak eskaintzen dizkigun datuak; San Joserenganako debozioaren bultzatzaileen artean aurreko biak, batez ere, Aita Manuel aipatzerakoan zera dio: «Su amor a S. José y la confianza que en su Patrocinio tenían se manifestó en el esmero con que lo inculcaban a cuantos vestían el hábito de nuestra Orden y en el esplandor y solemnidad con que procuraban se celebrase su fiesta, a la cual, después de la popularísima del Carmen, daban siempre la preferencia. Entre esos venerables religiosos llama de un modo especial nuestra atención y es acreedor de nuestra gratitud el muy santo P. Manuel de Santa Teresa, iniciador de la obra de la restauración en España, compañero del Rdo. P. Domingo y el H. Herman (de quienes tan merecido elogio ha hecho el autor) émulo de su virtud y no menos devoto que ellos del Santo Patriarca. Su religiosa vida es una continuada serie de favores especiales de San José, en él ponía toda su confianza, ora en la fundación y gobierno de los conventos con admirable provecho de la observancia regular, ora en el sagrado ministerio de la salvación de las almas en el que hizo grandes conquistas, más con la oración y ruegos a San José, que con la fuerza persuasiva de la palabra. Su venida a España y el modo cómo llevó a cabo la primera fundación de este nuestro convento de Marquina, fueron verdaderamente providenciales, y no puede atribuirse sino a una singular protección de San José. Hablaba muy continuo de la eficacia de esta devoción para todas las necesidades; y durante el tiempo que le tuvimos de Maestro de novicios nos recordaba con frecuencia la doctrina de Ntra. Santa Madre acerca del poder de San José; nos decía que San José es Maestro de oración y que sus devotos aprovechan más en virtud; que aunque tuviéramos otros santos por abogados, lo fuésemos en especial de San José, etc.; finalmente, terminó su santa vida cantando las glorias de San José, y exhortando a los novicios en su última plática (un mes antes de morir, 14 de marzo de 1889) a ser devotos de San José y poner en él todas su confianza»[145].

Egin eginean, San Joserenganako debozio handi hau aditzera ematen duten Aita Karmeldarren hainbat gutun ezagutzen ditut. Berreraikuntza egin eta bi urte eta lau hilabetetara, hau da, nobiziatuko bizimoduari hasiera eman eta urtebetetara, Aita Manuelek nobizen maisu zelarik, Gaytan Kondeari idatzi zion gutun batetan bere ardura agertzen zion S. Joseri eskainitako nobiziatuko otoiztegirako S.Joseren irudi bat behar zuela aditzera emanez eta ongi bazeritzan oso aberatsa zen Etxebarriko patroiari beharrizan horren berri emateko erregutuz[146].

---

[145] Ibd., 220-221; eta honako pasadizo hau eransten da:"Hemos oído referir varias veces la siguiente anécdota, que demuestra bien la filial confianza que tenía en S.José. Pero después de su llegada a España, y fundado este nuestro convento de Marquina —14 de agosto de 1868— como no entrasen novicios a causa de los disturbios políticos de aquel tiempo, lleno de confianza en San José, con aquel santo atrevimiento que el amor comunica a las almas, fue al oratorio interior del convento, y cogiendo una estatua pequeña del Santo que allí había, la metió en una celda, diciéndole con sin igual candor (que era el carácter distintivo de su santidad), que no lo sacaría de allí hasta que trajese un novicio a quella celda: al poco tiempo, el 23 de noviembre de 1869, después de cantadas las vísperas de N.P. S. Juan de la Cruz, tomaron el hábito 8 novicios. Así premió el Santo la confianza de su siervo".

[146] *Correspondencia...*, 204.zk., 1870-XII-8ko gutuna: "Cuando hicimos la bendición del Santo

1872.eko otsailaren 4ean, Aita Pedro Josek, bere aldetik, bigarren fundazio edo berreikuntza egiteko ahaleginetan ziharduen garai zail haietan, honako hau idatzi zion Gaytan Konde berberari: «Direla egun batzu eman nahi nizun erantzuna, nik neuk ere, zuk izan duzun bezala, egiteko garen fundazioa San Jose gure babestaile handiaren babespean eta izenpean jartzeko asmo berbera erabili dudala buruan, ideia hori zure gutuna hartu arte inori jakinerazi ez badiot ere; gure Aita Priorak ere ondo deritzo eta onetsi egiten du ideia»[147]. Eta hurrengo urtean, martxoaren 20an pozez gainezka idatzi zion kondeari aurreko jai handiari buruz: «Jai izugarria eskaini diogu gure Aita eta Patriarka San Joseri»[148].

Zer esanik ez, Berreraikuntzaren protagonista eta San Joseren zaletu handi izan ziren hauengan zuen bere iturburua Santuarenganako debozioak eta horren ondorioz ezarritako kofradiak[149].

3) San Joseren kofradia.

Aita Miguel María del Niño Jesus (Juaristi) Markinako komentuko karmeldarrak idatzitako *«Breve crónica de la Cofradía del glorioso San José en Marquina desde el Año 1953»* lanean kofradiaren sorrrera 1889.ean jartzen da, Aita Victoriano de la Presentación prioreak eginiko gutunak dioenari jarraituz: «Juan de la SS. Virgen, Prior del convento de Carmelitas Descalzos de Marquina. Certifico: Que la Cofradía del glorioso Patriarca S. José establecida en la iglesia de este convento ha hecho regalo a esta comunidad por manos del mayordomo Dn. José Andrés de Urtiaga, de dos arañas y una lámpara para el altar de dicho Santo, teniendo el mencionado mayordomo y sus sucesores derecho a encender las luces de las mismas arañas por su cuenta, en las misas de los cofrades difuntos. Y para que conste donde convenga expido el presente en el Carmen de Marquina a diez y nueve de marzo de mil ochocientos ochenta y siete.

P.O. de N.R.P. Prior, Fr. Victoriano de la Presentación»[150].

Oratorio del Noviciado, le consagramos al glorioso San José, como Ud. sabe el altar tiene un nicho para colocar en él al Santo Patriarca. Al principio de este año escribí a Madrid a Mariano Bellver que me dijeron que hacía muy bien las statuas o efigies, para una efigie de 1 metro de elevación una peana de 30 centímetros me pedía 3.300 reales bien entendido todo dorado. La cosa quedó sin respuesta, despuñés las cosas se han resuelto como U. sabe. Cuando fue a Francia al entierro de N.P.General pedí algunas personas, pero las circunstancias tan críticas me obligaron a esperar otros momentos más favorables. Ayer estuvo a vernos de su parte el Patrón de Echeverría su primo, que va mañana a comer con U. y dentro de pocos días irá también a Madrid, quién sabe si ese señor que dicen que es rico, y sin familia, se dejaría tentar para hacernos ese obsequio. Todo esto va como amigo, pero no quiero en ninguna manera que U. se dé por entendido; que bastantes compromisos tiene U. Si le parece a U. el indicarle a ese señor, U. verá. Ha hecho U. muy [bien] respondiendo como nos indica U. al Sr. Cura de Arriarán".

147 *Correspondencia...*, 294.zk.

148 *Correspondencia...*, 388.zk., 1873-III-20ko gutuna.

149 MKA, C-XX-1, *Registro de la Cofradía de S.José*, 257-263.orr.

150 MKA, A-I-193, 1887-III-19koa.

Baina gutun honek kofradia edo elkartea data hori baino aurreragokoa zela ematen du aditzera. Hain zuzen, *«Registro de la Cofradía de San José»* eskuskribuaren hasieran 1878.eko data ageri zaigu: «Los objetos puestos o hechos para el culto del Patriarca San José desde el año de 1878 hasta el noventa por el Sr. Mayordomo Dn. José Andrés de Urtiaga son los siguientes: Dos arañas de diez y seis belas, una lámpara, un mantel dorado, cuatro ramos artificales, comulgatorio, dos cientas ochenta medallas con sus cintas. Doce hachas y las velas continuarán como se acostumbraba antes»[151].

Heldu zaigun kofradiaren «erregistroa» 1890.ekoa da; eta 1891.eko azaroaren 8ko aktan honako hau irakurtzen da: «San Joseren kofradiaren batzorde iraunkorra Luciano de Alcorta Jna batzarburu zuela eta beraren etxean osotua izan ondoren, honek, beti hiri honetako Aita Karmeldarren komentuan ospatu izan den hildako kofradeen aldeko urteroko elizkizunari sermoia eranstea komeni zela proposatu zuen»[152]. Oso intesgarria da *«beti...Aita Karmeldarren komentuan ospatu izan den»* hitzak arduraz hartzea; hau da, kofradia 1890. urtea baino askozaz antzinagokoa zen, nonbait. Kofradia Karmengo elizara 1893.eko apirilaren 30ean tokialdatu zen[153]. Agiriek, beraz, elkartearen egoitza lehenago ez zegoela Karmengo elizan ematen dute aditzera, kofradeen aldeko urteroko elizkizuna «beti» bertan ospatzen zen arren. Gertaera bitxia benetan! San Joseren Elkarte edo kofradia hori Esklaustrazio garaian (1839-1868) parrokira aldatu zela pentsa daiteke.

Garrantzitsua izan zen, benetan, 1893. urtean Kofradiak izan zuen antolaketa. *«Libro de cuentas de la cofradía de San José»* eskuskribuaren hasieran honako hau irakurtzen da: «Cuentas ordinarias de la Cofradía de San José que comienzan a regir desde que los Padres Carmelitas de esta Villa de Marquina se hacen cargo de su dirección y administración hoy día 30 de abril de 1893»[154]; eta batzordeko ordezkari gisa Aita Máximo de la Purificación hasten da sinatzen; eta hurrengo urteetan Aita Karmeldarrek izenpetuko dituzte liburuak; eta, era berean, Karmeldar Teresiarren Ordenako bisitari kanonikoek sinatuko dituzte, hori Kofradiaren eta Karmengo komunitatearen arteko harreman estu eta zuzenen ezaugarri delarik.

Karmeldarrek Kofradiaren zuzendaritza osoago hartu zutenean, Gasteizeko apezpikuaren eraikuntza kanonikoa lortu zuten 1895.ean: «Vista su instancia de fecha del actual y oído el Sr. Cura Arcipreste de esa Parroquia, por las presentes concedemos la licencia solicitada para erigir canónicamente en la iglesia de ese convento la Asociación espiritual de Devotos de San José, si bien con la condición de que no celebren sus funciones solemnes, en los primeros, segundos ni cuartos domingos de mes, por celebrarlos en los mismos días otras pías Asociaciones en la iglesia parroquial.

[151] MKA, C-XX-1, 2.or.
[152] Ibd., 247.or.
[153] MKA, C-XX-2, 1.or.
[154] Ibd.

Concedemos cuarenta días de indulgencia a los congregantes por asistir devotamente a todos y cada uno de los actos reglamentarios.

Dios Guarde a V.md. A Vitoria 11 de octubre de 1895.

El Obispo de Vitoria»[155].

Kofradia honen historian zehar, izan dira elkarte edo kofradiaren eta Karmeldarren artean harreman oso motelak izan diren garaiak ere. Aita Higiniok bi faktoreri leporatzen dizkie zioak: a) kofradiaren izaera berberari, antolaketa gutxiko elkartea zelako; beraren urtean zeharko iharduna hildako bazkideen alde otoitzak eskaintzea eta deboziozko elizkizunen bat edo beste egitera mugatzen zuelako; b) hainbatetan, baita ere, izan zituen gidarien arduragabekeria edo axolagabekeriaren zioz[156].

Esaterako, batzutan, 1952.ean eta aurreko urteetan ez zen gidaririk izan; Komentuko Diruzainak batzordekide sekularren onarpenerako urtero kontuen zerrenda gertatzen zuen eta kito. Hain zuzen ere, hutsune hauek kentzeko Aita Sebastián de S. José Prioreak 1952-1953.ean berrantolatu nahi izan zuen, Kofradiaren etorkizuna ziurtatzeko izan zitezkeen arau zehatz batzu ezarriz; eta Aita karmeldar gidaria izendatu zuen. Horrela Aita Miguel María del Niño Jesús (Juaristi) gidari zuela berrantolatu egin zen kofradia 1953.ean[157].

Kontutan hartu behar da, bestalde, kofradia 1895. urterarte sekularren edo laikoen elkarte hutsa izan zela eta data horretatik aurrera apezpikuaren menpeko eliz elkarte bilakatu zela.

4) Betebeharrak, deboziozko egintzak eta datu estatistiko batzu.

Antzerako beste elkarteetan bezala, zeuzkan betebehar nagusienak, antolatzen ziren deboziozko egintza ezberdinetara joan, kuota jakin batzu ordaindu eta abarretara mugatzen ziren. Horrela agintzen zen, esaterako, «Erregistro» liburuaren lehen orrialdean, 1890.ean:

«1.° Entrada general de la cofradía será 5 reales. Cualquiera persona que quiera ser cofrade cuando esté enfermo o llegue el caso de recibir los Santos Sacramentos, la primera clase será, entierro, doce hachas y la Misa como se acostumbra, cuarenta reales. En la segunda clase con dos hachas para el entierro y la misa sólo con las arañas veinte reales.

2.° La cuota de San José y la del Patrocinio no habiendo otro gasto particular será tres reales por individuo.

3.° En caso de que no pagaran su cuota durante el año se les obligará a pagar cuatro reales el primer año y pasado el segundo año sin satisfacer su cuota se le borrará de la lista de los cofrades de San José.

---

[155] MKA, B-VIII-9.
[156] HIGINIO DE S. TERESA, *Devoción...*, 251.orr.
[157] MKA, C-XX-1, *Registro de la cofradía de S.José*, 259.orr.

4.° Si estos mismos quisieren ingresar de nuevo en dicha cofradía después de algunos años, estarán obligados a satisfacer diez reales en lugar de los cinco que es costumbre puesta hace muchísimos años.

5.° Los comisionados se reunirán todos los años el domingo anterior de San José a las nueve y media de la mañana en la casa del Sr. Mayordomo y a las diez menos cuarto principiará la sección con los que se reúnan sin esperar a los que no acudan a dicha reunión, y tendrán que sujetarse los demás cofrades con lo que dispongan los comisionados.

6.° La cofradía tendrá obligación de sacar dos misas de primera clase a todos los Mayordomos el día de su fallecimiento»[158].

Kofradiaren elizkizunen artean honakook aurkitzen ziren: «San Joseren zazpi igandeak: San Joseren bederatziurrena; San Joseren eguneko elizkizuna, bi sermoi, bata euskaraz eta bestea gazteleraz, eginez; urte barruan hildakoen aldeko elizkizuna; San Joseren Zaindaritza eta hilabete bakoitzeko 19. egunean meza»[159].

1893.eko *«Libro de cuentas»* deritzanean, betebehar eta eskubide hauek errepikatu ondoren Arimen elizkizuna eransten da: «hogeitamabi argitako jaurnartzemeza errezatua izango da; arratsaldean, Hilen Nokturno abestua, sermoia euskaraz eta errespontso nagusia. Biharamunean Hilen meza nagusia respontso nagusi eta guzti. Guztia hirurehun eta hogei erreal ordainduko da»[159a]. 1923.ean batzordeak San Joseren aldarean Arimen elizkizun nagusiaren aurreko bederatzi egunetan Arimen bederatziurrena egitea erabaki zuen[160].

«Registro de la Cofradía de S.José»[161] eskuskribuan elkarteko kide zirenen zerrenda ageri da. Zenbakitan ematen den zerrenda 556.erarte heltzen da. Egiatan, kuoten ordainketak alfabetikoki jasotzen zituen zerrendan, 1921-1930. urteen artean, 1.800 kofrade ageri dira.

Ikus daitekeenez nahiko kopuru handia. Kofradiak San Joseren jaia handikiro ospatzen zuen Markinan. Kontzilio ostean beherantz egin du kofradia honek.

Hala ere, maitasun handiz ospatzen da San Joseren jaia eta data horietan, oraindik, garizuma garaira egokituz, deboziozko hitzaldi hirurrena egiten jarraitzen dute.

bb. *Praga-ko Ume Jesusen Kofradia*

1) Fundatzaile eta bultzatzailea: Aita Cecilio de la Virgen del Carmen.

Umeen arteko apostolutzan eta Pragako Ume Jesusen debozioaren bultzatzaile handi eta gartsua Aita Zezilio izan zen; hori dela eta ezinbestekoa dugu, laburkiro bada ere, beraren nortasuna aurkeztea.

---

[158] Ibd., 1-2.orr.; ik., era berean, HIGINIO DE S. TERESA, *Devoción...*, 253-254.orr.
[159] Ibd., 2.orr.; ik., era berean, HIGINIO DE S.TERESA, *Devoción...*, 254.orr.
[159a] MKA, C-XX-2; HIGINIO DE S. TERESA, *Devoción...*, 254.orr.
[160] Ibd.
[161] MKA, C-XX-1.

Aramaioko (Araba) haraneko Barajuen auzunean jaio zen 1872.eko martxoaren 13an; egun berean bateatua izan zen Leandro Jauregi Altuna izena jarri ziotela[162]. Larreako nobiziatuan sartu zen, profesioa 1888.eko martxoaren 19an egin zuela[163]. Burgos-en Gregorio María Aguirre García artzepizkuak apaiz sagaratua izan zen 1897.eko abenduaren 18an[164]. Bere bizitzako apostolutza iharduera gehiena Markinan egin zuen umeen arduratan arituz; 1914.ean eraiki zuen 40 urtetan zehar zuzenduko zuen Pragako Ume Jesusen Artxikofradia; ikusiko dugun bezala, herrian oso maitatua izan zen. Era berean, S. Joserenganako debozioa ere bultzatu zuen. Fraide apala eta laua izan zen. Markinan hil zen 1951.eko urtarrilaren 13an[165].

2) Ume Egintza Santuaren Apostolutza.

Karmeldar Teresiarrak hasiera-hasieratik bizi eta bultzatu izan du Ume Jesusenganako debozioa. Debozio hau Pragako Ume Jesusenganako debozio gisa indartu zen; debozio-bide hau hainbatetan indartu egin zen izpirituzko haur bizitzarako «bidetxoa» deritzanaren irakasle zen Ume Jesusen Santa Teresarenganako debozioaren bidez.

Karmelo Teresiarraren debozio berezi honek hedadura zabalagoa hartu zuen, batez ere, Aita Santu Pio X.eak 1913.eko martxoaren 30eko «Significat Nobis» Brebearen bidez ordenako Aita Jeneralari Pragako Ume Jesusen kofradiak mundu zabalean eraikitzeko baimena eman zionean[166]. Orduan indartsu sortu ziren nahikoa kofradia. Europan Praga-ko santutegiarekin batera ospe handia izan du 1908.ean Haur Jainkoari eskainitako Arenzano-ko (Italia) santutegiak. 1930.ean Pragako Ume Jesusen kofradiak mundu zabalean zehar 2.000.000 kide zituen[167]. Gaur egun ere, oraindik, zabalkunde handia duela jarraitzen du *«Il Messagero del S.Bambino Gesù di Praga»* aldizkaria argitaratzen delarik.

3) Eraikuntza kanonikoa Markinan, 1914ean.

Aita Zezilioren ekimenez eta, era berean, berak eraikitako Semana Devota elkartearen zuzendaritza batzordeak eskaturik Pragako Ume Jesusen Artxikofradia eraiki zen Markinako Karmengo elizan, Priore Aita Jerónimo de la Santísima Virgen

[162] MKA, A-V-6.
[163] LKA A-VIII-1, *Liber professionum simplicium 1876-1897*, 211.orr.
[164] MKA, A-V-6.
[165] MKA, a-XII-1, *Memoria de los religiosos...*, 70-71.orr.; A-II-1a, *Libro de crónicas*, 23-25.orr.; ik, era berean, H-I-8; zenbait datu pertsonal *Historia de la Archicofradía del Milagroso Niño Jesús de Praga en Marquina* deritzanean: C-XX-1.
[166] *Acta Apostolicae Sedis* 5 (1913) 152-153.orr.
[167] P. ALBERTO DE LA VIRGEN DEL CARMEN, *Historia de la Reforma Teresiana* (1562-1962), Madrid 1968, 622 orr.

zelarik. 1914.eko maiatzaren 24ean izan zen ospe handizko irekiera; Prudencio Melo y Alcalde Gasteizeko apezpikua etorri zen: goizeko 7etan jaunartze meza eskaini zuen Apezpikuak hainbat ume eta nagusik parte hartu zutelarik. Arratsaldean, arrosarioa, Apezpikua bertan zela, eta sermoia Begoña-Bilboko Karmeloko «Semana Devota» elkarteko gidari zen Aita Vicente de San Jose karmeldarrak. Jarraian Apezpikuak Ume Jesusen dominak bedeinkatu eta ezarri zien «Semana Devota» elkarteko zuzendaritzakoei.

Artxikofradiaren historian honako hitzok irakur ditzakegu: «Desde esta fecha, cual semilla fecunda, la devoción al Milagroso Niño Jesús de Praga ha ido arraigándose de día en día en los corazones de los nobles marquineses, merced a los favores otorgados por el Divino Infante a inocentes criaturas y a innumerables devotos suyos, ya también por la actividad y celo desplegados por su Director el R.P. Cecilio que tiene toda su alma puesta en los niños»[168].

4) Garapena.

Umeengan apostolutza egin eta antolaketa martxan jarri ondoren, esan dugun bezala, hedatuz joan zen Ume Jesusen Artxikofradia. Historia horretan badira aparteko arretaz gogora ekartzea merezi duten puntu edo adierazpen herritar batzu.

— 1921.ean elizkizun nagusia Karmengo elizan, maitzaren 5ean elizbira ikusgarria eginez; eta Pragako Ume Jesusen etxerik etxeko bisitaldia eraiki zen[169].

— Aita Zeziliok komentu aurreko iturrian harrizko zutabe baten gailurrean marmol zurizko irudi eder bat eraikitzea proiektatu zuen eta horretarako Aita Anastasio del Sagrado Corazón de Jesús probintzialaren baimena lortu. Orduan eskaria egin zion Markinako udalari, eta Markinako agintariek baimena emanez erantzun zioten:

«El Ayuntamiento de mi presidencia en sesión del día doce del actual, haciendo suyo el informe de la comisión municipal de obras, respecto a la petición que se hace en su instancia de 30 de octubre último, adoptó el acuerdo siguiente:

Conceder la autorización solicitada para emplazar sobre la columna de piedra de la fuente del arrabal del Carmen, una efigie de mármol blanco que representa al Niño Jesús de Praga.

Autorizar la instalación de los cuatro faroles pero antes que su colocación deberá informar el ayuntamiento para que dicho trabajo sea estético.

Que cualquier desperfecto que se cause a la columna durante los trabajos, deberá ser reparada por el solicitante a satisfacción del Ayuntamiento.

Lo que comunico a U. para su conocimiento y el de los firmantes de la instancia.

Dios guarde a U. mrc.

---

[168] MKA, C-XIX-1, *Historia de la Archicofradía...*, 1-2.orr.
[169] Ibd., 2.orr.

Marquina 14 de noviembre de 1922.

El Alcalde, Juan J. de Mugartegui»[170].

Baimena lortu ondoren Aita Zeziliok burutzeko lanei hasiera eman zien: Román de Goicoetxea euskal irudigile Jnari enkargatu zion. Honek irudia 1923.eko uztailaren hasierako egin zuen. Jarraian irekiera gertatu zuen. Handikiro antolatu zuen Hirurrena; elizbarrutiko apezpikua (ezin izan zuela etorri) eta udala gonbidatu zituen. Espainiako Primatu zen Enrique Reig y Casanova Jn.Tx.Gorena etorri zen; Apezpiku hori Gipuzkoan aurkitzen zelarik, María Costa de Gaytan de Ayala Artxikofradiako buruak gonbidatua izan zen.

Gertakari handi hori Artxikofradiako historialariak deskribatzen digu, ospakizunetan Aita Tirso de Jesús María, Donostiako priore zen sermolari ospetsuak eta Aita Florencio del Inmaculado Corazón de María hizlariak parte hartu zutela esanez; era berean, bertan izan zen Ondarruko banda eta Donostiko Easoko neska gazteak ere Aita Gil beraien zuzendari ospetsuaz etorriz. Bedeinkapena bera, Santa Agedan aurkitzen zen Reig y Casanova kardinaleak egin zuen[171].

1923.eko uztailaren 27-29. egunak ziren: 27an marmolezko irudia harrizko zutabe gainean jarri zen eta 29an Kardinaleak bedeinkatu.

— Geroago Aita Zeziliok beste urrats bat emango zuen: 1925.eko urriaren 23an, Udalaren batzarraldian «Pragako Ume Jesus Mirarigilearen Artxikofradiaren Aita Zuzendariak, Ume Mirarigilearen irudia eraikita aurkitzen den harrizko zutabe ederraren inguruan parke edo lorategitxo bat jartzeko baimena eskatuz eta eskatzen den erreformak toki hura edertu egingo duela ziurtatuz izenpetutako eskariaren berri eman zen. Batzorde Iraunkorrak eransten den diseinua aztertu ondoren, aho batez obren Udal Batzordera eramana izateko bidea egitea erabaki zuen»[172]. Egun batzu geroago,

---

[170] MKA, E-I-53.

[171] MKA, C-XIX-1, *Historia de la Archicofradía...*, 5.orr. «Los sermones del 1.er día se encomendaron al R.P. Prior de San Sebastián, Fr. Tirso de Jesús María, los del segundo al R.P. Florencio del Inmaculado Corazón de María. El primero y tercero día se hizo procesión solemne por la campa, amenizada por la notable Banda de Ondárroa, se celebraron de noche bellísimas veladas religiosas recreativas en honor del M. Niño Jesús de Praga en las que las bellas ninfas de Easo, San Sebastián, con su ilustre Director el P. Gil derrocharon no pocas arrobas de sal y de gracia. Pero vengamos al acto solemne de la Bendición de la efigie de mármol del M. Niño Jesús de Praga. Cedido galantemente su auto por D.ª María Costa de Gaytan de Ayala, fue en busca del Cardenal Reig el R.P. Casiano, Prior del Convento, al establecimiento benéfico de Santa Agueda, y habiendo llegado para la hora señalada a Marquina, salió a recibirle al portal del convento la venerable comunidad, con el Iltre. Ayuntamiento, así como un inmenso gentío procesionalmente, y llegados que fueron al lugar de la bendición, el R.P. Cecilio, desde un balcón de una casa próxima, en brillante y patético discurso le dió la bienvenida y las gracias por lo que se había dignado visitarnos y honrarnos con su presencia en tan solemne acto. A continuación se procedió a la bendición de la efigie, y vueltos procesionalmente a la iglesia entre cánticos y urras al M. Niño Jesús de Praga, terminó tan bellísima y conmovedora fiesta con la despedida y bendición del Excmo. Cardenal el Sr. Dr. Reig y Casanova».

[172] MUA, *Libro de actas...1923-1927*, (MKA,A-I-251).

urriaren 30ean, Udalak Karmengo errabaleko iturriaren inguruan lorategia ezartzeko baimena eman zuen[173].

— Aita Zeziliok ofizio eta meza berezia izango zituen jai liturgikoa lortzeko ahaleginetan eskaria aurkeztu zion Bilboko Begoñako Karmelon 1927.eko irailean bildutako Nafarroako S. Joakin Probintziako Kapituluari; eskaria Aita Zeziliok eta Artxikofradiako batzorde zuzendaritzako kideek izenpetuta zegoen[174].

— Hurrengo urtean, Markinako Karmengo elizan 1928.eko uztailaren 29an zerbitzuan jarri zela Pragako Ume Jesusi aldare berri bat egin zioten; Aita Zeziliok abagadune hori erabili nahi izan zuen jai erlijioso-herritar bat, hirurren eta guzti, antolatuz, baina, Aita Apolinar de S.José Prioreak zaratarik gabe egitea nahi izan zuen eta hala egin zen[175].

— 1930.eko otsailaren 5ean, Aita Zeziliok gonbidapena egin zion Udalari, hurrengo igandean, otsailaren 10ean, Arretxinagako eskola publikoetan egiteko zen Pragako Ume Jesusen tronorapen egintzara[176].

— 1937.ean, Aita Zezilio Artxikofradiaren eraikuntza egunaren 25. urtemuga ospatzeko gogo bizitan zelarik, jaun batek Aita Probintziala Markinatik ateratzera behartu zuen, ondorioz Aita Zeziliok bi urte Gasteizen egin zituelarik. Baina, Markinan burutu zen hurrengo Probintziako Kapituluan (1939.eko apirilean), Aita José León Probintzial berriak gertatutakoaren berri izan ondoren, berriro Markinara bidali zuen; bertan harrera hobezina egin zioten «maistra-maisuak aurretik zirela hainbat eta hainbat umek, bera berriro ikusteak ematen zien poztasuna agertuz eta berriro beren artean ikusteko gogo bizia aditzera emanez». Maiatzaren 31n heldu zen[177].

— 1951.eko urtarrilaren 13an hil zen Aita Zezilio 78 urte zituela, beraren heriotzeak «txikien» eta nagusien artean samindura bizia sortuz[178].

— Markinarako jai-gertaera izan zen Artxikofradiaren 50. urtemuga 1964.ean. Jende artean izenburutzat *«Marquina por el Padre Cecilio en las Bodas de Oro de la fundación de la Archicofradía del Niño Jesús de Praga»* zuen egitaraua banandu zen. Aita Zezilio Karmeldarrari heriotze ostean egiten zitzaion omenaldia izan zen. Asmo hori ez zen fraideak bultzatutako zerbait izan, umetan Aita Zezilioren zuzendaritza ezagutu eta une hartan herrian edota lanbide ezberdinetan karguak edo postuak zituztenek, esaterako pilotariek, beren eskerrona adierazteko bultzatua baino[179].

Urriaren 9an garai hartan ospetsuak zirenen artean puntarako xistera partidu garrantzitsuak jokatu ziren. Lortutako dirua Karmengo elizan berogintza ezartzeko

---

[173] Ibd., 247-248.orr. (MKA, A-I—252).

[174] MKA, C-XIX,1, *Historia de la Archicofradía...*, 8-10.orr.; Burgosen bilduko zela itxaroten zuen probintziako kapitulua baino lehenago idatzitako agiria; Begoñako Karmelon bildu zen.

[175] Ibd., 13-14.orr.

[176] MUA, *Libro de actas... 1928-1934*, lehen folioa, jatorrizko gutuna (MKA, A-I-255).

[177] MKA, C-X-IX-1, *Historia de la Archicofradía...*, 21.orr.

[178] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 23-25.orr.

[179] MKA, A-V-6.

erabili zen. Igandea, 11a, izan zen omenaldi egun handia: goizeko 10etan heldu zen Urretxuko txistularien Banda kaleak alaituz. Meza nagusia 11tan, bertan izan zirela Udal korporazio osoa eta agintariak; Ondarruko haur kantari tipleek parte hartu zuten, jarraian kontzertu txiki bat eskaini zutelarik. Arratsaldean, 4,30etan folklore jaialdia pilotalekuan (txistulariak, bertsolariak, umeen puntarako xistera partidua etab.). 12an umeen omenaldia, beraientzako jai bereziak antolatuz. Eta 13an gaueko 10etan Ondarruko taldeak «Kresaletan» euskal antzerki lana eman zuten parrokiako aretoan[180].

Pragako Ume Jesusen ospakizunak egiten jarraitzen zuten 1967.ean[181]. 1967. urteko maiatzaren 4ean umeen jaiak ospatu ziren: umeen meza 10etan; jarraian erraldoiak eta buruhaundiak[181a]; 11,30etan umeen jaialdia pilotalekuan: puntarako xistera partiduak, dantzak, gozoki banaketa; eta arratsaldeko 4,30etan Ume Jesusen elizkizuna, ostean aparteko zozketa bat eginez. Baina, urteak aurrera, beherantz joko zuen debozio honek ere[182].

cc. *Ume Jesusen S.Teresaren Jaierazko Bazkuna*

Ume-Egintza Santuaren apostolutza, hainbatetan Ume Jesusen Teresa edo Teresa de Lisieux «aro berrietako Santa handiaren» *Ume-Egintza Izpirituala* deritzanaren mezuari loturik ageri zaigu. Horrela beraren babespean lehen «Ume Jesusen Santa Teresaren Jaierazko Bazkuna» sortu zen Karmeldarrek Erroman duten Santa Teresaren parrokia-basilikan. 1926.eko abuztuaren 11ko Aita Santu Pio XI.aren *Primaria* Brebearen bidez eraiki zen, delako Jaierazko Bazkuna munduan zehar eraikitzea Karmeldar Teresiarren Aita Jeneralaren esku utzi zelarik[183]. Elkarte honek zabaldura handia hartu zuen Misiolarien Zaindariaren ospeak eraginda zein jarraitzaileak Ebanjelioko mezurik garbienera eramaten zituen Santa gaztearen Ume-Egintza Izpirituaren mezuaren ondorioz.

Markinan ezinbestekoa egiten zen elkarte hau, batez ere Aita Zeziliok Pragako Ume Jesusen iguruan eginiko apostulutzaren ostean. *«Jaierazko Bazkun»* honek beherantz egin zuen Markinan, baina berriro indarberritu zen, lehenago 'zenbait urtemugen ospaketei» buruz hitz egiterakoan esan dugun bezala, Teresatxo donea Misioetako Zaindari izendatzearen 25. urtemuga (1952) ospatzerakoan[184].

Baditugu, beste kofradietan bezala, *'Jaierazko Bazkun'* honek izandako akta, kontu, historia etabarren agiriak edo eskustribuak[185].

---

[180] Ibd.; eta A-II-1a, *Libro de crónicas*, 72-73.orr.; MKA, A-I-274.

[181] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 85.orr.

[181a] MKA, A-I-277.

[182] Artxikofradia honen historia egiteko zertxobait beranduagoak diren 1951 eta 1955.eko liburu-eskuskribuak ikus daitezke: C-XIX-2: *Libro de cuentas...* (1955-1970); eta C-XIX-3: *Archicofradía del Niño Jesús de Praga. Registro de Cofrades. Marquina 1951*, bertan 276 umeren izenak ageri direla.

[183] *Analecta Ordinis Carmelitarum Excalceatorum* 1 (1926) 145-146.

[184] Ik 307-308.orr.

[185] Ez da ahaztu behar, era berean, Avila-ko S.Teresari izandako debozioa, beraren omenez eginiko ospakizun handiak eta Aita Karmeldarrek kofradia berezirik izan ezarren eginiko propaganda zabala.

d. «Pan de San Antonio» deritzanaren Laguntza-Lana

Elkartea hau ere izan da Markinako Karmengo elizaren inguruan. Ez dugu eraiketa datarik ezagutzen. Gure eskuetara heldu zaigun *Libro de Actas de la Obra Pía 'Pan de los Pobres*[186] eskuskribua 1904.ean hasten da. Eta, egin-geinean ere, 1904.eko irailaren 11 eta 18an, Karmengo Aita Prioreak deituta eginiko batzarraldietako lehen aktan, aurreko batzordea aipatzen da, batzordeburu Francisco de Ugartechea Jna., diruzain Fernando de Olea Jna. eta idazkari José F. de Larruscain Jna zirela esanez; hauek *«Pan de San Antonio»* Laguntza-lana eraiki zenetik 1904.eko abuztuaren 31ra arte eginiko kudeaketaren kontu eman zuten. Horrek, delako fundazioa urte batzu lehenago sortua izan zela ematen du aditzera. Horrela, irailean batzorde berria izandatu zen. Elkarte honen helburua, hiriko txirioei laguntza ematea zen, horretarako dirua eskuratzeko elizan atabakak jartzen zituela. Nahikoa kontrol zuten diruaren erabileran ere, iharduna benetako txiroei laguntza ematera mugatzen zutela. Hona hemen akta batetan ageri dena:

«1.° Que se reunirá la Junta en los terceros domingos de cada mes después de la función acostumbrada de la tarde, para tratar acerca del mejor modo de distribuir la limosna recaudada, y hacerle prosperar a la Obra tan beneficiosa para los pobres de la localidad.

2.° Que vaciarán los cepillos en los martes a las cuatro de la tarde u otra hora convenida, asistiendo a este acto los señores presidente, tesorero y secretario, y en el caso de imposibilidad de estos, sus vices, que serán avisados por los efectivos oportunamente.

3.° Que la persona necesitada deberá presentarse primero al señor presidente, e indicada por éste la limosna conveniente, según los fondos que haya, el señor secretario le dará un bono, con el cual podrá comprar lo que conste en dicho bono; y el señor tesorero, previa la presentación de los bonos, pagará mensualmente a los acreedores, anotando los pagos en el libro correspondiente, a continuación de los ingresos que haya habido.

Y 4.° Que la junta designe dos individuos de su seno, para que visiten oportunamente a los pobres necesitados, la cual visita deberán hacer por el siguiente turno mensual: 1. El Señor Presidente con el señor tesorero, 2. el señor secretario con el señor vice-tesorero, y 3. el señor vice-presidente con el señor vice-secretario.

Finalmente se acordó por unanimidad hacer constar un voto de gracias a los señores de la Junta saliente. Y para que conste, firma el R.P.Prior con los señores de la Junta, en Marquina, a 18 de setiembre de 1904»[187].

«Libro de Actas» honetan 1934. urtetik 1962. urteko abendurarteko kontuak (kobraketak eta ordainketak) ageri dira. Kontuetan, ia urtero, mezetan eskainitako

[186] MKA, A-XVII-1.
[187] Ib., 2-3.orr.

bederatziurrena eta San Antonioren egunean sermoi eta guzti abestutako mezaren gastuak ageri dira. Bertan ikus daitekeenez iharduerarik handiena hiriko txiroen artean hilero ogia eta esnea banatzea zen, geroago beste laguntza mota batzu ere ageri direla, esaterako, eskudirutan emanak..

3. Sermoilari ospetsu batzu[188]

Aztertzen ari garen apostolutza ihardueran zeregin garrantzitsua izan ohi zuten sermoilariak, eta ez bakarrik apostolutzari zegokionean baizik eta, baita ere, ikuspegi sozio-kulturaren alorrean..

Espainiako Kongregazioaren garaian, hau da, 1835-1839-eko Esklaustraziorarte, komentu bakoitzean lanbidezko sermoilaria izaten zen, eta iharduera hau, gorago aditzera eman denez, beste kargu batzuekin bateraezina izaten zen. Baina 1868.eko Berreraikuntzaren ostean, sermoigintza ez zen komentuko fraide baten esku izaten, era egokiz egin zezaketen hainbaten esku baino.

Sermoigintza ez zen bat ere iharduera erraza; adimen eta oroimen handiaz gainera ahots ona, itxura egokia eta abar eskatzen zituen; horretaz gainera, erretorika jantzia eta hainbatetan arte-dramatikozko tankera eskatzen zituen.

Buruz ikasteko iharduna askorentzat oso lan gogorra izaten zen, sermoia gertatzen aste osoak egitea eskatzen zielarik. Hau da, behinik behin, hemen aipatuko ditugun sermoilari ospetsu batzutan ikusten duguna.

Sermoilari hauen izenak, garai haietan jendearen ahotan ibili ohi ziren herriz herri, familietan zein tabernetan; hortik sortu zen sermoilariei buruzko hainbat autumautu edo pasadizo izatea bazterretan. Eta euskal sermolariek, bertsolariek izan ohi duten sen herritarrak eraginda, barne-barnetik sortu ohi zuten lotura herriaren sentimenduekin; horrek eguneko mintzagai izatea ekartzen zien.

Jarraiko orrialdeetan, heziketa Markinako Karmengo etxean jaso edo jaso ez, bertako komentualak izan zirelako beraien sermoigintza eta ospea Markinan eta bertako inguruetan ezagutua izan zuten karmeldar sermolari ospetsu batzu gogoratuko ditugu beren beregi. Zehazkiago, oraindik, 1868.eko Berreraikuntza ondoko garaietara mugatuko dut alorra, alde utzirik aurreko garaietako euskal sermolariak, beraien artean osperik handiena Aita Frai Bartolomé de Santa Teresak izan duela; hau geroago kultur iharduerari eskainitako hurrengo kapituluan aipatuko dugu.

---

[188] Oraintsu Luis Baraiazarrak idazlan bat argitaratu zuen honetaz: *Lehengo sermoigintza eta sermoilariak oroituz*, Karmel 1987-1, 16-31. Kapitulu hau Markinako Karmengo etxetik iragan ziren sermolari ospetsu gehiagoren berriak eskainiz osotuko dut. Kontutan hartu behar da Aita Luis Baraiazarrak zuzen-zuzeneko informazioa jaso zuela Aita Jenaro Larruskain eta Aita Juan Iturregi karmeldarren ahotik.

a. Aita Jerónimo de la SS.Virgen (Garaigoitia Aguirre, 1846-1921)[189]

aa. *Bizitzako datu batzu. Gobernu gizona*

Jeronimo, Zornotzan jaio zen 1846.eko irailaren 30ean. Berreraikuntza egin eta berehala 1869.ean Markinako nobiziatuan sartu ziren lehen gazte talde txiki hartakoa izan zen, profesioa, Jerónimo de SS.Virgen izena hartuz, 1870.eko azaroaren 24ean egin zuela[190].

Markinako Karmen etxean egin zituen filosofiako ikasketak (1871-1874) eta teologiakoak (1874-1877)[191]. Hona hemen bizitzan zehar izan zituen karguen laburpena: Markinako Karmengo prioreordea (1877-1880); Larreako priorea (1880-1885); Probintziako Definitorea (1885-1888); nobizen maisua Larrean (1889.eko martxo-maiatzean); Gaztelako Probintzia sortuberriko Probintziako Definitorea (1889-1891); Avila-ko Bikarioa (1891); Alba de Tormes-eko priorea (1891-1894); Gaztelako probintziala (1894-1895); 2. Definitore Jeneral Erroman (1895-1901); Misioetarako prokuradorea zein bikarioa Madrilen (1901-1907); 1909.ean Larreara itzuli zen eta 1912.ean Nafarroako S.Joakin probintziara berriro etorri, Markinako priore izendatua izan zelarik (1912-1915); Probintziako Definitorea eta Markinako komentuala (1915-1918); 1918.ean berriro Larreara, bertan hil zelarik santu ospea zuela 1921.eko azaroaren 21ean[192].

bb. *Euskal sermolaria.*

Karmeldarren artean gobernu zereginetan izandako iharduera ugari horretaz gainera, sermoi bidezko apostolutzari ekin zion. Eta ihardun horretan, garaiko euskal sermolarien artean onenetarikoa izan zen. Oso ezagutza handikoa izan zen herrietan, beraren oroimenak urteetan zehar iraun zuelarik.

«Zeukan Aurpegi gorrixkak, une berean, seriotasuna eta haurren lainotasuna biltzen zituen; beraren begirune lau, gozo eta errukiorrak birtuteri zein betiko egiei buruz gogoetak egiten ohitutako arima azalerazten zuen»; eta beraren bizitzako kontaketan beste hau eransten da: «Etengabeko ihardun zuen sermoigintzan; misioak antolatu eta fruitu ugari lortuz egin zituen sermoiak beraietan. Oso gogoko izaten omen zuen Ostiral Santuan sermoia egitea eta, azken zazpi hitzei buruzko sermoian zehar, behin batetan, parrokuak, apaizek eta herritar ugarik negarrari ekin ziotelako eten behar izan omen zuen sermoia negarrei lekua egiteko»[193].

---

[189] Begiratu GPKA-ko azterketetako datu batzu; baita ere, ADG...Eta bereziki *Memoria de los Religiosos fallecidos en este convento de Larrea* eskuskribuko zazpi orrialde. (LKA,A-IX-1,20.zk.).

[190] MKA, A-VII-1, *Liber Professionum...*

[191] GPKA, *Examen studentium.*

[192] ik. LKA, A-IX-1, *Memoria de los Religiosos* fallecidos...

[193] Ibd.

b. Aita Andrés del S.Corazón de Jesús (Jose Domingo Arrieta, 1854-1923)[194]

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Domingo, Xemeinen (Markina) jaio zen 1854.eko urriaren 19an, Barrueta auzuneko «Bauscain» baserrian. Txiki-txikitatik ezagutu zuen Karmengo komentua. Latin ikasten hasi zen baina amaitu aurretik gerra zibila sortu zen eta Karlos Jnaren alde atera zen «erlijioa defendatzeko asmo bakarra» zuela. Hiru urte luze egin zituen soldadutzan. Gerra amaitzerakoan Larreako nobiziatura joan zen eta bertan hartu zuen habitu santua 1876.eko urriaren 19an eta profesioa hurrengo urteko urriaren 20an egin. Eta, gero, Markinan hilabete batzu egin ondoren (1877-1878), filosofiako hiru ikasturte egin zituen Burgos-en (1878-1881) eta beste hiru Markinan (1881-1884); eta seguruen 1884-1885. ikasturtea ere bai, baina, ez da aktetan ageri[195].

Urte gutxi barru Markinako priore izendatu zuten (1888-1891) eta zenbait hirurtekotan izan zen prioreorde. Nahikoa latza zen, oso osasun gogorrekoa zelarik; beti lanerako gertu, nahiz pulpiturako zein aitortokirako. Markinan hil zen 1923.eko urtarrilaren 21ean.

bb. *Euskal sermolaria.*

Zaletasun handia zion sermoigintzari; teologo-ikasle zelarik, baselizaren batetara meza eskaintzera joaten zenean ere beti egiten zuen sermoia. Sermolari gisa zer nolako ospea zuen gogora ekartzeko, nahiko dugu beraren heriotza ondoren komunitateko priorea zen Aita Casiano de Jesús Crucificado fraideak idatzitako ohar biografikoa irakurtzea: «Ikasketak amaitu eta berehala hasi zen sermoigintzan; lehenengo misio bat eman zuen Ipazterren; gero hainbat eta hainbat sermoi egin zituen, zenbait misio, hirurren eta gainerakoak eman izan dituelarik. Sermoiak gartsu egiten zituen arimen salbamena bilatuz bakarrik; beraren sermoiak mamitsuak, lastorik gabeak eta sakonak ziren; on asko egin zuen pulpitotik eta etengabeko elkarrizketetan; oso ezaguna zen aitortokian sermoien bidez ateratzen zuen fruitu ugarien eraginez. Oso ezaguna zen herrian eta jaiotetxea gogora ekarriz Aita Bauskain deitzen zioten»... «Oinez ibiltzea izaten zuen gogoko eta, horrela, ibilaldi luzeak egiten zituen oinez sermoiak egitera joatean zein etxeratzerakoan. Nahiz eta osasun oso onekoa izan nahitaez eragina egin behar hainbeste sermoi egiteak eta indarrak makaldu, azken egunetan nabari zen bezala; berak jateko gogoezaren ondorio zela uste izaten zuen. Azkenik, 14ean (igandea) bere ohizko bi sermoiak egin zituen, azkenekoan huts egin ziolarik betiko indarrak eta Aita Prioreak goiz afaldu eta ohera joan eta hurrengo goizeko 5etan, hutsik egin gabe egiten zuen bezala, ez jaikitzeko agindu zion»[196]. Egun batzu barru hil zen.

---

[194] MKA, A-XII-1, *Memoria de los Religiosos...*, 25.zk., 36-37.orr.
[195] GPKA, *Examen studentium*.
[196] MKA, A-XII-1, 36-37.orr.

c. Aita Tirso de Jesús María (Julian Erdoiza Arizmendi, 1878-1956)[197]

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Julian, Bernagoitin (Zornotza, Bizkaia) jaio zen 1878.eko urtarrilaren 28an. Humanistika ikasketak egin ondoren Larreako nobiziatuan sartu zen profesioa urtebete geroago 1894.eko martxoaren 28an Tirso de Jesús María izena hartuz egin zuela. Filosofia Markinan ikasi zuen (1896-1898) eta Burgos-en (1898-1899), eta teologia Burgos-en (1899-1903) eta Iruñean (1903-1904). Burgos-en egin zuten apaiz 1902.ean[198].

Markinako komentura bidali zuten profesio eginberrien irakasle izateko. Baina laster, 1908.ean, Donostiara bidali zuten bertako karmeldarren fundazio berrira. Eta bertan bizi izan zen bizitza osoan zehar 1956.eko maiatzaren 1ean hil zen arte.

Donostiako komentuan bi hirurtekotan (1921-1924, 1936-1939) priore izan zen; beste bi hirurtekotan (1930-1933, 1942-1945) Probintziako Definitore edo Aholkulari izan zen.

bb. *Euskal sermolaria.*

Aita Tirso batez ere sermolari gisa ezagutua izan zen. «Ez zan sermolari sutsu, garratz eta zaratatsua. Estilo aldetik fina, dotorea, distiratsua» diosku Aita Baraiazarrak, pertsonalki ezagutu zutenen esanetatik entzunda. Kronistak, bestalde, hizlariei dagozkion kualitate inbidiagarriak zituela eta Euskal Herri osoan zehar ezagutua zela esaten digu; eta honako hau eransten: «Aita Tirso apostolutza izpiritu sutsu eta nekaezinak betea zen eta zirela gogo-ihardunak, misioak, une berezietako sermoiak zein gorespen-hitzaldiak ez zuen astebetetako atsedenaldirik urte osoan zehar»[199].

Hain estimatua izanik beti deitzen zuten berriro; horrela, esaterako, elkarren segidako 9 urtetan izan zuen Sortzez Garbiaren bederatziurrena Donostiako «Buen Pastor» parrokian oso onarpen handia jasoz; azkenean, ber-berak atzera egin zuen gehiegi zela uste zuelako.

Aitortokian ere oso maitatua eta jende ugarik eskatua izan zen, kronistak «hainbat eta hainbat penitente, giza maila guztietako jarraitzaile sutsu» zituela esaten digu[200].

---

[197] Ik. ohar kronologikoa BOPSJN 2 (1956, 28.zk.) 369-370.
[198] GPKA, *Examen studentium*.
[199] Ik. ohar kronologikoa aipaturiko buletinean.
[200] Ibd.

d. Aita Martin del Purísimo Corazón de María (Martin Uriarte Odriozola, 1879-1960)[201]

aa. *Bizitzako datu batzu*

Zeanurin (Bizkaia) jaio zen 1879.eko ekainaren 27an, egun berean bateatua izan zelarik. Beraren gurasoak Jenaro Uriarte eta Ramona Odriozola izan ziren. Lehen ikasketak Undurragako eskolan egin zituen. 1893.eko apirilan sartu zen Larreako ikastetxean eta laster Villafranca-koan (Nafarroa). Karmeldarren habitua 1984.eko irailaren 6an hartu zuen Larrean, profesioa hurrengo urteko irailaren 11n eginez eta Martín del Purísimo Corazón de María izena hartuz. 1903.eko irailaren 6an sagaratu zuten apaiz Burgos-en.

Filosofia, Markinan (1896-1898) eta Burgos-en (1898-1899) ikasi zuen eta teologia Burgos-en (1899-1903) eta Iruñean (1903-1904)[202].

1904.ean Villafranca-ko (Nafarroa) ikastetxeko irakasle izendatu zuten eta 1906.ean Iruñera aldatua izan zen morala irakastera; eta hurrengo urtean, 1907.ean, Larrean ireki zen ikastetxeko Zuzendari eta irakasle izendatua. 1921. urterarte gazteen heziketan ihardun zuen Larrean.

1921.ean Markinara bidali zuten, bertan, ikusiko dugunez, buru-belarri sermoigintzan ihardun zuela.

Gerra zibilean detenitua izan zen; 1938.eko urriaren 15ean Bilboko epaile batek Gasteizeko apezpikuari Aita Martin Uriarte fraidearen aurka jarritako auzibidea bertan behera utzia geratzen zela jakinerazi zion, askatasuna lortu zuelarik. Horrela jakinerazten zion Gasteizeko apezpikuak Karmeldarren Probintzialari, era berean, aipaturiko erlijiosoak Euskaditik gutxienez 500 kilometrotara aldendu behar zuela gaineratuz[203].

Bost alditan izan zen priore: Markinan (1924-1927), Larrean (1927-1930), Begoñan (1933-1936), Markinan (1936.ean, 1937.ean utzi egin zuelarik postua), Larrean (1945-1948)[204].

1960.eko urriaren 21ean hil zen, 81 urte zituela eta 65 urtean zehar karmeldar izan ondoren.

bb. *Euskal sermolaria*

Norbait buru-belarri, gorputz eta arima sermoigintzan ihardun izan bazen bizitza osoan zehar, halakoa Aita Martin izan zela esan daiteke. Markinan eta Larrean iragan zituen urteak apostulutza iharduera handikoak izan ziren. Ministeritza barruan izan

---

[201] Begiratu agiriak eta datu biografikoan GPKA-n, 123.kutx.n; ohar nekrologikoa BOPSJN 4 (1960, 48.zkia) 173-175. S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, IV, Bilbo 1975, 43-47.orr.

[202] GPKA, *Examen studentium*.

[203] GPKA, 123.kutx., 1938-X-18ko gutuna.

[204] Ik. Aita Martinek berak idatzitako datu autobiografikoak: GPKA, 123.kutx..

zuen bizitzako bokazio ta ilusio nagusiena sermoigintza izan zen; berberak esaten zuen bezala, «toto corde atque totis viribus» (bihotz osoz eta indar guztiekin) horretan aritu zen 50 urte luzeetan zehar.

Testigantza biziak bilduz L.Baraiazarrak beraren sermoigintza-tankera kontatzen digu bizi-biziro: *«Bere joeraz sermolari garratz, sutsu eta zaratatsu zen. Trumoihotsaren orroetan ekiten zion pulpito lanari. Gogoko zitzaion sermoigintza. Edozein herritara beste sermolariren bat lagun zuela misioak ematera edo joaterakoan, ia lan guztia bere gain hartu ohi zuen: 'Neuk, neuk egingo dot'. Garrasiaren garrasiz eliza dar-dar jarri behar, bere buruari tratu txarra emateraino. Hitzaldi asko egin arren, ondo-ondo prestatzen zenetarikoa genuen A.Martin. Sermoia orraztu, orraztu egin behar zela esaten omen zuen»*[205].

Sinesgaitza gertatzen da sermoigintza burutu zuen iharduera izugarria; bere bizitzari eta iharduerari buruz eginiko bi orrialde autografotan dinoena sines dezakegu, bertan hitzez hitz honako hau diozkula:.

«Sermoigintza bizitza honen alderik nagusiena 'euskaraz' egin behar izan du. Batez ere Bizkaiko Probintzian, euskal eskualdeetan, nekez aurkitu ahal izango da sermoirik egin ez duen elizarik. Parrokia batzutan ehun edota berrehunetik gora izango dira bertan eginiko sermoiak. Esaterako, Arratzun (Gernika) laurehundik gora sermoi izan ziren bertako misio, hirurren eta gorespen-hitzaldietan eginikoak.

Sermoigintza honetan, gorespen-hitzaldiekin batera, beste lan gogor batzu aurkitzen dira, hala misioak, gogo-ihardunak eta hirurrenak, multzo handia egiten dutela. Aita Martinek bere berrogeitamar urteetan zehar eginiko sermoien kopurua aztertzeari ekin ezkero, hemeretzi milatara (19.000) helduko direla esan daiteke.

Pulpito ospetsu ezberdinen artean, bi zortziurrenetan izan zituen sermoiak Arrasaten, tradizioaren esanetan Vicente Ferrer Santuak eginiko pulpitu berean. Durangoko Santa Maria parrokian hirurogeiren bat sermoi. Beraien artean, Ostiral Santuko zazpi hitzei buruzko sermoia, zazpi aldiz. Lehen aldiz 1909. urtean izan zen.

Herriari eskainiko sermoigintza horretaz gainera, klausurako moja erlijioen hainbat komunitateri eman zien urteroko izpirituzko gogo-ihardunak.

Sermoigintza ugari hori burutzerakoan poztasunik handiena eman eta Jainkoari eskerrak ematera bultzatzen zuten hitzaldiak, arimei ageri-ageriko ziren fruitu ugariak ekarri ohi zizkieten 'misioak' edota 'moralari' zein 'azken egiei' buruzkoak izaten ziren. Fruitu horrek bete-betean ordaintzen zituen apostolutza ministeritzak sortutako neke ugari guztiak»[206].

Eta datu bitxi bat gaineratu ahal dugu; beraren azken sermoia San Joseren egunean egin zuen eta bertan berrogeitamabost urte lehenago bere lehen sermoia ere San Joseren egunean Kadreitan (Nafarroa) egin zuela ekarri zuen gogora.

---

[205] L. BARAIAZARRA, *Lehengo sermoigintza eta sermoilariak oroituz*, Karmel 1987-1, 24-25.
[206] GPKA, 123.kutx..

cc. *Euskal idazlea*

Apostolutzan eta Larreako ikastetxeari hasiera ematerakoan gazteen heziketan, bertako zuzendari eta irakasle izendatu zutelarik, burututako ihardueraz gainera, «Karmengo Argia» aldizkaria sortu zenean lehen zuzendari izan zen. Aldizkari horrek iraun zuen 6 urteetan (1931-1936) bera izan zen orrialderik ugarien idatzi zuen idazlea. Bertan, besterik beste honako gaiok jorratu zituen: «Baserri gaiak», «Egi biribillak»(oso idazlan interesgarriak), «Larrosazko euria», etc.[207].

Aldizkarietan idatzitako idazlanez gainera bi bederatziurren ere idatzi zituen euskaraz: bata, *Karmengo Andra Marijari bederatziurrena eta asteroko ikustaldia* (Bilbao,1924, 67 orr.) eta, bestea, *Bederatziurrena Ume Jesus'en Teresatxu zoriundunari* (Bilbao, 1923, 20 orr.).

e. Aita Florencio del Purísimo Corazón de María (Leon Gortazar, 1882-1963)[208]

aa. *Bizitzako datu batzu*

Leon, Zeanurin jaio zen 1882.eko ekainaren 28an. Beraren gurasoak Fermin Gortazar eta Ramona Intxaurbe izan ziren. Lehen ikasketak jaioterriko eskolan egin ondoren Larreako Karmelon sartu zen 1898.eko uztailaren 28an, profesioa hurrengo urteko uztailaren 29an egin zuelarik izentzat Florencio del Purísimo Corazón de María hartuz.

Jarraian filosofiako ikasketak egin zituen Begoñako Karmelon (1899-1902) eta teologiakoak, lehen urteak, bertan (1902-1903) eta Iruñean (1905-1907)[209]; apaiz 1907.eko ekainaren 12an sagaratu zuten. Beraren erlijio-bizitzan eta apostolutzan hiru epealdi ageri dira: hain zuzen ere, Bizkaian (1908-1930), Gipuzkoan (1930-1937) eta Amerikan (1937-1948) eginikoak. Honako komentu hauetan bizi izan zen: Larrean (1908-1911); Markinan (1911-1915); Begoñako Karmelon (1915-1921) eta berriro Larrean (1921-1930); Donostian (1930-1933); Altzon (1933-1936); 1936.ean Probintziako 4. Definitore edo Aholkulari izendatu zuten eta Eibarren bizi izan, eta gerra garaiko aurkako egoera nekagarrietan Probintziako bikario karguan aritu zen. Eta 1937.ean Frantziara joan zen Aita Ezekieli lagun eginez eta Agen-go komentuan errefugiatu zen. Baina urte bereko azaroan Trujilo-ra (Peru) aldatu zen. Hiru urte geroago Lloc-eko San Pedro egoitzeko nagusi eta parroku izendatua izan ondoren bertan egon zen bost urtetan zehar; geroago, Arekipa-n (1945-1954) bizi izan zen, eta 1954.etik heriotzararte, 1963.eko azaroaren 14erarte, Txokopen (Peru).

---

[207] J. URKIZA, *'Karmengo Argia'-ren bibliografia (1931-1936)*, Karmel 1991-3, 29-32.

[208] Begiratu datu biografikoak GPKA,67.kutx.n; ik. ohar nekrologikoa: BOPSJN 5 (1964, 58.zk.)28-41; ik., era berean, S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, IV, Bilbao 1975,137-138.

[209] GPKA, *Examen studentium*.

bb. *Euskal sermolaria*

Ezagutu zuten hainbaten eritziz bere garaiko sermolaririk onenetarikoa zen. Oso ongi uzterturik ageri ziren berarengan Sermolaritzarako bokazioa eta kualitateak; guzti horri oso gizon ekimentsua zela gaineratzen badiogu, ez da, bat ere, harritzekoa hain iharduera izugarria eta probetxagarria burutu izatea. Oso hizlari ona zen: buru argikoa, bihotz berokoa eta oroimen handikoa; eta, horretaz gainera, oso ahots sendoa eta indartsua zuena. Ez dezagun ahaztu, garaiko ohiturari jarraituz, sermoiak kontu handiz gertatzen zituena, idatzi eta jarraian buruz ikasteko; hori zuen iturburu beraren era eta tankera ederrak. Ez zuen bat-bateko hitzaldirik egin nahi izaten: Jainkoaren hitzari begirune handia zion eta hori berehala ikusten zuten entzuleek.

Bizkaiko herri gehienetan eta Gipuzkoako hainbatetan egin zituen hitzaldiak. Batez ere euskaraz egiten zituen, oso hizkera jantzia eta ona erabiliz, baina gazteleraz ere adierazkortasun eta bizitasun handiz egiten zekien. Arrakasta handia izan zuen. Aita Florentzio berberak umorez irri-parrez kontatzen zuen behin batetan honako hau entzun ziola gizon bati: «ez diot inoiz hain arpegi zatarra duen sermolari bati halako gauza ederrak esaten entzun».

f. **Aita Apolinar de S. José (Pío Ibaibarriaga Oregi, 1882-1946)**[210]

Pio, Garain (Bizkaia) jaio zen 1882.eko maiatzaren 5ean; beraren gurasoak Paskual Ibaigarriaga eta Eustakia Oregi izan ziren. Larreko komentura sartu zen eta nobiziatuko urtea egin ondoren 1900.eko urriaren 3an egin zuen karmeldar erlijiosoen profesioa, Apolinar de S. José izena hartuz.

Baliteke humanistikako azken ikasturtea (1900-1901) Markinan egin izatea; jarraian filosofia ikasi zuen Gasteizen (1901-1904) eta teolofia Gasteizen (1904-1905) eta Burgos-en (1905-1908)[211].

1907.eko uztailaren 14ean apaiz sagaratua izan ondoren, bi hirurtekotan ageri da Markinako Karmengo etxeko priore zereginetan (1918-1921, 1927-1930). Era berean, Larreako nobiziatuko priore (1921-1925) eta Donostikoa (1930-1933) eta Amorebietako ikastetxeko nagusi (1936...) izan zen. Eta Begoñako Karmelon eta Altzon urte batzu egin ondoren 1941.ean betirako Begoñako Karmelora joan zen bertan hil zelarik 1946.eko uztailaren 29an.

Komentuko zereginetan ardura handiko zelarik komentuko konponketak eta egiten saiatu zen. «*Buruz ondo-ondo ikasi eta egoki prestatzen zela dioskue lekukoek. Gauzak ondo egiten zekiena genuen: dotrina azaltzerakoan batez ere ganora handiz, patxadaz, jasez. Patriarka bat zirudien. Kontakizunetan egoki, beti kutsu ona uzten*

[210] GPKA-n ia ez da berari buruzko agiririk geratu eta datuak eskuz idatzitako katalogoetan eta inprimakietan bildu behar dira. Ik. BKA, *Memoria de los Religiosos fallecidos*, 44.zk.

[211] GPKA, *Examen studentium*.

zuen entzuleengan»... Aita Jenaro Larruskai-ek zeozertxo maila apalagoan ikusten zuen. Dena dela, Bizkaiko herrietako zahartxoei oroimenean ongi itsatsirik geratu zitzaien haren irudia[212].

Hildakoei buruzko kontaketa laburrean «Kristo, Kristo gurutzean josia predikatu zuela Euskal Herriko pulpito guztietan» ageri da. Eta sermoiak egiteko tankerari eta euskararen erabilerari dagokionean zera diosku:»Ardura biziz ikasi zuen bere hizkuntza, erraztasun handia eta adierazpen-dotoretasun izugarria lortuz, eta hitz egiteko dotoretasun horrek, beraren irudi ederrak, zeukan ahots indartsu eta atseginak, zerion ebanjeliozko eraspenak zein gar mistikoak beraren sermoiei arimak jainkozko suez biztu eta jendetza handiak erakarteko indarra ematen zioten. Bizi-bizirik dirau oraindik Bizkaiko herrietan, soingaineko zuriz jantzita eta trumoi-ahotsez entzule guztiak dardar jartzen zituen gizontzar haren oroimena»[213].

Bestalde, oso musikazalea zela eta, zer esanik ez, sermolariek hain beharrezkoa zuten ahots ederra zuela eransten da; eta beste gertaera bitxi bat ere jasoten da: «1909.eko abuztuan Probintziako gure nagusiek melodia gregoriano batzu diska fonografikoetan grabatzea agindu zuten. Zeregin horretan pertsonaiarik garrantzitsuena izan zen, oraindik teologo zen Aita Apolinar aukeratu baitzuten bakarrekoaren zeregina betetzeko»[214].

g. Aita Leoncio (Lontzi) de S. Juan de Cruz (Pedro Ormaetxea, 1891-1949)[215]

aa. *Bizitzako datu batzu*

Pedro Ormaetxea Aldana, Etxanon (Zornotza, Bizkaia) jaio zen 1891.eko abenduaren 4ean. Karmeldar izateko Larrean sartu zen eta urtebeteko nobiziatua egin ondoren 1911.eko irailaren 4ean egin zuen profesioa, Leoncio (Lontzi) de S.Juan de la Cruz izena hartuz.

Humanistikako 5.ikasturtea Markinan egin zuen (1911-1912) eta gero filosofia Begoñan (1912-1914) eta Gasteizen (1914-1915) eta teologia ere Gasteizen (1915-1916) eta Begoñan (1916-1917)[216]. 1920.eko urtarrilaren 6an sagaratu zuten apaiz.

1931-1937. urteen artean Larrea eta Markinako komentuetan bizi izan zen. Gerra zibila zela eta Txilera bidali zuten bertan, Viña de Mar-eko komentuan hil zela 1949.ean.

---

[212] L. BARAIAZARRA, *Lehengo sermoigintza*..., Karmel 1987-1, 28.

[213] BKA, *Memoria de los Religiosos fallecidos*..., 44.zk.

[214] Ibd.

[215] GPKA, 103.kutxan ez da ia ezer bildu berari buruz; oinarrizko datu batzuetarako karmeldarren euskal probintziako katalogo ezberdinetara jo beharra dago. Ik., era berean, S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, IV, Bilbao 1975,100-104.

[216] GPKA, *Examen studentium*. Seguruen Begoñan ere egon zen ikasten 1917-1918.urtean, 1918.eko ekainean kurtsoko bere lagunek azterketak egiten ageri dira eta; bera ez da ageri, baina beste bat ere ez.

bb. *Euskal sermolaria*

Beste Euskal sermolari eder bat dugu. Agiri idatzi gutxi dugunez, L.Baraiazarrak eskaintzen dizkigun lekukoetara joko dut: «Esaldi luze luze, biribilez hornituriko hitzaldi dotoreak egiten omen zituen. 'Pa-pa-pa, guztia ia arnasa batez bota ohi zuen'-diosku A. Jenaro Larruskain-ek. Horregatik edo 'Gastelar' deitzen zioatela dio»[217]. Beste lekuko batek, Santi Onaindiak beste xehetasun batzu erabiliz honako hau diosku: *«Aspertu gabe mintzatu zan A.Lontzi Bizkaiko elizetan batez ere. Eta, ia beti, idatzi, buruz ikasi eta bota oi zituen itzaldi oiek (...) Kikero'ek bezelako esaldi luze ta durundutsuak eder zitzizkion. Gisa onetan daude borobilduta utzi zituen eliz-jardunak, mordo ederrak ain zuzen ere»*[218].

cc. *Euskal idazlea*

Sermolari ederra eta ospetsua izateaz gainera euskal idazlea ere izan zen prosan zein bereziki olerkian, *Karmengo Argia* aldizkarian, idazlanak izenpetzeko «Lontzi Aba», «Ormalda= (Orm[aetxea] + Alda[na]), «Ormaetxe», «Ormaetxea'tar Kepa» izenak erabiltzen zituela. Prosan «Izparrak» izenburua zuten 15 idazlan idatzi zituen eta beste 12 idazlan gai ezberdinei buruzkoak. Eta aldizkari berberean 58 olerki argitaratu zituen[219]. Eta Amerikan bizi zela, bere bizitzako bi azken urteetan bi liburuska argitaratu zituen: *Ipuintxuak* (Santiago de Chile 1947, 103 orr.) eta *Bigarren Ipuintxuak* (Santiago de Chile, 1948, 103 orr.).

h. **Aita Rafael de San José (José Sotero Urionagüena Garra, 1890-1975)**[220]

aa. *Bizitzako datu batzu*

José Sotero, Bolibarren (Bizkaia) jaio zen 1890.eko apirilaren 22an. Lehen ikasketak herriko eskolan jaso zituen eta latin Markinan. Larreako Karmeldarren etxean sartu zen eta urtebeteko nobiziatua egin ondoren 1909.eko apirilaren 22an egin zuen profesioa Rafael de S. José izena hartuz.

Filosofia eta teologiako ikasketak (1909-1917) karmeldarren Burgos, Gasteiz eta Begoñako ikastetxeetan egin zituen. 1916.eko ekainaren 16an sagaratu zuten apaiz.

---

[217] *Lehengo sermoigintza...*, Karmel 1987-1, 27-28.
[218] S. ONAINDIA, *Euskal literatura*, IV, Bilbo 1975,102.
[219] J. URKIZA, *'Karmengo Argia'-ren bibliografia (1931-1936)*, Karmel 1991-3, 27-28,36-38.
[220] Ikusi M.Alegría Jnak eginiko biografia laburra: BOPSJN 7 (1975), 84.zk., 87-93; edota Vicente Batiz berak idatzitako kontaketa *Memoria de los religiosos...* deituan (MKA, A-XIII-1, 102-105). Ik. *Agur* 6(1975,176.zk.) 6.

Gerra zibilean Larreako priore zela preso hartua izan zen (1936-1937). Zenbait urte kartzelan egin ondoren karmeldarren euskal probintziara itzulita gero hainbat komentutan bizi izan zen, priore karguan Donostian (1945-1948) eta Eibarren (1948-1951, 1954-1957) izanik. Bere azken 18 urteak Markinan egin zituen (1957-1975), bertan hil zelarik 1975.eko otsailaren 11n.

Otoitzean eta lanean etengabe aritzen zen gizona izan zen; gizon artatsua izanik zerbitzu hobezinak eskaini zituen sermolari arloan, sukalde eta ortuko lanetan, batez ere Markinan, sen handiko gizona eta laguntzarako gertua izan zen.

bb. *Euskal sermolaria*

Hemen aztertzen dugun alorrean, hau da, sermolarien munduan salbuespen bat dugu. Ez zen hitz egiteko erraztasun handiko gizona; ez zeukan mintzatzeko jariotasunik ez euskaraz ezta gazteleraz ere. Hala ere, ekinaren ekinez eta ariketa ugari eginez eragozpenak gainditzea lortu zuen; sermolari zorrotza eta ona izatea lortu zuen. Sermoia egiteko unean guztiz aldatzen zela esan daiteke. Oso laguntza handia izan zuen 29 urte zituela joan eta Altzon egindako egonaldi luzea (1919-1927). Honela kontatzen digu Bizente Batiz-ek:

«Katekesia eta idazten irakasten zien inguruetako baserritarrei. Alboetako herrietara eta urrutiagokoetara joaten zen meza eskaintzera, sermoiak egitera, parrokuei laguntzera. Gipuzkoako hainbat herritan eta mugako Nafarroako beste herri txiki ugaritan hainbat gogo-ihardun, misio eta bederatziurrenetan sermoiak egina da, Goierri-ko eta Gipuzkoako herri baztertuetako parroku ugarik deitua izan zela, beraren hitz egite gartsu eta jainkotiarrak hainbat eta hainbat arima ekartzen baitzituen bide zuzenera edota berotu egiten ziren beraren sermoigintza erraz eta sinesgarriaren bidez. Maitasun handiz gogoratzen dute oraindik herririk herri hazi ona ereiten ezagutu zuten Altzo, Alegia, Tolosa, Albistur, Goiatz, Bidania, Billabona, Zizurkil, Amezketa, Legorreta, Orendain, Gabiria eta abarretakoek Aita Rafael jainkozalea»[221].

Bizkaira itzuli ondoren, aldi handietan zehar buru belarri sermoigintzan ibili zen kristauentzat hainbat misio emanez eta euskaraz zein erdaraz gizonezko zein emakumezko erlijiosoei gogo-ihardunaldi ugari zuzenduz. Bizkaiko pultiturik ospetsuenetan egin zituen sermoiak.

i. **Aita Jenaro de la S.Familia (Hilario Larruskain, 1914-1988)**[222]

Apostolu eta sermolari hau aldian zein ohituretan hurbilagokoa dugu.

Hilario, 1914.eko abenduaren 19an jaio zen. Beraren gurasoak Joaquin Larruskain eta Joaquina Olalde izan ziren. Lehen ikasketak Markinan (Iturreta auzunean)

[221] MKA, A-XII-1, *Memoria de los Religiosos...*, 102-103.orr.

[222] Ikusi GPKA, 91.kutx.ko agiri batzu eta MKA. Joseba Zubikarai-ren idazlana: BOPSJN (1989, 98.zkia) 243-246.

eginda gero Larreako ikastetxera joan zen 1925.eko maiatzean. Karmeldarren ordenako jantzia Larrean hartu zuen 1931.eko uztailaren 3an, urtebeteren buruan, uztailaren 7an egin zuelarik profesioa Jenaro de la S.Familia izena hartuz. Filosofiako ikasketak Iruñean eta Gasteizen (1932-1935) egin zituen eta Teologiakoak Begoñan eta Markinan (1935-1940). Apaiz 1940.eko azaroaren 3an sagaratu zuten.

Lau hirurtekotan (1957-1960, 1960-1963, 1969-1972, 1978-1981) izan zen Markinako Karmengo komentuko priore.

Aita Jenarok laster erakutsi zituen sermolari izateko doaiak, euskara erraza eta argia erabiliz egunerik egunera sermolari ospe handiagoa lortu izan zuela. Aita Jenarok, berberak aitortzen zuen, 1971-1972.ean Probintziarako katalogorako eginiko galdeketari erantzutean, azken 18 urteetan oso-osoan Bizkaiko eta Gipuzkoako herrietan sermoiak egiten ibilia zela[223]. Geroago ere sermoigintza ministeritza hori burutzen jarraitu zuen.

Beste behin Aita L. Baraiazarrari: ia Bizkaiko euskal pulpitu guztietan eta Gipuzkoan ere askotan egona zala» aitortu zion eta lekukoak eransten du: «Hori marka gogoangarria da; oso gutxik on dezakeena. Langintza hori (era guztietako sermoiak: gogo-jardunak, misioak, hirurrenak eta abar) gogorra ote den galdetzean, baietz erantzun zidan; talde ezberdinei banan hitz egin beharra etorri zenean batez ere. Bi misioi eta hiru ematea, tira; baina hortik gora astun egiten zela aitortu zidan. Urte batetan zazpi misioi segidan, bata amaitu orduko bestea hasi, egina dela ere esan zidan»[224].

[223] GPKA, 91.kutx..
[224] L. BARAIAZARRA, *Lehengo semoigintza...*

C. KULTUR IHARDUERA

Markinako Karmengo fundazioak eta komentuko bizimoduak hiru mendetan zehar izandako garrantzia ez datza bakarrik gizarte, erlijio edo moral alorrean eginiko eraginean eta betebeharrean; herriaren bizitzari barne-barnetik loturik izan ohi den kultur bizitzan, gure kasuan, zehazkiago esanda, euskararen alorrean ere nabaritzen da.

Markinako Karmengo etxeak, Euskalerriari, Espainiari, Amerikari, Indiari eta abarri dagokienean, 1868.etik Berreraikuntzaren iturburua eta irradiazio gunea izan delako, oihartzun bizia izan badu, euskarari dagokion kultur alorrean ere fruiturik ugari ekarri izan duela Euskal Herri barruan esan behar. Eta, beraren ingurumari hurbilera, Markinako hirira begiratuz ere, Karmengo etxea, iharduera ezberdinak izan zirela bide, euskal kulturaren benetako eskola izan dela ikusi ahal izango dugu.

1. Ikastetxea

Edozein kultur bizitza eta ihardueratan, ikasketak egiteko zentruek oso gune garrantzitsuak izan ohi dira. Halakoak berez ekartzen dituelako ikasle-irakasleen arteko harreman aberasgarriak, bibliotekaren ugalketa, indartuz joan ohi den intelektualgo giroa, etab. Eta guzti horretan herriak ere, zuzenean zein zeharka, parte izaten du.

Gorago Markinako Karmengo ikastetxea izan zenaren historia barruko gune interesgarri batzu aipatu izan ditugu: hala, nobiziatua (1869-1876), filosofiako ikastetxea (1871-1885, 1896-1898), teologiakoa (1874-1888, 1893-1894, 1937-1946) eta humanistika edo batxilergoko azken ikasturterako ikastetxea (1911-1915. urteen ar-

tean eta data hori baino lehenagoko urteetan zein 1948-1968 artean, 1954-1956. urtean izan ezik, izan zenekoak[225].

Orain ez dugu berriro errepikatuko esandakorik. Beraz, lehen aipatu gabe geratutako xehetasun batzu bilduko ditut bakarrik.

Historian zeharko unerik larrienean ere (komunitaterik gabe esklaustrazio dekretuaren eraginez) Markinako Karmengo etxea, udalaren erabakiz, aldi handi batetan zehar herriko umeentzako eskola bihurtuta ageri zaigu.

Eta eragozpen etengabeak gainditu eta 1868.ean Karmengo etxea berreraikitzea lortu zenean, aste batzu geroago berriro Gobernuaren esklaustrazio dekretu berri baten zigorra jasan izan zuen; baina, hilabete baino lehenago, isil-isilean eta ezkutuan berriro itzuli ziren karmeldarrak komentura, jarraiko hainbat urtetan zehar kanporatuak izateko beldurrez bizi izan zirela. Eta, hain zuzen ere, garai honetan, nobiziatu urtearen azkenaldian eta filosofiako ikasketa urteari hasiera eman aurrean, 1870.ean, Aita Pedro Josek frantses irakasten zien herritarrei eta algebra eta matematika emateko asmoak zituen[226].

Hurrengo urtean, berriro kanporatu eta esklaustratuak izateko zorian aurkitzen zirela, Aita Pedro Josek, E.Montero Ríos (aurreko urtean Grazia eta Justiziako Ministrari izandakoa) Urberoagan aurkitzen zela jakinik, ikustaldia egin zion Karmengo fundazioa salbatzeko eta ziurtatzeko, nahi zuten herritar guztiei frantses irakasteko bere burua eskainiz[227]. Eta, egin-eginean komentua salbatzeko asmoek bultzatuta, komunitateak, udalaren laguntza zuelarik, Markina eta eskualde osokoei latinezko ikastaroak emateko eskaintza egin zion Gobernuari[228].

2. Euskal idazle karmeldarrak Markinan

Atal honetan Markinako Karmengo etxean heziketa hartu zuten eta bertan bizi izan ziren euskal idazle ospetsuenak gogoratuko ditugu. Horrela ikusi izango dugu zer nolako eragina izan duten Markinako Aita karmeldarrek historian zehar euskara alorrean, bertan euskararen benetako klasikoak edota beraren ezagutzan jakintsuak izandakoak aurkituko ditugula. Gaia zehatzago aurkezteko bi sortatan banatuko ditut idazle horiek: lehen sortan, Markinako etxean *«komentual izandakoak»* bilduko ditut; bigarren sortan Markinan *«ikasketa urteren bat egindakoak»*.

---

[225] Ik. 354-364.orr.
[226] *Correspondencia...*, 18.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1870-X-18an eginiko gutuna.
[227] *Correspondencia...*, 248.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1871-IX-10ean eginiko gutuna.
[228] Ik. MKA, A-I-122; MUA, «Asuntos tocantes al convento del Carmen: 1852-1907», etab.

a. **Markinako Karmengo etxean komentual izandako idazleak.**

aa. *Lehen hiru idazleak.*

Euskaraz idatzi zuten lehen hiru karmeldarrak ditugu; bakarrik adiera zabal batetan sar ditzakegu idazleen edo euskal idazleen artean. Hemen, aipamenetan lehenengoak direlako gogoratzen ditut: hirurak, adinez zaharragoak izan arren, XVIII-XIX. mendeetako euskal idazleen artean ospetsuenetarikoa izan zen Frai Bartalome Santa Teresa markinarraren komentukideak izan ziren Markinan.

1) *Aita Miguel de San Francisco (Miguel Ignacio de Zuzaeta, 1745-1814).*

Gerrikaitzen (Bizkaia) jaio zen 1745.eko irailaren 28an. Karmeldarren habitua Korellan hartu zuen 1764.eko urriaren 4ean, profesioa hurrengo urteko urriaren 6an egin zuela[228a].

1778.ean Markinan aurkitzen zen sermoiak egiten... Frai Bartolomé Santa Teresak 1815.eko azaroaren 12an izenpetutako bere *«Relación de los sucesos»* idazlanean hiru aldiz aipatzen du Aita Migel: lehen aldiz, frantsesak Euskalerrira sartu zirenean Markinako etxeko komentual gisa; gero, frantseste garaian hildakoen zerrendan; azkenik, berriro Mendatan gertatutako beraren heriotzearen berri emanez, bertan beraren babestaile izandako Lekeitio hiriko Celedonio de Axpe apaiza aipatuz[228b].

1809.eko urriaren 14ean utzi behar izan zuen Markinako komentua gainerako karmeldarrekin batera.

Esklaustrazioan hildakoen zerrendetan Aita Migelek 69 urte zituela eta 50 egin zituela erlijioan esaten da. Datu guztiok kontutan harturik 1813 eta 1815. urteen artean hil zela pentsa dezakegu, hau da 1814ean.

Aita Frantzisko Ondarrak, batez ere XVIII. mendearen azken hamarkadetakoak direlarik berak idatziak izan eta kontserbatu ondoren laster 19 sermoi argitaratuko dituenak askoz ere gehiago idatzi zituela uste du azken sermoiak 111.zk.a baitarama; horrek 110 hitzaldi edo mintzaldi edo sermoi baino gehiago izan zirela ematen duela aditzera; eta ez dezagun ahaztu, sermoi nahikoa luzeak izan ohi zirela.

Bizkaieraz idatzi zuen eta Aita Ondarraren eritzitan oso ongi. Inprimategian daude argitaratzeko bidean beraren sermoiak. Laster izango ditugu, bada, esku artean beraren lanak irakurriz gozatzeko zein duen euskara mota aztertzeko.

[228a] Biografia jakiteko ik. GPKA: Korellako *libro de tomas de hábito*; baita ere, "*libro de difuntos...Lazcano...*" liburu-eskueskribuan aurkitzen diren frantseste garaiko esklaustrazioan hildakoen zerrenda paper batzu; eta beste hau: *Lista de los Religiosos que han fallecido en el tiempo de la exlaustración*" (frantsestea). Eskerrak eman behar dizkiot batez ere Frantzisko Ondarra Lekarozeko kaputxino euskaltzainari, berriak eman bait dizkit Aita Miguel de S.Francisco fraideari buruz, beraren 19 sermoi laster argitaratuko dituela.

[228b] Ik. *Gehigarriak*, IV, 15.zk.

2) *Aita Joaquín de Santa Bárbara eta Aita Francisco de la Cruz.*

Oraintsu hildako Aita Lino Akesolok[228c] hiru idazlan argitaratu zituen 1964, 1979 eta 1981.ean Aita Joaquín de Santa Bárbara karmeldarrari buruz, 1827.ean gazteleraz eta euskaraz erleei buruz Iruñean argitaratutako ehun bat horrialdetako lantxo bat gogoraeraziz: *«Guía de colmeneros o tratado práctico de abejas»*... eta *«Erle Gobernatzaillen Guidariya, edo erleac gobernatzeco modua»*...

Joaquín de S. Bárbara (Lanciego) Barriobuston (Araba) jaio zen 1753.èan; Karmeldar habitua Logronion hartu zuen 1780ean, profesioa hurrengo urtean Korellako nobiziatuan egin zuela. Frantsestearen hasieran Markinan aurkitzen zen Frai Barlomé Santa Teresak bere *«Relación de sucesos»* idazlanean kontatzen digun bezala. 1809.eko urriaren 14ean Markinako Karmengo gainerako fraideak bezala komentua utzi behar izan zuen. Baina Aita Frai Bartolomé Santa Teresak dinoenaren arabera berriro komentuan aurkitzen zen 1815ean. Aita Lino Akesolok dioenaren arabera 1822.erako Villafranca-n (Nafarroa) aurkitzen zen.

Esan dugun bezala 1827.ean argitaratu zuen liburuxka, berak bertan zenbait ohar egin zituela. Era berean, liburuaren izenburuan, gipuzkoar batek jarri zuela euskaraz dio. Lino Akesolo, euskal literatur gaien ikertzaileak ea nor izango ote zen idazlanaren idazle nagusia galdetzen zuen, ez zegoelako garbi norena zen.

Hain zuzen ere, lerro hauetan lan horren egilea nor izan zitekeen jakiteko bideko atea irekiko diguten datu batzu aurkeztu nahi ditut. Aita Francisco de la Cruz, Murukoa (Zigoitia-Araba) izan zitekeen; 1805.eko ekainean Markinan zegoen[228d]; oraindino 1808.ean ere bai; 1809.eko urriaren 14ean, besteak bezala, komentua utzi beharra izan zuen; baina 1815.ean berriro komentura itzulita aurkitzen zen. Markinan hil zen 1821.eko abuztuan[228e].

Espainiako Karmeldarren Definitorio Jeneraleko zenbait bileretan Markinako komentual zen Aita Francisco de la Cruz fraideak eskus idatzitako bi liburuxka (bata erlauntzei buruzkoa eta bestea sekain lurretako ortuei buruzkoa; beste batzutan erleei eta barazkiei buruzkoak aipatzen dira) argitaratzeko baimenari buruz aritzen dira 1817-1818. urteetan[228f].

Arazoak aurrera egin zuen: Nafarroako San Joakin Probintziako Definitorioaren 1819.eko maiatzaren 4eko batzarraldian, Definitorio Jeneralak Aita Francisco de la Cruz Markinako komentualak idatzitako bi libururi, hots, bata erleei eta bestea barazkiei buruz emaniko erabakiaren berri jaso zen. Hori dela eta, Definitorioak Ber-

---

[228c] *Idazlan guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 308-314, 317-322.

[228d] Komunitateko beste batzurekin batera sinatzen du 1805.eko ekainean: MKA, G-III-31; ik. *Gehigarriak* IV,13.

[228e] L. Baraiazarrak-k (*Karmeldar idazle biren urratsak*, Karmel 1981-4,25-34) bi orrialde eskaini zizkion.

[228f] MBN, 1650. esk.: *Libro de los Definitorios Generales*..., 48.orr (1817-XI-29); 48v (1817-XII-1), 66 (1818-VI-1), 81 (1818-XI-26), 82 (1818-XI-27).

garako Erret Seminarioari eritzia eskatzea erabaki zuen horretarako ardura Lazkaoko prioraren esku utziz: «comisionando al mismo Definitorio de Provincia para que después de examinados los dos tratados y consultados sobre el particular sujetos inteligentes en la materia, deliberase lo que tubiere por conveniente acerca de la impresión de dichos tratados. El V.Definitorio después de discutido y examinado el punto, resolvió por votos secretos consultar al Sr. Director del Real Seminario de Vergara, y remitirle dichos tratados, para que en vista de ellos diese su censura y parecer sobre su impresión. Para este efecto determinó igualmente por votos secretos comisionar al R.P. Fr. Blas de la Concepción, Prior de nuestro convento de Lazcano, para que entregándose de dichos tratados pasase personalmente a Vergara e hiciese presente al Señor Director la resolución del V.Definitorio, y le suplicase al mismo tiempo tuviese la bondad de tomarse el trabajo de rever dichos tratados y dar después con franqueza su dictamen y parecer»[228g].

1819.eko azaroaren hiruan berriro hitz egin zen Aita Frantziskoren idazkiei buruz; bertan Bergarako Erret Seminarioak pertsona gaiturik ez zuelako ezin zuela erizpenik eman esanez emandako erantzuna irakurri zelarik eta, era berean, Aita Frantzisko berberak eskaturik, Ordenako bi zentsuratzaileen erantzuna ematen zitzaiola; egiatan, jarraiko lerroetan ikus daitekeenez ez zitzaion benetako irtenbiderik eman arazoari; Bergarako Erret Seminarioko Zuzendariak: «devolvió dichos tratados al expresado P.Prior de Lazcano con un certificado fecho en Vergara a veinte y uno de junio de este año de mil ochocientos [diez] y nueve en el que esponía que no habiendo en aquel Real Seminario catedrá[ti]co de agricualtura no podía censurarse la mencionada obra como deseava y había suplicado el V^e. Difinitorio. En vista de esta respuesta y certificado de dicho Sr. Director pensaba el V^e. Difinitorio remitir dichos tratados a la junta de agricultura de la ciudad de Burgos. Pero al mismo tiempo que se empezaba a deliverar sobre este particular presentó N.R.P.Provincial en la mesa del Difinitorio una carta del P.Fr.Francisco de la Cruz, autor de dichos dos tratados, en la que con fecha de nueve de septiembre de este año de mil ochocientos diez y nueve pedía espresa y formalmente al mismo N.R.P.Provincial le devolviese y remitiese dichos dos tratados con las respuestas que el dicho P.Fr.Francisco había dado a las censuras que sobre su obra habían dado los dos censores de la Orden. En virtud de esta carta se resolvió y decretó por el V^e.Difinitorio devolver y remitir al expresado P.Fr.Francisco dichos dos tratados de abejas y hortalizas con las respuestas mencionadas»[228h].

Baliteke, Aita Francisco de la Cruz arabar baten lan hau, Aita Franziskok izandako eragozpenak eta 1821.ean gertatu zen beraren heriotzea zirela bide, une berean, Markinako komentual zen beste arabar batek, Aita Joaquín de Santa Bárbara fraideak osotu eta argitaratua izatea... Ez litzateke, bestalde, bat ere harritzekoa izango gipuzkeraz jarri zuena ere fraidea izatea eta behar bada Markinako komentukoa; esaterako, bazen Aita Migelen garai hartan Markinan Beasaingo bat, Aita Manuel de S.Joaquín, 1818.ean Markinan hil zena.

[228g] BAS, *Libro del Definitorio...*, 201.orr., (fotokopia, GPKA).
[228h] Ibd. 214-215.orr.

bb. *Fr.Bartolome Santa Teresa (1768-1835).*

1) *Bizitzako datu batzu.*

Noiz jaio zen zehazkiro ezagutzen dugu beraren bateo aktaren bidez: Etxebarrin (Markina) 1768.eko abenduaren 21ean jaioa zen; egun berean eman zion bateoa José de Arrizabalaga Jnak Etxebarriko San Andres elizan Bartomomé izena ezarriz; beraren gurasoak Cosme Madariaga (Markinakoa) eta María Inés Garate (Elgoibarrekoa) izan ziren[229].

1789.eko martxoaren 18an karmeldarren habitua harturik nobiziatua Korellako (Nafarroa) komentuan egin zuen[230].

Ezer gutxi dakigu gizon honi buruz frantsesterarte; aldi horretan Markinako komentuari buruzko idazki autografo bat utzi zigun: «*Apuntaciones,...*» edo «Relación de los sucesos...» bertan bere bizitzako hainbat datu pertsonal jasoten dituela[231].

Garai honetan Frai Bartolome komunitateko fraiderik iharduleena izan zen: komunitarearen aurka agertutako salaketa larriak zirela eta, bera bidali zuten 1809.eko urtarrilaren 2an Bilbora, salataria nor zen jakiteko asmoz eta aurkitu ere egin zuen, lehenago aipatutako orrialdeetan ikusi izan dugunez. Fraideek esklaustrazioa jasan behar izan zuten (1809-1813). Aita Bartolome izan zen pertsonalki pertsekuzioa izan zuen fraide bakarra eta Bilbora atxilotuta eraman zuten; eta xehetasunak ematen dizkigu: «Pedro de Alzaa Jnaren Etxebarriko etxean beraren paperen bila amorru biziz jo zuten; mota guztietako lekuko multzoa hartu zuten, emakume gizagaixoei ere Aita Sermolariak zer irakasten zuen Aitortokian galdetuz. Beraren etxean bildu zituzten hainbeste lekukoren artean aitorleek hiru edo lau aitorketari bakarrik egin zien jaramon, salatuak halakoen kopia beraien ofiziale bat diruz erosiz eskuratu zuelarik. Atxiloketarako zioa Gure Ama Teresaren jaiegunean, aurreko urriaren 14ean eginiko sermoia izan zen. Kriminaltasunari buruz, Epaile Jnek, iruditu zitzaienean, berak oraindik gordetzen duen honako epaitza eman zuten:

---

[229] *Libro de Bautizados*, 6.zk. 31v. Ik. Lino AKESOLO, *Miscelanea de noticias sobre el P.Bartolomé de Santa Teresa*, in: *Idazlan guztiak*, Larrea-Zorntoza 1989, 340-341.orr.

[230] GPKA, "*Hábitos / Prov. Navarra O.C.D. / 1732-1832*", 172.orr. Zenbait idazlek zalantzak zituen kasu honi zegokioean, nobiziatua Lazkaon egin zezakeela pentsatzeraino; harritzekoa da gertaera hau ahaztua izatea; oso argi ageri da Korella-ko habitu-hartzearen aktan...; eta komentuetako "*libros de difuntos*" ezberdinetan ere argi ageri da: profesioa Korellan egin zuen. Zalantzak sortu izan dituen beste datu bat, beraren heriotze-data izan da, aipaturiko hildakoen liburu-eskuskribuetan Aita Bartolome 1836.eko urtarrilako zerrendan ageri delako; baina oso garrantzitsua da ez zela heriotze data, heriotzearen berri komentu bakoitzean jaso zeneko data gogoan hartzea. Heriotze-data, kasuen arabera, aste batzu lehenago izan zela jo behar da... Begiratu, esateako, Frai Bartolome fraidearen berria, jatorriz markinarra izatea, nobiziatua Korellan egina izatea, beraren heriotzea Lazkaon: BAS, 195. eskuskribua: *Libro de los Difuntos de toda nuestra Congregación de España, (1814-1836)*, 1836-eko urtarrila, 25.zk., urtarrileko zerrendako lehena delarik; eta GPKA, *Libro de este convento de Carmelitas Descalzos de Lacano de N.M.S.Teresa de Jesús, comienza año 1814*; liburu-eskuskribu honetako barruko orri askatu batetan, errakuntza eginez 76 urte jarri zituen 67 jarri beharrean, etab.

[231] MKA, A-I-70: *Apuntaciones...*

«Por lo que resulta de este proceso contra D.Bartolomé de Madariaga ex-religioso Carmelita conventual que fue de la Villa de Marquina, se le priva de confesar y predicar hasta la pacificación general del Reyno, con advertencia de que en este tiempo se tendrá presente la conducta que haya observado en el intermedio. Y el Fiel de la Ante-iglesia de San Andrés de Echevarria, de donde es natural, y en la que debe guardar su domicilio cele su conducta, dando parte al Sr. Presidente de qualquiera desvío, que en él experimente. Y por este su auto con fuerza y efectos de definitivo, y condenándole en las costas. Así los Sres. Presidente y Vocales del Tribunal criminal lo acordaron, mandaron y firmaron a cinco de enero de 1810. Bilbao. Tiburcio García Gallardo; Luis Juan de Elexaga; Juan Josef de Vildosola; Manuel María de Aurrecoechea; Ambrosio de Eguia e Yrigoyen; ante mí Josef Ramón de Zamalloa»[232].

Frantsesak Markinatik atera zirenean, egoeraren berri zehatzak zituen Aita Frai Bartomek berehala hartu zuen komentua, eliza eta ortua berreskuratzeko ardura. Frai Bartolome izan zen Markinako Karmengo historiaren une zail hartan Jainkoak bidalitako gizona; eta berari zor zaio komentua hain arin berreskuratzea.

Geroago hainbat aldiz karguetan izango zen, hala, priore Markinan (1817-1820)[233] eta «San José de la Isla» (Sestao) deituriko bakartade-etxean (1821-1824). Kargu horiek izan ostean, 1824eko maiatzean Burgosen Probintziako Definitore izendatu zuten (1824-1827)[234]. 1827-1829. urteetan normalean, Santandarren bizi izan zen: horren zioa, Juan Nepomuceno Gómez Durán Santanderreko apezpiku Jnak bere aholkularia eta izpirituzko zuzendaria izateko eskatua izatea izan zen, Espainiako Ordenako Definitorio Jeneralak onartu egin zuelarik apezpikuaren eskaria. Eta apezpiku hau Malaga-ko apezpiku egin zutenean (1829.eko uztailan), «Malagako apezpiku Jn.Tx.Argiaren aitorle eta aholkulari zen Frai Bartolomek» Probintziako Definitorioari apezpikuaren jauregian jarraitzeko baimena eskatu zion; Definitorioak pozik eman zuen baimena: «deseoso de complacer al Sr.Obispo, nuestro particular bienhechor de S.S. dio mui gustoso el pase»[235]. Horrela, bada, jarraian Malagan bizi izango zen 1830.eko irailaren 30eko apezpikuaren heriotzerarte.

Gero berriro itzuli zen Euskal Herrira. Lazkaon hil zen 1835.eko abenduaren 11n nobizen maisu eta hamar egun barru 67 urte egiteko zela[236].

Bestalde, badakigu, baita ere, ez zela Lazkaoko nobizen maisu 1832. urteko erdialderarte, behinik behin[237].

---

[232] Ibd., 20-22.orr.

[233] MKA, G-VII-1, *Libro de misas*, urte hauetan priore gisa jartzen du sinadura.

[234] BAS, 194.eskuskribua: *Libro del Definitorio de la Provincia de San Joaquín de Navarra. Año 1807*, 302.orr. (GPKA).

[235] Ibd., 483.orr., 1829-XI-11koa.

[236] GPKA, "*Becerro O.C.D. Lazcano*", 76r. Ikusi Aita Lino Akesolok *Idazlan guztiak* liburuko 348.orrian aurkeztutako datuak; ik., era berean, aurreko ohar luzean aipaturiko hildakoen liburuak ere (230.oharra).

[237] BAS, 194.esk.: *Libro del Definitorio...*; *Libro de la defunción...de Lazcano*, 42v.

Baina, Frai Bartolome Santa Teresa karmeldarrak beraren ospe handia sermolari eta, batez ere, euskal idazle izan zelako eskuratu zuen. Ordenako legeetan bazen sermolarien lanbideari eskainitako atal bat: zeregin horretarako, gutxienez, 6 urtetako ikasketak (filosofia, teologia, zuzenbide kanonikoa,...) behar ziren. Sermolari hauek «helburu bakartzak Jainkoaren zerbitzua» izan behar zuten, haren «aintza eta arimen ongia» bilatu behar zutela. Probintziako Definitorioak etxe bakoitzerako sermolari bat hautatu behar zuen; bertako elizan igandeetan eta Ordenako jaiegun batzutan egin behar zituen sermoiak. Horrela, esaterako, baditugu datuak Frai Bartolome Markinako Karmengo sermolari zela esateko: kargu horretarako 1808 eta 1814.eko Definitorioetan hautatu zuten. 1817.ean Aita José de la Cruz ageri da eta 1820, 1824, 1826 eta 1829. urteetan Aita José de San Joaquín eta 1832.ean Aita Lucas de S.Antonio[238].

Beste kargua, hainbatetan pertsonari gehiago lotua, idazleari zegokiona zen; horretarako Definitorio Jeneralaren txartel berezia behar zen. Idazleak idazlanak aurkezten zituen Oneritzia jasoteko. Frai Bartolomek idazle txartela eskatuz eginiko bi eskariren berri dugu: 1815.ean (ez dezagun ahaztu 1816-1819. urteen artean argitaratu zituela bere lau euskal liburu ospetsuak) eta 1831.ean. Hain zuzen ere honako hau ageri da 1831.eko Probintziako Definitorioaren aktetan: «Inmediatamente se leyó otro del P.Fr.Bartolomé de Sta.Teresa, que pide el pase a N. V^e. Definitorio General, en el que pide patente de escritor, o se le renueve la que obtubo en el año 1815 despachado en nuestro convento de Nules: este V^e. Definitorio decretó por votos secretos, pase a N.V^e Definitorio General con la advertencia de que si en el próximo Capítulo Provincial fuese elegido prior, podría suspenderse si a SS.RR. les pareciere justo»[239]. Eskari honek, Aita Fr.Bartolomek, behar bada, idazkiren bat argitara ematea pentsatzen zuela ematen digu aditzera.

2) *Idazkiak.*

Frai Bartolomek bere euskal idazkiak frantseste ostean eta Markinako Karmengo komentua berreskuratu ondoren eta bertako komentuala eta priorea zela argitaratu zituen:

— *Euscal-errijetaco olgueeta ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba.* Iruñea 1816. 208 orr.

Hainbat argitalpen izan ditu; batzu «argitalpen kritikoak»: adibidez, Luis Mujikak prestatua (Bilbo 1986, 197 orr.).

— *Jaungoicoaren amar aguindubeetaco lelengo bosteen icasiquizunac.* Iruñea 1816. X - 278-32 orr.

— *Jaungoicuaren amar aguindubeetaco azqueneco bosteen icasiquizunac.* Iruñea 1817. IV - 301 orr.

---

[238] BAS, 194.esk., *Libro del Definitorio...*, 7, 40, 139, 241, 308, 401, 465, 547.
[239] Ibd., 525.orr.

— *Eleisaco zazpi sacramentuben icasiquizunac.* Iruñea 1819. VI - 376 orr.

Geroago, 10 urte beranduago, euskarari buruzko beste idazlan batzu argitaratu zituen:

— Juan José *MOGUEL, Plauto bascongado o El bascuence de Plauto en su comedia Poenulo...*, 1828. 125 orr (Frai Bartolomeren idazkiak dira).

— *Anti-Plauto políglota o Defensa de Plauto Bascongado y de la impugnación del Manual de la lengua basca de Mr. Lécluse*, 1829[240].

Idazki hauei beste argitaratu gabe batzu gaineratu behar zaizkie, hala nola, liburu honen eranskin gisa ageri den *«Apuntaciones...»*. Era berean, badira Markinako priore karguan zela egin behar izan zituen gutunak zein testu laburrak ere[241].

Frai Bartolome euskal klasikotzat, hain zuzen ere bizkaieraren klasikotzat hartua izan ohi da; eta beraren berezitasunik nagusientzat honakook jo izan dira: aberastasun, barietate eta berezkotasun handiko hizkuntza jantzia du eta, egundoko hizlari ona zenez, beraren prosari dotoretasun handia nabari zaio; beraren hizkeran aparteko indarra eta bizitasuna ere ageri dira.

3) *Beraren pertsona zein obrari buruzko ikerketak.*

Aipatuak izan diren beraren idazlanen argitalpenei sarrera gisa eskainitako idazkiez gainera, karmeldarrak izan dira Markinako euskal klasiko honen ezagutzaile eta kritikorik hoberenak:

— Lon Arteagak *Euskal aditza Prai Bartolome'gan (1768-1835)* idazlana utzi zigun[242].

— Santi Onaindiak 1955.ean *Aita Prai Bartolome Euskal-idazlea* idazlana argitaratu zuen[243]. Eta urte batzu geroago berriro gogoratzen digu berari nahikoa leku eginez *Euskal Literatura* obran[244].

— Baina Frai Bartolome karmeldarraren bizitza eta idazkiak sakon-sakonetik ezagutzen zituen ikertzaile nagusia Aita Lino Akesolo izan zen; 1968-1987. urteen artean lau idazlan idatzi zituen: hiru gazteleraz[245]; eta azkena euskaraz,

---

[240] Ikusi gaztelerazko testuen argitarapenari buruz: Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 323-338.

[241] Laster beraren idazlan guztien argitarapen osoa liburuki bakar batetan egiteko asmoa dugu Karmel-Sortan.

[242] Karmel 1978-3, 65-74; 1978-4, 59-68; 1979-1, 65-74; 1979-2, 71-80. Beste idazlan labur bat ere idatzi zuen urteak lehenago: *Prai Bartolome jantzi barriagaz?*, Karmel 1971-1, 49-52. Era berean, argitaratzerik izan ez zuen Frai Bartolomeren obren argitarapen bat ere gertatu zuen.

[243] Euzko-Gogoa 6 (1955) 87-90.

[244] Donostia, 2.t., 1973, 44-59.

[245] BRSVAP 24 (1968) 357-376; 26 (1970) 321-327; 40 (1984) 425-429. Ik. *Idazlan guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 323-349.

L.M.Mujika-k eginiko «Euscal-errijetaco...» idazkiaren argitalpena kritikatuz[245a].

— Gazteagoa, markinar klasikoa ondo baino hobeto ezagutzen duena, urteetan zehar Markinan bizi den Aita Luis Baraiazarra dugu; lau idazlan ditu argitaratuak Karmel aldizkarian[246].

— Karmeldar izan ez diren beste batzuk ere gogoan izan dute beraien idazlanetan, hala nola, I. Omaetxebarria[247], A.Zubikarai-k[248]; edota beste idazle batzuk, liburu orokorragoetan, esaterako literaturaren historian aztertuz[249].

cc. *Aita Gabriel del Corazón de María, Jauregi Uribarren (1895-1945).*

Aramaion (Araba) jaioa. Latin ikasketak Larrean egin zituen 1909-1913. urteen artean; Larreako nobiziatuan hartu zuen Karmengo Amaren habitua 1913-VIII-5ean, profesioa hurrengo urteko abuztuaren 6an, Gabriel del Corazón de María izena hartuz egin zuela[249a].

Humanistikako azken ikasturtea Markinako Karmengo etxean egin zuen 1914-15ean (eta behar bada, baita, 1915-1916.ean ere). Filosofia ikasketak Burgosen (1916-1918) eta Gasteizen (1918-1919) egin ondoren, Teologiakoak Begoñako Karmelon (1919-1922) eta Kalagurrin (1922-1923) burutu zituen, apaiz, Iruñean, 1922-IX-17an sagaratua izan zela.

Gasteizeko Fiosofiako ikastetxeko irakaslea (1924-1936) izan zen, Natur Historia, Matematikak, Filosofiaren Historia, Arkeologia, Fisika et Kimika... irakatsi zituela.

Gerraldian, zazpi hilabetetan zehar, Aramaio haraneko zenbait parrokiaren ardura hartu zuen. 1936.eko urriaren 28an Eusko Jaurlaritzak deitua izan zen eta Grazia eta Kulturako ministeritzan euskal testuen idazle ofizial izendatu zuten, izendapena Aramaioko bederatzi preso herritar Bilboko espetxeetan askatzeko erabili zuela.

1937.eko maiatzean Markinako komentura bidalia izan zen eta urte bereko azaroan Larreara, bertan apaiz ministeritzan eta komentuko administrazio zereginetan ihardun zuela, 1945-II-2an hil zen arte.

Euskal idazle gisa, Bermioko Gaubeka moldiztegian argitaratu zituen beraren bi liburuak nabarmentzen dira, hots, *Pisia* (Gasteiz 1933) eta *Kimia* (Gasteiz 1936,

---

[245a] Karmel 1987-1, 77-82; ik. *Idazlan guztiak*, 350-354.

[246] Karmel 1970-1, 34-36; 1981-4, 25-34; 1982-1, 75-84; 1989-1, 14-25. Kontutan hartzekoak dira Luis Baraiazarrak (1985-XI-1), geroago 1986.ean Frai Bartolome-ren "Euscal-errijetaco..." idazlanaren argitarapenerako Luis Maria Mujikak eginiko 78. foliotako sarrerari 43 foliotan eginiko zuzenketa eta ohar gehigarriak jartze-lana.

[247] *Euskera...*, Zarautz 1949, 297.

[248] Karmel 1988-4, 19-28.

[249] L. MIXELENA, *Historia de la Literatura Vasca*, Madrid 1960, 111-112. orr. VILLASANTE, *Historia de la Literatura Vasca*, Bilbao 1961, 229-233. M. ZARATE, *Bizkaiko euskal idazleak*, Bilbo 1970, 71-78.orr. Idoia ESTORNES, in: *Literatura vasca* (Enciclopedia Vasca), I,299-302.

[249a] GPKA, C (Biografiak) 71. kutx. n; LKA, A-IX-1: *Memoria de los religiosos fallecidos en este convento de Larrea*, 27. zk.; ik. ere: S. ONAINDIA, *Euskal literatura*, 4.t. Bilbo 1975, 337-343.orr.

255 orr.), beraietan, zenbait izen tekniko sortuz, adimen-gaitasun zorrotza eta euskararen ezagueran maila handia erakusten dituela. Hizkuntz-teknikoaren alor honetan, gaur egun unibertsitatean burutzen ari den lan oparoaren aintzindari izan zen.

Karmengo Argia aldizkarian (1931-1946), bestalde, 60 idazlan txiki baino gehiago argitaratu zituen, hainbati izenburutzat «izarren gora-berak» jarri ziela.

dd. *Aita Emiliano del Niño Jesús (Julián Barandiaran, 1904-1967)*[250].

Kapitulu honetan beraren bizitzako datu batzu bildu eta euskal idazle gisa aurkeztu nahi ditugu bakarrik; musikari gisa, bizitzan zehar erakutsi zuen beste ezaugarririk nagusienetarikoa azaltzeko, beste atal bat eskainiko diogu.

1) *Bizitzako datu batzu. Bizitza osoa ikasleen heziketa zereginetan.*

Bateoko ziurtagiriaren arabera Julián Barandiaran Kortazar (Aita Emiliano) Bolibarko «Olagoiti» baserrian (Eskoriatza-Gipuzkoa) jaio zen 1904.eko martxoaren 9an, hurrengo egunean bateatu zutela. Beraren gurasoak Zakarias Barandiaran eta Zipriana Kortazar izan ziren[251].

Portaera ziurtagiri hobezina (1916-IX-4) eta gurasoen baimena zituela joan zen Villafranca-ko (Nafarroa) ikastetxera; geroago, Larreako nobiziatura joango zen profesioa 1921.eko uztailaren 29an Emiliano del Niño Jesús izena hartuz egin zuelarik[252].

Hurrengo urtea (1921-1922) «profesio-eginberrien» urtea, Markinako Karmengo komentuan egin zuen; jarraian hiru urte filosofia ikasten Gasteizen eta teologiako lau urteak Begoñako Karmelon egin zituen. Apaiz Gasteizen sagaratu zuen Mateo Mujika apezpikuak 1928.eko irailaren 22an[253].

Villafranca-n prioreorde eta irakasle izan zen 1929-1934. urteen artean; 1934.eko abuztuan Iruñeko ikastetxera bidali zuten prioreorde eta ikasleen maisu izatera eta bertan aritu zen kargu horretan 1942. urterarte. Urte horretan etorri zen teologiako ikastetxea zen Markinako komentura, hemen ere prioreorde eta ikasleen maisu izan zelarik teologiako ikasleak Begoñara aldatuak izan ziren 1946. urterarte. Markinako etxea 1948.ean profesio-eginberrien etxe edo karmeldar ikasleen batxilergoko azken

[250] Aita Emiliano-ri buruzko agiriak: MKA, A-V-10: nahiko agiri pertsonal; A-V-11: Aita Emilianori karmeldar ikasle gazteen giza eta erlijio heziketa zerbitzuan eginiko 30 urteak zirela eta 1966.ean karmeldarren euskal probintziak eskainitako omenaldiari buruzko argazki eta gutunen Album-a. Eta GPKA, C (Biografiak) 34.kutx.n. Ikus bedi jarraiko biografia labur hau: P. MIGUEL MARIA DEL NIÑO JESUS, *Rdo.P.Emiliano del Niño Jesús*, BOPSJN 5(1968,7.zk.) 547-551 (= *Memoria de los religiosos...*, 89-95.orr.: MKA, A-XII-1). S.ONAINDIA, *Euskal Liteatura*, 5.t.Bilbo 1977,317-322.

[251] MKA, A-V-10.

[252] Ibd., Ik. LKA, A-XVIII-2, *Liber profesionum simplicium, 1897-1927*, 389.orr.

[253] Ibd.

urteko ikastetxe egiterakoan, ikasleen maisu zereginetan ihardungo zuen heriotzerarte (1967)[254].

Ikusten denez, bizitza osoa karmeldar gazteen heziketa zereginetan eta ikasgai ezberdinak irakasten iragan zuen; beraren zeregin ezberdinen artean, geroago ikusiko dugunez, musika nabarmentzen da.

Hain zuzen ere, gazteen zerbitzu horretan burututako iharduera zela eta 1966.ean omenaldi hunkikorra eskaini zion karmeldarren probintziak; gertakari horretan Aita Emilianori eskerrak emanez hainbat ikaslek eta Aita Karmeldarrek eginiko gutunak eta ateratako zenbait argazki «Album» batetan bilduta daude: horrela, Aita Anastasio del SSmo.Rosario Ordenako Jeneralak esker onez zorionak emanez eginiko gutun bat; beste bat euskaraz Definitore Jeneral zen Aita Hipolito de la Sagrada Familia euskaltzaleak idatzia eta beste bat Aita Fidel Probintzialak egina, hau ere euskaraz, zenbait apezpikuenak eta, azkenik, hainbat eta hainbat erlijiosoenak. Maitasunez eta eskerronez Aita Emiliano maitagarriari eginiko oroitzapena izan zen.

2) *Euskal idazlea.*

Markinan hezitzaile eta irakasle zereginetan eginiko iharduera artean, nahiko ardura handiz euskaraz idazten saiatu zen. Gerra aurretik beraren idazlan bat agertu zen *Karmengo Argian* 1934.ean eta hainbat eta hainbat idazlan Karmel aldizkarian 1957-1961. urteen artean, nahiz eta gehienak musika alorrari zegozkionak izan; era berean, parte hartu zuen, baita ere, *Zeruko Argian* eta *Olertin.*

Euskal idazle zein itzultzaile iharduenean liburuak euskaraz jartzen itzultzaile gisa erabili zituen urterik oparoenak 50etik 60ra artekoak izan ziren[255].

Karmengo Amaren Eskapularioaren 7. Mendeurrena (1251-1951) zela eta, 265 orrialdetako lehen liburua argitaratu zuen euskaraz: *Andre Mari Euskalerriko mendietan* (Bilbo). Hiru urte geroago, beste bat argitaratuko zuen: *Andre Mari Gaztediaren Eskuetan.* I.Atala. A.Emiliano Karmeldarrak euskaraz eratua (Gasteiz, 1954, 280 orr.). Eta 1960.ean *Arrate'ko Ama Sortzez Garbiaren kondaira eta bederatziurren laburra»* (Bilbao 1960, 19 or.).

Eta argitaratu gabeko beste idazlan batzu ere utzi zizkigun[256]:

— Andre Mariari buruzko sortan (*Andre Mari gaztediaren biotzetan, Andre Mari mirarietan,* II-III).

— Jon Gurutzekoaren bi idazlan euskaratuta (*Cántico Espiritual* eta *Llama de amor viva*); idazlan bi hauek inprimategian aurkitzen dira zuzenketa eta ortografia moldaketa txiki batzu eginda.

[254] Ibd.
[255] MKA, A-V-11.
[256] Ik. MKA.

— Gar-Mar-en *Sugerencias* lana euskaratuta (*Gogo-izpiak* - I. Atala).

— Umeentzat *«Mi enciclopedia»* deritzanaren lehen liburukiaren itzulpena euskaraz.

— L.Evely-ren *Ese hombre eres tú* idazlanaren itzulpena.

— Aita Teodoro-ren *Ese tesoro que llevamos dentro* («Barruan ezkutatzen degun Balioa» liburuskaren itzulpena.

Hain zuzen ere euskaraz eginiko lan guzti hori goraipatuz Euskaltzaindiak diploma bat bidali zion Manuel Lekuonak sinatuta: *«Euskaltzaindiak Aita Emiliano Barandiarani euskararen alde orain arte egin dituen lanen esker-erakutsiz eta gerokoen pizkarri, laguntzailletzat artu du. Bilbon 1965 iraillaren 27-an»*[257].

Beste hainbeste egin zuen euskara bultzatzeko asmoz sortu berri zen Euskerazaleak 1967.eko abuztuaren 4ean Aita Emiliano hil baino lau hilabete lehenago, elkartearen erabakia honela jakineraziz: *«Bizkai'ko Euskarazaleko lagunak, alde ortatik, beste barik, Alkartasun onen bazkidetzat eukitea»*[258].

Manuel Lekuona Jnak Aita Emilianoren euskal idazlanak aztertuz «euskal-sen aundia» zuela esanez goraipatzen zituen.

ee. *Aita Narciso de los Angeles (José Antonio Garate Mugica (1900-1974)*[259]

1900.eko urtarrilaren 17an Azkoitian jaioa dugu. 1918.eko uztailaren 12an egin zuen profesioa Larrean. Humanistika ikasketak Markinan bukatu zituen. Filosofia eta Teologia ikasketak Gasteizen eta Begoñako Karmelon egin ondoren (1919-1926) 1925.ean sagaratu zuten apaiz. Karmeldarren Nafarroako S. Joakin probintzian erantzukin handiko zenbait betebehar, hala, nobizen maisu, probintziako definidore, priore, etab. burutu zituen.

1928.ean Markinako komentura bidali zuten irakasle izateko. Bertan iharduen zuen 1932. urterarte. Donostian hil zen 1974.eko martxoaren 10ean.

Oso ongi ezagutzen zuen euskara eta joskera erraza eta herri kutsukoa zuen. Beraren idazlanik ederrena Lisieux-eko Santa Teresaren bizitza. Zoritxarrez ez zuen argitaratzeko biderik izan.

Honako hau diosku Aita Lino Akesolok Aita Narkisik eginiko itzulpeneko euskararen erabilerari buruz: *«gure aita onek gutxik bezela ezagutzen baizituen euskeraren korapilloak, baiña etzigun artean erakutsi aundirik eman. Bere karguek nonbait ez zioten astirik utzi idazte-lanerako. Ezer egiterakotan, ori bai, jakiña zan etzuela ala-ola idatziko. Euskera errez, errikoi, garbi jatorrez idatziko zuen. Ainbat euskal-*

---

[257] MKA, A-V-10.

[258] Ibd.

[259] GPKA, C,63; BOPSJN 6(1974,82.zk.) 532-534; Lino AKESOLO, *Aita Narziso, Lisieux-ko Teresa donearen euskeratzaile*, in: *Idazlan guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 620-622.

liburuk eta ainbat itzulpenek, batez ere, etzioten bat ere gogorik betetzen; erderari lotuegi aurkitzen zituen eta erdal- kutsuz gaiñezka. Irizmen zorrotzekoa zan ortan. Zorretan zegoen gurekin eta euskerarekin. Nolabait erakutsi bear zuen bere iritzia egiztatzeko gai zela. Eta uste genduena, euskal-maisu bati zegokiona atera zitzaion bere itzulpena. Bertsozko zati batzuetako bakarrik eskatu zuen laguntza, eta nik ere nere alegintxoa egin nuen Teresa doneak tartean sartzen dituen bertso batzuk euskeratzen».

Baina beste zerbait ere zor diogu euskaldunok Aita Narkisiri. Hain zuzen ere, Lauaxeta-ren azken olerkiak gorde eta gure eskuetara heleraztea. Aipaturiko idazlan laburrean Aita Linok honela kontatzen digu gertakari hori:

«Bada besterik ere aita Narkisi (eta beste Leringo seme izan zen karmeldar bati) zor diogunik; Lauaxeta zanaren azken-olerkiak, il-aurretxokoak, euskerazko eta erderazkoak, egilleak berak utzirik, gorde zizkigun. Urteak geroago nerau izan nintzan bitarteko, olerki aiek Lauaxetaren aitari eramateko. Ez, lenago kopia bat atera gabe. Orain zazpi bat urte, azken-olerki aiek liburu batean ateratzeko dana gertu zegoen. Lauaxetaren etxekoek utzitako kopia utsez beterik zegoen eta neronek eman bear izan nuen nerea, okerrak zuzentzeko. Liburua etzan azaldu. Gure artean ordurezkero sortu ziran istilluek beldurra sartu zieten nonbait artan zebiltzanei eta atzera eragin. Orain, ez liburu ez kopia, gelditu naiz. Aita Narkis zanak, orraitio, bere eskuetan gorde zuen bat, gure arteko García Lorca izan genduenaren esku-idatzia, orijinala, paper-zati erdi puskatu batean egiña. Gazteizen, 1936-tik aurrera, karmeldarren etxearen alde aundia kendu zieten agintariek parailleei, espetxetako. Narkisek al zuen guztia egin zuen ango espetxeratuen ordu beltz mingotsak eztitu eta arintzen. Lauaxeta zanaren azken-bertsoak olaxe iritzi ziran fraideen eskuetara».

ff. *Aita Hipolito de la Sagrada Familia (Alejandro Larrakoetxea, 1892-1976)*[260].

1) *Bizitzako datu batzu.*

Zeanurin (Bizkaia) jaio zen 1892.ean, bere gurasoak Francisco Larrakoetxea eta Josefa Aguirrezabala izan zirela. Bateoan Alejandro izena jarri zioten. Villafrancako karmeldarren ikastetxean humanistika-ikasketak egin ondoren Larreako nobiziatura sartu zen profesioa 1909.eko uztailaren 1etan eginez eta Hipolito de la Sagrada Familia izena hartuz. 1909-197. urteen artean filosofia eta teologiako ikasketak egin zituen Burgos, Gasteiz eta Begoñako karmeldarren etxeetan. Apaiz 1916.eko uztailaren

[260] Bibliografia: MKA, A-XII-1: Memoria de los religiosos..., 106-108.orr.; GPKA, C, 91.kutx.; BOPSJN 3 (1959.43.zk.) 536-550: *Felicitaciones recibidas por N.P.Provincial con ocasión de su Jubileo religioso*, (536-546.orr.), *Datos biográficos de N.M.R.P.Provincial Fr.Hipólito de la Sagrada Familia* (544-546.orr.), *Jubileo religioso de...* (547-550.orr.), Julián DUÑABEITIA, *R.P. Hipólito de la Sagrada Familia (Alejandro Larracoechea Aguirrezabala) (1892-1978)*, BOPSJN (1976,86.zk.) 104-111; ikusi Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, 623-637; S.ONAINDIA, *Euskal Literatura*, 4.t., Bilbo, 1975, 113-117.

17an sagaratu zuten Gasteizen. Laster, 1917.ean, Begoñako ikastetxeko irakasle izendatu zuten eta hurrengo urtean zuzenbide kanonikoko irakasle zen. 7 urtetan zehar aritu zen irakasle lanetan: 5 urtetan zehar Begoñako Karmelon eta 2 urtetan Calagurrin (1917-1924).

1924.ean Aita Ezequiel de la Sagrada Familia, Probintzialak Erromara bidali zuen Zuzenbide Kanonikoko ikasketak osotzera. «Angelicum» ikastetxeko ikastaroetara joan zen eta 2. urtean dotoradutza lortu zuen, Ordena barruan halako titulua lortzen zuen lehena izan zelarik, aurrerago debekatuta baitzegoen titulurik eskuratzea. Era berean bi urtetan zehar Rota Romana-ko ikastaroetara joan zen. Eta irakasle kargua izan zuen Erromako Karmeldar Teresiarren nazioarteko ikastetxe nagusian.

1928.ean Eliza Ekialdetarrerako Kongregazio Santuko Aholkulari izendatu zuten. Eliza Ekialdetatarreko Zuzenbide Kanonikoaren berriztaketa eta kodifikazioa egitea pentsatu zenean kanonistek osoturiko batzorde pontifikal bat eratu zen eta beraiei aholkularitza emateko lau legegizon aholkulari izendatu zituzten, beraien artean Aita Hipolito aurkitzen zelarik. Bost urtetan zehar etengabeko lana izan zuten; era berean, Karmeldarren nazioarteko ikastetxeko irakasle izaten jarraitu zuen.

1933.ean Karmeldarren Nafarroako S.Joakin Probintziako probintzial izendatu zuten, hautaketa atzera bota zuelarik Erromako Definitorio Jeneralak, une hartan Erroman egiten ziharduen lana zela bide.

Orduan gertakari politiko-erlijioso garrantzitsu bat izan zen: 1934.aren amaieratik 1936.aren hasiera arte bitarteko lana egin zuen Espainiako Errepublikako Gorteetan Gutxiengo euskalduna osotzen zuten Diputatuen eta Vatikanoko idazkaritzaren artean; Diputatuak Estatuko idazkari zen Pacelli Kardinalarekin elkarrizketatzea lortzeko egin zuen lan; elkarrizketa hori ezin izan zen egin Madrileko eta Euskal Herriko «Eskuinak» deituek eginiko eragin politikoen ondorioz; hala ere, 1936.eko urtarrilaren 20an elkarrizketatu ahal izan zuten buru Pacelli Kardinalea zuen Elizaren Arazo Ezohizkoetarako Kongregazio Santuko idazkari zen Giuseppe Pizzardo Monsinore Jnarekin[261].

Aita Hipolitok Euskal Herriaren eta Euskal Elizaren alde zuen borondate on horrek taituko zuen, hainbatetan bere bizitza. Vatikanoko Estatuko Idazkaritzak Ordenako Aita Jeneralari Aita Hipolito Erromatik aldentzeko gomendioa egin zion... eta 1936. ikasturtearen amaieran Begoñako Karmelora (Bilbo) itzuli zen. Baina urrian gerra egoera zela eta Eusko Jaurlaritzak, seguritatea zela zio, Euskal Herria uzteko gomendioa egin zion eta Frantziara joan zen, bertan, hamar urtetan zehar, Ordenako ikastetxean eskolak ematen eta historia eta legegintzako ikerlanetan aritu zelarik.

1946.ean itzuli zen Euskal Herrira eta karmeldarren Altzoko etxean bizi izan zen. Baina, 1948.ean Probintzial izendatu zuten eta Gasteizera aldatu zen bizitzera. 1951.etik 1957.era irakasle izan zen Begoñako Karmelon zuzenbide kanonikoa eta

[261] Ikusi agiri interesgarri guztiok: I.MORIONES, *Euzkadi y el Vaticano (1935-1936, Documentación de un episodio*, Erroma 1976, 167 orr.

teologia morala irakasten zituela. 1957-1960. urteetan berriro Probintzial izan zen; eta 1961-1968. urteen artean Bigarren Definitore edo Aholkulari Jeneral Erroman.

Beraren bizitzan zehar Aulki Santuak, berarengan zuen konfidantza eta estimua erakutsiz, hainbat aldiz bidali zuen probintzia ezberdinetako fraideen zein mojen erlijio komunitateetara bisitari apostoliko gisa.

Beraren bizitza amaieran Markinako Karmengo etxera etorri zen bertan urte erdi egin ondoren 1976.eko urtarrilaren 25ean hil zelarik.

2) *Euskal idazlea.*

— Aita Hipolitok 5 orrialdetako bere bizitzako kontaketa labur batetan, bi aldiz euskaraz liluraturik zegoela esaten digu. Eta, hala, ugariak izan arren Elizaren zerbitzuan Erroman edota Ordenako lanetan Erroman zein Euskal Herrian zituen eginkizunak eta hainbat eta hainbat idazlan, batzutan luzeak, gazteleraz, latinez eta frantsezez idazten saiatua izan arren, ardura eta maitasun handiz saiatu zen euskaraz: «Legoaldi» ezizena erabiliz *Euzko-Deia, Euskal-Esnalea, Zeruko Argia, Euzkadi, Euskera* aldizkarietan idatzi zuen; bereziki, *Karmengo Argia* karmeldarren aldizkarian egin zuen, bertan 1931-1932. urteetan zehar hamabi idazlan labur, batez ere Erromako berriak emanez, idatzi zuela.

— 1926.ean berak Zeanurin euskaraz eginiko sermoi bat argitaratu zen.

— Baita ere Bolibarren 1927.eko abuztuaren 14ean Bolibar askatzailearen ohoretan eginiko hitzaldi bat; hau euskaraz eta gazteleraz argitaratu zen.

— Gerra aurreko urteetarako nahiko garrantzi handiko lana alemanieratik euskaratutako *Grimm Anayen Ipuinak* liburua izan zen; lehenengo atalka aldizkarian atera zen eta gero 1929.ean liburu osoa eginda.

— Izugarrizko ahalegina eta lana eskatu zion beste lana *Erroma'ko Eleizearen Araudia (Euskaraz)*. Tolosa, 1978, 471 orr (Kardaberaz Bilduma, 32) izan zen. Lan hau irakasle zelarik egina izan zen baina geroago berregin beharra izan zuen; bertan lehenago aipatu dugun kontaketa autobiografiko labur bat ere eskaintzen digu: «*Azken urte hauetan egin dudan lanik handienetariko bat, Kardaberaz Elkarteak eskatu zidanari jarraituz Zuzenbide Kanonikoaren euskarako nire itzulpena berriro idaztea izan da*»[262].

— Argitaratuak izan ez diren beste euskarako eskueskribu batzu ere utzi zizkigun:

- Hainbat sermoi bizkaieraz eta gipuzkeraz.
- Gipuzkoako aditzari buruzko lan bat.
- Cervantes-en *La tía Cornelia* eta *La fuerza de la sangre* eleberrien euskarako itzulpena.

[262] BOPSJN (1976, 86.zkia) 109.orr.

- Jon Gurutzekoaren *Subida del Monte Carmelo* eta *Noche oscura* idazlanen itzulpen zatiak.
- Olabideren Biblia egokituz Testamentu Berria jarri zuen bizkaieraz.

gg. *Aita Lorenzo de S.Teresita (Lon Arteaga Bilbao; 1919-1980)*[263].

Mañarian jaio zen. Lehen ikasketak herrian bertan 6 urtetatik aurrera egin ondoren, 1928.eko otsailean sartu zen Larreako Karmeldarren ikastetxean (1928-1932); jarraian, nobiziatuko urtea egin ondoren 1933.eko uztailaren 18an egin zuen profesioa, Lorenzo de Santa Teresita izena hartu zuela. Humanistikako ikasketak Markinako komentuan jarraitu zituen (1933-1934). Eta filosofiako urte bat Iruñean eta beste bat Gasteizen egin ondoren, gerra zibilaren hasieratan, Indiako Alwaye-ko apaizgaitegira bidali zuten, bertan amaitu zuela eliz karrera eta 1940. urtean apaiz sagaratua izan zelarik. Bertan irakasle izan zen 1948. erarte, urte horretan etorri zela Euskal Herrira. Amorebietako ikastetxeko irakasle izan zen.

1954.etik 1964.era Amerikan izan zen. 1964.ean berriro Amorebietako ikastetxean irakasle 1969.erarte. Urte horretan joan zen Markinara eta bertan jarraitu zuen 1980.ean hil zen arte.

Egia esan, euskal idazle alorrean ez da idazlan ugari idatzi dituenetarikoa. Hala ere, idatzi zituen lanetan maisutasuna erakusten du. Hainbat aldizkariri eskaini zien bere lankidetza; honakook aipa ditzakegu: *Karmengo Amaren Egutegia, Euzko-Gogoa, Olerti, Agur, Dantzari, Príncipe de Viana, Zer...* eta batez ere *Karmel* aldizkaria. Azken honetan 16 idazlan eta 6 olerki argitaratu zituen. Argitaratutako beraren lanen artean *Meza Deuna Erriarentzat*[264] eta *Euskal aditza Frai Bartolome'gan (1768-1835)* nabarmentzen dira. Azken lan hau 1978-1979. urteetako lau idazlanetan (40 orr.) argitaratu zuen Karmel aldizkarian. Aipamena merezi du, era berean, argitaratu gabe utzitako eskueskribuak. Bertan Frai Bartolome karmeldar ospetsuaren lanak transkribatu eta gaur egungo ortografia eran (1972) inprimategira bidaltzeko gertatuta jarriak utzi zituen.

hh. *Aita Lino Akesolo (1911-1991)*[265].

Karmeldar honek, Ordenako Lehen Araudian jasoten den honako egindu zorrotz hau «lanik egiten ez duenak ez dezala jan» bizitzako abiabide eta helburu egin nahi izan zuen, bizitza luzean zehar oso lan oparoa eskainiz.

---

[263] GPKA, C, 16.kutx.; Pedro María DUÑABEITIA, *P.Lorenzo de Sata. Teresita (Lon de Arteaga y bilbao) (1917-1980)*, BOPSJN (1980,90.zk.) 75-79 (=MKA, A-XII-1, Memoria de los religiosos,... 118-123); Lino AKESOLO, *Aita Lon Arteaga zanaren oroigarri*, in: *Idazlan guztiak*, 649-652; S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, VI, Donostia 1990, 252-255. Ik. Karmel 1980-1, 28-31; 1980-2,43-49.

[264] Bilbao [1957], 16 orr.

[265] Beraren bizitza eta lanak ezagutzeko oinarrizko lana: Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*. Edi-

Egun barruko ordu eta minutuei etekinik handiena ateratzen jakin izan zuen, beti esku artean irakurtzeko zerbait (liburua, aldizkaria, txostena, papera, egunkaria...) edota luma tinta zeriola paperean hara eta hona idatzi eta idatzi zerabilela. Horrela iragan izan zituen, ia konturatu barik, buru-belarri, oso gogoko zuen lanean bizitzako urte luzeak. Sarritan nekearen nekez jota geratu arte lan eginez. Berarentzat egun barruko tarte guztiak ziren erabilgarriak..

Zorionez, Aita Lino Akesoloren datu biografiko zehatzak ditugu urte gutxi direla, *Karmel* aldizkariak *«Karmel Sortan»* beraren *Idazlan Guztiak* (bi liburuki) argitaratzerakoan bildu eta aurkeztuak. Hona hemen gaindiroki bilduta.

1) Bizitzako datu batzu.

Lino Akesolo Olibares, Dimako Oba auzoan jaio zen 1911.eko apirilaren 7an. Beraren gurasoak Antonio Akesolo Bikarregi (Dimostarra) eta Praxedes Olibares Intxaurbe (Zeanuritarra) izan ziren. Obako auzo eskolara joan zen. Maisu euskalduna izan zuen. Etxean bertan sortu zitzaion bizitza osoan hain bere-bereko izango zuen irakurtzeko zaletasuna bertan zituzten Alejandro Akesolo osaba apaizaren liburuak esku artean erabiltzean.

Hamar urte zituela joan zen Larreako Karmeldarren ikastetxera, 1921.eko azaroaren 23an, bertan burutu zituela Humanistikako ikasketak. 1926.eko abuztuaren 10ean hartu zuen Karmeldar habitua Larreako nobiziatuan eta 1927.eko abuztuaren 14ean egin profesioa.

Humanistikako urte hauek oso garrantzitsuak izan ziren, bertan bideratu baitzuten Aita Angelo (Jose) Jauregi euskal gramatikaren irakasle aramaioarrak eta Aita Erroman (Leon Urtiaga) ikastetxeko zuzendariak euskal munduan ihardutera. Katekesia euskaraz ikasten zuten. Horretaz aparte latinetik euskarara itzulpenak eginerazoten zieten.

Bertan ezagutu zituen Kirikinoren *Abarrak*, Txomin Agirreren zein Azkueren lanak...Ikasgai batzu euskaraz ematen zituzten eta astean behin egun osoz euskaraz hitz egiten zuten ikastetxeko ikasle guztiek.

Euskal Esnalea-koek Jose Migel Barandiaran bialdu zuten behin Larrako ikastetxera, euskara irakasteko erabiltzen zuten ikasbidea ikertzera. Norbert Tauer, txekoslabiarrak ere idatzi zien Madriletik eskolen berri eskatuz.

Hurrengo ikasturtean, 1927-1928.ean, humanistika ikasketak egiten jarraitu zuen Markinan. Hemen Aita Urbano Manzisidorrek euskaraz azaltzen zien historia. Cam-

---

zioaren prestatzailea: Julen Urkiza. Larrea-Zornotza 1989, LXI-1541 orr. (Karmel-Sorta 1*-1**); ikusi, batez ere, L. Arostegi eta J. Urkizak eginiko sarrera. Ik., era berean: GPKA, Aita Linok izenpetutako datu eta agiri batzu oraindik bizi diren erlijiosoen karpetan aurkitzen da (hil berri denez, dagozkion kaxetara joango dira). Ik.,baita ere, bestelako lan orokorrak, v.g. S.ONAINDIA, *Euskal Literatura*, 6.t. Donostia 1990, 204-208. Ik., era berean, berari buruz argitaratuako idazlanak: Karmel, 1987-3, 73-82; 1989-1,26-45; 1989-2,5-19; 1989-3,15-25; 1991-4-3-31; Euskerazaintza (1991,17.zk.) 1-3,23-26; etab.

pion-en *Gramatica* ikasten hasi zen iparraldeko euskalkiak ezagutzeko bidea hartuz. Sendotu egin zen berarengan euskaraganako zaletasuna..

Jarraian filosofia ikasketak Gasteizen (1928-1931). Hemen ez zuten ofizialki euskarako eskolarik. Hala ere, eskola orduetatik kanpo (batez ere udako oporraldi luzeetan zehar) jo eta ke aritu ziren euskara sakontzen. Aita Gabirel Jauregik, *Fisia eta Kimia* liburuen egileak bultzaturik *Euskal Esnaleak* antolaturiko sariketetan parte hartu zuten; Lino Akesolok Cervantes-en «El Celoso Extremeño» euskaratu zuen *Agure kezkatia* izena emanez, 1930.ean. Akesolok, sari bidez lortutako diruak Azkueren *Iztegia eta Morfologia* erosteko erabili zituen.

Era berean, Gasteizen hasi zen, bizitza osoan zehar hain gogoko izango zuen ihardunean, hau da, esaldi jatorrak biltzen «gauzak egoki eta zehatz adierazteko».

Filosofia amaitzerakoan etxera bidali zuten aldi batetarako osasuna indartzera. Areagotu egin zitzaion ordurako barru-barruan zerabilen euskararako zaletasuna eta garra, batez ere, herri-euskaraganako maitasuna.

Ondoren Begoñara joan zen teologiako ikasketak egitera: (1931-1935). Bertan ikasle zela ezagutu zituen Lauaxeta, Lizardi, Orixe...; *Euskal Erria* aldizkaria irakurtzen zuen. Aita Onaindiarekin batera, *Onbidea* (Santa Teresaren *Camino de Perfección*) itzuli zuen.

1931.ean *Karmengo Argia* sortu zuten karmeldarrek. Idazlerik finenetarikoa izan zen Lino Akesolo ikaslea. Hori zela, nonbait, izendatu zuten apaiz egin berri zela (1935) beraren zuzendari.

Mutil azkarra izan behar zuen, hurrengo urtean 1935.ean Zornotzako ikastetxeko irakasle izendatu zuten eta; eta 1836.ean *Karmengo Argia*-ko zuzendari.

Gerra zibila sortu zenean soldadutzara joan behar izan zen kaperau zereginetan ihardun zuela. Atxilotu ostean gartzelan sartu eta 1937.eko uztailaren 30eko gerra-auzitegian, fiskalak 12 urtetako kartzela-zigorra eskatu arren 16 urtetakoa eman zioten[266]. Delitu handi gisa, *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari izatea leporatu zioten beste gauza batzuren artean. Honela kontatzen dizkigu berak auzitegiko gorabeherak: «ain zuzen auzitegira eroan eben militarrak eta *Karmen'go Argia* orren zuzendari izan zala-ta, aldizkariaren erru guztiak bota eutsoezan lepora. Pekaturik andiena, beste guztiak bat egiten zituena, aldizkariaren izena bera : «Ya ven, —esaten eban gogor salatzailleak— *Karmengo Arjia* (olan esaten eban berak), hasta el título es separatista. Orra berak autortu eta salatu bere buruko utsa eta barruko gorrotoa: euskerea bera zan euren arerioa, arerio ondatu bearrekoa. Nik euren buruetan argi apur bat egin nahi izan nebanean, maipurukoak: «Calle y siéntese». Eta fiskalak amabi urteko espetxea eskatzen eban arren, auzitegiak amasei urtekoa emon eustan»[267].

Auzitegian emandako epaia leku ezbedinetan bete zuen: gartzela bihurtua izan zen Begoñako Karmelon, Langrarizen, Venta de Baños-en eta Karmonan, 1940.ean

[266] Ik. GPKA, B, 3.kutx.; eta bizi diren erlijiosoen agiriak dituen kaxoia.
[267] *Idazlan guztiak*, 35.orr.

askatua izanik. Hala ere lehen urteetan ez zuen Euskal Herriko komentuetara etortzerik izan. Lehenengo, Kantabriako Hoz de Anero-ko komentuan bizi izan zen, Karmeldarren artean basamortu izenez ezagutzen den horretan (1940-1941); gero, Iruñera (gobernarien ustetan Euskal Herritik kanpo zegoen, nonbait) joan zen (1941-1943); bi hilabete Zornotzan egon zen eta beste bi hilabete t'erdi Korellan. Azkenik aldi luzeagoa (1944-1948) Kantabriako El Soto-ko etxean.

Carmonan, Beistero politikari ospetsua irakasle zuela, alemana ikasi zuen. Euskarako lan batzu ere egin zituen, hala nola, *Salve Mater Miserikordiae* euskaratzea edota Toselli-ren Serenataren frantses testuaren ordez olerki bat asmatu euskaraz:

«Ortzean zear zabiltzen usoak,
ai nik banitu zuek dozuezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari
erbestetuaren maitasun agurraren geznari!

Etsaiak erasota
ara non dan lur jota,
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu beltzetan,
maitezko egoetan
zuganaiño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri:
zeu, aberri?

Teologiako irakasle izendatua izanik, Gasteizera joan zen 1948.ean ikasturtearen amaiera arte eta hemendik Begoñako Karmelora ikasturte berrirako: ordutik aurrera Begoñan egingo ditu urterik gehienak, guztira 37 urte: 21 urte, Donostiako nagusi (1969-1972) izendatu aurretik eta beste 16 Markinako (1972-1975) nagusi izatea utzi ondoren.

Hain zuzen ere, 1975.ean itzuli zen Begoñako Karmelora Hiztegiaren lan handiari ekitera. Ordurako hasia zuen lana, Markinan nagusi zereginetan eginiko urteetan. Eta Karmelon egin zituen jarraiko gainerako 16 urteak aurtengo (1991) irailaren 17an hil zen arte.

1963.eko apirilaren 5ean *Euskaltzain Oso* izendatu zuten; hala ere, uko egin zion izendapenari azaroaren 7an. Behar bada, izendapen horren ondorioz izendatu zuten, era berean, Euskaltzaindiko bibliotekari urte bereko maiatzaren 25ean. 1965.eko martxoaren 26an *Euskaltzain urgazle* izendatua izan zen.

Horretaz gainera, euskara alorrean diharduten beste bi Erakundetako partaide ere izan zen: Hau da, *Kardaberaz Bazkunekoa* (1970) eta *Euskerazaintzakoa* (1978).

Talde hain kontrajarrietako partaide izan arren (*Eukerazaintzako* buru izendatu zutela), batean zein bestean lan egin zuen, laguntza eskatzen zioten bakoitzean euskararen alde ihardunez.

1964-1968: Liturgiako testuen itzulpen lanetan. Bizkaiko Eliz-barrutiko Liturgi Batzordeko Buru zereginetan aritu zen.

1972-1975: Markinako Karmengo komentuko priore. Bertan egin zituen hiru urte horietan eman zion hasiera gero bere lanik ospetsuena izango zen *Diccionario de Autoridades de la lengua vasca* deritzanari. Era berean, ardura handia hartu zuen gerora Probintziako Euskal Biblioteka izango zenaren oinarriak jartzen, biblioteka hau urte horietan Markinan baitzegoen.

1975-1991: Karmelon. Azken urte hauek izan dira Lino Akesoloren bizitzako emankorrenak. Berak bideratu zuen *Diccionario de Autoridades de la lengua vasca* deituriko (9 libukitakoa) hiztegi nagusia egiteaz gainera, 150 idazlan argitaratu izan ditu aldizkari ezberdinetan. Era berean, lan handia burutu izan du karmeldarron euskal biblioteka hornitzen, liburuak eskuratzen buru-belarri saiatuz.

Azken urteetan makal samar ibili bada ere, gutxien uste genuenean hil zen Karmelon 1991.eko irailaren 17an, egun bi gripea zuela ohean egin ondoren.

Beraren heriotzeak oso oihartzun handia jaso zuen komunikabide guztietan eta hileta mezan eliza gainezka egon zen eta aldarean laroi apaiz inguru, hain handia izan baita berak bizitzan zehar lortutako ospea eta eginiko adiskideen multzoa.

Horrela nortasun eta ospe handiko gizonen barruko bizitza jakitea onuragarri izaten dugunez, bizitzan zehar burututako lana sakonkiro ulertzeko,beraren ezaugarririk nagusienak laburbildu nahi izan ditut, nolakoa izan zen gizon handi hau ikusi ahal izateko: langile porrokatua, isila ta apala, egizalea, esker onekoa, laguntzaile eskuzabala, autodidakta, irakurle asezina, liburuzalea... izan zela egiazta daiteke.

2) *Euskal idazlea.*

Lerro hauetan idazlan guztien izenak aurkezteko aukerarik ez dagoenez, hiru multzo handitan banatuko ditut, gaindiroki bere lanaren berri izateko:

— *Diccionario... de Autoridades de la lengua vasca* (9 liburuki, 1976-1979).

A. Lino Akesoloren *hiztegi* handia da. Manu Sotak utzitako fitxak oinarritzat harturik, berak urteetan zehar burutua. Fitxa guztiak berrikusi zituen bertan ageri ziren esaldien egokitasuna ziurtatzeko. Lafitte-eren bidez heldu zitzaion lan hori eskuetara eta lehen urtean Lasa Jnaren laguntza izan bazuen ere, gero ikerketa lana berak bakarrik burutu zuen. Argitaratze lanetan Luis Ortegaren laguntza izan zuen. Arrazoi osoz aitortu zuen Alfontso Irigoienek 1989.eko apirilaren 3an Euskal Telebistako elkarrizketan zein hurrengo eguneko hiztegiaren aurkezpenean benetako egile bakarra, hasieratik amaiera arte (Sotak eginiko lana gogoan hartuz) Aita Lino Akesolo izan zela[268].

[268] Ik. 266.oharra; ik., era berean, J.A. Etxezarraga-ren idazlana: *Lino Akesolo*, in: *Idatz eta Mintz* 18/19.

— *Argitaratutako idazlan laburrak:*

Aita Linok, gorago bide batez aipatu izan dugunez, hainbat idazlan labur idatzi zituen aldizkari ezberdinetan (32tan) eta ezizen multzoa (16) erabiliz. Esan dugun bezala, lan horien arteko gehienak, azken bi urte hauetakoak eta beste banakaren bat izan ezik, beraren *Idazlan Guztiak* (2 liburuki) argitalpenean kaleratuak izan ziren[269]. Zenbaki laburretan bilduz honako hauek lirateke gaika:

• LEHEN LIBURUKIAN:.

1) *Euskara eta gramatikaren inguruan:* 43 idazlan.(5 gazteleraz eta 38 euskaraz). Zenbait argibide eskeintzen dizkigu. Hala ere sorta honetan badira erizpen alorrekoak ere.
2) *Euskal idazleei buruz:* 95 idazlan (19 gazteleraz eta 72 euskaraz). Guztira 522 orrialde. Aurrerantzean beti aipatu beharrekoak izango dira berak eginiko ikerlanak. Alor hau dugu, bere idazlan laburren artean baliorik handienekoa.
3) *Euskal literaturaren inguruan:* 7 idazlan.

• BIGARREN LIBURUKIAN:

1) Euskara eta biblia: 10 idazlan.
2) Euskal testudun idazlanak: 10 idazlan. (1 gaztekeraz).
3) Kondaira eta biografi-artikulu eta oharrak: 73 idazlan.
4) Liburuen barri-emoteak: 43 idazlan.

Multzo honetako lanen artean ere, hainbat ikerlan interesgarri eta iturri bazterrezin ageri da.

— **Itzulpenak:**

Alor honetan ere lan oso oparoa egin zuen bere bizitzan zehar Aita Lino Akesolok. Laburkiro itzulitako idazlan guztiak aurkeztuz honako sorta hau ateratzen zaigu:.

Gaztelerazko idazkiak: (bereziki, 1954-1962. urteen artean). Latinetik, frantsesetik eta, batez ere, Alemanieratik itzuli izan zituen; ingelesik ere bai. Guztira be-

[269] Hirugarren liburukia 1992.ean agertuko da.

deratzi liburu eta 2.500 orrialde inguru dira. Gehienak *Dinor* argitaletxean argitaratuak. Ez luzatzeko ez ditugu hemen aipatuko[270].

Euskarazko itzulpenak: Besterik beste:

— Prosazkoak:

- M. Cervantes, *Agure kezkatia (*1930)
- *Gurutzeko Joan deunaren esakun mamintsuak* (Karmengo Argia 3 (1933) 209, 234, 313,329)
- *Donekuntza-bidea,* Karmengo Argia 3 (1933, 1934, 1935, 1936)
- Manuel Fuentes, *Jaungoikoak Beretzat gura nau. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra.* Bilbo, 1984, 84 orr.
- Domingo Fernández Mendiola: *Aita Aureliano Karmeldarra (1887-1963) Indian 51 urtez apaiz berrien moldatzaile.* Gasteiz, 1983, 59 orr.
- *Saski-Naskin* sei idazlan 1981.ean eta beste bat 1984.ean.
- *Abel-lur* aldizkarian idazlan batzu.
- Bizkaiko Aurrezki Kutxak aginduta Euskal dantzei buruzkoa (gazteleraz bakarrik argitaratu zen).
- Inprimategian: Joan Gurutzekoaren *lan hautatuak* (Lehendik itzuliak zituen *Karmel Mendira Igora* (Subida al Monte Carmelo) eta *Gau Iluna* (Noche Oscura).
- *Kili-kili* aldizkarirako hainbat eta hainbat. Beste hainbat zuzendu ere bai.

— Olerkiak:.

- Salve Mater: Agur, Ama (1941)
- Aserre-egun (1951)
- Enau ni, Jauna (1954)
- Nun da maitasuna (1972)

---

[270] Monica BALDWIN, *Yo salté la tapia* (1.argitarapena). Donostia 1957 (itzulpena konpondu: Lino Akesolok). Rosemary HOWARD-BENNET, *Yo escogí el claustro,* Donostia 1958 (sarrera idatzi zuen). Fritz TILLMANN, *El Maestro llama,* Donostia 1956, 486 orr.; Walter NIGG, *El secreto de los monjes,* Donostia 1956, 490 orr.; Juan SCHUCK - Guillermo NEUSS, *Historia de la Iglesia de Cristo,* Donostia 1957, 734 orr.; Edith STEIN, *La ciencia de la cruz. Estudio sobre San Juan de Cruz,* Donostia 1958, 413 orr.; Fritz TILLMANN, *Elementos de la moral católica,* Donostia 1959, 225 orr.; Erich PRZYWARA, *Criterios católicos,* Donostia 1962, 189 orr.; *La Iglesia y el pecador,* Donostia 1954, 278 orr.

- Pazko-kanta (1972)
- Espiritu Santua (1972)
- Agur Jainkoaren Ama (1977)
- Maria gure oiuak (1977)
- Illen otoitzerako (1978)
- Karmengo Amari abestia (1951)
- *Zeruan det nik bizia* (Santa Teresaren «Vivo sin vivir en mi») 1952
- *Arin, artzaiak* (1953)
- Jon Gurutzekoarenak: *Cantico espiritual* (Karmel 1990-3/4), *Aberik ez ta aberik bai; Edozein ederren jarrai; Gabonetakoa; Onbidea labur; Maitasungar bizia* (Karmel 1991-1) *Artzaintxo maitemindua ; Gau ilunean* (Karmel 1991-2); *Maitearen eizan* (Karmel 1991-3).
- Era berean, bete batzu ere itzuli izan ditu: horrela, Alfredo Gómez Jaimeren olerki batzu (1967), L.C. Lopez (1967); Kolombiar idazle batzurenak (1968) eta baita Unamunorenak (1970)...

— Euskal idazle zaharren argitalpenak.

- Bernat D'Echepare-ren *Linguae Vasconum Primitiae* gaztelerazko itzulpena duela eta idazkera gaurkotuta.
- Joannes Etcheberri-ren *Noelak eta kanta espiritual berriak*; testu berrikusia, sarrea eta oharrak dituela.
- Bernad Gazteluzar-en *Eguia Catolicac.*
- Gregorio Arrue-eren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza.* Testu berrikusia, sarrea eta oharrak.
- Beste hainbat argitalpenerako liburuak eskuzabalez utzi egin izan ditu.

— Taldekako lanean:

- Teresa, *On-bidea* (Camino de perfección) Bilbo 1963; Aita Onaindiarekin batera, 279 orr.
- *Salmoak* (1964). Euskaraz egin den salmoen itzulpenik onenetarikoa da. Elizan kantatuz erabili ahal izateko itzulpen egokitua. Iratzeder-Lerchundi bikoteak Iparralderako eginiko musika eta testuari egokitua. Lankidetzan aritu ziren.
- Liturgia liburuen itzulpenak (1964-1968).
- *Eguneroko Meza, esku liburua,* Bilbo 1963 (Jaime Kerexeta eta Aita Onaindiaren izenean argitaratua).
- *Kosmos I eta II,* Salamanka (Anaya) 1975.

- *Eusko Lurra* (Iñigo Agirre), Donostia, 1976.
- Euskaltzaindiko gramatika batzordean: *Euskal Gramatika. Lehen urratsak I,* Iruñea 1984.; *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak II,* Bilbo 1987; Eraskina, Bilbo 1987.

— Idazkera.

Hitz egiteko eta irakurtzeko ahozkera iluna (hagin artean ahoskatzen zuelako edo) bazuen ere idazterakoan aparteko dohainak zituen. Prosaz idazten zuenean, euskara argi eta ulerterrazez egiten zuen. Euskal senez idazten zuen, joskera ezin hobea erabiliz. Lanak behin eta berriro zuzenduz, zaindu egiten zuen txukuntasuna zein joskeraren jatortasuna.

Hain ongi ezagutu zuen E. Erkiaga idazleak honeko idazkera zuela dio: *«Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan dana»*[271].

Jesus Gastañagaren eritzitan, azken aldiko *«Bizkaieraz idazlerik onena»* izan da[272].

Patxi Altunak honako hau zioen beraren heriotze ostean: *«Oraintsu izan nuen eskea Aita Linok eta beste hiru euskal idazlek, Orixe barne, nork bere aldetik egin zituzten San Juan de la Cruz edo Juan Gurutzekoaren 'Cántico Espiritual' izeneko olerki gorenaren eta gailenaren itzulpenei buruz artikulu bat idazteko. Han ez nuen esaten baina hemen agertuko dut: Nere ustez onena Aita Linorena. Euskara inork gutxik bezala menderatzen zuen. Bertsoak euskarazten parerik ez zuen»*[273].

3) *Onespena.*

Gaur egun aho batez aitortuak izan dira Aita Lino Akesoloren merezimenduak euskaltzaleen eta euskaralogoen artean. Izugarria izan da, egin eginean ere, isilean ekin eta ekin burutu izan duen lana eta lan horren kalitatea. L. Mitxelenak berak ere aparteko begirunea zion eta euskara sakonetik ezagutzen zuen gizonik argiena zela ere aitortu zuen.

Azken urte hauetan hainbat omenaldi jaso izan zituen, besterik beste honako hauek:

a) 1984ko bagillaren 14, berari ta beste iru eliz-gizonei (J.Kerexeta, S.Onaindia eta Pedro Puxana) Bizkaiko Elizbarrutiko elizgizonak omenaldia eskeini eutsen euskaraz egin ebezan Eleiz-idazlan ederragaitik[274].

---

[271] Karmel 1989-2, 9.orr.
[272] Diario de Navarra, 1991-IX-21, 48.orr.
[273] Egunkaria, 1991-IX-18, 23.orr.
[274] Ik. Aldizkari nagusia- Bilboko Gotzaitegia 25(1984, 372.zk.) 214-215.

b) 1987ko uztaillaren 10ean bere bizitzako euskal-lanagaitik omendua izan zan Derioko Udal Euskal Ikastaroaren barruan: an batu ziran Bizkaiko Kultur-gizon eta eleiz-gizon nagusiak, Gotzaina tarteko[275].

c) 1989ko apirillaren 7an Bizkaiko Aldundiak ere eskeini eutson beste omenaldi ederra[276].

Eusko Jaurlaritzak, bizitzan zehar euskararen alde eginiko lana eskertu nahirik 1989.eko Euskal Letretako Merezimenduzko Saria eman zion. Dimako udalak ere, 1989.eko uztailan omenaldi hunkikorra eskaini zion Oba auzoan bere omenez hormaharri bat jarriz.

Bukatzeko, Aita Lino Akesolo, etenik gabeko irakurketaren bidez jakituria eskuratu duen jankintsu autodidakta, batez ere historiografo, lexikologo, ikertzaile, itzultzaile eta idazle saiolari paregabea izan dugula aitor dezakegu, inolazko huts egiteko arriskurik gabe.

ii. *Aita Nicolás de Jesús (Bizente Batiz Bilbao 1907-)*[277].

Gerrikaitzen jaio zen; hala ere Markinan egin zituen beraren lehen ikasketak, familia bertara aldatu baitzen bizitzera. Larrean nobiziatu urtea egin ondoren profesioa 1924.eko urriaren 13an egin zuen Nicolás de Jesús izena hartuz.

Humanistikako azken ikasturtea (1924-1925) Markinan egin zuen. Bi urte filosofia ikasten Gasteizen egin ondoren 1927.eko abenduan Kolonbiara joan zen bertan bukatu zituela eliz ikasketak. 1931.eko uztailaren 19an sagaratu zuten apaiz Leyva-n.

1935.ean Euskal Herrira itzulita gero, gerrak harrapatu zuen eta gudarien kaperau zereginetan aritu zen. Jarraian zenbait espetxetan atxilotuta egon behar izan zuen, 1940.ean askatua izan arte. 1944.ean berriro joan zen Amerikara. 1969.ean itzuli zen Euskal Herrira. 1970.etik 1976.erarte Markinako Karmengo etxean bizi izan zen. 1977.ean barriro Amerikara (Panamá) joan zen, bi urte geroago (1979) itzuli beharra izan zuelarik. Ordutik aurrera Donostian bizi izan da.

Euskal idazle gisa hainbat aldizkaritan parte hartu zuen prosazko lanen zein olerkien bidez Buenos Aires-eko eta Euskal Herriko aldizkarietan; horrela, esaterako, *Zeruko Argia, Euzkadi, Karmengo Argia, Eguna, Karmel, Euzko-Gogoa, Agur, Goiz Argi* etabarretan. Barbin, Xalokin (Nikolax)... ezizenak erabili izan ditu.

Era berean, 1973.eko abuztuan *Gurutz-Bidea* argitaratu zuen euskaraz.

---

[275] Ik. Julen URKIZA, *Lino Akesolo...*, Karmel 1987-3, 73-82.

[276] J. URKIZA, *Lino Akesolo...*, Karmel 1989-2, 5-19.

[277] GPKA, bizi diren erlijiosoen karpetan. Ik., era berean, S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, VI, Donostia 1990, 175-177.

Baditu, baita ere, gertakari ezberdinetarako eginiko zenbait bertso argitaratu gabe. Azken urte hauetan Karmeldarren santu-santen jaietarako mezetako zein elizotoitzetako testuak euskaratu ditu.

jj. *Aita Luis Baraiazarra (1940-)*[278]

1) *Bizitzako datu batzu.*

Luis, Meñakan (Bizkaia) jaio zen 1940.eko martxoaren 17an; beraren gurasoak Isidro Baraiazarra eta Benigna Chertudi dira. Lehen ikasketak Meñakako Eskola estatalean 1946-1951. urteen artean egin ondoren, Amorebietako karmeldarren ikastetxera joan zen 1951.ean, ikasketak egiten Nafarroako Villafranca-n jarraituz.

1957.eko abuztuaren 2an sartu zen Larreako nobiziatuan, profesioa hurrengo urteko abuztuaren 4ean egin zuela, Luis del Sagrado Corazón de Jesús izena hartuz. Jarraian urtebete Markinan humanistikako ikasketak bukatzen. Gero hiru urte filosofia ikasten Gasteizen eta beste lau urte teologia ikasten Begoñako Karmelon (Bilbo). 1966.eko martxoaren 12an sagaratu zuten apaiz.

Urte horretan (1966) izendatu zuten Markinako Karmengo etxeko komentual eta bertan egin ditu 25 urte luze.

Aldi horretan zehar, pastoraltza iharduera arrunta Karmengo elizan burutu eta Markinako pastoraltza taldean urteetan zehar aritzeaz gainera, hainbat urtetan (1971-1989) ihardun du irakaskuntzan, O.H.O.eko lehen mailan, Markinako «Vera Cruz» ikastetxean; horretarako, lehenengo, magistergo titulua lortu zuen Valladolid-en (1970-III-17) eta, geroago, irakaskuntza, ikasketak eta pastoraltza batera burutuz, Euskal Filologian lizentziatura Deustun 1982.eko ekainaren 30ean.

2) *Euskal idazlea.*

Beste sari batzuren artean, 1984.ean «Lizardi» olerki saria lortu zuen. Era berean, lehen saria jaso zuen Iparragirre-ren mendeurrena zela eta antolatutako sariketan (1981-XI-9) eta, baita, «Orixe saria» ere 1988.ean..

Bizitzan zehar hainbat aldizkaritan eman ditu argitara lanak, batez ere *Karmelen*, aldizkariko lankiderik finenetarikoa izan delarik azken 22 urte hauetan zehar (1970-1991).

Oso lan handia burutu du, era berean, *Kili-kili* aldizkari eta liburu sortarako hainbat lan itzuliz, batuan zein bizkaieraz jarriz edota besteen itzulpenak orraztuz..

Lan ugaria burutu izan du, baita ere, bertsolaritza bultzatuz. Hainbat urtetan izan da haur txikiei bertsotan irakasten zein beraien arteko lehiaketetan epaimahaiko.

[278] Ik. GPKA: Datu biografiko eta bibliografiko batzu erlijioso bizien karpetetan aurkitzen dira.

1987.ean Araba eta Bizkaiko Txapelketan epaimahaiko izendatu zuten eta Euskal Herriko Txapelketa nagusirako epaimahaiko ordezko. 1991.ean Euskal Herriko Bertsolari Elkarteko batzordeko eta Araba eta Bizkaiko idazkari izendatua izan zen. Algortako «Balentin Enbeita» bertsopaper lehiaketa ospetsuko epaile izan ohi da urtero.

Argitaratuak ditu liburu batzu ere. Hala, *Euskal Herriaren Historia*. Gero-Mensajero Kimu saila (2 liburuki). Bilbo, 1977. Eta bere hainbat olerki saritu bildurik dituen «Txirlorak» 1985.ean..

Azken urte hauetan era bereziz «Bostak bat» lantaldekoa delarik, euskarako definiziozko hiztegiak zein sinonimo hiztegiak ateratzen aritu izan da (argitaratuak dituztela 5 hiztegi), egun osoz horretan ihardunez..

b. **Ikasketa urteren bat Markinako Karmengo etxean egin zutenak.**

aa. *Aita Agustin de S. Francisco (Francisco Atutxa Bikarregi; 1908-1973)*[279].

Dimako (Bizkaia) semea izan zen. Profesioa 1926.eko uztailaren 10ean egin zuen Larrean. Profesio-eginberrien humanistikako ikasturtea Markinan (1926-1927) egin zuen. Filosofiako ikasketak Gasteizen (1927-1930) burutu zituen eta Begoñako Karmelon teologiako lehen ikasturtea egin ondoren (1930-1931) Amerikara bidali zuten ikasketak Txilan-en (Txile) amaitu zituela. 1933.eko abenduaren 23an sagaratu zuten apaiz Txilan-en.

Bere apostolutza iharduera Hego-Amerikan burutu zuen 1973.eko uztailaren 27an hil zelarik Liman.

Arte sentikortasun handiko pertsona izan zen eta euskal kultura eta hizkuntza bere herritik kanpo bizi izan zituen. 1930.ean, Amerikara joan aurretik, bi sari lortu zituen Donostian bertso lehiaketetan. Zenbait aldizkaritan parte hartu zuen, batez ere *Karmengo Argia* karmeldarrenean, «Elorri», «Eltzegor», «Emaldiko»,... ezizenak erabiliz. Dozena bat olerki argitaratu zituen. 1969.ean Karakas-en *«Mugarra Begiraria»*[280] poema argitaratu zuen.

Zaitegi-k honako bertsook eskaini zizkion:

Bertso berrietan zeure euskal-gogoa
ixuri oi duzun olerkari fina!
Entzun-ala kanta gure biotz-mina,
il-urren baitago aberri osoa.
Urbillean duzu orruz itxasoa
beraren besteko bezaizu samina

[279] GPKA, C, 18 kutx.; BOPSJN 6(1974, 82.zk.) 522-523; Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, larrea-Zornotza 1989, 615-619; S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, VI, Donostia, 1990, 182-196.

[280] Caracas 1969, 94 orr.

Eztiaren ordez, besteak ezina,
erabil ezazu zizkida miztoa...
Egin kukurruku, aizatuz iluna!
Gauaren ondoren, badator eguna»[281]

bb. *Aita Antonio del Niño Jesús (José Antonio Goiria Muniozguren, 1908-1990)*[282]

Galdakaoko semea zen. Ikasketak Larreako ikastetxean egin eta nobiziatuko urtearen ondoren egin zuen profesioa 1925.eko uztailaren 8an Antonio del Niño Jesús izena hartuz. Profesio-eginberrien ikasturtea (1925-1926), humanistikako ikasketen azkena Markinan egin zuen. Hiru urte (1926-1929) Gasteizen filosofia ikasten egin ondoren Begoñako Karmelora joan zen teologiako ikasketak egitera, baina bere ikasketak Kolonbian bukatu zituen. 1933.eko urtarrilaren 29an sagaratu zuten apaiz Medellin-en. Hainbat urte geroago, Euskal Herrira itzuli ondoren Larrean (1946-1947), Begoñan (1948-1954) eta azkenik Eibarren (1955-1990) bizi izan zen..

Begoñako Karmelon egon zenean, argi utzi zuen euskal kulturak sortzen zion kezka larria, geroago ospetsua izango zen «Gaztedi» dantza taldea sortuz. Talde horrek 1991.eko urrian ospatu izan du beraren berrogeigarren urtemuga ospakizun handiak eginez eta liburu bat argitaratuz. Bertan eskerrona erakutsi diote Aita Txantoni.

Literatura iharduerari dagokionean, hainbat aldizkaritan prosa zein olerki lanak argitaratuz parte hartu zuela esan beharra dago. Horrela, esaterako, *Jaungoikozale, Euzko-Gogoa, Egan, Olerti, Anaitasuna, Euskal-Esnalea, Ekin, Euzko-Enda, Euzkadi, Euskerea, Goiz-Argi, Agur, Zer,* etabarretan; era bereziz Karmengo Argia eta Karmel karmeldarren Ordenako aldizkarietan; azken honetan 70 idazlan labur eta 20 olerki argitaratu zituen. Apaitzekoa da Markinan ikasle zela (1925-1926) hasi zela idazten, *Euskal-Erriaren Alde* aldizkariak eratutako lehaiketara bidali zuen lanak «accesit»-a merezi izan zuela..

Hainbat liburu argitaratu zituen euskaraz:.

— *Berrio-Otxoaren Bizitza*. Bilbao, 1952, 96 orr.

— *Karmengo Eskapularioa*. Bilbao, 1952, 201 orr.

— *Fatimako Ama Birjina*. Gasteiz, 1955, 260 orr.

— *Goi-Bidez*. Bilbao, 1968, 423 + IV orr.

— *Kristoren eliza*. Bilbao, 1971, 259 orr.

— *Gernika'ko Arbola*. Bilbao [1983], 36 orr[283].

---

[281] Lino AKESOLO, *Idazlan guztiak*, 619.orr.

[282] GPKA, C, 66.kutx.; Santi ONAINDIA, *Euskal Literatura*, VI, Donostia 1990, 186-189; *Aita Jose Antonio Goiria (1908-1990)*, Zer (1991), 149.zkia) 2-3.

[283] Argitaratu gabeko idazlan batzu ere baditu; ik. S. ONAINDIA, *Euskal Literatura*, VI.

cc. *Aita Santi Onaindia (1909-)*[284]

1) *Bizitzako datu batzu.*

Santiago Amoroton (Bizkaia) jaio zen 1909.eko martxoaren 24ean; beraren gurasoak Miguel Onaindia eta Jacinta Baseta izan ziren. Lehen ikasketak auzoko eskolan ikasi ondoren, Larreako ikastetxean sartu zen 1921.eko abenduaren 4ean. Karmeldarren habitua Larreako nobiziatuan hartu zuen 1926.eko uztailaren 9ean, profesioa hurrengo urtean, uztailaren 10ean egin zuela Santiago de la Anunciación izena hartuz.

Hurrengo urtea, 1927-1928, hau da, Humanistikako azken ikasturtea Markinako Karmengo etxean egin zuen; hemen sakondu zuen euskararen alorra eta idazlanak idazten hasi zen berak kontatzen duen bezala: *«Emen Aita Urbano Manzisidor genduan maisu. Onek erakutsiko euskun len-ikasiak bir-ikasi, gai barriak aztertu ta abar; baita onek erakutsiko euskun euskera jatorra, atzizki, idatzi eta gaiñerakoak, lanak duinki idatzi eta aztertzen, ez bizkaieraz edo gipuzkeraz bakarrik, baita beste izkelgietan be; ez bizkaitar eta gipuzkoarroi bakarrik, baita arabar, napartar eta errioxarrai be. Donostia'ko Euskal Esnalea-n datoz orrein lanak, 1925-1928 bitartean»*[285]. Markinako Karmengo etxean eginiko urte honetan Euskal Esnalea aldizkariak antolatutako sari bat lortu zuen.

Jarraian hiru ikasturte filosofia ikasten Gasteizen (1928-1931) eta lau teologiakoak Bilboko Begoñako Karmelon (1931-1935). Hemen egin zen apaiz 1934.eko ekainaren 8an. 1935.ean Larreako komentura bidali zuten 1936. urteko azkenerarte; urte horretan gerra zibila zela bide, euskal gudaroztera deitua izan zen eta bertan egin zituen 8 hilabete. Preso hartu zuten eta auzi sumarisimoan epaitua izan zen Santoña-n, 1937.eko irailaren 9an 30 urtetako kartzela zigorra eman ziotela.

Hiru urte egin zituen El Dueso, Nanclares de Oca, Dueñas eta Carmona-ko kartzeletan. 1940.eko uztailaren 29ean askatua izan ondoren, Rigada-ko basamortukomentura bidali zuten 1942.erarte; gero, Gasteizeko komentura, bertan urtebete egin zuela; eta, jarraian, 1948.eko maiatzerarte Logronioko komentuan bizi izan zen, handik Rigada-ko basamortura (Hoz de Anero) priore gisa joan zela.

1951.ean Euskal Herrira etorri zen, Larrea izan zuela bizi-leku. Eta hemen euskal lanetarako garra berbiztu zitzaion. Azkenengo idazlana 1936.ean idatzi bazuen ere, 1951.ean, berriro hasi zen *Karmengo Amaren egutegian* idazlanak argitaratzen, eta gaur arte jo eta ke, etenik gabe jarraitu izan du idatzi eta argitaratu, inolazko etenaldirik izan gabe.

Hainbat omenaldi jaso izan ditu azken urteotan. Azkenengoa Zornotzan 1989.ean.

---

[284] GPKA, Aita Santi Onaindiak sinatutako datu eta agiri batzu, oraindik bizi diren erlijiosoei buruzko karpetetan daude. Idazlan ugari dugu Aita S.Onaindiaren pertsona eta literatur lanari buruz... Begiratu, bereziki, beraren bizitza lanei buruz berak idatzitakoa: *Oroi-txinpartak*, Larrea 1988, 472 orr.; ik., era berean, Julen URKIZA, *S.Onaindiaren euskal idazlanen bibliografia*, Amorebieta-Etxano 1989,58. orr.; P.URIBARREN, *Aita Santi Onaindia: gizona eta obra*, JAKIN, 53 (1989) 141-164.

[285] S. ONAINDIA, *Oroi-txinpartak*, 31.orr.

2) *Euskal idazlea.*

Apaiz-praile zereginetan burututako lan erlijiosoaz gainera, bere bizitza osoa euskal kulturaren alde lanean erabili du: euskara irakasten, hitzaldiak ematen, euskal kultur-giroa sortzen eta, batez ere, liburuak eta idazlanak idazten eta argitaratzen.

— Euskal Kultura girotzeko eginkizun modura hartu behar da *Karmel* aldizkaria aurrera eramateko egin izan zituen zuzendari-ahaleginak (1958-1970) edota *Olerti* sortuz urteetan zehar (1959-1969, 1980-1990) olerkiari eta euskarari emaniko bultzada, bertan aldian aldiko olerkariik onenen lanak argitaratu eta, era berean, olerkiegunean egiten ziren sariketak eta euskal-jaia bide zirela jendea idaztera bultzatu zituela.

— Aita Onaindiak liburugintzan erakutsi duen garra eta grina handia izan da, benetan. Hor daude berak euskaraz argitaratu dituen 60 liburuak: bere-bereak, besteenak, itzulpenak, etab. Alor honetan benetan merezimendu handikoa izan zen beraren lehen liburua: *Milla euskal-olerki eder* (1954); horren ondoan, baita ere, interesgarriak *Jolasketa* (1965) edota *Lamiñak* (1978). *Euskal literatura* (1971-1990) bat ere idatzi du...

— Hainbat eta hainbat idazlan labur idatzi izan ditu, bai prosazko lanak baita olerkiak: oso emankorra izan dugu gizon hau, 550 idazlan labur baino gehiago idatzi dituela; edozetaz idazteko gai agertu izan du bere burua, bereziki euskal-literaturaren arloan aritu bada ere.

Zornotzako udalak 1989.eko maiatzean eginiko omenaldia zela eta Aita Onaindiaren bibliografia ia osoa argitaratu nuen 58 orrialdetako liburuska batetan[285a]. Bertan aurkituko du irakurleak nahi duen informazio ugaria.

Beraren lan ugaria laburkiro aztertzen saituaz honako banaketa egin dezakegu: a) hainbat eta hainbat idazlan labur 25 aldizkaritan sakabanatuta; b) idazle ona dugu lan laburretan eta kontaketetan, irudimenak narrazioaren haritik daramanean, horrela *Laminak* liburuan. c) Beraren olerkiak bildu eta argitaratuak izan dira 1989.ean[285b]. d) Beste idazle batzuren hainbat lan argitaratu ditu: Arrese-Beitia, Txomin Aguirre, Esteban Urtiaga «Lauaxeta» eta abarren lanak. e) Euskal Literatura ere jorratu du, aldizkarietan argitaratutako lan laburrez gainera *Euskal Literatura* (1971-1990) sei liburukitan argitaratu duela. f) nazioarteko hainbat klasikoren eta idazle ospetsuren lanak itzuli izan ditu: Bergili, Homero, Santa Teresa de Jesús, Rabindranath Tagore, J.W.Göthe, Santa Teresa del Niño Jesús (de Lisieux) etc.

Aita Santi Onaindiaren lan bila ihardutean, kontu handiz jokatu beharra dago, hainbat ezizen erabili izan dituelako; besterik beste, honako hauek: O.; S.O.; Basati; Bizkargi; Igotz; Larre; larrea; Oiz; (Otar?)...

[285a] Julen URKIZA, *S.Onaindiaren euskal idazlanen bibliografia*, Amorebieta-Etxano 1989,58 orr.

[285b] S.ONAINDIA, *Olerki guztien bilduma*. Edizioaren prestatzailea: Julen Urkiza. Larrea-Zornotza 1989, XXVI - 315 orr.

Lan zabal eta oparo honi buruz erizpena ematerakoan berriro errepikatu egingo dut hemen beraren biografia argitaratzerakoan sarreran esandakoa:

«S.Onaindia dogula euskal literaturako langille ugaritsua: nik ez dot ezagutzen Euskal herriko historiran, ez atzo eta ez gaur, euskaraz horrenbeste idatzi eta argitaratu daunenik... 19.000 orrialde inguru! Kantitate ugaritsuena...

Euskara menperatasunaz erabiltzen gaitasuna edo ta erreztasuna izan da bere kalitaterik onenetariko bat. Bere Lamiñak liburuan erakusten deuskun lez, euskera ona erabiltzen dakiena da bera.

Nire ustez Aita Onaindia euskal kulturaren dibulgadorerik haundienetakoa dogu, gehienetan gazetarien estilo, espiritu ta arintasunez, Literato-garra, sena ta irudimena daukoz, sormena baino gehiago behar bada.

Dibulgadore haundia izan da bai; han-hor-hemen ikusi-ikasiak bere lumaren bidez euskal munduan zabaltzen ahalegindu dan gizona dogu. Horregaitik ez deutso inok eskatuko ez sakontasunik, ez teknika-sistemako seriotasun arduratsurik...

Esan daigun, bere merituak autortuaz Euskaltzaindiak «Euskaltzain ohorezko» izendatu ebala».

c. **Beste batzu.**

Markinako Karmengo etxearekin zerikusi nabarmena izan zuten zenbait karmeldar euskaldun idazleren zerrenda aurkeztu ondoren, beste izen batzu gogoratuz osotu nahi dut atal hau. Laburkiro baldin bada ere, heziketa urteren bat (gehienak, behintzat) Markinan egin zuten karmeldar batzuren izenak gogora ekarriko ditut, bada. Batez ere karmeldarron "Karmengo Argia" eta "Karmel" aldizkarien inguruan ibili izandakoak dira. Ez ditut idazle ezagunagoak edo ospetsuagoak izanik lehenago aipatuak berriro gogoratuko.

aa. *Lehen garaietakoak:*

Idazlanak galdu izan direlako edo, ahaztuak izan diren antzinako idazleen artean Aita José de Jesús María (José Antonio Araquistain, 1700-1764) karmeldarrak aparteko aipamena merezi du. Itziarren jaio zen. 1818-XI-2an hartu zuen karmeldarren habitua Markinako komentuan, nobiziatua egitera Iruñera joan zela. Latin ikastera edo joan eta denboraldi bat Markinan egin zuela suposa daiteke. Bizitzan zehar hainbat kargu izan zituen: Iruñeko teologiako irakasle (1736-1745), Logronioko ikastetxeko nagusi (1748-1751), Burgoseko ikastetxeko nagusi (1751-1754), Definitore Jeneral (1754-1757), Nafarroako S. Joaquin probintziako Probintzial (1760-1763)... 1764-XI-29an hil zen Logronion.

Hainbat lan idatzi zituen teologia eta mistikari buruz... baina galdu egin dira. Euskara alorrari dagokionean, Manuel Larramendi-rekin harremanetan aritu zen; hark karmeldar honen paper batzu gorde zituen. Honela heldu dira gure eskuetara Aita

Larramendi-ren *Diccionario Trilingüe* deituari eginiko iruzkinak eta ekarpenak. Luis Mitxelana hizkuntzalariaren esanetan euskal dialektologiari buruzko lanen aintzindari izan zen[285c].

bb. *Gerra zibilaren aurre-ostekoak.*

1936.eko gerra zibilaren aurreko urteetan zein geroago, hainbat karmeldar idazleren biltoki izan dira "Karmengo Argia" eta "Karmel" aldizkariak.

"Karmengo Argia" (1931-1936) oso aldizkari apala eta atsegina izan zen; irakurtzeko gogoa zuten euskal irakurleei zuzendua zelarik, euskara zein erlijio eta giza bizitza bultzatzen zituen. Gerra zibila hasterakoan 5.000 harpidedun zituen. Beraren inguruan ihardundakoen artean, lehenago aipatuak alde utzirik, honako idazleok gogora ditzakegu:

— Domingo Agirre (1908-), Aita Luki, jarraiko ezizenok, Landaxu, Luki, Mañortu, Txomin, Atxiti, Arosteguieta, etab. erabiliz, hainbat idazlan, prosaz zein bertsoz idatzi zituena; geroago ere idazten jarraitu zuen "Karmengo Egutegia" eta "Karmel" aldizkarietan.

— Aita Pio Etxebarria (1899-1945), "Karmengo Argia" aldizkariko idazle fina izan zena; Txilera joan ondoren ere idazten jarraitu zuen. Aita Onaindiarekin batera *Goi-zale* (Gasteiz 1956, 544 orr.) argitaratu zuen.

— Aita Doroteo de la Sagrada Familia (Barrutia, 1883-1948), Sebastian Atutxa (1909-1964), Aita Angelo (Jose Jauregi 1897-1978) Aita Lino, Aita Onaindia etab. idaztera bultzatu zituena, etab.

Gerra ostean "Karmengo Egutegia" (1951-1962) agertu zen eta geroago lehen garaiko "Karmel" (1957-1961)... Garai honetan, berriro ekin ziren idazten lehenago aipaturiko batzu; horiekin batera, liburu honetan zenbait aldiz aipatua izan den Aita Migel Mari Juaristi (1923-), hainbat idazlan eta bertso idatzi zituela; honek, bestalde, aparteko aipamena merezi du, idazteaz gainera, Markinako ikastetxean euskara eta euskal literaturako irakasle izanik, gazteak "Karmel" aldizkarian idaztera bultzatu zituelako.

cc. *Azken belaunaldia.*

Garai honetan (1970-1992) berriro agertu izan da inolazko etenik gabe "Karmel" aldizkaria. Beraren inguruan hainbat idazle ageri zaigu, lehenago aipatutako batzuekin batera, jo eta ke lanean:

— Karmelo Zubizarreta (1927-), "Melo Alfereza" izengoitia erabiliz idazkera bizi eta herrikoiaz beteriko idazlan ugari idatzi izan dituena. Berau izan zen, bestalde, aldizkariaren zuzendaria hamar urtetan zehar (1974-1983). Baditu eleberri batzu ere argitaratuak.

[285c] Laster Aita Antonio Unzuetak *Karmel-Sorta* honetan Aita J.A. Araquistain-en nortasunari eta literatur lanari buruzko ikerlan bat, beraren lanak jasoko dituen eranskina duela, argitaratuko du.

— Luis Arostegi (1939-) "Karmel" aldizkarian 30 idazlan baino gehiago idatzi izan dituena; "Olerti" eta beste aldizkari batzutan ere eskuhartu izan duena. Joan Gurutzekoaren idazlan hautatuak prestatzen ari dena.

— Patxi Uribarren (1942-), teologia eta linguistikako lizentziatura-tesiak euskaraz egin ondoren, 24 urtetik aurrera, nagusien irakaskuntzan, unibertsitatean zein administrazioan euskara bultzatzen ihardun izan duena. "Karmel" aldizkarian 60 idazlan baino gehiago argitaratu izan ditu. Beste aldizkari batzutan era partehartu izan du. Dagoenekoz 5 euskal hiztegi argitaratuak dituen "Bostak bat" lantaldeko sortzailetariko eta kide ere bada.

— Andoni Olea (1939-), teologian doktoradutza lortu eta irakaskuntzako zein pastoralgintzako zereginekin batera, azken urte hauetan, etengabeki "Karmel" aldizkarian idazten diharduena.

— Julen Urkiza (1944-), Austrian doktoradutza egin ondoren, Euskal Herriko Elizaren historiarako agiri bilketa egiten diharduena, azken urte hauetan "Karmel" aldizkariaren zuzendaria eta "Karmel-Sorta" deritzanaren arduraduna. Liburu honen egilea eta, bertan ageri denez, zenbait ikerlanetan aritua.

Hauekin batera, izan dira eta badira, beste batzu ere, noizbehinka "Karmel" aldizkarian idatzi izan dutenak, hala nola: Joseba Zubikarai (1919-), Jose Mari Etxebarria (1942-), Jose Ramon Iturriaga (1942-)...

3. Kultura euskaraz

a. Bizimodua euskaraz

Markinako Karmengo etxean bizi izan edo heziketa hartu zutelarik aipatu berri ditugun euskal idazleak Karmengo etxean euskal kultur alorrean burututako bizimoduaren ezaugarri dira.

Hiru mendetako hiztorian zehar bertako komunitatea ez da egon euskaldun hutsez bakarrik osotua. Horrek eragina zuen eguneroko bizimoduan, gazteleraren erabilera ere nahitaezko bihurtzen zuela; hala ere, beti izan da, bertan sermolari euskaldunak edukitzeko ardura bizia.

Azken urteetan, gutxienez, ikasle euskaldun zirenentzat nahitaezkoa bihurtu zen euskarako eskolak jasotea. Horrek hainbat gazterengan euskaraganako gogoa eta maitasuna biztu zuen. Eta, egin-eginean, azken hamarkada horietan komunitateko partaide guztiak euskaldunak izan dira.

Komunitateko barru bizitzan, mendez mende latinez izaten zen ordu-otoitzen liburua, 1975.etik aurrera, alde batetan, behinik behin, euskaraz egiten hasi ziren. Hasieratan arrastiko otoitza izan zen[286], gero gainerako eliz otoitz gehiena euskara egitera aldatzeko.

Azken hamarkada hauetan, beraz, eguneroko komentuko bizitzan erabili izan den mintzaira euskara izan da.

---

[286] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 135.orr.

b. Euskal Liburutegi Alkartua

Lehenago komentuko bibliotekari buruz hitz egin du, komunitateko bizitzan zein ikastetxekoan zuen garrantzia azpimarratuz. Geroago, karmeldarren Euskal Herriko Probintzian euskal biblioteka sortzeko gogoak, Markinako komentuko fraideak aparte, Bizkaiko eta Gipuzkoako beste komentu batzuetakoak ere zeregin horretara bultzatu zituen. Biblioteka hori sortzeak karmeldar euskaldunei kultur alorrean nortasuna emango zieła uste baitzen.

Euskal Liburutegi Alkartua antolatzeko asmoa 1968. urte inguruan sortu zen; iradokizuna, hilberri den karmeldarren probintziako artxibari zen Aita Higinio Gandarias-ena izan zen. Harrera hobezina izan zuen asmoak.

Helburua, ekonomiak ezarritako mugen ahalbideak ahalik eta egokien erabiliz, gure erlijio eta kultura ministeritza burutu behar genuen herriko hizkuntza, literatura, historia eta, orokorrean, kultura bereziari buruzko biblioteka on bat egitea zen. Ekonomikoki ezinezkoa gertatzen zen komunitate bakoitzak bere biblioteka egokiro hornitzea. Bestalde, gure komentuetako biblioteketan izandako hainbat eta hainbat liburu eta aldizkari sorta desagertu egin ziren gerra zibilean, probintzako gure komentuetan ale bakarrak sakabanaturik geratu zirela. Era berean, gure biblioteka gehientsuenetan ezin ziren bakarrean lortu sortak osotzeko beharrezkoak ziren halako aleak zein antzinako euskal liburu batzu, oso arraroak edo bakanak zirelako eta horrek kostu handia suposatzen zuelako. Era berean, edozein lan sakon burutu nahi izanez gero, ezinbestekoa gertatzen zen bibliografia osoa, ahal zen neurrian, toki berean bilduta edukitzea. Beharrezkotzat jo zen, bada, euskal kulturari buruzko liburu guztiak biblioteka elkartu batetan biltzea eta aurrerantzean argitaratzen ziren berriak erosiz ihardutea.

Deia egin zitzaien honelako biblioteka eratzeko gertu izango zirela uste zen komentu guztiei. Lehen bilera 1969.eko otsailean egin zen karmeldarren Larreako komentuan. Begoña, Amorebieta, Markina, Eibar, Donostia, Altzo eta Larreako ordezkariak bildu ziren[287].

1969.eko otsailaren 7an hainbat gorabehera aztertu ziren, besterik beste, zein izan zitekeen horretarako komenturik egokiena, liburuen ekarpena, beraien jabetza, etxe bakoitzak egin beharreko ekarpen ekonomikoa eta abar. Hasiera batetan Larreako komentuan jartzea pentsatu zen, baina, hori bilera hartan eratu zen batzordearen esku uzti zen. Batzorde horretako kide, honakook izendatu ziren: Lino Akesolo, Santiago Onaindia, Lon Artega, Carmelo Zubizarreta et Miguel Maria Juaristi.

Aita Lon Arteagak berehala egin zuen Markina, Amorebieta, Larrea, Eibar eta Altzon aurkitzen ziren liburu, liburuxka, aldizkari eta abarren zerrenda osoa; geroago Begoñan zeudena.

Nahiz eta batzordea gogotsu lanean hasi, ez zen benetako urratsik 1974. urterarte eman. Arazo hori zela eta, 1973.ean hainbat gutun idatzi zitzaien Probintziako ar-

[287] GPKA, Markina 3, *Euskal Liburutegi Alkartua: "Karmel"*.

duradunei. Horrela, Aita Luis Baraiazarrak Aita Francisco Ibarmia Probintzialari idatzi zion *«Karmeldar lege-barruan nola euskal-girotu gure etxe-barruko bizitza»* gaiari buruz eginiko azken bileren berri emanez; eta Euskal Liburutegi Alkartua eginbeharra gogoratzen zion, horretarako Probintziaren laguntza behar zela esanez. Azken bileran Biblioteka Markinan ezartzea erabaki zen[288].

Probintziako Definitorioak arazoa aztertu zuen; Kontseiluak, euren erizpena batzordean ordezkatuta zeuden etxeko ordezkariez gainera Probintziako beste fraide batzuk ere beren erizpena eman zezatela nahi izan zuen, batez ere bibliotekaren kokaguneari buruz, beraren ardura Aita Luis berberak har zezakeelarik[289].

Aita Lon Arteagak ekin eta ekin jarraitzen zuen biblioteka Markinan eratu nahiean. 1974.eko urtarrilean, aipaturiko batzordea Aita Tomas Ureta Probintziako Definitorea buru zuela bildu ondoren, biblioteka ofizialki onartu eta Probintziaren dirulaguntza, eratzeko gogoa zuten komentuen laguntza ekonomikoekin batera, jasotea erabaki zen. Gasteizen 1974.eko otsailaren bian bildutako Probintziako Definitorioak onartu eta onetsi egin zuen egin zitzaion proposamena. Honala irakurtzen da eguneko aktan:

«1. El lugar definitivo de la nueva biblioteka será Begoña. Pero, mientras no se termine la construcción del nuevo convento, se señala como lugar más adecuado Markina.

2. La nueva biblioteca vasca pertenecerá a la Provincia, y de ninguna manera al convento donde esté instalada.

3. La Provincia ayudará con una subvención inicial de 150.000 pesetas, y una aportación mensual de 7.000 pesetas. Los conventos de Begoña, Larrea, Marquina, Eibar y San Sebastián colaborarán con la cantidad de 1.000 pesetas mensualmente cada uno.

4. Los libros pertenecientes a las casas, que ya no se venden o son de adquisición muy costosa, se reunirán en la nueva biblioteca, mantendrán el sello de procedencia y será obligada su devolución caso de que se reediten o se tengan medios suficientes para comprarlos.

5. Los libros, que se compren llevarán un sello especial. Los demás bienes muebles que se adquieran, por ejemplo estanterías, quedarán consignados al servicio permanente de la biblioteca.

6. A los conventos cuya aportación se requiera, se les dará cuenta de los libros que se compren.

7. Se cree oportuno que, dentro de la biblioteca se incluya una sección de música vasca.

8. La biblioteca vasca estará dirigida por una comisión integrada por personas directamente encargadas de la misma y personas asesoras. Los PP. directamente

[288] Ibd., 1973-IV-24eko gutuna.
[289] Ibd.

encargados serán Lon y Lino, con el asesoramiento de los PP. Onaindia, Carmelo, Luis Baraiazarra y Patxi Uribarren.

9. Todo lo referente a la supresión, modificación o desarrollo más detallado de estas bases se deja en manos de la comisión nombrada»[290].

Probintziako Kontseiluak 1975.eko abenduaren 9an emandako urratsak aztertu zituen: hasierako 150.000 pezetak eta, baita ere, hileroko 7.000 pezetak eman behar zituela ikusi zuen. Atzeramenduz eman gabeko dirua ematea agindu zuen eta urtarriletik aurrera kuota ordaintzen hastea. Era berean, Markina, Larrea, Eibar, Begoña eta Donostiako komentuek biblioteka horretarako hileroko 1.000 pezetatako ekarpena egitea onartu zuten[291].

1977.eko Gabonetan, Markinatik Begoñara aldatu zen Euskal Liburutegi Alkartua eta Aita Lon kezkati agertzen zen: «*Zoritxarrez, eta besteekandik entzun eta neuk ikusi dodanez, iñor ez da Liburutegi orregaz Begoña'n arduratu, au da, bertanbeera itxita dagoala esan geinke. Probintziak eta sei konbentuk orretan eralgi daben eta eralgiten ari diran diruak begirune eta erantzukizun geiago merezi dabela uste dot. Bestalde, lanik gaitzena eginda dagoanez, tamalgarria litzakela deritsot asmorik ederrenaz egindako lan ori bertan-beera bide-erdian baztartzea. Beraz, bearrezkoa dala uste dot gai orri buruz batzar bat egitea, aurrera jarraitzea merezi dauan ala ez ikusteko, baita zelan jarraitu be*»[292].

Egun batzu geroago Probintziala Begoñako erlijiosoekin elkarrizketa izan zuen euskal bibliotekari buruz egokiro zaindua izan behar zuela gogoratuz; erlijiosoek ez zela Begoñan bibliotekari berririk beharko erantzun zioten, zeregin hori betetzeko nahiko erlijioso bizi zirela bertan esanez. Probintzialak Euskal Liburutegi Elkartuaren ardura izango zuen erlijiosoa bilatzeko ahaleginak egiteko erabakia hartu zuen[293].

Oharterazi egin behar da, *Euskal Liburutegi Alkartua* Begoñara eramana izan bazen ere, Markinako Karmengo komentuak baduela euskal liburutegi bat Begoñakoa baino askosaz txikiagoa baldin bada ere.

c. 'Zerutxu' Ikastola[294]

Gerra aurreko ikastolen haria berrartuz 60.eko hamarkadan berriro hasi ziren agertzen egoera sozio-politiko eta linguistiko oso ezberdinetan izan bazen ere. Horrela, Markinako Karmengo komentuan martxan jarri zen «Zerutxu» ikastola Bizkaiko lehenetarikoa dugu.

---

[290] Ibd.
[291] MKA, A-XVIII-3/(4).
[292] GPKA, Markina 3, Aita Lon Arteagak Félix Malaxetxebarria Probintzialari 1978-VII-8an eginiko gutuna.
[293] Ibd., Aita Probintzialak A. Lon Arteagari 1978-VIII-3an eginiko gutuna.
[294] Ikusi MKA, E-II-ko agiriak; H-I-20, etab.; eta Luis Baraizarrak argitaratutako idazlan laburrak: "*Zerutxu*" *ikastolaren 25.urtea*, Karmel, 1989-3, 65-73; eta Garaian (1989).

aa. *Beharrizana eta saioak.*

Sorburua, euskara salbatzeko euskal eskola sortzeko premiaren kontzientzia izan zen. Aita Miguel Maria Juaristi karmeldarrak Justo Arrieta, Markinako alkate eta probintziako Diputatu Jnarekin zuen adiskidetasuna izan zen Markinan euskararen galera gelditzeko elkarrizketen abiaburu.

Lehen unean, biak Markinako Vera Cruz ikastetxera jo zuten bertako neskatila ikasleei euskara irakasteko eskatuz; erantzuna, zenbait hilabete luze iragan ondoren, ezezkoa izan zen[295].

1961.eko urtarrilaren hasieratan asmoa zabal-zabal zebilen, nonbait, Juan San Martin Jnak, «Txanton» Aita Antonio Goiria Eibarko karmeldarraren bidez, Markinan ikastola sortu nahi zutela jakinik, Aita Migel Mariri zorionak eman eta Euskaltzaindira joteko esaten baitzion[296]. Egin-eginean, hala egin zuen Aita Migel Marik, Euskaltzaindiak 1961.eko martxoaren 1ean honela erantzun ziola: *«Artu genduan zuen karta ilbeltzaren 30-ekoa. Euskaltzaindiak otsailaren 24-an Donostiako Diputazioan egin zuen batzarrean irakurri zan. Euskaltzaindiak oso begi onez ikusten du zabaldu dezuten euskal-eskola eta prest dago berak aal duen laguntasun geiena emateko, bai izkuntzaren ezagupideari dagokan aldetik, eta baita izkuntzari dagokan beste edozein aldetatik ere. Eskerrak emanik euskeraren alde zuen gain artu dezuten lanagatik zoriona deseo dizuegu.*
Euskaltzainburua
Ignacio M.ª Echaide»[297].

Baina ez zen bat ere erraza asmo eder haiek burutzea. Geroago, gertakari batek adorea eman zien proiektua aurrera eramateko: Justo Arrieta alkate Jnak umeentzat euskaraz antolatutako lehiaketa batek porrot egin zuen inork ez zuelako euskarako gutxienezko gramatika ezaguerarik izan. Horrek guztiak alfabetatu gabeak zirela ematen zuen aditzera. Eta bultzaitzaile biak, alkateak eta Aita Migel Marik berriro jo zuten 1963.ean Mesedetako mojen *Vera Cruz* ikastetxera, gurasoak hala eskatzen zutenentzat ikastola erregimenean haurtzaindegia jartzeko eskatuz. Erabateko ezezkoa jaso zuten oraingoan ere.

Jarraian Eskola Estataletan egiteko bideak aztertzen hasi ziren. Ahaleginok alferrekoak gertatu ziren.

bb. *Omenaldia Aita Zeziliori eta ikastolaren sorkuntza (1964).*

Une hartan Markinan zeuden ikastetxeetan euskal adarra jartzeko ahaleginak huts egin ondoren, inolazko biderik ikusten ez zenez, irtenbide bakarra ikastola sortzea zen.

---

[295] MKA, H-I-20a, P. Miguel María Juaristi: *Breve referencia de la ikastola "Zerutxu" de Marquina-Jemein.*
[296] MKA, E-III-1, 1961-I-31eko gutuna.
[297] MKA, E-III-2.

Lehenago aipatu dugu Markinako herriak, Aita Zeziliori, berrogeitamar urte lehenago berak Pragako Ume Jesusen Artxikofradia sortu eta Hiriko umeen alde bizitza osoa jarriz burututako guztia eskertuz, 1964.eko urriaren 9-10. egunetan egin zion omenaldia. Horrela alkateak eta Aita Migel Marik udalak eskaini nahi zion omenaldia ikastola sortu eta beraren omenez beraren izena jartzea pentsatu zuten. Udalak onartu egin zuen eta Aita Migel Mariren esku utzi zuen arazoak bideratzea; *«Zerutxu: Hogar infantil Padre Cecilio»* deituko zen.

Aita Migel Marik M.ª Loli Aginaga andereñoaren lankidetza ziurtatu zuen; gero udalari, Arretxinagan hutsik zeuden eskolak eskatu zizkion; udalak baimena eman zion. Baina, geroago, Arretxinagako lokalak ez zirela egokienak ikusirik Aita Migel Marik alondegia izandako loia eskatu zion. Udalak ontzat emañ zuen proposamena konpontzeko aurrekontuak onartuz; hala ere obrak luzatu egin zirelako hasiera Karmengo etxeko ikasgela batetan eman zitzaion: «Y el Ayuntamiento aprobó la idea junto con el presupuesto (unas 80.000 pts.) de adaptación del local. Las obras a que ello dió lugar se prolongaron varios meses. Por eso se inició el primer curso de la ikastola en una clase del convento del Carmen (Noviembre 1964), pasando para el año siguiente a los locales preparados por el Ayuntamiento. Aquí entró como segunda Andereño Garbiñe Arrate, que ya era asidua de la ikastola como profesora de danza»[298].

Hirugarren ikasturtearen hasieran, 1966.eko urriaren 13an, Jose Luis García Prieto, eskualdeko lehen irakaskuntzako Ikuskaria aurkeztu zen «Zerutxu» ikustera eta legez kanpokoa zela adierazi zuen; hain zuzen, era pribatuz lehen mailako irakaskuntza eskaintzeko aldez aurretik 1945.eko azaroaren 15ko arauak bete beharra zegoen. Ondorioz, *Zerutxu* ikastolak berehala utzi behar zuen iharduna[299].

Hori ikusirik Udalak 1966.eko abenduan *«Colegio Bilingüe Padre Cecilio-Zerutxu»* ikastetxearen legeztapen egokia eskatu zion Lehen irakaskuntzako Zuzendaritza nagusiari[300]. Baina probintziako ikuskaritzak 1967.eko ekainaren 28an erantzun zuen, beharrezko baldintzak ez zirela betetzen esanez eta «Zerutxu» ikastolak behin betiko bere irakaste iharduna eten behar zuela aginduz[301].

Aita Migel Mari beste komenturen batetara aldatua izan zitekeela gogoan hartuz eta egindakoa finkatzeko asmoz, 1967.ean ikastolaren funtzionamenduz zein ibilbideaz arduratuko zen *«sociedad cultural recreativa Zerutxu»* sortu zen[302]. Lehen Zuzendaritza Batzordea hautatu zuten honako kideok izendatuz:

Buru: Frantzisko Arrate.
Buruorde: Julian Maguregi
Idazkari: Jose Antonio Ansola

---

[298] MKA, H.I-20a.
[299] MKA, E-III-4, 1966-X-14eko agiria, Aita Miguel Maria fraideari (enpresari gisa) eta M.ª Loli Aginaga andreari andereño gisa zuzendutakoa.
[300] MKA, E-III-5.
[301] MKA, E-III-6.
[302] MKA, H-I-20a.

Idazkariorde: Joakin Maguregi
Diruzain: Ion Duralde
Diruzainorde: Mari Sol Ibarzabal
Mahaiko: Lauren Aretxabaleta, Felipe Amutxastegi, Ramon Biteri, Mari Karmen Juaristi, Anjel Juaristi, Zelestino Garzia, Jabier Arrate, Iñaki Maguregi, Jazinto Biteri.
Onulari: Aita Migel Mari Juaristi[303].

Aita Migel Marik 1967.eko irailan eman zion ikastolaren berri Erroman aurkitzen zen Aita Fidel Sarriegi Probintzialari: «Zerutxu» itxita aurkitzen zen baina abokatu baten bidez defendatzen ari ziren; lau bat egun barru irekitzeko asmoak zituzten ikasturte berrirako komentu barruan, beharrezkoa izanez gero konkordatuaren babesean elizaren eskola gisa. Horretarako Aita Jeneralaren agiriren bat eskatzen zion[304]. Horrela[305], Erromako agiria[306] eskuetan zuela eta Udalaren[307] eta Euskaltzaindiaren[308] agiriekin, urriaren 15ean Ordenako nagusiek behartutako iharduera gisa «Zerutxu» irekitzeko baimena eskatzu zion irakaskuntzako Zuzendaritza Nagusiari.

1967.eko urriaren 2ko ikasturtearen hasierako Manuel Salazar Markina-Jemeineko udal Sanitateburu Jnak eta Carlos Arrizabalaga Amoroto udal paratzaile Jnak, Zerutxu-ko 2. eta 3. ikasgelak jarri nahi zireneko lokalek beharrezko higiene eta segurtasun baldintzak betetzen zituztela ziurtatu zuten[309].

Era berean Udalak idazki bat bidali zion Probintziako Ikaskaritzari 1968.eko urtarrilaren 18an irakaskuntza pribaturako ikastetxe pribatu bat irekitzeko; espedientea Ministeritzara bidalia izan zen; eta Ministeritzako baimena etorri bitartean, behin-behingotasunez onartua izan zen ikastolaren funtzionamendua[310].

Data honetarako aldatuta ageri zen Markinako Mesedetako mojen eretzia ere; hain zuzen, batxilergoko lehen mailako lehen ikaskuntzako 23 irakasle elkarturik, 20k oso-osoan eta beste hirurak baldintzaren bat ezarriz, onartu zuten unitate berri bat elebiduna ezartzea[311].

cc. *Berriro komentura.*

Baina *Zerutxu* ikastolak zuen eragozpenen artean kokatua izateko ziurtasun eza nabari zen; eta, horrela, 1969-1970. ikasturtean barriro komentuko ikasgeletara ekarri zituzten umeak.

---

[303] MKA, E-III-29, 12967, urtarrila.
[304] MKA, E-III-13, 1967-IX-28ko gutuna.
[305] MKA, E-III-15, Aita Fidel Probintzialak Vienna-tik erantzun zion urriaren 7an, bertan aurkitzen baitzen bertan ikasten ari ziren euskaldun karmeldar gazteei ikustaldia egiten.
[306] MKA, E-III-14.
[307] MKA, E-III-23, 1967-XI-15eko agiria.
[308] MKA, E-III-24, 1967-X-17ko agiria.
[309] MKA, E-III-19.
[310] MKA, E-III-11, 1968-I-24ekoa.
[311] MKA, E-III-20, 1967-XI-17koa.

1969.eko uztailaren 11 baino lehenago erantzun zion Karmengo prioreak, «Sociedad Cultural Recreativa Zerutxu» zeritzaneko Batzorde Zuzendariak, Errebalera ematen duen aldeko komentuko bigarren solairuan ikastolako gelak egin eta erabiltzeko posibilitatea eskatuz eginiko gutunari:

«1. Esta Comunidad de Padres Carmelitas cede a la Sociedad Cultural Recreativa Zerutxu el uso del indicado local gratuitamente y por cinco años desde la fecha del presente documento, local que por consiguiente disfrutarán en concepto de precario y que deberán abandonar y dejar a la libre disposición de la Comunidad al transcurso de los indicados cinco años, previo aviso que a tal efecto les será hecho por la Comunidad con seis meses de antelación.

2. El indicado plazo podrá prorrogarse tácitamente por anualidades sucesivas, en tanto que la Comunidad no formule el indicado aviso con seis meses de antelación.

3. Cualquier obra o reforma que se pensare hacer en dicho local se verificará previo consentimiento de la Comunidad.

4. Los gastos que se originaren por dichas reformas, lo mismo que por mantenimiento de dicho local y su tejado, serán a cargo y cuenta de la Sociedad Zerutxu que, además, se encargará de colocar los correspondientes contadores de luz y agua para su consumo aparte.

En fe de lo cual y para que conste donde convenga, etc. dado en Marquina a once de julio de 1969.

El Prior Fr.Jenaro Larruscain»[312].

Egin-eginean 1969.eko azaroaren 16an ospatu zen komentura itzultzea; meza, bilera, dantzak, jokoak eta abar izan ziren eta ikasgelak bedeinkatu ziren[313].

Ikastolak komentuko ikasgela horietan jarraitu zuen 1985.erarte, urte horretan behin betiko Mesedetako mojen etxera aldatu zela.

dd. *Zerutxuren iharduerak.*

Lehen irakaskuntza euskaraz egokiro bideratzeaz gainera, Batzorde Zuzendariak jarraiko iharduera hauek zituen:

— Ikastolaren arautegia egokitzea.

— Ikastolako ikasketen programazioa.

— Hitzaldi, musika eta euskal kantu jaialdien antolaketa.

— Herrian hainbat kultur iharduera, hala, dantza taldeak, gaztetxoen gau-eskola, musika heziketa, bertzolaritza eta abar antolatzea[314].

---

[312] MKA, H-I-20b.
[313] MKA, E-III-12.
[314] Ik. MKA,-E-III-eko paperak.

Zerutxu ikastolari eskaini dizkiodan lerro labur hauei amaiera emateko, Luis Baraiazarrak bere hogeitaboskarren sortze-muga ospatu berri duen *«Zerutxu»* dantza taldeari eskainitako hitzak jaso nahi ditut: *«Talde honetan egin izan den lana gure folklorearen alde sinestezinekoa da; benetan lan eskergaitza eta oraindik ere egiten ari direna...Jakingarria litzateke zenbateko kopurua ematen duen talde honetatik iragan diren markinarrak eta horren inguruan burutu izan diren kultura ekintzak. Paperetan ez dut aurkitu zehatz-mehatz noiztikoa den ziurtatzeko datarik. Garbiñe Arrate lehen-lehenik, hots, andereño sartu aurretik, haurrei dantzak irakasten aritua zela adierazten da, baina sorreratik bertatik Felipe Amutxastegiren ardurapean izan den «Zerutxu» dantza talde ere ikastolaren bigarren urterako edo, eraturik eta bideraturik zela dirudi. Oraindik berau da hortxe tinko dirauena»*[315].

d. «Tiki-Taka» eta «Sugar».

Markinako karmeldarrak umeei eta gaztetxoei euskal kultura eta euskara zein giza eta erlijio hezkuntza eskaintzen eginiko ihardueraren haritik datoz *Tiki-Taka* eta *Sugar-Talde* deituen bidez burututako bi ihardueruk ere.

aa. «Tiki-Taka».

Aita Luis Baraiazarrak sortu zuen «Tiki-taka» umeen aldizkaria Aita Tomas Zugazartaza lagun zuela. Lehen alea 1973.eko uztailean kaleratu zen[316]. Eta kaleratu berri, hegaz eginez hartzaileen artean banatzeko astirik gabe Goardia Zibilak konfiskatua izan zen lehenago aipatu dugun 1973.eko abuztuaren 2an komentuan eginiko erregistroan[317]. Ezin izan zen aurrerantzean alerik atera baimenik ez zelako lortu eta multikopista Gordia Zibilak kendua izan zelako.

Argitara atera zen ale bakarrak 29 folio izan zituen. Gehiena Aita Luis Baraiazarrak idatzia izan zen, zenbait idazlantxo, euskal historia eta geografia, umeen erlijiotasuna, zenbait berri eta 8-14 urteko umeentzako eginiko ipuin laburrak biltzen zituela. Multikopistaz ateratako aldizkari alai eta irakasgarria zen.

bb. *«Sugar» Taldea.*

Talde hau «Markiñako gaztediari erlijiño arloan aurrerapidea ta laguntza emoteko asmotan, batez ere, sortua izan zan, gure Begoñako, Donostiko eta beste ainbat lekutako konbentuetan egin izan zan lez».

1975.eko abenduan, Hirugarrendarren areto gainean gela bat erabiltzen zuen gazte talde horren erantzule zen Aita Karmeldarrak komunitateari eliz alboko solairu

---

[315] Luis BARAIAZARRA, *'Zerutxu' ikastolaren 25.urtea*, Karmel 1989-3,72-73.
[316] GPKA, erlijioso biziei dagozkien karpetatan : "L.Baraiazarra".
[317] Ik. 313-315.orr.

bat konpondu eta «Sugar-Taldea» zeritzanarentzat biblioteka eta diskategia jartzeko baimena eskatu zion..

Komunitateak jarriko baldintzok ezarriz onartu zuen: «aipatutako gelaren konponketa delako taldearen kontura izan dadila; gela elizan musikarik ez entzuteko eran konpon dadila eta arroztegiko klaustrora ematen zuen atea beti giltzaz itxita izatea, gelan biltzen direnak barruko klaustrora joateko biderik izan ez dezaten»[318].

Baina urteak aurrera joan ahala, taldearen jokamoldea ez zitzaion egokia iruditu Karmeldarren komunitateari, 1980.eko martxoan Aita Felix Malaxechebarria Probintzialak eginiko ikustaldi kanonikoan, komentuko Aita Karmeldar batzuk «Sugar-Taldeak» komunitateari sortzen zizkion eragozpenak eta arazoak azaldu zizkioten eta[319]. Komunitateak arazoa eztabaidatu zuen eta «Sugar-Taldeak» komunitateak onartu gabeko zenbait jokera eta ikuspegitan, aurkitutako agirietan nabari zen bezala, hasierako helburuetatik aldenduta, bere bidea hartu zuela ikusi zen; bestalde, beraien aretora sakristiatik iragateak eragozpenak sortzen zizkion komunitateari.

Hori zela eta, komunitateak, taldeari buruzko azterketa zabala egin ondoren lokalak istea erabaki zuen honako xehetasunak argituz:

«a) SUGAR taldearen esku egondako leku ori barriro edegi aal izango da, emendik denporaldi batera, Komunitateari ondo deritxonean, eta barriro sartu gura leukeen gazteai arek ipiñitako baldintzak betetzen dirala.

b) Baiña, izentau dan areto ori edegitea jazo baleite, orren azpian dagoan saloia erabilteko, edo berton nai dauana egiteko, askatasun osoagaz geldituko litzake Komunitatea.

c) SUGAR taldeari buruz emen artu ditugun erabagiak artzerakoan, beste edozein konbentuk onelako kasuetan erabilli izan dauan kokabidea berbera erabilli dogu geuk be gure arazo onetan.

d) Esan bearrik be eztagoanez, SUGAR taldeak konbentura ekarrita daukazan gauza guztiak eroateko eskubide oso-osoa dauka, prailleenak edo konbentukoak berton itxita.

e) SUGAR taldeak euki dauan aretorako sarrerea itxita - zerratuta - geldituko da egunetik aurrerantzean.

f) Azkenez, Komunitateak argiro ta benaz adierazten dau SUGAR taldearen geroko etorkizunagaz eta egikerakaz ez daukala zer-ikusirik»[320].

---

[318] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 137.orr.
[319] MKA, A-X-2, *Liber Visitationum Provincialium*, 1980-III-7ekoa.
[320] MKA, H-I-23.

e. **Bertsolari-Batzarrak Karmengo komentuan.**

aa. *Iturburua eta antolaketa era.*

Ekimen hau Markinako Aita Karmeldarreek, bereziki Miguel María Juaristi bertako prioreak eraginda sortu zen[321]. Euskal Herriko bertsolariak 1963.eko urriaren 12an Markinan biltzea pentsatu eta erabaki zen.

Urte horretan eta jarraikoetan Aita Miguel María Juaristi euskaltzaileak egin izan zuen bilerarako deia[322].

Bigarren bileran, hau da, 1964ean Aita Migel Marik gonbidapena egiterakoan, ospakizun hori zela eta Basarrik *Zeruko Argian* argitara emandako bertsoak bildatzen zituen.

Markiña aldetik era ontako
albisteak datozkigu;
ondo artuak izango gera,
ori aurrez ba-dakigu.
Alkar maiteak izan gaitezen
lur gaiñ onetan beti gu,
urtean beingo billera on bat
oso premizkoa zaigu.

Familikoak bezela batu,
zer degu gauza oberik?
Ortatik ez da iñoiz sortuko
penik edo naigaberik.
Txistulariei etzaie falta
batzarrik edo billerik,
bertsolariok ez ote degu
ortako eskubiderik?[323]

Markinako Prioreak eginiko hirugarren gonbidapenari, Zarauztik erantzun zion Basarrik 1965.eko agorraren 18an: *«Poz eztitan irakurri det zurea. Pilareko eguna ba-datorkigu. Asteartez aurten, ain zuzen.*

Ez dakit nola ibiliko naizen nere lanak burutzen. Eguneroko salla periodikoan bete bear onek larri ibiltzen nau. Astelen guzietan euskal irratsioa izaten degu berriz Donsoti'n; berdin ostiraletan. Dana dala, azaldu nai nuke orruntz. Zerbait aurreratu egin bearko.

Ez dit ajolik edozein garaitan kantatzea. Jauna artutakoan eskerrak ematea egingo det, on baderizkiotzu»[324].

Aita Migel Marik Euskalerriko bertsolarien zerrenda zeukan eta guztiei bidaltzen zien gonbidapena. 1965.eko *La Voz de España* egunkarian harridura azaltzen zuen

---

[321] Bilera hauei buruzko agiriak MKA, H-I-11, H-I-5 eta J-I-8an aurkitzen dira. Hasierei buruz *La Voz de España* (1965-X-14) egunkariak "Mi atalaya montañera" izenburua eta "grata reunión" izenburuordea jarriz (uste dut Basarri-rena dela) argitaratutako orriaren ebakina dago. Eta idazlana "El comienzo fue el año pasado" dioela hasten da, baina "pasado" hitza Karmengo artxiboko ebakinean "1963" eskuz idatzita ageri da. Idazlan horretan ez da benetako zehaztasunik eskaintzen ez baitago argi eta garbi dekribatuta bertsolarien jaia edo bilera lehen urteari (1963) dagokiona den ala pentsa daitekeenez 1965.ekoari.

[322] Jarraiko urteotako gonbidapenak gorde izan dira: 1964 (2.a), 1965 (3.a), 1966 (4.a), 1967 (5.a), 1968 (6.a), 1971 (9.a).

[323] MKA, H-I-11 c.

[324] MKA, J-I-8.

Basarrik honakook esanez: *«Este año [1963? edo 1965] se congregaron 35 vates populares. Nunca me imaginé que se pudiera alcanzar tal número. Había mucho joven entre los mismos. Muchos a quienes yo no conocía, pero que actúan en concursos y sesiones. No extraña tanto el que surjan bertsolaris en Guipúzcoa. Siempre fue tierra abonada. Lo que le consuela a uno es ver y comprobar el empuje de los hermanos vizcainos».*

Era berean, urriaren 12a asteguna izatean eta hainbat bertsolari baserri girokoak, horrek eragozpena eta ezintasuna sortzen ziela zenbaiti bertaratzeko aitortzen zuen. Baina, antza denez harrera oso ona egiten zioten garai hartan osperik handiena zuten bertsolariek. Horrela, esaterako, 1964.eko argazkian 46 ageri dira; Komentuko kroniketan, bi aldiz jasoten da ekintza honen berri, hots, 1968. eta 1975. urteetan eta 50 inguru izan zirela esaten da.

bb. *Bileraren garapena edo Batzarra.*

Gorde izan diren egitarau eta gonbidapen gutun ezberdinetan ageri denez, goizeko 11,30etan meza izaten zen, bertan bertsolariak hasieran, eskaintzan zein amaieran parte hartzen zutelarik. Jarraian, bertsolaritzari buruzko hitzaldiren bat eta bertsolarien iharduketa eta, azkenik, eguerdiko ordu bietan bazkaria komentuko jantokian.

Bertsolarien iharduketa:.

Markinako artxiboko paperetan bertsolariek izandako iharduketa ezberdinetako paperak jaso izan dira, horrela 1966, 1969. urteetakoak. Hemen 1966.eko 4. batzarreko bertso batzu jasoten ditut:[325].

1) Mezaren sarrerakoa (Lopategik):

Emen gaude Euskalerriko
bertsolariak batuak,
erri bateri berba eiteko
Jainkuak aukeratuak;
Garbi arkitu bear dabenez
barkatu, Jauna, barkatu arren
bertsolaien pekatuak.

Beti ez gera gu ibillitzen
berba garbi ta lirañez.
gure biotzak biurrikeriz
sarri eiten dausku gañez.
Erratzen gera begi belarriz
Meza santu au artu gaur, Jauna
gure uts danen ordañez.

2) Eskeintza orduan (Muniategik):

[325] MKA, H-I-11a.

Zenbat problema izaten dira
bertsolarien bizitzan
ainbeste kezka etorrenikan
nik lenago ez neritzan.
Ardura danak bidali bear
Jaungoikoari eskintzan,
berak goitikan onartu eta
erremediatu ditzan.

Oraindik lotan arkitzen dan
gure Euskalerri gaixua,
esnatzailleak gu gera eta
ez daukagu lan goxua.
Iñoiz sentitzen baldin badegu
zigorkadaren pixua,
jakin dezagun gurutzan josi
zutela gure Maixua.

Artañolak bi bertso egin zituen, bertsolari hilak gogora ekarriz; eta Mezaren amaieran Aspillagak honako bertsook abestu eutsozan Karmengo amari:

Naiz bertsolari-odola ibilli
izandu gure zañetan;
jakintsu baño geyago gera
gutarrak ezjakiñetan.
Ama on onek bertso goxoak
izan zitun ezpañetan.
Grazi berezi bat eska bear
biogu bere oñetan.

Leyaltasunik zuzenenian
joan dira mezako lanak.
Egun guztian elkar besarka
ibilliko gera danak.
Gaur emen gauden bertsolariak
ta etorri eztiranak;
urte askuan euskerarentzat
gorde ditzan Zeruko Amak.

Meza ostean euren alkar-izketak eta bertsoak euki ebezan. Emen alkar-izketa bat batu gura dogu euskaldunontzat oso jakingarria dalako. Azpillaga ta Garmendiak eukitako alkar-izketa. Azpillaga, Ameriketan berrogei urte luzetan beti Euskalerrirako irrikiz egon-da gero etorri da...Garmendia, Euskalerrian biziaz, euskeraren alde ainbat lan egiten alegindu dana. Ona emen euren bertsoak:

Azpillagak: (1)

Amerikara joan nintzan da
negon errien egarriz;
Aitona zarra,xer moduz zabiltz
Tolosatikan zer berri?
Emen euskera gutxi aitzen det
ta erdera oso sarri;
naigabe auek artutzekotan
obe ez banintz etorri.

Garmendiak: (2)

Zu, Azpillaga, Amerikara
juan ziñana gazterik.
Egia esan, ez nun pentsatzen
berriz emen ikusterik.
Gure izkuntza galdu dala-ta
arkitzen zera tristerik;
Euskera zarra ez deu itzeiten
aitona batzuk besterik.

Azpillagak: (3)

Ni ere andik ainbat urtean
negon euskera gosiak,
berrogei urte izandu dira
tristeak eta luziak.
Bi milloi dolar ekarri ditut
kostata irabaziak.
Euskera berriz berbiztekotan
emango ditut guztiak.

Garmendiak: (4)

Ara, Azpillaga, Amerikatik
etzera etorri nagi;
oraindik esan bear dizkizut
nik eztakit zenbat egi;
zure diruak euskeran alde
alba dezu ortan segi,
ala ere gora altxatutzeko
ez dira izango geyegi.

Azpillagak: (5)

Gure euskera billatua det
eskale baten tajuan,
joan nintzanean goian zeguan
ta orain dago bajuan.
Zuen denbora pasa dezute
ferian eta jokuan
era onetan au galtzekotan
oba ezbanintzan juan.

Garmendiak: (6)

Joan daneko berrogei urte
zuk urritian bizitzen,
gure artean dagon problema
ez dezu ondo ikusitzen.
Aitona zarron falta dalakoi
ai zera adierazitzen.
Guk lana eingo genuke baño
gui ez digute utzitzen.

Azpillagak: (7)

Negar malkoak biotzetik da
ez det somatzen itzikan.
Triste dagonak zer egindo du
ixildutzea baizikan.
Ni bizi nintzan etxeak ere
ez dauka lengo antzikan.
Euskera lengoratutzegatik
ilgo nintzake pozikan.

Garmendiak: (8)

Amerikalden ez zaitzu palta
zuri aberastasunik
zeren lurrera etorri zera,
ez dezu alaitasunik.
Zuk ezdakizu ainbat problema
gure artean dauzkagunik
baña eztezu esango ala ere
guzia galdu degunik.

1969.eko urriaren 12an, ostera, jarraiko bertso hauek abestu zituzten:[326].

Gorrotxategik: (1)

Urtean beingo batzarra baita
guztion mesedegarri,
Pilar'ko Ama'n eguna etzan
ortako alperrik jarri;
gertatu dana ikusi eta
gu ain gaude lotsagarri
lau ikasle bildu gera emen
maixurik ez da etorri.

Egileorrek: (2)

Ederki asko itzegin dezu
eta egia zan bera
galtzen ai dala ikusten degu
eta tristetutzen gera.
Gaur kontu batzuk aditu ditut
eraso nairik aurrera,
aber guztiok bildutzen geran
emendik urte betera.

Narbaizak: (3)

Tokatzen zaion goratzerre bat
eman naiaz egunari
biotza pozez saltoka det-ta
astera nuan kantari.
Gure eskerrik beroenak gaur
jai antolatzailleari,
ta biotzez arratsaldeon
maian zaudeten danori.

Loiolak: (4)

Egun onetan izaten dira
oso alaitasun aundiak
na-iz ta ga-ur ondo erantzun
ezpa-idigu jendiak;
euskaldunak ezin dituzte
zaindu beren alderdiak,
bertsolariak ez gaitez izan
be-intzat orren nagiak.

Gorrotxategik: (5)

Urtean beingo batzarrarekin
ezin asi jolasian
nun alkartu bear degu,jaunak,
emen alkartu ezian.
Maixurik ilortzo azaldu ez
ain jokera narrasian,
kobratzeko izan balitz au
danak etorriko zian.

Arregik: (6)

Zure bertsua adituz orain
asetu zait bai barrena
eta bertso bat agertuko det
bururaño datorrena.
nik pentsatzet degun pusketa
izakera au onena
gizon aundiagua ezta gero
diru mende dabillena.

Narbaitzak: (7)

Ixilik ezin naiz egon eta
izlari nai nuke asi
maixu aundirik egia esan
gaur ez det emen ikusi.
Alatan ere alkarte onek
zoriona du merezi,
gu gera oso txikiak baño
Gorrotxategi nagusi.

Egileorrek: (8)

Gorrotxategi, goguan daukat
gaur zuk aitortu dezuna
zuk badakizu nola dabillen
emengo eginkizuna;
orregaitikan egin ba'dute
daukate tranpa lizuna,
diruagatik saldu ote dute
emengo gizatasuna.

[326] MKA, J-1-8.

Loiolak: (9)

Ora-in dala zazpi bat urte
gure billera zan jaio,
ta uste nuan egongo zala
nik alaitasun geio;
Uztapide ta Basarri ere
falta dira, zer arraio!
lagun artera bildutzea-re
pagatu bear al zaio.

Narbaizak: (10)

Txiki-txikitan izaten baita
oi arbolaren landara
gero txoriak egiten dute
bere kabitik egara.
Gu berriz emen txiki samarrak
gaurkoz alkartuak gera
ala ta guztiz ere etxaigu
iñoiz galduko euskera.

Deunoro Sarduik: (11)

Kendu daiguzan gure burutik
alako tentaziñoak
urrindu beitez pozo illunetik
sortu ditugun laiñoak;
bakoitzak zintzo jarraitu bedi
aztertuaz engañoak,
urrengo urtean bilduko ditu
sortu dan komisiñoak.

Enbeitak: (12)

Ikusten nago toki onetan
guztiak piper dauzela
gure gainkoak batzar ontara
etorri ez diriala.
Nik ikusten dot gaur emen ere
frutu bat sendo dagola:
geuk eutsi daiogun biotzetikan
arek sortuiko arbola.

Urangak: 13)

Ara Enbeita biotzekoa
etzera gizon makala
nik ezagutzen dedanetikan
beti maitatzen dedala.
Bi abaderen erdian dago
ain gizon on da apala,
beittu batean ematen dezuez
Aita Santua zerala.

Enbeitak: (14)

Uranga jaunak neri eman daust
ia azkeneko itza,
baña burua ez daukat illun
oba argiau balitza.
Gizon aundien erdian nago
samurra daukat biotza,
gauzak obeto eingo litzakez
Aita Santua banitza.

Halako egunetan egin ohi ziren hitzaldiei buruz zerbait esatekotan, lehenetariko hizlariak José María Iriondo eta Juan María Lekuona etab. izan zirela ekar dezakegu gogora.

cc. *Bileren garapena eta amaiera.*

1963. urteko harako bileraren ondoren beste 15 inguru egin ziren. Komentuko kronikek ez dute urtero bilera hauen berri jasoten baina bai noizbehinka. Horrela 1968.ean irakur dezakegu beraietan: «12-X-1968: aurreko urteetan bezala Bertsolarien

eguna izan dugu. Berrogeitamar inguru bildu dira. 11tan meza, beraiek bertsoak kantatu eta parte hartuz; jarraian hitzaldia,...bazkaria jantokian, etab.»[327].

Aita Fabián Juaristi komentuko priore zela (1975-1978) amaitu ziren bilera hauek.

dd. *Bertsolaritza eta Markinako Karmengo etxea.*

Euskal kulturarentzat hain urte gorriak izan ziren aipaturiko 15 horietan, Markinako Karmengo etxea euskal kulturaren bilgune izan zen; hala ikusi izan dugu aurreko lerroetan gogora ekarri dugun historian: euskal biblioteka, *Zerutxu* ikastola sortzea, etab... eta urtero bertsolaritzaren bilketa-gune. Guzti horrek eragina izan du, jakina, ordutik gaur egunerarte. Datu bakar batzu gogoratuko ditut hemen.

1977.eko urtarrilaren 24ean, Markinako jubilatuei urteroko ohiturari jarraituz eskainitako omenaldian, elkarren arteko Meza Nagusia izan zen Karmengo elizan 11tan «Bertsolariek» parte hartuz; jarraian elizan bertan kontzertu bat eta Bertsolarien saioaldi bat udal pilotalekuan[328].

1984.eko uztailaren 5ean, Aita Juan Iturregi karmeldarraren apaizgoko urrezko ezteietan, komentuko «Bertsolari-eskola» taldeko hiru bertsolari gaztek parte hartu zuten bertso atseginak eginez[329].

Egin-eginean, 80. urtetik aurrera komentuan «Bertsolari-eskola» izan zen, gaur egun komentutik kanpo ekinean iharduten duela. Hain zuzen ere, Markinan bertsolaritzaren bultzatzaile izan den eta gaur egun ere horretan diharduenetariko bat, Aita Luis Baraiazarra, hainbeste urtetan Karmengo komentuko kidea, lehenago esan dugun bezela, bertsolari txapelketetan epaimahaiko ageri zaigu; era berean, bertsolaritzari buruz zenbait idazlan argitaratu ditu[330].

4. **Musika-kultura.**

Oso handia izan da Markinako komentuaren historian zehar bai liturgian baita ikastetxeko bizitzan, musikari eman izan zaion lekua. Era bereziz, urteetan zehar Markinan bizi izan diren karmeldar musikari bi, hots, Aita Jose Domingo de Santa Teresa (Ugartetxea) eta Aita Emiliano del Niño Jesús (Barandiaran) komentu barruko zein hiriko musika bizitzaren bultzatzaile edo animatzaileak izan dira.

---

[327] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 109.orr.
[328] Ibd., 152.orr.
[329] Ibd., 199.orr.
[330] *Bertsolari txapelketaren ondoko galbaketa*, Karmel 1986-2, 6-22; *Epai mahiko baten gogoetak Araba eta Bizkaiko bertsolari txapelketaz*, Karmel 1988-1, 50-61; *Txapelaren itzala*, Karmel 1990-1, 7-30.

a. Musika komentuko bizitzan eta liturgian.

Guztiok dakigu leku oso garrantzitsua eman izan zaiola musikari Markinako komentuan burutu izan den liturgian, batez ere, Markinako Karmengo etxearen Berreraikuntza ostean; karmeldarrek garrantzia handiko lana burutu izan dute kantu gregorianoak izan duen arte alorreko garapenean Markinan zein Euskal Herrian.

Ordenako antzinako legeek, Markinako etxearen eraiketa urtetik (1691) esklaustrazio garai arte, eliz otoitza, batzutan kantatuz egitea agintzen zuten: horrela, *maitinak* eta *gorespenak,* liturgiaren eskariei jarraituz urtean zehar garrantzia handiko 18 bat jaietan abestu beharra zegoen; era berean, igande eta jaiegun guztietan komentu-meza eta aurreko «Ordua» zein «Bezperak» abestu egin ohi ziren.

Batez ere, XX. mende honetan igandeetako meza abestuak trebetasun handiz eginak izaten ziren musika gregorianoz zein kantu polifonikoz aipaturiko Aita José Domingo eta Aita Emiliano karmeldarren zuzendaritzapean.

Ohizko musika-ihardueraz gainera, hau da, liturgiako eta komentu bizitzako jai ezberdinetako egintzez aparte, badira kroniketan jasoak izan diren beste une berezi batzu ere.

Horrela, esaterako, 1957.eko uztailaren 18an Karmengo organo berriari hasiera emate egunean, José Manuel Azkue Jnak J.S.Bach, C.Franck, F.Liszt eta abarren lanak joez eskainitako organo emanaldia[331].

Markinako Karmengo etxearen Berreraikuntzaren 50. urtemuda zela eta abuztuaren 15-19 arteko egunetan honako meza polifoniko hauek abestu ziren: O. Ravanello-ren *Missa in honorem S. Orestes* hiru ahotsetan; Goikoetxea-ren *Missa in honoren I. Concepcionis* hiru ahotsetan; Cicognani-ren *S. Cecilia*-ren meza hiru ahotsetan; Perosi-ren *Misa Secunda Pontificalis* hiru ahotsetan; Victoria-ren *misa pontifical* lau ahotsetan,... Horretaz gainera, 19an literatura-musika ekitaldi bat egin zen arratsaldez[332].

Beste jai batetan, Jon Gurutzekoaren jaiotzeko 4. mendeurrena (1542-1942) zela eta, kultur ekintzak burutu ziren Markinan, besterik beste, literatura-musika ekitaldia aipa daitekeelarik; abestiak komentuko ikasleek interpretatu zituzten Aita Emilianoren gidaritzapean[333].

1962.eko uztailaren 16an, Karmengo egunean eta beraren fundazioaren 4. mendeurrena zela eta, S.Teresaren esku ustelgabea bertan zela, Perosi-ren *Misa Secunda Pontificalis* abestu zen[334].

Markinako komentuaren Berreraikuntzako lehen mendeurrena zela eta 1968.eko uztailaren 16an Aita José Domingok koru mistoa zuzendu zuen Aita Emilianoren *euskal meza* abestuz[335].

---

[331] MKA, a-II-1a, *Libro de crónicas*, 43.orr.
[332] MKA, A-I-234.
[333] MKA, A—II—1a, *Libro de crónicas*, 15.orr.
[334] Ibd., 67-68; A-V-136.
[335] MKA, A-IV-3; A-II-1a, *Libro de cróncias*, 106-107.

Karmengo ikastetxean, 1936.eko gerra osteko azterketen aktetan ikus daitekeenez musika irakasten zen. Eta ikasleek literatura-musika ekitaldiak egiten zituzten gertakari ezberdinetan, hala Priorearen urtebete egunean, Aquino-ko Santo Tomas egunean,...esaterako 1940, 1944, 1945, 1946, eta abarretan. Aparteko aipamena merezi du 1961.eko abenduan Aita Jenaro de la Sagrada Familia Priorearen urtebete egunean eginiko literatura-musika ekitaldiak[336].

Komentuan zein herrian sortutako Musika giro honetan ospatu zen 1983.eko ekainaren 7tik 11ra, Markinan VI Euskal Musikastea, organo, txistu eta orkresta kontzertuak eskainiz[337].

b. **Musika akademia Karmengo etxean.**

Komentu zein hiriko musika mugimenduarem eragilea zen Aita Emilianok musika akademia bat jarri zuen martxan. Akademia honek 1956.etik 1963.erarte iraun zuen Aita Emilianok zuen koaderno batetan ageri diren ikasle, nota eta ordainketa zerrendaren arabera[338]. Hain zuzen ere 1963.eko azken urte horretako abenduan aurkeztu zion Aita Miguel María, komunitateko prioreak Udalari «Academia de música» berriaren aribide proiektua, jarraiko baldintzotan egingo zelarik:

«1) El Director de la Academia será el P.Emiliano del Niño Jesús, Organista de la Comunidad, supliéndole en caso de necesidad otro Padre de la misma.

2) Será necesario que se reunan al menos 10 alumnos para el comienzo de su funcionamiento. Los niños a ingresar convendrá que sean de una misma edad poco más o menos, para no entorpecer la buena marcha de la Academia.

3) Cada alumno de la Academia deberá hacerse con un ejemplar del Método de Solfeo que se señale, corriendo su coste a cuenta de los mismos o del Ilmo. Ayuntamiento.

4) El curso musical comprenderá desde 1° de octubre hasta San Juan - 24 de junio - incluidos los exámenes.

5) La clase ordinaria será de 12 hasta 12,45.

6) Serán días de vacación: a) los jueves; b) los días de vacación escolar; c) las fiestas clásicas carmelitanas.

7) La Comunidad percibirá del Ilmo.Ayuntamiento la asignación anual de 7.000 ptas.

8) La Comunidad queda en libertad de poder asignar a cada alumno una pequeña cuota mensual de 25 ptas. Lo cual juzga además necesario para que las familias obliguen a sus niños a la asistencia diaria a la Academia.

---

[336] MKA, A-I-269.
[337] MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 193.orr.
[338] MKA, A-I-265, *Academia de Música de PP.Carmelitas Descalzos de Marquina. 1956 (-1963).*

9) Los alumnos de la Academia, cuya conducta será satisfactoria, tendrán derecho una vez al año a una excursión que no exceda de los 100 kms. de recorrido, costeando los gastos de locomición el Ilmo.Ayuntamiento, aparte de la comida que llevarán ellos.

10) Este acuerdo es valedero hasta el curso escolar 1965-1966 inclusive en que será sometido a revisión debido al cambio trienal de Superiores en la Comunidad.

Fue aprobado el anterior proyecto en la reunión capitular habida a 16 de diciembre de 1963. Fr.Miguel María del Niño Jesús. Prior»[339].

1964.eko otsailaren 10ean jakinerazi zuen udalak proiektuaren onarpena.

c. Aita José Domingo de Santa Teresa (Francisco Mª Ugartetxea Urkieta; 1888-1980)[340].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Frantzisko Markinan jaio zen 1888.eko irailaren 23an, hurrengo egunean bateatu zutela; beraren gurasoak José Ugartetxea eta Dolores Urkieta izan ziren. Markinan egin zituen lehen ikasketak 1893.etik 1901.era bitartean. Markinako Karmengo Latin ikastetxean ikasi zuen 1901.etik 1904.era. Urte horretan joan zen Larreako Karmeldarren nobiziatura eta 1905.eko apirilaren 17an egin zuen profesioa, José Domingo de Santa Teresa izena hartuz. 1905-1907. urteetako ikasturte biak Markinako Karmengo komentuan egin zituen, Humanistikako ikasketak burutzen jarraituz. Jarraian filosofiako bi ikasturte (1907-1909) egin zituen Iruñean eta beste bat (1909-1910) Gasteizen; teologiako bi urte (1910-1912) Gasteizen eta hiru (1912-1915) Burgosen, Gasteizen sagaratu zutela apaiz 1913.eko irailaren 20an[341].

Bizitzan zehar aginte-kargu garrantzitsuak izan zituen bere ardurapean, batez ere, ikastetxeetan: prioreorde izan zen Burgos-en (1916-1918) eta Gasteizen (1918-1930); Iruñeako Priorea (1930-1933) eta Gasteizekoa (1933-1936) eta nobizen maisua Larrean (1936-1937); gerran presazko epaiketaren ondoren espetxeratua izan zen: nazionalista buruberoa eta nazionalismoaren zabaltzaile izatea leporatu zioten, nobizen artean proganda egiten zuela esanez. Gezur hutsa izan zen. Fiskalak 6 gartzela urte eskatu zituen eta 8 urtetakoa eman zioten. Karmeldar hain errugabe eta maitagarria kondenatuta ikusirik Aita Jose Domingoren errugabetasunaren aldeko hainbat

[339] MKA, A-I-272.

[340] GPKA, C, 121.kutx.; GPKA, Markina 4; MKA, A-XII-1, *Memoria de los religiosos...*, 124-128 (= Pedro María DUÑABEITIA, *P.José Domingo de Santa Teresa (Francisco María Ugartechea Urquieta) (1888-1980)*, BOPSJN (1980, 90.zk.) 88-91. Ikusi Lino Akesoloren bi idazlan (*Idazlan guztiak*, Larrea-Zornotza 1989, 1177-1189); Venancio DEL VAL, *Centenario musical: El padre José Domingo*, "Gasteiz" aldizkarian 1988.ean. Berari buruz Euskadiko zenbait egunkaritan argitaratu ziren lanak.

[341] GPKA, *Examen studentium*.

eta hainbat adierazpen edo gutun jaso ziren. Horrela esaten zuten besterik beste: 1937.eko maiatzaren 26an euskal Karmeldarren probintzialak; 1939.eko abenduaren 31n Markinako alkateak; 1940.eko urtarrilaren 14ean zortzi karmeldarrek... Urtarrilaren 8an atzera jo zuen bere salaketetan akusatzaile nagusiena izan zen Aita Agustin de los Reyes euskaldunon etsaiak[342].

Berberak kontatzen digu nola egon zen heriotze arriskuan: «Poco antes de que los nacionales se hicieran dueños de Amorebieta, Echano y Larrea mandamos a los novicios para mayor seguridad a nuestro convento de Begoña. El P.Prior, P.Rafael y yo, maestro de novicios, resolvimos quedarnos sólos en el convento de Larrea, sin abandonarlo, y presentarnos ante los nacionales cuando llegasen, creyendo ingenuamente que ellos nos respetarían y verían con buenos ojos nuestra hombría. Nuestra conciencia no nos acusaba de ninguna cosa mal hecha. Nos equivocamos.

El día 19 de mayo de 1937, al entrar los nacionales en Echano, detuvieron al P.Román de S.José, mi connovicio y condiscípulo riguroso, y triste es decirlo, lo fusilaron. R.I.P.- Y acto seguido nos detuvieron para fusilarnos también, al P.Rafael Prior del Santo Noviciado, al anciano P.Avelino que poco antes había llegado del Santo Desierto de Hoz de Anero a Larrea y a mí.

Pero nuestro buen Dios hizo que se encontrara en Echano un digno sacerdote, que era Párroco de la Basílica de Begoña y él nos salvó e hizo que respetaran nuestras vidas»[343].

Gerra ostean Begoñako Karmeloko prioreorde (1942-1948) izan zen; eta musikako irakaslea bertako urteetan eta beste hauetan: Begoñan bost urtetan (1948-1953); Erromako Karmeldarren Nazioarteko Ikastetxean (1953-1955) eta Gasteizen (1955-1964). Gero, Larreako komentual (1964-1967) eta azkenik 1967.etik beraren heriotze egun arte (1980) Markinako Karmengo konbentual izan zen.

bb. *Bizitza osoan musika lantzen eta bultzatzen.*

Jainkoari eta Ordenari Elizaren barruan eskainitako gizon laino,xume eta maitagarri honen bizitza, barne-barnetik liluratzen zuen grina bizi batek, hots, musikak indartuta ageri zaigu. Beraren apostolutza eta liturgia iharduerak ere musikaren soinua izan ohi zuen.

Haur txikia zelarik hasi zen musika ikasten; beraren solfeo eta pianoko irakaslea, urte askotan zehar Markina-Jemeineko parrokiako organista izan zen José Andrés Arrate jauna izan zen. Berberak kontatzen digu musika ikasteko eta lantzeko iharduera hau: «Al entrar en el Noviciado de Larrea tuve la suerte de encontrar al R.P.Emeterio de Sta. Teresa, un gran organista y un excelente gregorianista. Creo que era Extremeño. Según opino, bien podía haber desempeñado el oficio de organista en cualquier

[342] Agiri ugari GPKA, V, 3.kutx.n; C, 121.kutx.n...
[343] GPKA, C, 121.kutx.: berak idatzitako idazki laburra.

Catedral de España. Con el R.P. Atanasio del Sagrado Corazón de Jesús fue enviado a Solesmes a últimos del siglo pasado donde imprimieron el Ritual Carmelitano con música gregoriana. Durante mi estancia en la Casa Profesa de Marquina, de cuando en cuando venía aquí el R.P. José Juan de la Natividad, que residía en Santander a tomarme lecciones de piano. Era dicho Padre excelente organista que me enseñó el manejo del órgano.

En Pamplona (1907-1909) continué el estudio del piano con un gran profesor y concertista llamado D.Valentín Larrea que todavía según creo vive en Plamplona ya muy anciano.

De 1909 a 1912 en Vitoria estudié armonía con un buen profesor, D.Jesús Vírgala, organista de aquella S.I. Catedral. Fue D.Jesús un santo varón; tuve la dicha de sostener con él, hasta que murió, una muy grande intimidad.

Luego en Burgos el año 1916 tuve la dicha de conocer y tratar con el gran D.José María Beobide; extraordinario artista de la música. Quise yo fuera él mi maestro de contrapunto y fuga, y él por humildad, era verdaderamente dechado de sencillez, me dijo... entre otras cosas, que los dos juntamente estudiaríamos esos tratados. Por fortuna, hasta que falleció mi buen Joxe Mari, tuve la suerte de sostener mutua amistad. Con su trato pude aprender no pocas cosas»[344].

Zer esanik ez, bizitza egin izan zuen komentuetan, gehienetan ikasleen artean, bera izan zela komentuko zein liturgiako musika bizitzaren arima, musika gregoriano eta polifonikoan zein euskal musikan, maisu, zuzentzaile eta musikagile ihardueran arituz.

Kantu gregorianoko kongresu eta ikastaro ezberdinetan esku hartu zuen, hainbat hitzaldi eman zituelarik; kantu gregorianoa sakonetik ikasteko ahalegin horietan azpimarratzekoa da Solesmes-en eginiko egotaldia. Eragin handia izan zuen gure ikastetxeetan gregorianoa oso ongi abestea lortuz eta horrela eliz kantu mota horri Ordenan, Euskal Herrian eta Espainia osoan berrindartzea emanez.

Hainbat eta hainbat urteetan ikastetxeetan prioreordea izatea, eliz otoitzaren, bereziki liturgi kantuaren zuzentzaile izateari loturiko eginkizuna burutuz. Bizitza osoa musikaren zerbitzuan iraun zuela esan daiteke; edota, hobeki esanda, musikari zion zaletasun handia eta alor horretan eginiko iharduera osoa Jainkoaren eta Elizaren zerbitzuan egin izan zituela.

cc. *Markinako kontzertu sakratua: Aita Jose Domingoren «Stabat Mater» (1961).*

Nahikoa oihartzun jaso zuen gertakaria izan zen Markinan 1961.eko azaroaren 19an egin zen kontzertu sakratua: Aita Jose Domingoren «Stabat Mater» musikalanaren estreinaldia izan zen. Gertakari horrek komunikabideetan ageriko oihartzuna

[344] Ibd.

izan zuen, horrela, esaterako, *El Correo Español* egunkarian J.de Iriguen Jnaren azaroaren 15eko idazlanaren bidez. Kontzertua, Markinako Udalak Ospitalaren alde bere babespean hartua izan zen.

Markina-Jemeineko parrokia-eliza handian, arratsaldeko 5etan izan zen, markinarrez eta Bizkaiko hainbat lekutatik, batez ere Bilbotik, etorritako jendez gainezka zegoela. Kontzertuan Gernikako «Sociedad Coral de Santa Cecilia» abesbatzak, Ricardo Zallo maisu Jna. zuzentzaile zuela, eta Bilboko ahizko orkrestak, Hiri horretako Orkresta Sinfonikoko irakasleek osotua zelarik, eta organoan Gabriel Cardoso maisu Jna eta Aita Jose Domingo de Santa Teresa organista zituela, burutua izan zen..

Kontzertuko lehen aldian Hilarion Eslava, J.S.Bach, Fr.Manuel Cardoso eta Antonio Vivaldi musikagileen obrak interpretatu ziren. Bigarrenean egin zen Aita Jose Domingoren *«Stabat Mater»* obraren estreinaldi nagusia bost ahots nahasitan[345].

Gertaerak izugarrizko arrakasta izan zuen, egunkarietan nabarmendu zelarik, esateroko, 21eko *La Gaceta del Norte* egunkarian jarraikoa idatzi zuen kritika-iruzkinean Ruiz Jalon Jnak: «El P.José Domingo ha logrado insuflar a las páginas de *Stabat Mater* una profunda vivencia religiosa, en donde aparecen también acentos de una gran ternura y de fuerte expresión. La melodía gregoriana aparece en algunos cantos, especialemtne en el último número 'Christe cum sit extre' pero pronto ese unísono de las voces nos conduce a un mundo sonoro más complejo, en el que la fuga impone sus regias, pero sin perder en ningún momento lo esencialmente fuerte de la obra: su dragmatismo. Los contrastes de matices los ha buscado - y encontrado también - el P.José Domingo por cauces de profundo respeto y acomodo a la música litúrgica; contrastes que nacen en la misma partitura - que seguimos durante toda la audición, y que a través de voces e instrumentos van logrando acentuar los momentos más profundos del *Stabat Mater*. Pero es que además, y dentro de esta decisiva corriente religiosa en que se mueve toda la música de esta obra hay un cierto lirismo que, aunque contenido por la propia esencia de la música, llega al auditorio como acento de delicadeza. El Padre José Domingo maestro en la técnica, ha dosificado perfectamente los momentos líricos, para recogerlos en la mayor religiosidad, con lo que el *Stabat Mater* cobra nuevos valores auditivos. La composición está muy equilibrada entre los elementos que intervienen en su ejecución: coral, órgano y orquesta de cuerda, sin que pueda observarse el menor desequilibrio en la función de todos y en cada uno de esos elementos».

Egun berean *El Correo Español* egunkarian oraindik iruzkizun luzeagoa agertu zen J.A.Larrauri Jnak eginiko idazlan batetan, idazkia kontzertuaren azken unea kontatuz amaitzen zuela: «Al finalizar el concierto los aplausos que habían irrumpido en la interpretación de cada obra cobraron un cuerpo muy considerable. Desde luego, fue impresionante por lo que tuvo de insólito observar la iglesia convertida en un mar de estrepitosas e inacabables ovaciones. Antes de dar por acabado el acto, y

[345] Ik. Egitaraua, MKA, A-I-270.

después de ser reclamada las presencias del compositor, director y solistas de la Coral, le tocó al público poner el fin al Concierto Sacro entonando con todo fervor una *'Salve Regina'* gregoriana».

dd. *Eginiko musika lanak.*

Izugarria izan zen berak argitaratutako musikalanen zain argitaratugabe geratutakoen kopurua. Karmeldarrek Gasteizen duten probintziako artxiboan beraren musikalanen bi katalogo ditugu: bata, Aita Jose Domingok berak egina, musika konposizioen izenburuz beteriko 7 foliotakoa; bestea, Aita Lino Akesolok 8 foliotan Aita Jose Domingoren musikalanak jasotzen dituena, nahiz eta azken honek eragozpen txiki bat izan ez duelako esaten zeintzu diren argitaratuak eta zeintzu ez[346]. Katalogo biei zenbait xehetasun bibliografiko falta zaie, hala nola, argitaratuak izan zireneko herriaren izena, etab.

Lerro labur hauetan, gaien ordenari jarraituz, katalogo bietatik harturik, musika lan batzuren izenak eskainiko ditut:

1) *Hitzaldiak eta idazkiak.*

1944.ean *«Valor pedagógico del canto gregoriano en la catequesis»* deitu zuen hitzaldia; 1951.ean *«Azkue y su Cancionero»* zeritzona, eta 1953.ean *«El maestro Eslava»* deitua (azken bi hitzaldi hauek *La Gran Enciclopedia Vasca*-n IV, 549-568; VIII, 577-590 argitatuak izan ziren).

1953.ean *«Expositio synthetica regularum psalmodiae gregorianae»* lana argitaratu zuen eta 1955.ean *«De musica Sacra in legislatione Ordinis Nostri»*, Erroman, bertan emaniko ikastaroa jasoten zuelarik.

2) *Gertatutako argitarapenak: «Ritual Carmelitano»*, Cardoso-ren misa, Vicente Coicoechea-ren meza, etc.

3) *Mezak:*
Missa Pastoralis prima... 1928.ean argitaratua. *Missa secunda Pastoralis...*, 1936.ean; *Missa tertia pastoralis...*,1955.ean; *Missa Alme Pater...*, 1949.ean; *Euskal meza...*,1964.ean konposatua; beste *euskal meza* bat 1969.ean (hiru meza hauek ez ziren argitaratu beraren garaian) etc.

4) *Armonizazio gregorianoak:*
«Visperale Romanum» 1924.ean, 260 orr.; Karmeldarren *«Vesperale»*, 1924.ean, 57 orr., ^{2}(1952), 91 orr.; *«Organum Comitans»* 1935.ean, 13 orr.; Karmeldarren *«Ma-*

[346] Ikusi Ordena barrurako ziklostilez ateratako "Vículo" argitarapena (1981, 75.zk.) 19-24.

tutinale» 1941.ean, 96 orr.; *«Graduale Carmelitanum»*, 1957, 101 orr.; *«Laudes Marianae»...*

5) *Beste armonizazio batzu herri hizkuntzan*, euskaraz zein gazteleraz, eliz otoitzerako: abesti erlijioso eta herritarrak, etc.

6) *Hiletako liturgia.* Bost konposaketa ahots ezberdinetan.

7) *Penitentzi liturgia:* 12 musikalan, gehienak hiru edo lau ahotsetan.

8) *Pazko liturgia:* 5 musikalan ahots ezberdinetan.

9) *Jaiotza liturgia:* 5 konposaketa.

10) *Eukaristi liturgia:* 5 musikalan edo konposaketa.

11) *Mariari eskainiak:* 23 musikalan, gehienak lau ahotsetan.

12) *Kantika S. Joseri:* 4 musikalan.

13) *Bestelako kantika eta goretzarreak:* 18 konposaketa.

14) *Kantikak S. Teresari:* 7 konposketa.

15) *Kantikak Gurutzeko Jon Santuari:* 7 konposaketa.

16) *Teresatxo doneari:* 2 konposaketa.

17) *Euskal kantuak.* Aipatu berri diren konposaketa batzuk euskal letra dute, batez ere Andra Mariari eskainiak. Baina beste 17 euskal kantu ere konposatu zituen. Guztien artean ezagunena Santa Agedari zenbait ahotsetan eskainia delarik.

18) *Baditu, baita ere, euskal kantu argitaratu gabeak.* Batzu, euskal abesbatzen artxiboetan barnesartuak. 8 inguru dira.

19) *Txistulari* aldizkarian lankidetzan ihardun zuen. Zenbait musikalan... zor diogu.

ee. *Markinako herriak omenaldia bertako seme txit agurgarriari.*

Markinako karmeldar musikalari handiak bere bizitzako azken 13 urteak bertako hirian egin zituen; urteetan aurrera joan arren (79-92) Karmengo elizako organista zereginean eta musika-konposaketak idazten ihardun zuen.

88 urtetako agurea zela, baina oraindik bizitasun handikoa, Markinako herriak omenaldi eder bat eskaini zion, elkarteek Udalarekin lankidetzan antolatua izan ze-

larik. Onespen handi hori 1976.eko abenduaren 8an egin zitzaion. Zenbait egunkaritan oihartzuna jaso zuen gertakari horrek[347].

10,15etan udal korporazioa komentura aurkeztu zen berari lagun egitera; jarraian parrokiako elizara joan ziren elkarmeza eskaintzera; egintza erlijioso honetan Durangoko orfeoiak abestu zuen eta Arregi, Mugartegi eta Ibarzabal (Erlax) bertsolariak bertsotan egin. Ondoren aurrezkua «Zerutxu» taldeak; gero, 12,30etan bertsolarien ekitaldia (Azpillaga, Lopategi, Amuriza, Lizaso, Arregi,...) eta Aita Jose Domingori opariak ematea eta omenduak konposatutako Markinako Goretzarrea (Aita Bizente Batiz-en letra duena) lehen aldiz abestea; gero, Ansola anaia txistulariek Aita Jose Domingok konposatutako musikalan batzu jo zituzten; azkenik, «Zerutxu» dantza taldearen iharduna eta Durangoko orfeoiaren ekitaldia. Eta amaitzeko herritarren arteko bazkaria[348].

d. Aita Emiliano del Niño Jesús (Julián Barandiaran, 1904-1967).

aa. *Berak burututako musika ihardunari dagozkion datu batzu.*

Lehenago gogoratu ditugu beraren bizitzako datu batzu[349]; hemen, bada, beraren nortasunean indartsu agertu izan zen musikalari edo artista ikuspegia osotuko dugu bakarrik.

Aita Emilianok bizitza osoan zehar organista eta musika irakasleari zegozkion zereginetan ihardun zuen karmeldarren ikastetxeetan, batez ere Markinan, bertan nabarmendu zelarik musikalari eta konposatzaile gisa.

Kantu gregorianoari buruzko hainbat ikastaro egin zituen: bat Montserrat-en Pujol eta Franquesa benediktarrekin; beste bi, El Escorial-en eta Gasteizeko apaizgaitegian, Paris-eko Institutu Gregorianoaren ordezkaritza gisa, tituluak emateko ahalmena zuela, Espainian ezarritako Musika Sakratuaren Goi Eskolako zuzendari ziren Aita Manzarraga eta Aita Rubio-rekin. Bi ikastarotan (1953. eta 1955.etakoan) diploma lortu zuen; Kantu Gregorianoan doktoradutza lortzeko *Psalite Sapienter* lana aurkeztu zuen tesi gisa; «Maestro en canto gregoriano» izenburua lortu zuen (1956-VII-31) Paris-eko Institutu Gregorianoko zuzendari zen Le Guennant Jnak eta Musika Sakratuaren Goi Eskolako zuzendari zen Aita Tomás Manzarraga-k izenpetua izan zelarik[350].

Oso musika iharduera izugarria burutu zuen: komunitateko koruaren zuzendari eta irakasle gisa, karmeldar gazteen musika heziketaren ardura izan zuen 40 urtetan zehar; gorago aipatu dugun Markinako umeentzako solfeo Akademia sortu ondoren,

---

[347] Horrela *El Correo Español*, abenduaren 7an eta 10ean; *La Gaceta del Norte* 9an etab.

[348] Ik. GPKA, C, 121.kutx.: *Homenaje del pueblo de Marquina...*; MKA, A-II-1a, *Libro de crónicas*, 143.orr.; ikusi, era berean, aipatu ditugun egunkarietako idazlanak.

[349] Ik. 422-424.orr.

[350] Ikusi agiriak MKA, A-V-10ean.

bertako irakasle izan zen 12 urtetan zehar. Horretaz gainera, urtero aparteko ikasleak izaten zituen solfeo eta txistua ikasten (1959.ean Markinako ume txistularien banda sortu zuen); piano ere ematen zien batzuri, beraren neska ikasle batzu piano, armonia, estetika, musikaren historia eta abarretan kalifikaziorik onenetarikoak lortu zituztela Bilboko Kontserbatorioko urteroko azterketetan, zenbaitek irakasle titulua eskuratuz[351].

bb. Musika-lanak.

Karmel aldizkarian 1958-1961. urteetan zehar, geroago beraren *Euskal Musikalari bikainak* (Zarautz 1967, 163 orr.) deituriko liburuaren abiaburu izan zirelarik, musikalari ezberdinei buruz idatzitako idazlan ugariez gainera, daukan garrantzia pedagogikoa dela bide lehenago aipatu dugun *Psallite sapienter* (Gasteiz 1955, XI-288 orr.) nabaritzen da: Ordenako ikastetxeetan testu gisa erabiltzeko musikako compendium-a da; bertan Aita Santuen une hartako aginduen arabera, 14 ikasmailetan zehar banatuta musika teoria figuratua eta gregoriano osoa biltzen zuen; horretaz gainera, bi gehigarri zituen, bata, organistentzat Armoniako Norabide batzu jasoten zituena eta, bestea, Aita Santuek musika erlijiosoari buruz eginiko agiri garrantzitsuenak biltzen zituena.

Berak konposatutako musikalanen artean hurrengook aipatu ditzakegu:

1) *Euskal meza (Jaungoiko-Erriarentzat Euskal-Meza. Bizkaieraz eta Gipuzkeraz...* Bilbao 1965, 28 orr.) Euskal Herrian oso onarpen zabala izan duena.
2) *Abestiño erlijiosoak* eta *komentuko ekitaldietarako kantuak* (argitaragabeak). Esaterako, a) Gurutzeko Jon Santuaren ohoretan lau ahotsetan eginiko *O Doctor Optime*; b) *Negarrez Sagrarioan* lau ahotsetan eginiko jaurnartze kantua; c) lau ahotsetan S. Joseri eskainitako *Jesus'en Aita*; d) *Quem vidistis, Pastores*? hiru ahotsetan, etc.
3) *Txisturako konposaketak:* a) *Or Konpon!*. b) *Urrundik!* c) *Nere Andrea*. d) J.S. Bach-en re txikiko tokata eta fuga txistuz joteko egokitzea. e) Bethoven-en seigarren sinfonia, «Pastorala» txistuz jotzeko egokitzea edo moldatzea[352].

[351] GPKA, C, 34.kutx., fitxa autobiografikoan.
[352] Ibd.; ik., era berean, 250. oharreko bibliografia.

D. HEZIKETA MARKINAN HARTU ZUTEN PERTSONAIA OSPETSU BATZU

Kapitulu honetan, heziketa urte batetan edo gehiagotan Markinako Karmengo etxean hartu zutelarik Elizan (apezpikuak) zein Ordenan (Jeneralak) izandako karguen zioz hainbatetan ospetsuak izandako pertsonaia batzuren berri jasoten da. Egiatan, pertsonaia gehien horiek ez dute zuzeneko eraginik izan Markinan bertan edo Euskal Herrian; bai, ostera, urrutiko lurraldeetan, hala, India, Amerika eta abarretan.

Markinari berari dagokion ikuspegiz begiratuta, badira nahiko ospe handiko beste zenbait karmeldar, Markinan bertan edo Probintzian eragina izan dutenak ere, esaterako, priore zein sermolari batzu; ezin ditugu guzti horiek hemen banan-banan gogoratu; hala ere, kontutan hartu beharko lirateke apartekotasunez aipatzen ez baditugu ere.

Hemen, laburkiro, zenbait pertsonaia garrantzitsuri, hau da, Apezpiku, Ordenako Jeneral, Santu eta abarri buruz hitz egiterakoan, Markinako Karmengo etxeak, bertan uneren bat egindakoen bidez munduan zehar apostolutza zabaltzen izandako partaidetza gogora ekarri nahi dugu.

Pertsonaia gehien horiek, XIX. mendearen amaieran zein XX. mendearen hasieran Markinako profesio-eginberrien etxean beren ikasketak osotzen egonak ditugu. Hamarkada horietako karmeldar gazteen ikasketen lekuko garrantzitsu gisa, karmeldar ikasleen azterketa aktak biltzen dituen Karmeldarren euskal Probintziako Gasteizeko artxiboko *Examen Studentium* (1872-1942) eskuliburua erabiliko dugu. Hala ere, bada, eskuliburu horretan hutsegite garrantzitsu bat: filosofia eta teologiako ikasturte guztietako berriak jasoten diren arren, ez dira, era berean, Larreako nobiziatuaren ondoren Markinako profesio-eginberrien etxean egiten zen Humanisteka ikasturteari zegokion guztia biltzen. Oso gutxitan, esaterako 1912-1915. urteen artean, ageri da berririk *Examen studentium* eskuliburu horretan. Hala ere, argi ageri da, bestalde,

urte horietan nobiziatua amaitu ondoren urtebete egiten zela nonbait filosofiako lehen ikasturtea hasi aurretik; hain zuzen ere, salbuespenak salbuespen, heziketa ikasturte hori jeneralean Markinan egiten zen.

1. **Prelatuak - Apezpikuak**

868.ean Markinan Berreraikuntzari hasiera eman eta karmeldarren euskal probintzia eta Espainiako beste batzu berreraikiak izan ondoren, misio izpirituak gorakada handia izan zuen Nafarroako S.Joakin Probintzian; horrela, bertako semeak India, Amerika eta abarretara joaten hasi ziren. Eta, egin-eginean ere, Aulki Santuak hainbat elizbarrutiren ardura, ez beti Misio-lurraldeetakoena, karmeldar apezpikuen esku jarri izan du.

a. **Aita Bernardo de Jesús (Felipe Arguinzoniz, 1852-1933)**[353].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Felipe Zornotzako «Jauregizar» baserrian jaio zen 1852.eko maiatzaren 26an. Beraren gurasoak Juan Domingo de Arguinzoniz eta María Teresa Astobiza izan ziren. 1868.ean Markinako Karmengo komentuaren Berreraikuntza egin ostean, bertan hartutako lehen 9 fraidegai berrien artean ageri da[354], profesioa beste 5 gazterekin batera, Felipe de la Purísima Concepción izena hartuz 1870.eko azaroaren 24ean egin zuela [354a]; talde oso garrantzitsua izan zen Euskal Herrian hasi eta karmeldarren zabalkunde handiaren abiaburu izango zen aro berriko lehen Karmeldar berriek osotutako hau; beraien artean zegoen, era berean, lehenago aipatu dugun Jerónimo de la SSma.Virgen euskal sermolari ospetsua ere. Felipek, 1873.eko azaroaren 24ean profesio nagusia egin zuenean, behin betirako Bernardo de Jesús izena hartu zuela gogoan hartu beharra dago[355].

Markinan egin zituen bere filosofia (1871-1874) eta teologiako (1874-1877) ikasketa guztiak; eta 1878-1879.ean eta jarraikoetan filosofiako lehen ikasturteko irakasle gisa ageri da Burgos-en eta 1883.ean teologiako irakasle zereginetan[356] eta 1877.eko abenduaren 13an Erromako Definitorio Jeneralak teologiako irakasle izendatu zuen[357].

---

[353] Agiri ugari daude GPKA, C, 13-15.kutxetan. Ikusi, baita ere Aita Juan Bizentek "*Obra Máxima*" aldizkariko 151. zk.an (1933-uztaila) eginiko idazlana: *El Arzobispo de Verápoly Rdmo.Bernardo de Jesús*; eta *Litterae pastorales, de II centenario Missionum nostrarum in Malabaria*, BOPSJN 2 (1956, 26.zk.) 397-400.orr., etab.

[354] *Correspondencia...*, 114.zk., Aita Pedro Josek Gaytan kondeari 1869-XI-9an eginiko gutuna.

[354a] MKA, A-VII-1, *Liber Professionum simplicium*.

[355] MKA, A-IX-1, *Liber professionum solemnium*, 7.orr.

[356] GPKA, *Examen studentium*.

[357] ADG, 113.orr.

Eta 1879.ean Burgos-eko priore izendatua izan zen arren, ez zuen onartu Definitorio Jeneralak urte bereko ekainaren 16an ez baitzion adin-ezaren zioz kargurako behar zuen aparteko baimenik eman, teologiako irakasle izaten jarraitu zuela[358]; baina, 1881.ean berriro hautatu zuten; eta, 1882.ean, Probintziako laugarren Definitore. 1883.ean bost Apaiz Karmeldar gazte joan ziren Indiako Malabar-eko Misioetara; beraien artean zegoen Aita Jeneralari misioetara jotea eskatu zion Aita Bernardo.

1884-1891. urteen artean, filosofiako irakasle eta Izpirituzko Zuzendari izan zen Puthempally-ko Apaizgaitegian. Urte hauetan, era berean, apostolutza iharduran ere eskuhartu zuen pertsonalki bere barrutiko misio lana antolatzen eta sistematizatzen, konbertsio mugimendua bultzatuz et kristau talde indartsuak sortuz. Batez ere gizarteko gutxietsitako talde baztertuekin, pariekin ihardun zuen beraien neba-anaia bihurtuz.

1896.ean Manjumel-eko elizako apezpiku sagaratu zuten. Txirotasun handia eta eragozpen ekonomiko handiak izan arren, zenbait eliza eraiki zituen, horrela Vijayapuram (1894), Chengalan (1902), Podimatham (1905), Kurchy (1906), Amayanur (1906), Vaznur (1907) eta abarrekoak. Ez zuen alde batera uzten neska-mutil gazteen heziketa; 1808.ean, apaiz izan nahi zuten gazteentzat apaizgaitegia ireki zuen. 1919.ean Verapoly-ko artzapezpiku kargua utzi zuen eta urte bereko maiatzean Malabar.

Karmelo Mendiko (Palestina) komentura erretiratu zen. Baina osasun arazoak sortu eta medikuek tokia aldatzea gomendatu zioten. «Desierto de las Palmas»-era (Castellón) aldatu zen, bertan, komentuko edozein erlijioso gisa arituz bizi izan zela. 1933.eko maiatzaren 5ean hil zen[359].

bb. *Idazlea - Pastoraltza-iharduera.*

Markinan hartutako filosofia eta teologiako heziketak eta jarraian filosofia zein teologiako irakasle zereginetan aritzeak idazle izateko prestakuntza egokia eman zioten; hala ere, pastoraltzako beharrizanek bultzatuta bakarrik idatzi zuen: idazlan laburrak, beraietan, besterik beste, gogo-otoitza, eskolen gobernua, kristaubide berria eta beraren eskoletan egiteko erabilpena, zuzenbide kanoniko berriaren aldarrikapena eta aplikazioa aztertu zituela. 1898-1916. urteen artean apezpiku ihardueran 30 artzain gutun baino gehiago idatzi zituen[360].

[358] ADG, 125-126.orr.
[359] Ik. idazki biografiko bat, GPKA, C, 13.kutxan.
[360] Ik. *Litterae pastorales, de III centenario missionum...* BOPSJN 2 (1956, 28.zk.) 398-400.

b. Aita Valentín de la Asunción (Manuel Zubizarreta, 1862-1948)[361].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Manuel 1862.eko azaroaren 2an jaio zen Etxebarrin (Markina), bertako San Andres elizan bateatua izan zela. Beraren gurasoak José Zubizarreta eta Brigida Unamunzaga izan ziren. Lehen letrak Markinan ikasi zituen. Eta humanistikako ikasketak Markinako Karmengo etxeko latin ikastetxean egin ondoren Larreara joan zen, profesioa 1880.eko abuztuaren 12an, Valentín de la Asunción izena hartuz egin zuela[362].

Filosofiako hiru ikasturteak (1881-1884) Burgos-en egin zituen eta teologiako beste hirurak (1884-1887) Markinako Karmengo etxean[363]. Ez ditugu ahaztu behar teologiako ikasketa hauek, Aita Valentin fraideak, geroago, onarpen handiko teologiako testuak argitaratu zituen eta.

Apaiz sagaratua izan ondoren, lehen meza abestua Markinako komentuan eskaini zuen 1886.eko abenduaren 20an. Markinan ikasketak bukatu zituen urte berean Burgos-eko karmeldarren ikastetxeko Teologia Dogmatikako irakasle izendatu zuten, zeregin horretan ihardun zuela 1890. urterarte; 1890-1892. urteen artean Teologia Morala eta Zuzenbide Kanonikoa irakatsi zituen Gasteizen[364]. Azterketen aktetan Gasteizeko Teologiako ikastetxeko priore zereginetan ageri da 1892-1897. urteen artean[365].

Probintziako 1897.eko Kapituluan, probintziako lehen Definitore izendatu zuten. Hurrengo kapituluan, 1900.eko maiatzaren 5ean, Nafarroako S.Joakin Probintziako Probintziale izendatu zuten lehen bozketan, 24 botuetatik 17 jaso zituela[366]. Hirurtekoa bukatu ondoren Santander-eko komentuko bikario izan zen 1903-1906. urteen artean. 1906.eko maiatzean egin zen Probintziako kapituluan Burgos-eko komentuko priore egin zuten, baina ezin izan zuen agintaldia bukatu, Aita Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús 1907.eko apirilean Ordenako Jeneral izendatua izatean, idazkari lanetarako hartu zuelako. Horrela, Erroman bizi izan zen 1907-1912. urteen artean. Nafarroako S.Joakin Probintziako kapituluak, Larrean bilduta berriro probintzial izendatu zuen 1912.eko apirilaren 27an[367].

---

[361] Agiri eta paper oso ugari ikus daitezke GPKA, C, 131. kutxan. Ikusi multikopian argitaratutako jarraiko idazlana: Higinio GANDARIAS IBAIBARRIAGA, *Luz y amor. Biografía documental del Exmo. Rvdmo. Fr.Manuel Valentín Zubizarreta y Unamunzaga, Arzobispo de Santiago de Cuba*, Gasteiz 1986, 372 orr.

[362] LKA, A-VIII-1, *Liber profesionum simplicium*, 1876-1897, 52.orr.

[363] GPKA, *Examen studentium*.

[364] Ibd.

[365] 1892.eko urtarrilaren 27an Definitorio Jeneralak priore izateko adin gutxiegi izatearen zioz salbuespenezko baimena eman zion: ADG, 291.orr.

[366] GPKA, *[Acta Capituli Provincialis]*, 46v.

[367] Ibd., 81v.

Probintzialaldian ardura berezia jarri zuen erlijiosoen onura izpirituala zein materiala hobetzen eta kultur sustapena eta misio iharduera bultzatzen; beraren garaian zabalkunde handia izan zuen probintziak.

Baina ezin izan zuen hirurtekoa amaitu, 1914.ean Aita Santu Pio X.ak Camagüey-ko (Kuba) lehen apezpiku izendatu baitzuen. Urte horretako maiatzean bere elizbarrutian aurkitzen zen; urte bereko azaroaren 8an sagaratu zuten apezpiku, egun berean hartu zuela elizbarruti berriko ardura. Era berean 1916.etik aurrera Cienfuegos-eko administrari apostoliko ere izan zen.

1917.eko urriaren 24ean sagaratu zuen Camagüey-ko eliza-katedralea eta hurrengo hileko 25ean, baita ere, Cienfuegos-eko eliza-katedralea; 1922.ean Cienfuegos-eko apezpiku izendatu zuten. 1924.eko abenduan Kuba-ko Santiagoko Administrari Apostoliko izendatua izan zen eta hurrengo urteko martxoaren 30ean Kubako Santiagoko artzapezpiku kargua hartu zuen; kargu horretan iraun zuen 1948.eko otsailaren 26an hil zen arte.

Izugarrizko lana egin zuen artzapezpiku ihardunean. Ikasten aritzeko zuen joera eta interesaz zein biblioteka on bat biltzeko arduraz gainera, Caibarien-go Ospitalea eta Gazteri Katolikoaren Egoitza eraiki zituen; bestalde, Kubako Santiagoko apezpiku jauregi berria, apaizgaitegi kontziliar berria, Karitateko Andra Mariaren Santutegia, Babesgabeen babesetxea eta 20/30 eliza eta kapera etab. ere eraiki zituen. Elizbarrutiko Eukaristia Kongresua bultzatu eta antolatu zuen eta, baita ere, Cobre-ko Karitateko Andra Mariaren koroapen kanonikoa Kubako Santiagon (1936).

Markinar hau gorputzez izaera mardulekoa zen, euskaldun sendoaren ospea osoosoan egia bihurtzen zuela. Beraren 1948.eko otsailaren 28ko hileta otoitzean Serantes Apezpikuak esandako hitzok gogora ekar ditzakegu: «Nacido en un lugar netamente cristiana a la antigua usanza y pletórico de sana moral hijo del País Vasco, en el que corren parejas la robustez del cuerpo y fortaleza del alma».

bb. *Idazle teologoa.*

Markinar honek Markinako Karmengo komentuan teologiako ikasketak egin ondoren lortutako emaitzak ugariak izan ziren eta ospe handia eman zioten[368]. Hainbat liburu idatzi zituen bere bizitzan zehar:

— *Teologia idazlanak:* beraren lan ospetsuena, *Theologia dogmatica Scholastica ad mentem S. Tomae Aquinatis*... lau liburukitan argitara emana da:

- *Theologia Fundamentalis*: 1. Lib. Burgos, 714 orr.; (Bilbo ^{2}1925, ^{3}1937, ^{4}1948)...
- *De Deo Uno, De Deo Trino et de Deo Creatore*. 2. Lib. Burgos, 1919; Bilbo, ^{2}1925, ^{3}1937, ^{4}1948...

[368] Aita Higinio Gandarias-ek zehatz mehatz aztertu zituen Aita Valentin apezpikuaren literatur lanak aipatu dugun *Luz y amor*..., laneko 121-166.orr.

- *De Gratia Dei, De Virtutibus theologicis et de Verbo Incarnato*. 3. Lib. Bilbo, 1926; Bilbo, ^{2}1938, ^{3}1948....
- *De Sacramentis in communi, In particulari ac de novissimis*. 4. Lib. Bilbo, 1926; Bilbo, ^{2}1939, ^{3}1949...).
- *Medulla Theologiae Dogmaticae. Bilbao 1935, 1.103 orr.; Bilbo 1947.*

— *Artzain-gutunak*: apezpiku izan zen urte ugari horietan zenbait artzain-gutun idatzi behar izan zituen.

— Aszetika eta Mistikari buruzko zientzi idazlanak. Teologiako ikastetxea zen Burgos-eko komentuko priore izan zen lehen bi urteetan (1906-1907) 13 idazlan argitaratu zituen karmeldarren *El Monte Carmelo* aldizkarian.

- *Mística cristiana. I. Vida espiritual*, 7 (1906) 561-565.
- *Mística cristiana. II. ¿Qué se entiende por mística?*, 7(1906) 601-605.
- *Mística cristiana. III. ¿Qué se entiende por mística?*, 7(1906) 642-845.
- *Mística cristiana. IV. Ascética y Mística*, 7 (1906) 681-886.
- *Mística cristiana. V. Grados de la Mística*, 7(1906) 881-886.
- *Mística cristiana. VI. Las vías purgativa-iluminativa y unitiva*, 7(1906) 921-925.
- *Mística cristiana. VII. Vía purgativa*, 8(1907) 51-58.
- *Mística cristiana. VIII. Vía iluminativa*, 8(1907) 91-98.
- *Mística cristiana. IX. Vía unitiva*, 8(1907) 129-134.
- *Mística cristiana. X. Vía unitiva*, 8(1907) 169-174.
- *Mística cristiana. XI. 8(1907) 249-252.*
- *Mística cristiana. XII. Mística en el estado de la inocencia*, 8(1907) 329-333.
- *Mística cristiana. XIII. El primer pecado y sus consecuencias*, 8(1907) 369-372.

Ikus dezakegunez, oso handia izan zen markinar honek erlijioso, irakasle, apezpiku, apostol eta idazle teologoa zen adinean erakutsi zuen nortasunaren neurria.

c. Aita Severino de Santa Teresa (Antonio Eustaquio Aguirrebeitia, 1885-1962)[369].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Berrizen (Bizkaia) jaio zen 1885.eko abenduaren 11n; beraren gurasoak Domingo Aguirrebeitia eta Nicolasa Arriaga izan ziren. Lehen ikasketak herrian egin zituen 1892-1897. urteen artean. Latin eta humanistika ikasketak egiten Durangoko

[369] Beraren eta berari buruzko agiri eta paper oso ugari ikus daitezke GPKA, C, 4bis kutxan. PEDRO MARIA DE SAN JOSE, *El M.Rdo.P.Severino de Sta.Teresa, ex-Prefecto Apostólico de Urabá (1885-1962)*, BOPSJN 4 (1962, 52.zk.) 344-462; Idem, *Jornada misionera en Urabá. P.Severino Aguirrebeitia de Santa Teresa...*, Donostia 1985, 24 orr. *Mixiolari Uraba-n lan-aldi betean. Agirrebeitia ta Arriaga'tar A.Seberino agurgarria...*, Donostia 1985, 40rr. (Aita Lino Akesolok euskeratuta).

Jesuiten ikastetxean hasi zen 1898-1899. ikasturtean eta Villafranca-n (Nafarroa) 1899-1901. urteetan zehar jarraitu. 1901.ean joan zen Larreako nobiziatura eta profesioa 1902.eko apirilaren 24ean egin zuen Severino de Santa Teresa izena hartuz.

Profesio-eginberrien Markinako Karmengo etxean osotu zituen Humanistikako ikasketak 1902-1903.eko ikasturtean.

Jarraian filosofiako bi ikarturte (1903-1905) Burgos-en eta bat (1905-1906) Gasteizen; teologiako ikasturte bat (1906-1907) Gasteizen eta beste hiru (1907-1910) Begoñako Karmelon[370]. Ikasketa horiek, ikasturte bat (1910-1911) Lovania-ko unibertsitatean eta beste bat (1911-1912) Vienna-koan eginez osotu zituen. Gero, Burgoseko komentuan egin zituen urte batzu *El Monte Carmelo* aldizkariaren administrari zereginak betez eta Burgos-eko unibertsitate pontifikalean alemaniera irakatsiz (1911-1914); jarraian Villafranca-ko karmeldarren ikastetxean Humanistikako irakasle (1914-1916) izan zen. Ondoren, Larreara aldatu zuten, Humanistika ikastetxeko zuzendari eta irakasle (1916-1918) ihardunean aritu zela.

1918.ean Urabá-ko (Kolombia) misiora bidali zuten. Propanda Fide Kongregazio Santuaren dekretuz 1926.eko azaroaren 10ean Urabá-ko prefektu apostoliko izendatua izan zen. Kargu hartan ihardun zuen etengabeki 13 urtetan zehar eta 23 urtetan misiolurraldean. 1941.ean Urabá-ko misioa Antiokia-ko elizbarrutiko egin zutenean bertako apezpikuak Urabá-ko Bikario orokor izendatu zuen, karmeldarrek, 1945.ean Urabátik betirako alde egin zuten arte. Urte batzu (1945-1948) Panama-n egin ondoren Euskal Herrira itzuli zen, aurrerantzean 1948.etik 1962.eko apirilaren 29ko beraren heriotzerarte karmeldarren Zornotzako ikastetxean bizi izan zela.

bb. *Idazlea.*

Apostolutza iharduera bizi-bizia burutu zuen arren, etengabe ikasten eta ikertzen aritu zen, hainbat idazlan argitaratu zituela:

1. *Creencias, ritos, usos y costumbres de los indios Catíos de la Prefectura Apostólica de Urabá.* Bogotá 1924, 141 orr.
2. *Carta pastoral...* Dabeoba (Medellín) 1939, 23 orr.
3. *Corona fúnebre del primer Prefecto Apostólico de Urabá, Mons. José Joaquín de Arteaga,* Bogotá 1927, 400 orr.
4. *Instrucción pastoral sobre el ministerio parroquial.* Medellín 1932. 166 orr.
5. *Cancionero poético musical de Urabá* (argitaratugabea) 1932.
6. *Breve catecismo de la Misión de Urabá.* Donostia 1932, 47 orr.
7. *Cantos populares de los indios Catíos de Urabá* (argitaratugabea), 1939.
8. *Cancionero mariano de Urabá.* Bogotá 1959. 466 orr.

[370] Ik. GPKA, *Examen studentium.*

9. *Orígenes de la devoción a la Santísima Virgen en Colombia y Nomenclator Mariano de los descubridores y pobladores de la América Española*, Medellín 1952. 282 orr.
10. *Vírgenes Conquistadoras que Santa Teresa envió a las Américas*, Gasteiz 1951, XVI-714 orr.
11. *Nuestra Señora de Andikona en Berriz (Vizcaya)*. Bilbao 1954. 343 orr.
12. *La Inmaculada en la conquista y coloniaje de América Española*, Bilbao 1954. 343 orr.
13. *Vizcaya por la Inmaculada*. Gasteiz 1955. 280 orr.
14. *Historia documentada de la Iglesia de Urabá y el Darién, desde el descubrimiento hasta nuestros días*. 5 lib. Bogotá 1956-1957.
15. *Los Indios Catios. Los Indios Cunas*. Medellín 1950. 317 orr.
16. *Santa Teresa por las Misiones*. Gasteiz 1959. 675 orr.
17. *Ejercicios espirituales según el espíritu y doctrina de Santa Teresa y San Juan de la Cruz, para carmelitas descalzos y descalzas*, Bilbao 1962. 621 orr.
18. *Santa Teresa glorificada por los Santos* (argitaratugabea eta amaitugabea, 400 orrialde inguru)

d. Wenceslao del SSmo. Sacramento (Manuel Gómez Fraude, 1900-1955).

Manuel Santander-eko semea zen; 1900.eko urtarrilaren 11n jaioa. Beraren gurasoak Francisco Gómez eta Venancia Fraude izan ziren. Larreako nobiziatuan sartu zen eta bertan urtebete egin ondoren 1918.eko uztailaren 12an egin zuen profesioa, Wenceslao del SSmo. Sacramento izena hartu zuen. Aipatu dugun Aita Narkisoren ikaskidea izan zen eta berarekin egin zuen 1918-1919. ikasturtea Markinan Humanistikako ikastaroak osotuz.

Filosofiako hiru urteak (1919-1922) Gasteizen egin zituen eta teologiako beste hiru (1922-1925) Begoñan. 1925.eko irailaren 19an sagaratu zuten apaiz. S.Miguel de Sucumbios-eko (Ecuador) prefectu apostoliko izendatu zuten 1955.eko martxoaren 9an hil zen[371].

e. Aita Ambrosio de la Virgen del Carmen (Juan Abasolo Lecue, 1904-1982)[372].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Juan, Zornotzako semea zen; «Larrako-Kurutze» baserrian jaio zen 1904.eko irailaren 23an; beraren gurasoak Roque Abasolo eta Benita Lekue izan ziren. Lehen ikasketak Zornotzako eskola estataletan egin zituen (1912-1914). Hamar urte zituela

---

[371] LKA, A-VIII-2, *Liber professionum simplicium*, 1897-1927, 336.orr.; GPKA, *Examen studentium*. Ik., era berean, BOPSJN 2(1955, 25.zk.) 251.

[372] Beraren eta berari buruzko agiri ugari dago GPKA, C, 1-3.kutxetan. Higinio GANDARIAS, *Por la Cruz a la Luz. (Mons.Juan Abasolo Lecue,O.C.D.)*, Gasteiz 1983, 191 orr.

Humanistika ikasketak egiten hasi zen Larreako Ikastetxean (1914-1918) eta Villafranca-n (Nafarroa) jarraitu 1918-1919.eko ikasturtean zehar. Gero, Larreako nobiziatura joan eta profesioa handik urtebetera 1920.eko irailaren 25ean egin zuen Ambrosio de la Virgen del Carmen izena hartuz.

Filosofiako hiru urteak (1921-1924) Gasteizen egin zituen eta teologiako beste hirurak (1924-1927) Begoñako Karmelon. 1927.eko irailaren 24ean sagaratu zuten apaiz. Hurrengo hilean Larreara joan zen Humanistikako ikastetxean irakasle zereginetan aritzera.

1928.eko irailaren 10ean egin zuen teologiako azterketa orokorra (de Universa) Begoñan[373]. 1928-1930. urteetan filosofiako irakasle izan zen Gasteizen eta 1930-1931. ikasturtean teologiako irakasle Begoñan[374].

1931.ean ikasle talde bat bidali zen Indiara. Aita Anbrosio beraiekin batera bidali zuten eta ikasleen irakasle eta zuzendari-gidari izaten jarraitu zuen Ernakulamen. 1933.ean Alwaye-ko Apaizgaitegi Apostolikora bidali zuten irakasle izatera, batez ere 1950. urterarte, teologiako katedran aritu zela, era berean, Apaizgaitegiko izpirituzko gidari izan zela..

1949.eko abenduaren 25ean Vijayapuram-eko apezpiku izendatu zuten eta 1950.eko ekainaren 11n sagaratu Begoñako Karmelon (Bilbo). Elizbarrutiaren ardura izan zuen 1971.erarte. Bera apezpiku izan zen aldian zabaldu egin zen misioa, hainbat eta hainbat parrokia berri sortuz, elizak, komentuak, eskolak, konbertsioak etab ugalduz, izpirituzko zein materiazko aurrerapen handiak ekarriz.

1971.ean karmeldarren euskal probintziara erretiratu zen. Markinara 1971.eko ekainaren 6an heldu zen eta bertan egon zen 1973.eko irailaren 27a arte. Markinan beste edozein praileren bizimodua eginez ihardun zuen, apaltasun osoz eguneroko bizimodua betez. Hurrengo, Hoz de Anero-ko Basamortura (Kantabria) joan zen. Hainbatetan ikusmena galtzea etorri zitzaion. 1977.ean, beraren apaiz-sagaratzearen 50. urtemugan, Aita Santuak, Indiako hainbat pertsonaiak etabarrek bidalitako zorion beroak jaso zituen. Basamortuko etxea, konponketak egiten zihardutelako, egoera onean ez zegoenez, Maliaño-ko Moja Karmeldarren etxera joan zen bertan zenbait urtetan kaperau izan zela. Begietako lausoak ugaritzean 1981.eko irailean Kalagurriko komentura joan zen; azaroan egin zioten ebakuntza. 1982.eko urtarrilaren 10.ean hil zen.

bb. *Teologoa eta idazlea.*

— Euskal idazle gisa, gaztaroan *Euskal Esnalea* aldizkariak antolatutako lehiaketan lehen saria lortu zuen 1930.ean Cervantes-en *«El licenciado Vidriera»* idazlanaren euskarako itzulpenaren bidez. Beste sari bat ere lortu zuen 1931.ean.

---

[373] Ik. GPKA, *Examem studentium*.
[374] Ibd.

1931.ean *Karmengo Argia* jaio zenean, berak berehala parte hartu zuen 1931.ean 8 idazlan idatziz eta 1932.ean, ordurako Indian zegoela, beste bat[375].

Era berean, hainbat idazlan idatzi zituen *La Obra Máxima* aldizkarian gazteleraz 1951-1970. urteen artean.

— *Idazki pastoralak eta homiliak.*

Gasteizeko karmeldarren probintziako artxiboan, 1956-1971. urteen artean apezpiku zela idatzi zituen gutun pastoral eta eskribuen zerrenda luzea dago eta bertan 115 baino gehiago ageri dira. Horietaz gainera, Aita Higiniok bi liburuki handitan bildu ditu Abasolo apezpikuak Maliaño-ko Karmeldarren elizan eginiko homilia eta hitzaldiak.

— *Idazki teologikoak.*

Abasolo apezpikuak Maliaño-n utzitako gaiak elkartuz Aita Higinio Gandarias karmeldarrak idazki teologikoz osoturiko bi liburuki lodi egin ditu, guztira 82 idazlan bildu dituela.

Horietaz gainera, badira beste 7 liburuki, «Escritos varios» deituak, gehienak idazki teologikoen zirriborroak direla.

— *Vatikano II. Kontzilioan izandako iharduera.*

Handia izan zen Abasolo apezpikuak Kontzilioko ihardueretan izan zuen eskuharmena. Ongi ezagutzen zuten Indiako apezpikuak harriturik geratu ziren Abasolo apezpikuak batzarraldietan izan zituen partehartze ugariak ikusirik, Indian oso isila eta beldurtia agertzen zelako.

Egin-eginean ere, *Acta Synodalia Sacrosanctae Concilii Aecumenici Vaticani II. Indices* (Vatikano II. Kontzilioaren Akta Ofizialak) begiratuz, 27 aldiz ageri dela Anbrosio aipatuta ikus daiteke[376].

---

[375] *Teresatxo deuna*, 1 (1931, 1.zk.) 21-22; 1 (1931, 3.zk.) 88-89. *Idazkai sakonak. Gizona*, 1 (1931, 1.zk.) 25-26; 1 (1931, 2.zk.) 51-52; 1 (1931, 4.zk.) 110-111; *Karmengo Ama ta garbitokia*, 2 (1931, 19.zk.) 203-205; *Gizon - iztia*, 1 (1931, 8.zk.) 239-240; *Efeso'ko batzar nagusia*, 1 (1931, 6.zk.) 174-177; *Teresatxo gurena*, 1 (1931, 5.zk.) 143-144).

[376] *Acta Synodalia Sacrosanctae Concilii Aecumenici Vaticani II. Indices*. Vatikano 1980, II-I, 112, 116, 421, 430-433; II-II, 221, 256-258; II-IV, 357; II-VI, 462; III-I, 67, 77, 429, 473-375, 491; III-II, 288,468,477-481; III-III, 626-628; III-VIII,878; IV-I, 422; IV-II, 390, 397; IV-III, 354; IV-IV, 410-413; IV-V, 640; IV-VI, 653; IV-VII, 825.

Horrela, parteharmenak izan zituen *Lumen gentium* agirian Elizari buruz; San Joseri zegokionean «Señálese con mayor relive la persona y acción interna de S.José» erantsi zuen. Era berean, Ekumenismoari edota Elizaren misio-iharduerari buruzko gaietan ere parte hartu zuen.

f. Aita Luis de Santa Teresa del Niño Jesús (Francisco Irizar, 1906-1965)[377].

Frantzisko, Ormaiztegin (Gipuzkoa) jaio zen 1906.eko martxoaren 15ean. Beraren gurasoak Juan Cruz Irizar eta Cándida Salazar izan ziren. 12 urte zituela Gasteizeko Apaiztegi kontziliarrean sartu zen, bertan egin zituela humanistika ikasketak; baina, 1926.eko irailean Larreako karmeldarren nobiziatura joan eta hurrengo urteko irailaren 12an profesioa egin zuen Luis de Santa Teresa del Niño Jesús izena hartuz. Humanistika ikasketak Markinan bukatu zituen 1927-1928. ikasturtean. Markinan egin zuen egotaldi hori oso garrantzitsua izan zen beraren bizitzan. Aita Zabalak honako hau diosku: «...después de la profesión religiosa se trasladó al convento de Marquina. Durante este año su vocación se perfila y hace más intensa. Toma una decisión sorpresiva. Pide al Provincial que lo destinen a una Misión. La petición es excepcional. El Superior escucha sus razones y ante la llamada misionera le destina al convento de Leiva en la Misión de Urabá»[378].

Horrela, bere filosofia eta teologiako ikasketak Leiva eta Palmirako komentuetan egin zituen Kolombian. 1933.eko otsailaren 12an sagaratu zuten apaiz. Berehala hasi zen lanean Urabá-ko misioan. Bertan aritu zen lanean 1933-1945. urteen artean, urte horretan misio hura Antiokia-ko elizbarrutiko egina izan zen arte. Orduan oraindik eraiki berria zen Panama-ko egoitzara aldatu zen. Bertan komentuaren zein eliza ederraren eraikuntzan esku hartu zuen. 1954.ean Tumako-ko misioa euskaldun karmeldarren esku jarria izan zenean, bertako Prefektu Apostoliko izendatutu zuten Aita Luis. Izugarria izan zen Irizar Monsignoreak, Aita Karmeldar misiolarien zein Moja Karmeldar Misiolarien laguntzaz burutu zuen lana. 5 eliza eta 7 apeztetxe eraiki zituen eta 5 parrokia berri sortu; era berean, lehen irakaskuntzako mailako 25 eskola, neskentzako batxilergo ikastetxea eta ehun ikaslerentzako lekua zuen nekazal barnetegi bat ere eraiki zituen. Tumako-ko Ospitaleko bi pabilioi berri egitea ere beraren ahaleginen fruitu izan zen.

1960.ean Prefektutza Apostolikoa Bikariatu mailara jasoa izan zen eta Bikario Apostoliko izendatu zuten. Urte horretako apirilaren 9an sagaratu zuen apezpiku Aita Santuaren Kolombiako Nuntzio Jnak.

Halako lan izugarria burutzen ari zela ustekabean hil zen 1965.eko azaroaren 5ean bihotzekoak jota; 59 urte zituen.

---

[377] Beraren eta berari buruzko agiriak eta paperak GPKA, C, 69.kutxan. Ikusi idazlan labur biografikoak BOPSJN 5 (1965, 63.zk.) 197-200; 6 (1966, 64.zk.) 259-264, 265-269. Aipamen berezi merezi du hurrengo idazk.ak: Higinio GANDARIAS, *Con la cruz y el martillo. (Mons.Francisco Irizar Salazar, O.C.D.)*, Gasteiz 1985, 262 orr.

[378] *Decor Carmeli* (1966, 41.zk.) 7.orr.; aipamena: Higinio GANDARIAS, *Con la cruz y el martillo...*, 41.orr.

g. **Aita Victor de Santa Teresa (León Esteban San Miguel Erce, 1904-)**[379].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Leon Esteban, Lekeition jaio`zen 1904.eko azaroaren 21ean. Beraren gurasoak Vicente San Miguel eta Paulina Erce izan ziren. Humanistikako ikasketak Villafrancako (Nafarroa) karmeldarren ikastetxean egin ondoren Larreako nobiziatura joan zen eta 1921.eko uztailaren 28an egin zuen profesioa Victor de Santa Teresa izena hartuz. Markinako profesio-eginberrien etxean Humanistikako ikasketak amaitzeko eta nobiziatuan hasitako erlijio-heziketa sakontzeko egin ohi zen urtea 1921-1922. ikastaroan egin zuen.

Ondoren filosofiako hiru urte (1922-1925) egin zituen Gasteizen eta teologiako beste hiru (1925-1928) Begoñako Karmelon[380].

1928.eko ekainaren 1ean sagaratu zuten apaiz. Urte horretako urrian bidali zuten Indiako Puthempally-ko Apaizgaitegi Apostolikora bertan amaitu zuelarik 1928-1929. ikasturtean eliz karrera. Bertako hizkuntza ikasi eta irakasle lanetan hasi zen, horretan aritu zelarik 1966. urterarte. Soziologia alorra sakondu zuen, bereziki, gaitasun handia lortuz. Aipagarriak dira soziologiako irakasle izanik zenbait kongresutan eta aldizkaritan burututako lan oparoa eta Alwaye-ko Apaizgaitegiko diruzain zela elizak eraikitzen zein konpontzen burututako lanak.

1966.eko martxoaren 17an Propaganda Fideko Kongregazio Santuak Kuwaiteko Bikario Apostoliko izendatu zuen, apezpiku 1976.eko uztailaren 16an sagaratua izanik. Zeregin horretan ihardun zuen 1985.rarte. Jarraian Indiara erretiratu zen, bertan diharduela oraindik lanean.

bb. *Idazlea.*

Irakasle izan zen garaian hainbat idazlan idatzi zituen ingelesez gehienak soziologi gaiei buruz. Hona hemen argitarapen batzuen izenak:.

1. *A manual of christian sociology*, Alwaye 1947, 276 orr.; [2]1949, [3]1952, [4]1960, [5]1972.
2. *La India y sus problemas*, Donostia 1951. 231 orr.
3. *A hand book of social action*, Awaye 1956, 4 - 39 orr.
4. *The all Malabar Catholic social conference Mt. Carmel B.T. College*, Ernakulam 16 - 98 orr.
5. *Samuhika pravarthanam. A Hand book of Social Action*, Alwaye 1957, 4 - 55 orr.

[379] Beraren eta berari buruzko agiriak GPKA-n, oraindik bizi diren erlijiosoen kutxan ikus daitezke.
[380] Ik. GPKA, *Examen studentium*; bitxikeria gisa, Teologiako 2. eta 3. ikasturteko azterketen aktetan (1927 eta 1928), Victor de la Cruz izena duela ageri dela aipa dezakegu.

6. *Idavaka yuvajana samghadana. A Hand book for parish Organisation*, Alwaye 1957, 2 - 32 orr.
7. *The Kerala Catholic yourth festival*, Trinchur 1958, 10 - 53 orr.
8. *Chathiath, A parish of Kerala*, Kottayam 1961, XI - 134 orr.
9. *Kurisumala, A socio Economic Survey*, Ernakulam, 8 - 190 orr.
10. *The all Kerala Catholic social conference*, Alwaye 1962, 10 - 71 orr.
11. *Parish welfare orientation*, Alwaye 1963, 8 - 190 orr.
12. *Mater et Magistra in India*, Alwaye 1963, X - 306 orr.
13. *Social pastoral orientations in India*, Bombay 1966, 381 orr.
14. *Christians in Kuwait*, Beirut 1970, 108 orr.
15. *Kerala Adios*, Kuwait 1978, 92 orr. (Vemsur ^{2}1988, 142 orr.).
16. *Misioneros memorables*, Vitoria 1980, XVIII - 119 orr (*Mixiolari gogoragarriak*, Gasteiz 1980, XIII - 109 orr.; Augustin Zubikaraik erderatik euskaratua).
17. *Pastor in Kuwait*, London 1980.
18. *Back to the Indian mission*, Vemsur 1984, 135 orr.
19. *Seven Carmels of Tamil Nadu*, Vijayawada 1985.
20. *Thee Century Kerala Carmelite Mission, 1656-1975*, Vemsur 1986, 160 orr.
21. *Carmelite Seminaries in Kerala, 1682-1685—1776-1975*, Vemsur 1987, 140 orr.

2. **Ordenako Nagusiak - Jeneralak**

Markinako Karmengo komentutik iragan eta Elizan apezpiku gisa erantzunbehar karguak izan zituen zenbait karmeldarren berri eman ondoren, bertatik iragan eta mende honetan Karmeldarren Ordenako Jeneral izan direnak aipatuko ditugu jarraian.

a. **Aita Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús (Ezequiel Bilbao Imaz, 1862-1938)**[381].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Ezekiel, Jose Bernabé Bilbao eta María Juana Imaz senar-emazteek izan zituzten 6 seme-alaben artean hirugarrena, 1862.eko apirilaren 9an jaio zen Zornotzan, «Arazosa Erdiko» baserrian, Bizkargi mendikatean, Larreako santutegitik kilometro t'erdira[382].

[381] Beraren eta berari buruzko agiri ugari dago GPKA-n: 12 kutxa oso, hots, 47. kutxa eta zenbakirik gabeko beste bat, gehi 52-61. kutxak. Gehienak beraren eskuskribuak gordetzen dituztela. Ikusi CAR-

Lehen ikasketak Amorebietako eskolan egin zituen eta jarraian humanistikakoak Larreako latin ikastetxean. Ume txikia zelarik Larreatik iragaten zen eskola bidean. Lekukoek, ume zein gazte zela, Larreara joaten zela aitortzera eta eskola lagunak horretara bultzatzen zituela aitortzen zuten. 1878.eko ekainean Larreako nobiziatura sartu zen eta profesioa, 17 urte zituela, 1879.eko ekainaren 8an egin, Ezequiel del Sagrado Corazón de Jesús izena hartuz[383].

Filosofiako hiru ikasturteak (1881-1884) Burgos-en egin zituen eta beraren bizitzan garrantzi handikoak izan ziren teologiako beste hirurak, Markinako Karmengo etxean[384]. 1886.eko apirilaren 10ean sagaratu zuten apaiz Gasteizen.

1887.eko irailean Valentziako karmeldarren teologiako ikastetxeko irakasle izendatua izan zen. 1889.ean Markinara itzuli zen bertan egin zituela zenbait hilabete probintziako artxibari eta kronista zereginetan.

1890.ean Gasteizeko komentuala eta teologia moraleko irakaslea zen. 1891.ean Probintziako 4. Definitore hautatu zuten, teologiako irakasle izatera Begoñara joan zelarik. 1892.eko maiatzaren 24ean irakasle zeregina utzi egin behar izan zuen gaisotasunen ondorioz.

Oso argia, maitekorra eta agintzeko edo gobernatzeko aparteko doaiak zituela esan ohi zen. Eta, egin-eginean ere bizitza osoa zehar erantzunkizun handiko karguetan iragan zuen, Ordenako gehiengoak, Aita Santu Pio X.ak, kardinaleek, apezpikuek... maitatua eta errespetatua zelarik.

Hemen gobernu gizon gisa bere ardurapean izan zituen kargu batzu adieraziko ditut bakarrik:

MELO DE JESUS CRUCIFICADO fraideak Aita Ezekieli buruz eginiko idazlana BOPSJN-en 1(1939,8.zk.) 107-218; 1938.eko urrian "El Carmen" gure aldizkarian argitaratu zen idazlana da. Penagarria da gizon ospetsu honek, zenbaiten eritzitan karmeldarren Nafarroako S. Joakin probintzian izan den pertsonaiarik handienetarikoa delarik, oraindik biografiarik ez izatea...

[382] Seigarren semea, 1871.ean Zornotzan jaioa ere karmeldar egin zen, profesioa, 1888.ean, Larrean, Juan José de Jesús izena hartuz egin zuelarik. 1897.ean apaiz sagaratua izan ondoren, irakasle zereginetan aritu zen (1897-1900) eta gero (1901) misiolari joan Indiara. Karmeldarrek Indian izan dituzten misiolaririk ospetsuetarikoa izan zen. Erlijiosoen Ernakulam-eko lehen etxea (1905) eraiki zutenen artekoa. 1910.ean Quilón elizbarrutiko Bikario Nagusia. 1912.ean Propaganda Fide Kongregazio Santuak Puthempaly-ko Apaizgaitegi Apostolikoko Errektore izendatua izan zen. Baina, bere lanik handienetarikoa eta Indiarako etorkizun handikoa Alwaye-ko apaizgaitegi diozesiar handia eraikitzea izan zen; 1930.eko otsailaren 1.ean eman ziolarik hasiera, 1932.ean amaitzeko bidean aurkitzen zen..., eta urte horretan hasi ziren ikasturteak, 1933.eko urtarrilean bedeinkatu zutelarik. 32. urtetan zehar apaizgaitegi handi hartako errektore izan zen 1944.eko azarorarte; 1945.eko urriaren 25ean hil zen. Beraren hiletetara 300 apaiz baino gehiago joan ziren Verapoly-ko artzapezpikua buru zela; eta hileta otoitza Kottayam-eko apezpiku zen Alejandro Chulaparrambil, erritu Syro-Malabarrekoak egina izan zen.

Karmeldar handi honek, seguruenik heziketa urteren bat egin zuen, Larreako nobiziatuaren ondoren, Markinan. Baina ez da argi ageri... Filosofia eta Teologiako ikasturte gehienak (behar bada guztiak) Burgos-en egin zituen.

[383] LKA, A-VII-1, *Liber professionum*...

[384] GPKA, *Examen Studentium*. Hutsune bat ageri da, hain zuzen, nobiziatuaren ondoko urteetakoa, 1879-1881, ez baita ageri non egon zen ikasten; urte horiek, humanistikako ikasketak osotuz eta filosofiarako prestatuz Burgos-en egin zituela uste dut.

1892-2897: Corella eta Villafranca-ko komentuetako nagusi.
1897-1900: Nafarroako S.Joakin Probintziako Probintzial.
1901-1907: Ordenako Definitore edo Aholkulari Jeneral, Erroman.
1907-1913: Ordenako Jeneral.
1915-1918: Karmeldarren Nafarroako S. Joakin euskal probintziako Probintzial (27 botuetatik 26 botuz hautatua).
1918-1921: Probintzial.
1924-1927: Probintzial.
1930-1933: Probintziako lehen Definitore.
1933-1936: boskarren aldiz Probintzial.

Gerra zibilean Frantziara erbesteratu beharra izan zuen, Agen-go komentuan bizi izan zela; baina, 1938.eko abuztuan itzuli egin zen, Korellara hil horren 5ean heldu zela eta aste batzu beranduago, 1938.eko irailearen 13an hil zela 76 urte zituela.

Aita Ezekiel gobernu gizon handia izan zen Nafarroko S.Joakin euskal probintzia mailan (5 aldiz probintzil) zein Ordena osokoan (6 urtetan Aholkulari Jeneral eta beste 6 urtetan Jeneral). Probintzial zelarik indarberria eman zien Ordenaren Hegoamerikako zabalkundeari. Ordenako Jeneral zela zein probintzial, Ordenari zion maitasunak bultzaturik, ardura handia jarri zuen Ordenako ikasketak eta gazteen heziketa bideratzen: gazteak zenbait unibertsitatetara bidali zituen; pedagogiako liburuak, irakaskuntza metodoak etc. eskuratzen saiatu zen. Beraren kezkarik nagusiena gazteen heziketa izan zen. Ardura handia jarri zuen ikastetxeak ongi antolatzen eta bideratzen. Eta bera Jeneral zela egin zen Erroman karmeldarren nazioarteko ikastetxea sortzeko lehen saioa. Asmo hori hamarkada batzu geroago burutuko zen.

Gobernu gizon honen nortasuna, baina, apaltasun eta begikotasunez beteta zegoen. Beraren ontasuna hain handia izanik Aita Santuak berak ere «onegia» izatea leporatzen zion.

1936.eko apirilaren 30ean ospatu zen Larrean, jai oso handia eginez, Aita Ezekiel Probintzialaren apaizgoaren berrogeitamargarren urtemuga[385].

bb. *Irakasle, teologo eta idazlea.*

Aita Ezekielek bizitza osoan zehar ikasten ihardun zuela esan daiteke. Esan den bezala, ikasketak amaitu eta 1892.ean apaiz sagaratua izaterakoan, berehala, 1887.ean irakasle izendatu zuten eta data horretatik 1892.erarte teologia dogmatiko eta moraleko irakasle izan zen karmeldarren Valentzia, Gasteiz, Begoñako Karmelo eta Burgos-eko ikastetxeetan. 1900.ean berriro Burgos-eko teologia ikastetxeko irakasle izendatua izan zen, baina 1901.ean zeregina utzi egin behar izan zuen Erroman Aholkulari Jeneral hautatua izan ondoren.

[385] Ik. BOPSJN 1 (1939,8.zk.) 217.

1927.ean Probintzial kargua uzterakoan, mistikako irakasle edo lector izendatua izan zen Begoñako Karmelon 1930.erarte.

Gizon argia eta Vatikanon konfidantza handikotzat hartua zela, zenbait ikustaldi apostoliko, batzu nahiko eragozpen handikoak, egin zituen eta beraren erizpenek (idazkia edo kontaketa) begirune handia jaso zuten. Lekuko izan zen batek, Aita Antonino Hirukoiztarren Aita Jeneralak honela aitortzen zuen: «En españa son conocidísimas sus dos Visitas Apostólicas: la que hizo al Obispado de Pamplona y la de las Damas Catequistas. Ambas a dos sumamente difíciles, delicadas y comprometedoras en extremo. La primera por tener que encontrarse y que tratar con el gobierno español; la segunda por la intervención que en ella habían tomado los Nuncios de España, algunos Cardenales de Roma y un buen número de Prelados y eclesiásticos españoles. Por este motivo quizás su triunfo no ha sido tan patente; pero yo que he leído toda la exposición que el P.Ezequiel elevó a la Sagrada Congregación puedo afirmar, sin revelar el secreto de Consultor, que su informe fue acabadísimo, de la mayor prudencia y de un acierto que dejó maravillados a cuantos lo leyeron»[386].

Ikasketa teresiarrak bultzatu zituen. Probintzial eta Jeneral zela argitalpen handiak egin ziren. Horretaz gainera, beraren lankidetza zuela, karmeldar idazle talde bat eratu zen, letretako zein teologiako, mistikako eta filosofia zientzietako tradizioa bultzatu zutela.

Berak idatzitako hainbat eskueskribu aurkitzen dira Karmeldarren probintziako artxiboan Gasteizen; baita, oharrak eta iruzkinak, batez ere teologiakoak jasoten dituzten kuaderno eta kuadernotxoak ere. Horietaz gainera, berak idatzitako hainbat eta hainbat gutun kontserbatu dira. Probintzial zein Jeneral izan zenean gutun pastolal ederrak idatzi zituen.

Erroman *Adnotationes ad Summam D. Thomae.(De Deo Creante et Gubernante)*... (Roma [1903], 475 orr.) deituriko teologiako dogmatikoko lan handi bat argitaratu zuen.

Eta bere bizitzaren azkenaldian oso erabilia izan zen *Método de oración y contemplación según San Juan de la Cruz* liburua argitaratu zuen (Bilbon 1935.ean, 207 orr.).

b. **Aita Silverio de Santa Teresa (Julián Gómez Fernández, 1878-1954)**[387].

Escóbados de Arriba-n (Valdivieso, Burgos) jaio zen 1878.eko martxoaren 8an. Hainbat ikasketa-urte Burgos-eko apaizgaitegian egin zituen. 1895.eko uztailaren 4ean sartu zen Larreako nobiziatuan profesioa hurrengo urteko uztailaren 5ean egin zuelarik Silverio de S.Teresa izena hartuz.

---

[386] BOPSJN 1 (1939, 8.zk.) 217.

[387] Burgos-ko "Artxivo Silveriano" (BAS) deritzana beraren nortasunari barru-barrutik lotuta ageri da; beraren hainbat artxibo-gai eta berari buruzko agiriak ere bertan baitaude... Beraren bizitza eta lanari buruz bi liburu aipa ditzakegu bereziki: a) *Zelo zelatus sum*, Erroma 1952, 283- 123 - [70]-17 orr., elkar lanean idatzitako liburua, bertan Aita Silverio fraidearen bizitza eta lana, apaiz, idazle eta Ordenako Jeneral gisa aztertzen direla. b) VALENTIN DE LA CRUZ, *Fray Silverio de Sta.Teresa. Su vida, su obra y su gobierno*, Burgos 1962, XXIV-405 - [32] orr.

Filosofia Markinako Karmengo etxean (1896-1898) eta Burgos-ekoan (1898-1899) ikasi zuen eta teologiako hiru urte Burgos-en (1899-1902)[388]. Ikasketak Erromako Unibertsitate Gregorianoan (1902-1904) eta Alemanian eta Erresuma Batuan (1904-1905) osotu zituen.

Gobernu kargu garrantzitsuak izan zituen; horrela 1909.ean Nafarroako S.Joakin probintziako Definitore edo Aholkulari; 1933.ean Burgos-eko Probintzia sortuberriko Probintzial; 1937.ean Definitore Jeneral eta 1947.etik 1954.eko martxoaren 10erarte, hau da, Mazatlan-en (Mexiko) hil zen arte, Ordeneko Jeneral.

Baina Aita Silverio, batez ere, historia-idazle gisa lan izugarria egin zuelako dugu ezaguna. Aita Simeón de la S. Familia karmeldarrak bere *Bibliografía del M.R.P. Silverio de Santa Teresa, O.C.D.»* lanean hark idatzitako 565 izenburu dakartza[389]. Hemen beraren idazlan garrantzitsuenak baino ez ditut gogoratuko:

— *Biblioteca Mística Carmelitana*, 20 Lib., Burgos 1915-1935.

— *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*, 15 Lib., Burgos 1935-1951.

— *El precepto del amor...*, Burgos 1913, XII-647 orr.

— *La Carmelita perfecta*, 3 Lib., Burgos 1948.

— *Resumen histórico de la restauración de los Carmelitas Descalzos en España, 1868-1918*, Burgos 1918, VIII-289.

Aita Silverio, filosofia Markinan ikasi zuena, adimen eta giza nortasun handiko pertsona izan zen. Baina, aitortu beharra dago, era berean, bere burua setakeriak itsutua zuelako edo, beraren handitasun hori ilundu egiten duten zerak izan zituela. Egin-eginean ere, euskal gaietan, erlijiosoetan zein sozio-politikoetan, giza maila kaskarra erakutsi zuen; esaterako, Nafarroako S.Joakin Probintziako banaketan egin zenean izan zuen joeran edota «Historia del Carmen Descalzo» bere lan erraldoian hain nortasun handiko izan zen Aita Ezequiel de S.Teresa euskaldunari egin zion «hutsune» lotsagarrian. Oraindik argiago nabari da beraren alderdikeria gerratean zein gerra-ostean, gai politiko-erlijiosoa sentitu, pentsatu eta iharduteko zuen eran; honetaz Mauro Elizondo abatak argitaratu berri dituen beraren gutun eta idazkiek, liburu honetako lehenagoko kapitulu batetan aipatuak izan direla, zein Markinako Liber *Visitationum Generalium* liburuan 1937.eko irailaren 30ean idatzitako agiri edo aktak (eranskinean argitaratzen dugun 62 Zkia) beltzune handia gaineratzen diote beraren nortasunari. Beraren adimen eta gizatasun maila hainbatetan beheratzen dute agertu zuen joera politizatuak zein alor horretan izan zuen itsukeriak. Hori dela eta, bada, nabariak dira beraren kontraesanak... Pertsonaia handi baten itzal ilunak, nonbait..

[388] GPKA, *Examen studentium*.
[389] Ik. *Zelo zelatus sum*, 65-152.orr.

c. Aita Miguel Angel de San José (Miguel Batiz Bilbao, 1916-)[389a].

Markinan jaio zen 1916.eko azaroaren 1ean; beraren gurasoak Pedro Ignacio Batiz eta Felipa Bilbao izan ziren. Humanistikako ikasketak Larreako ikastetxean egin ondoren Larreako nobiziatura sartu zen 1931.eko abenduan, profesioa hurrengo urteko abenduaren 6an egin zuela, Miguel Angel de San José izena hartuz.

Jarraian Markinan egin zuen profesio-eginberrien urtea (1932-1933). Filosofiako lehen ikasturtea (1933-1934) Iruñean egin zuen eta hurrengoak (1934-1936) Gasteizen. Gerraldiak ikasketen etendura ekarri zion. Gerran erizain zereginetan aritu zen Samaniego-ko eskoletan jarritako ospitalean. Gero teologiako urte bat (1938-1939) egin zuen Gasteizen eta gainerako hirurak (1939-1942) Markinako Karmengo etxean. 1941.eko abuztuaren 31n sagaratu zuten apaiz. 1942-1946. urteetan zehar teologiako irakasle izan zen Markinan eta 1946-1948. ikasturteetan Begoñako Karmelon[390].

1948.ean Erromara bidali zuten ikasketak sakontzera, ikastaroak «lateranense» deituriko unibertsitatean egin zituela, 1953.ean Zuzenbide Zibilean eta Kanonikoan Doktoradutza lortuz. Hurrengo urtean (1954), misiolari patentea zuela, Indiara, bertan karmeldarrek beren ardurapean zuten Alwaye-ko apaizgaitegira bidalia izan zen. Bertan Zuzenbide Kanonikoa eta beste zientzia lagungarri batzu irakatsi zituen.

1955.ean Erretoreorde izendatu zuten eta urtebete geroago Apaizgaitegiko Erretore, Aita Aureliano del SSmo.Sacramento karmeldarrak izandako postua hartuz. Jo eta ke aritu zen Apaizgaitegiaren alde lanean. 1959.ean Apaizgaitegi eta Unibertsitateen Kongregazio Santuak Alwaye-ko Apaizgaitegia Pontifize Unibertsitate Lateranensearen Teologia Fakultateari atxekia izatea lortu zuen; 1964.ean Aulki Santuak Pontifize Apaizgaiteki izendatu zuen. Diakonoentzat bizileku berria eraiki zuen. Biblioteka ere aberastu zuen. Malabar-eko elizbarruti ezberdinetako (apaizgaiak errito malabarikoa, latinoa, malankarikoa eta abarrekoak zirela) filosofia eta teologiako apaizgaien eta, baita ere, erlijioso batzuren heziketa lanetan aritu zen buru-belarri. Esaterako, 1966-1967.eko ikasturtean 569 apaizgai izan ziren.

1967.ean Ordenako Jeneral izendatua izan zen, kargu horretan iraun zuela 1973.erarte. Azken urteok Erroman egin ditu ekialdiko erritoetako apaizentzako etxea den «Instituto de San Juan Damasceno» deritzoneko Erretore zereginetan; eta 1973.etik Aulki Santuko zenbait Kongregaziotako aholkulari ere bada.

Irakasle zereginetan aritzerakoan Zuzenbide Kanoniko eta Moralari buruzko lan baliotsuak argitaratu zituen, batez ere, Alwaye-ko Apaizgaiteko *«Eucharist and Priest»* (geroago *«The living Word»* deitua) aldizkarian.

[389a] Ikusi agiriak GPKA-n, bizi diren erlijiosoen kutxan.
[390] Ik. GPKA, *Examen studentium* eta *liber examinum*.

3. Santuak

Markinan heziketa hartutako gizon aipagarrienen artean, beraien beatifikazio prozesua aurreratuta dutela eta egunen batetan aldarean ikusiko ditugun euskal «santuak», zehazkiago esanda bizkaitarrak, geratzen zaizkigu aipatzeko. Apostolutza iharduera handia burutu zuten bi karmeldar ditugu: Aita Juan Bizente eta Aita Zakarias, biak Indian misiolari izandakoak.

a. Aita Juan Vicente de Jesús María (Juan Vicente Zengotita-Bengoa; 1862-1943)[391].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

Santu eta Apostolu hau luzaroan Markinari loturik izan zen; txiki-txikitandik ezagutu zituen bertako fraideak; geroago, bertan ikasiko zuen eta, azkenik, Markinako Karmengo etxean irakasle eta hezitzaile izan zen; hau da, bederatzi urte inguru bizi izan zen bertako komentuan.

1) *Hazkunde eta heziketa garaia (1862-1885).*

Juan Bizente, Berriz-en (Bizkaia) jaio zen 1862.eko uztailaren 19an; Francisco Zengotita-Bengoa eta Dominica Petra de Lasuen ezkontideak izan zituzten zortzi seme-alaben arteko bigarrena izan zen.

Oso kristau giro egokia izan zuen Juan Bizentek etxean eta hurreko Mesedetako Mojen komentuan; heziketa paregabea eman zioten Sebastian Gabiola maisuak Berrizko elizateko eskolan eta Jose María Basterra parroko Jnak latineko ikastetxean. Karmeldarrekin izandako lehen harremanak Markinekoekin izan ziren, hauek Berrizen

---

[391] Bibliografia ikuspegiz, berari buruz GPKA-n aurkitzen den jatorrizko agiri multzo handia eta Aita Juan Bizenteren kopiak aipa ditzakegu: 10 kutxa handi bete daude; horietaz gainera, fotokopiak, beraren gutunez osoturiko 11 liburuki, hitzaldiz osoturiko 4 liburuki, guztiak ongi josiak eta beste sermoi-liburuki bat euskaraz; eta "Apéndice- Escritos" deituriko beste liburuki bat; horietaz gainera, beste bi liburuki (makinaz) beatifikazio prozesu apostolikoari buruzkoak; guztira, beraz, 21 liburuki.

Aipamen bereziz gogora ekarri nahi dugu beraren beatifikazioari buruz, 1202 orrialde (orrialde banaketa ezberdinak erabiliz) dituela Erroman 1990.ean argitaratutako: CONGREGATIO DE CAUSIS SANCTORUM, P.N.661, *Victorien.seu Sancti Sebastiani canonizationis servi Dei Ioannis Vincentii a Iesu Maria (in saeculo: Ioannis Vincentii Zengotita Bengoa) sacerdotis professi Ordinis Carmelitarum Discalceatorum (1862-1943)*... Roma 1990.

Hainbat biografia ditugu: Lehena, BERNARDO MARIA DE SAN JOSE, *Impaciencias Evangélicas*, Donosti 1945, 151 orr. Baina biografia edo lanik ederrena Amalio de S.Luis Gonzaga-k idatzi zuen: *Contemplativo y Apóstol*, Gasteiz 1956, 739 orr.; eta biografia herritarren artean euskaraz argitaratua aipatuko dut: *Mixiolari. Aita Juan Bixente, Karmeldarraren bizitza*, Gasteiz 1949, 62 orr. Horietaz aparte hainbat eta hainbat idazlan (100 inguru) argitaratu izan dira berari buruz "*La Obra máxima*" aldizkarian eta beste batzu beste aldizkari batzutan...

sermoiak sarritan egiten baitzituzten. Horrela aurkeztu zen 1877.eko azaroan Larrean, Karmengo Amaren jantzia 1877.eko abenduaren 1ean hartuz nobiziatuko urteari hasiera emateko; profesioa hurrengo urteko abenduaren 10ean egin zuen Juan Vicente de Jesús María izena hartuz[392].

Berehala joan zen Burgos-era bertan egin zituela filosofiako hiru ikasturte (1878-1881) eta gero Markinara bertako Karmengo etxean teologiako lau ikasturteak (1881-1885) egitera. 1884-1885. ikasturtearen azkenetan ikasle filosofo eta teologoak aztertzen ageri da[393], ikasturte horretan, Aita Bernardo de Jesús irakaslea Indiara joaterakoan beraren ikaskideen irakasle izendatua izan zelako.

Apaiz 1885.eko martxoaren 21ean sagaratu zuten Gazteizen. Markinan teologiako heziketa hartzen egin zuen aldi hori oso garrantzitsua izan zen Aita Juan Bizenterentzat, teologia ikasteaz gainera Santa Teresaren bizitza eta doktrinaz liluratu zelako, Santaren heriotze ondoko hirugarren mendeurrena (1582-1882) ospatzerakoan. Bestalde, misioetarako garra eta sua hartu zituen 1883.ean Karmeldarren euskal Probintziako 9 karmeldar Malabar-eko misiora (India) joatean, beraien artean Markinako Karmengo bi irakasle garrantzitsu egon zirela.

2) *15 urte Ordenaren eta Elizaren zerbitzuan (1885-1900).*

Aldi honen ezaugarririk nabarmenena, Nafarroako San Joakin karmeldar Probintzian izan zituen kargu ezberdinak eta burututako apostolutza iharduera bizia izan ziren, erlijio mugimendu berriak sortuz, sermolari ausarta, izpiritu zuzendari zuhurra eta Elizaren eta beraren doktrinaren defendatzaile sutsua izan zela..

1885-1887. urteetan Markinan jarraitu zuen teologia irakasten: bearen ikasle gazteen artean, urte batzu geroago karmeldar probintziako gizonik ospetsunetarikoak izango ziren batzu izan zituen: Aita Ezekiel del Sagrado Corazón de Jesús, 5 aldiz Probintzial, behin Definitore Jeneral eta beste behin Ordenako Jeneral izan zena; Aita Valentín Zubizarreta, teologia dogmantikoko eskuliburuaren egile, Probintzial eta Kubako Santiago-ko artzapezpikua izan zena eta, geroago, Gaztelako probintzian bertako probintzial izango ziren beste hiru.

1887-1889. urteen artean teologiako irakasle izan zen Valentziako komentu-ikastetxean; 1888.ean komentu bereko priore izendatu zuten, adin gutxiko zelako, oraindik 26 urte zituen bakarrik, salbuespena eman ziotela.

1889.ean zatitu egin zen Nafarroako S.Joakin probintzia handia, Gaztelako karmeldarren probintzia bersortuz. Orduan Burgos-eko komentu-ikastetxeko priore izendatu zuten eta kargu horretan izan zen 1894. urterarte. Han filosofia eta teologiako hainbat ikasle izan zituen. Bertan eratu zituen *«Liga Dominical»* eta *«Cruzada contra*

---

[392] LKA, A-VIII-1, *Liber professionum simplicium, 1876-1897*, 26.orr.
[393] Ik. GPKA, *Examen studentium*.

la Blasfemia» deituak; eta, era berean, Bilbon (1890) argitaratu zuen karmeldar hirugarrendarrentzako eskuliburua.

1894.ean berriro (1894-1896) Markinako Karmengo etxera itzuli zen karmeldar profesio-eginberrien maisu izateko. Bertan filosofiako irakasle ere izan zen (1896-1897). 1897.ean «Desierto de San José de Herrera»-ko fundazioa edo berreraikuntza proiektua burutzeko ardura hartu zuen, urte horretako martxoaren 19an ireki ondoren bertako lehen nagusi izan zela.

Baina 1897.eko maiatzean Larrean egin zen probintziako Kapituluak hirugarren aldiz Burgos-eko priore izendatu zuten, kargu horretan iraun zuela 1900. urterarte. Garai honetan katolikoen arteko batasuna bultzatzen eta prentsa katolikoa sustatzen ageri zaigu, 1900.ean laster desagertu zen *«El Eco Burgalés»* egunkari berria sortu zuela; baina, apirilean, iraupena izango zuen *«El Castellano»*, *«Diario Independiente»* azpizenpurua ezarriz, sortu zuen.

Une hartan beraren gogoak eta nahiak bi zereginetan jarriak zituen: prentsaren bidez katolizismoaren berreraikuntzan eta misioetarako gogo-gar bizietan.

3) *17 urte misiolari Indian (1900-1917).*

— Zenbait hilabete Manjummel-en hizkuntza ikasten egin ondoren jo eta ke ekin zion alor guztietan misio iharduera sutsuari (1901-1907): konbertsioak bultzatzen, misio egiturak eraikitzen, Ernakulam-eko Umezurztegiko eta Industri Eskolako zuzendari lanetan; 1904.ean apaizei laguntza eskaintzeko hileroko aldizkari bat sortu zuen Indiarako ezezik Asiako beste estatu batzuetarako; aldizkari horren lehen alea *«Promptuarium Canonicum-Liturgicum seu Ephemerides Ecclesiastica Mensuales»* izenpurua zuela urte horretako urrian atera zen; harrera oso ona jaso zuen. Ernakulam-eko komentua eraiki zuen eta misiolarientzako «egoitzak» ezarri zituen. Aldi honetan ez zuen Europa ahaztu eta bertan misiolaritza-garra bultzatzen saiatu zen.

— 1907-1915. urteetan zehar iharduera pastorala antzinako kristau komunitateetan burutu zuen Verapoly-ko parroko ordezkoa (1907-1911), Chathiath-eko parroko-bikarioa (1912) izanik; era berean, San Alberto barnetegiko Zuzendaria zein erlijiosoen egoitzako nagusia (1912-1915) ere izan zen.

— Azken bi urteak (1915-1917) Ernakulam-eko komentuan bizi izan zituen klaustroko bizimoduko erlijiozko betebeharrak oso zehatz betetzen saituz.

4) *17 urte Europan eta Amerikan Misio garra pizten (1917-1935).*

Garai honetan leher egin zuen bihotzean zeraman misio-garrak. Oraingoan misiolariak zein misiolarien laguntzaileak lortu nahi zituen. Oso iharduera bizi-bizi burutu zuen, hemen egintza batzu baino ezin ditugula gogora ekarri:

— (1917-1920): Karmeldarren euskal Probintziara etorri ondoren, 1917.eko irailaren azkenaldian, Hoz de Anero-ko (Kantabria) Basamortura erretiratu zen; baina

abenduan Logronion ziharduen komentu berri bat eraikitzeko ahaleginetan. «Misioen jagole» izendatu zuten eta misioen aldeko propaganda lanari ekin zion buru-belarri. 1919.eko otsailean Erromara joan zen, Verapoly-ko Misiorako Probintzilaren Bisitari gisa Indiarantza zihoala. Itzultzerakoan, Erroman, 1920.eko martxoaren 13an elkarrizketa izan zuen Aita Santu Benedikto XV.arekin. Hainbat hilabetetan ihardunez Espainiatik zehar misioen aldeko propaganda-ibilaldi bat egin zuen.

— (1920-1931); Misio-garra pizte alorrean asmotan zerabiltzan iharduera osoaren eragile gisa 1920.ean Iruñean sortu zuen *La Obra Máxima* aldizkaria jarri zuen. Lehen alea 1921.eko urtarrilaren 1ean kaleratu zen. Aldizkariaren bidez misio-familia handi bat sortu nahi zuen, umeengan zein adinekoengan misioen aldeko interesa sortuz.

1926.eko azaroan misio-gogoa pizteko bira bat egin zuen Amerikatatik: Uruguay, Txile, Peru eta Estatu Batuetan zehar. 1927.eko abenduan Ordenako Aita Jeneralak bere ordezkari izendatu zuen Bartzelonan egiteko zen Misio Erakustaldi Unibertsalerako (1929-1930); era berean, parte hartu zuen 1929.eko irailean Bartzelonan *egin zen Estatuko Misioen Kongresuan*; eta hurrengo urteko (1930) urrian «Maitasun Bihozberaren Erreoparitzarako» eskaini zuen bere burua.

— *«La Obra Máxima»*, misioen propaganda aldizkariak egina zuen ordurako «bere etxea» Donostian (1931-1935). Misio antolakuntzan, «etxe berri» honek bere lokal zabalak zituen, horrela aldizkariak indar berria hartu zuela. Buenaventura Arana, Vijayapuram-eko lehen apezpikuari lagun eginez, Dublin-en izan zen Nazioarteko XXXI. Eukaristia Kongresuan (1932.eko ekaina) parte hartu zuen, gertakari horretaz zenbait idazlan idatzi zituela Juan Bizentek; era berean, Lisieux-eko «Kongresu Teresiarrean» (1932.eko ekain-uztaila) ere izan zen. Data hauetan, *«La Obra Maxima*-ko Jagoletzak», bere etxe eta antolaketa propioa, administratzaile eraginkorra zen Aita Juan de la Cruz eta propaganda egonkorrezko egitura zuelarik ez zuen beharrezkoa misio-zaletasuna bultzatzeaz pertsonalki arduratzerik. Eta berriro gogoan Indiara misiolari joateko nahia sortu zitzaion... Baina, nahiera hutsa izan zen... 1935.eko martxoaren 21ean ospatu zituen bere abadetzaren urrezko ezteiak.

5) *Apostol gaisotasunean eta zahartzaroan (1935-1943).*

1935.eko maiatzean hemiplegia gaisotasunaren erasoaldia izan zuen iharduera guztiak utzi beharra ekarri ziola; gorputz erdiko elbarritasuna ekarri zion (1935-1941); erorketa baten ondorioz mokorra hautsi zuen (1941) eta ohean egon behar. Gogoetan misioak zituen, oso lasaikiro Jainkoaren borondatea oso-osoan onartuz, oinazeak ereduzko joeraz eramanez, bere burua Maitasuna Bihozberaren Erreoparirako: guztia misioen alde eskainiz.

1943.eko otsailaren 27an hil zen Karmeldarren Donostiako komentuan, 80 urte zituela.

bb. *Idazlea.*

Aita Juan Bizenteren literatura lan osoaren ezaugarrik nagusiena *apostolutza-garra* izan zen. Aldizkariak eta egunkariak sortu eta beraietan bai Euskadin, bai Espainian baita Indian hainbat idazlan argitaratu bazituen, Jainkoaren eta Elizaren maitasunak eta arimentzako su-garrak bultzaturik egin zuen, Elizaren aurkako egoera larriko garai ilun haien ondoko berreraikuntza garai hartan. Prentsan baliabide indartsua ikusten zuen eta, orokorki, on egiteko eta, bereziki, kristauen alde erabili nahi zuen. Sinesmen Katolikoa agerian aitortzera animatzen zuen. Aitatu ditugu sortu zituen aldizkari eta egunkariak.

Asmo berdinak eraginda liburu txiki batzu idatzi zituen:

— 1888. Valentzian, *«Carmengo anaije»*, 108. orrialdetako liburua idatzi zuen.

— *Manual de los Hermanos de la Ven.Orden Tercera de Ntra.Sra.del Carmen y Sta. Teresa.* Bilbo 1890, 163 orr (Madrid 1898; Burgos, 1906 eta 1910).

— *Grammatica Latino-Malabarica.* Ernakulam 1904. 116 orr.

— *Carta abierta al Rdo. P. Arintero, O.P., sobre la Contemplación adquirida.* Iruñea 1925. 78 orr.

— *La Pasionaria de Konnersreuth, Teresa Neumann.* Iruñea 1929, 89 orr.

— Liburuska: *Normas Canónicas de Propaganda Misional.* 1933.

Amaitu gabe utzi zituen beste idazlan batzu: *Retrato del Carmelita Descalzo eta Contra-réplica*, kontenplazio lortuari buruz Aita Menéndez-Reigado-k eginikoari erantzuna emanez.

Baina beraren literatur iharduerari dagokionean, Jainkoaren eta Elizaren aintzaren garrak bultzaturik hain apostolu handi eta santu izan zen honen bibliografian gogoratu dugunez, aipamen berezia merezi du hizkuntza ezberdinetan, euskaraz ere bai, idatzi zituen gutunen kopuru izugarriak, gutunek 11 liburuki handi eta sermoiak beste bost, bat euskaraz dago, osotu dituztelarik.

b. Aita Zacarias de Santa Teresa (Zacarias Saltarain Vizcarra; 1887-1957)[394].

aa. *Bizitzako datu batzu.*

1) *Hazkundea eta heziketa.*

Aita Zakarias, Abadinoko (Bizkaia) «Ibarguren» baserrian jaio zen 1887.eko azaroaren 5ean; beraren gurasoak Bartolomé Saltarain eta Venancia Vizcarra izan ziren. Latin eta humanistikako ikasketak Durangoko Jesuiten ikastetxean egin zituen.

[394] Beraren zein berari buruzko agiri ugari aurkitzen dira GPKA-n: bi kutxa bete daude: C, 127 eta

Gero Larreako nobiziatura sartu zen karmeldarren jantzia, 15 urte zituela, 1903.eko irailaren 10ean hartu zuelarik; profesioa hurrengo urteko irailaren 12an egin zuen Zacarias de Santa Teresa izena hartuz[395].

1904-1905. ikasturtea Markinako profesio-eginberrien etxean egin zuen. Urte hau oso garrantzitsua izan ohi zen Humanistika ikasketak amaitzeaz gainera nobiziatuan hasitako heziketa sakondu eta indartuz, filosofiako ikasketetarako gertatzen zelako. Filosofiako hiru urteak Begoñako Karmelon (1905-1908) egin zituen; teologiako bat Gasteizen (1908-1909) eta beste hiru Iruñean (1909-1912)[396]. Erromara bidali zuten; han sagaratu zuten apaiz 1912.eko uztailaren 14ean.

2) *Apaizgaitegiko irakasle 44 urtetan zehar Indian.*

1912.eko urriaren 9an heldu zen Indiara, geroago Alwaye-koa izango zen Puthenpaly-ko Apaizgaitegira. Bizitza osoa, indar eta gogo biziz etengabekiro saiatuz apaizgai gazte indiarren ezpiritu eta zientzia alorreko heziketa bultzatzen eman zuen. Urte ugari horietan Teologia dogmatikoa eta Hinduismoaren Historia eta Filosofia irakatsi zituen. Filosofoen Saileko Burua (1913-1934), Izpirituzko Zuzendaria (1934-1944) zein Erretoreordea (1945) izan zen.

Oraindik bizi diren lekukoen esanetan, apaizgaien zerbitzu hutsean bizi izan zen, era bereziz zaintzen zituela gaisoak, oso bihozbera agertuz porrot egiten zutenekin, esaterako, ikasketetan gaizki zebiltzanekin.

3) *Misiolari handia eta prentsa bidezko apostolua.*

Irakasle zenez ezin izaten zuen beste karmeldar kideak bezala misio lurretan apostolutza ihardueran aritu; baina, horretan erabiltzen zuen oporretako aldia; beste batzutan, apaizgaitegitik antolatu eta zuzendu zuen misiolarien mugimendua Indiako Hegoaldetik Iparraldeko elizbarruti berrietarantz jendea bidalduz..

Beraren egintza-leku iraunkorra Kerala zen, bertan, oraindik ezkutuan zegoen arren, bokazio aberastasun handia ikusten zuela: Kerala bokazio-mintegi bihurtuz,

---

128. kutxak; 128.ean beraren jatorrizko zenbait gutun aurkitzen dira. Horietaz gainera, Aita Zakariasek makinaz idatzitakoak edo fotokopiak; guztira, hizkuntza ezberdinetan, batez ere ingelesez, idatziak direla, 9 liburuki handi azaleztatu osotzen dituzte. Informazio kanonikoei buruzko beste hiru liburuki ere badaude; Aita Zakariasek hainbat gutun, bertsoak ere bai, ditu euskaraz idatzita. Berari buruzko liburuen artean lehenengo ingelesez (1961) eta gero itzuli eta ugalduz gazteleraz idatzitakoa aipa dezakegu: Jon KUNNAPPALLY - P. DOMINGO DE SANTA TERESA, *Huellas del apóstol. Semblanza misionera del P.Zacarías de Santa Teresa, Carmelita Descalzo (1887-1957)*, Gasteiz 1963, 149 orr.; idazlan honi jarraituz burutuko ditut lerro hauek. Gogoratu egin behar da, era berean, Indiako prentsan, batez ere, Malabar-ekoan ugari idatzi izan dela berari buruz. Ikusi beraren idazlan ugariei buruzko bibliografia, "*Caritas*"-en 24 (1956). Supplement, XIV-XXII.

[395] LKA, A-VIII-2, *Liber profesionum simplicium...*, 155.orr.

[396] GPKA, *Examen studentium.*

India osoan ebanjelioa zabaltzeko abiaburu izan zitekeela susmatu zuen. Hori zela, eta misio-zaletasuna bultzatzen zuen apaizgaien artean, apaizgaitegia Indiako erdialde eta iparralderako benetako bokazio-mintegi eta Kerala osorako misio-garraren irradiazio gune bihurtuz.

Malabartarren artean Misio izpiritu hau bultzatzeko *«Preshithakerala»* aldizkaria sortu zuen herri hizkuntzan 1948.ean, lehen alean Keralako katolikoei Aita Santu Leon XIII.aren hitzok zuzendu ziela : «India, zure seme-alabek ekarriko dizute Salbamena».

Era berean *«Sacred Heart Conversion League»* (1920) elkartea ere sortu zuen, hau ere doktrina katolikoa zabaltzeko hileroko aldizkaria («S.H.League») zelarik. Paganoak sinesmenera ekartzeko *«Catholic Family»* aldizkaria eta katolikoen heziketa bultzatzeko *«Home Field»* aldizkariak ere sortu zituen..

Beraren Jainkozko garra eta lehia eta arimenganako onura nahia ezaguturik sarri joten zuten beragana hitzaldiak, gogo-ihardunak emateko zein misioen aldeko ekitzetan parte hartzeko. Beraren iharduera ugaria beste eremu batzutara ere zabaltzen zen, bera beti ekintza on guztien alde izaten zelako.

4) *Heriotzea eta santutasun ospea.*

70 urte zituela hil zen 1957.eko maiatzaren 23an benetako santu baten modura. Izugarria zen Herrialde haietan, bai Ordenan bai Ordenatik kanpo, irakasle, idazle, misiolari eta santu giça zuen ospea. Beraren hilobia erromes-toki bilakatu zen.

bb. **Idazlea.**

Idazle gisa burutu zuen iharduera harritzekoa izan zen; hainbeste irakaskuntza, zuzendaritza, kultur zein misio mugimenduen sorkuntza ihardueratan buru-belarri lanean ezagutzen zutenek zurt eginda geratzen ziren. Itzelezkoa izan zen beraren argitarapen kopurua.

Ingelesez, malaialaneraz, gazteleraz, latinez, euskaraz idatzi zuen. Lerro hauen hasieran jarri dugun ohar bibliografikoan kontserbatzen diren liburukiak aipatu izan ditugu; beraien artean euskaraz idatzitako hainbat gutun eta bertso aurkitzen dira.

Baina zenbait aldizkari sortu eta beraietan zein *«Caritas»*, *«Clergy Monthly»*, *«The examiner»* eta beste batzutan sarritan parte hartzeaz gainera, argitara eman zituen liburu batzu aipatuko ditugu; batzu testu liburuak edota kultura orokorrekoak dira, baina, badira oso intesgarriak ere, hala, Hinduismoari buruzkoak:

— Gai orokorrak edo heziketari buruzkoak:

- *History of the Ancient World*, 2 Lib. Ernakulam 1923-1924.
- *Ethology, Character and Good Manners*, Alwaye ^{2}1953, 104 orr.

— Apoletika eta Teologiari buruzkoak:
- *Is there a God*, Ernakulam 1934, 340 orr.
- *Christianity Vindicated*, Alwaye 1944, 203 orr.
- *Sinopsis of Lectures of Dogmatic Theology*, Bangalore 1941, 60 orr.
- *Christ's Message an India*, Madras 1957.

— Hinduismori buruzko lanak:
- *Religio-Philosophic History of India*, Ernakulam 1921, 323 orr.
- *A Study on Hinduism*, Ernakulam 1931, 370 orr.
- *Studies on Hinduism*, 5 lib., Alwaye 1945-1952.
- *An Outline of Hinduism*, Alwaye 1956, 483 orr.
- *Christianity and Indian Mentality*, Alwaye 1952, 208 orr.

V

MARKINAKO KARMENGO ETXEKO PRIOREAK ETA HILDAKOAK ETA LEA-ARTIBAI ESKUALDEKO KARMELDARRAK HISTORIAN ZEHAR

Oraingo hau datu estatistikoz beteriko kapitulua da, bertan Markinako Karmengo komentuan priore izan direnek, bertan hildakoek zein historian zehar Lea-Artibai Eskualdeko Karmeldarrak izandakoek osoturiko zerrenda luzean jasoten baitira.

Hala ere, ez da bat ere erraza zerrenda horiek ongi osotzea, batzutan, paper eta agiri ugari aztertu beharra ekartzen duelako. Ez dezagun ahaztu, lehen ere behin baino sarriago aipatu izan duguna, hau da, frantseste eta eskIaustrazio garaian hainbat agiri galdu zirela. Batzutan, bada, zerrendak eskueskribu ugaritan arakatu ondoren osotu ditugu. Garai batzutako zerrendak, zer esanik ez, izango dute zer zuzendu edo hobetu.

A. MARKINAKO KARMENGO PRIOREAK (1691-1991)

Hiru mende hauetan zehar bi epealdi ezberdin bereiztu behar ditugu, bai agiriei dagokienean baita S.Teresaren Ordenako barruko bizimoduari dagokionean: 1) Fundazio egunetik esklaustraziorartekoa: epealdi honetako zerrendak ez dira osoak izango eta data zehatzei dagokienean ere, ez guztiz zihurrak. 2) Berreraikuntzatik (1868) gaur artekoa: zerrenda ziurrak eta fidagarriak.

1. Fundazio egunetik Esklaustraziorartekoa (1791-1839)

Epealdi honetako prioreen zerrenda egiteak zailtasunak ditu. Eskueskriburik ez dugunez («Becerro» liburua, Probintziako Kapitulu eta Definitorioetako aktak eta Kapitulu Jeneralaletakoak, etab. galduak izan dira), bidebatez, bestelako zioren batzu direla tarteko, esaterako, meza-liburu, zentsu eta abarretan ageri diren sinadurak, priore batzuren izenak jasoten dituzten agirietara jo behar izan dugu. Eta priore horien izenak Markinako Karmengo artxibategiko honako eskueskribu hauetan aurkitu ditugu:

A-I-18; A-I-23; A-I-40; A-I-54;
B-X-1;
C-VI-1; C-XVIII-1;
E-I-9;
G-II-1; G-II-4; G-II-6; G-II-8; G-II-10;
G-III-2; G-III-3; G-III-4; G-III-11; G-III-14; G-III-16; G-III-17; G-III-18; G-III-19; G-III-20; G-III-21; G-III-22; G-III-24; G-III-27; G-III-30; G-III-31;
G-IV-14; G-IV-15; G-IV-31; G-IV-38;
G-VI-1; G-VI-2...

Kontutan hartzekoak dira, era berean, esaterako, Markinako udal artxiboko dekretu liburuak, etab.

Ematen ditudan datei buruz zerbait argitu beharra dago: prioreen izenak ematerakoan, karguan agertzen direneko data zehatza edo urtea edota urtea eta hilabetea, esaterako, 1702 edo 1709-XI (1709.eko azaroa) erantsiko ditut. Eta eskuinaldean, prioretzak iraun ahal izan zuen epealdiko datak, ondorioz ez dutelarik ziurtasun osoa.

Nicolás de la Encarnación [1691], 1692	(1691), 1692-1694
→?	[1694-1697]
